

DONOSTIAKO UDAL **LARRIALDI PLANA**

DULP – 2016



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



AURKIBIDE OROKORRA

1. KAPITULUA.- IDENTIFIKAZIOA

- 1.1.- SARRERA
- 1.2.- DONOSTIAKO UDAL LARRIALDI PLANA (DULP)
- 1.3.- LEGE ESPARRUA
- 1.4.- GLOSARIOA

2. KAPITULUA.- LURRALDEAREN ANALISIA

- 2.1.- DONOSTIA UDALERRIA
- 2.2.- INGURUNE FISIKOA
- 2.3.- BIZTANLERIA
- 2.4.- AZPIEGITURAK.
- 2.5.- LURZORUAREN ERABILERAK
- 2.6.- ONDARE ERAIKIA

3. KAPITULUA.- ARRISKU ETA KALTEBERATASUNEN ANALISIA

- 3.1.- METODOLOGIA
- 3.2.- ARRISKU NATURALAK (AN)
- 3.3.- ARRISKU TEKNOLOGIKOAK (AT)
- 3.4.- ARRISKU ANTROPIKOAK (AA)
- 3.5.- ARRISKUEN IDENTIFIKAZIO, ANALISI ETA EBALUAZIOKO LABURPEN TAULA

4. KAPITULUA.- PREBENTZIO JARDUERAK

- 4.1.- ARRISKUEN PREBENTZIOA
- 4.2.- PLANGINTZA
- 4.3.- ARRISKU NATURALAK (AN)
- 4.4.- ARRISKU TEKNOLOGIKOAK (AT)
- 4.5.- ARRISKU ANTROPIKOAK (AA)

5. KAPITULUA.- ANTOLAKETA

- 5.1.- KONTZEPTUA
- 5.2.- LARRIALDIEN SAILKAPENA
- 5.3.- ANTOLAKETA ESPARRU OROKORRA
- 5.4.- HERRI BABESEKO TOKIKO BATZARRA

6. KAPITULUA.- OPERATIBITATEA

- 6.1.- KONTZEPTUA
- 6.2.- LARRIALDI FASEAK ETA ESKU HARTZEKO ZERBITZUEN MAILAK
- 6.3.- PROZEDURA OPERATIBOA
- 6.4.- KRISI MAHAIA (D-KM)
- 6.5.- NEURRI OPERATIBOAK

7. KAPITULUA.- INTEGRAZIOA

- 7.1.- INTERFASEA UDAL PLANEN ETA MAILA HANDIAGOKO PLANEN ARDURADUNEN ETA AGINTARIEN ARTEAN
- 7.2.- PLANEN ARTEKO INTERFASEA
- 7.3.- JAKINARAZPENA UDAL ETA FORU AGINTARIEI
- 7.4.- DULPetik BEHERAGOKO PLANAK

8. KAPITULUA.- BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN KATALOGOA

- 8.1.- BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN KONTZEPTUAK
- 8.2.- BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN JATORRIA
- 8.3.- BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN KATALOGOA
- 8.4.- BALIABIDEAK ETA BITARTEKOAK ELKARRI ESLEITZEA
- 8.5.- DONOSTIAKO BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN ZERRENDA

9. KAPITULUA.- EZARTZEA ETA MANTENTZEA

- 9.1.- PLANA EZARTZEA
- 9.2.- BIZTANLERIA INFORMATZEA
- 9.3.- PLANA MANTENTZEA

10. KAPITULUA.- PLANOAK

BIBLIOGRAFIA

TALDE TEKNIKO IDAZLEA

Donostiako Udaleko PSISZko ikuskatzaile-buruak ontzat emana
Imanol Andonegi Maeztu

Donostiako Udaleko PSISZko Herri Babeseko Dibisioko teknikariak
Jesús María Mendizabal Lasa / Jon Uranga Santamaría

Lurralde Informazioa eta Kartografia Atala
Donostiako Udaleko Hirigintza Jasangarriko Zuzendaritza



AURKIBIDEA

1. KAPITULUA – IDENTIFIKAZIOA

1.1.- SARRERA

1.1.1.- Herri Babesa

- 1.1.1.1.- EB: Europar Batasuna
- 1.1.1.2.- Estatua
- 1.1.1.3.- Euskadi
- 1.1.1.4.- Gipuzkoa
- 1.1.1.5.- Donostia

1.1.2.- Herri Babesaren Plangintza

- 1.1.2.1.- Lurralde Planak (arrisku anitzetarako)
- 1.1.2.2.- Plan Bereziak (arrisku bakarretarako)
- 1.1.2.3.- LABI Garatzeko Jarduera Sektorialeko Programak
- 1.1.2.4.- Jardunerako Udal Planak (arrisku bakarretarako)
- 1.1.2.5.- Taktika Operatiboak
- 1.1.2.6.- Autobabeserako planak

1.1.3.- Resilientzia

1.2.- DONOSTIAKO UDAL LARRIALDI PLANA (DULP)

1.2.1.- Aurrekariak

1.2.2.- Xedea

1.2.3.- Hedadura

- 1.2.3.1.- Funtzionala
- 1.2.3.2.- Lurraldekoa

1.3.- LEGE ESPARRUA

1.3.1.- Europa

1.3.2.- Estatua

1.3.3.- Euskadi

1.4.- GLOSARIOA

1.4.1.- Terminoak

1.4.2.- Siglak eta akronimoak

2. KAPITULUA.- LURRALDEAREN ANALISIA

2.1.- DONOSTIA UDALERRIA

2.1.1.- Euskal Autonomia Erkidegoa (Eae) eta Gipuzkoako Lurralde Historikoa (Glh)

2.1.2.- Kokagunea eta Posizioa

2.1.3.- Metropoli Eremua

- 2.1.3.1.- Donostialdea
- 2.1.3.2.- Donostialdea-Bidasoa Behereko Eremu Funtzionala
- 2.1.3.3.- Euskal Eurohiria: Donostia-Baiona

2.1.4.- Hiri Egitura

- 2.1.4.1.- Hiri Garapena
- 2.1.4.2.- Unitate Geografikoak eta Hiri Unitateak

2.1.5.- Barrutiak, Auzoak eta Enklabeak

- 2.1.5.1.- Aiete (AI)
- 2.1.5.2.- Altza (AL)
- 2.1.5.3.- Amaraberri (AM)
- 2.1.5.4.- Antigua – Ondarreta (AO)
- 2.1.5.5.- Añorga (AÑ)
- 2.1.5.6.- Ategorrieta – Ulia (AU)
- 2.1.5.7.- Erdialdea (ER)
- 2.1.5.8.- Egia (EG)
- 2.1.5.9.- Gros (GR)
- 2.1.5.10.- Ibaeta (IB)
- 2.1.5.11.- Igeldo (IG)
- 2.1.5.12.- Intxaurren (IN)
- 2.1.5.13.- Loiola (LO)
- 2.1.5.14.- Martutene (MA)
- 2.1.5.15.- Miracruz – Bidebieta (MB)
- 2.1.5.16.- Miramon – Zorroaga (MZ)
- 2.1.5.17.- Zubieta (ZU)
- 2.1.5.18.- Landarbaso (LA)
- 2.1.5.19.- Urdaburu (Oberan) (UR)
- 2.1.5.20.- Artikutza (AR)

2.1.6.- Laburpen Koadroa: Auzoak eta Enklabeak

2.2.- INGURUNE FISIKO

2.2.1.- Geologia

2.2.2.- Geomorfologia

2.2.2.1.- Itsasertzeko Erliebeak: Jaizkibel-Ulia-Mendizorrotz Monoklinala

2.2.2.2.- Donostiako Tonboloa

2.2.2.3.- Barrubete Holozenoa: Añorgako eta Urumeako

2.2.2.4.- Irun-Donostia Korridorea

2.2.2.5.- San Markos-Txoritokieta Diapiroaestuarioak

2.2.3.- Edafologia

2.2.3.1.- Lurzoru motak

2.2.3.2.- Erabilera ahalmena

2.2.4.- Klimatologia

2.2.4.1.- Tenperaturak

2.2.4.2.- Prezipitazioak: Euria, Txingorra eta Elurra

2.2.4.3.- Intsolazioa

2.2.4.4.- Haizea

2.2.4.5.- Balio Klimatologikoak (Igeldo 1981-2010)

2.2.5.- Hidrografia

2.2.5.1.- Hidrologia

1) Urumea Ibaiaren Arroa

2) Oria Ibaiaren Arroa

3) Oiartzun Ibaiaren Arroa

4) Añorga Errekaren Arroa

5) Zuzenean Kantauri Itsasora Isurtzen Diren Ur Ibilbideak

2.2.5.2.- Itsasoa eta Itsasertza

1) Ezaugarri Fisikoak

2) Ezaugarri Kimikoak

3) Ezaugarri Biologikoak

2.2.6.- Landaredia

2.3.- BIZTANLERIA

2.3.1.- Biztanleriaren Egitura

2.3.2.- Biztanleriaren laburpen koadroa, auzoenarabera

2.4.- AZPIEGITURAK

2.4.1.- Komunikazio eta Garraio Azpiegiturak

2.4.1.1.- Bide sarea

1) Hiriarteko Bide Sarea

2) Hiriko Bide Sarea

2.4.1.2.- Aparkalekuak

2.4.1.3.- Motorrik Gabekoen Sarea

1) Bizikletentzako Bidegorrien Sarea

2) Oinezkoentzako Bideen eta Zirkuituen Sarea

2.4.1.4.- Burdinbide Sarea

1) Adif-Renfe: Madril-Irun

2) Ets-Et: Donostia-Bilbo eta Donostia-Hendaia

3) Igeldoko Funikularra

2.4.1.5.- Aireportu Sarea

1) Donostia - Hondarribiko Aireportua

2) Hurbileko Aireportuak: Biarritz (BAB-Parme), Loiu (Bilbo), Foronda (Gasteiz) eta Iruñea-Noain (Iruñea)

3) Heliazalerak

2.4.1.6.- Itsasaldeko Sarea

1) Donostiako Portua

2) Pasaiaiko Portua

3) Bilboko Portua

2.4.1.7.- Garraio Publikoa

1) Distantzia Luzeko Trenak

2) Aldiriko Trenak

3) Hiriarteko Autobusak

4) Hiriko Autobusak: Dbus

5) Auto-Taxiak

2.4.1.8.- Elementu Bereziak

1) Bide Korapiloak

2) Tunelak

3) Zubiak, Biaduktuak eta Pasabideak

4) Ibilbide eta Elementu Bereziak

2.4.2.- Hiri Zerbitzuen Azpiegiturak

2.4.2.1.- Ur Hornidura

1) Añarbeko Uren Sarea (Ausa)

2) Añarbeko Presa

3) Artikutzako Presa

4) Udal Ur Sarea

2.4.2.2.- Hondakin Uren Arazketa, Hustuketa eta Estolderia

- 1) Udal Sarea
- 2) Añarbeko Uren Sarea (AUSA)
- 2.4.2.3.- Energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura
 - 1) Banaketa Orokorra
 - 2) Aireko Lineak Lurperatzea
- 2.4.2.4.- Telefonía eta Telekomunikazioa
- 2.4.2.5.- Erregai Hornidura (GASA)
- 2.4.2.6.- Hiri Hondakin Solidoen (HHS) Kudeaketa
- 2.4.2.7.- Logistika: Elikagaiak eta Salgaiak

2.5.- LURZORUAREN ERABILERAK

2.5.1.- Lurzoruaren Zonifikazioa

2.5.2.- Bizitegia

2.5.3.- Jarduera Ekonomikoak

2.5.4.- Ekipamenduak

- 2.5.4.1.- Ekipamendu eremu nagusiak
 - 1) Hiri Nagusia (CE)
 - 2) Osasun Hiria (MZ)
 - 3) Ibaetako (IB) Unibertsitate Campusa
 - 4) Anoetako (AM) Kirol Hiria
 - 5) Zubieta (ZU)
- 2.5.4.2.- Ekipamenduak
 - 1) Institutuzionala
 - 2) Osasuna/Laguntza
 - 3) Irakaskuntza
 - 4) Kultura eta Aisia
 - 5) Kirola
 - 6) Ostua
 - 7) Merkataritza
 - 8) Erljioa
 - 9) Zerbitzuak
 - 10) Garraioa eta komunikazioa
 - 11) Larrialdiak
- 2.5.5.- Parkeak eta naturguneak
 - 1) Parke Handiak
 - 2) Hiriko Parkeak
 - 3) Landa Parkeak Eta Naturguneak

2.6.- ONDARE ERAKIKIA

2.6.1.- Katalogatutako elementuak

- 2.6.1.1.- Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) Katalogoa
- 2.6.1.2.- Eraikitako Hirigintza Ondarea Babesteko Plan Berezia (EHOBPB)

2.6.2.- Eraikin bereziak

CAPITULO 3.- ARRISKU ETA KALTEBERATASUNEN ANALISIA

3.1.- METODOLOGIA

- 3.1.1.- Arriskuen identifikazioa
- 3.1.2.- Klima aldaketa: Arrisku Naturalak
- 3.1.3.- Arriskuen analisisa eta ebaluazioa
- 3.1.4.- Arrisku mailaren sailkapena

3.2.- ARRISKU NATURALAK (AN)

3.2.1.- Arrisku geologikoak

- 3.2.1.1.- Endogenoak (Barne jatorria)
 - 1) Sismikoa (SIS)
 - 2) Itsasikara
 - 3) Bolkanikoa
- 3.2.1.2.- Exogenoak (Gainazaleko jatorria)
 - 1) Lurraren Mugimenduak (LUR)
 - 2) Elurroldeak

3.2.2.- Arrisku meteorologiko edo klimatikoak

- 3.2.2.1.- Uholdeak
 - 1) Prezipitazio iraunkorrak eta/edo handiak (EUR)
 - 2) Presa edo deposituen funtzionamendu desegokia, matxura larria edo haustura
- 3.2.2.2.- Elurteak (ELU)
- 3.2.2.3.- Haize zakarrak (HZ)
- 3.2.2.4.- Muturreko tenperaturak
 - 1) Izozteak/muturreko tenperatura baxuak (TH)
 - 2) Muturreko tenperatura altuak (TB)
 - 3) Tenperatura altu iraunkorrak (TB)
- 3.2.2.5.- Itsaso-kostaldekua (its)
 - 1) Ekaitzak

- 2) Galernak
- 3.2.2.6.- Trumoi ekaitzak eta tximistak (ekt)
- 3.2.2.7.- Lehortekak (lhr)

3.2.3.- Arrisku Biotikoak

- 3.2.3.1.- Izurriak (IZT)

3.3.- ARRISKU TEKNOLOGIKOAK (AT)

- 3.3.1.- Arrisku Kimikoak (K)
- 3.3.2.- Gasolina Zerbitzuguneen Arriskua (Gasolindegia)
- 3.3.3.- Salgai Arriskutsuen Garraioaren Arriskua (SAGA)
 - 1) Salgai Arriskutsuen Errepideko Garraioa (SAEG)
 - 2) Salgai Arriskutsuen Treneko Garraioa (SATG)
 - 3) Pasaiko portuko salgai arriskutsuen itsas garraioa (SAIG)
- 3.3.4.- Arrisku Nuklearra (N)
- 3.3.5.- Arrisku Erradiologikoa (E).
- 3.3.6.- Kutsadura Arriskua (KTS)
 - 1) Kutsadura atmosferikoa
 - 2) Ur kutsadura
 - 3) Lurzoruaren kutsadura
- 3.3.7.- Oinarrizko Zerbitzuen Gabezia Arriskua (ZRB)
 - 1) Ur Hornidura
 - 2) Hondakin Uren Estolderia, Hustuketa eta Arazketa
 - 3) Energia Elektrikoaren Ekoizpena eta Hornidura
 - 4) Argiteria Publikoa
 - 5) Semaforoak
 - 6) Telefonía eta Telekomunikazioa
 - 7) Erregai-Hornidura (Gasa)
 - 8) Hondakinen Kudeaketa
 - 9) Elikagaien Hornidura (Merkatuak)
- 3.3.8.- Komunikazio eta Garraio Azpiegituren Kolapsoagatiko Arriskua (AZP)
 - 1) Errepide Sarea
 - 2) Trenbide Sarea
 - 3) Aireko Sarea (PSISZ Heliazalera)
 - 4) Itsasoko Sarea (Donostiako Kaia)

3.4.- ARRISKU ANTROPIKOAK (AA)

- 3.4.1.- Bidaia Garraioaren Istripu Arriskua (BD)
 - 1) Garraiobideak
 - 2) Biktima Anitzeko Ezbeharra (BAE)
- 3.4.2.- Sute Arriskua (SUA)
 - 1) Eraikin zibiletako suteak
 - 2) Sute industrialak
 - 3) Sute industrialak
 - 4) Garraioko suteak
- 3.4.3.- Arrisku sanitarioak (OSN)
 - 1) Intoxikazio masiboak
 - 2) Gaixotasunak, izurriak eta pandemiak
- 3.4.4.- Giza kontzentrazioen arriskua (JDT)
 - 1) Eremu irekiak
 - 2) Establezimendu publikoak
- 3.4.5.- Uretako Jardueretako Arriskua (URA)
 - 1) Itsas inguruneetako jarduerak
 - 2) Lbai inguruneetako jarduerak
 - 3) Aisialdiko jarduerak
 - 4) Kirol-proba handiak
- 3.4.6.- Ondare Historiko-Artistikoaren Arriskua (OND)
 - 1) Ondare higigarria
 - 2) Ondare higiezina

3.5.- ARRISKUEN IDENTIFIKAZIO, ANALISI ETA EBALUAZIOKO LABURPEN TAULA

4. KAPITULUA.- PREBENTZIO JARDUERAK

4.1.- ARRISKUEN PREBENTZIOA

4.2.- PLANGINTZA

4.3.- ARRISKU NATURALAK (AN)

- 4.3.1.- Arrisku geologikoak
 - 4.3.1.1.- Endogenoa: sismikoa (SIS)

4.3.1.2.- Exogenoak: lur mugimenduak (LUR)

4.3.2.- Arrisku meteorologikoak edo klimatikoak

4.3.2.1.- Uholdeak (EUR)

4.3.2.2.- Elurteak (ELU)

4.3.2.3.- Haizeteak (HZ)

4.3.2.4.- Muturreko tenperaturak

4.3.2.5.- Itsaso-kostaldekua (ITS)

4.3.2.6.- Ekaitzak eta tximistak (EKT)

4.3.2.7.- Lehortekak (LHR)

4.3.3.- Arrisku biotikoak

4.3.3.1.- Izurriteak (izt)

4.4.- ARRISKU TEKNOLOGIKOAK (AT)

4.4.1.- Arrisku kimikoak (k)

4.4.2.- Hornitegi-tako arriskua (gasolina zerbitzuguneak)

4.4.3.- Salerosgai arriskutsuak garraiatzean sor daitezkeen arriskuak (sag)

4.4.4.- Arrisku nuklearra (N)

4.4.5.- Arrisku erradiologikoa (E)

4.4.6.- Kutsaduragatiko arriskuak (KTS)

4.4.7.- Oinarritzako zerbitzuen gabeziagatiko arriskua (ZRB)

4.4.8.- Komunikazio eta garraio azpiegituren kolapsoagatiko arriskua (AZP)

4.5.- ARRISKU ANTROPIKOAK (AA)

4.5.1.- Bidaia-rik garraiatzean istripua gertatzeko arriskua (BD)

4.5.2.- Suteen ondoriozko arriskuak (SUA)

4.5.3.- Osasun arriskua (OSN)

4.5.4.- Jendetzek eragin dezaketen arriskua (JDT)

4.5.5.- Uretako jardueretako arriskua (URA)

4.5.6.- Ondare historiko-artistikoaren arriskua (OND)

5. KAPITULUA.- ANTOLAKETA

5.1.- KONTZEPTUA

5.2.- LARRIALDIEN SAILKAPENA

5.2.1.- Urgentzia edo hondamenezkoa ez den larrialdia

5.2.1.1.- Larrialdiak koordinatzeko zentroa sos-deiak (112)

5.2.1.2.- Taktika operatiboak

5.2.2.- Krisia edo larrialdi larria

5.2.2.1.- Larrialdiei aurre egiteko eta meteorologiako zuzendaritza (laemz)

1) Larrialdiak koordinatzeko zentroa sos-deiak (112)

2) Euskalmet: fenomeno meteorologiko kaltegarriak (fmk)

5.2.2.2.- Larrialdietako edo herri babeseko plangintza

1) Herri babeseko lurralde planak (hblp)

2) Herri babeseko plan bereziak (hbp).

3) Udal jardunerako planak (ujp), protokoloak (prt) eta segurtasun planak (sp)

5.3.- ANTOLAKETA ESPARRU OROKORRA

5.3.1.- Zuzendaritzako egitura

5.3.1.1.- Planaren zuzendaria (z)

5.3.1.2.- Planaren zuzendari teknikoa (zt)

5.3.1.2.- Aholkularitza batzordea (ab)

5.3.1.3.- Informazio kabinetea (infok)

5.3.1.4.- Ekintzak koordinatzeko udal zentroa (ekuz)

5.3.2.- Egitura operatiboa

5.3.2.1.- Aginte postu aurreratua (apa)

5.3.2.2.- Ekintza taldeak (et)

1) Esku hartze taldea (esht)

2) Osasun taldea (osat)

3) Segurtasun taldea (segt)

4) Talde logistikoa (tlog)

5) Laguntza teknikorako taldea (tknt)

5.3.2.3.- Aktibatu beharreko beste gune operatibo posible batzuk

1) Osasun postu aurreratua (opa)

2) Baliabideak biltzeko puntua (bbp)

3) Biktimak edo ebakuatuak biltzeko gunea (bbg)

5.4.- HERRI BABESEKO TOKIKO BATZARRA

6. KAPITULUA.- OPERATIBITEA

6.1.- KONTZEPTUA

6.2.- LARRIALDI FASEAK ETA ESKU HARTZEKO ZERBITZUEN MAILAK

6.2.1.- Faseak, egoerak eta mailak

- 6.2.1.1.- Larrialdi faseak eta egoerak
- 6.2.1.2.- Jardunbide mailak

6.2.2.- Normaltasun fasea

6.2.3.- Alerta fasea

- 6.2.3.1.- Aurrealerta egoera
- 6.2.3.2.- Alerta egoera
- 6.2.3.3.- Alerta goreneko egoera

6.2.4.- Larrialdi fasea

- 6.2.4.1.- Larrialdi egoera
- 6.2.4.2.- Alarma egoera

6.2.5.- Leheneratze fasea

6.3.- PROZEDURA OPERATIBOA

6.3.1.- Larrialdiaren jakinarazpena

6.3.2.- Planaren aktibazioa

- 6.3.2.1.- Alerta fasea
- 6.3.2.2.- Larrialdi fasea
- 6.3.2.3.- Leheneratze fasea

6.3.3.- Planaren aktibazio irizpideak

- 6.3.3.1.- Alerta fasearen aktibazioa
- 6.3.3.2.- Larrialdi fasearen aktibazioa

6.3.4.- Planaren aktibazioaren jakinarazpena

6.3.5.- Planen arteko interfasea

6.4.- KRISI MAHAIA (D-KM)

6.4.1.- Kontzeptua

6.4.2.- Krisi aretoa

6.4.3.- Funtzionamendu printzipioak

6.4.4.- Antolakuntza operatiboa

- 6.4.4.1.- Zuzendaritzako egitura: Aginte unitatea (AU)
 - 1) Aginte estrategikoa (Z)
 - 2) Aginte taktikoa (ZT)
 - 3) Krisi mahaiaren arduraduna (KMA)
 - 4) Informazio kabinetea (INFOK)
 - 5) Maila handiagoko planen ordezkariak
- 6.4.4.2.- Egitura operatiboa: talde operatiboa (to)
 - 1) Esku hartze taldea (ESHT)
 - 2) Segurtasun taldea (SEGT)
 - 3) Osasun taldea (OSAT)
 - 4) Talde logistikoa (TLOG)
 - 5) Laguntza teknikorako taldea (TKNT)

6.4.5.- Funtzionamendua

- 6.4.5.1.- Abisua
 - 1) Organo abisu emaila
 - 2) Abisua hartzea: sailkapena, jakinarazpena eta jarraipena
- 6.4.5.2.- Aktibazioa (AKT)
 - 1) Zinetika geldoa edo progresiboa
 - 2) Zinetika azkarra edo berehalako aktibazioa
 - 3) Gizarte inpaktua
- 6.4.5.3.- Eraketa (ERAK)
 - 1) Aginte unitatea (AU)
 - 2) Egitura operatiboa
- 6.4.5.4.- Azterketa (azt)
- 6.4.5.5.- Egoera eguneratua (eeg)
- 6.4.5.6.- Arrazoibide taktikoa (at)
 - 1) Galderen metodoa
 - 2) Iturria/Fluxua/Itua sistema
- 6.4.5.7.- Estrategia (estr)
- 6.4.5.8.- Taktika operatiboa (tak)
- 6.4.5.9.- Leheneratzea (lehen)

6.4.6.- Tresna grafikoak

- 6.4.6.1.- Oinarrizko arbelak
 - 1) Hasierako agindua (HA)
 - 2) Egoera taktiko eguneratua (EGTEG)
- 6.4.6.2.- Arbel operatiboak
 - 1) Esku hartzeen eskema (EHE)
 - 2) Bitartekoen kudeaketa (BK)

6.5.- NEURRI OPERATIBOAK

6.5.1.- Kalteen balorazioa eta arriskuen ebaluazioa

6.5.2.- Babeserako neurriak

- 6.5.2.1.- Biztanleria babesteko neurriak
- 6.5.2.2.- Ondasunak babesteko neurriak
- 6.5.2.3.- Sorospen neurriak
- 6.5.2.4.- Esku hartze neurriak

6.5.3.- Biztanleriarentzako informazioa

- 6.5.3.1.- Informazioa babes gisa
- 6.5.3.2.- Edukia eta ezaugarriak
- 6.5.3.3.- Transmisio bideak
- 6.5.3.4.- Abisuen sistemak

6.5.4.- Leheneratze Neurriak

- 6.5.4.1.- Kontzeptua
- 6.5.4.2.- Jardunak
- 6.5.4.3.- Zerbitzu Alternatiboak

7. KAPITULUA -INTEGRAZIOA

7.1.- INTERFASEA UDAL PLANEN ETA MAILA HANDIAGOKO PLANEN ARDURADUNEN ETA AGINTARIEN ARTEAN

7.2.- PLANEN ARTEKO INTERFASEA

7.3.- JAKINARAZPENA UDAL ETA FORU AGINTARIEI

7.4.- DULPETIK BEHERAGOKO PLANAK

8. KAPITULUA.- BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN KATALOGOA

8.1.- BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN KONTZEPTUAK

8.2.- BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN JATORRIA

8.3.- BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN KATALOGOA

8.4.- BALIABIDEAK ETA BITARTEKOAK ELKARRI ESLEITZEA

8.5.- DONOSTIAKO BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN ZERRENDA

KAPITULUA.- EZARTZEA ETA MANTENTZEA

9.1.- PLANA EZARTZEA

- 9.1.1.- Sarrera
- 9.1.2.- Plana Garatzeko Programazioa
- 9.1.3.- Ezartzea
 - 9.1.3.1.- Egin Beharreko Ekintzak
 - 9.1.3.2.- Azpiegitura
 - 9.1.3.3.- Prestakuntza, Planean
 - 1) Plana ezagutzea
 - 2) Prestakuntza programa

9.2.- BIZTANLERIA INFORMATZEA

- 9.2.1.- Informazio Politika
- 9.2.2.- Informazioaren Xedea
- 9.2.3.- Informazioaren Oinarrizko Printzipioak

9.3.- PLANA MANTENTZEA

- 9.3.1.- Kontzeptua
- 9.3.2.- Mantentze Programa
- 9.3.3.- Materiala Aldian Behin Egiaztatzea
- 9.3.4.- Etengabeko Prestakuntza, Planean
- 9.3.5.- Trebakuntza Ariketak

- 9.3.6.- Simulakroak
- 9.3.7.- Eguneratzea eta berrikustea
- 9.3.8.- Herri Babeseko Tokiko Batzarra (HBTB)

10. KAPITULUA -PLANOAK

1. Planoa - Kokapena eta Ingurunea
2. Planoa - Udal Barrutia: Hiri Egitura
3. Planoa - Ingurune Fisikoa
4. Planoa - Azpiegiturak 1: Komunikazioa eta Garraioa
5. Planoa - Azpiegiturak 2: Ur Hornidura
6. Planoa - Azpiegiturak 3: Saneamendua
7. Planoa - Azpiegiturak 4: Energia Elektrikoa eta Telekomunikazioa
8. Planoa - Azpiegiturak 5: Gasa, Hiri Hondakin Solidoak eta Logistika
9. Planoa - Lurzoruaren Erabilerak
10. Planoa - Ekipamenduak
11. Planoa - Laemz Arriskuen Mapa
12. Planoa - Arrisku Naturalak
13. Planoa - Arrisku Teknologikoak
14. Planoa - Arrisku Antropikoak
15. Planoa - Larrialdirako Baliabideak

BIBLIOGRAFIA

1) LURRALDEAREN AZTERKETA.

- 1.1) Donostiako Geografia eta Historia.
Egileak: Javier Gomez Piñeiro y Juan Antonio Sainz García. INGEBA. 2010.
- 1.2) Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, 2010.
Egileak: Donostiako Udaleko Plan Orokorren Bulegoa

2) HERRI BABESA

- 2.1) Herri Babesaren eskuliburua.
Egilea: Pedro Anitua. Eusko Jaurlaritzako Argitalpenen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz, 2007.
- 2.2) Donostiako Udalerriko Larrialdi Plana, 1989.
Egilea: Itsemap Ibérica SA.
- 2.3) Donostiako Udal Larrialdi Plana, 1997.
Egilea: Ondoan, Energia eta Ingurumena

WEBGUNEAK

1) ANÁLISIS DEL TERRITORIO

- 1.1) www.euskadi.eus
- 1.2) www.gipuzkoa.eus
- 1.3) www.donostia.eus
- 1.4) www.euskalmet.eus
- 1.5) ww.aemet.es

1) LURRALDEAREN AZTERKETA

- 1.1) www.euskadi.eus
- 1.2) www.gipuzkoa.eus
- 1.3) www.donostia.eus
- 1.4) www.euskalmet.eus
- 1.5) ww.aemet.es

2) HERRI BABESA

- 2.1) www.proteccioncivil.es
- 2.2) www.ign.es
- 2.3) www.interior.ejgv.euskadi.eus
- 2.4) www.gipuzkoa.eus
- 2.5) www.donostia.eus
- 2.6) www.euskalmet.eus
- 2.7) ww.aemet.es
- 2.8) www.uragentzia.eus
- 2.9) www.agasa.es
- 2.10) www.chcantabrico.es

INFORMAZIO KARTOGRAFIKO

1) LURRALDEAREN AZTERKETA

- 1.1) GIS Donostia.
- 1.2) Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 2010 (HAPO)

2) HERRI BABESA

- 1.1) GeoEuskadi. Eusko Jaurlaritza
- 1.2) B5Map. Gipuzkoako Foru Aldundia



1.1.- SARRERA

1.1.1.- HERRI BABESA

Doktrinaren arabera, HERRI BABESA pertsonen segurtasuna eta bizia arriskuan egotea edo jende ugari hiltzea eragin dezaketen arrisku kolektibo larriko egoeretan, hondamen publikoetan edo ezohiko hondamendietan pertsonen eta ondasunetako babes fisikoa ematea da.

Hala, herri babesa zerbitzu publiko bat da, eta haren eskumena administrazio publikoei dagokie.

Herri babesa antolatzeke ez da beharrezkoa berariazko zerbitzuak edo talde berezi berri bat sortzea, ezta beste zerbitzu publiko batzuen funtzioak ordeztzea edo betetzea ere. Haren xedea da aurre egin nahi zaion larrialdiarekin lotutako zerbitzu publiko guztiak ANTOLATZEA, PLANIFIKATZEA, KOORDINATZEA eta ZUZENTZEA.

Antolakuntza horretako funtsezko pieza da HERRITARRA, hura ere eragile aktiboa baita herri babeseko lanetan. Hortaz, indarreko legedian ezarritakoaren arabera, herritarrek, adinez nagusi direnetik aurrera, pertsonalki eta materialki herri babesean laguntzeko betebeharra izango dute, agintaritzaren eskudunek hala eskatuz gero.

Herri babesaren **ONARRIZKO FUNTZIOAK** sei (6) hauek dira:

- 1) AURRERAPENA:** mehatxu posibleetan eta kalteberatasun baldintzetan oinarrituta lurralde bateko arriskuak zehaztea, egoera arriskutsuei buruzko informazioa eta iragarpenak biltzea ahalbidetuko duten azterketen bidez (arriskuen inbentarioa).
- 2) PREBENTZIOA:** larrialdi arrisku eta mehatxuen ondorio kaltegarri posibleak eskura dauden baliabideekin saihestera edo arintzera bideratutako neurrien eta ekintzen multzoa.
- 3) PLANGINTZA:** arrisku kolektibo larriagatik, hondamendiagatik edo hondamen publikoagatik larrialdi batean pertsonak eta ondasunak babesteko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak mobilizatzea ahalbidetuko duten mekanismoen eta esparru organiko-funtzionalaren aurreikuspena, baita esku hartu behar duten administrazio publikoen arteko koordinaziorako eskema ere (larrialdi planak).
- 4) BEREHALAKO ERANTZUNA ETA ESKU HARTZEA:** larrialdi bat jazo ostean edo larrialdia sor lezakeen egoera batean esku hartu eta lagundu behar duten zerbitzu publiko edo pribatuak zuzentzeko eta koordinatzeko ekintzen multzoa; ekintza horien helburua da kalteak ekiditea, pertsonak nahiz ondasunak salbatzea eta babestea, herritarren segurtasuna zaintzea eta kalteetuen oinarrituko premiak asetzea.
- 5) LEHENERATZEA:** eremu kalteetan normaltasuna leheneratzeko ezinbestekoak diren baldintza sozial, ekonomiko nahiz ingurumenekoak eta oinarrituko zerbitzu publikoak berrezartzea xedetzat duten ekintzak eta neurriak, erakunde publiko zein pribatuak bideratzen dituztenak berehalako erantzuna amaitu ostean.
- 6) EBALUAZIOA:** larrialdiak iraun bitartean sortutako egoerak eta gauzatutako esku hartzeak aztertzeko eta ebaluatzeko neurrien multzoa, xedetzat duena etengabe hobetzea arriskuak eta larrialdiak kudeatzeko erantzunaren kalitatea.

Herri babesa hainbat eskumen MAILATAN egituratzen da, honako hauek, kasu honetan:

- 1) Europar Batasuna (EB).**
- 2) Espainiako Estatuak.**
- 3) Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE).**
- 4) Lurralde Historikoak: Gipuzkoako Lurralde Historikoa (GLH).**
- 5) Tokiko maila edo udal maila: Donostia hiria.**

1.1.1.1.-EUROPAR BATASUNA

Indarrean dagoen *Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunak (EBFI)*, Erromako Itunaren (1957) ondorengoak, Europako Erkidegoko metodo edo sistemaren metodologia eta engranaje juridiko-politikoak zehazten ditu, eta horren baitan ezarrita daude EUROPAR BATASUNAK (EB) gauzatu beharreko politika zehatzak.

Itun horren XXIII. Titulua.- Herri Babesa. 196) artikulua dionenaren arabera, EBk kide diren estatu guztien arteko lankidetzaren sustatuko du, hondamendi naturalen eta giza jatorriko hondamendien prebentzio sistemen eta babes sistemen eraginkortasuna hobetze aldera.

Xedapen hori garatzeko, gaur egun indarrean dago Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1313/2013/UE zenbakidun ERABAKIA, 2013ko abenduaren 17koa, Batasunaren Herri Babeseko Mekanismo bati buruzkoa, eta, erabaki horren arabera, mekanismo horrek xedetzat du estatu kide guztien koordinazioa mesedetzea, osatzea eta erraztea, herri babesaren arloko helburu espezifiko komunak lortu ahal izateko.

Azkenik, Batzordeak 2014ko urriaren 16an hartutako Beteazteko ERABAKIAK garatzen du aurretik aipatutako Europar Batasunaren Herri Babeseko Mekanismoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1313/2013/UE zenbakidun Erabakia garatzeko arauak ezartzen baititu, eta 2004/277/CE Euratom eta 2007/606/CE Euratom erabakiak indargabetu.

Hala, herri babeseko politikei dagokienez, Europar Batasunak lankidetzarako estrategia komuna garatzen du gaur egun, eta herrialde kideen ekintzak koordinatzeko eta horiei laguntzeko funtzioak betetzen ditu.

1.1.1.2.- ESTATUA

ESPAINIAKO ESTATUAREN herri babeseko sistemak 1978ko Espainiako Konstituzioan (EK) du oinarri juridikoa, 2., 15., 30.4. eta 103. artikuluetan, hain zuzen; eta baita *uztailaren 9ko 17/2015 Legean ere, Herri Babeseko Sistema Nazionalari buruzkoan* (HBSNL), zeina 2016ko urtarrilaren 10ean sartu zen indarrean, urtarrilaren 21eko Herri Babeseko 2/1985 Legearen ordeztu.

Herri Babeseko Sistema Nazionalaren araudia *Herri Babeseko Oinarritzako Araua (BZOA)* onartzen duen apirilaren 24ko 407/1992 Errege Dekretuaren bidez garatzen da.

Hala, indarreko legediaren arabera, larrialdiak interes nazionalekoak dira kasu hauetan:

1. Alarma, salbuespen eta setio egoerak erregulatzen dituen ekainaren 1eko 4/1981 Lege Organikoa aplikatu behar bada pertsonak eta ondasunak babesteko.
2. Beharrezkoa bada hainbat administrazioen arteko koordinazioa aurreikustea, larrialdiek hainbat autonomia erkidegotan dutelako eragina eta autonomiaz gairik bitartekoen ekarpena behar delako.
3. Egiazko hedaduragatik edo aurreikus daitekeen hedaduragatik zuzendaritza nazionala behar badute.

Estatuaren esparruan, herri babesa Barne Ministerioaren egituraren baitan dago, Herri Babeseko eta Larrialdietako Zuzendaritza Nagusian.

1.1.1.3.- EUSKADI

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, *Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarenak (EHAE)*, 17. artikuluan, EUSKAL Autonomia Erkidegoko (EAE) erakundearen esku uzten du lurraldeko pertsonen eta ondasunen babesa. Hortaz, EAERI dagokio bere lurraldeko herri babesa antolatzea.

Hala, *Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legea (LKL)* da EAEko herri babesa garatzen duen lehen legea. Horrek ezarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritza da EAEko herri babesa zuzentzeko eta koordinatzeko organo gorena, dagozkion eskumenen esparruan, eta funtzio hauek ditu:

1. Euskadiko Herri Babeseko Plana (LABI) eta plan bereziak onartzea.
2. Herri babesaren arloko xedapen orokorrak onartzea.
3. Prebentzioko eta autobabeseko politikaren oinarritzako gidalerroak finkatzea.

Lege hori orainsu aldatu du 5/2016 Legeak, apirilaren 21ekoak, Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzekoak.

Gaur egun, Euskadin, herri babesa Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren egituraren baitan sartuta dago, LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIARI ZUZENDARITZAN (LAEMZ).

Zuzendaritza hori arduratzen da LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EUSKAL SISTEMA (LAEES) koordinatzeaz, erantzun integrala emateko Euskadin gerta daitekeen edozein larrialdiri: bai larrialdi katastrofiko edo hondamenezkoei, bai larrialdi arinagoi, zeinak, gizartean gorabeherarik eragiten ez badute ere edo oinarritzako zerbitzuak gainezkatzen ez badituzte ere, erantzun koordinatua eta eraginkorra behar duten. LAEES larrialdiei aurre egiteko sistema koordinatu eta integrala da, eta elkarrekin erlazionatuta dauden lau (4) ZERBITZU osagarri hauetan egituratzen da:

- 1) **PLANGINTZA zerbitzua:** Euskadiko Herri Babeseko Plana (LABI), plan bereziak eta herri babesaren arloko beste xedapen orokor batzuk idazteaz arduratzen da.
- 2) **LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZERBITZUA (SOS-DEIAK 112):** Euskadin larrialdiak kudeatzen eta koordinatzen ditu Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren bitartez (SOS-DEIAK 112), larrialdi deiaren arretarako zerbitzu gisa.
- 3) **ESKU HARTZE zerbitzua:** zerbitzu operatibo arrunt bateratuen multzoa da; zerbitzu horiek iraunkorrak dira, funtzio espezifikoak dituzte eta larrialdietan esku hartzeko prest daude 365 egunez eta 24 orduz (LAEMZ,

Osakidetza, foru aldundietako eta udaletako SISZk eta Ertzaintza).

4) METEOROLOGIA zerbitzua (EUSKALMET-Euskal Meteorologia Agentzia): Fenomeno Meteorologiko Kaltegarrien (FMK) abisuekin lotutako informazio meteorologikoa emateaz arduratzen da.

LAEESk Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren Protokolo Operatiboa du, eta TAKTIKA OPERATIBOAK (TO) zehaztuz gauzatzen du. Hala, taktika operatiboak katastrofikoak ez diren gorabehera erantzuteko mekanismo gisa ezartzen dira, eta *2001eko abuztuaren 1eko Aginduak arautzen ditu, baita hori aldatzen duten 2007ko martxoaren 20ko Aginduak, 2012ko urriaren 8ko Aginduak eta 2016ko otsailaren 1eko Aginduak ere (azken hau indarrean dagoelarik).*

Bestalde, Euskadiko Herri Babeseko Plana (LABI) ekainaren 24ko 153/1997 Dekretuaren bidez onartu zen; dekretu hori *"Larrialdiei Aurregiteko Bidea – LABI" deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzekoa* eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio bideak arautzekoa zen. Ondoren, urtarrilaren 13ko 1/2015 Dekretuaren bidez LABIren azterketa berezia onartu zen.

Amaitzeko, EAEk arrisku espezifikoak buruzko 6 Plan Berezi (PB) ditu onartuta, eta horietako bakoitza dagozkion oinarriko gidalerroekin bat etorrita dago idatzita.

1.1.1.4.- GIPUZKOA

GIPUZKOAKO Lurralde Historikoan Gipuzkoako Foru Aldundiari (GFA) dagokio herri babesaren alorreko jarduna, eta horretarako zerbitzu propioak ditu, eta lankidetzan jardun dezake udalerriez gaindiko zerbitzuekin, udal zerbitzuekin eta herri babesarekin lotutako beste administrazio publiko batzuetako zerbitzuekin edo bestelako zerbitzu partikularrekin, lurraldean kokatuta badaude, betiere.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eskumenak *Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikotako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea* (LHL) jasota daude. Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen 6. artikuluan ezarrita dago eskumen horiek nola garatzen diren herri babesaren arloan, eta eskumen horietako bat da, hain zuzen, lurralde historikoko Herri Babeseko Plana egitea eta onartzea.

Hala bada, GFak GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO LARRIALDIETARAKO FORU PLANA (GLHLFP) idatzi zuen, 2010eko ekainaren 29an onartu eta 2010eko azaroaren 3an homologatu zena.

1.1.1.5.- DONOSTIA

Herri babesari begirako udal eskumena *Toriko Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea* (TAOAL) erregulatzen du. 25. eta 26. artikuluetan ezarritakoaren arabera, 20.000 biztanletik gorako udalerrien kasuan, hala nola DONOSTIAREN kasuan, udalerrien beren eskumena izango da, beti, herri babeseko zerbitzuak ematea.

Onartu berri den, 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17. artikulua.– Udalerrien eskumen propioak, beste eskumenen artean, udalei dagokienak hurrengoak ezartzen ditu:

1) Babes zibila, emergentziak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea antolatzea eta kudeatzea.

Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen 7. artikulua herri babeseko udal eskumen horien garapena ezartzen du. Bestalde, adierazi beharra dago herritarrengandik eta haien errealitatetik oso hurbil dagoenez udalerriak berebiziko garrantzia duela herri babesaren arloan.

Hortaz, ahalmena badu bere baliabide nahiz bitartekoen bidez udal barrutiaren mugen barruko larrialdi egoera bati aurre egiteko, Donostiako Udalak berak arduratu behar du herri babesaren arloko jardunaz, horretarako ezarrita dauden udal zerbitzuen bidez; jardun horretan, lankidetzan aritu daiteke herri babeserako interesgarriak izan eta udal barrutian egoitza duten gainerako administrazioekin edo partikularrekin.

Horrelakoetan, ALKATEAK zuzendu eta koordinatuko ditu larrialdi egoeretako herri babesarekin erlazioatutako ekintzak, larrialdiak udal barrutia gainditzeko ez badu, betiere.

Onartutako erantzukizunei erantzuteko asmoz, Donostiako Udalak herri babeseko zerbitzu bat du PREBENTZIO, SU ITZALKETA ETA SALBAMENDU ZERBITZUAREN (PSISZ) baitan: HERRI BABESEKO DIBISIOA. Une honetan, herri babeseko bi teknikarik osatzen dute dibisio hori, eta PSISZ osoaren laguntzaz eta dibisioaren esku hartzea behar duten gainerako udal zerbitzu guztiekin lankidetzan garatzen dute euren egitekoa.

Herri Babeseko Dibisioak funtzio hauek betetzen ditu, besteak beste:

1) Udal Larrialdi Plana proposatzea eta eguneratzea.

2) Uholdeei, elurteei eta bestelako arrisku espezifikoak begira udalerrian ezar daitezkeen Plan Bereziak eta gertakizun planak egitea eta eguneratzea.

- 3) Larrialdiei erantzuteko udal protokolo operatiboak egitea eta ezartzea.
- 4) Herri babeseko beste erakunde batzuekiko komunikazioez arduratzea.
- 5) Segurtasun Planak prestatzea Udalak antolatzen dituen ekitaldietarako (adibidez, suak, estropadak...) edo udal egiturak tartean dauden ekitaldietarako –dela ekitaldi horietan udal instalazioak erabiltzen direlako, dela ekitaldi horiek hirian gauzatzen direlako–, eta plan horiek gainbegiratzea eta bertatik bertara koordinatzea.
- 6) Hiriko hondartzetako Segurtasun eta Zaintza Plana gainbegiratzea.
- 7) Zerbitzuaren irati komunikazioko sistemez eta informatikako aplikazioen garapenez arduratzea.
- 8) Beste erakunde batzuekiko informazio sistemak eguneratuta izatea larrialdi egoeretan eta larrialdiei erantzuteko udal protokoloak aktibatzea.
- 9) Plan Berezietatik eratorritako Krisi eta Jarraipen Mahai Teknikoak koordinatzea.
- 10) Ezbeharrak gertatu den tokira joatea, haren izaeragatik eta garrantziagatik beharrezkoa izanez gero (materia arrisksuekin jazotako istripuak, luiziak, husteak, etab.).

Gaur egun, hiriak 1997ko DONOSTIAKO UDAL LARRIALDI PLANA (DULP1997) dauka, Tokiko Gobernu Batzarrak onartua eta Euskadiko Herri Babeseko Batzordeak 1998ko apirilaren 18an homologatua.

PLAN TERRITORIAL DE PROTECCION CIVIL DE DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN – DONOSTIAKO UDAL LARRIALDI PLANA 2016 (PEMDSS-DULP2016) DULP1997 planaren berrazterketa da, eta hura eguneratu eta ordeztu nahi du. DULP2016 udalerriko herri babesaren antolamendu orokorrerako oinarria da, baina horrez gainera Udal Jardunerako Planak, Jardunbide Protokoloak nahiz Segurtasun eta Larrialdi Planak ere badaude, era askotako arrisku espezifikoek buruzkoak

1.1.2.- HERRI BABESAREN PLANGINTZA

Herri babeseko 3. oinarritzko funtzioari dagokionez, hau da, plangintzari dagokionez, adierazi beharra dago plangintza hori egiteko hainbat motatako planak prestatzen direla. Hala, honako hau da HERRI BABESEKO PLANA: arrisku kolektibo larria, hondamendia edo hondamen publikoa izanez gero pertsonak eta ondasunak babesteko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak mobilizatzea ahalbidetuko duten mekanismoen eta esparru organiko-funtzionalaren aurreikuspena, baita esku hartu behar duten administrazio publiko guztien arteko koordinaziorako eskema ere.

Hau da, Herri Babeseko Plana larrialdi egoera bati erantzuteko ALERTA emango dela eta giza baliabideak zein baliabide materialak MOBILIZATU ETA KOORDINATUKO direla bermatzen duten prozeduren multzoa da.

Plan horiek ezinbestekoak dira hainbat arrazoiengatik:

- a) Erantzun denbora laburtzen dute.
- b) Erantzuna arazoaren errealitatera egokitzen dute.
- c) Sistematika eskaintzen dute, hau da, nahasmena eta kaosa ezabatzen dituzte.
- d) Biktimak eta kalteak gutxitzen dituzte.
- e) Berriz normaltasuna lortzen laguntzen dute (berrezarpena eta leheneratzea).

HBSNk, HBOAk, LKLk eta LABI deritzan Euskadiko Herri Babeseko Planak zehazten dituzte EAEko Herri Babeseko Planen oinarriak: zeren plangintza egin behar den adierazten dute; administrazio publiko guztien artean behar den koordinazioa lortzearen plangintza horrek zer irizpide orokor izan behar dituen zehazten dute, eta bizkor aplikatu daitezkeen talde operatibo batean barnerratzeko zer baldintza bete behar diren ezartzen dute.

Hala, plangintzarako eskema orokor hau ezartzen da EAEn herri babeserako:

A) Herri Babeseko Planak.

1.- Lurralde Planak (arrisku anitzetarako).

- a) Euskadiko Herri Babeseko Lurralde Plana (LABI).
- b) Lurralde Historikoetako Herri Babeseko Lurralde Planak.
- c) UDALETAKO HERRI BABESEKO LURRALDE PLANAK (arrisku anitzetarako).

2.- Plan Berezia (arrisku bakarrerako).

- a) HBOAn aurreikusiak.
- b) HBOAn aurreikusi gabeak.

B) Jardunbide Sektorialeko Programak.

C) JARDUNERAKO TOKIKO PLANAK ETA FORU PLANAK (arrisku bakarrerako).

D) Taktika operatiboak.

E) Autobabeserako planak.

1.1.2.1.- LURRALDE PLANAK (ARRISKU ANITZETARAKO)

LURRALDE PLANAK ARRISKU ANITZETARAKO planak dira, eta lurralde bakoitzean gerta daitezkeen larrialdi orokorrekin aurre egiteko prestatzen dira; prebentzioarekin lotutako alderdiak eta alderdi operatiboak jasotzen

dituzte, eta antolakuntzarako egitura orokorra ezartzen dute, gai izango dena hainbat arrisku egoerari aurre egiteko, edozein dela ere horien izaera, planean aurreikusita egon ala ez. Hortaz, lurralde eremu jakin batean herri babeseko antolamendu orokorra ezartzeko asmoz egindako dokumentu teknikoak dira.

Lurralde planak euren eskumen esparruan dagozkien administrazioek onartu behar dituzte, eta Euskadiko Herri Babeseko Batzordeak homologatu behar ditu.

Eusko Jaurlaritzari dagokio Euskadiko Herri Babeseko Lurralde Plana prestatzea eta onartzea. Hala, *ekainaren 24ko 153/1997 Dekretuaren bidez onartu zen "LARRIALDIEI AURREGITEKO BIDEA – LABI" deritzan EUSKADIKO HERRI BABESEKO PLANA*, baita larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio bideen araudia ere. Urtarrilaren 13ko 1/2015 Dekretuaren bidez LABIren azterketa berezia onartu zen.

Bestalde, GFAk du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Lurralde Plana egin eta onartzeko eskumena. Hala, 2010eko ekainaren 29an, Diputatuen Kontseiluak GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO LARRIALDIETARAKO FORU PLANA (GLHLFP) onartu zuen. Ondoren, 2010eko azaroaren 3an, Euskadiko Herri Babeseko Batzordeak plan hori homologatu zuen.

Azkenik, Donostiak 20.000 biztanle baino gehiago dituenaz, Donostiako Udalak udal lurralde plana egin eta onartu behar du. Hala, 1989ko azaroan idatzi zen lehenengo DONOSTIAKO UDAL LARRIALDI PLANA (DULP1989). Plan hori 1997an berraztertu zen, eta DONOSTIAKO UDAL LARRIALDI PLANA 1997 (DULP1997) idatzi zen. Urte hartako azaroan Tokiko Gobernu Batzarrak plan hura onartu zuen, eta gerora, 1998ko apirilaren 18an, Euskadiko Herri Babeseko Batzordeak homologatu zuen. Azken plan hori dago indarrean gaur egun, eta horixe berraztertuko da DULP2016 planarekin.

1.1.2.2.- PLAN BEREZIAK (ARRISKU BAKARRERAKO)

PLAN BEREZIAK ARRISKU BAKARRERAKO planak dira, eta arrisku zehatzari aurre egiteko prestatzen dira, arrisku horiek HBOAn aurreikusita egon ala ez. Arrisku horiei aurre egiteko, metodologia tekniko-zientifiko espezifikoak behar da, dela jarduera sektoreagatik, larrialdi motarengatik edo jarduera motarengatik.

Eusko Jaurlaritzak honako plan berezi hauek ditu:

- 1) Uholdeen Ziozko Larrialdiko Plan Berezia 2015 (UZPB).
- 2) Baso Suteetarako Larrialdi Plan Berezia 2016 (BSPB).
- 3) Arrisku Sismikorako Larrialdi Plana 2007 (ASLP).
- 4) Arrisku Erradiologikoari Aurre Egiteko Larrialdi Plan Berezia 2014 (AEPB).
- 5) Errepidez eta trenez salerosgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko plan berezia 2001 (SAGAPB).
- 6) Kanpoko Larrialdi Planak (Enpresa Kimikoak) 2014 (AKPB).

1.1.2.3.- LABI GARATZEKO JARDUERA SEKTORIALEKO PROGRAMAK

LABI GARATZEKO JARDUERA SEKTORIALEKO PROGRAMAK herri babesaren arloan plangintza egiteko tresnak dira, herri babeseko planak garatzen dituztenak. Osatu edo eraginkor bihurtzen dituzte herri babeseko planetako bitarteko nahiz baliabideen ekarpen zehatzak edo ezaugarri partzialak.

Programa horien eginkizuna zera da, ezaugarri partzialak, baldintza zehatzak edo baliabide zein bitartekoen ekarpenak arautzea, herri babeseko planak osatzeko edo eraginkor bihurtzeko. Horrelako programak dira, esate baterako, Segurtasun Programa, Errepideetako Programa, Garraio Programa, Osasun Programa, Aterpe eta Laguntza Programa eta Hornidura Programa.

1.1.2.4.- JARDUNERAKO UDAL PLANAK

JARDUNERAKO UDAL ETA FORU PLANAK arrisku bakarrerako jarduera protokoloak dira. Udal edo foru agintaritzek egiten dituzte, eta bertan adierazita daude Herri Babeseko Oinarrizko Arauan jasotako arrisku espezifikoari aurre egiteko prozedurak. Plan Bereziak jarraibideen arabera egiten dira.

1.1.2.5.- TAKTIKA OPERATIBOAK

Taktika operatibo bat gerta litekeen gorabehera tipifikatu bati erantzuna emateko prestatutako plan sinoptiko bat da. Taktika operatiboaren sistema larrialdiei aurre egiteko sistemak katastrofikoak ez diren gorabeherari erantzuteko erabiltzen duen mekanismoa da.

LAEESren TAKTIKA OPERATIBOAK (TO) bat datoz Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren (SOS-Deiak 112) Protokolo Operatiboarekin. Zentro hori, aldi berean, larrialdi deiak jasotzeaz eta Euskadiko larrialdiak kudeatu eta koordinatzeaz arduratzen da.



Hala, taktika operatiboak katastrofikoak ez diren premiazko gorabeherai edo hondamenezkoak ez diren larrialdiei erantzuteko mekanismo gisa ezartzen dira, eta 2001eko abuztuaren 1eko Aginduak arautzen ditu, baita hori aldatzen duten 2007ko martxoaren 20ko Aginduak eta 2012ko urriaren 8ko Aginduak ere.

2001eko abuztuaren 1eko Aginduaren bidez, Herrizaingo sailburuak Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren TAKTIKA OPERATIBOAK (TO) onartu zituen, eta Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko Zerbitzua sortu zuen. Taktika operatibo horiek zenbait alditan aldatu dira, lehenengoz 2007ko martxoaren 20ko Aginduaren bidez, bigarrenaz 2012ko urriaren 8ko Aginduaren bidez, eta azkenik, eta egun indarrean dagoena, 2016ko otsailak 1eko Aginduaren bidez.


1.1.2.6.- AUTOBABESERAKO PLANAK

Autobabesa, definizioz, zera da, jarduera publiko edo pribatu baten titularrek euren bitarteko eta baliabideak erabiliz eta euren eskumeneko eremuan gauzatutako ekintzen eta hartutako neurrien sistema, ekintza eta neurri horiek xedetzat dutelarik pertsonak eta ondasunek dituzten arriskuak aurreikusi eta kontrolatzea eta, halaber, titularren ardurapeko eremuan gerta litezkeen larrialdi egoerei erantzun egokia ematea. Ekintza eta neurri guztiak herri babeseko sistema publikoarekin bateratuta daudela bermatu behar da.

AUTOBABESERAKO PLANA (AUTP) 277/2010 Dekretuak jarduera bat hartzen duen zentro edo establezimendu baterako aurreikusi eta araututako esparru organiko eta funtzionala da, gune horren autobabesa bermatzera bideratua.

277/2010 DEKRETUAK, azaroaren 2koak, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduk larrialdiei aurre egiteko dituzten autobabes betebeharrak arautzen dituenak, honako hau ezartzen dut Xedapen Iragankorrean: I. Eranski-nean jasotako jarduerak 2014ko abenduaren 15era arteko epea zutela autobabeserako planak prestatzeko.

Babes zibileko planifikazioa



1.1.3.- ERRESILIENTZIA

Azkenaldian, ERRESILIENTZIA kontzeptua erabili ohi da hiriek jasan ditzaketen krisi egoerei eta egoera horiek gainditzeko duten ahalmenari buruz hitz egiteko. Herri babesaren helburua denez larrialdi egoera batean zerbitzu publiko guztiak antolatzea, planifikatzea, koordinatzea eta zuzentzea, herri babesaren arloan arrisku anitzetarako Donostiako lurralde plangintza ezarri nahi duen dokumentu honetan jasota dator kontzeptu hori.

Hala, jatorrian psikologian, ekologian edo materialen erresistentziaren arloan erabiltzen bazen ere, kontzeptu hori orokortuta dago gaur egun, eta hainbat eremutan aplikatzen da, hala nola hirienean. Psikologian, zehazki, gizakiok muturreko egoerak malgutasunez onartzeko eta horiek gainditzeko dugun ahalmentzat jotzen da erresilientzia.

Kontzeptu hori hiriei aplikatzen zaie orain, HIRI ERRESILIENTZIA terminoa erabiliz, eta mehatxu baten eraginpean dagoen hiri batek mehatxu horren ondorioak jasateko, xurgatzeko, horietara moldatzeko eta egoera leheneratzeko duen ahalmen gisa definitzen da, barne hartuta oinarritzko egiturak eta funtzioak babesteko eta berrezartzeko ahalmena.

Sistemen sistema izaki, hiria konplexua da, eta, ondorioz, hiri erresilientzia askotarikoa eta zeharkakoa da, eta beharrezkoa da erresilientziarekin zerikusi zuzena edo zeharkakoa duten eragile ugariak esku hartzea. Hala, hiri baten erresilientzia hainbat eremutan aztertu eta ebalua daiteke, hala nola ingurumenean, gizarte gaitan, azpiegiturretan (energia, garraioa, ura...), zerbitzuetan (suhiltzaileak, osasuna...), ekonomian, kulturen eta ondarean.

Illo horretan, HERRI BABESAK, hirian gerta daitezkeen krisi edo larrialdi egoeretan oinarritzko 6 funtzio bete behar dituzenez (aurrerapena, prebentzioa, plangintza, berehala erantzuna eta esku hartzea, leheneratzea eta ebaluazioa), funtsezko eginkizuna izan behar du hiri erresilientzian eta haren etengabeko hobekuntzan, egoera horietan esku hartzen duten beste eragile batzuekin batera.

1.2.- DONOSTIAKO UDAL LARRIALDI PLANA (DULP)

1.2.1.- AURREKARIAK

Indarreko araudia betez, Donostia hiriak Udal Larrialdi Plana du 1989az geroztik. 1989ko azaroan idatzi zen lehengo DONOSTIAKO UDAL LARRIALDI PLANA (DULP1989).

Plan hori 1997ko azaroan berritu zen, Tokiko Gobernu Batzarrak DONOSTIAKO UDAL LARRIALDI PLANA 1997 (DULP1997) onartu zuenean; plan hori 1998ko apirilaren 18an homologatu zuen Euskadiko Herri Babeseko Batzordeak.

DULP1997 indarrean egon den urteetan, ezarritako esparruaren baitan eta hura garatzeko, PSISZren HERRI BABESEKO DIBISIOAK udalerriko herri babesarekin lotutako zenbait dokumentu sortu ditu:

1) UDAL JARDUNERAKO PLANAK (UJP).

- 1.1) Urumea ibaiak gainezka egitean sor daitezkeen uholdeei aurre egiteko udal jardunerako plana (UUJP), REV002-2015 (002 berrazterketa, 2015. urtea).
- 1.2) Elurteetarako Udal Jardunerako Plana (ELUUJP), REV007-2014 (007 berrazterketa, 2014. urtea).
- 1.3) Igeldoko Baso-Suteen aurkako Udal Ekintza Plana (Igeldo BSUEP) 2016.
- 1.4) Uliako Baso-Suteen aurkako Udal Ekintza Plana (Ulia BSUEP) 2017rako aurreikusita.
- 1.5) Altzako Baso-Suteen aurkako Udal Ekintza Plana (Altza BSUEP) 2018rako aurreikusita.
- 1.6) Landarbasoko Baso-Suteen aurkako Udal Ekintza Plana (Landarbaso BSUEP) 2018rako aurreikusita.

2) JARDUNBIDE PROTOKOLOAK EDO GIDAK (PRT).

- 2.1) Olatu handiak daudenerako jardunbide Protokoloa (PRT-OLATUAK), REV001-2014 (001 berrazterketa, 2015. urtea).
- 2.2) Haize zakarra dabilenerako jardunbide Protokoloa (PRT-HAIZEAK), datarik gabe.
- 2.3) Euri ugari ari duenerako jardunbide Protokoloa (PTR-EURIAK), datarik gabe.
- 2.4) Muturreko Fenome Meteorologikoei aurre egiteko jardunbide Protokoloa (PRT-MFM) datarik gabe.
- 2.5) Husteetarako jardunbide Protokoloa (PTR-HUSTEAK), datarik gabe.

3) SEGURTASUN ETA LARRIALDI PLANAK (SP).

- 3.1) Hondartzetako Segurtasun eta Larrialdi Plana (AREAK-SP), 2014.
- 3.2) Aste Nagusirako Segurtasun Plana (AN-SP), REV-2016.
- 3.3) Suetako Segurtasun eta Larrialdi Plana (ANSP-SUAK), REV-2016.
- 3.4) Abordaiarako Segurtasun Plana (AN-SP-ABORDAIA), REV-2016.
- 3.5) Sagueseko Kontzertuetarako Segurtasun Plana (AN-SP), REV-2016.
- 3.6) Kontxako Banderarako Segurtasun eta Larrialdi Plana (ESTROPADAK-SP), REV-2016.

4) AUTOBABESERAKO PLANAK (AUTP).

- 4.1) Aire zabalean egiten diren kontzertuak.
- 4.2) Beste ekitaldi batzuk.

5) SEGURTASUN MEKANISMOAK.

- 5.1) San Tomaseko azoka.
- 5.2) Errege Magoen desfilea.
- 5.3) Danborrada.
- 5.4) Inauteriak.
- 5.5) Jazzaldia.
- 5.6) Donostiako Ziklista Klasikoa.
- 5.7) Behobia-DSS.
- 5.8) Maratoia.
- 5.9) Anoetako Estadioko kontzertuak.
- 5.10) Kutxa Kultur Festibala (KKF).
- 5.11) Beste ekitaldi batzuk.

Arrisku espezifikoiei buruzko dokumentu partzial edo berezi horiek guztiak egin, berraztertu eta eguneratu dira azken urteotan. Une honetan, beharrezkotzat jo da udalerriko herri babeseko dokumentu orokorra edo lurralde dokumentua berraztertu eta eguneratzea, eta, dokumentu hori arrisku anitzetarakoa denez, eragina du arrisku espezifikoiei buruzko dokumentuetan.

Bestalde, 2007ko Lurzoruaren Legean ezarritakoaren arabera, 2010eko Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak hiriko ARRISKU NATURALEN MAPA jasota dauka antolamendu orokorraren ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenean (1.2. dokumentua.- Ingurumen jasangarritasunari buruzko txostena, 3. Eranskina. Planoa: HAPOn arriskuen laburpen mapa).


Arriskuen mapa hori egiteko, Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritzak "DONOSTIAKO ARRISKUEI BURUZKO TXOSTENA, HAPO BERRIA EGITEKO" izeneko txostena idatzi zuen 2007ko irailean, Udalak eskatuta.

Txosten horrek, Donostiak herri babeserako udal plan homologatu bat (DULP1997) bazuela adierazteaz gain, bi hauek ezarri zituen: lehenengoa, emandako informazioa Eusko Jaurlaritzak data horretan onartuta zituen herri babeseko lurralde planetatik eta plan berezietatik ateratakoa zela, eta bigarrena, txostenaren edukia informaziozkoa besterik ez zela.

Nolanahi ere, kontuan hartuta azken urteotan udal plangintza txosten horren arabera egin eta garatu dela, dokumentu honetan jasota daude bai txostenak egindako ARRISKUEN AZTERKETA, baita HAPOk txosten horretako irizpideetara moldatzeko egindako PROPOSAMENAK ere. Horrez gainera, dokumentu honek arrisku bakoitzeko PREBENTZIO JARDUERETAN sartutako prebentzio neurritzat hartzen ditu proposamen horiek.

Aipatutako txosten horretako Arriskuen laburpen maparen plano (Donostiako HAPOn ere jasota dagoena) dokumentu honekin batera doan kartografian sartuta dago: 11. PLANO.- LAEMZ-REN ARRISKU MAPA.

DONOSTIAKO BABES ZIBILERA KO PLANGINTZA



1.2.2.- XEDEA

PLAN TERRITORIAL DE PROTECCION CIVIL DE DONOSTIA/SAN SEBASTIAN – DONOSTIAKO UDAL LARRIALDI PLANA 2016 (DULP2016) udalerriko LURRALDE PLAN EDO ARRISKU ANITZETARAKO PLAN berria da.

Arrisku kolektibo larriagatiko, hondamendiagatiko edo hondamen publikoagatiko larrialdi batean pertsonak eta ondasunak babesteko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak mobilizatzea ahalbidetuko duten mekanismoen eta esparru organiko-funtzionalaren aurreikuspena jasotzen du, baita esku hartu behar duten administrazio publikoen arteko koordinaziorako eskema ere.

Era berean, plan honek esku har dezaketen udal agintaritzen egitura hierarkikoa eta funtzionala zehazten du, eta baliabide eta bitarteko publiko zein pribatuak nola koordinatu ere ezartzen du, goragoko maila duten planen egitura hierarkikoa eta funtzionala aintzat hartuta.

Hortaz, DULP2016 dokumentu honen xedea da egun indarrean dagoen DULP1997 berraztertzea, eguneratzea eta, azken batean, ordeztzea.

DULP2016 (aurrerantzean **DULP**) egiteko, Euskadiko Herri Babeseko Planak (LABI) ezarritako irizpideak eta gida-lerroak erabili dira, dokumentua homologatu ahal izateko eta goragoko maila duten lurralde planekin bat etor dadin.

Hala, DULPren funtzioa da dagokion lurralde eremuan izan daitezkeen arrisku larriko egoerei, hondamendiei edo

hondamen publikoei aurre egitea. Dokumentua idazterakoan helburu hauek ezarri dira:

- 1) Udalerrri barruko larrialdietan esku hartzeko antolamendu egitura eta prozedurak konfiguratzea.
- 2) Udalerrrian autobabesa sustatzea eta bultzatzea.
- 3) Udal barrutiko arriskuak eta elementu kalteberak identifikatzea eta aztertzea.
- 4) Antzemandako arriskuak saihesteko edo arintzeko prebentzio neurriak definitzea.
- 5) Herritarrei arriskuei eta hartu beharreko prebentzio eta babes neurriei buruzko informazioa ematea eta horien gaineko kontzientzia harraraztea.
- 6) LABIrekin bat egiteko sistemak ezartzea, baita goragoko maila duten planetako zuzendaritza eta koordinazio zentroekin harremanetan jartzeko sistemak ere.

Horrez gainera, DULP berri honek, indarrean dagoen araudia betetz, barne hartzen du nahitaezko gutxieneko eduki hau:

- 1) Xedearen definizioa eta planaren hedadura.
- 2) Lurraldearen azterketa.
- 3) Arriskuen eta kalteberatasunen azterketa.
- 4) Prebentzioaren arloko jarduerak.
- 5) Egitura organikoaren eta funtzionalaren antolamendua.
- 6) Operatibitatea.
- 7) Integrazioa.
- 8) Baliabideen eta bitartekoen katalogoa.
- 9) Ezarpena eta mantentzea.

1.2.3.- HEDADURA

1.2.3.1.- FUNTZIONALA

Herri Babeseko Udal Planak zenbait prozedura ezartzen ditu, larrialdi egoera bati erantzuteko giza baliabideen eta baliabide materialen ALERTA, MOBILIZAZIOA ETA KOORDINAZIOA bermatzeko; eta ez du xedetzat, inolaz ere, bertan esku hartzen duten zerbitzuen berezko jardute prozedurak banan-banan aipatzea.

Bestalde, DULP honen hedadura funtzionalak arrisku orokorreari erantzuteko aukera emango du: erantzuna eman-gio die euren garrantziagatik Udal Jardunerako Plan bat (UJP) edo/eta Jardunbide Protokolo bat ere baduten arriskuei, azken horien osagarri izanik, baita UJPrik behar ez duten bestelako arriskuei ere.

Hala bada, plan honek osatu egiten ditu udalerriko gainerako jardunerako plan, jardunbide protokolo eta segurtasun nahiz larrialdi plan guztiak, baita hiriko jardura anitzen gaineko autobabeserako planak ere. Plan horiek guztiek DULPrekin bateragarriak izateko dagozkien mekanismoak ezarri beharko dituzte.

Bestalde, Herri Babeseko Oinarrizko Arauan (BZOA) ezarritakoaren arabera, arriskuaren izaerak eta hedadurak, larrialdi egoeraren garrantziak edo mobilizatu beharreko zerbitzu zein baliabideek administrazio jakin baten eskumenak gainditzuten badituzte, kasu honetan Udalarenak, ekintzen zuzendaritza eta koordinazioa eremu zabalgoko Lurralde Planean funtzio horiek betetzen dituen agintaritzaren esku utzi ahal izango dira.

Ilido horretan, LABIk 3 fase ezartzen ditu larrialdi egoerarako: Alerta fasea, Larrialdi fasea eta Leheneratze fasea. Era berean, Larrialdi fasean 4 egoera bereizten dira: 0., 1., 2. eta 3. egoerak. DULPk Alerta fasean eta Larrialdi faseko 0. egoeran betetzen du dagokion FUNTZIO OSAGARRIA EDO OSOA. Horrez gainera, larrialdi egoeraren baldintza zehatzen arabera, funtzio osoa bete dezake Larrialdi faseko 1. egoeran eta Leheneratze fasean. Larrialdi faseko 2. eta 3. egoeretan DULP goragoko maila duten planetan TXERTATUTA egongo da, eta horien lagungarria izango da.

Irizpide orokor gisa, larrialdiak gainditu egiten baditu DULPn jasota dauden baliabideak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Larrialdietarako Foru Plana (GLHLFP) eta Euskadiko Herri Babeseko Plana (LABI) ere aktibatzea eskatuko da.

1.2.3.2.- LURRALDEKOA

Planaren lurralde hedadura Donostiako udal barrutia da, 60,73 km² dituen. Udal barrutia 17 auzok eta 2 enklabeek osatzen dute, eta 187.000 biztanle ditu, gutxi gorabehera.

Donostiako Udalaren jabetzakoa da Artikutza Etxaldea (AR), Nafarroako Foru Erkidegoan kokatua, Goizuetako udal barrutian. Titulartasun hori, etxaldearen hedadura handia (37 km²) eta bertako azpiegiturak (presa) kontuan hartuta, dokumentu honek deskribatu egiten du etxaldea, baina udal barrutitik kanpo dagoenez, DULPk ez du aintzat hartzen larrialdiekin lotutako arriskuen, prebentzioaren eta operatibitatearen azterketan.

1.3.- LEGE ESPARRUA

Larrialdi egoerei begirako prebentzio eta erantzun sistema zehazten duen indarreko lege esparrua *Herri Babeseko Sistema Nazionaleari buruzko uztailaren 9ko 17/2015 Legeak (BZSNL)* osatzen du, 2016ko urtarilaren 10etik aurrera Herri Babesaren urtarilaren 21eko 2/85 Legea ordeztzen duenak. Lege horren arabera, Herri Babesa zerbitzu publiko bat da, helburutzat duena arrisku kolektibo larriko, hondamen publikoko eta ezohiko hondamen-diko egoera jakin batzuetan pertsonak eta ondasunak fisikoki babestea.

Bide horretan, larrialdi bati aurre hartzeko edo aurre egiteko baliagarriak izan daitezkeen baliabide eta bitartekoak ahalik eta hobekien ustiatzeko helburua duen herri babeseko sistema bat ezartzen da. Ildo horretantxe, lehen aipatutako arauak herri babeseko jardunbidea ere definitzen du, zeina datzan aurre egin nahi zaion larrialdiarekin lotutako zerbitzu publikoen antolakuntzan, plangintzan, koordinazioan eta zuzendaritzan, aginte bakarraren gidaritzapean jardunda; aitzitik, herri babesa kontzeptuak uko egiten dio dagokion larrialdiarekin zerikusia duten zerbitzu horiek ordeztuko dituzten edo horien eginkizunak zuzenean beteko dituzten zerbitzu espezifikoak berriak "hutsetik" sortzeari. Era berean, ez da pentsatu behar Herri Babesa unitate organiko espezifikoak edo herritarren boluntariorzatik sortutako elkarteak direla.

Tokikoaren eremu zehatzean, horri buruzko funtsezko bi erreferentzia daude *Tokiko Erregimenaren Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea*: 26.C artikulua arabera, Herri Babeseko Zerbitzua ezinbestean eman behar da 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, eta 124.4.h) artikulua arabera, alkateari dagokio aparteko eta premiazko beharretarako neurri egokiak hartzea, eta eskumen hori ezin du eskuordetu.

Larrialdiei begirako aurreikuspen esparru orokor horretan, eta Herri Babesaren 2/85 Legearen zehaztapenen arabera, plangintza egiteari ekin zaio, aurretiko bi tresna erabiliz: Herri Babeseko Oinarrizko Araua, 407/1992 Errege Dekretuak onartua, eta 153/1997 Dekretua, ekainaren 24koa, Euskadiko Herri Babeseko Plana (LABI) onartzen duena.

Herri Babeseko Oinarrizko Araua (HBOA) gai horretan eskumena duten administrazio guztien planak bateratzeko funtsezko nukleoa da.

Euskadiko Herri Babeseko Plana (LABI) ere erreferentziatzeko tresna da Euskadin herri babesa garatzeko, Herri Babesaren 2/85 Legearen 10. artikulua esleitzen dizkion eskumenen arabera.

Hala bada, DULP honako hauetan ezarritakoa betez idatzi da: Larrialdiak Kudeatzeko 1/96 Legea, apirilaren 3koa, eta haren ondorengo aldaketa; "Larrialdiei Aurregiteko Bidea – LABI" deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duen 153/97 Dekretua, ekainaren 24koa, eta 1/2015 Dekretua, urtarilaren 13koa, aurreko hori berraztertzeak.

Herri babesari buruzko arauak eskumen MAILA hauetan egituratzen dira:

- 1) Europar Batasuna (EB).
- 2) Espainiako Estatuak.
- 3) Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE).

1.3.1.- EUROPA

Estatuan, honako hauek dira herri babesaren arloko oinarrizko legeko arauak:

OROKORRA.

- 1) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituna (XXIII. Titulua.- Herri Babesa, 196. art.). (EBFI)
- 2) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1313/2013/UE zenbakidun ERABAKIA, 2013ko abenduaren 17koa, **Batasunaren Herri Babeseko Mekanismo** bati buruzkoa.
- 3) Batzordeak 2014ko urriaren 16an hartutako Betearazteko ERABAKIA, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1313/2013/UE zenbakidun Erabakia (Batasunaren Herri Babeseko Mekanismo bati buruzkoa) garatzeko arauak ezarri eta 2004/277/CE Euratom eta 2007/606/CE Euratom erabakiak indargabetzen dituena.

ARRISKU NATURALAK.

- 1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007/60/CE Zuzentaraua, 2007ko urriaren 23koa, **uholde** arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa.

ARRISKU TEKNOLOGIKOAK.

- 1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/18/UE Zuzentaraua, **Seveso III** izenez ezaguna, 2012ko

uztailaren 4koa, substantzia arriskutsuak tartean daudeneko istripu larriei berezkoak zaizkien arriskuak kontrolatzeari buruzkoa, aldatu egin zuena, eta gerora indargabetu, 96/82/CE Zuzentaraua.

- 2) Kontseiluaren 2013/59/EURATOM Zuzentaraua, 2013ko abenduaren 5koa, **erradiazio ionizatzaileen** eraginpean egoteak dakartzan arriskuen aurka babesteko oinarrizko segurtasun arauak ezartzen dituen, eta 89/618/Euratom, 90/641/Euratom, 96/29/Euratom, 97/43/Euratom eta 2003/122/Euratom Zuzentarauak indargabetzen dituen.
- 3) Salerosgai arriskutsuen errepide bidezko nazioarteko garraioari buruzko Europako hitzarmena (**ADR**). Salerosgai arriskutsuen errepide bidezko nazioarteko garraioari buruzko Europako hitzarmenaren (ADR 2015) A eta B eranskinei egindako zuzenketak, 2014ko uztailaren 1ean onartuak Genevan.

1.3.2.- ESTADO

Estatuan, honako hauek dira herri babesaren arloko oinarrizko legezko arauak:

OROKORRA.

- 1) 1978ko Espainiako Konstituzioa (2., 15., 30.4. eta 103. artikulua) (EK).
- 2) 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Erregimenaren Oinarriak Arautzekoa (21.1.m), 25. eta 26. art.) (TEOAL)

HERRI BABESA.

- 1) 17/2015 Legea, uztailaren 9koa, **Herri Babeseko Sistema Nazionalarena (BZSNL)** (indarrean dago 2016ko urtarrilaren 10etik, Herri Babesari buruzko urtarrilaren 21eko 2/1985 Legearen ordeztu).
- 3) 407/1992 Errege Dekretua, apirilaren 24koa, **Herri Babeseko Oinarrizko Arauarena (BZOA)**.

ARRISKU NATURALAK.

- Uholde arriskua.

- 1) 1995eko urtarrilaren 31ko Ebazpena, Barne Arazoetako Estatu Idazkaritzarena, zeinak agintzen duen argitara ematea Ministroen Kontseiluaren Erabakia Uholde Arriskuari begirako Herri Babeseko Plangintzarako **Oinarrizko Gidalerroa** onartzeko.
- 2) 903/2010 Errege Dekretua, uztailaren 9koa, uholde arriskuak ebaluatzei eta kudeatzeari buruzkoa.
- 3) 2011ko abuztuaren 2ko Ebazpena, Idazkariordetzarena, zeinak agintzen duen argitara ematea Ministroen Kontseiluak 2011ko uztailaren 29an hartutako Erabakia, Uholde Arriskuari begirako Herri Babeseko **Estatu Plana** onartzekoa.

- Arrisku sismikoa.

- 1) 2004ko irailaren 17ko Ebazpena, Idazkariordetzarena, zeinak agintzen duen argitara ematea Ministroen Kontseiluak 2004ko uztailaren 16an hartutako Erabakia, aldatu egiten duena Arrisku Sismikoari begirako Herri Babeseko Plangintzarako **Oinarrizko Gidalerroa**, Ministroen Kontseiluaren 1995eko apirilaren 7ko Akordioaren bidez onartua.
- 2) 2010eko martxoaren 29ko Ebazpena, Idazkariordetzarena, zeinak agintzen duen argitara ematea Ministroen Kontseiluak 2010eko martxoaren 26an hartutako Erabakia, Arrisku Sismikoari begirako Herri Babeseko **Estatu Plana** onartzekoa.

- Itsasikara arriskua.

- 1) 1053/2015 Errege Dekretua, azaroaren 20koa, itsasikara arriskuari begirako herri babeseko plangintzarako **Oinarrizko Gidalerroa** onartzen duena.

- Baso suteen arriskua.

- 1) 893/2013 Errege Dekretua, azaroaren 15koa, baso suteengatiko larrialdien herri babeseko plangintzarako **Oinarrizko Gidalerroa** onartzen duena.
- 2) 2014ko urriaren 31ko Ebazpena, Idazkariordetzarena, zeinak agintzen duen argitara ematea Ministroen Kontseiluak 2014ko urriaren 24an hartutako Erabakia, Baso Suteengatiko Larrialdietarako Herri Babeseko **Estatu Plana** onartzekoa.

- Fenomeno Meteorologiko Kaltegarriak.

- 1) Fenomeno Meteorologikoen Iragarpeneko eta Zaintzarako Plan Nazionala.
- 2) Atalase meteorologikoak eta abisu mailak.
- 3) Temperatura maximo eta minimoen, prezipitazioen, pilatutako elurren eta haize kolpe maximoen atalaseen mapa nazionalak.

ARRISKU TEKNOLOGIKOAK.

- Arrisku kimikoa.

- 1) 1196/2003 Errege Dekretua, irailaren 19koa, substantzia arriskutsuak tartean daudeneko istripu larrien arriskua kontrolatu eta planifikatzeko herri babeseko **Oinarrizko Gidalerroa** onartzen duena.

- 2) 840/2015 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, substantzia arriskutsuak tartean daudeneko istripu larriei berezkoak zaizkien arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituen **(Seveso III)**.
- 3) 5/2013 Legea, ekainaren 11koa, honako hauek aldatzen dituena: 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuarena (**IPPC**), eta 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuen.

- Arrisku nuklearra.

- 1) 1546/2004 Errege Dekretua, ekainaren 25ekoa, **Larrialdi Nuklearreko Oinarrizko Plana** (LNOP) onartzen duena, eta gerora 1428/2009 Errege Dekretuaren bidez egindako akats zuzenketak eta aldaketa.
- 2) INT/1695/2005 Agindua, maiatzaren 27koa, **Erantzun eta Laguntzarako Erakunde Zentralaren Larrialdi Nuklearreko Plana** (ELEZLNP) onartzekoa.
- 3) **Santa María de Garoñako** (Burgos) Zentral Nuklearraren Larrialdi Nuklearreko Kanpo Plana (BULNP Plan Gidaria).

- Arrisku erradiologikoa.

- 1) 1564/2010 Errege Dekretua, azaroaren 19koa, arrisku erradiologikoari begirako herri babeseko plangintzarako **Oinarrizko Gidalerroa** onartzen duena.

- Salerosgai arriskutsuak garraiatzeagatik arriskua.

- 1) 387/1996 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, salerosgai arriskutsuak errepidez eta trenez garraiatzeak dakarren istripu arriskuari begirako herri babeseko plangintzarako Oinarrizko Gidalerroa onartzen duena.
- 2) INT/3716/2004 Agindua, urriaren 28koa, zeinaren bidez argitaratzen diren salerosgai arriskutsuak errepidez eta trenez garraiatzean gertatutako istripuen ondoriozko larrialdi egoeretan jardun behar duten zerbitzu operatiboentzako **esku hartze fitxak**.
- 3) 2006ko martxoaren 29ko Erabakia, Herri Babeseko eta Larrialditako Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen den salerosgai arriskutsuen errepide eta tren bidezko garraioarekin lotutako istripuak eta bestelako datu interesgarriak jakinarazteko telefono zenbakien zerrenda.
- 4) 97/2014 Errege Dekretua, otsailaren 14koa, salerosgai arriskutsuen Espainian barrenako errepide bidezko garraio eragiketak arautzen dituen.

AUTOBABESA.

- 1) 393/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, larrialdi egoerak sor ditzaketen jarduerak hartzen dituzten zentro, establezimendu eta egoitzen **Autobabeserako Oinarrizko Araua** onartzen duena.
- 2) 1468/2008 Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, zeinak aldatu egiten duen 393/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, larrialdi egoerak sor ditzaketen jarduerak hartzen dituzten zentro, establezimendu eta egoitzen Autobabeserako Oinarrizko Araua onartzen duena.
- 3) 2816/1982 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa, **Jendaurreko Ikuskizunetarako eta Jolas Jardueretako Poliziaren Erregelamendu Nagusia** (JIIJPEN) onartzen duena.

SUTEAK.

- 1) 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartzen duena, ondorengo xedapen aldatzaileak eta iruzkinak, argibideak eta argitaratutako aplikazio irizpideak.
- 2) 226/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, Establezimendu Industrialetan Suteen Aurkako Araudia onartzen duena.
- 3) 1942/1993 Errege Dekretua, azaroaren 5ekoa, Suteen Aurkako Babes Instalazioen Araudia onartzen duena, eta ondoren argitaratutako xedapen aldatzaileak.

1.3.3.- EUSKADI

Euskal Autonomia Erkidegoan, honako hauek dira herri babesaren arloko oinarrizko legezko arauak:

OROKORRA.

- 1) 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena (EHAE), (17. art.).

HERRI BABESA.

- 1) 1/1996 **Legea**, apirilaren 3koa, **Larrialdiak Kudeatzekoa (LKL)**.
- 2) 5/2016 Legea, apirilaren 21ekoa, Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzen duena.
- 3) 24/1998 Dekretua, otsailaren 17koa, Euskadiko Herri Babeseko Batzordearen osaketa, egitekoak eta antolamendua arautzen dituena.
- 4) 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa.
- 5) 194/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa.
- 6) 458/2013 Dekretua, abenduaren 10ekoa, Euskadiko Segurtasun Publikoko Kontseiluaren antolamendua eta funtzionamendua ezartzen dituena.

EUSKADIKO LURRALDE PLANA.

- 1) 153/1997 Dekretua, ekainaren 24koa, "Larrialdiei Aurregiteko Bidea-LABI" deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana (**LABI**) onartzen duena eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio bideak arautzen dituen.
- 2) 1/2015 Dekretua, urtarrilaren 13koa, zeinaren bidez onartzen baita berrazterketa berezi bat egitea "Larrialdiei Aurregiteko Bidea-LABI" deritzan Euskadiko Herri Babeseko Planean.

PLAN BEREZIAK.

- **Uholdeen** Ziozko Larrialdiko Plan Berezia (**UZPB**).
 - 1) 3/2015 Ebazpena, urtarrilaren 14koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinak xedatzen duen argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen Ziozko Larrialdiko Plan Berezia onartzeko Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutakoa.
- **Arrisku Sismikorako** Larrialdi Plana (**ASLP**).
 - 1) 27/2007 Ebazpena, azaroaren 8koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinak xedatzen duen argitara ematea Arrisku Sismikorako Larrialdi Plana onartzeko Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutakoa.
- **Baso Suteetarako** Larrialdi Plan Berezia 2016 (**BSPB**).
 - 1) 80/2016 Ebazpena, abenduaren 27koa, Erakunde Harremanetarako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdiko Plan Berezia onartzeko Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutakoa, argitara ematea xedatzen duena.
- **Kanpoko larrialdi planak (AKLP)**.
 - 1) KEM ONE, SLU (lehen ARKEMA QUIMICA SA zena) (Hernani). Azken eguneratzea: 2016/03/04.
 - 2) Electroquímica de Hernani, SA (Hernani). Azken eguneratzea: 2016/03/04.
 - 3) IGEPAK, SA (Usurbil). Azken eguneratzea: 2016/03/04.
- **Arrisku Erradiologikoari** Aurre Egiteko Larrialdi Plan Berezia (**AEPB**).
 - 1) 17/2014 Ebazpena, ekainaren 25ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinak xedatzen duen argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Arrisku Erradiologikorako Larrialdi Plan Berezia onartzen duen Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutakoa.
- **Errepidez eta trenez salerosgai arriskutsuak garraiatzeak** dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko plan berezia (**SAGAPB**).
 - 1) 10/2001 Ebazpena, abuztuaren 1ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinak xedatzen duen argitara ematea errepidez eta trenbidez salerosgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko Plan Berezia onartzen duen Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutakoa.
- **Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren Taktika Operatiboak (TO)**.
 - 1) 2001eko abuztuaren 1eko Agindua, Herrizaingo sailburuarena, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzekoa eta Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko Zerbitzua sortzekoa.
 - 2) 2007ko martxoaren 20ko Agindua, Herrizaingo sailburuarena, aldatu egiten duena Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzeko eta Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko Zerbitzua sortzeko Agindua.
 - 3) 2012ko urriaren 8ko Agindua, Herrizaingo, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, bigarren bez aldatzen duena Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzeko eta Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko Zerbitzua sortzeko Agindua.
 - 4) 2016ko otsailaren 1eko Agindua, Segurtasuneko sailburuarena, hirugarren aldiz aldatzen duena Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzeko eta Larrialdietan Koordinatuta Esku hartzeko Zerbitzua sortzeko Agindua.

FENOMENO METEOROLOGIKO KALTEGARRIAK.

- 1) Fenomeno meteorologiko kaltegarriak iragartzeko, horien jarraipena egiteko eta horrelakoetan jarduteko protokoloa (08 bertsioa, 2015/02/11).

HERRI BABESEKO BOLUNTARIOAK.

- 1) 24/2010 Dekretua, urtarrilaren 19koa, herritarrek Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari duten borondatezko parte hartzeari buruzkoa.
- 2) 2013ko ekainaren 14ko Agindua, Segurtasuneko sailburuarena, Euskadiko herri babeseko tokiko boluntario erakundeetako kideen egiaztapenari buruzkoa.
- 3) Euskadiko herri babeseko tokiko boluntario erakundeetako kideen egiaztapenari buruz Segurtasuneko sail-

buruak 2013ko ekainaren 14an emandako Aginduen akats zuzenketa.

AUTOBABESA.

- 1) 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, jarduera, zentro edo establezimendu jakin batzuei larrialdi egoerei aurre egiteko eska dakizkiekeen **autobabes betebeharrak** arautzen dituena (**AUP**).
- 2) Jarduera, zentro edo establezimendu jakin batzuei larrialdi egoerei aurre egiteko eska dakizkiekeen autobabes betebeharrak arautzen dituen azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuaren akats zuzenketa.
- 3) 2012ko abuztuaren 3ko Agindua, Herrizaingo sailburuarena, autobabeserako planak egiteko **pertsoneko tekniko eskudunaren egiaztapena** arautzen duena.
- 4) 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, **Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren (JIJL)** (indarrean dago 2016ko urtarrilaren 8tik, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren azaroaren 10eko 4/1995 Legearen ordeztu).

1.4.- GLOSARIOA

1.4.1.- TÉRMINOAK

A:

– Aholkularitza Batzordea:

Euskadiko Herri Babeseko Lurralde Planeko zuzendariari aholkuak ematen dizkion lantaldearen izena. Organo hau zuzendaritza egituraren txertatuta dago.

– Agente biologikoak:

Edozein motatako infekzio, alergia edo toxikotasunak eragin ditzaketen mikroorganismoak (genetikoki eraldatuak, zelula kultiboak eta giza endoparasitoak barne). Agente biologikoak lau taldetan sailkatzen dira infekzio arriskuaren arabera:

- 1. taldeko agente biologikoa: gizakiagan gaixotasun bat eragiteko aukera txikia duena.
- 2. taldeko agente biologikoa: gizakiagan gaixotasun bat sor dezakeena eta arriskutsua dena langileentzat, baina oro har profilaxi edo tratamendu eraginkor bat izan ohi duena eta nekez zabalduko dena kolektibitate.
- 3. taldeko agente biologikoa: gizakiagan gaixotasun larri bat sor dezakeena eta oso arriskutsua dena langileentzat; kolektibitate zabal daiteke, eta, oro har, profilaxi edo tratamendu eraginkor bat izan ohi du.
- 4. taldeko agente biologikoa: gizakiagan gaixotasun larri bat sor dezakeena eta oso arriskutsua dena langileentzat; kolektibitate zabaltzeko arriskua handia da, eta, oro har, ez dago profilaxi edo tratamendu eraginkorrik.

– Aginte Postu Aurreratua (APA):

Egitura operatiboko organo bat, istripua gertatu den tokitik hurbil kokatua. Sorospen ekintzak zaindu, zuzendu eta koordinatzen dituzten ekintza taldeetako buruek edo arduradunek osatzen dute, eta etengabe harremanetan egoten da Ekintzak Koordinatzeko Zentroarekin.

– Alarma:

Istripu bat gertatu dela edo berehala gertatuko dela ohartarazteko ekintza edo mekanismoa, babes neurriak hartzea eragiten duena.

– Alerta:

Istripu bat gerta daitekeela edo haren ondorioek pertsonen, ondasunen edo funtzioei kalte egin diezaieketela ohartarazteko ekintza. Informazio berriak prestatzea eta jasotzea eragiten du.

– Ariketa:

Jarrera jakin batzuk indartzeko erabiltzen den praktika.

– Arrisku mapa:

Arriskuak aurkitu, baloratu eta aztertzeak aukera, baita aztergai diren sektoreen esposizio maila ezagutzeko ere ematen duen informazioa lortzeko egiten den ikerketa, lurralde jakin bati ezartzen zaiona.

– Arriskua:

Substantzia batek pertsonen, ondasunen edo ingurumenari kalte egiteko duen berezko ahalmena edo egoera fisiko batek horretarako duen potentzialtasuna.

– Arriskuaren analisia:

Arriskuak identifikatu, sailkatu, ebaluatu, txikitu eta kontrolatzeko erabiltzen diren tekniken multzoa.

– **Arriskuaren identifikazioa:**

Nahi ez diren gertaerak sor ditzaketen egoerak agerian uzteko prozedura kualitatiboen multzoa.

– **Arriskuen ebaluazioa:**

Arrisku baten baldintza edo ezaugarri bat aldeztatik ezarritako beste irizpide edo estandar batzuekin lotuta balioesteko teknika.

– **Arriskuen prebentzioa eta kontrola:**

Arriskutsuak izan daitezkeen egoerak zaintzeko eta haietatik etor litezkeen kalteak ekiditeko edo murrizteko ezinbestez aintzat hartu behar diren neurri komenigarriak aztertzea eta xedatzea. Gorabehera, larrialdia edo istripua gertatu baino lehen edo horiek aztertuta lortutako eskarmentuaren emaitza gisa zehaztu behar dira prebentziorako neurriak.

– **Arriskuguneak:**

Inguruko elementu edo jarduerak baino istripu probabilitate handiagoa duten elementu edo jarduerak, edo istripu baten ondorioz inguruko elementu edo jarduerak baino ondorio kaltegarriagoak jasaten dituztenak.

– **Autobabesa:**

Jarduera publiko zein pribatuaren titularrek euren bitartekoak zein baliabideak erabiliz eta euren eskumenen esparruan aintzat hartu dituzten ekintzak eta neurriak, helburutzat dutenak pertsonen eta ondasunen gaineko arriskuei aurre hartzea eta horiek kontrolatzea, gerta daitezkeen larrialdi egoeretan egokiro erantzutea eta ekintza horiek guztiak herri babeseko sistema orokorraren arabera direla bermatzea.

– **Autobabeserako Plana (AUP):**

Jarduera, zentro, establezimendu, espazio, instalazio edo areto baterako aurreikusitako esparru organiko eta funtzionala, helburutzat duena pertsonen eta ondasunen izan ditzaketen arriskuei aurre hartzea eta horiek kontrolatzea, baita titularraren erantzukizunpeko eremuan gerta litezkeen larrialdi egoerei erantzun egokia ematea ere, jardun horiek guztiak herri babeseko sistema publikoan txertatuta egongo direla bermatuta.

B:

– **Baliabideak:**

Larrialdietan esku hartzen duten ekintza taldeek herri babeseko zereginak betetzearren erabiltzen dituzten giza elementu eta elementu material guztiak, batez ere mugikorrek direnak.

– **Bat-bateko ebakuazioa:**

Arrisku bat, ezbehar bat, desinformazioa edo gaizki igorritako informazioa tarteko, biztanleek inolako kontrolik gabe gauzatzen duten ekintza.

– **Biktimak Biltzeko Gunea (BBG):**

Gorabeherak kaltetu dituelako ebakuatu behar diren pertsonak biltzeko gunea, mugatutako segurtasun eremu hotzean (EH) kokatua.

– **Bitartekoa:**

Larrialdietako lanak ahalbidetu edo hobetzen dituzten elementu natural edo artifizialak, nagusiki estatikoak direnak.

D:

– **Domino efektua:**

Efektuen kateamendua adierazteko erabiltzen den hitza da; horrelakoetan, ondorioak ugaritu egiten dira, elementu kalteberetan ez ezik beste arrisku batzuetan ere eragina izan baitezakete fenomeno arriskutsuek, eta, ondorioz, beste istripu edo hondamendi bat gerta daiteke, eta horrek, aldi berean, beste fenomeno arriskutsu batzuk eragin ditzake.

– **Donostiako Herri Babeseko Lurralde Plana (DULP):**

Donostia hiriaren lurralde plana edo oinarritzko plana, non txertatuta dauden, aplikagarri direnerako, larrialdi egoera espezifikoetan jarduteko udal jardunerako planak eta bestelako protokoloak edo gidak.

E:

– **EAEko Herri Babeseko Lurralde Plana (LABI):**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Plana, non txertatuta dauden, aplikagarri direnerako, udal eta foru

planak. Egiten diren plan bereziak ere Lurralde Planaren barruan sartzen dira.

– **Ebakuazio altuera:**

Ebakuazio bateko jatorrizko mailaren eta kanpoko espazio seguruaren mailaren arteko kota diferentzia.

– **Ebakuazioa:**

Larrialdi baten eragina jasan duen pertsona talde bat toki batetik behin-behineko beste toki batera aldatzeko ekintza planifikatua; jomugako toki hori ezartzeko, aintzat hartzen dira erabilgarritasun fisikoa eta kaltetuak sorosteko eta hartzeko egitura osagarria.

– **Edukiera:**

Okupazioaren muga administratiboa. Gehiegizko edukiera: muga administratibo hori gainditzea.

– **Ekintza taldeak:**

Zerbitzu operatibo arrunt iraunkorrak, larrialdi bat gertatzen den tokian esku hartzen dutenak eta berariazko funtzioak dituztenak.

– **Ekintzak Koordinatzeko Udal Zentroa (EKUZ):**

Larrialdiak koordinatzeko eta kudeatzeko udal organoa da, eta Udal Larrialdi Plana aktibatzen denean bertan dihardute planaren zuzendariak, Aholkularitza Batzordeak eta komunikazio zentralek, besteak beste.

– **Ekintzak Koordinatzeko Zentro Bateratua (EKZB):**

Herri babeseko estatu planak aktibatzen direnean larrialdiak koordinatzen eta kudeatzen dituen unitatea da, hainbat administrazio osatua.

– **Ekintzak Koordinatzeko Zentroa (EKZ):**

Herri babeseko plan autonomikoak aktibatzen direnean Autonomia Erkidegoko ekintza guztiak zuzentzen eta koordinatzen diren zentroa. SOS-DEIAK Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan kokatuta dago.

– **Erantzun denbora:**

Ekintza taldeek alarma mezua jasotzen dutenetik istripuaren tokira iritsi arte behar duten denbora tartea.

– **Eremu beroa (EB):**

Larrialdia gertatu den tokitik hurbil mugatutako eremua. Zaurituak artatzeko eta larrialdia sorrarazi duten kausak kontrolatzeko lanak gauzatuko dituzten ekintza taldeak bakarrik sartu ahal izango dira eremu horretara.

– **Eremu epela (EE):**

Esku hartzeko ekintzen euskarri gisa balio duen eremua. Bertan, laguntza taldeek esku hartze taldeetako kideei lagunduko diete, eta lehen mailako sorospena gauzatuko da, gero zaurituak eraman ahal izateko.

– **Eremu hotza (EH):**

Ezbeharraren tokitik behar besteko distantziara kokatutako eremu segurua. Bertan ezarri ahal izango dira aginte postu aurreratua, bilgunea eta topagunea, osasun postu aurreratua, bitartekoak biltzeko gunea, biktimak biltzeko gunea eta beharrezkoa den bestelako logistika guztia, eta bertatik zuzendu eta gainbegiratuko dituzte esku hartzeko eta ezbeharra kontrolatzeko lanak, zaurituak eta ebakuatuak kontrolatuko dituzte eta beharrezko baliabideak eskura izan edo/eta aurkituko dituzte.

– **Erresilientzia:**

Mehatxu baten eraginpean dagoen sistema, komunitate edo gizarte batek mehatxu horren ondorioak jasateko, xurgatzeko, horietara moldatzeko eta egoera leheneratzeko duen ahalmena, barne hartuta oinarrizko egiturak eta funtzioak babesteko eta berrezartzeko ahalmena.

– **Esku hartze eremua (EHE):**

Kaltetutako toki fisikoa, non istripuaren ondoriozko kalteak direla-eta beharrezkoa den babes neurriak berehala aplikatzea.

– **Esku hartzea:**

Larrialdiari ematen zaion erantzuna, pertsonak eta ondasunak babesteko eta sorosteko.

– **Estatuko oinarrizko gidalerroa:**

HBOAn aurreikusitako plan bereziak egiteko eta homologatzeko Estatuak oinarriei, egiturari, antolamenduari, irizpide operatiboari eta koordinazioko tresnei buruz finkatzen dituen gutxieneko eskakizunak.

– **Euskadiko Herri Babeseko Batzordea:**

Euskadiko herri babeseko erakunde arteko eta kide anitzeko goi organoa, aholku-emailea, hausnartzailea, koordinatzailea eta homologatua, LKLko 8. artikuluan aurreikusia; haren egitekoak dira, besteak beste, dagoen administrazioak prestatutako herri babeseko planen txostena egitea edo, hala badagokio, homologatzea.

G:

– Genetikoki eraldatutako organismoak leku itxian erabiltzeko instalazioak:

Organismo baten material genetiko eraldatzeko jarduerak –edo eraldatu ondoren hazi, gorde, erabili, batetik bestera eraman edo suntsitzeko jarduerak– hartzen dituzten instalazioak, baldin eta jarduera horietan konfinamendu neurriak hartzen badira, jendearekiko eta ingurumenarekiko harremana mugatzeko.

Genetikoki eraldatutako organismoak leku itxian erabiltzeko jarduerak giza osasunarentzat eta ingurumena-
rentzat duten arriskuaren arabera sailkatuko dira:

- 1. motakoak. Arriskurik gabeko edo arrisku hutsaleko jarduerak: 1. konfinamendu maila aski da giza osasuna eta ingurumena babesteko.
- 2. motakoak. Arrisku txikiko jarduerak: 2. konfinamendu maila aski da giza osasuna eta ingurumena babesteko.
- 3. motakoak. Arrisku ertaineko jarduerak: 3. konfinamendu maila aski da giza osasuna eta ingurumena babesteko.
- 4. motakoak. Arrisku handiko jarduerak: 4. konfinamendu maila aski da giza osasuna eta ingurumena babesteko.

H:

– Herri Babeseko Oinarrizko Araua (HBOA):

Herri babeseko planak egiteko eta homologatzeko jarraibide nagusiak. Apirilaren 24ko 407/1992 Errege Dekretuak onartu zituen jarraibideak.

– Herri Babeseko Plana (HBP):

Herri babeseko planek ezartzen dute arrisku larri bat, hondamendi bat edo hondamen publiko bat izanez gero zer esparru organiko eta funtzional aplikatu behar den eta zer mekanismo erabili behar diren pertsonak eta ondasunak babesteko bitartekoak eta baliabideak mobilizatzeko. Halaber, esku hartu behar duten administrazio guztiak koordinatzeko egitura zehazten dute.

– Herri Babeseko Tokiko Batzarra:

Udalerriko Herri Babeseko kide anitzeko organo gorena da. Alkatea du buru, eta legeak nahiz xedapen ofizialek egokitzen dizkieten funtzioak ditu.

– Hondakin arriskutsuak:

952/1997 Errege Dekretuan onartutako hondakin arriskutsuen zerrendan ageri direnak, bai eta horrelakoak hartu dituzten edukiontzia ere. Europar Batasuneko araudiak arriskutsu gisa sailkatu dituenak eta Gobernuak Europako araudiaren arabera edo Espainiak izenpetutako nazioarteko hitzarmenen arabera onar ditzakeenak.

– Hondakina:

Apirilaren 21eko 10/1998 Legearen eranskineko kategoriaren batean jasota dagoen substantzia edo objektu oro, jabeak alde batera utzi duena edo alde batera utzi nahi edo behar duena. Dena dela, hondakintzat joko dira Europar Erkidegoko erakundeek onartutako Hondakinen Europako Katalogoan ageri direnak.

– Hondamen publikoa:

Pertsonengan, ondasunetan, ingurumenean eta azpiegiturretan kalte ezin handiagoak eragiten dituen istripua, ekintza taldeen ahalmen operatiboa eta interes publikoa bera arriskuan jartzen dituen.

– Hondamendia:

Naturako indarren ondorioz, gizakion ekintzaren ondorioz edo baldintza tekno-soziologikoen ondorioz sor daitekeen istripua, kalte ugari eragin diezazkiekeena pertsonen, ondasunen eta ingurumenaren.

– Hotz instalazioa:

Halako instalazioetan makina termikoak daude, ekoizpen edo egokitze prozesu jakin bat aplikatzen zaien materialak hozteko. Halakoak dira hotz biltegietako instalazio finkoak, izotz fabrikak, airea girotzeko instalazio finkoak eta zentralizatuak, eta askotariko produktuak izozteko edo hozteko instalazioak.

– Hozgarria:

Beroa eroateko erabiltzen den fluido da. Hotz sistema batean, tenperatura eta presio baxuetan beroa xurgatzen du, eta tenperatura eta presio handiagoetan, berriz, askatu. Prozesu hori, oro har, fluidoaren egoera aldaketekin gertatzen da.

Segurtasun mailaren arabera, hozgarriak hiru taldetan sailkatzen dira:

- Lehenengo taldea: segurtasun handiko hozgarriak. Sugarrak izanez gero, efektu fisiologikoak sor ditzakete, hau da, deskonposizio gas toxikoak. Horien usain biziak abisua ematen digu kontzentrazio arriskutsuetara iritsi aurretik.
- Bigarren taldea: segurtasun ertaineko hozgarriak. Sortzen dituzten efektu fisiologikoak deskonposizio gasak dira, toxikoak eta sukoiak edo korrosiboak.
- Hirugarren taldea: segurtasun txikiko hozgarriak. Oso sukoiak dira.

I:

– Instalazio erradioaktiboak.

- Erradiazio ionizatzailaren iturri bat duten instalazioak, edozein motatakoak.
- Erradiazio ionizatzailak sortzen dituzten aparatuak, 5 kilovoltetik gorako potentzial diferentziarekin dabil-
zanak.
- Material erradioaktiboak ekoitzi, erabili, eduki, tratatu, manipulatu edo biltegitratzen diren lokalak, laborate-
giak, lantegiak eta instalazioak, garraiatu bitartean material horiek biltegitratzekoak izan ezik.

Lehen kategoriako instalazio erradioaktiboak:

- Uranioa, torioa eta horien konposatuak ekoizteko lantegiak.
- Uranio naturalezko elementu erregaiak ekoizteko lantegiak.
- Industria irradiatzaile iturri erradioaktiboak erabiltzen dituzten instalazioak.
- Substantzia erradioaktiboen inbentario oso handiak erabiltzen diren instalazio konplexuak, edo energia
emari handiko erradiazio sortak sortzen dituztenak, era horretan instalazioak izan lezakeen eragin erradiolo-
gikoa handi samarra litzatekeelarik.

Bigarren kategoriako instalazio erradioaktiboak:

- Zientzia, medikuntza, nekazaritza, merkataritza edo industriadako erabil daitezkeen nukleido erradioaktiboak
manipulatzen edo biltegitratzen diren instalazioak, baldin eta horien aktibitate osoak mila aldiz edo gehia-
gotan gainditzen baditu Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak IS-05 Jarraibidean finkatutako salbuespen
balioak.
- 200 kilovoltetik gorako puntako tentsioarekin funtziona dezaketen X izpi sorgailuak erabiltzen dituzten
instalazioak.
- Partikulen azeleragailuak eta neutroi iturriak biltegitratzen diren instalazioak.

– Instalazio nuklearrak:

- Zentral nuklearrak: errektore nuklear baten bidez energia ekoizteko edozein instalazio finko.
- Errektore nuklearrak: erregai nuklearrak dauzkan edozein egitura, barruan fisio nuklear automatendu bat
gerta daitekeenean, neutroi gehiago behar izan gabe.
- Substantzia nuklearrak sortzeko erregai nuklearrak erabiltzen dituzten lantegiak, eta substantzia nuklearrak
tratatzeko dituzten lantegiak, erregai nuklear irradiatuak tratatzeko edo birprozesatzeko instalazioak barne.
- Substantzia nuklearrak biltegitratzeko instalazioak, substantzia horiek garraiatzean biltegitratzeko erabiltzen
direnak salbu.
- Energia sortzeko edo energia iturri berriak ekoizteko edo garatzeko fusiozko edo fisiozko erreakzio
nuklearrak erabiltzen dituzten gailuak eta instalazioak.

– Interfasea:

Planen arteko lotura. Maila desberdinetako planek dituzten prozedura eta baliabide komunak multzoa, baita
zuzendaritza egituren eta egitura operatiboen arteko jakinarazpenetarako bideak eta irizpideak ere, hori guztia
bi planek arautua eta zehaztua.

– Interfasea:

Planen arteko lotura. Maila desberdinetako planek dituzten prozedura eta baliabide komunak multzoa, baita
zuzendaritza egituren eta egitura operatiboen arteko jakinarazpenetarako bideak eta irizpideak ere, hori guztia
bi planek arautua eta zehaztua.

– Istripu larria:

Segurtasun neurriak bete behar dituen establezimendu baten funtzionamenduan izandako kontrolak gabeko
prozesu baten ondorioa den edozein gertakari (emisioak, ihesak, isurketak, suteak edo leherketak), pertso-
nentzat, ingurumenarentzat eta ondasunentzat arrisku larriko egoera bat sor dezakeena, edo hondamendi
publikoa, berehala edo denbora bat igarota, establezimenduaren barnean edo kanpoan.

– Istripua edo ezbeharra:

Pertsonen, elementuen edo funtzioen egoera normala aldarazten duen ustekabeko gertakaria, naturala edo
gizakiak eragindakoa, kalteak eragiten dituena (biktimak eta/edo kalte material nabarmenak), baina soilik
talde operatibo arruntan esku hartzea eskatzen duena, lehen esku hartzeko azpitaldearena barne.

J:

– Jakinaraztea:

Larrialdi baten iragarpenari buruzko berria komunikatzea eta transmititzea, edo dagokien agintariei alerta edo
larrialdi egoera baten berri ematea.

– Jarduera bat ustiatzeko edo abiarazteko lizentzia edo baimena emateko eskumena duen organoa:

Arlo bakoitzean aplikagarria den legeriaren arabera jarduera baimendu behar duen administrazio publikoko
organoa.

– Jardueraren titularra:

Jarduerak garatzen diren zentroa, establezimendua, gunea, esparrua edo instalazioa ustiatzen duen pertsona
fisikoa edo juridikoa, edo haren jabea.

– **Jardunbide Protokoloa (JP):**

Plan batean ezarritako erregelamendua, jarraibide bilduma edo prozedura espezifikoaren multzoa, hainbat egoeratan nola jardun behar den zehazten duena.

– **Jardunbide sektorialeko programak:**

Herri babesaren arloan plangintza egiteko tresnak dira, herri babeseko planak garatzen dituztenak. Osatu edo eraginkor bihurtzen dituzte herri babeseko planetako bitarteko nahiz baliabideen ekarpen zehatzak edo ezau-garri partzialak.

K:

– **Kaltebera:**

Pertsona, sistema edo elementu baten ezaugarria, arrisku zehatz batek kalte egin diezaiokeela adierazten duena.

– **Kalteberatasuna:**

Kalteak nolakoak eta zenbatekoak diren baldintzatzen duen elementua. Komunitate baten kalteberatasuna faktore fisiko zein sozialek zehazten dute, ekonomikoek barne, eta horiek guztiek fenomeno arriskutsu baten ondorioz kalteak izateko aukera baldintzatzen dute.

– **Konfinamendua:**

Istripu baten ondoren pertsonak babesteko hartzen den neurria. Kanpotik isolaturiko gune babestu baten barruan egon beharra dute pertsonak kasu horietan.

L:

– **Larrialdia:**

Istripu bat jazotzean sortzen den egoera.

– **Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak (SOS-Deiak):**

LKLko 24. artikuluan aurreikusita dagoen administrazio zerbitzua, Herrizaingo Sailaren Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritzari atxikia; etengabe dihardu lanean, alertak eta laguntza deiak jasotzeko organo gisa, baita larrialdian beharrezkoak diren zerbitzuak koordinatzeko eta bateratzeko laguntza teknikoko organo gisa ere. Zentro horietan kokatzen dira EKZ eta EKZB herri babeseko plan autonomikoak aktibatzen direnean.

– **Larrialdiak Kudeatzeko Legea (LKL):**

1/1996 Legea, apirilaren 3koa, Larrialdiak Kudeatzekoa.

– **Larrialdiaurrea:**

Gerta daitekeen istripu edo hondamendi baten aurretik sortzen den egoera.

– **Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza (LAEMZ):**

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren mendeko zuzendaritza, Euskadiko larrialdien arreta integralaz eta meteorologiaz arduratzen dena. Zuzendaritza honen egitekoa da Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistema (LAEES) eta Euskadiko herri babesa koordinatzea.

– **Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistema (LAEES):**

EAEko administrazio publikoen esparruan edozein motatako larrialdiei erantzutea eta horiek kudeatzea helburutzat duten plan, prozedura, mekanismo, tresna eta baliabide ororen multzoa. Horiek guztiak sistema baten baitan bateragarriak eta osagarriak izan daitezen, ezinbestekoa da maila desberdinetako erakundeetan plangintzak egiteko oinarritzko gidalerroak ezartzea eta zehaztea, eta EAEko Herri Babeseko Plana (Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea, LABI) arduratzen da horretaz, hain zuzen ere.

– **Larrialdietan Jarduteko Plana (LJP):**

Autobabeserako planari dagokion prozedura da, eta bertan aurreikusten dira sailkatutako larrialdi egoerei erantzuteko antolamendua, prebentziorako nahiz jardunerako hartu beharreko neurriak eta gerta litezkeen larrialdiei erantzuteko prozeduren eta jardunen segida.

– **Lehenegoriatzea:**

Normaltasuna berrezartzea eta jarduerari berriro ekitea da.

– **Lehergaia:**

- Talkaren, igurzketaren, suaren edo bestelako sutze iturrien ondorioz leherketa arriskuak eragin ditzakeen substantzia edo prestakina (R2 arriskuaren enuntziatua).
- Talkaren, igurzketaren, suaren edo bestelako sutze iturrien ondorioz leherketa arrisku handiak eragin ditzakeen substantzia edo prestakina (R3 arriskuaren enuntziatua).

- Salerosgai arriskutsuen errepide bidezko nazioarteko garraioari buruzko 1957ko irailaren 30eko Europako Hitzarmenaren barruan (ADR, Nazio Batuak) eta haren aldaketetan 1. mailakotzat jotako substantzia, pres-takina edo objektua. Hala txertatu zen Kontseiluaren 94/55/CE Zuzentarauan, 1994ko azaroaren 21ekoan, salerosgai arriskutsuak errepidez garraiatzearen gainean Estatu kideek ezarritako legeak hurbiltzeari buruzkoan.

– **Likido erregaia:**

Sugar puntua 38° C-koa edo handiagoa duen likidoa da.

– **Likido sukoia:**

Sugar puntua 38° C-tik beherakoa duen likidoa da.

– **Lurralde Plana (LP):**

Lurralde eremu zehatz batean ager daitezkeen larrialdi orokorre aurre egiteko herri babeseko plana. Autono-mia Erkidegoan maila instituzional bakoitzean egon daitezke lurralde planak.

M:

– **Merkataritza portuak:**

Euren trafikoaren ezaugarriak direla-eta portuko merkataritza jarduerak gauzatzeko baldintzak betetzen dituz-tenak (teknikoak, segurtasunezkoak eta administrazio kontrolekoak). Portuko merkataritza jardueratzat jotzen da edonolako salerosgaiak kargatzea, deskargatzea, ontziz aldatzea eta biltegiatzea, euren bolumenagatik eta aurkezpenagatik baliabide mekanikoak edo instalazio espezializatuak behar badituzte.

– **Mobilizazioa:**

Istripu egoera bati erantzuteko neurria da. Honen bidez, ezarritako seinale bat ematen denean, egoera gertatu den tokira abiatzen da egitura operatiboa.

– **Mobilizaziorako sistema iraunkorra:**

Larrialdiekin zerikusia duten organoei mezuak bidaltzeko bidea, mezua edozein garaitan bidalita ere jasoko dutela ziurtatzen duena.

O:

– **Okupazioa:**

Eraikin, espazio, establezimendu, areto, instalazio edo egoitza batean gehienez sar daitezkeen pertsonen kopurua, bertako jarduera edo erabileraren arabera ezarria. Edukiera kalkulatzeko, indarreko arautegiko oku-pazio dentsitateak hartzen dira kontuan. Nolanahi ere, kalkulatu dena baino okupazio handiagoa espero bada, aurreikusitako horixe izango da erreferentziatzko balioa. Era berean, kalkulatu dena baino okupazio txikiagoa eskatzen badu legeak, horixe izango da erreferentziatzko balioa.

– **Operatibitatea:**

Larrialdien antolaketan parte hartzen duen pertsona talde bakoitzak larrialdiaren fase edo egoeraren arabera egin behar dituen ekintzen multzoa.

P:

– **Plan Berezia (PB):**

Euren izaeragatik metodologia tekniko eta zientifiko berezia behar duten berriarazko arrisku-entzarako presta-tutako herri babeseko planak dira. Estatuak (Estatuko plan bereziak eta oinarritzko planak) edo Autonomia Erkidegoak egin ditzake. Autonomia Erkidegoko plan bereziek Lurralde Planarekin bateragarri eta osagarri izan behar dute.

– **Plana aktibatzea:**

Eskumena duen agintariak martxan jartzea dagokion larrialdi plana, osoa edo haren zati bat. Aholkularitza Batzordea sortzea ekar dezake, eta talde operatiboak aginte egitura bateratu batean biltzea.

– **Planeko zuzendaria:**

Herri babeseko planaren baitan egin beharreko eragiketa guztiak zuzentzen dituen organoa. Euskadiko Herri Babeseko Lurralde Planeko zuzendaria Herrizaingo sailburua da.

– **Plangintza:**

Larrialdi egoerei aurre egiteko jarduera ildoak prestatzean datza.

– Prebentziozko ebakuazioa:

Pertsonak eta haien ondasunak arrisku edo ezbehar baten eraginetik babesteko gauzatzen den ekintza zuzendu eta kontrolatua da, eta pertsona horiek lekuz aldatzean eta ondoren horiei ostatu ematean datza. Jardunbide horiek berekin dakar Planean honako hauek aurreikustea: nola eman informazioa, nola bildu kaltetuak eta nola eraman harrera tokietara, eta mantenurako zein kontrolerako zer bitarteko erabili.

– Presa handia:

Gutxienez baldintza hauetako bat betetzen duten urtegiak eta presak:

- 15 metrotik gorako altuera, zimenduaren behe-behetik goialdera arte neurtua.
- 10 eta 15 metro arteko altuera, ezaugarri hauetako bat baldin badute:
- Goialdearen luzera 500 metrotik gorakoa.
- 1.000.000 metro kubikotik gorako edukiera.
- Segundo bakoitzean 2.000 metro kubikotik gora husteko ahalmena.
- Zailtasun bereziak zimenduetan edo ezohiko ezaugarriak.

Arrisku potentzialaren arabera, presak honela sailkatzen dira:

- A kategoriakoak: hautsi edo gaizki funtzionatuz gero eragin larria izan dezaketenak herriguneetan edo funtsezko zerbitzuetan, edo kalte material edo ingurumeneko kalte oso larriak sor ditzaketenak.
- B kategoria: hautsi edo gaizki funtzionatuz gero kalte material edo ingurumeneko kalte handiak eragin ditzaketenak, edo etxe kopuru txiki bati kaltea eragin diezaieketenak.
- C kategoria: hautsi edo gaizki funtzionatuz gero garrantzi ertaineko kalte materialak eragin ditzaketenak, eta oso inoizka bakarrik heriotzak.

– Prozedura operatiboa:

Larrialdi egoera batean operazioa egokiro gauzatzeko egin behar diren ekintza partzialen xedapen zehatza.

S:

– Segurtasun eremua (SE):

Pertsona kaltetuak nahiz esku hartzen duten pertsonak antolatzeke eta horien segurtasuna bermatzeko mugatutako eremua.

– Simulakroa:

Larrialdi planaren simulazio programatua, non praktikan jartzen diren planean aurreikusitako ekintzak.

– Su karga:

Espazio batean dauden material erregarri guztien errekuntzan (eraikinaren edukiak eta eraikuntzako elementuak) askatzen diren bero energia guztien batura (UNE-EN 1991-1-2:2004).

– Suaren kontrako erresistentzia:

Eraikuntza elementuen ezaugarri bat da, suaren ekinaren aurrean epe jakin batez egonkortasun mekanikoari, gar eta keekiko estankotasunari, gas sukoiaren emisiorik ezari eta isolamendu termikoari eusteko gaitasunaz hornitzen dituenak. Ezaugarri hori balioesteko, materialak aipaturiko baldintzei zenbat denboraz euts diezaiekeen hartzen da kontuan, eta minututan neurtu, eta RF siglen bitartez adierazten da, denboraren zenbakizko adierazpena ondoan duela. UNE 23093, UNE 23801 eta UNE 23802 arauen arabera zehazten da materialen suaren kontrako erresistentzia.

T:

– Taktika operatiboak (TO):

Deia edo alarma denbora errealean identifikatu eta ebaluatzeko prozedurak zehazten dituzte, baita zer neurri hartu behar diren eta baliabideak zein bitartekoak mobilizatzeko zer irizpide erabili behar diren ere, arazo motaren eta larrialdiaren fasearen arabera.

– Tanga:

0 eta 98 kPa (1 kg/cm²) arteko barne presio manometrikoa jasateko gai den edukiontzia.

– Topagunea (TG):

Ekintza taldeak biltzeko gunea, esku hartze guztiak koordinatzeko.

U:

– Uholdea:

Lehor egon ohi diren lurra aldi baterako uren mende egotea, eremu jakin batean ohikoa baino ur kopuru handiagoa jaso delako nahiko bat-batean.

– **Udal eta Foru Jardunerako Planak (UFJP):**

Udal edo foru agintariek egindako protokoloak dira. Bertan adierazita daude Herri Babeseko Oinarrizko Arauan jasotako arrisku jakin batzuei aurre egiteko prozedurak. Plan Berezietako gidalerroak beteta egiten dira.

Z:

– **Zentroa:**

Autobabeserako Oinarrizko Arauaren esparruan, establezimendua, espazioa, lokala edo instalazioa: titular baten kontrolpean dagoen zona osoa, non jarduera bat garatzen den.

– **Zuzendaritza Batzordea:**

Euskadiko Herri Babeseko Lurralde Planeko zuzendaritza egiturako organoa, Autonomia Erkidegoko ordezkari batek eta Estatuko beste batek osatua; autonomiaz gaindiko interesa dagoen kasuetan jarduten du, zuzendaritzako eta koordinazioko funtzioen transferentzia ahalbidetzeko.

1.4.2.- SIGLAK ETA AKRONIMOAK

A:

AA: Aseguru Artekartza.

AB: Donostiako Krisi Mahaiko Aholkularitza Batzordea.

AEMET: Meteorologiako Estatu Agentzia.

AEPB: Arrisku Erradiologikoari Aurre Egiteko Larrialdi Plan Berezia (Euskadi).

AG: Agindu grafikoak, Donostiako Krisi Mahaiko EGTEG arbelean islatu beharrekoak.

AI: Aiete auzoa.

AL: Altza auzoa.

AM: Amara auzoa.

ANSP-HAREAK: Hondartzetako Segurtasun eta Larrialdi Plana.

ANSP-KS: Saguesko Kontzertuetako Segurtasun eta Larrialdi Plana, Aste Nagusia.

ANSP-SUAK: Suetako Segurtasun eta Larrialdi Plana, Aste Nagusia.

ANSP: Aste Nagusiko Segurtasun Plana.

AÑ: Añorga auzoa.

AO: Antigua – Ondarreta auzoa.

APA edo APT: Aginte Postu Aurreratua edo Taktikoa.

AR: Artikutza Etxaldea.

ASLP: Arrisku Sismikorako Larrialdi Plana (Euskadi).

AT: 3. fasea, Donostiako Jarraipen Mahaia larrialdi egoerari buruzko arrazoibide taktikoa egitea.

AU: Aginte unitatea.

AU: Ategorrieta – Ulia auzoa.

AUP: Autobabeserako Plana.

AZT: 1. fasea, Donostiako Krisi Mahaian larrialdi egoera aztertzea.

B:

BBG: Biktimak Biltzeko Gunea.

BBP: Baliabideak Biltzeko Puntua.

BK: Bitartekoak kudeatzeko arbela, Donostiako Krisi Mahaian erabili beharrekoa.

BSLP: Baso Suteetarako Larrialdi Plana (Euskadi).

BSUEP: Baso Suteen aurkako Udal Ekintza Plana.

D:

D-HB: Donostiako Herri Babesa.

D-KM: Donostiako Krisi Mahaia.

D-PSISZ: Donostiako Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzua.

D: Donostia.

DAHZZ: Donostiako Azpiegituren eta Hiri Zerbitzuen Zuzendaritza.

DBUS: Donostiabus (Donostiako Tranbia Konpainia).

DHZ: Donostiako Hirigintza Zuzendaritza.

DKA: Donostiako Krisi Aretoa.

DMZ: Donostiako Mugikortasun Zuzendaritza.

DOPZ: Donostiako Osasun Publikoko Zerbitzua.

DULP: Donostiako Udal Larrialdi Plana.

DULP1989: Donostiako Udal Larrialdi Plana 1989.
DULP1997: Donostiako Udal Larrialdi Plana 1997.
DULP2016: Donostiako Udal Larrialdi Plana - 2016.
DYA: Errepidean Laguntzeko Elkartea.

E:

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa.
EB: Europar Batasuna.
EBFI: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituna.
EEG: 2. fasea, Donostiako Jarraipen Mahaia larrialdiaren egoera eguneratua adieraztea.
EEG: Egia auzoa.
EGTEG: Egoera taktiko eguneratuaren arbela, Donostiako Krisi Mahaian erabili beharrekoa.
EHA: Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.
EHBB: Euskadiko Herri Babeseko Batzordea.
EHE: Esku hartzeen eskema, Donostiako Krisi Mahaian erabili beharrekoa.
EKUZ: Ekintzak Koordinatzeko Udal Zentroa.
EKZ: Ekintzak Koordinatzeko Zentroa.
EKZB: Ekintzak Koordinatzeko Zentro Bateratua.
ELHL: Euskadiko Lurralde Historikoen Legea.
ELUJJP: Elurteetarako Udal Jardunerako Plana.
ER: Erdialdea auzoa.
ERAK: o. fasea, Donostiako Krisi Mahaian erabili beharrekoa.
ERTZ: Ertzaintza.
EsHT: Esku hartze taldea Suhiltzaileak PSISZ.
ET: Ekintza taldeak.
EUSKALMET: Euskal Meteorologia Agentzia.

F:

FMK: Fenomeno Meteorologiko Kaltegarriak.

G:

GFA-SLPZ: Gipuzkoako Foru Aldundiko Suteen eta Larrialdien Prebentzio Zerbitzua.
GG: Gurutze Gorria.
GLHLFP: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Larrialdietarako Foru Plana.
GLUZ: Donostiako Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua.
GR: Gros auzoa.

H:

HA: Hasierako aginduko arbela, Donostiako Krisi Mahaian erabili beharrekoa.
HAPO: Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.
HB: Herri Babesa.
HB: Herri Babesa.
HBL: Herri Babesari buruzko 5/1985 Legea.
HBLP: Herri Babeseko Lurralde Plana.
HBOA: Apirilaren 24ko 407/1992 Errege Dekretua, Herri Babeseko Oinarrizko Arauarena.
HBPB: Herri Babeseko Plan Berezia.
HBSNL: 17/2015 Legea, uztailaren 6koa, Herri Babeseko Sistema Nazionalarena.
HBTB: Herri Babeseko Tokiko Batzarra.
HMZ: Donostiako Hiri Mantentze eta Zerbitzuak.

I:

IB: Ibaeta auzoa.
IG: Igeldo auzoa.
IN: Intxaurrondo auzoa.
InfoK: Informazio Kabinetea.

J:

JMT: Jarraipeneko Mahai Teknikoa.

K:

KLP: Kanpoko Larrialdi Plana (Euskadi).

KMA: Krisi Mahaiaaren arduraduna.

L:

LA: Landarbaso enklabea.

LABI: Ekainaren 24ko 153/1997 dekretua, "Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea-LABI" deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzekoa.

LAEES: Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistema.

LAEMZ: Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza (Euskadi).

LEHEN: 6. fasea, Donostiako Krisi Mahaian larrialdi egoera leheneratzea.

LKL: 1/1996 Legea, apirilaren 3koa, Larrialdiak Kudeatzekoa.

LO: Loiola auzoa.

LPB: Larrialdi Plan Bereziak.

M:

MA: Materia arriskutsuak.

MB: Martutene auzoa.

METEOALARM: Alerting europe for extreme weather.

MUG: Donostiako Mugikortasun Zerbitzua.

MZ: Miramon – Zorroaga auzoa.

O:

OPA: Osasun Postu Aurreratua.

OSAKLZ: Osakidetzako Larrialdi Zerbitzua.

OsaT: Osasun Taldea Osakidetza, Gurutze Gorria, DYA...

OSK: Osakidetza, Euskal Osasun Zerbitzua.

P:

PRT-EURIAK: Euri ugari ari duenerako jardunbide protokoloa edo gida.

PRT-HAIZEAK: Haize zakarra dabilenerako jardunbide protokoloa edo gida.

PRT-HUSTEAK: Hustu/ostatu emateko jardunbide protokoloa edo gida.

PRT-METEO: Fenomeno meteorologiko kaltegarriei aurre egiteko jardunbide protokoloa edo gida.

PRT-OLATUAK: Olatu handiak aurreikusita daudenerako jardunbide protokoloa edo gida.

PRT: Udalaren Jardunbide Protokoloa edo Gida.

S:

SAGAPB: Errepidez eta trenez salerosgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko plan berezia (Euskadi).

SegT: Segurtasun Taldea Udaltzaingoa, Ertzaintza, Segurtasun Pribatua...

SGP: Segurtasun Pribatua.

SOS-DEIAK 112: Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa.

SP-ESTROPADAK: Kontxako Banderarako Segurtasun eta Larrialdi Plana.

STR: 4. fasea, Donostiako Jarraipen Mahaia larrialdi egoerari begirako estrategia erabakitzea.

T:

TAK: 5. fasea, Donostiako Krisi Mahaia larrialdi egoerari aurre egiteko taktika operatiboak ezartzea.

TEOAL: Tokiko Erregimenaren Oinarriak Arautzeko Legea.

TG: Topagunea.

TLog: Talde Logistikoa GLUZ, HMZ, DBUS...

TO: Taktika operatiboak.



1

U:

U: Donostiako Udaltzaingoa.

UDALINFO-010: Donostiako Herritarren Arretarako Zerbitzua.

UJP: Udal Jardunerako Plana.

UR: Urdaburu enklabea (Oberan).

URA: Ur Agentzia – Agencia Vasca del Agua.

UUUJP: Urumearen Uholdeetarako Udal Jardunerako Plana.

UZPB: Uholdeen Ziozko Larrialdiko Plan Berezia (Euskadi).

Z:

Z: Planaren zuzendaria.

ZT: Planaren zuzendari teknikoa.

ZU: Zubieta auzoa.

2.1.- DONOSTIA UDALERRIA

Donostia HIRIA Gipuzkoako Lurralde Historikoko (GLH) hiriburu eta erdigune politiko-administratiboa da, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE).

2.1.1.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA (EAE) ETA GI-PUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA (GLH)

2.1.1.1.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA (EAE).

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) Kantauri itsasoko ertzeko ipar-ekialdeko muturrean dago. Iparraldean, Bizkai-ko golkoa (Kantauri itsasoa) eta Frantzia (Akitania) ditu; hegoaldean, berriz, Errioxa; mendebaldean, Kantabria eta Burgos; eta ekialdean, Nafarroa. Euskal Herria naziotasun historiko moduan dago aitortuta bere Autonomia Estatutuan. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoei osatzen dute EAE.

Euskal Autonomia Erkidegoak 7.234 km²-ko guztizko hedadura dauka, eta 2.164.311 biztanle (EIN, 2015); beraz, bertako biztanleria dentsitatea 299,19 biztanle/km² da. Ofizialki ez du hiribururik, baina era ez-ofizialean Gasteiz (Araba) da bertako hiriburua, bertan baitago Legebiltzarreko eta Eusko Jaurlaritzako erakunde bateratuen egoitza. Bilbo dugu, bestalde, hiririk jendeztatuena; Bizkaiko Lurralde Historikoko hiriburua da.

2.1.1.2.- GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA (GLH).

Gipuzkoa da EAE osatzen duten hiru lurralde historikoetako bat. Donostia hiria da bertako hiriburua, eta hiri horixe da, hain zuzen, Plan honen helburua ere. GLHk muga du, ipar-mendebaldean, Pirinio Atlantikoetako frantziar departamentuarekin; ekialdean, Nafarroarekin; mendebaldean, Bizkaiarekin; hego-mendebaldean, Arabarekin; eta iparraldean, Bizkaiko golkoarekin. Kantauri itsasoaren ekialdeko muturrean dago kokatuta, Bizkaiko golkoan, eta 66 km-ko kostaldea dauka.

GLHk 1.997 km²-ko guztizko hedadura dauka, 88 udalerrri eta 707.298 biztanle ditu (2015), eta erdiak baino gehiago Donostiako metropoli eremuan bizi dira.

2.1.2.- KOKAGUNEA ETA POSIZIOA

Udal barrutiaren KOKAGUNEA honako koordenada geografiko hauek ditu:

- a) Latitudea: 43° 19' N.
- b) Longitudea: 2° 3' W Greenwicheko meridianotik edo 1° 41' 30" Madrilgo meridianotik ekialdera.

Udalerria kostaldean dago, Kantauri itsasoaren ertzean. Kontxako badiaren eta Pasaiaiko itsasadarraren arteko gipuzkoar itsasertzaren sektorea hartzen du, eta barnerantz zabaltzen da, Urumea, Oria eta Oiartzun ibaiek zein Añorga errekek bustitako lurretan zehar. Lauki luze itxurako konfigurazioa dauka, itsasertzarentz hedatzen dena (SE-NW). Iparraldean (N) Kantauri itsasoarekin du muga, eta neurri txikiagoan, Pasaiaarekin; hegoaldean (S), berriz, Usurbil, Lasarte-Oria, Hernani, Astigarraga eta Erreterria udalerriekin; ekialdean (E), Pasaia, Erreterria eta Astigarragarekin; eta mendebaldean (W), Orio eta Usurbilekin.

Hiriaren erdiguneak ez ezik, beste hiru lurralde eremu bereizi hauek ere osatzen dute udal barrutia: Zubieta auzoak eta Landarbaso zein Urdaburu-Oberan enklabeek. Hiriaren nukleoaren hegoaldean daude hiru eremuak.

Donostiako udal barrutiak 60,73 km²-ko azalera du guztira. Horietatik 23,85 km² hiri lurzoruek eta urbanizagarriek (% 40) osatzen dute; gainerako 36,87 km²-ak, berriz, hiri urbanizaezinek edo landa lurzoruek (% 60). Udalerriak 187.000 biztanle inguru ditu gaur egun.

Udal barrutiaren erdigunea eremu geografiko gorabeheratsuan dago kokatuta. Zehazki, honako unitate geografiko orokor hauek daude:

- 1) Ekialdetik mendebaldera, itsasertz katea edo frontea: Ulia mendia, Zurriolako senadia, Urumea ibaiaren bokalea, Urgulleko tonboloa, Kontxako badia (Santa Klara uhartea eta Kontxa zein Ondarreta hondartzak), eta Igeldo zein Mendizorrotz mendiak. Horren ondorioz, kostalde malkartsu, higadurazkoa eta luzetarako egitura duena sortzen da.

- 2) Barneko mendikate perimetrala: Jaizkibel, San Markos, Txoritokieta, Oriamendi, Arratzain eta Mendizorrotz.
- 3) Korridoreak: ekialdeko (E) korridorea; hego-ekialdeko (SE) korridorea, Urumea ibaiaren ibarrekoa; eta hego-mendebaldeko (SW) korridorea, Añorga erreken ibarrekoa eta Ibaetako ibarrekoa.
- 4) Barnealdeko erdiguneko eremu garaiak edo goraguneak: Unanue, Aiete, Miramon-Zorroaga, Antondegi, Lauizeta eta Altza Gaina.

Bestalde, estrategiari dagokionez POSIZIO geografiko pribilegiatua dauka hiriak. ARKU EDO ARDATZ ATLANTIKOAREN bihotzean dago kokatuta, eta Iberiar penintsularen eta Europa kontinentalaren arteko topagunea da. Kantauri itsasoaren ekialdeko muturrean eta Pirinio mendigunearen mendebaldean zein Pirinioen aurrealde atlantikoan dago. Gainera, Euskal Herriko hiri eremu garrantzitsuenetako bat ere bada.

2.1.3.-METROPOLI EREMUA

DONOSTIALDEAK erreferentzia egiten dio, hain zuzen, Donostiak, Gipuzkoako hiriburu moduan, eta hurbileko udalerrri batzuek osatzen duten hiri multzoaren errealitate morfologiko-funtzionalari egindako hurbilketa bati. Hurbileko udalerrri horietako batzuek konurbazioa eratzen dute hiriarekin, eta itsasertzaren sektore bat hartzen dute, Kontxako badiaren eta Pasaia artean eta Urumea, Oria eta Oiartzun ibaien ibarren eta Añorga erreken artean.

Hiri eremu hori ez dago, baina, bakartuta. Goi mailagokoa den beste unitate bateko parte da; zehazki, Gipuzkoako Hiri Eskualdeko parte. Gipuzkoako Lurralde Historikoa (GLH) bertako hiriburuak antolatutako espazioa dela esan genezake. Eta bere eremu Periferikoa, berriz, itsas azpisisistemaren baitan, euskal hiri sistema periferiko osoaren eskualde nodala.

Hala, Gipuzkoako hiri eskualdean garrantzi handia duen eremu konurbatua da, Euskal Hiri Sistemako gainerrakoei fluxu handia daukana. Gainera, eremu hori Europako Hiri Sistemaren Ardatz Atlantikoan dago txertatuta, eta Bidasoa Beherearen bidez harremanak ditu Lapurdiko itsasertzetik hasi eta Baionara artekoekin, Nafarroako ipar-mendebaldearekin, Orio inguruarekin eta Villabona, Zizurkil eta Aduna udalerriekin.

2.1.3.1.- DONOSTIALDEA

Donostia hiriburuaz gainera, Donostialdean biltzen dira ANDOAIN, ASTIGARRAGA, HERNANI, LASARTE-ORIA, LEZO, OIARTZUN, PASAIA, ERRETERIA, URNIETA eta USURBIL udalerrriak ere. Lurralde eremu honek 306 km² ditu, eta 325.000 biztanle. Eremu geografiko honen jarduera banaketa honelakoxea da: hirugarren sektorean dihardu lanean biztanleria aktiboaren % 70ek; eraikuntza, % 6k; industria, % 23k; eta lehen sektorean, % 1ek.

LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROEK (LAG) Metropoli Eremutzat eta Hirugarren Sektoreko Eremutzat jotzen dute eremua, eta ezin konta ahala argibide eskaintzen dituzte mugaz haraindiko lankidetzarako mekanismoak, azpiegiturak, ekipamenduei, hiri birgaitzeko programei, turismoari, etxebizitzari, zerbitzuei, eremu naturalei... buruz, eremuaren garapena bultzatze aldera.

2.1.3.2.- DONOSTIALDEA-BIDASOA BEHEREKO EREMU FUNTZIONALA

Lurraldea antolatzeko indarrean dauden tresnek xedatzen dutenaren arabera, DONOSTIALDEA-BIDASOA BEHEREKO EREMU FUNTZIONALARI dagokio Donostia. Eremu funtzional hori osatzen dute, Donostialdeak ez ezik, baita Hondarribiak eta Irunek ere. 376 km²-ko azalera eta 398.000 biztanle ditu. Testuinguru horretan, Donostiari dagokio eremu funtzional osoaren % 16 eta bertako biztanleriaren % 46.

Lurraldeak iparraldeko itsas fronte bat dauka, gutxi gorabehera 25 km-ko luzera duena, ekialdetik mendebalde-rantz doana. 68 km-ko kostalde koskatua dauka, Kontxako, Pasaia eta Txingudiko badiarekin, eta horiek mugatuta daude Igeldo, Urgull, Uria eta Jaizkibel mendiak direla tarteko. Barnealdean, hegoaldean, 800 m-tik gorako kotetaraino goratzen da lurraldea; zehazki, Aiako Harria eta Adarra. Gainera, Oria, Urumea, Oiartzun eta Bidasoa ibaiak daude, hegoaldeko iparraldera.

2.1.3.3.- EUSKAL EUROHIRIA: DONOSTIA-BAIONA

Azkenik, Donostia udalerrria EUSKAL EUROHIRIAREN parte da. Eurohiri hori osatzen du, hain zuzen, Donostia eta Baiona artean dauden 50 km-etan zehar luzatzen den hiri eta itsasbater korridoreak. Eurohiriak kokagune geografiko estrategikoa dauka: Arku Atlantikoaren bihotzean dago, Bilbo eta Bordele artean. Pirinio mendigunearen mendebaldean eta Pirinioen aurrealde atlantikoan dago, eta Euskal Herria, Bidasoa ibaiak historikoki irudikatu duen banalerroaren bi aldeetara.

Hauek dira Eurohiria osatzen dutenak: Agglomération Côte basque Adour (Baiona, Angelu, Biarritz, Bokale, Bidar-

te), Agglomération Sud Pays Basque (Ahetze, Ainhoa, Arbona, Azkaine, Biriatu, Ziburu, Getaria, Hendaia, Donibane Lohizune, Senpere, Sara, Urruña), Bidasoa-Txingudi Partzuergoa (Hendaia, Irun, Hondarribia), Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentzia (Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia), Donostiako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA). Euskal Eurohiriaren proiektuaren helburua da, hain zuzen, lehendik dagoen hiri errealitatea 600.000 biztanleko europar metropoli berri batean egituratzea, non azpiegiturak, hiri zerbitzuak eta kudeaketa tresnak modu bateratuan onartuko diren.

2.1.4.- HIRI EGITURA

Donostia hiriaren eremu geografiko gorabeheratsuan dago kokatuta; nola udal barrutiari dagokionez, hala eskualdeari edo funtzionaltasunari dagokionez. Horrek zailtasun handiak ekarri ditu hiriaren garapenerako, eta, beraz, hiriaren finkatze edo hedapen ildo nagusiak baldintzatuta eta bideratuta geratu dira. Horrenbestez, izan duen hiri hedapena N-I errepidearen ardatzaren, Oiartzun ibaiaren ibarraren (Pasaia badiaren ingurunearekin batera), Urumearen ibarraren, Añorgako erreken eta Oria ibaiaren ibarraren arabera izan da.

2.1.4.1.- HIRI GARAPENA

Donostiako hiri prozesuan, honako sei etapa orokor hauek bereizten dira:

- 1) 1180. urtera artekoa: multzo txikiak zeuden gaur egun Antigua, Urumearen ibarra eta Parte Zaharra diren-tan.
- 2) 1180. urtetik XV. mende amaierara bitartekoa: hiribilduaren hazkunde motela.
- 3) XVI. mendetik XIX. mendearen erdialdera artekoa: hazkunde eta egonkortze fasea.
- 4) XIX. mendearen erdialdetik 1955. urtera bitartekoa: industrializazio prozesuarekin batera, zabalguneen plan-gintza eta garapena izan ziren.
- 5) 1955etik 1995era bitartekoa: hiriko lehen Plan Orokorra idatzi zen 1962an, hiri garapen handia izan zen eta Eremu Periferikoa eta Eskualde Funtzionala eratu ziren.
- 6) 1995. urtetik gaur egunera bitartekoa: 1995. urtean Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) onartu zenetik, eta 1990eko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) praktikan jarri zirenetik, eskualdeko Lurralde Plan Partzialen (LPP) eta sektoreko Lurralde Plan Sektorialen (LPS) bitartez, Donostia-Baiona Ardatzaren garapenaren bitartez eta 2010ean hiriarentzat HAPO berria idatziz, gaur egunera bitarte.

2.1.4.2.- UNITATE GEOGRAFIKOAK ETA HIRI UNITATEAK

Donostia hiriak gaur egun duen hiri eredua honako unitate geografiko eta hiri unitate hauek osatutakoa da:

1)HIRI NAGUSIA ETA EREMU OSAGARRIA.

Hiri Nagusia, hain zuzen, Barruti Nagusiak edo ingelesez CBD (Central Business District) akronimoarekin ezagutzen denak eta haren Eremu Osagarriak osatzen dute.

1.1) HIRI NAGUSIA XIX. mendeko zabalgunean eta hiriaren Erdialdeko auzoan garatu zen. Hiriaren erdigunearen ardatz nagusia Askatasun hiribidea da: ardatz horretatik Boulevardaraino doa, iparralderantz; eta Artzain Onaren plazaraino, hegoalderantz. Eremu horretan nabarmentzekoak dira Gipuzkoa plaza eta Foru Aldundia-ren jauregia. Horixe dugu jarduera ofizialeko hiriko eremurik adierazgarriena, finantza eta merkataritza jardun handikoa.

1.2) EREMU OSAGARRIA, berriz, heterogeneoa da, Hiri Nagusiaren funtzioaren arabera zerbitzuak eta jarduerak dituena; gainera, bizitegi jarduera handia ere badauka. Eremu Osagarria osatzen duten eta erdigunetik hurbilen dauden eremuak, berriz, Parte Zaharra, Ekialdeko Zabaldura, Gros (GR) auzoa eta Egia (EG) auzoa ditugu. Eremua mendebalderantz luzatzen da, mendebaldeko sektorearen bitartez: Aiete (AI) eta Antigua-On-darreta (AO) auzoak. Baita hegoalderantz ere, hegoaldeko sektorearen bitartez: Amara Berri (AM) auzoa.

2) EREMU PERIFERIKOA.

Hiriko gainerako hiri unitateak Eremu Periferiko izenekoaren barnean daude, eta bertan bereizten dira Ekialdeko (E) Korridore Submetropolitarrak, dentsitate eta hiri jarraitutasun handienekoak; Hego-ekialdeko (SE) eta Hego-mendebaldeko (SW) Hiri Inguruko Korridoreak, dentsitate eta hiri jarraitutasun txikiagoa dutenak; eta, azkenik, itsasertzeko goi eremuak eta barnealdeko erdigunekoak, dentsitate txikiagoak eta hiri bilbe sakabana-tuagoa dutenak.

2.1) EKIALDEKO KORRIDORE SUBMETROPOLITARRA, Hiri Nagusiaren mendebaldeko Eremu Periferikotik mendebalderantz zabaltzen dena, iparraldean Uliako katearen eta hegoaldean Intxaurrendoko eta Altxako goi eremuen artean. Korridore hau, hain zuzen, Ategorrieta-Ulia (AU), Intxaurrendoko (IN), Miracruz-Bidebieta (MB) eta Altxa (AL) auzoak osatzen dute. Mendebalderantz ere luzatzen da, udal barrutitik kanpora, eta jarraituta dauka Pasaia, Lezo, Errenteria eta Oiartzun udalerrietan.

2.2) HEGO-EKIALDEKO HIRI INGURUKO KORRIDOREA, Urumearen ibarrari dagokiona. Hau ere Hiri Nagusiaren mendebaldeko Eremu Periferikotik abiatzen da, baina hegoalderantz zabaltzen da, Intxaurrendoko goi eremuen eta barnealdeko erdiguneko eremuen artean. Korridore hau, zehazki, Loiola (LO) eta Martutene (MA) auzoek osatzen dute. Urumearen ibarrean zehar ere luzatzen da, udal barrutitik kanpora: Astigarraga, Hernani eta Urnieta udalerrietan.

2.3) HEGO-MENDEBALDEKO HIRI INGURUKO KORRIDOREA, Añorga erreken ibarrari dagokiona. Hiri Nagusiaren ekialdeko Eremu Periferikotik abiatzen da, eta hegoalderantz zabaltzen da, Igeldo katearen eta barnealdeko erdiguneko goi eremuen artean. Korridore hau, zehazki, Ibaeta (IB) eta Añorga (AÑ) auzoek osatzen dute, baita Zubieta (ZU) auzoak ere. Mendebalderantz eta hegoalderantz hedatzen da, udal barrutitik kanpora, Usurbil, Lasarte-Oria eta Andoain udalerrietan zehar.

2.4) ITSASERTZEKO GOI EREMUAK, ekialdetik mendebaldera doan itsasertzeko kate edo fronteari dagokiona. Hain justu, Igeldo, Urgull eta Uli mendiek osatzen dute. Goi eremu horietan daude Igeldo auzoa, Motako gaztelua eta Uliako parkea. Eremu horiek Pasaia udalerrirantz hedatzen dira ekialderantz, eta Oriorantz, mendebalderantz. Honako hauek dira erreferentziatzko puntu garaiak:

- a) Igeldo: 200 m-tik gorako kotak ditu; ekialdetik mendebaldera, erreferentziatzat ditu Mendizorrotz (416 m), Biraolako Gaina (330 m), Beorretako Haitza (280 m), Txalin (280 m), Kalbariomendi-Igeldo herria (275 m), Gudamendi (185 m), Arburumendi (185 m) eta Txubillo-Igeldo parkea (185 m).
- b) Urgull: 100 m-tik gorako kota dauka, eta Motako gaztelua (125 m) da bertako erreferentzia.
- c) Uli: 200 m-tik gorako kotak ditu; ekialdetik mendebaldera, erreferentziatzat ditu Baleontziko Haitza (220 m), Uso-Tiroa (225 m), Txurreroko Gaina (175 m), Atxumaitz (200 m), Gurutzeta (200 m) eta Sorginarri (200 m).

2.5) BARNEALDEKO GOI EREMUAK. Udalerraren Erdigunean eta hegoaldean daude, eta honako hauek dira: Unanue edo Añorga auzoaren goi eremua, Aiete (AI) auzoaren hegoaldeko zatia, Miramon-Zorroaga (MZ) auzoa, Antondegi Gaina, Lauaizeta eremua, eta Altza (AL) auzoaren goiko zatia. Hauek dira bertako puntu garaiak:

- a) Unanue: edo Añorgako (AÑ) goi eremua; 100 m-tik gorako kotak ditu, eta ekialdetik mendebaldera, Lugartontorra (160 m) eta Kapirionenea (140 m) ditu erreferentziatzat.
- b) Aiete (AI): 100 m inguruko kotak ditu, eta iparraldetik hegoaldera, erreferentziatzat ditu Lugaritzeko Gaina (90 m), La Cumbre (90 m), Aieteko Parkea (95 m), Borroto (100 m), Puioko Mendia (115 m) eta Oriamendi pasealekua (100-125 m).
- c) Miramon-Zorroaga (MZ): 100 m-tik gorako kotak ditu, eta ekialdetik mendebaldera, erreferentziatzat ditu Oriamendi (190 m), Begiristain pasealekua (125-100 m) eta Zorroaga Gaina (60 m).
- d) Antondegi: edo Martuteneko (MA) goi eremua; 100 m inguruko kotak ditu, eta Antondegiko Gaina (95 m) da bertako erreferentzia.
- e) Lauaizeta: 100 m-tik gorako kotak ditu, eta 200 m-ra iristen da mendebaldeko muturrean. Ekialdetik mendebaldera, Ametzagaña (120 m), Marrusko Gaina (Garbera merkataritza gunetik hurbil, 95 m) eta San Markosko Gaina (270 m) dira erreferentziatzko puntu garaiak.
- f) Altza Gaina edo Altzako (AL) goi eremua; 100 m inguruko kotak ditu, eta hego-ekialdetik ipar-mendebaldera, erreferentziatzat ditu Lauaizeta pasealekua (90 m), Gorringo Gaina (75 m) eta Eguzkitzako Gaina (75 m).

2.1.5.- BARRUTIAK, AUZOAK ETA ENKLABEAK

Donostiako Udalak Donostiako Barrutien Araudi Organikoa onartu zuen 2015eko martxoaren 26an.

Donostiako Barrutien Araudi Organikoak, bere 1. artikuluan (Barrutiak), Donostia udalerririk berezkoak dituen lurralde banaketa moduan definitzen ditu barrutiak. Udaleko gaiak kudeatzeko eta hobetzeko herritarren parte hartzea bultzatzea eta garatzea bilatzen duen kudeaketa deskontzentratua duten organoak dituzte, gobernu unitatea eta udalerraren kudeaketa alde batera utzirik.

Bestalde, 4. artikulua (Lurralde eremua) hiria lau barrutitan banatzen du; gainera, bakoitzaren lurralde osaera xedatzen du. Hauek, hain zuzen:

1) EKIALDEKO BARRUTIA.

Altza, Intxaurrendoko eta Miracruz-Bidebieta.

2) ERDIALDE-HEGOALDEKO BARRUTIA.

Amaraberri, Erdialdea, Loiola eta Martutene.

3) MENDEBALDEKO BARRUTIA.

Aiete, Antigua-Ondarreta, Añorga, Ibaeta, Igeldo, Miramon-Zorroaga eta Zubieta.

4) IPAR-EKIALDEKO BARRUTIA.

Ategorrieta-Ulia, Egia eta Gros.

2003. urteaz gero, Donostiako Udalak hamazazpi (17) auzotan eta bi (2) landa enklabetan banatu izan du udal barrutia.

1) AUZOAK.

1. AIETE (AI).
2. ALTZA (AL).
3. AMARABERRI (AM).
4. ANTIGUA – ONDARRETA (AO).
5. AÑORGA (AÑ).
6. ATEGORRIETA – ULIA (AU).
7. ERDIALDEA (ER).
8. EGIA (EG).
9. GROS (GR).
10. IBAETA (IB).
11. IGELDO (IG).
12. INTXAURRONGO (IN).
13. LOIOLA (LO).
14. MARTUTENE (MA).
15. MIRACRUZ – BIDEBIETA (MB).
16. MIRAMON – ZORROAGA (MZ).
17. ZUBIETA (ZU).

2) LANDA ENKLABEAK.

18. LANDARBASO (LA).
19. URDABURU (Oberan) (UR).

3) UDAL TITULARTASUNEKOAK DIREN ETA UDAL BARRUTITIK KANPO DAUDEN ETXALDEAK.

20. ARTIKUTZA (AR)*.

** Artikutza Etxaldea Donostia udalerriaren lurralde eremutik kanpo dago, eta, horrenbestez, DULP2015 honetatik kanpo geratzen da. Alabaina, udal titulartasunekoak denez eta ezaugarri zein dimentsio bereziak dituen, dokumentuan aipatuta eta deskribatuta ageri da.*

Geografikoki eta definitutako unitate geografikoen arabera, era honetan banatuta daude auzoak:

A) ITSASERTZEKO EREMU GARAIK: Igeldo (IG) eta Ulia (AU).

b) HEGO-MENDEBALDEKO HIRI INGURUKO KORRIDOREA, Añorga erreken ibarrekoa eta Ibaetako ibarrekoa: Añorga (AÑ), Ibaeta (IB) eta Antigua-Ondarreta (AO).

C) HEGO-EKIALDEKO HIRI INGURUKO KORRIDOREA, Urumea ibaiaren ibarrekoa: Martutene (MA), Loiola (LO), Amaraberri (AM), Egia (EG), Erdialdea (ER) eta Gros (GR).

D) EKIALDEKO KORRIDORE SUBMETROPOLITARRA: Ategorrieta-Ulia (AU), Intxaurren (IN), Miracruz-Bidebieta (MB) eta Altza (AL).

E) ERDIGUNEKO EREMU GARAIK EDO GORAGUNEAK: Aiete (AI) eta Miramon-Zorroaga (MZ).

F) ORIA IBAIAREN IBARRA: Zubieta (ZU).

2.1.5.1.- AIETE (AI)

1) Kokagunea eta mugak.

Aiete (AI) auzoa hiriaren erdigunean dago, eta Ibaeta eta Urumea erreken ibarren artean dagoen Aieteko gainaren gailurra eta mazelak hartzen ditu. Hegoaldean, hiriko saihesbidearekin du muga; iparraldean, Mirakontxa pasealekuarekin eta San Roke bidearekin; ekialdean, Eusko Trenbideen (ET) burdinbideekin, Amara-Aiete errepide berriarekin eta Errondoko bidearekin; eta mendebaldean, Lugaritzeko muinoen ertzean, Ibaeta-Aiete bidearekin eta Tolosa hiribidearekin.

2) Azalera.

Auzoak 2,57 km² inguruko hedadura dauka. Kilometro horietako gehienak (% 93) hiri lurzoruak eta urbanizagarriak dira (alegia, 2,40 km²), eta gainerakoak (% 7) urbanizaezinak (alegia, 0,17 km²).

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Aiete landa auzo bat da jatorriz, Hernani eta Donostia lotzen zituen errege bidearen adar zaharren inguruan

egituratuta dagoena (Aldapeta, Aiete pasealekua eta Oriamendi pasealekua). 70eko hamarkadan, landa auzo iza-teari utzi eta bizitegi auzo bihurtu zen. Orain, bizitegiak dira nagusi, eta etxebizitzaren eta biztanleen sakabanaketa da auzo zabal horren ezaugarrietako bat. Bertan dago Aieteko parkea, Aieteko jauregia daukana; bai eta Arbaizeneko etorkizuneko parkea ere, izen bereko jauregiarekin.

4) Biztanleria.

14.000 bizilagun inguru ditu Aiete auzoak.

5) Unitate txikiak:

Auzoan 10 unitate txiki daude: Mirakontxa, Arbaizenea, Aieteko jauregia, Puio/Lanberri, Errondo, Etxadi, Pagola, Bera-Bera, Munto eta Lugaritz.

2.1.5.2.- ALTZA (AL)

1) Kokagunea eta mugak.

Altza (AL) auzoa hiriaren Ekialdeko (E) Korridorean dago, Pasaia badiaren ikusmenean daukaten muinoetako baten gainean kokatuta, eta hango mazalak hartzen ditu. Hiriaren ekialdeeneko muturrean dagoen auzoa da, Pasaia eta Errenteria udalerriekin muga eginez. Altza udalerriaren nukleo historikoaren inguruan egituratu zen, ia-ia osorik desagertuta dagoena, muinoaren punturik gorenean. Auzo hori elementu identifikagarria da hiriaren testuinguruan, dauzkan baldintza topografikoak direla tarteko. Horiek are gehiago nabarmentzen dira, gainera, inguruan dituen bide azpiegitura handiei esker (Pasaia portua, Bilbo-Behobia autobidea eta autobide horrek Herrerarekin eta portuarekin dituen loturak).

2) Azalera.

Altzak ia 4,99 km²-ko hedadura dauka: kilometroen erdiak gutxi gorabehera (% 50) hiri lurzoruak eta urbanizagarriak dira (alegia, 2,49 km²); gainerako erdiak (% 50), berriz, lurzoru urbanizaezinak (alegia, 2,50 km²), gehienak Lauaizeta parkeari dagozkionak.

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Altza udalerriaren nukleo historikoaren inguruan egituratu zen auzoa. Altza udalerri hori, hain zuzen, 1939an txertatu zen hirian, landa izaera zeukan eta ia desagertuta dago. XX. mendearen erdialdetik aurrera garatu zen auzoa, eta batez ere 1970eko urteetan, iparraldeko, ekialdeko eta mendebaldeko mazalak pixkanaka okupatuz, bai eta errepide nazionalaren parean eta Txingurriren eta Molinaoren behe ibarretan eraikiz ere, eta, azkeneko, hirian erraz identifikatzek moduko pieza osatu du. Auzoaren muga dira, hain zuzen, bertako ingurune fisikoaren eta batez ere bertako topografiaren ezaugarri bereziak, inguruan egindako azpiegitura handien ibilbideak indarturik (Pasaia portua, Bilbo-Behobia autobidea eta autobide horrek Herrerarekin eta portuarekin dituen loturak); eta salbuespenak dira ekialderantz Pasaia Antxoko barrutian eta hego-mendebaldean kokatuta dagoen Garbera Eremuan dauzkan jarraitutasunak. Hala, Altza auzoak landa lurzoruaren azalera handia dauka, hasi saihesbide errepidearen hegoaldeko eta udal mugaraino. Bertan, Lauaizeta parkea nabarmentzen da, hiriaren ekialdearen birika.

4) Biztanleria.

20.000 bizilagun inguru ditu Altza auzoak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 10 unitate txiki daude: Herrera, Larratxo, Altza Gaina (Altzako erdigunea), Arriaga, Oleta, Buenavista, Eskalantegi Molinao eta Auditz Akular – Landarro.

2.1.5.3.- AMARA BERRI (AM)

1) Kokagunea eta mugak.

Amaraberri (AM) auzoa Hego-ekialdeko (SE) Korridorean dago, Urumea ibaiaren ibarrekoan. Araba parketik abiatzen da, eta ibaiaren ezkerreko ibilbidetik gora eginez, Mundaiz penintsula inguratzen duen ibaiaren meandroarekin du muga iparraldean. Ekialdean eta hegoaldean, berriz, hiriaren saihesbide errepidearekin, eta mendebaldean, Eusko Trenbideetako burdinbideekin eta Amara-Aiete errepide berriarekin. Topografikoki, lursail lauak dira, Urumearen ibarrearekin bat datozenak. Ibar horren luzapen moduan hedatzen dira Anoetako eta Morlanseko behe ibarrak. Auzoan dago, halaber, Loiolako Erribera eremu berria, saihesbide errepidea tokiz aldatuta osatu dena. Horri esker, auzoa hurbilago egin da, muga berriak sortu dira eta auzoa hirian txertatu da.

2) Azalera.

Amaraberri auzoak ia 1,53 km²-ko hedadura dauka. Kilometro horietako gehienak (% 90) hiri lurzoruak eta urbanizagarriak dira (alegia, 1,36 km²), eta gainerakoak (% 10) urbanizaezinak (alegia, 0,159 km²).

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

1960ko hamarkadan hirian egindako zabalgunearen bidez osatu zen auzo hau, eta gaur egun, hiriko bizitegi auzo nagusia da. Auzoaren hegoaldean, Anoetako kirol hiria dago: Anoetako Udal Estadioa (Realaren ohiko zelaia), Belodromoa, Miniestadioa, Carmelo Balda pilotalekua, Txuri Urdin Izotz Pista eta Anoetako kirol instalazio guztiak.

4) Biztanleria.

28.000 bizilagun inguru ditu Amaraberri auzoak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 4 unitate txiki daude: Morlans, Amaraberri (Amarako zabalgunea), Anoeta eta Erribera.

2.1.5.4.- ANTIGUA – ONDARRETA (AO)

1) Kokagunea eta mugak.

Antigua – Ondarreta (AO) auzoa Kontxako badiaren mendebaldean dago, alboetara Igeldo eta Aiete mendiak dituela. Ibaetako ibarraren eremu lauen iparraldeko zati bat hartzen du, itsasertzeraino eta Lugaritz Gaineraino. Horren gainean dago Seminarioko eraikina. Igeldo mendiaren ekialdeko muturra ere auzo horri dagokio. Ekialdeko mazelan daude, hain zuzen, jolas parkea, Itsasargi pasealekua, Erregenea eta Satrustegi dorrea; bai eta Igeldo pasealekua eta Tximistarribidea marrazten dituen lerroaren ekialdean dauden lursail guztiak ere. Hala, iparraldean, Igeldora joateko errepideekin eta Ondarreta hondartzarekin du muga; hegoaldean, Pinubidearekin eta Matia Fundaziorako oinezkoentzako sarbidearekin; ekialdean, Jauregi kalearekin eta Marañon pasealekuarekin; eta mendebaldean, Tolosa hiribidearekin eta Igeldo mendiaren mazelarekin.

2) Azalera.

Antigua-Ondarreta auzoak ia 1,75 km²-ko hedadura dauka. Kilometro horietako gehienak (% 72) hiri lurzoruak eta urbanizagarriak dira (alegia, 1,26 km²), eta gainerakoak (% 28) urbanizaezinak (alegia, 0,49 km²), Igeldo ingurukoak.

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Auzo honetan sortu zen hiriko lehen giza asentamendua. XIX. mendearen amaieran garatu zen; batetik, bertako tailerretako eta fabriketako langileen ostatuetaarako egindako eraikinei lotuta, eta, bestetik, geroago, zati bat jostetarako etxeetara bideratuta.

4) Biztanleria.

15.000 bizilagun inguru ditu Antigua-Ondarreta auzoak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 7 unitate txiki daude: jolas parkea, Itsasargia-Erregenea, Ondarreta, Matia, Pio Baroja, Heriz-Aizgorri eta Bentaberri.

2.1.5.5.- AÑORGA (AÑ)

1) Kokagunea eta mugak.

Añorga (AÑ) auzoa Hego-mendebaldeko (SW) Korridorean dago, Añorga erreken ibarrekoan, eta N-I errepidean zehar luzatzen da. Auzo hau Añorgako bide korapiloaren (iparraldean Ibaeta auzoarekin muga) eta udalerriak hegoaldean duen mugaren artean dago kokatuta. Hala, hegoaldean, Lasarte-Oria udalerriarekin du muga; mendebaldean eta iparraldean, Bilbo-Behobia autobidearen ibilbide bateratuarekin eta hiriko saihesbide errepidearekin; eta ekialdean, berriz, Aietetik Hernanira doan errepidearen goi eremuarekin (Oriamendi pasealekua), Añorga erreka isurtzen diren erreken ibai buruaren bidea eginez.

2) Azalera.

Añorga auzoak ia 4,90 km²-ko hedadura dauka. Kilometro horietako 2/3 baino gehiago (% 68) lurzoru urbanizaezinak dira (alegia, 3,30 km²), eta gainerako herenak (% 32), berriz, hiri lurzoruak eta urbanizagarriak (alegia, 0,159 km²).

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

N-I errepidearen ibilbideak ebakitzen du auzoa. Oro har, modu linealean luzatzen da aipatutako bide azpiegitura horren bi aldeetan, eta horren ondorioz, hainbat biztanleria nukleo sortu dira: Añorga Txiki, Añorga Errekalde eta Añorga Rezola. Era berean, lurralde hedadura handia dauka, eta landa eremu garrantzitsu bat ere badu. Añorga Errekalde inguruan, N-I errepidearen ekialdera, Cementos Rezola fabrikaren instalazioak, Belartzako industria-dea eta Zuhatzuko Parke Teknologikoa daude.

4) Biztanleria.

2.200 bizilagun inguru ditu Añorga auzoak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 7 unitate txiki daude: Zuhatzu, Atotxa Erreka, Añorga Txiki, Añorga, Amasoarrain, Errekalde eta Belartza.

2.1.5.6.- ATEGORRIETA – ULIA (AU)

1) Kokagunea eta mugak.

Ategorrieta-Ulia (AU) auzoa hiriaren Ekialdeko (E) Korridorean dago, eta bertan dago bilduta Ategorrietako ibarraren iparralde osoa eta Ulia mendiaren zati handi bat. Auzo hau, hain justu, Ulia mendiaren hegoaldeko

mazelaren oinean zehar hedatzen da. Oro har, garapen lineala dauka, hasiera batean Ategorrietara doan bide zaharrean oinarritutakoa; gerora, berriz, Nafarroa eta Ategorrieta hiribideetan zehar, Uliako mazelan gora eginez (nahiko homogeneoa den erlaitz maximoaren erreferentzia da). Hala, Jose Elozegi hiribidearekin du muga ekialdean, Mendiolabidearekin bat egiten duenean (Miracruz Gaina); eta bertatik jarraitzen du, Ulija pasealekuarekin elkartzen den arte. Hortik behera egiten du, Ilurgita kalaraino, Redondo mendiaren ekialdeko aldetik. Iparraldean, itsasoarekin du muga; hegoaldean, burdinbidearekin eta Jose Elozegi hiribidearekin; eta mendebaldean, azkenik, Nafarroa hiribidearekin (Saguesko unitatea izan ezik) eta itsasoarekin.

2) Azalera.

Ategorrieta-Ulija auzoak 2,80 km²-ko hedadura dauka. Kilometro horietako gehienak (% 80) lurzoru urbanizaezinak dira (alegia, 2,20 km²), Ulija mendiaren landa eremuari dagozkionak, eta gainerakoak (% 20), berriz, hiri lurzoruak eta urbanizagarriak (alegia, 0,60 km²).

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Batez ere bizitegi auzoa da. Hainbat ekipamendu dauzka (irakaskuntzarakoak zein laguntzazkoak), bai eta landa eremu zabal bat ere, Ulija mendian.

4) Biztanleria.

4.000 bizilagun inguru ditu Ategorrieta-Ulija auzoak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 4 unitate txiki daude: Manteo, Ulija Barren, Ategorrieta eta Ulija.

2.1.5.7.- ERDIALDEA (ER)

1) Situación y delimitación.

El barrio del Centro (CE) ocupa la margen izquierda de la desembocadura del río Urumea. Este barrio responde a la idea de ciudad central y comprende las áreas de la Parte Vieja, los ensanches del siglo XIX, la primera línea de Miracóncha, el cerro de San Bartolomé y Amara Zaharra, así como el monte Urgull y la isla de Santa Clara. Está limitado al N por el mar abierto, al E por el río Urumea, al oeste por la bahía de la Concha y las lomas de Aiete, y al S por el Parque Araba y el nuevo Ensanche de Amara. El área de Amara Zaharra se incluye como unidad menor de este barrio, englobando San Roque y San Bartolomé.

2) Superficie.

El Centro cuenta con una extensión de casi 1,38 Km², correspondiendo la mayor parte de ellos (90%) al suelo urbano y urbanizable, 1,25 Km², y el resto (10%) al suelo no urbanizable, 0,13 Km², correspondientes estos últimos al monte Urgull y la isla de Santa Clara.

3) Características y usos.

El barrio representa el carácter de centralidad de la ciudad, y así, desde el punto de vista social y económico, constituye, por excelencia, el lugar de intercambios comerciales y de negocios. El carácter de centralidad tanto física como administrativa, se materializa también, en un alto nivel de equipamiento institucional (Ayuntamiento, Diputación Foral, delegaciones del Gobierno Vasco y Central) y socio-cultural-recreativa (Teatro Victoria Eugenia), así como de servicios (hoteles María Cristina, Londres, etc...), comercial (grandes firmas comerciales) y de negocios (sucursales bancarias). No obstante la actividad residencial continúa siendo la prioritaria. Además, dispone de la playa de la concha y de los parques del monte Urgull y la isla Santa Clara. Se trata, en definitiva, de un barrio de elevada calidad ambiental, arquitectónica y urbanística. Estas especiales características explican las actuaciones encaminadas fundamentalmente a la preservación de las mismas.

4) Población.

El Centro tiene una población aproximada de 23.000 vecinos.

5) Unidades menores.

Está formado por las 6 unidades menores siguientes: Isla Santa Clara, Monte Urgull, Parte Vieja, Área Romántica, Alde Zaharra y Miracóncha.

2.1.5.7.- CENTRO (CE)

1) Kokagunea eta mugak.

Erdialdeak (E) hartzen du Urumea ibaiaren bokalearen ezkerreko ertza. Auzo honek hiri nagusiaren ideari erantzuten dio, eta bertan daude bilduta Parte Zaharra, XIX. mendeko zabalgunek, Mirakontxako lehen lerroa, San Bartolome muinoa eta Amara Zaharra, bai eta Urgull mendia eta Santa Klara uhartea ere. Iparraldean, itsaso zabalarekin du muga; ekialdean, Urumea ibaiarekin; mendebaldean, Kontxako badiarekin eta Aieteko muinoekin; eta hegoaldean, Araba parkearekin eta Amarako zabalgun berriarekin. Amara Zaharreko eremua auzo honetako unitate txikitzat jotzen da, San Roke eta San Bartolome bilduz.

2) Azalera.

Erdialdeak ia 1,38 km²-ko hedadura dauka. Kilometro horietako gehienak (% 90) hiri lurzoruak eta urbanizagarriak dira (alegia, 1,25 km²), eta gainerakoak (% 10) urbanizaezinak (alegia, 0,13 km²), Urgull mendiari eta Santa Klara uharteari dagozkienak.

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Auzo honek hiriaren zentralitatea irudikatzen du, eta, era horretan, gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik, merkataritza eta negozio trukeen gunea osatzen du nagusiki. Zentralitate izaera hori (nola fisikoa hala administrazioa) agerikoa da, halaber, ekipamendu instituzionalen maila handia metatzen delako bertan (udaletxea, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzaren eta Gobernu Zentralaren ordezkariak...); bai eta gizartearen, kulturaren eta aisiarren arloko ekipamenduak (Victoria Eugenia Antzokia), zerbitzuzkoak (Maria Cristina, Londres... hotelak), merkataritzazkoak (merkataritza marka handiak) eta negoziozkoak (banku bulegoak) ere. Alabaina, bizitegi jardura da, oraindik ere, lehentasunezkoa. Gainera, Kontxa hondartza eta Urgull mendiko zein Santa Klara uharteko parkeak daude bertan. Azken batean, kalitate handiko auzoa da, ingurumenari, arkitekturari eta hirigintzari dagokienez. Eta ezaugarri berezi horiek babesteko jardura ugari gauzatzen dira.

4) Biztanleria.

23.000 bizilagun inguru ditu Erdialdeak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 6 unitate txiki daude: Santa Klara uhartea, Urgull mendia, Parte Zaharra, Eremu Erromantikoa eta Mirakontxa.

2.1.5.8.- EGIA (EG)

1) Kokagunea eta mugak.

Egia (EG) auzoak Urumea ibaiaren behe ibilbidearen eskuineko ertza hartzen du. Egia (EG) auzoa XIX. mendearen erdialdean sortu zen, hirira burdinbidea iritsi, eta Urumea ibaiaren ekialdeko ertzean Atotxako geltokia ezarri zenean. Argi bereiz daitezkeen muga fisikoak ditu Egiak, eta hein batean, horrek oztupoak ezarri dizkio hiriaren gainerako aldeekin harremanak izateko. Hala, RENFE burdinbidearen ibilbidearekin du muga iparraldean; mendebaldean eta hegoaldean, berriz, Urumea ibaiaren ibilbidearekin; eta ekialdean, Marrutxipiko behe ibarrekin, Polloeko hileriarekin, saihasbide errepideko Polloeko tunelarekin eta Baratzategirekin. Bertan, ordea, bilbeak jarraitutasun nabarmenagoa dauka.

2) Azalera.

Egia auzoak ia 1,18 km²-ko hedadura dauka. Kilometro horietako gehienak (% 90) hiri lurzoruak eta urbanizagarriak dira (alegia, 1,09 km²), eta gainerakoak (% 10) urbanizaezinak (alegia, 0,09 km²), Lauaizeta parkeari dagozkionak.

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Bereziki bizitegi auzoa da. Kristinaenea parkea dago bertan, mugatutako ezein unitate txikitan jaso ez dena; bai eta Tabakalerako kultur ekipamendurako eraikin berria ere.

4) Biztanleria.

15.000 bizilagun inguru ditu Egia auzoak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 7 unitate txiki daude: Urumea pasealekua, Atotxa, Aldakonea, Jaialai, Tolaregoia, Iruresoro eta Mundaitz.

2.1.5.9.- GROS (GR)

1) Kokagunea eta mugak.

Gros (GR) auzoak Urumea ibaiaren bokalearen eskuineko ertza hartzen du. Auzo honek hiriko ekialdeko zabalgunea irudikatzen du. Zehazki, garai batean izan zen demografia hazkundeari esker eta ibaiaren mendebaldean eraikitako hegoaldeko eta ekialdeko zabalguneak jalkinez betetzearen ondorioz osatu zen. Hainbat fasetan egin zuten, eta fase horiek ekarri dute ibaiari eta itsasoari irabazitako lursailak fisikoki hartzen joatea pixkanaka. Auzoak hartzen duen lursaila nahiko horizontala da, eta Urumea ibaiaren bokalaren eta Uliaren magalaren artean dauden dunen eta hareatzen gainean dago eraikia. Nahiz eta nahiko erdigunean egon, erraz bereiz daitezkeen pieza da, berezkoa duen memoria historikoagatik eta bere muga geografikoen zurruntasunagatik. Hedapen txikieneko auzoa da hirian. Iparraldean, itsaso zabalarekin du muga; hegoaldean, RENFE burdinbidearen ibilbidearekin; ekialdean, Nafarroa etorbidearekin eta Uli mendiaren magalarekin; eta mendebaldean, Urumea ibaiarekin.

2) Azalera.

Gros auzoak 0,45 km²-ko hedadura dauka, eta kilometro guzti-guztiak (% 100) hiri lurzoruak eta urbanizagarriak dira.

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Duen zentralitatea dela tarteko, funtsean industrial den auzoa izateari utzi, eta zerbitzuetan oinarritutako auzo

bihurtu da, non askotariko merkataritza den nagusi. Eta gaur egun Erdialdearen atzetik bigarren garrantzitsuentzat jotzen dute. Zurriola hondartza (1995) eta Kursaal Biltzar Jauregia eta Auditoriuma (1999) daude bertan, auzoa biziberritzea ahalbidetu dutenak.

4) Biztanleria.

20.000 bizilagun inguru ditu Gros auzoak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 2 unitate txiki daude: Gros eta Sagues.

2.1.5.10.- IBAETA (IB)

1) Kokagunea eta mugak.

Ibaeta (IB) auzoa dugu hiriko auzo zaharrenetako bat. Ibaeta errearen ibarreko lur lauak hartzen ditu. Hegoaldetik iparraldera hedatzen da, Añorgako bide korapilotik Ondarretako zabalgunera, eta baita Lugaritz eta Igeldoko mazelen zati batean ere. Horiek ezartzen dituzte, hurrenez hurren, bere ekialdeko eta mendebaldeko mugak.

2) Azalera.

Ibaeta auzoak ia 3,90 km²-ko hedadura dauka. Kilometro horietako erdiak baino gehiago (% 55) lurzoru urbanizaezinak dira (alegia, 2,14 km²), eta gainerako ia erdiak (% 45), berriz, hiri lurzoruak eta urbanizagarriak (alegia, 1,76 km²).

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Tolosa hiribideko bidea, hain zuzen, Ibaetako ibarraren hiri garapena ekarri zuen funtsezko elementu nagusian eratu zen, eta haren gainean osatzen da auzoko bide sistema guztia. 1990eko hamarkadan, Donostiako hiri garapen nagusi moduan eratu zen, eta bertara eraman ziren erabilera nagusietako batzuk; hala nola Unibertsitate Campusa, ekipamendu instituzionalak (Foru Ogasuna) eta ikerketa zentroak (Donostia Internacional Physics Center).

4) Biztanleria.

9.500 bizilagun inguru ditu auzoak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 8 unitate txiki daude: Arriola, Campusa, Lorea, Iza, Infernua, Errotaburu, Igara eta Berio.

2.1.5.11.- IGELDO (IG)

1) Kokagunea eta mugak.

Igeldo (IG) auzoa izen bereko mendiaren gainean dago kokatuta. Mendi horixe dugu, Ulia mendiarekin batera, udalerriaren iparraldeko sektorea egituratzen duen unitate geografikoetako bat. Igeldo mendia, hain zuzen, ekialdetik mendebaldera dagoen mendi formazio bat da. Erliebe jarraitu eta homogenea dauka, hegoaldean mazela nahiko leun eta luze bat, gailur terro zapal bat, eta iparraldeko mazelan itsasorantz doan malda latz bat dituen.

2) Azalera.

Igeldo dugu azaleran hedadura handiena duen hiriko auzoa. Hain justu, 10,15 km² inguruko hedadura dauka. Kilometro horietako ia guztiak (% 99) lurzoru urbanizaezinak dira (alegia, 10,05 km²), eta gainerakoak (% 1) hiri lurzoruak eta urbanizagarriak (alegia, 0,10 km²).

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Auzo honek bi hiri enklabe bereizi ditu: Igeldo herriaren nukleo tradizionala eta Amezti urbanizazioa. Bi nukleo horiekin batera, ezin konta ahala bizitegi eraikin daude iparraldeko mazelan. Iparraldean eta mendebaldean, itsaso zabalarekin eta Orioko udal barrutiarekin du muga. Ekialdean, berriz, Antigua auzoarekin du muga. Igeldo pasealekuaren bidetik, Kristobal Balentziaga pasealekutik jarraitzen duela, eta Tximistarribidetik beherantz eginez, kostaren lerrora iritsi arte. Hegoaldean, berriz, Ibaeta auzoarekin du muga. Lasarmendibidean eta Pokopandegibidean finkatzen da, eta Ibaeta baserritik gorantz egiten du Sorginerrekan zehar, eta gero beherantz, Igarabidea hartzeko.

4) Biztanleria.

1.000 bizilagun inguru ditu Igeldo auzoak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 2 unitate txiki daude: Igeldo eta Amezti.

2.1.5.12.- INTXAURRONDO (IN)

1) Kokagunea eta mugak.

Intxaurreondo (IN) auzoa hiriaren Ekialdeko (E) Korridorean dago, eta argi bereizten da. Iparraldean, RENFE bur-

dinbidearen ibilbidearekin du muga, jatorrizko nukleotik egindako salbuespen gisa (Intxaurrondo Zahar); mendebaldean, Egia auzoarekin (Jaialai ingurua eta Polloeko hilerria); hegoaldean, autobiderako sarbideekin eta Lauaizeta parkearekin, Ametzagañako muinoak barne; eta, ekialdean, aipatutako saihasbidearen Herrera-Intxaurrondo lotunearekin. Batez ere bizitegi erabilerako auzoa da.

2) Azalera.

Intxaurrondo auzoak 2,15 km²-ko hedadura dauka. Kilometro horietako gehienak (% 90) hiri lurzoruak eta urbanizagarriak dira (alegia, 1,95 km²), eta gainerakoak (% 10) urbanizaezinak (alegia, 0,20 km²), Lauaizeta parkeari dagozkionak.

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Intxaurrondo Zaharreko jatorrizko nukleoa, nondik garatu baitzen auzoa, RENFE burdinbidearen alboan dago, mendebaldean. Eredu honetako eraikin enblematikoen, berriz, Intxaurrondo baserria da, auzoari bere izena eman diona. Hortik aurrera, bereziki bizitegi funtzioa duen auzoak burdinbidea zeharkatzen du, ekialderantz; ondoren, hedatu, eta mazelatan gora egiten du, Ametzagañako goi eremuetara hurbiltzeko, hiriko saihasbidea eraiki zutenean 70eko hamarkadan gauzatutako mozketak artifizialak gainditu ostean.

4) Biztanleria.

16.200 bizilagun inguru ditu Intxaurrondo auzoak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 5 unitate txiki daude: Intxaurrondo Zahar, Intxaurrondo Berri, Marrutxipi, Ipar Intxaurrondo eta Hego Intxaurrondo.

2.1.5.13.- LOIOLA (LO)

1) Kokagunea eta mugak.

Loiola (LO) auzoa Urumea ibaiaren ibarreko lursail laueta dago kokatuta. Ibaiak banatzen du auzoa: eskuinean, instalazio militarrek eta Ametzagañako mazela geratzen dira; ezkerrean, berriz, auzoko bizitegi garapen osoa.

2) Azalera.

Loiola auzoak ia 1,45 km²-ko hedadura dauka. Kilometro horietako erdiak baino gehiago (% 60) hiri lurzoruak eta urbanizagarriak dira (alegia, 0,88 km²), eta gainerakoak (% 40) urbanizaezinak (alegia, 0,57), ekialdean Lauaizeta parkeari dagozkionak, eta hegoaldean, Hipika eremuari eta Araztegiari dagozkionak.

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Burdinbideak Urumea ibaiaren ezkerreko ertza banatzen du. Ekialdeko eremuan bizitegiak dira nagusi; mendebaldean, berriz, landa eremua; bertan daude Loiolako Hondakin Uren Araztegia eta Hipika instalazioak. Nabarmenezkoa da, halaber, Txomin inguruan hirigintza eraldaketa handi bat egiteko prozesuan dabilzala. Eredu horrek muga du mendebaldean burdinbidearekin; iparraldean eta ekialdean, Urumea ibaiarekin; eta hegoaldean, Miramon-Intxaurrondo komunikazio bidearekin.

4) Biztanleria.

5.000 bizilagun inguru ditu Loiola auzoak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 5 unitate txiki daude: Lorategi Hiria, Loiola Erdigunea, Kuartel Militarrek, Patxillardegi eta Txomin.

2.1.5.14.- MARTUTENE (MA)

1) Kokagunea eta mugak.

Martutene (MA) auzoa udalerriko hego-ekialdeko (SE) muturrean dago, Urumea ibaiaren ibarraren lursail lauen gainean. Ibaiak bi zatitan banatzen du auzoa, bere ibilguaren bi ertzetan. Martutenek muga du iparraldean Lauaizeta parkearekin (heine batean Loiolari eta beste heine batean Alzari dagokiona); hegoaldean, berriz, Astigarragarekin duen udal mugarekin; eta mendebaldean, Zorroagako mazelarekin eta Basozabaleko golf zelaiarekin, Miramon-Zorroaga auzoan.

2) Azalera.

Martutene auzoak 3,47 km²-ko hedadura dauka. Kilometro horietako ia erdiak (% 48) hiri lurzoruak eta urbanizagarriak dira (alegia, 1,65 km²), eta gainerakoak (% 52) urbanizaezinak (alegia, 1,82 km²), Miramon-Zorroaga mazelari dagozkienak.

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Nahiko auzo handia da. Heine batean, erdi landakoa zen nukleo gisa izandako iraganaren aztarnak gorde ditu: baserri ugari zeuden, eta horiek ibaiaren ibarrari etekina ateratzen zioten baratzetarako, gero hiriko azokak hornitzeko. Erabilera hori, langile xumeen bizitegi erabilera eta lurzoru industrialen erabilera dira auzo horren ezaugarri bereziak.

4) Biztanleria.

3.000 bizilagun inguru ditu Martutene auzoak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 5 unitate txiki daude: Antzita, Torrua Zahar (27 poligonoa), Martutene, Eliseo Zelaiak eta Portutxo.

2.1.5.15.- MIRACRUZ – BIDEBIETA (MB)**1) Kokagunea eta mugak.**

Miracruz-Bidebieta (MB) auzoa hiriaren Ekialdeko (E) Korridorean dago. Auzo hau Ulia mendiaren hegoaldeko mazelan dago kokatuta, eta mugakidea da Pasaiairekin; hegoalderantz hedatzen da, RENFE burdinbidearen ibilbideraino.

2) Azalera.

Miracruz-Bidebieta auzoak 1,83 km²-ko hedadura dauka. Kilometro horietako gehienak (% 70) lurzoru urbanizaezinak dira (alegia, 1,26 km²), Ulia mendiari dagozkionak, eta gainerakoak (% 30), berriz, hiri lurzoruak eta urbanizagarriak (alegia, 0,57 km²).

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Auzoaren osaera fisikoa eta denborazkoa bat datoz hainbat eraikuntza une eta tipologiarekin. Hala, Jose Elozegi hiribideak auzoa ebakitzen du, eta oso bestelakoak diren bi egoera mugatzen ditu iparraldean eta hegoaldean. Iparraldean, bloke linealak eta dorreak dira nagusi; hegoaldean, berriz, garapen txikiko tipologiak.

4) Biztanleria.

9.000 bizilagun inguru ditu Miracruz-Bidebieta auzoak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 3 unitate txiki daude: Bidebieta, Bidebieta I (Artazkone) eta Miracruz Gaina – Arrobi

2.1.5.16.- MIRAMON – ZORROAGA (MZ)**1) Kokagunea eta mugak.**

Miramon-Zorroaga (MZ) auzoak kokaleku estrategikoa dauka, eta posizio nagusia hiriarekiko. Udalerriaren hegoaldean eta erdialdean dago, Urumearen ibarrean eta Barkaiztegi eta Añorga erreketan nagusi diren muinoen gainean. Auzoak muga du, iparraldean, autobidearekin; mendebaldean, Añorga Txikirekin; hegoaldean, Oriamen direkin eta Barkaiztegiko behe ibarrarekin; eta ekialdean, Loiolako harrobiekin eta Martutenerantz jaisten diren mazelekin.

2) Azalera.

Miramon-Zorroaga auzoak 4,89 km²-ko hedadura dauka. Kilometro horietako erdiak baino gehiago (% 55) hiri lurzoruak eta urbanizagarriak dira (alegia, 2,72 km²), eta gainerakoak (% 45) urbanizaezinak (alegia, 2,17 km²), Miramon Gainaren hegoaldeko mazelari dagozkionak.

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Gaur egun, auzoa ez dago oso betea; etxebizitza bakanduak sakabanatuta ageri dira, bai eta ekipamendu handiak ere: Osasun Hiria, Gipuzkoako Poliklinika, Miramongo Parke Teknologikoa, Euskal Telebista, Miramon Parkea, etab.

4) Biztanleria.

1.700 bizilagun inguru ditu Miramon-Zorroaga auzoak.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 6 unitate txiki daude: Oriamendi, Miramon Parkea, Iyola, Illunbe, Zorroaga eta Ospitaleak.

2.1.5.17.- ZUBIETA (ZU)**1) Kokagunea eta mugak.**

Zubieta (ZU) auzo bat baino gehiago, udalerrian dagoen lurraldeko enklabeetako bat da. Hiriaren eremu mendebaldekoena da, Oria ibaiaren ibarrean kokatuta dagoena. Dituen berezitasunak aintzat hartuta, auzotzat jotzen da, landa biztanleriaren nukleo bat baitago bertan. Nola enklabea, hala aipatutako asentamenduak ez dira oso-ori Donostia udalerrikoak. Berriki onartutako mugaketaren arabera, alboko Usurbil udalerriari dagozkio, hein batean. Enklabearen hegoaldeko mugatik hurbil, eta berori ekialdetik mendebaldera zeharkatuz, punturik garaienak daude; hala nola Biribillondo (345 m), Olaikoazar (325 m), Txaldataxur (300 m) eta Leteungo Gaina (225 m).

2) Azalera.

Zubieta auzoak ia 6,90 km²-ko hedadura dauka. Kilometro horietako gehienak (% 70) lurzoru urbanizaezinak dira (alegia, 4,85 km²), eta gainerakoak (% 30) hiri lurzoruak eta urbanizagarriak (alegia, 2,05 km²).

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Zubieta auzoak beti izan ditu berezko nortasuna eta ezaugarriak, bai eta administrazio antolamendu berezia ere. 1996an, Donostiako eta Usurbilgo udaletako osoko bilkuretako erabaki bidez, Zubietako Auzo Batzordea sortzea erabaki zen, auzoko administrazioaren organo osagarri gisa sortutako administrazio batzorde moduan. Auzoak landa nukleo txiki bat dauka, elizaren eta errebote pilotalekuaren inguruan antolatua. Pare-parean dago Aizpurua etxea eta Donostiako Hipodromoak hartzen duen eremua, bai eta hainbat instalazio eta ekipamendu ere; hala nola Realaren kirol instalazioak.

4) Biztanleria.

294 bizilagun ditu Zubieta auzoak: 149 emakume eta 145 gizonezko.

5) Unitate txikiak.

Auzoan 2 unitate txiki daude: Zubieta eta Hipodromoa – Bugati.

2.1.5.18.- LANDARBASO (LA)

1) Kokagunea eta mugak.

Landarbaso (LA) enklabea Astigarraga eta Erreterria artean kokatuta dagoen landa lursail bat da. Triangelu itxura dauka: 2 km-ko oinarria eta altuera. Igoi mendiaren (457 m) magalean hedatzen da. Iparraldean eta ekialdean, Urumearen adarra den Landarbaso errekaaren goi ibilguaren ezkerreko urertzarekin du muga; iparraldean eta ekialdean, halaber, Erreterria udalerriarekin; hego-mendebaldean eta ipar-mendebaldean, berriz, Astigarrarekin. Enklabearen punturik garaienak enklabearen erdigunean daude: Igorin (450 m), Armunto (410 m) eta Bixtarri (405 m).

2) Azalera.

Enklabe honek 2,32 km²-ko azalera dauka.

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Landarbaso enklabe bihurtu zen Astigarragatik bereizi zenean (1987). Lur horiek Donostiako udal barrutiarekin lotzen zuten. Bortzirietako zerra paleozoikoaren ertzean txertatuta dago, eta ia osorik pinu beltzen baso ustiapenez estalita dago. Salbuespenak dira hainbat belardi eta haritz zuhaitzi. Enklabearen ekialdean, Aizbitarteko arkeologia aztarnategia osatzen duten hainbat koba daude. "Landarbasoko kobak" izenez dira ezagunak, baina Erreterriaren eskumenpekoak dira, argi eta garbi. Alabaina, enklabearen barnean dago Igoi-Akola estazio megalitikoak, I/VII. Landarbaso izeneko zazpi trikuharriek osatutakoa (VII. Landarbaso 1988. urtean suntsitu zuten).

4) Biztanleria.

Landa enklabe honen biztanleria sakabanaturik dago. Baserri gutxi batzuetan 20 bizilagun inguru bizi dira.

5) Unitate txikiak.

Landarbaso ez dago unitate txikirik.

2.1.5.19.- URDABURU (OBERAN) (UR)

1) Kokagunea eta mugak.

Urdaburu-Oberan (UR) enklabea Nafarroarekiko mugan dago, Aiako Harria Parke Naturalaren barnean. Forma luzexka dauka: 2,2 km luze eta 1 km zabal. Ipar-mendebaldean Hernaniko udal barrutiarekin du muga; ekialdean eta hegoaldean, Erreterriarekin; eta mendebaldean, Aranorekin (Nafarroa). Azken eremu hori da (Urumea ibaiak Pagoaga meandrea marrazten duen tokia), hain zuzen, enklabearen eremurik baxuena (50 m). Ipar-mendebaldean, Urdaburu mendiaren magala dago. Haren gailurra (602 m) gunearen iparraldeko punturik garaiena da. Hego-ekialdean, Anabitarte mendien magala hedatzen da. Horien artean, nabarmentzekoak dira Saratsagako Gaina (410 m) eta Oberango Tontorra (412 m) gailur apalak.

2) Azalera.

Enklabe honek 2,13 km²-ko azalera dauka.

3) Ezaugarriak eta erabilerak.

Basoak hartzen du enklabe osoa: hegoaldeko zatia Añarbeko urtegia inguratzen duen hosto erorkorren basoan dago txertatuta; iparraldeko zatian, berriz, pinu beltzaren eremu landatuak dira nagusi, haritz batzuk ere badauden arren. Beheko eremuan, Pagoagako meandrea dago, non Juan eta Teodoro Kutz SA garagardo fabrika dagoen. Fabrika hori 1980ko hamarkadan eraman zuten bertara, Donostiako Bentaberri auzotik.

4) Biztanleria.

Urdaburu-Oberan enklabean ez da biztanlerik bizi.

5) Unitate txikiak.

Urdaburu-Oberan gunean ez dago unitate txikirik.

2.1.5.20.- ARTIKUTZA (AR)

Donostiako Udala da Artikutza (AR) Etxaldearen jabea. Nafarroako Foru Erkidegoan dago kokatuta, Goizuetako udal barrutian.

Etxalde horretan dago Artikutzako urtegia. Horixe da, hain zuzen, Iberiar penintsulako punturik euritsuena. Horregatik, balio ekologiko handia dauka. 37 km²-ko azalera dauka; alegia, Donostiako udal barrutiaren erdia baino gehiagokoa.

2.1.6.- LABURPEN KOADROA: AUZOAK ETA ENKLABEAK

2016ko udal erroldaren eta 2010eko HAPOn eskuratutako datuen arabera, hona hemen Donostiako auzoen eta enklabeen ezaugarri nagusiei buruzko koadroa.

AUZOA	KM ²	% A/ GUZTIA	% LU	% LUE	BIZTANLERIA	% BIZTANLERIA
1. AIETE (AI)	2,57	4,23	93,00	7,00	14.276	7,67
2. ALTZA (AL)	4,99	8,22	50,00	50,00	20.279	10,90
3. AMARA BERRI (AM)	1,52	2,50	90,00	10,00	29.719	15,97
4. ANTIGUO - ONDARRETA (AO)	2,80	4,61	20,00	80,00	2.177	1,17
5. AÑORGA (AÑ)	4,90	8,07	32,00	68,00	14.740	7,92
6. ATEGORRIETA - ULIA (AU)	1,38	2,27	90,00	10,00	4.076	2,19
7. CENTRO (CE)	1,18	1,94	90,00	10,00	21.947	11,80
8. EGIA (EG)	1,75	2,88	72,00	28,00	14.807	7,96
9. GROS (GR)	0,45	0,74	100,00	0,00	18.804	10,11
10. IBAETA (IB)	3,90	6,42	45,00	55,00	9.747	5,24
11. IGELDO (IG)	10,15	16,71	1,00	99,00	1.069	0,57
12. INTXAURRONDO (IN)	2,15	3,54	90,00	10,00	15.604	8,39
13. LOIOLA (LO)	1,45	2,39	60,00	40,00	4.896	2,63
14. MARTUTENE (MA)	3,47	5,71	48,00	52,00	2.784	1,50
15. MIRACRUZ - BIDEBIETA (MB)	1,83	3,01	30,00	70,00	8.860	4,76
16. MIRAMON - ZORROAGA (MZ)	4,89	8,05	55,00	45,00	1.971	1,06
17. ZUBIETA (ZU)	6,90	11,36	30,00	70,00	293	0,16
ENKLABEA						
18. LANDARBASO (LA)	2,32	3,82	0,00	100,00	13	0,01
19. URDABURU (OBERAN) (UR)	2,13	3,51	0,00	100,00	0	0,00
GUZTIRA, DONOSTIA	60,73	100,00			186.062	100,00
20. ARTIKUTZA (AR) ETXALDEA	37,00					

2.2.- INGURUNE FISIKOA

2.2.1.- GEOLOGIA

Donostiako udal barrutia, hain zuzen, EUSKAL ARKU TOLESTU izenekoaren gehieneko makurdurako eremuan edo hortik hurbil dago. Litologikoki, aro paleozoikoko, mesozoikoko, tertziarioko eta kuaternarioko materialez dago eratuta udalerria.

Material PALEOZOIKOKEK, antzinakoenek, Bortzirietako Mendigunea osatzen dute. Eta Donostiako udal barrutiaren baitan, Landarbaso enklabea eratzen du.

Estalki MESOZOIKOA modu diskordantean dago kokatuta azaleratze paleozoikoen gainean. Maila basalak aro Triasikokotzat jo dituzte, nahiz eta lurraldean Keuper faziesko materialak baino ez diren azaleratzen. Horien sedimentazioa baldintza erregresiboetan gertatu zen, argi eta garbi; horregatik dira nagusi material detritikoak, ingurune erabat lehorrean jalkitakoak, sedimentuaren kolore gorriak agerian uzten duen moduan. Goi Kretazeoko flysch material ugari ere badaude. Pasaia eta Usurbil arteko espazioa hartzen duen orban handi bat osatzen dute, eta 1.500 m-ko lodiera dute, batez bestean. Sorta basala, hain zuzen, grisetik beltzera arteko kolore iluneko tuparri eta kareharri tupatsuz dago osatuta; masiboak eta eskistotsuak dira, maiz gris argi eta zuri koloreko kareharri buztintsuak tartekatzen zaizkiela, 30-40 cm-ko ohantzeetan estratifikatuak. Behaketa onak egin daitezke Añorgan (burdinbidearen lubakiak), Rezolako zementu harrobian, autobidearen ebakiduretan, etab. Flysch detritiko-kalkareoa, zehazki, kareharri hareatsuen, tuparrien eta hareharrien txandakatzaz dago eratuta, 25 cm-ko lodierako ohantzetan estratifikaturik.



Material TERTZIARIOEK etengabeko azaleratzea dute, udalerriko iparraldeko sektorea ekialdetik mendebaldera zeharkatzen dutela. Beheko aldean tuparriak daude, bai eta kareharri tupatsu grisak eta kolore arrosako edo gorriko, eta zenbaitetan, berdekarako edo urdinkarako kareharri oso buztintsuak ere. Horiek azaleratze handia daukate, eta Kostaldeko Kate Tertiarioa osatzen dute. Kate hori Higer lurmuturretik (Hondarribia) Zumaia ingururaino hedatzen da. Udalerriko iparraldekoeneko azaleratzeak dira, eta besteak beste Mendizorrotzek, Igeldok, Santa Klarak, Uliak eta Urgullek osatutako itsasertzeko sektorea egituratzen duten erliebeen multzoa eratzen dute. Multzo horren baitan garbi alderatutako bi formazio bereizi behar dira: Gipuzkoako flyscha eta Jaizkibelgo formazioa. Metatze horiek behatzeko ebakidura onak daude Gros hondartzan, Santa Klara uhartean, Plata itsasargiaren inguruan, etab.

Azkenik, material KUATERNARIO ugari aurki daitezke Ibaetako eta batez ere Urumeako estuario barrubeteetan, bai eta Zubieta enklabearen ere, non 70 metrotik gorako metatzeak dauden. Multzo horren baitan, hondartza metakinak, ibai metakinak eta estuario metakinak daudela azpimarra dezakegu.

2.2.2.- GEOMORFOLOGIA

Donostia eremu geografiko gorabeheratsuan dago kokatuta; nola udal barrutiari dagokionez, hala eskualdeari edo funtzionaltasunari dagokionez. Horrek zailtasun handiak ekarri ditu hiriaren garapenerako, eta hiriaren finkatze edo hedapen ildo nagusiak baldintzatuta eta bideratuta geratu dira. Okupatutako lurraldearen oinarrian material geologiko nahiko berriak daude (Kretazeoak, Eozenokoak eta formazio alubial kuaternarioak); kareharriak, tuparriak eta hareharriak. Eta bertan, unitate batzuk garatzen dira.

ITSASERTZEAN, eta ekialdetik mendebalderako norabidean, Uli mendia, Zurriolako senadia, Urumea ibaiaren bokalea, Urgulleko tonboloa, Kontxako badia (Santa Klara uhartea eta Kontxa eta Ondarreta hondartzak) eta Igeldo eta Mendizorrotz mendiak daude. Honen guztiaren abiaburuan kostaldeko gailur lerro bat dago, kosta malkartsua, higadurazkoa eta luzetarako egiturazkoa sortzen duena. Gailur lerro horrek, hain zuzen, itsasertz aurreko sakonune txiki bat eta Goi Kretazeoko flysch materialetan induskatutako Irún-Donostia korridorea mugatzen ditu.

Hiriko IBAIA URUMEA da, Urgulleko tonboloaren alboan itsasoratzen da. Ibaiak berak eratu zuen tonbolo hori. Eta ibaiaren ibarrak biltzen ditu eskualdeko lurzoru lauaren azalera handienak: 880 hektarea, orotara.

AÑORGAKO ERREKAREN ibarra, hasiera batean, nekez irekitzen da Oriamendi eta Bidarte mendien artean. Ondorengo zatian, Zapataritik Ondarretara bitarte, zabaldu egiten da: 165 hektarea lurzoru lau ditu, orotara, eta hirigintza garapen handia dago bertan. Bestalde, erreka horri esker Urumearen eta Oriaren ibarren arteko lotura naturalak egiten dira.

DONOSTIALDEKO lursaila aintzat hartuta, hiru mendi lerrokadura dituela ikus dezakegu, txiki samarrak izanagatik hirigintza garapena zailtzen dutenak: itsasertzeko katea (Jaizkibel, Uli eta Mendizorrotz), bitarteko katea (Urka-be, San Markos, Oriamendi, Santa Barbara, Bidarte eta Arratzain) eta barneko katea (Txoritokieta, Santiagomendi, Landarbaso, Aldura, Larrain, Buruntza eta Andatza).

Mendi lerrokadura horien artean aurrera egiten dute Oria, Oiartzun eta Urumea ibaiak eta Añorga errekek. Bidasoaren eta Oiartzunen arroen arteko ur banaketa Gaintzurizketako mendi lepoak egiten du. Lepo horrek Jaizkibelen adarrak Arkale eta Urkabe mendiekin lotzen ditu. Uli mendiak, Miracruz Gainean, Ametzagaña eta Txoritokieta Santiagomendi eta Urdabururekin lotzen ditu, Astigarraga parean; hala, Oiartzunen eta Urumearen

arteko ur banaketa markatzen du. Teresategi muinoak Mendizorrotz eta Santa Barbara lotzen ditu. Adarretako bat Oriamendi eta Aieteraino luzatzen da, Urumearen eta Oriaren behe arroak bereiziz.

Arestian aipatutako Urumearen eta Añorga erreken ibarretako lurzoru lau horretaz gainera, Oiartzun ibaiaren ibarreko 325 hektarea lurzoru lau eta Oria ibaiaren ibarreko 420 hektarea lurzoru lau ere badaude. Horrenbestez, orotara, 1.790 hektarea lurzoru lau daude Donostialdea eskualde osoan.

Honako bost (5) MULTZO GEOMORFOLOGIKO hauek bereizten dira: itsasertzeko erliebeak, Donostiako tonboloa, Añorga-Ibaeta eta Urumearen estuarioen barrubeteak, Irun-Donostia korridorea eta San Markos-Txoritokieta diapiroa.

2.2.2.1.- ITSASERTZEKO ERLIEBEAK: JAIZKIBEL-ULIA-MENDIZORROTZ MONOKLINALA

Itsasertzeko erliebeek udalerriaren iparraldeko sektorea egituratzen dute; alegia, KOSTAN (Kostaldeko Kate Tertziarioa) zehar dauden erliebe guztien multzoa. Geomorfologikoki JAIZKIBEL-ULIA-MENDIZORROTZ MONOKLINALA izenez dira ezagunak, eta NNE-SSW-W norabide orokorreko mendi lerroakadura baten bidez identifikatzen dira. Lerroakadura horrek arku txiki bat marrazten du, iparraldeko ahurtasuna duena. Erliebe jarraitua eta homogeneoa da, bigarren mailako beste egitura batzuek eremu oso zehatzetan eta gutxitan baino eteten ez dutena (Errekalde-Florida eta Urumearen failatik eratutako antiklinala).

Topografikoki, E-W norabide orokorreko mendi lerroakadura honek ALTITUDE apalak ditu; inoiz ez 450 m baino gehiagokoak: Mendizorrotz (416 m), Igeldo (279 m), Ulia (234 m), Urgull (125 m), etab... Antigua auzotik aurrera, monoklinala erdibitu egiten da; hala, topografikoki apalagoa den bigarren lerroakadura bat sortzen da, haran ortoklinal baten bidez lehenengotik bereizten dena. Eremu horri Arratzain gailurra (341 m) esaten zaio.

Multzo horren baitan honako AZPIUNITATE hauek bereizten dira: itsasertzeko labarrak, abrasio plataforma eta metatze moduak (hondartzak).

1) Itsasertzeko labarrak: Igeldoko eta Uliako LABARRAK.

Hiriko itsasertzean kosta malkartsuak eta latzak dira nagusi; izan ere, Kostaldeko Kate Tertziarioa osatzen duten erliebeak zuzenean itsasora iristen dira, eta, horrenbestez, luzetarako kosta osatzen dute, oso garbia eta zuzena. Metatze detritikoak urriak dira: uharrizko hondartza txiki gutxi batzuk baino ez, itsasertzean han-hemenka dauden badien eta kalen barnealdean. Ibai bokaleek baino ez dituzte eratzen harea metatze zabalagoak; izan ere, normalean, espazio horiek itsasoaren ekintzatik nahiko babestuta egon ohi dira, eta sedimentu zingira gisa dihardute.

Era horretan, kosta osatzen duten labarrak marea barneko abrasio mistoko plataforma duten labar bizitzat jo daitezke, etengabeko aldaketak pairatzen dituztenak, eta itsas eta azpiaireko prozesu mekanikoen eragina jasotzen dutenak. Morfologikoki, kosta zuzena, malkartsua eta latza egituratzen dute, ez oso musarratua eta bereziki egiturazkoa; izan ere, maldak bat datoz murgiltze balioekin. Higadurazko kosta da, metatze detritiko urrikoa. Ibai bokaleetan eta labarrak eteten dituzten kala txikien barnean (uharrizko hondartzak, ilargierdi itxurakoak, hurbileko labarretatik datozen materialekin osatutakoak) baino ez dira nabarmentzen.

2) Abrasio plataforma: Igeldoko eta Uliako ABRASIO PLATAFORMA.

Nahiko azalera laua da, malda txikikoa (2-5°), itsasbehera denean agerian geratzen dena. Jaizkibel-Ulia-Mendizorrotz monoklinalean zehar, plataforma honek zabalera txikia dauka: 10-20 m, Plata itsasargian; 60 m, Gros-Monpas inguruan; 30-40 m, Tximistarri-Mendizorrotzen, etab... Olatuetatik nahiko babestuta dauden eremuetan, bloke lodien metaketak daude, azpiaireko denudazioaren eta azpijate basalen prozesuek bat egitearen ondorioz labarren goiko aldetik eroritakoak. Haatik, agerian geratzen diren guneeetan, ia ez dago metatze detritikorik. Hala, plataforma ildaskatu bat, nahiko irregularra, sortzen da.

3) Metatze moduak: HONDARTZAK.

Donostiako itsasertzean, higadura da nagusi sedimentazioaren ginetik. Metatze detritiko nagusiak ibai bokaleetan eta eremu babestuetan daude, eta hondartzak dira ordezkartzarik onena duten formak. Hala, hiria urbanizatu aurretik, ugariak ziren dunak, barrak eta geziak.

Hondartzek osatzen dute itsasgora gehieneko lerroaren eta itsasertz aurreko eremuan izaten diren ekaitz olatuen oinarriaren arteko espazioa, eremu honetan 20 m-ko isobatak definitzen duena. Lur lehor aldean, hondartzak muga du eraikuntza antropikoekin (Kortxa-Erdialdea, Zurriola-Gros, Ondarreta-Antigua), nahiz eta orain gutxira arte duna kordoiak garatzen ziren. Oro har, dimentsio txikikoak dira, eta mendeabaldetik ekialderantz bideratzeko joera dute. Euren morfologia izugarri aldatu da azken hamarkadetan, bai eta jatorrian zituzten dimentsioak ere. Nolanahi ere den, garai batean zuten itxura nolakoa zen jakin dezakegu, eskura daukagun kartografia ugariari esker.

Harea metatzeek aldaketa handiak izaten dituzte urtean zehar, olatuen, mareen eta korronteen arabera. Eguraldi oneko sasoietan, itsasertz aurreko hondoetan metatutako sedimentua hondartzarantz joaten da; ekaitz garaietan, berriz, hondartzak higatu egiten dira, eta hurbileko itsas hondoetan metatzen da harea. Mugikortasun horrek era-

bat aldatzen du hondartzaren profila. Hala, udan eta udaberrian, ia horizontala den goi berma batek osatzen du hondartza, 50-100 cm-ko garaiera duen mikroeziponda txiki baten bidez hondartzaren gainerako guztia mende hartzen duela. Zati horren oinean, hondartzaren gainerako guztia pixka bat okertuta geratzen da, eta litekeena da kanalak eta barrak egotea tarteka, bai eta "ripple-mark" mota batzuk ere (olatuek harean eragindako uhindura txikiak).

Ekaitz baten ondoren, batez ere udazkenean eta neguan, goi berma desagertu egiten da, eta hondartzak pixka bat okertutako profila izaten du, itsasoan hondoratzen dena. Eta ez da inolako egitura sedimentariorik hautematen ("crescent mark" izan ezik). Higadura/sedimentazioa balantze honek hare materiala dezente murriztea dakar, eta hala dela erakusten digute itsasertzetan dagoen hare gabeziak eta hondartzei eusteko modu artifizialean hare jarri beharrak. Itsasertzetan izan diren bariazio antropiko gogorren eraginez gertatzen da hori guztia: hare azalera etengabe murriztea; ibaiak kanalizatzea; kaiak, dikeak eta kirol portuak eraikitzea, etab. Jardun horien guztien eraginez, hare sedimentua murriztu egin da, eta horrek dakar itsasertzeko metatzeak pixkanaka suntsitzea.

2.2.2.2.- DONOSTIAKO TONBOLOA

Donostiako TONBOLOAREN eraketan agerikoa da berau osatzen duten hare materialen jalkinak, 20 m-tik gorako sakonerakoak, ibaiak, mareek eta itsasertzeko olatuek ekarri dituztela. Badirudi hainbat arrazoi izan zirela Urgull uhartearen atzean materialak metatzea eragin zutenak, azkenerako, hare banku bat eratu eta kostarekin lotu zuena. Korronteen, haizeen, olatuen eta mareen ekintza konbinatuaren eraginez, badien txertatutako materialak Urgull mendiaren atzean metatzen joan ziren; zehazki, korronteak abiadura txikitzen zuen gunean, bi uhin sistemen interferentziak eta bi marea korronteen neutralizazioak metaketa ahalbidentzen zuten tokian. Gaur egun, hiriaren zati handi batek hartzen ditu espazio horiek, eta, horregatik, ezinezkoa da unitatea osatzen duten materialen analisi zehatza egitea.

2.2.2.3.- BARRUBETE HOLOZENOA: AÑORGAKO ETA URUMEAKO ESTUARIOAK

Holozenoko METATZEAK oso ondo irudikatuta daude Urumearen estuarioetan, Hernanitik Zurriolara bitarte; bai eta Ibaetako estuario fosilean ere, Infernutik Ondarreta hondartzaraino; eta neurri txikiagoan, Zubieta enklabean.

1) AÑORGA IBAIAREN barrubete holozenoa.

Ez da ezagutzen zein den eremu horren potentzia zehatza, baina baieztatu daiteke lautada holozenoak 1.600 m-ko luzera eta 500 m-ko gehieneko zabalera dituela. Donostiako garai bateko kartografiaren arabera, berretsi daiteke, XIX. mendearen duela gutxiko urteetara arte, eremu horrek itsas beso txiki bat irudikatzen zuela, hare kordoi baten bidez badiatik partzialki bakandua zegoena. Beheko zatiak egiazki itsasokoak diren ezaugarri batzuk ditu, gaur egungo itsasertzeko metatzeetan behatzen direnen oso antzekoak. Hareaz dago osatuta, landare makrohondar batzuekin, eta, batez ere, maskor ugariarekin, osoak zein hautsiak. Goiko zatia ere bereziki hareazkoa da, nahiz eta arestian aipatutakoa baino hare finagoa izan. Limoek eta buztinek ere nahiko balio nabarmenak dituzte. Zati honetan ere badaude landare hondarrak eta maskor zatiak. Azken adarra, berriz, buztin-limo geruza txiki batez dago eratuta, 45 cm-ko lodierakoa. Sedimentua kolore beltzekoa da, eta landare makrohondar eta materia organiko askokoa da. Oso ingurune lasaian jalki zen, mareaz gaindiko edo/eta marearteko padura motakoa.

Informazio gutxi badago ere, barrubete sedimentario holozenoaren azken faseak ikusiz, baieztatu daiteke sedimentazioaren jatorria itsasokoa dela. Zati basaleko ezaugarri sedimentologikoei esker, eta maskorrak daudenez, berrets dezakegu marearteko itsas ingurunean gertatu zela jalkitzea, gazitasun normalarekin. Gerora, duna kordoi garrantzitsu bat garatu zen, Donostiako garai bateko kartografian ikus daitekeen bezala. Arroaren barnealdean itsas eraginpetik bakartzea ekarri zuen, eta, horren ondorioz, marearteko padura bat garatu zen lehenik eta behin, eta, ondoren, mareaz gaindikoa. Azkenik, berriki, eremu horren barrubete antropikoa, haren okupazioa eta Añorga errearen kanalizazioa gertatu ziren; era horretan, erabat hautsi ziren duna eraikinak.

2) Donostiako holozenoa: URUMEA IBAIAREN bokalea.

Urumea ibaiaren beheko zatiak metatze detritiko handiak ditu, hasi Hernaniko Epele auzotik eta harik eta Zurriolako senadian itsasoratzen den arte. Sedimentu horiek batez bestean 500 m-ko zabalera (puntu batzuetan, baita 1.500 m artekoa ere) eta 10 km-ko luzera dituen lautada zabal bat osatzen dute.

Gaur egun, lautada holozenoaren zatirik handiena giza asentamenduek okupatzen dute, eta oso urriak dira libre geratu diren eremuak. Urumea ibaia mantso doa lautada horretan zehar, meandro zabalak marraztuz. Batez bestean duen malda % 0,012 ingurukoa da.

Barrubetearen potentziak 70 m-ko gehieneko lodiera dauka, nahiz eta alboko zein luzetarako bariazioak oso bizkorak diren. Gertakari horrek iradokitzen digu aurre holozenoko paleotopografia benetan gorabeheratsua zela. Paleoharan horiek betetzen dituen sedimentu motari dagokionez, esan genezake, oro har, estuario sedimentazioa dela, eta nagusi direla ibai jatorriko metakinak (batez ere kanaletan eta estuarioaren zati distalean) eta marearteko lautadak.

Nolanahi ere, marearen eragina agerikoa da, eta eragin hori pixkanaka murriztuz doa, bokaletik urrundu ahala. Estuarioaren ertz distalean, ibaiaren eragina erabakigarria da. Buztinak eta limo masiboak dira nagusi, landare zati eta lentejoi hareatsu ugarirekin. Beherago, berriz, hareek, legarrek eta uharriek hartzen dute horien tokia. Kostaldeko lerrera hurbildu ahala, uharrak eta legarrak desagertuz doaz, eta hareak baino ez dira geratzen; eta, batez ere, buztinak eta limo masiboak. Estuarioaren kanpoko zatian, itsas jatorriko harea lodiak (barrak) daude, eremurik agerikoenetan; marea azpiko lautadetan, berriz, lohi hareatsuak zein harea lohitsuak. Azkenik, azken pultsazio transgresibo holozenoaren ostean itsasoaren batez besteko maila egonkortzean, kordoi eoliko garrantzitsuak garatu ziren, Donostiako garai bateko kartografian ikus daitekeen bezala.

2.2.2.4.- IRUN-DONOSTIA KORRIDOREA

Jaizkibel-Ulia-Mendizorrotz monoklinalaren parean Irun-Donostia HIGADURAZKO KORRIDOREA eta Urumeako eta Ibaetako estuarioak dira nagusi. Ekialdetik mendebaldera doa orokorrean, eta flysch kretazikoa osatzen duten materialen kontura higadura bidez dago modelatua. Egiturari dagokionez, material horiek sakonean bilduak daude, nahiz eta higadurari aurre egiteko duten erresistentzia eskasak tolesak desegitea ekarri duen, eta, hala, "higadurazko korridore" batzuk modelatu, eta horien hondoan kareharrien eta hareharrien urraketa gogorragoak ageri dira. Morfologikoki, sakonunearen hondoak 50 m eta 100 m arteko altitude baxuko eta gailur biribileko muinoetako ohiko modelatua dauka. Muinoak elkarren artean bereizita daude sehaska edo/eta uve itxurako hondoak duten ibai uholdezko ibar txikiz.

Korridore hau itxi egiten da, hegoaldean, gutxi-asko zabalak diren erliebe batzuen bitartez. Horien artean, nabarmentzekoa da San Markos-Txoritokieta diapiroa. Eta itxi egiten da, halaber, Añorga hegoaldean dagoen muino multzoaren bitartez. Donostiaren mendebaldean, korridorea desagertu egiten da. Mendizorrotzen aurrealdearen oinean bigarren lerroakadura monoklinal bat garatzen da. Arratzain gailurra izenez da ezaguna eta 341 m-ko garaiera dauka, nahiz eta kota hori udal barrutitik kanpo dagoen kokatuta. Bi horien artean ibar ortoklinalak modelatu dira (esaterako, Maskulartz errekaetara), bai eta anaklinalak ere, euren urak zuzenean Oriako kolektorera isurtzen dituztenak.

Litologikoki, Arratzain gailurra Paleozenoko konglomeratuz eta hareharriz dago eratuta. Eta multzo hau da nagusi; zehazki, 200 m-ko garaiera inguruko malkar txiki baten, Oria ibaiaren behe ibarraren eta flysch kretazikoari esker modelatutako muino multzoaren (Aginagako unitatea) bitartez.

2.2.2.5.- SAN MARKOS-TXORITOKIETA DIAPIROA

Egitura diapiiriko bat da. Iparraldeko ertzak Goi Kretazeoko materialak zamalkatzen ditu. Hegoaldeko ertzean, berriz, Keuper faziesa da Goi Kretazeoko materialekin ukipenean jartzen dena. San Markosko diapiroa koroatzen duten kareharri urgondarrek erresistentzia handia dute, eta horrek azaltzen du multzo horrek Irun-Donostia barne korridorea osatzen duten erliebeetan izan duen nagusitasun topografikoa. Materialek duten gogortasun desberdina dela tarteko, flysch azaleratzeak bizkor induskatu dira; KAREHARRIEK, berriz, hobeto egin diete aurre higadura erasoei, eta irtengunean geratu dira. Alabaina, higadura kimikoak arrokari eraso dio, eta paisaia karstiko interesgarria modelatu da. Lapiazak ordezkaritza zabala du, eta hainbat bariante identifikatu daitezke: hondakinezkoa, meandro itxurakoa, diaklasazkoa edo "korridoretan antolatua", eta tubularra.

Dolinak, berriz, haustura txikiei eta ukipen litologikoei hertsiki loturik ageri dira. Kareharri hareatsuen gainean, hondo lauko dolina txikiak garatzen dira; kareharri puru eta failadunen gainean, aldiz, dolina handi disimetrikoak dira nagusi. Horien ardatz handia luzatu egiten da, hausturei jarraituz. Artxipi-enea (550x160x30 m) eta Arribeltz (500x200x50 m) sakonuneak nabarmendu daitezke, nahiz eta biak dauden udalerriaren muturreko ertzetan. Horien hondoan, isurbide txikiak irekitzen dira, tokiko sare endokarstiko motzarekin bat egiten dutenak. Diapiroaren periferian, formazio irazgaitzekin ukipenean, emari txikiko aldian behingo iturburu txikiak daude.



2.2.3.- EDAFOLOGIA

Lurzoruak euskarri materiala dira eurei hertsiki lotutako organismo bizi guztien garapenerako (flora eta fauna edafikoak, lurreko fauna, landaredia, etab.). Hala, faktore garrantzitsuenetako bat da, ez soilik biosferaren oreka orokorrerako, baizik eta baita planetaren oreka globalerako ere; izan ere, lurzoruak elkarrekin dituzte, ziklo hidrologikoaren bidez, atmosferarekin, hidrosferarekin eta litosferarekin.

Lurzoruaren FORMAZIOA (edafogenesia) eboluzio prozesu nahiko konplexua da, denboran dezente luzatzen dena. Bertan, arroka edo material geologiko zehatz batetik abiatuta, faktore formatzaileen jarduna (klima, erliebea, organismoak, abiaburuko material geologikoa, denbora, etab.) eta prozesu formatzaileena (fisikoak, kimikoak eta biologikoak) konbinatuta, lurzoru eratzen da. Lurzoru hori hainbat ezaugarri espezifiko eta berezik definituko dute: ehundura, egitura-profila-horizontea, ezaugarri fisiko-kimikoak, etab. Ezaugarri horiek dira, hain zuzen, inolako eragin antropikorik izan ezean, bere bokazioa eta gaitasun naturalak zehaztuko dituztenak. Dena den, horiek baldintzatuta egongo dira, azken batean, hiri, industria edo/eta nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak antropogenikoek denboran zein espazioan duten eraginagatik, eta, finean, lurzoruari ematen zaion erabileragatik. Donostian honako lurzoru mota hauek daude:

- 1) Hareharri gainekoak.
- 2) Kareharri gainekoak.
- 3) Tuparri gainekoak.
- 4) Lohi harri gainekoak.
- 5) Material kuaternarioak.
- 6) Irtengune harritsuen gainekoak.

2.2.3.1.- LURZORU MOTAK

Donostia udalerrian nagusi den litologia, hain zuzen, HAREHARRI, harrearri-lutita eta harreari-lohi harri GAINEKO lurzoruak dira. Ehundura hareatsuko eta drainatze bizkorreko lurzoruak dira, eta, horrenbestez, elementu hazkurritsu urrikoak. Horietan nagusi da kuartzoa; mineral aldagarriak eta oinarritzko katioiak (Na^+ , K^+ , Ca^{2+} , Mg^{2+}), berriz, urriak dira. Horregatik, katioi trukerako gaitasun eskasa daukate, eta emankortasun natural txikia. Kolore arre-gorriakako, egitura birringarriko eta izaera azido nabarmeneko lurzoruak dira. Sakonera txikikoak izaten dira, 50 m-tik beherakoak, eta daukaten izaera hareatsua dela tarteko, ur gordekin eskasa dute. Hala, lehortea pairatzeko aukera handiak dituzten lurzoruak dira, batez ere prezipitazio urriko eremuetan. Hauek dira lurzoruen muga nagusiak: lodiera mugatua, maldak, gehiegizko drainatzea, elementu hazkurritsu gutxi eta emankortasun eskasa. Horregatik, ez dira, inola ere, nekazaritza intentsiboa egiteko moduko lurzoruak, eta behar-beharrezkoa da mede-apen kimikoak aplikatuta euren emankortasuna handitzea.

KAREHARRI, dolomia eta kareharri ez-puruen GAINEKO lurzoruek lurzoru-arroka muga zakarra eta irregularra dute, eta horrek dakar euren lodierak, nahiz eta oro har lodiera txikia izan, tokiko bariazio puntual garrantzitsu batzuk izatea, azaleratze harritsu gehiago edo gutxiago egotearen arabera. Lurzoru horien pH-a neutraltasunetik hurbil dago, edo pixka bat azidoa izaten da; eta euren baseen asetasun maila handia. Hala, "a priori" emankortasun natural handiko lurzoruak dira, eta azken buruan, Donostia udalerrian gertatzen den moduan, emankortasun hori murriztu egingo da, izaera harritsuarekin, lurzoruaren lodiera eraginkor eskasarekin eta dauden malda handiekin lotutako mugak direla tarteko. Lurzoru horien erabilerririk egokiena larreena da; izan ere, daukaten lodiera txikiak galarazi egiten du nekazaritzarako edo basogintzarako erabiltzea, lodiera hori ez baita nahikoa zuhaitzak sustraitzeko.

TUPARRI, kareharri hareatsu eta kareharri buztintsuen GAINEKO lurzoruen gainazaleko horizonteak kolore arrekoak eta ehundura limotsu-hareatsukoak dira. Azpigainazalekoak, berriz, kolore arre-horixkakoak eta ehundura limotsu-buztintsu-hareatsukoak. Lurzoru horiek, daukaten ehundura eta porositatea direla tarteko, iragazkortasun mantsoa dute. Bertan, kaltzio karbonatoa garbitzeko baldintzek hainbat deskarbonatazio maila dakartzate, baseei ere eragiten dietenak; horrenbestez, oro har, elementu hazkurritsu urriko lurzoruak dira. Lurzoru horien mugarik garrantzitsuenak, hain zuzen, maldatik eratorritakoak dira; azken batean, euren sakonera handiagoa ala txikiagoa izatea baldintzatzen baitute. Bestalde, landare estaldurarik izan ezean dauden higadura arriskuak ere lurzoru horien muga dira.

LOHI HARRI, lutita eta lutita hareatsuen GAINEKO lurzoruen ezaugarri nagusia da, bestalde, euren gainazaleko horizonteak arre kolorekoak direla, eta batzuetan, arre-horixkak. Azpigainazalekoak, berriz, beti dira kolore arre-horixkakoak. Lurzoru horiek katioi trukerako duten gaitasuna erdi mailakoa da. Hala, neutraltasunetik hurbil dauden pH-ko lurzoruak dira, eta batzuetan, pixka bat azidoak, elementu hazkurritsuetan dezenteko aberastasuna dutenak. Hauek dira muga nagusiak: drainatze ez-perfektua eta malda handiko eremuetan, landaredia ez dagoenetan, dauden higadura arriskuak.

MATERIAL KUATERNARIOKO ibai sistemekin lotutako lurzoruei dagokienez, nabarmentzekoa da horien bilakaera eta garapena honako hauek baldintzatzen dutela: sedimentu alubialetan ohikoa den jatorrizko material ez-kont-solidatuak, topografia lauak, geruza freatikoko gainazalarekiko duen hurbiltasunak eta horietan gizakiak gauzatu-tako jarduerak. Hala, kontsolidatu gabeko alubioien gainean, bilakaera txikia izan duten lurzoruak ager daitezke, bai eta ondo garatutakoak ere, kanbisol motakoak. Haatik, ibai terrazetan, ikuspegi edafikotik garatuagoak dauden lurzoruak ageri dira. Horien desabantaila nagusiak dira, hain zuzen, daukaten lodiera apala, eta batzuetan, hartxintxarrak eta baita legarrak ere agertzen direla.

Azkenik, aipatzekoak dira IRTENGUNE HARRITSUEN GAINEAN garatutako lurzoruak, litologia gogor eta trinkoko eta higadura handia jasan duen litologiako eremuekin lotutakoak. Eredu horiek bat datoz litosolekin (lurzoru meheak) eta rendzinekin.

2.2.3.2.- ERABILERA AHALMENA

Respecto a la capacidad de uso de los suelos en el municipio de DSS, señalar que exceptuando los suelos improductivos incluidos en la CLASE VIII (suelo urbano-urbanizable, núcleos urbanos en suelo rural, canteras, vertederos, etc.), el predominio corresponde a los suelos de la CLASE VII. Estos suelos están sujetos a limitaciones severas y de tipo permanente por las elevadas PENDIENTES (superiores al 30%), que implican un riesgo de erosión altamente significativo, por su reducido espesor efectivo o pedregosidad, siendo su principal vocación la de suelos forestales.

Le siguen por la extensión que ocupan en el conjunto municipal los suelos de CLASE VI, cuyas principales limitaciones son las pendientes (entre el 20 y el 30%), pedregosidad y su escasa profundidad, limitaciones todas ellas de carácter severo que implican que no sean suelos susceptibles de laboreo agrícola y que restringen su uso hacia el mantenimiento de una vegetación permanente bien herbácea o bien leñosa.

Los suelos de CLASE V están totalmente ausentes en el municipio y los suelos de CLASE IV se encuentran representados únicamente de forma muy dispersa. Son suelos localizados en áreas de pendientes entre el 12 y el 20% y que, en general, presentan una profundidad ligeramente superior a la de las clases precedentes (entre 40 y 60 cm) por lo que su riesgo de erosión es bajo, siendo su vocación predominante la de praderas en rotaciones amplias con otros cultivos.

Los suelos de CLASE III están asociados a áreas de acumulación tanto aluvial como coluvial, localizándose generalmente en los fondos de valle y en los niveles de terrazas de los principales ríos vaguadas así como en laderas con pendientes que no superan el 12%, por lo que son suelos con una humedad elevada y una profundidad media (en torno a 65 cm) que los hace aptos, previas adiciones periódicas de materia orgánica y encalados, para cultivos, con rotaciones en las que las praderas ocupan un lugar dominante.

Por último, los suelos de CLASE II se localizan exclusivamente asociados al curso del río Urumea a la altura de su entrada en el municipio de DSS y al curso del río Oria en el enclave de Zubieta. Son suelos productivos, con escasas limitaciones, profundos y casi llanos, con riesgos mínimos de erosión, aunque ocasionalmente pueden tener riesgo de inundaciones, requiriendo tan sólo de sencillas medidas de preservación.

2.2.4.- KLIMATOLOGIA

Donostia udalerrriak, itsasotik hurbil dagoenez, KLIMA OZEANIKO EPELA dauka. Tenperatura leunak, hezetasun erlatibo handia, hodei asko eta euri ugaria, urte osoan zehar modu erregularrean banatutakoa. Euskal Herriko gainerako tokietan bezala, mendebaldeko zirkulazio orokor atmosferikoarekiko hegoaldean dagoenez kokatuta, ondo bereizitako bi urtaro daude -negua eta uda-, trantsizioko beste bi urtarok bereiziaz: udaberria eta udazkena. KÖPPENEN SAILKAPEN KLIMATIKOAREN arabera, klima epela eta hezea da, urtaro lehorrik gabekoa; sailkapenean, Cfb kodearekin izendatu zuen.

2.2.4.1.- TENPERATURAK

Hirian dauden tenperatura datuen arabera, ikuspegi termikotik, baieztatu daiteke Donostiako klima tenperatura leunez osatutakoa dela; besteak beste, hodei indize handiagatik, irradiazio bidezko bero galera indartzen duena neguan, eta gehiegizko berotzea saihesten duena udan.

A) NEGUA: epela izaten da, itsas korronteen aire masa heze eta epelen eraginez; denboraldi hotz luze gutxi izaten dira, eta batez besteko tenperaturak 7 °C-tik gorakoak, klimaren hegoaldekotasunaren eraginez. Urtaro honetan, gainera, hego haizearen eragina izaten du. Föhn izaerako haizea da, neguko tenperaturak goxatzen laguntzen duena.

B) UDA: leuna izaten da, hodei indize handiagoak eta aire masa ozeanikoak iristen direlako; horiek goxatu egiten dituzte udako gehiegikeriak. Batez besteko tenperaturak ez dira 20 °C-ra iristen, eta udamin luzeak ez dira maiz izaten.

1) BATEZ BESTEKO TENPERATURAK.

Urteko BATEZ BESTEKO tenperaturak moderatuak dira. S-N gradiente bat dago, eta horren inguruan goxatu egiten da tenperatura, itsasotik hurbil dagoelako. Era berean, agerian geratzen da beste W-E gradiente bat ere, eta horren inguruan tenperatura jaitsi egiten da, batez ere eremuaren ezaugarri orografikoek eta topografikoek bultzatuta, lurraldearen eremu horretara hurbildu ahala gorabeheratsuak direnak.

Hala, Igeldon (itsas mailatik 218 m-ra), urteko batez besteko tenperatura 13,1 °C-koa da; Ategorrietan (itsas mailatik 8 m-ra), berriz, 12,1 °C-koa, eta Lasarten (itsas mailatik 85 m-ra), 14,5 °C-koa. Urteko anplitude termikoa ere moderatua da: aztertutako hiru estazioetan, 11,0 °C eta 11,5 °C arteko balioak. Urtarrila izaten da beti hilabeterik hotzena: 6,9 °C eta 9,1 °C arteko batez besteko tenperaturak izaten dira. Hilabeterik epelena, berriz, abuztua izaten da, 18 °C-tik 20,2 °C-ra arteko batez besteko tenperaturekin.

2) MUTURREKO TENPERATURAK: MAXIMOAK ETA MINIMOAK.

Aزتutako denboraldietako tenperatura MAXIMO absolutuak uztailari dagozkio: Ategorrietan, 37,5 °C-ra artekoak (1975/07/13 eta 1968/06/30); Igeldon, 38,0 °C-ra artekoak (1975/07/31); eta Lasarten, 42 °C-ra artekoak (1968/07/01 eta 1982/07/08).

Tenperatura MINIMO absolutuak, berriz, hainbat hilabeteretan erregistratu izan dira, estazio meteorologikoen arabera. Hala, Igeldon 1956/02/03an erregistratu zen tenperatura minimo absolutua (-12,1 °C); Ategorrietan, berriz, 1985eko urtarilaren 6an (-10,5 °C); eta, Lasarten, 1962/12/26an (-9,0 °C). Horrenbestez, agerian geratzen da


muturreko oszilazio termiko garrantzitsu bat gertatzen dela, Ategorrietako 48 °C-tik Lasarteko 51 °C-ra artekoa. Izotzaldia azaroaren erdialdetik apiril erdialdera edo maiatz hasierara artekoa izaten da. Urtean 8 izotz egun erregistratu izan dira Igeldon, 21 Ategorrietan eta 16 Lasarten.

3) HEZETASUNA.

Batez besteko HEZETASUN erlatiboa nahiko handia da, nahiz eta aldakortasun gutxi izaten duen urtean zehar; oro har, klima hezea dela esan daiteke. Erregistratutako batez besteko balioak martxotik (% 73) uztail eta abuztura (% 83) bitartekoak dira, gainazaleko urek tenperatura altuagoa dutelako, eta, horren ondorioz, lurruntze handiagoa. Urteko batez bestekoa % 78koa da. Erregistratutako hilabeteko minimoak % 62ko hezetasun erlatibokoak izan dira (1990eko martxoa); maximoak, berriz, % 90ekoak ere izan dira (1983ko uztaila).

HILEKO BATAZ BESTEKO TENPERATURAK (°C)													
URTAROAK	E	F	M	A	M	J	J	A	S	O	N	D	URTE
IGUELDO (1950-1996)	7,9	8,3	9,8	10,8	13,8	16,3	18,5	18,9	17,7	15,0	11,0	8,8	13,1
ATEGORRIETA (1963-1996)	6,9	7,5	8,5	9,8	12,8	15,3	17,7	18,0	16,6	14,0	10,2	7,7	12,1
LASARTE (1956-1996)	9,1	9,9	11,0	12,2	15,4	18,1	20,2	20,6	19,1	16,3	12,0	9,8	14,5

TBATAZ BESTEKO TENPERATURA, MUTURREKOEN BATAZ BESTEKOAK, MINIMIOEN BATAZ BESTEKOAK ETA MUETURREKO TENPERATURAK IGELDON.



2.2.4.2.- PREZIPITAZIOAK: EKAITZAK, EURIA, TXINGORRA ETA ELURRA

Hirian ugariak dira prezipitazioak: urtean 1.500 mm baino gehiago. Igeldon, esaterako 1.566 mm (1950-1996); Ategorrietan, 1.714 mm (1959-1996); eta, Lasarten, 1.678 mm (1950-1996).

Hilabeteko aldakortasuna oso handia da, eta erregistratutako urteko prezipitazio maximoetan, hots, urte euri-suenetan, 2.200 mm baino gehiago bota zituen: Igeldon eta Ategorrietan, 1979. urtean; Lasarten, berriz, 1965ean. Maximo horiek lotura dute jatorri atlantikoko fronte perturbazioekin; hala, fronte polarreko ekaitz gogor ondulatorioak eta aire masa ozeanikoak Gipuzkoako kostarekiko paraleloan isurtzen dira, Euskal Herriatik Mediterraneo aldera sartuz, eta bidean, prezipitazio ugari utziz, lurraldearen orografiak bultzatuta. Urteko minimoetan, hots, urte lehorrenetan, 1.000 mm izan dira Igeldon (1957), 1.284 mm Ategorrietan (1962) eta 1.134 mm Lasarten (1985).

Prezipitazio MAXIMOAK udazken-neguan izaten dira; zehazki, azaroan eta abenduan. Azaroan, 164 mm Igeldon eta 186 mm Ategorrietan, prezipitazio likidoan (euria) zein solidoan (elurra, txingorra, etab.). Gainera, apirilean bigarren mailako maximo bat erregistratu zen: 160 mm-tik gorako prezipitazioak Ategorrietan zein Lasarten (163,4 mm eta 168,1 mm, hurrenez hurren); Igeldon, berriz, ia 150 mm-koak (zehazki, 144,4 mm).

Prezipitazio MINIMOKO hilabeteak, berriz, udakoak dira (batez ere, euri moduan, eta tarteka, txingor moduan); eta bereziki, uztaila. Hilabete horretan, prezipitazioak 80-90 mm artekoak izan dira, aztertutako hiru estazio meteorologikoetan.


1) EKAITZAK.

Igeldoko estazioak urtean batez bestean 28 egunetan erregistratu ditu ekaitzak: gehienez ere 43 egunetan eta gutxienez 12 egunetan. Ekaitzak maizago izaten dira udan. Sasoi horretan hilean hiruzpalau ekaitz egun izaten dira, batzuetan euri jasa handiekin. 24 orduan erregistratutako prezipitazio maximoak ia 150 mm-koak dira Igeldon (1963/09/17), 152 mm-koak Ategorrietan (1960/12/30) eta 158,5 mm-koak Lasarten (1963/09/17).

2) EURIAK.

Euri ugari egiten du, urte osoan zehar modu erregularrean banatuta. Hiru estazioetan, batez bestean, 11 eta 18 egun artean: maximoak, 26 eta 29 egun artean hilabeteen, eta minimoak, 2 eta 6 egun artean hilabeteen.

DIAGRAMA OMBROTERMIOKA IGELDO



3) TXINGORRA.

Txingor egunak os

o urriak izan ohi dira. Batez ere azarotik maiatz-ekainera bitarteko hilabetei lotutako hidrometeoroa da. Batez bestean, 9 egunetan egin du txingorra Igeldon, 14 egunetan Ategorrietan eta 6 egunetan Lasarten. Aztertutako denbora tarteetan erregistratutako minimoak, berriz: egun bakar bat ere ez Igeldon eta Lasarten, eta 5 Ategorrietan. Eta maximoak: urtean 20 egun Igeldon, 30 egun Ategorrietan eta 15 egun Lasarten.

4) ELURRA.

Hidrometeoro urria da elurra ere: urtean, 6, 2 eta 3 eguneko batez bestekoak, hurrenenez hurren, Igeldon, Ategorrietan eta Lasarten.


BATAZ BESTEKO EURI EGUNAK

URTAROAK	U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A
IGELDO (1960-1996)	17	15	17	18	18	16	16	16	16	16	16	17
ATEGORRIETA (1969-1996)	14	13	13	15	16	13	13	14	13	13	14	15
LASARTE (1950-1996)	14	11	13	15	16	13	11	12	12	12	13	13

5) EBAPOTRANSPIRAZIOA.

Urteko litekeeneko ebapotranspirazioa 740 mm eta 840 mm artekoa da hiru estazioetan: prezipitazioen % 49,7 Igeldon, % 43,23 Ategorrietan eta % 50 Lasarten izan dira. Balio minimoak urtarrilari dagozkio; maximoak, berriz, udako hilabetei (batez ere, uztailari). Ez dago lehortzat jo daitekeen hilabeterik. Urteko hilabete guztietan erregistratu dira ur gaindikinak: Igeldon eta Lasarten, ekainean, uztailan eta abuztuan izan ezik; eta uztailan eta abuztuan izan ezik, Ategorrietan. Hilabete horietan beharrezkoa izaten da lurzoruen erreserba erabilgarria baliatzea, litekeeneko ebapotranspirazioaren balioa ebapotranspirazio erreala izan dadin (lurzoruko uraren erabileran).

IGELDOKO UR-BALANTZEAREN DIAGRAMA (1950-1996)



2.2.4.3.- INTSOLAZIOA

Intsolazioa, hain justu, zero oskarbia dagoen ordu kopurua da. Donostiari dagokionez, Igeldoko behatokiko datuak hizpide hartuta, moderatua izan zen 1950-1996 aldian, hodei indize handia izan zelako. Urtean, batez bestean 1.690 ordu erregistratu ziren; alegia, intsolazio teorikoaren % 38. Urtean lortutako balio maximoak 2.219 ordukoak dira (intsolazio teorikoaren % 50); minimoak, berriz, 1.277 ordukoak (intsolazio teorikoaren % 28). Parametro klimatiko honek urtean zehar izan duen bilakaerak erakusten digunez, maximo bat izan da uztailan (batez bestean, 199 eguzki ordu), eta minimo bat abenduan (81 orduko intsolazioa baino ez).

INTSOLAZIOA													
IGELDO (1960-1996)	U	O	M	A	M	A	U	A	I	U	A	A	URTEA
Bataz besteko intsolazioa (orduak)	92	101	133	135	178	187	199	191	161	134	99	81	1.960

Zerua erabat oskarbi dagoen egunak (alegia, batez besteko hodei indizea zero estalia baino 2 hamarren gutxiago denean) oso urriak dira. Urtean, batez bestean, 34 egun, hilean 2-4 egun arteko balioekin. Egunduek gehienetan zero estalia izaten da, zero estalia baino 8 hamarren gehiagoko hodei indizearekin. Horrelakoak dira 170 egun (% 47). Atzetik datoz egun hodeitsuak, zero estaliarekin alderatuta 2-8 hamarren arteko hodei indizearekin. Horrelakoak dira urteko 161 egun. Hilean, berriz, batez bestean 12-16 egun hodeitsu izaten dira.

2.2.4.4.-HAIZEA


1) Haizearen NORABIDEA.

Haizearen urteko jarrerari erreparatuta, argi ikusten da laugarren koadrantea haizeak direla nagusi. Horien frekuentziak % 8,4koak dira W norabidean; % 7,2koak, WNW norabidean; % 9,6koak, NW norabidean; eta % 9,9koak, NNW norabidean. Salbuespenak dira S norabideko haizeei (% 16,7) eta N norabidekoak (% 12,3) dagozkien ehunekoak. Bare izaten da urteko egunen % 5,6tan, eta gainerako norabidetako haizeek ez dute nabarmen zeko moduko ehunekorik. Bi kasutan baino ez dute gainditzen urteko % 5eko datua (NNE, SSE).

Egoera orokor hori ez da, dena den, haizearen portaerarekin lotuta erregistratutako urtaroko bariazio garrantzitsuenen isla leiala. Mendebaldeko haizeen gerrikoarekin alderatuta Euskal Herria hegoaldean egoteak eragina dauka, eta oso alde handiak izaten dira urtarotik urtarora. Hala, NEGUAN, antizikloi kontinentalak mendebaldeko fluxu orokorra ipar-ekialderantz desbideratzen duenez, Euskal Herri gainerako fluxua batez ere hegoaldekoa izaten da. UDAN, berriz, Euskal Herriak Azoreetako antizikloiaren eragina jasotzen duenez, antizikloiaren ekialdeko ertzeke haizeak jasoz, iparraldeko haizeak izaten dira nagusi. UDABERRIKO eta UDAZKENEKO hilabeteak, azkenik, trantsizio hilabetetzat jo daitezke. Horietan, nabarmen zekoa da ipar-mendebaldeko haizeak jotzen duela maiz. Hori garrantzitsua da, Gipuzkoako kostaldean izaten diren ekaitzekin harremana dutelako. Oro har, ipar-mendebaldeko erregimenak izaten dira, batez ere irailean, martxoan eta apirilean.

2) BATEZ BESTEKO ABIADURA.

Norabide guztietako batez besteko abiadura aldakorra da: txikiena, 6,5 km/h-koa, ekialdeko haizeek daukate; eta handiena, 23,5 km/h-koa, hegoaldekoak. Batez besteko orokorra, berriz, 15,1 km/h-koa da, eta horrek argi uzten du urakan haizek egon arren, Igeldoko haizea ahula dela, 3ko indarrekoa; alegia, ez dela egokia, inola ere, energia lortzeko.



3) HAIZEKADA MAXIMOAK

Haizekada maximoei dagokienez, komenigarria da adieraztea ipar-mendebaldeko haizeak direla nagusi (% 23,6). Atzetik daude, hegoaldekoak (% 19,4) eta iparraldekoak (% 14,2). Ipar eta ipar-mendebaldeko haizeak ere nabarmentzekoak dira (% 9,3). Haizekada maximoen batez besteko abiadura 4ko indarreko (20-28 km/h) edo handiagoko haizeei dagokie, urte osoan zehar. Hego-mendebaldeko haizeek dute baliorik handiena: 61,8 km/h (7ko indarra). Norabide guztietako haizekaden maximo absolutuak 7tik gorako indarreko haizeei dagozkie. Urakan haizekadak dira nagusi (gko indarrekoak edo handiagokoak); eta hego eta hego-ekialdeko (187 km/h) eta hegoaldeko (184 km/h) haizeak dira adierazgarri nagusiak.

IGELDOKO HAIZE-BOLADA MAXIMOAK																
NORABIDEA	N	NNE	NE	ENE	E	ESE	SE	SSE	S	SSW	SW	WSW	W	WNW	NW	NNW
Maiztasuna%	14,2	5,6	4,6	0,9	0,6	0,3	0,7	2,8	19,4	4,1	1,9	0,9	3,7	5,9	23,6	9,3
Bataz besteko abiadura (Km/o)	36,1	32,2	28,6	27,2	24,3	28,2	35,1	61,6	62,6	58,1	61,8	46,9	44,8	50,9	51,8	45,0
Abiadura máxímoa (Km/o)	144	124	115	81	50	97	146	187	184	145	133	115	112	151	149	162

2.2.4.5.- BALIO KLIMATOLOGIKOAK (IGELDO 1981-2010)

Balio klimatologikoen laburpena (AEMET). Donostia: Igeldo (1981-2010).

Inicio > Servicios climáticos > Datos climatológicos > Valores normales

Valores climatológicos normales. Donostia/San Sebastián, Igeldo

Periodo: 1981-2010 - Altitud (m): 251
Latitud: 43° 18' 23" N - Longitud: 2° 2' 28" O - Posición: Ver localización

Mes	T	TM	Tm	R	H	DR	DN	DT	DF	DH	DD	I
Enero	8.5	11.0	5.9	141	75	13.2	1.3	1.2	7.7	2.6	2.9	98
Febrero	8.7	11.5	5.9	110	74	11.6	1.6	1.4	6.2	1.8	2.9	107
Marzo	10.3	13.4	7.2	113	74	12.4	0.3	1.5	7.6	0.6	2.9	144
Abril	11.3	14.5	8.1	138	77	13.4	0.1	2.2	9.1	0.0	1.9	157
Mayo	14.4	17.7	11.1	120	78	12.2	0.0	3.3	10.4	0.0	2.1	181
Junio	16.9	20.0	13.8	90	82	10.6	0.0	3.3	11.2	0.0	2.7	189
Julio	18.9	21.8	16.0	86	83	9.8	0.0	3.5	10.6	0.0	3.1	196
Agosto	19.5	22.5	16.5	117	83	10.5	0.0	3.7	9.1	0.0	3.4	190
Septiembre	18.0	21.1	14.8	111	79	10.1	0.0	2.5	8.3	0.0	4.1	179
Octubre	15.5	18.5	12.4	159	75	11.8	0.0	1.9	7.3	0.0	2.6	140
Noviembre	11.3	14.0	8.7	169	76	13.0	0.2	1.6	7.7	0.5	2.8	102
Diciembre	9.1	11.6	6.6	151	75	12.4	0.5	1.1	6.7	1.6	2.9	93
Año	13.5	16.5	10.6	1507	78	141.1	4.0	27.3	101.9	7.1	34.2	1816

T: temperatura media mensual/anual (°C)
TM: Media mensual/anual de las temperaturas máximas diarias (°C)
Tm: Media mensual/anual de la temperaturas mínimas diarias (°C)

R: Precipitación mensual/anual media (mm)
 H: Humedad relativa media (%)
 DR: Número medio mensual /anual de días de precipitación superior o igual a 1mm
 DN: Número medio mensual/anual de días de nieve
 DT: Número medio mensual/anual de días de tormenta
 DF: Número medio mensual/anual de días de niebla
 DH: Número medio mensual/anual de días de helada
 DD: Número medio mensual/anual de días despejados
 I: Número medio mensual/anual de horas de sol

2.2.5.- HIDROGRAFIA

2.2.5.1.- HIDROLOGIA


Ikuspegi hidrologikotik, Donostiako ibai ibilbide nagusia Urumea ibaia izanik, udal barrutitik doazen ur ibilbideak ondo bereizitako lau arro hidrografikori dagozkie: Urumearen arroa, Oriaren arroa, Oiartzunen arroa eta Añorga errearen arroa. Horiei, bestalde, Igeldo eta Uliako kostaldeko lerroakadurako erreka txikiak gehitu behar zaizkie, euren urak zuzenean Kantauri itsasora isurtzen dituztenak.

1) URUMEA IBAIAREN arroa.

Urumea ibaiak eta bi ertzetan dituen ibaiadarrek Donostiako ardatz hidrografiko nagusia eratzen dute. Ardatz horretan zehar egiten du aurrera, Astigarragatik etorrira, S-NNW norabidean, lurraldea ondo bereizitako bi zatitan banatuta: mendebaldekoa (Aiete, Amaraberri, Erdialdea, Antigua, Ibaeta, Igeldo eta Miramon-Zorroaga auzoak), eta ekialdekoa (Altza, Ategorrieta-Ulia, Egia, Gros, Intxaurrondo, Loiola, Martutene eta Miracruz-Bidebieta auzoak).

55,32 km-ko luzera du, ibilbidea S-NW norabidean daukela. Arroaren azalera 279,05 km²-koa da, eta ibilgu nagusia 695 m-ko altitudetan sortzen da, Ezkurra gainean (Nafarroa). Ibilbidearen ia erdia autonomia erkidego horretan zehar egiten du, bere arroaren guztizko azaleraren herena betez, gutxi gorabehera. Ibilbide nagusiaren batez besteko malda % 1,26koa da; arroarena, berriz, askoz handiagoa: % 16,45koa. Balio horiei esker, aise ondoriozta dezakegu uholde arrisku handia dagoela ibilbide nagusiaren zati batzuetan, goi arroan eta baita ibaiadar ugartan ere.

GIPUZKOAKO LURRALDEAN URUMEA IBAIAREN LUZETARAKO PROFILA



GOI ARROA deritzo jaiotzen den tokitik GOIZUETARA (155 m) bitarteko zatiri. Udalerrri horretan, ibaiaren ibilbideak Bortzirietako mendiguneko material paleozoikoetan zehar egiten du aurrera; bereziki, arbelak, grauwakak eta konglomeratu silizeoen iraganaldiak. Horien gogortasunari eremuan dauden tektonika konplexua eta malda latzak gehituz gero, ibar trabatu eta bihurria induskatu da. Ibilbide horretan zehar, Urumeak hainbat ibaiadarren ekarpena jasotzen du bi ertzetan; gehien-gehiena uholdeetakoa. Ezkerreko ertzean, Urdiñola eta Iturri errekek dira ibaiadarrik garrantzitsuenak. Bi horiek Urepel (1.056 m) eta Mandoegi (1.045 m) inguruetatik datoz. Gailur horiek Leizaran ibaiaren uren banalerroa dira, euren urak ibilbide nagusira bideratzen dituzte. Goizuetatik ibaian gora eta behera, hurrenez hurren. Eskuineko ertzean, Zumarrezta ibaiadarra jasotzen du Urumeak. Irakurri (1.142 m), Iruñarri (1.051 m) eta Loizate (1.037 m) gailurren inguruetatik dator, eta ibilbide nagusiarekin bat egiten du Urdiñola errekan gora.

ERDIKO ARROA, berriz, Goizuetatik EREÑOZURA (28 m) bitartekoa da. Hernaniko udal barrutian dago, hain zuzen, Ereñozu. Zati horretan, Latxe erreka gainera, bere ibaiadar nagusietako bi hartzen ditu Urumeak: batetik, Urruzono erreka, hain zuzen, Unamunotik (881 m) Adarra-Mandoeigira (811 m) bitarte hedatzen den gailur lerroaren artean kokatuta dagoen ibarretik datorrena, eta Urumearen ezkerreko ertzean, Ugaldetxo parean, bat egiten duena; eta, bestetik, Añarbe ibaia. Azken ibai horrek ibilbide nagusiaren eskuineko ertzean egiten du bat Urrumearekin, GI-3410 errepidearen 19. kilometro inguruan, Urruzono erreka bat egiten duen tokitik gora. Ibai hau osatzen dute, halaber, Artikutza erreka (Izu, 829 m), ARTIKUTZAKO URTEGIAK erregulatutakoa (8,73 km²-ko arro azalera eta 1,6 hm³-ko edukiera dituen), eta Elama erreka (Aloña, 1.037 m) egindako ekarpenek. Añarbe ibaia, bestalde, AÑARBEKO URTEGIAK ere erregulatzen du. Zehazki, Nafarroako eta Gipuzkoako lurraldeak banatzeko egin zuten. 62,9 km²-ko arro azalera drainatzen du, eta 43,5 hm³-ko biltegitratze ahalmen maximoa dauka. Horri esker, ura horni diezaioke ez soilik Donostiari, baizik eta baita Donostialdeko zati handi bati ere.

Goi eta erdiko arroan biztanleria metaketa txikia dagoenez eta industriarik batere ez, eta kontuan izanda zeharkatzen dituen udalerriak bereziki landa udalerriak direla (Goizueta, Arano eta Hernani, Ereñozura arte), eta horietako jarduera nagusia nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetan oinarritutakoa dela, bertako ibai habitata oso ondo zainduta dago. Gainera, arroak duen PLUBIOMETRIA ALTUAK ondorioztat dakar emari handiak izatea. Hala, Ereñozun, esaterako, 95-96 urte hidrologikoko batez besteko eguneko ur emaria 4,611 m³/s-koa izan zen (eguneko batez besteko maximoa, 53,606 m³/s-koa, eta batez besteko minimoa, 0,837 m³/s-koa). Urteko eguneko batez bestekoa, berriz, 4,611 m³/s-koa. Maximo absolutua 1996ko uztailaren 27an erregistratu zen (210,23 m³/s); minimo absolutua, aldiz, 1995eko azaroaren 11n (407 l/s baino ez).

EREÑOZUKO BEHATOKIKO HILEKO UR-EMARIAK (HERNANI-GIPUZKOA) m ³ /S (1995-1996 URTE HIDROLOGIKOA)			
	BATAZ BESTEKOA	MAXIMOA	*MINIMOA
URRIA	1,947	4,017	1,354
AZAROA	1,781	7,390	0,855
ABENDUA	5,110	16,701	1,633
URTARRILA	5,198	8,889	0,837
OTSAILA	12,544	22,879	4,387
MARTXOA	7,691	13,401	4,250
APIRILA	3,888	6,144	2,653
MAIATZA	5,008	11,255	2,271
EKAINA	2,075	5,948	1,333
UZTAILA	5,541	53,606	1,408
ABUZTUA	2,582	5,681	1,610
IRAILA	3,192	8,638	1,482

Hernanin Ereñozu igaro ostean, ibaia BEHE IBARREAN sartzen da. Zati honetan duen batez besteko malda % 0,224koa da, eta Donostiako ZURRIOLAKO zubiaren parean itsasoratzen da, Urgull eta Uli mendien artean. Interesgarria da nabarmentzea flandriarren aurrerakada ezaguna baino lehenago, Urumea ibaiaren bokalea gaur egun baino askoz ere urrunago zegoela (Santa Klara uhartearen eta Urgullen artean); izan ere, garai hartan, itsas maila gaur egun baino beherago zegoen. Alabaina, aurrerakada horri itsas korronteak, olatuak, haizea eta ibaiak egindako sedimentu ekarpenak gehitzean, denboran eta espazioan zehar material ugari metatu ziren Urgull mendiaren hegoaldeko isuriaren oinean; eta, hala, gaur egun ezagutzen dugun tonbolo handia sortu zen, non finkatu baitzen Donostiako lehenengo biztanleria nukleoa.

Zati horretan, Ereñozu eta Epele arteko ibilbidean izan ezik (eremu horretan higadura handiko materialen gainean -lehenik eta behin, konglomeratuak, hareharriak eta lutitak, eta, ondoren, tuparriak eta kareharri tupatsu kretazikoak (behekoa zein goikoa)- ibarra nabarmen zabaltzen da), ibaiaren ibilbidea material kuaternarioetan zehar irekitzen da. Oro har, legarrak, hareak eta limoak; alegia, ohandean zehar jalkitako material alubialak, beste material kolubial batzuekin batera, mazelako metakinei dagozkienak, eta baita itsas jatorriko beste batzuekin batera ere, bokaletik hurbil. Epelen, Urumeak bere ibaiadar garrantzitsuenetako bat hartzen du: Landarbaso erreka. Donostiari dagokion enklabe baten iparraldeko zatia mugatzen du, eta hego-mendebalderantz daukan ibilbidean, ibilgu nagusira bideratzen ditu urak, aipatutako udalerrian.

Urumea ibaiaren urak kalitatea galtzen du ibaiaren behe arroan, Urnieta, Hernani (Lastaola, Carabel) eta Astigarraga-Ergobiako udalerrietan eta baita Donostiako hainbat industrialdetan ere (Martutene, 27 poligonoa) izaten diren hiri eta industria isurpenen eraginez, bai eta egindako hainbat defentsa lan direla tarteko ere (bereziki Carbeletik ibaian behera), ibaiari bere burua arazteko duen ahalmen naturala galarazi diotenak. Hala, ibaia ez da gai izan isurpen horiek eragindako karga kutsatzailea onartzeko, eta galdu egin ditu bere ezaugarri "naturalak", eta baita XX. mendearen lehen erdira arte arrain hazkuntzarako izan duen gaitasuna ere (amuarraia eta izokina ziren espezie nagusiak). Alabaina, azken urteotan pixka bat lehengoratu da egoera, Urumeako Kolektorea eraikita. Bertara bideratu dira, hain zuzen, eremu horretako isuri industrial eta hiri isuri gehienak. Gainera, eremu horretan dagoeneko hasita dauden saneamendu lanei esker ibaia aurki lehengoratzen joatea espero da. Izan ere, Urumea

ibaia erakargunea da ez soilik Donostiari begira, baizik eta baita eskualdeko askorentzat ere.

Astigarragatik datorrela, Donostian sartzen da Urumea. Eta bertan, ibaiadar ugari jasotzen ditu: orotara, 18 inguru. Horietako asko aldi baterakoak diren erreka txiki eta ibaitxoak dira, ibilgu nagusiari emateko moduko emari handirik ez dutenak. Nabarmentzekoa da, halaber, ibaiadar horietako gehienek amaierako zatiak bideratuta eta lurperatuta daudela, hiri ezarpenaren ondorioz. Horren lekuko ditugu Poliklinika eta Miramon ingurutik beherantz datozen errekek, Morlans erreka, etab.

Horietako gehienek (arestian aipatutako Landarbaso erreka izan ezik) 0,12 km² eta 2 km² arteko arro azalerak dituzte, 0,3 km-tik 2,8 km-ra arteko ibilgu luzerakoak. Nabarmentzekoak dira, batetik, Austitxo (Oiola) erreka, Oriamendi (165 m) menditik datorrena eta SE-ENE ibilbidetik doana, Miramongo ospitale eremuaren hegoaldean dagoen behe ibarrean zehar, urak ibilbide nagusiaren ezkerreko ertzera isuriz, Sarrieta auzotik ibaian behera. Eta, bestetik, Telleribia erreka, eta haren ibaiadar Errazki, Martutene inguruan udalerriaren banalerroa mugatzen dutenak.

2) ORIA IBAIAREN arroa.

Oria ibaiaren arroak Donostiako udalerriarekin duen harremana ZUBIETA enklabearekin baino ez dator bat (Lasarte-Oria eta Usurbil artean). Hala, bere eragin eremua 11,34 km²-koa besterik ez da. Zinez ehuneko txikia da hori (% 1,23), kontuan hartzen badugu Oria ibaiak (Gipuzkoako luzeena, 78,5 km) 888 km²-ko arroa drainatzen duela guztira.

Bere GOI ARROA Aizgorri mendizerraren erdian jaiotzen den tokitik abiatzen da, eta Gipuzkoako lurraldeko hegoaldeko gailur garaienetatik datozen ibaitxo eta erreka ugariak bat egiten dutenean, Oriari ematen diote euren ura, eta, hala, Otzaurte udalerri ingurutik horixe da ibilgu bakarra. Arro honek malda handiak ditu; izan ere, bere iturburutik kilometro gutxira 200 m-ko kotak lortzen ditu, eta, horrenbestez, ibai ibar zabala eratzen du. Zati honetan bere ur emaria ez da oso handia: eguneko batez besteko ur emaria 0,609 m³/s-koa izan zen, 95-96. urte hidrologikoan.

Bere ERDIKO ARROAN, Beasaindik aurrera, Oriak hiru ibaiadar garrantzitsu jasotzen ditu: ezkerreko ertzean, Estanda ibaia; eta eskuinekoan, Agauntza eta Amundarain ibaiak. Horien ekarpenek izugarri ugartzen dute ibaiaren ur emaria. Itsasondo, Legorreta eta Alegi udalerrietatik igaro ostean, ibaia Tolosara iristen da; bertan, beste hiru ibaiadar garrantzitsu hartzen ditu: Araxes eta Berastegi ibaiak, eskuineko ertzean; eta Albiztur edo Salubita erreka, ezkerrekoan. Andoain udalerrirantz jotzen du gero; han jasotzen du ur emaririk handiena, Leizaran ibaiadarrak (eskuineko ertza) emandakoa. Araxes ibaia bezalaxe, Leizaran Nafarroatik dator, eta arro osoko ur emari espezifikorik handiena dauka. Industrializazio handiko arroa da, batez ere erdiko zatian.

BEHE ARROAN, behin Andoain igaro ondoren, Lasarte-Oriara iristen da ibaia. Udalerrri horretan ibaiak norabidez aldatzen du, zakar: ordura arte SW-N norabidean zihoan, eta ia 90 °ko itzulia eginez, E-NNW norabiderantz hartuko du, Usurbiletik igaro ostean, harik eta Orio pareaan itsasoratzen den arte.

Azken zatian, zehazki Lasarte-Oria udalerrian sartu aurretik, Oria ibaia Donostiako lurraldean zehar doa. Hala, ZUBIETAREN eta udalerrri horren arteko banalerroa da, bai eta partzialki Usurbilena ere, ia 4 km-ko ibilbidean. Ibilbide horretan, eta batez ere Zubietako hegoaldetik sartzean, nabarmentzekoa da erriberako landaredia. Gipuzkoako lurralde osoan garrantzi handi samarra duen haltzadi kantauriar gutxietako bat da, nahiz eta hiri, industria eta nekazaritza zein abeltzaintzako jarduerak garai batean eremu horretan zeudenak nabarmen galtzea eragin duten. Oriak Zubietan duen ibaiadar nagusia eta ia bakarra Abaloz erreka da. 9,32 km²-ko arro azalera eta 6-6,5 km-ko luzera dauka. Erreka hori, hain zuzen, Zizurkilgo ekialdeko isuritik datozen hainbat errekatxoren ekarpenen bidez dago osatua, eta Buruntza inguruan ekarpena egiten dio ibilgu nagusiari. Era berean, Zizurkilgo eta Andoaingo udal barrutien arteko banalerroa ere bada, bai eta Andoaingoaren eta Zubietakoaren artekoa ere.

3) OIARTZUN IBAIAREN arroa.

Ibai honen arroaren eragin eremua ez da oso handia Donostia udalerritik igarotzen denean. 5,18 km² inguruko arro azalera dauka guztira, urak Pasaiaiko itsasadarrera zuzenean isurtzen dituzten zazpi errekatxotan banatuta: nagusiak Pasai Antxon eta gainerakoak Uli mendia eragin hego mazelatik Pasai San Pedror bitartean.

Horietatik garrantzitsuenak, drainatzen duen arro azaleragatik (2,82 km²), Arechijo edo Zillargiñene erreka da, ibaian behera MOLINAO izenez ezaguna. San Markos mendia eragin hego-mendebaldeko mazelan jaiotzen da, 150 m inguruko kotan. Alabaina, bere iturburuko behe ibarrean San Markosko Hiri Hondakin Solidoen zabortegea dago gaur egun. Guztira 2,5 km-tik gorako luzera daukan erreka honek, sorreran, SE-NW norabideko ibilbidea dauka. 625 m inguru egin ondoren, norabide aldatuta dator, eta S-NE norabideari heltzen dio, harik eta Pasaiaiko portuan (0 m) itsasoratzen den arte. Alabaina, bere azken zatian, zehazki Molinao auzotik igarotzean, kanalizatuta dago. Bere ibilbidean zehar, batez ere ezkerreko ertzean, hainbat ibaiadarren ekarpena jasotzen du, ibaian behera bere ur emaria handitzen dutenak. Lauaizeta baserriaren NE-E inguruan dauden behe ibar txikietatik jaitzakoak dira garrantzitsuenak (Mekearko erreka, Amueder zabortegetik hurbil, A8 autobidearekiko bidegurutzearen aurretik; eta Altza auzoaren hego-ekialdeko eremuan jaiotzen diren errekek). NW-SE norabidean doan ibilbidean zehar, bat egiten dute ibilgu nagusiarekin, Donostiako udal barrutian.

4) AÑORGA ERREKAREN arroa.

XI. mendeaz gero Gorga izenez da ezaguna. Erreka honen urek lotura izan zuten, antzina, errota jarduera bizi batekin; eta, gainera, hainbestekoa zen bere kalitatea, ezen arrain hazkuntza aberats eta askotarikoa baitzuen: erreka karramarroak, amuarrairak, aingirak... Ibaia itsasoratzen zen tokitik hurbil arrantzatzen zituzten aingirak XX. mendearen hasierara arte, garai hartan artean ere nabigatzeko modukoa baitzen ibaiaren behe arroa.

16,84 km²-ko arro azalera dauka, ibilbide nagusiak ia 7 km-ko luzera du, eta arroaren batez besteko malda % 36,13koa da. Ibai honen iturburua Lasarte-Oriako eta Donostiako udal barrutien arteko banalerroan dago, eta ibilbide nagusi bihurtzen da erreka txikiek eta jariatzeek egindako ekarpenei esker. Jariatze horiek AÑORGA auzoaren mendebaldeko goi kotetatik jaisten dira, eta N-I errepide zaharraren inguruan isurtzen dituzte euren urak ibilgu nagusira. Ibilbidearen norabidea E-NNE da iturburutik Rezola ingurura bitarte. Gune horretan, norabidea aldatzen du: N-NNW. Eta halaxe jarraitzen du ia itsasoratzen den gunera arte (Tximistarri).

Donostiak eremu horretarantz izandako hiri hazkundeak eta Añorga auzoa oinarritzko bide korapilo bihurtu izanak (horren ondorioz, hainbat komunikazio azpiegitura sortu behar izan dira; nola igarotzekoak -AP8 eta A-I-, hala Donostiara sartzekoak) ekarri dute erreka horren ibilbidearen zati handi bat estalita egotea. Hala, nekez jarrai diezaiokegu modu ziurrean ibaiaren ibilbideari. Donostiako garai bateko mapetan, haatik, aise identifika zitekeen ibilbide hori. Azkenaldian, hainbat lan egiten ari dira erreka ibilbidea azaleratzeko eta kanalizatzeko.

Añorga erreka ibaiadar nagusia IGARA ERREKA (Artikula) da. 6 km inguruko bidea egiten du, eta bere ibilbidea E-NE norabidean doa. 200 m inguruko garaieran du iturburua, Mendizorrotz mendiaren inguruan (hego-ekialdeko mazelan), eta berauxe da Donostiaren eta Usurbilen arteko banalerroa. Ibilbide sigi-sagatsua egin ondoren, non ibaiadar ugariren ekarpenak jasotzen dituen bi ertzetan (horri lotuta gordetzen da Donostiako lurraldeko harizti-baso misto urrietako bat), ibilbide nagusiarekin bat egiten du, IGARA auzoan.

Añorga erreka estalita doa bere azken zatian; hots, Igara eta ANTIGUA-ONDARRETA auzoetan. Erreka hori TXI-MISTARRI kalan (Zentellazulo) itsasoratzen da, Tennis pasealekutik abiatu eta itsasora iritsi bitartean Igeldo mendia zeharkatzen duen kolektorearen bitartez.

5) Zuzenean KANTAURI ITSASORA isurtzen diren ur ibilbideak.

Kostaldeko lerroakadurako (Mendizorrotz-Igeldo eta Ulia) gailurrik garaienetatik datozen errekek edo errekatxoak dira. Ur emari eskasak bildu, eta zuzenean itsasora isurtzen dituzte. Orotara 5,5 km² eta 6 km² arteko azalera betetzen dute. Malda latzak dituzte eta kostaldeko lerroakaduraren oinarritzko substratua osatzen duten materialak drainatzen dituzte, hasi Oriotik eta Hondarribiko Biosar muturrera bitarte.

Guztiak ere luzera eta ur emari eskasekoak dira; alabaina, bereziki nabarmentzekoak dira, gehiago garatu direlako, Mendizorrotz mendiaren ipar isurialdean daudenak. Horietako bat, gainera, Orio eta Donostia udalerrien arteko banalerroa da, nahiz eta biek isurtzen dituzten euren urak Agiti hondartzaren mendebaldeko eremuan.

2.2.5.2.- ITSASOA ETA ITSASERTZA

Donostia udalerria kostaldean dago, KANTAURI ITSASOAREN urertzean. Kantauri itsasoa, hain zuzen, Ozeano Atlantikoaren itsasertza da. Iberiar penintsularen iparraldeko kostaldea eta Frantziako kostalde atlantikoaren hego-mendebaldeko muturra bustitzen ditu. Bizkaiko golkoaren hegoaldeko eremua ere hartzen du. Itsaso hau Estaca de Bares lurmuturretik (Coruña, Galizia) Aturri ibaiaren bokaleraino doa, Baiona (Lapurdi) hiritik hurbil. Hala, kostaldeko 800 km bustitzen ditu.

Donostiako udal barrutiak muga du, iparraldean (N), Kantauri itsasoarekin. Horrenbestez, 16 km inguruko luzerako itsasertzeko zerrenda hartzen du.

1) Ezaugarri FISIKOAK.

1.1) TEMPERATURA.


Bizkaiko golkoaren hego-ekialdeko muturrean dauden gainazaleko urek berotzea jasaten dute euskal kostaldearen parean. Horren ondorio deigarrienetako bat da, hain zuzen, Europako Atlantikoko marearteko espezie berezien banaketa etetea eta hegoalderako joera duten espezieak agertzea. Horrek guztiak eragina dauka itsasertzeko paisaiaren itxuran; batez ere, Ondarreta eta Monpas eremuetan ikus daitekeen marearteko harritsuan.

Fenomeno horren azalpena Bizkaiko golkoaren ezaugarri ozeanografikoetan topatuko dugu, bai eta Atlantikoaren azaleko geruzen dinamikan ere. Uda partean, bi gertakari kontrajarri izaten dira Kantauri itsasoaren muturretan: mendebaldean, azaleratu egiten dira sakoneko ur hotz eta hazkurritsuak; beste muturrean, berriz, euskal kostalde parean, ur masak gelditu eta egonkortu egiten dira. Hala, estratifikatu eta berotu egiten da azaleko geruza, eta, horrenbestez, ekarpen gehiago ez daudenez, agortu egiten dira mantenugaiak. Gainazaleko ur masen berotze horrek ondorio negatiboa dauka, uren lehen mailako produktibitatea murriztu egiten

baitu, mantenugai gisa jokatzen duten gatz mineralak agortzen direlako. Eta abantaila ere badakar jarduera turistikoa eta astialdikoei dagokienez, udako hilabeteetan urak Galiziako eta Portugalgo iparraldeko kostaldeetan baino tenperatura beroagoak dituelako (6° inguru gehiago).

Itsasoko urak Donostian dituen tenperaturen datuak Aquariumean erregistratu izan dira egunero, 1950. urteaz gero. Hala, itsasoko gainazaleko urak hainbat hamarkadatan izandako bariazio termikoei buruzko informazio baliotsua jaso ahal izan da.

ITSASOKO URAREN HILEKO BATAZ BESTEKO TENPERATURAREN BALOREAK DONOSTIAN



1.2) EKAITZAK.

Kantauri itsasoaren ekialdean aire tropikalaren eta polarraren masek eratutako fronte batek jotzen du. FRONTE POLAR izenekoak hainbat latitude hartzen ditu urtean zehar: neguan, hegoalderantz higitzen da, eta udan, berriz, iparralderantz.

Hala, fronte polar horri lotutako zikloi estratropikalek eragina dute Kantauriko kostaldean udazkenean-neguan masa polarrak behera egitean eta neguan-udaberrian gora egitean. Ipar atlantikoko zikloi horiek Kantauri itsasoko ertzarekiko paraleloan doaz, eta Mediterraneoaren mendebaldeak xurgatzen ditu. Akitanian eta Euskal Herrian zehar igarotzen dira, eta bidean, hasieran iparraldekoak diren eta gerora, ekaitza biratzean, ipar-mendebaldekoak edo mendebaldekoak bihurtu daitezkeen haizeak uzten ditu.

Kantauri itsasoko ertzari eragiten dioten haizeetatik zikloi estratropikal atlantikoak igarotzean sortutako ipar-mendebaldeko haizeak dira abiadura handienekoak, baita iraunkorrenak ere. Eta horri "fetch" garrantzitsu bat gehitzen badiogu, OLATUAK eta itsasertzeko korranteak sortzen dituzte. Olatuen jatorriaren erdigunea iparraldeko Atlantikoan dagoenean -Groenlandiaren hegoaldean-, alegia, 4.000 km-tik gorako distantzian, kostaldera iristen diren olatuak 9 m-ko garaierakoak izan daitezke, 18 segundoko aldietan. Hala, HONDOKO ITSASOA izenez ezagutzen duguna osatzen da. Izenak berak dioen moduan, sakonera jakin batera arte dauden ur masei eragiten die, eta haizea bare dagoen egunetan sor daitezke, urruneko jatorria baitute.

Ekaitz mota hori da itsasertzeko erliebeari gehien eragiten diona, eta benetan iraunkorra izan daiteke. Urak egindako presioa 30 Tm/m²-ra artekoa izan liteke, harri bloke handi batzuk mugitzeko adinakoa. Hondoko Itsasoko EKAITZ horiek maizago gertatzen dira UDAZKENEAN ETA NEGUAN, eta lagungarriak dira uda ondoren ur geruzak homogeneizatzeko.

Bigarren ekaitz mota ENBATAK dira, bat-batean agertzen diren tokiko haize indartsuek eragindakoak. Itsaskiak sortzen dituzte, eta Hondoko Itsasoak ez bezala, gainazaleko ur geruzari baino ez die eragiten. Egun beroetan, lur lehorraren gaineko aire masak gainberotu eta igo egiten dira. Hala, itsasotik datorren airea modu masiboan sartzen da, eta horixe izaten da mota honetako ekaitzaren sorburua. Enbata hauek askoz ere eragin txikiagoa dute itsasertzean. Alabaina, kezka iturri izan dira aspalditik, tragedia lazgarriak ekarri baitituzte, batez ere eskuz egindako arrantza-ontzi txikientzat. Sasoi epeletan izaten dira era honetako ekaitzak; bereziki, UDAKO hilabeteetan, eta bat-batean etortzen direnez, are arriskutsuagoak dira.

Ekaitzen neurria OLATU ALTUERA ADIERAZGARRIA izeneko da; alegia, itsasoaren egoera jakin batean izandako olatu guztien artean garaienak diren herenen batez besteko balioa.

1.3) MAREAK.

Mareak eragiten dituzten indarrak, hain zuzen, Ilargiak eta Eguzkiak ur masengan duten erakarpenak bultzatutakoak dira. Bi izarrak lerrokatuta daudenean gertatzen dira anplitudetik maximoenak: MAREA BIZIAK. Angelu zuzena eratzen dutenean, berriz, erpinean Lurra dagoela, anplitudea minimoa izaten da: MAREA HILAK, bi erakarpen indarrak (Eguzkiarena eta Ilargiarena) neutralizatu egiten direlako.

Ozeano Atlantikoan, mareak egun erdikoak izaten dira, 12:42 h-ko periodoarekin. Hala, egun batetik bestera 50 minutuko aldea izaten da itsasgoraren edo itsasbeheraren orduetan. Mareen anplitudea asko aldatzen da toki batetik bestera. Balio maximoak, esaterako, Kanadako Fundy badian izaten dira (15,4 m-ko anplitude maximoak); masa gutxiko itsaso txikietan, aldiz, ia ez dago marearik (Mediterraneo itsasoan, esaterako).

Mareografoarekin Donostiako portuan egindako neurketek esker jakin dezakegu puntu horretan marearen ANPLITUDE maximoa 4,4 m-koa dela (marea biziak) eta minimoa 1,2 m-koa (marea hilak); batez besteko balioa, berriz, 2,8 m ingurukoa. Balio horiei dagokienez, baina, bestelako faktore batzuk ere hartu behar dira kontuan, marearen eragina handitu edo neutraliza dezaketenak; hala nola presio atmosferikoa, haizeak, ekaitzak eta kostaldeko fisiografia. Hala, Groseko hondartzan, marea bizi baten itsasgora 6 m-tik gorakoa izan liteke, salbuespenezko goieran.

2) Ezaugarri KIMIKOAK.

2.1) Gazitasuna.

Itsasoko uraren batez besteko gazitasuna ‰ 35ekoa da (‰ 33 eta ‰ 37 arteko bariazioa). Ozeano Atlantikoan, honako hauek dira muturreko balioak: maximoa, ‰ 37, Brasilgo kostaldean, eta minimoak, ‰ 20 eta ‰ 32 artekoak, iparraldeko itsaso polarrean. Itsasertzean, gazitasuna nabarmen murriztu daiteke ur kontinentalen ekarpenagatik. Hala, euskal kostaren parean ‰ 31,5etik ‰ 34,5era artekoa izaten da udaberrian; eta, udazkenean, berriz, ‰ 35,5ekoa, gainazaleko uren eta sakonekoen arteko nahasketa maximoa denean. Bestalde, estuario inguruneetako gazitasun baldintzek etengabeko gradientea izaten dute. Hori aldatuz doa, gainera, urte sasoiaren arabera zein mareen oszilazioen arabera.

2.2) Oxigenoa.

Donostia parean, itsasoko uretan disolbatutako oxigeno baliorik handienak gainazalean daude: udaberrian, 7 ml/l inguruko balioak izan ditzake. Sakoneran ere antzeko balioak daude, nahiz eta pixka bat txikiagoak izan.

2.3) Mantenugaiak.

Ekoizpen primarioan ezinbesteko elementu gisa jokatzan duten gatz nagusiak, hain zuzen, nitratoak, nitritoak eta fosfatoak dira. Nitratoek eta fosfatoek Donostia pareko itsasoko uretan duten jokabidea oso antzekoa da. Batetik, udan, ez dago horrelako gatzik gainazalean, eta 50 m-ko sakonerara arte pixkanaka ugartuz doaz. Kota horretatik aurrera, berriz, kontzentrazio konstantea izaten dute. Bestetik, mantenugaien banaketa batimetrikoaren bigarren eredu bat dugu neguan. Sakoneran banaketa uniforme dute mantenugaiak, gainazaleko eta sakoneko ur geruzen nahasketaren ondorioz, udazkeneko ekaitzek eragindakoa.

3) Ezaugarri BIOLOGIKOAK.

Donostiako kosta parean, plataforma kontinental estu bat zabaltzen da, ezpondaren bitartez Cap Breton fosan amiltzen dena. Kostaldean, hainbat ekosistema bereiz daitezke, honela sailkatutakoak: marearteko hondo gogorak, hondo gogor sublitoralak, marearteko hondo bigunak, hondo bigun sublitoralak, estuario hondoak eta domeinu pelagikoa.

3.1) Hondo gogorak.

Hondo gogor edo harritsuak dira nagusi Kantauri itsasoko ertz guztian. Donostian, Monpas inguruan daude: ekialdean, Ondarretan; eta mendebaldean, Pasealekuberriko arroketan eta Santa Klara uhartean, Ondarretako eremuaren luzapena baita. Hondo horiei dike eta kai mutur artifizialak gehitu behar zaizkie (Zurriolako uharridia eta portua). Marearteko hondo gogorretan bi eremu daude: Monpas eta Ondarreta. Elkarren oso hurbil daude, baina alga, ornogabe eta arrain bariazio interesgarriak dituzte, eremu bakoitzean izaten den olatu maila desberdina baita.

3.2) Hondo bigunak.

Donostiako marearteko hondo bigunak bertako hondartzetan daude (Ondarreta, Kontxa eta Gros-Zurriola). Alabaina, erabat antzuak dira, gizakiak presio handia egiten duelako eta horrek galarazi egiten duelako ingurune horretakoak diren komunitateak garatzea.

Hondo bigun sublitoraletan, berriz, harea izaten da, bai eta komunitate heldugabeak ere, eremu babestuetan izan ezik (Kontxako badia). Hondo bigunak arrain espezie ugari elikatzeko tokiak dira, nahiz eta askotarikotasun handieneko eremuak arroka-harea ekotonoan dauden. Bertan, batetik, jatera eremu harritsura doazen, baina harean lurperatuta babesten diren espezieak daude; eta, bestetik, hondo bigunetan elikatu bai, baina babes bila hondo harritsuetako hutsarteetara eta alga estalduretara joaten diren arrainak.

Donostiako marearteko hondo bigunetan izugarritzko aldaketak izan dira, gizakiaren ekintzaren eraginez. Parte Zaharra bera, esaterako, Urgull eta kostaldea lotzen dituen tonboloko harea mihiaren gainean dago eraikia. 1865 eta 1921 artean, Zurriolako senadi zaharreko dunen eta hondartzaren gainean eraiki zuten Gros auzoa; 1926an, berriz, Urumea ibaia kanalizatu zuten haren bokalean, eta itsas paduraren 200.000 m² galdu ziren, non Amaraberri auzoa eraiki zuten. Ekosistema horiek guztiak duela denbora asko desagertu ziren, eta horiekin batera, behinola eremuan ohikoak ziren espezie ugari.

Marea azpiko hondo bigunek ere badituzte euren berezitasunak; bereziki, Donostiako ekialdean. Zurriola

hondartza parean, lau angeluko azalera hareatsu bat 15 metroko sakonerara arte luzatzen da. Azalera horren goiko muga gaur egungo hondartza da; alboetan, berriz, barrera harritsuak daude, mendealdeko muturrean Pasealekuberritik eta ekialdean Monpas muturretik luzatzen direnak. Beheko eremua, berriz, bat dator 15 m-ko isobatarekin. Hori ere harritsua da eta ekialdean kanal estu bat dauka, Urumea ibaiak azken glaziazioan induskatu zuena, itsas maila beheago baitzegoen. Kanal hori 15 m-ko isobatatik 40 m-ko sakonerara bitarte luzatzen da, eta han, beste azalera hareatsu batean, paleohondartza batek eratutakoan, amaitzen da.

Itsaspeko topografia berezi horren eraginez, harea galera handiak izan ditu oso maiz Groseko hondartzak duela gutxira arte. Ekaitz gogorrek harea irauli, eta hareak barrera harritsuaren gainetik jauzi egiten zuen, 15 m-ko sakoneratik 40 m-ko isobatako paleohondartzaraino; hala, ezinezkoa zen berriz ere gorago kotetara itzultzea, barrera harritsuak galarazi egiten baitzion.


2.2.6.- LANDAREEDIA

Ikuspegi biogeografikotik, eta daukan kokaguneagatik zein ezaugarri klimatologiko orokorrengatik, Donostia udalerria hemen dago kokatuta: Eskualde Eurosiberiarrean, Superprobintzia Atlantikoan, Azpiprobintzia Kantauriar-Euskaldunean, Sektore Kantauriar-Euskaldunean (Rivas et al. 1987).

Lurraldeko orografiari eta topografiari baldintza bioklimatikoak gehituta, denboran eta espazioan zehar eragina izan da abiaburuko material geologikoetan; hala, lurzoru sorta zabal bat eratu, garatu eta bilakatu da. Inolako eragin antropogenikotik izan ezean, bakoitzak bere landaredi potentzial berezia izan beharko luke.

Alabaina, udalerriko landare paisaia potentziala desberdina da gaur egun; izan ere, gizakiak eta hark egindako jarduera guztiek nabarmen aldatu dute denboran zein espazioan zehar. Nola biztanleriak batez ere azken mendean izandako hazkunde delatarteko, hala industrializazioaren eta horrek dakartzan ondorioen eraginez (hiri eta industria erabilerak eta horiekin lotutako azpiegiturak eta zerbitzuak), landare paisaia horretatik gehiena betiko galdu da, lurzorua modu iraunkorrean okupatzeagatik. Beste zati bat, berriz, pixka bat aldatu da, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak areagotu egin direlako (baso primitiboetako erabilerak utzi eta belardi eta lur landuetara jo da).

Hala, Donostia udalerriko gaur egungo landaredia mapak erakusten digu dagokion kokagune natural optimoari eta deskribatutako landaredia klimatikoari dagokiena ez baizik eta oso bestelako errealitatea dugula:



1) BELARDIAK ETA LUR LANDUAK.

Indarrean dagoen Donostiako HAPOn arabera, hiri lurzoru urbanizagarriari dagokion azalera hedapen handia alde batera utzita, zeinek hareatzetako eta padura eremuetako landaredia berezi guztia xurgatu duen (Urumearen garai bateko bokalea eta hondartzen ingurua) eta zeinaren gainean kartografiatu baitiren gaur egun dau den hiri parke eta lorategiei dagozkien azalerak (Kristinaenea, Aiete, Urgull, Ulia, Ondarretako lorategiak, etab.), udalerriko landa lurzoru gehiena belardi eta lur landu ATLANTIKOEI dagozkien landare formazioek hartuta dago. Landare formazio horiek dira, euren horretan eta koniferoen basotzeekin batera, landare paisaiako elementu nagusietako bat, ez soilik Donostian, baizik eta baita Kantauri isurialde osoan ere. Eremu horretan, baserriaren us tiapen tradizionala funtsezko erreferentzia da oraindik ere, eta horren inguruan sortzen ziren antzina, bai eta gaur egun ere, jarduera ekonomiko ugari (lehen sektorea).

BELARDIAK mantentzeko, oro har, bi edo hiru sega lan egiten dira urtean, ongarriztatu egiten dira, eta zenbait bazka espezie erein; hala nola alpapa (*Medicago sativa*) eta lollobelarra (*Lolium sp.*). Eta neguan, larre moduan, nahiz eta topografikoki konplexuagoak diren eremuetan beti erabiltzen diren abelgorrien larre moduan. Batzuetan, belardi horiek fruitu zuhaitz batzuk izaten dituzte; esaterako, sagarrondoak, eta gutxiagotan, intxaurreondoak, gereziendoak eta madariendoak.

LUR LANDUETAN, berriz, artoaz gainera (*Zea mays*), bazka landareak ere izaten dira; hala nola erremolatxa eta arbia, bai eta gizakiak kontsumitzen dituen lekale eta barazkiak ere. Eremu horietan, bestalde, belar txar asko hazten dira.

2) BASO EREMUAK.

Hariztiak, baso misto atlantikoak eta harizti azidofiloak dira bigarren landare formazio garrantzitsuenak, udal barrutian elkarrekin duten hedadura dela tarteko. Dena den, berez, lurraldean garrantzi ekologiko handieneko landare formazioa dira. Hala da, hain zuzen, baso horiek direlako, gaur egun, lurralderako deskribatutako landaredia potentzialaren hondar bakarrak. Arestian esan bezala, hosto zabal erorkorren espezieen zuhaitzen formazio naturalak dira, duten kokagunea dela tarteko gizakiaren ekintzen eraginik jasan ez dutenak. Landare formazio horiek ausaz daude banatuta, udalerri osoan zehar sakabanaturik. Formazioetako batzuk topografikoki konplexuenetako bat den eremuan daude kokatuta (harizti azidofiloak, malda handieneko mazelatan). Dena den, zuhaitz masa horietako gehienek lotura hertsia dute lurraldean zehar doazen ur ibilbide eta erreka txikiekin, eta, hala, euren ertzetan sortzen dira zuhaitzi-galeria gutxi asko hautsiak (harizti baso-misto atlantikoak).

Daukaten hedaduragatik, udalerriaren hego-ekialdean dauden BASOAK dira nabarmentzekoak; hain justu, MIRA-MON-ZORROAGA auzoan daudenak, Donostia Ospitalearen eta Basozabal Golf Klubaren inguruetatik doan erre-karen bueltan. Erreka hori da, zehazki, Urumea ibaiaren ezkerreko ertzeko ibaiadar nagusia, udal barruti barnean. Nabarmentzekoak dira, halaber, MENDIZORROTZ mendiaren iparraldeko mazelan kokatuta dauden basoak; hots, Igeldoko hiri nukleotik Lasarte udalerriarantz jaisten den mazelan daudenak. Bai eta ULIA mendian daudenak ere, nahiz eta ezin dugun ahaztu ZUBIETA enklabearen hegoaldeko eremuan landare formazio horrek hartzen duen azalera.

HALTZADIAK, berriz, lurraldean garrantzi eta pisu handiena duten ibilbideen behe arroekin lotura duten landare formazioak dira. Bereziki nabarmentzekoak dira Oria ibaiaren arroan daudenak, Zubietako enklabetik igarotzean. Bestalde, Urumea ibaiari dagozkionek garrantzi eskasa dute, hartzen duten azalera txikia dela tarteko, Astigarragarako sarreran baino ez baitira aintzat hartzekoak maila kartografikoan. Nahiz eta ez den oso garrantzitsua, multzoak berez hartzen duen azalera txikia delako, garrantzi handikotzat ere jo behar da, horrelakoak izateak, zaintzeak eta ur ibilbideentzat dakarten oreka ekologikoari eusteak sortutako balio ekologikoei zein natura eta paisaia balioei dagokienez.

Aipatzekoak dira, halaber, bi URKIDI orban txiki, ipar-mendebaldean kokatutakoak. Azalera handienekoa Igeldoko campingaren alboan dago; txikiena, berriz, Mendizorrotz mendiaren ipar-mendebaldeko mazelan. PAGADI AZIDOFILOAK ere bereziki garrantzitsuak dira. URDABURURI dagokion azaleraren % 50 inguru hartzen dute, Donostiaren jabetzakoa den Añarbeko urtegiaren inguruan. Udalerriko pagadi bakarrak dira, eta Aiako Harria Parke Naturalaren baitan daude jasota. Azpimarratzekoa da, halaber, ITSASERTZEKO LABARREN komunitate konplexuei dagokien zerrenda, Donostiako kostalde osoan zehar mendebaldetik ekialdera luzatzen dena. Oro har, bertako landaredi klimazikoari dagokio, giza jarduerak ez baitu bertan eraginik izan, irisgarritasun kaskarreko gunea baita. TXILARDI-OTADI-IRALEKU atlantikoek osatzen dute beste landare formazio bat. Azalera hedapenean ez du toki askorik hartzen, eta gehienak ipar-mendebaldean daude: Mendizorrotz mendiaren adarretan, Orio udalerriaren inguruan (Talaigaña-Mendizorrotz kostaldeko goragunea), eta baita udalerriaren ipar-ekialdean ere, Uliako mendia- ren adarretan, Pasaiarantz.

Azkenik, baso sailak eta bereziki KONIFEROEN basotzeak landare formazio antropogenikoak dira; izan ere, egiazki, gizakiak landutako formazioak dira, gerora ustiatu ahal izateko. Landare formazio hauek LANDARBASO eta ZUBIETA enklabeetan dira nagusi Donostia udalerrian. Bertan, gehien agertzen den landaredia da, eta zehazki, pinu beltza (*Pinus radiata* edo *Pinus insignis*) da espezie nagusia. Pinu horren oinarritzko erabilera zurgintza da. Uliako mendia- ren inguruetan (Pasaiarantz doazen adarretan), eta oro har kostaldean egindako basotzeetan, nabarmentzekoa da itsas pinuak (*Pinus pinaster*) duen tokia.

2.3.- BIZTANLERIA

2016ko hiriko udal erroldako datuei erreparatu, ikus daiteke EAEko hirugarren hiri jendetsuena dela Donostia (186.062 biztanle); zehazki, Bilboren (346.574 biztanle) eta Gasteizen (242.082 biztanle) atzetik. Donostiako biztanleria Gipuzkoa osokoaren % 20 eta % 32 artekoa izan da XX. mendean zehar.

2.3.1.- BIZTANLERIAREN EGITURA

Hona hemen 2016ko udal erroldatik biztanleriari buruz ateratako zenbait datu.

- 1) BIZTANLERIA, AUZOAREN ETA SEXUAREN ARABERA.
- 2) BIZTANLERIA, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA.

2.3.2.- BIZTANLERIAREN LABURPEN KOADROA, AUZOEN ARABERA

Donostiako biztanleriari buruzko koadroa, auzoen arabera.

AUZOA	BIZTANLERIA	%
1. AIETE (AI)	14.276	7,67
2. ALTZA (AL)	20.279	10,90
3. AMARA BERRI (AM)	29.719	15,97
4. ANTIGUO - ONDARRETA (AO)	14.740	7,92
5. AÑORGA (AÑ)	2.177	1,17
6. ATEGORRIETA - ULIA (AU)	4.076	2,19
7. CENTRO (CE)	21.947	11,80
8. EGIA (EG)	14.807	7,96
9. GROS (GR)	18.804	10,11
10. IBAETA (IB)	9.747	5,24
11. IGELDO (IG)	1.069	0,57
12. INTXAURRONDO (IN)	15.604	8,39
13. LOIOLA (LO)	4.896	2,63
14. MARTUTENE (MA)	2.784	1,50
15. MIRACRUZ - BIDEBIETA (MB)	8.860	4,76
16. MIRAMON - ZORROAGA (MZ)	1.971	1,06
17. ZUBIETA (ZU)	293	0,16
ENKLABEA		
18. LANDARBASO (LA)	13	0,01
19. URDABURU (OBERAN) (UR)	0	0,00
GUZTIRA, DONOSTIA	186.062	100,00
20. ARTIKUTZA (AR) ETXALDEA		

2.4.- AZPIEGITURAK

2.4.1.- KOMUNIKAZIO ETA GARRAIO AZPIEGITURAK

2.4.1.1.- BIDE SAREA

Donostiako udal barrutiari dagokion bide sarea, hain zuzen, hiriarteko sare batek (ibilbide luzeetarakoa, iragaitzazkoa eta zirkulazio abiadura handiagokoa) eta hiriko sare batek (ibilbide motzagoetarakoa, irisgarriagoa eta zirkulazio abiadura txikiagokoa) osatzen dute.

1) HIRIARTEKO bide sarea.

Donostiako hiriarteko bide sareak iparraldeko-hegoaldeko eta ekialdeko-mendebaldeko ardatzen bueltan dago egituratuta. Era berean, ardatz horietako bakoitza bi errepidez dago osatuta.

1.1) IPARRALDEA-HEGOALDEA bide ardatza.

a) A-1 AUTOBIDEA (N-I Errepidea) – GI-11 (Lasarte – Aritzeta) – G-21 (Añorgako hiri errepidea).
A-1 (Madril-Irun) Autobiaren ibilbideak garai bateko I. Errepide Nazionala (N-I) ordezkatzeko du; hots, XIX. mendearen erdialdean egindako errepide erradiala. Garai bateko N-I errepidea hiriaren ekialdetik sartzen zen, Erdialdeko zeharkatzen zuen mendebaldeko, eta norabide horri jarraituz, Irurriantze joaten zen.

1975. urtean, Donostiako lehenengo saihesbidea eraiki zuten, Añorga auzoaren eta Erreterria udalerriaren artean, ekialdetik mendebaldeko ibilbidearekin. Eta horri esker, zirkulazioa saihesbide horretatik desbideratu zen. 2010ean, GI-11 lotura (Lasarte-Oriaren eta AP-8ko Aritzeta puntuaren artean) eta Donostiako bigarren saihesbidea (AP-I/AP8 Autobidea) egin ziren.

Hala, gaur egun, A-1 AUTOBIDEAREN (1 Nazionala edo N-1) ibilbidea, iparraldetik hegoalderako norabidean, hego-mendebaldetik iristen da udal barrutira, Oria ibaiaren ibarretik etorrita (Lasarte-Oria). Hortik aurrera, dagoeneko udal barrutiaren barruan, GI-11 ERREPIDE gisa (Lasarte-Aritzeta Lotura), norabide berean jarraitzen du, harik eta Aritzeta G-20ekin bat egiten duen arte. Handik, ekialdetik mendebaldeko norabidean egiten du aurrera, Donostiako udal barrutiaren erdigunea zeharkatu eta Erreterriarantz joz. Era berean, Lasarten, G-20ekin bat egin aurretik, A-1 errepideak bat egiteko du ekialdetik mendebaldeko norabidean doan AP-I/AP-8 errepidearekin.

Bestalde, N-I errepidearen ibilbide zaharra, Añorga auzotik igarotzean, Añorgako hiri errepide bihurtu da: GI-21 ERREPIDEA (Añorga hiri-bidea).

A-1 Autobia Europako Errepide Sarean dago: N-S, E-05 erreferentzia ardatza.

b) URUMEAKO A-15 – G-41 AUTOBIDEA (Martutene – Amara).

A-15 AUTOBIDEAREN ibilbideak (Urumeako Autobia) GI-131 errepidea ordezkatu du (Errege Bidearen tarte zaharra, Andoain-Astigarraga-Oiartzun, N-leko ibilbidearen aurrekoa).

Andoaindik datorren eta iparraldetik hegoalderako norabidean doan A-15 Autobia Astigarraga udalerriaren iristen da. Hortik aurrera, Donostiako udal barrutira sartzen da hego-ekialdeko korridoretik. Eta GI-41 ERREPIDE (Astigarraga-Amara lotura) gisa doa, Amara-berri auzoko hiri eremuaren sarrerara arte. Era berean, A-15 Autobideak, Donostiaren eta Astigarraren arteko udal mugan, ekialdetik mendebaldeko norabidean doan AP-I/AP-8 Autobidearekin egiten du bat. A-15 Autobia Europako Errepide Sarean dago: N-S, E-05 erreferentzia ardatza.

1.2) EKIALDEA-MENDEBALDEA bide ardatza.

a) AP-I AUTOBIDEA (Burgos Iparra - Irun)/AP-8 (Kantauriko Autobidea) – DONOSTIAKO BIGARREN SAIHESBIDEA.

1975. urtean, Bilbo-Behobia (BB) Autobidea edo AP-I AUTOBIDEA (Iparraldeko Autobidea) eta AP-8 AUTOBIDEA (Kantauriko Autobidea) eraiki zuten, udalerri horiek ekialdetik mendebaldeko norabidean lotzen zituen. Donostia zeharkatzen zuen tarte Donostiako lehenengo saihesbide gisa geratu zen, Añorga auzoaren eta Erreterria udalerriaren artean, ekialdetik mendebaldeko ibilbidearekin. Horrek, hain zuzen, hirian zirkulazio berria eta arina izatea ahalbidetu zuen, ekialdetik mendebaldeko norabidean.

2010ean, DONOSTIAKO BIGARREN SAIHESBIDEA (AP-I/AP8 Autobidea) egin zen, hegoalderago; bai eta A-1 errepidearekiko loturak (Lasarten) eta A-15ekikoak (Astigarragan) ere, eta, hala, gaur egungo forma hartu du, AP-I Iparraldeko Autobidea eta AP-8 Kantauriko Autobidea gisa.

AP-I/AP-8 Autobidea tarte hori Europako Errepide Sareko parte da: N-S, E-05 erreferentzia ardatza eta E-W, E-70 eta E-80 erreferentzia ardatza. Bertatik joaten dira ibilgailu astunak eta iragaitzazko zirkulazioa.

b) GI-20 SAIHESBIDEA – DONOSTIAKO LEHENENGO SAIHESBIDEA (Aritzeta – Erreterria).

1975. urtean, Bilbo-Behobia (BB) Autobidea edo AP-I Iparraldeko Autobidearen eta AP-8 Kantauriko Autobidearen parte gisa, Donostia zeharkatzen duen tarte eraiki zuten. Donostiako lehenengo saihesbide gisa geratu zen, Añorga auzoaren eta Erreterria udalerriaren artean, ekialdetik mendebaldeko ibilbidearekin. Horrek, hain zuzen, hirian zirkulazio berria eta arina izatea ahalbidetu zuen, ekialdetik mendebaldeko norabidean.

2010ean, GI-11 lotura (Lasarte-Oriaren eta AP-8ko Aritzeta puntuaren artean) eta Donostiako bigarren saihesbidea (AP-I/AP8 Autobidea) eginda, saihesbideari GI-20 ERREPIDEA (Saihesbidea) izena eman zitzaion. Hala, iragaitzazko zirkulazioa eta ibilgailu astunak bigarren saihesbidera desbideratu ziren, eta G-20 errepidea, berriz, hiriko eta Donostialdeko tokiko zirkulazioarentzako utzi zen.

c) OSPITALEAK – Intxaurrondo GI-40 MINISAIHESBIDEA.

G-40 ERREPIDEA (Garbera-Martutene-Ospitaleak) G-20 saihesbidearen tarte baten ibilbide alternatibo-rako minisaihesbide bat da. Anoeta eta Garbera inguruan ditu loturak G-20 errepidearekin, eta Ospitaleen ingurua (Miramon) Martutenerekin eta azken hori Intxaurrondorekin lotzen ditu. Martutenen, berriz, Amara-berri auzora sartzen den G-41 errepidearekin egiten du bat.

Minisaihesbide hori, hain zuzen, G-20 saihesbidearen (hiriaren iparraldean dagoen hiriko lehenengo sai-hesbidea) eta hegoalderago dagoen AP-I/AP-8 Autobidearen (hiriko bigarren saihsbidea) artean dago. Bide horri esker, arinago egiten dira Erdialdearen eta hiriko ekialdearen arteko joan-etorriak.

2) HIRIKO bide sarea.

Hiriko sarearen ibilbide nagusia osatzen duten kaleak Ekialdea-Mendebaldea (E-W) eta Iparraldea-Hegoaldea (N-S) ardatz hauetan multzokatzen dira:

2.1) Ekialdea-Mendebaldea (E-W) hiriko bide ardatzak.

a) E-W (Iparraldea) hiri ardatza:

Buenavista hiribidea (GI-2640), Jose Elozegi hiribidea, Ategorrieta hiribidea, Miracruz kalea, Santa Katalina zubia, Askatasun hiribidea, Easo kalea, Xabier Zubiri plaza, Zubieta kalea, Kontxa pasealekua, Zumalakarregi hiribidea, Tolosa hiribidea, Europa plaza, Ibaeta plaza, Amerika plaza, Tolosa hiribidea, Añorga hiribidea (GI-21), Errekalde hiribidea (GI-21).

- 1. aukera: Ategorrieta hiribidea -Nafarroa hiribidea, Zurriola pasealekua, Zurriolako zubia, Erregina Erregentearen kalea, Boulevard, Hernani kalea- Askatasun hiribidea.
- 2. aukera: Santa Katalina zubia -Foru pasealekua, San Martin kalea- Kontxa pasealekua.

b) E-W (Erdigunea) hiri ardatza:

Buenavista hiribidea (GI-2640), Garbera biribilgunea, Ubegi zeharbidea (GI-40), Sarrueta biribilgunea, Lugañene pasealekua, GI-41, Bizkaia pasealekua, Eustasio Amilibia kalea, Madril hiribidea, Pio XII.aren plaza, Pedro Manuel Collado kalea, Morlans biribilgunea, Izostegi pasealekua, Lazkao biribilgunea, Lugaritz pasealekua, Lugaritz biribilgunea, Amerika plaza, Tolosa hiribidea, Añorga hiribidea (GI-21), Errekalde hiribidea (GI-21).

c) E-W (Hegoaldea) hiri ardatza:

Buenavista hiribidea (GI-2640), Garbera biribilgunea, Ubegi zeharbidea (GI-40), Sarrueta biribilgunea, Lugañene pasealekua, GI-40, GI-20, Añorga hiribidea (GI-21), Errekalde hiribidea (GI-21).

2.2) Iparraldea-Hegoaldea (N-S) hiriko bide ardatzak.

a) N-S (Ekialdea) hiri ardatza:

Boulevard/Erregina Erregentearen kalea, Argentinako Errepublikaren pasealekua, Foru pasealekua, Gernikako Arborearen pasealekua, Bizkaia pasealekua, GI-41, A-15.

- 1. aukera: Bizkaia pasealekua- Loiolako Erribera pasealekua, Loiola biribilgunea, Loiola zeharbidea, Antzieta pasealekua, Martutene pasealekua -A-15.

b) N-S (Erdigunea 1) hiri ardatza:

Boulevard/Erregina Erregentearen kalea, Hernani kalea, Askatasun hiribidea, Urbieta kalea, Mendeurrenaren plaza, Araba parkea, Antso Jakitunaren hiribidea, Pio XII.aren plaza, Madril hiribidea, Aita Donostia plaza, Begiristain pasealekua, Oriamendi pasealekua, GI-2132.

c) N-S (Erdigunea 2) hiri ardatza:

Boulevard/Erregina Erregentearen kalea, Hernani kalea, Askatasun hiribidea, Urbieta kalea, Mendeurrenaren plaza, Araba parkea, Antso Jakitunaren hiribidea, Pio XII.aren plaza, Karlos I.aren hiribidea, GI-20, Añorga hiribidea (GI-21), Errekalde hiribidea (GI-21).

d) N-S (Mendebaldea) hiri ardatza:

Boulevard/Erregina Erregentearen kalea, Hernani kalea, Askatasun hiribidea, Urbieta kalea, San Bartolome kalea, Aldapeta, Aiete pasealekua, Oriamendi pasealekua, GI-2132.

Hiriko sare nagusi hau ezin konta ahala kalek osatzen dute, denen artean bigarren mailako sarea eratuz.

2.4.1.2.- APARKALEKUAK

1) TXANDAKAKO APARKALEKU PUBLIKOAK.

Donostiak hainbat txandakako aparkaleku publiko ditu. Aparkaleku horiek guztiak lurpekoak dira, eta Erdialdearekiko duten hurbiltasunaren arabera, hiru EREMUTAN daude banatuta: eremu berezia, eremu gorria eta eremu berdea. Honako ezaugarri hauek dituzte:

APARKALEKUA/ EREMUA	AUZOA	ZK.	PLAZA KOP.	TXANDAKATZE KOP.	TXANDAKATZEEN %	EGOILIAR KOP.	EGOILIARREN %
EREMU BEREZIA							
OKENDO	ERDIALDEA	1	1.492	748	50	744	50
BOULEVARD	ERDIALDEA	2	516	381	74	135	26
CERVANTES	ERDIALDEA	3	1.274	655	51	619	49
KURSAAL	GROS	4	500	300	60	200	40
SAN MARTIN	ERDIALDEA	5	600	300	50	300	50
EREMU GORRIA							
ARTZAIN ONA	ERDIALDEA	6	967	384	40	583	60
EASO	ERDIALDEA	7	412	146	35	266	65
TXOFRE	GROS	8	465	465	100	0	0
KATALUNIA PLAZA	GROS	9	939	456	49	483	51
ATOTXA	EGIA	10	210	210	100	0	0
BUS GELTOKIA	EGIA	11	384	384	100	0	0
EREMU BERDEA							
PIO XII.A	AMARABERRI	11	520	339	65	181	35
ARCCO	AMARABERRI	12	214	214	100	0	0
ILLUNBE	MIRAMON - ZORROAGA	13	500	500	100	0	0
ANTIGUABERRI	ANTIGUA	14	489	489	100	0	0
ZUHATZU	IBAETA	15	402	402	100	0	0
GUZTIRA			9.884	6.373		3.511	

2) ALDIRIETAKO APARKALEKUAK

Aldirietako aparkalekuak autoak aparkatzeko hiriaren periferian dauden tokiak dira. Horien helburua da, hain zuzen, gidariak euren ibilgailu pribatua han aparkatzea, eta Erdialdera sartzeko garraio publikoa erabiltzea. Era honetako aparkalekuak autobus lineak izaten dituzte hurbil, Erdialdearekiko komunikazioa errazteko. Doakoak izan ohi dira, nola aldi baterako, hala betiko.

Donostiak era honetako 3 aparkaleku ditu; honako hauek:

2.4.1.3.- RED NO MOTORIZADA

APARKALEKUA	ZK.	AUZOA	TARIFA
IBAETA	1	Ibaeta	Doan, aldi baterako
ILUNBE	2	Miramón - Zorroaga	Doan, aldi baterako
LOIOLAKO ERIBERA	3	Amaraberri	Doan

1) Bizikletentzako BIDEGORRIEN sarea.

Donostiak bizikleta bideen edo bidegorrien sare handia dauka hiri barnean. Sare horrek hiriko gunen nagusiak lotzen ditu, bai eta gunen horiek hainbat auzorekin ere.

Era berean, bizikleta bideen edo bidegorrien sarearekin lotuta, Bizikleta Publiko Elektrikoaren sistema bat dago martxan hirian: dBizi. Bizikletak alokatzeko sistema bat da. Bizikleta horiek zeinahi barrera orografiko edo distantzia gainditu ahal izateko laguntza elektrikoa daukate.



2) OINEZKOENTZAKO bideen eta zirkuituen sarea.

Donostiak oinezkoentzako bide edo zirkuituen sare handia dauka hiri barnean. Sare horrek hiriko gune nagusiak lotzen ditu, bai eta gune horiek hainbat auzorekin ere.



2.4.1.4.- BURDINBIDE SAREA

Burdinbide sarea hiru lineatan egituratzen da Donostiako udal barrutitik igarotzean: ADIF-RENFE Madril-Irun bide zabaleko linea eta Eusko Trenbide Sarea (ETS) – Eusko Tren (ET) Donostia-Hendaia (Donostialdeko Metroa edo Topoa) eta Donostia-Bilbo bide estuko edo metrikoko bi lineak.

1) ADIF-RENFE: Madril-Irun.

Donostiari zerbitzua eskaintzen dion burdinbide zaharrena Madril-Irun da. 1864. urtean eraiki zuen Compañía

de *Caminos de Hierro del Norte de España* enpresak. Burdinbideak nazionalizatu ostean, 1947. urtetik aurrera, RENFEk ustiari ditu instalazioak. Donostialdea ingurua da bidaiari kopuruari dagokionez gaur egungo aldiriko zerbitzurik garrantzitsuenak.

2003ko Burdinbidearen Sektoreko Legeak, Europako zuzentarauen transposizioa eginda, Europako burdinbide nazional handiak derrigortu zituen modu berezian kudeatzera, batetik, azpiegiturak, eta, bestetik, bertatik igarotzen diren trenak. Saretik zeinahi burdinbide operadorek baldintza berberetan ibiltzeko aukera izatea zen helburua, eta, hartara, lehia askea sustatzea. Era horretan, bi enpresatan banatu zen RENFE, 2005. urtean:

1.1) ADIF (Espainiako Trenbide Azpiegituren Administrazioa):

Azpiegituraren jabea eta haren kudeaketaz arduratzen den enpresa. Hala eskatzen dion zeinahi burdinbide operadoreri ematen dizkio zerbitzuak. Sustapen Ministerioaren mendeko enpresa erakunde publiko bat da, eta burdinbideak eraikitzea eta horien ustiapena kudeatzea ditu helburutzat. ADIFek iraungitako RENFEren eta FEVEren azpiegitura jaso zuen oinordetzan; eta, horrenbestez, horixe da Espainiako burdinbide gehienek jabea.

1.2) RENFE (Espainiako Trenbide Konpainia Publikoa) Operadorea:

Trenen jabea eta horien zirkulazioaz arduratzen den enpresa da, eta beste burdinbide konpainia batzuekin lehian egiten du lan.

ADIF (RENFE) linearen ibilbidea Urumearen ibarretik sartzen da udal barrutian (hiri inguruko hego-ekialdeko korridorea). Hernanitik eta Astigarragatik dator, eta iparraldetik hegoalderako norabidean, Martutene eta Loiola auzoak zeharkatzen ditu, Amaraberri auzoko tunelean sartuz. Behin hor dagoela, Urumea ibaiaren gaineko zubia zeharkatzen du trenak, eta ibaiarekiko paraleloan, eskuineko ertzetik joanda, Norteko edo Atotxako geltokira iristen da, Egia auzoan. Hortik aurrera, ibilbidea ekialderantz doa, eta ekialdeko korridoreko auzoak zeharkatu ondoren, Frantziarekiko mugara iristen da. Linea horrek honako azpiegitura hauek ditu Donostiako udal barrutian:

- NORTEKO edo ATOTXAKO GELTOKI nagusia: ibilbide luzeetarako eta aldirietarako zerbitzua.
- Aldiriko GERALEKUAK: Martutene, Loiola, Gros, Ategorrieta, Intxaurren eta Herrera.

Geraleku horiei hurbileko udalerrietako geltokiak batuta (Errenteria-Lezo, Pasaia, Hernani, Andoain, etab.), ibilbideak, azkenerako, metropoliko garraioaren ezaugarriak ditu. Alabaina, aldiriko zerbitzuen errendimendua bikaina izatearen gainetik lehentasuna eman ohi zaie ibilbide luzeak zerbitzuei.

Oiraintxe egiten ari diren ABIADURA HANDIKO TRENAREN (AHT) ibilbideari esker, bide konbentzionalen aipatutako mugak desagertu egingo dira eta hobetu egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen arteko lotura. Aurreikuspenen arabera, udal barrutiaren hegoaldeko ertzetik igaroko da ibilbide hori: Ergobiaren ibarretatik, Urumearen ezkerreko ertzean. Geltokia, berriz, Donostiako bigarren saihesbidetik eta Urumeako Autobiatik hurbil kokatuko da estrategikoki, eta geltokiak lotura izango du lehendik dagoen ADIFen (RENFE) sarearekin.

2) ETS-ET: Donostia-Bilbo eta Donostia-Hendaia.

Bide metrikoko burdinbideak bide zabalekoen ondoren sortu ziren, XX. mendearen hasieran. Donostia-Bilbo linea ustiatzeko zeuden hainbat konpainiek bat egin zuten 1906. urtean, eta *Compañía de los Ferrocarriles Vascos Congados* (Hiru Probintzietako Burdinbideen Konpainia) sortu zuten. 1970eko hamarkadan, AP8 (Bilbo-Behobia) Autobidea eraiki zuten, eta burdinbidearen ibilbidea zein material mugikorra zaharkituta geratu zirenez, enpresak errentagarria izateari utzi zion. 1973an, *Espainiako Trenbideen Enpresa Publikoa (FEVE)* egin zen linearen kargu; eta 1982an, berriz, Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SA, Eusko Jaurlaritzaren mendeko Elkarte Publikoa, zeinek linea modernizatzeari ekin baitzion.

2004an, Euskal Trenbide Sarea (ETS) sortu zuen Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko burdinbide sektorea berrantolatzeke eta garraio moduen arteko oreka bultzatu eta ingurumen inpaktu txikienekoak (batez ere burdinbideak) sustatzeko helburuarekin. ETS, beraz, Eusko Jaurlaritzaren Herri Lan eta Garraio Sailari atxikitako eskubide pribatuko erakunde publikoa da. ETSren helburua da, hain zuzen, Euskadiren ardurapekoak diren burdinbide azpiegiturak eraikitzea, zaintzea, kudeatzea eta administratzea, burdinbidea garraio sistema modernoa, eraginkorra eta iraunkorra izan dadin.

Udal barrutian dauden ETSren azpiegiturak, zehazki, EUSKO TREN (ET) enpresak erabiltzen ditu. Burdinbide garraioen operadore hau arduratzen da, besteak beste, Donostia-Bilbo eta Donostia-Hendaia (Donostialdeko Metroa edo Topoa) lineez. ETSk Donostiako EASO plazan duen GELTOKIAK bi ET linea horien arteko lotune lanak egiten ditu; hots, Donostia-Hendaia, ekialderantz, eta Donostia-Bilbo, mendebalderantz.

Donostia-Bilbo LINEAREN ibilbidea, Usurbil eta Lasarte udalerrietatik datorrena, Añorga errekaaren ibarretik (hiri inguruko hego-mendebaldeko korridorea) sartzen da udal barrutian. Ondoren, Añorga auzoa zeharkatzen du, hegoaldeko iparralderako norabidean, eta behin Ibaeta auzora iritsita, mendebalderantz jotzen du, eta tunel baten bidez, Aiete auzoa zeharkatzen du, Amaraberri auzoan agertzeko. Hortik, Easoko geltokira iristen da, hegoaldeko iparralderako norabidean. Geltokia Erdialdean dagoen Easo kalean dago kokatuta. Donostia-Bilbo linea horrek

honako GERALEKU hauek ditu udal barrutian: Errekalde, Añorga eta Lugaritz. Geraleku guztiak irekiak dira, aire zabalekoak.

Bestalde, Donostia-Hendaia LINEA (Donostialdeko METROA EDO TOPOA) ekialdetik sartzen da udal barrutian (Pasai Antxo), eta tunel baten bitartez, ekialdeko korridore submetropolitarrak zeharkatzen du. Ondoren, behin azaleratuta eta Urumea ibaiaren gaineko zubia igarota, Loiola auzora iristen da. Hortik, Amaraberri auzorantz jotzen du. Anoetan, iparralderantz biratzen du, eta Easoko geltokira iristen da. Donostia-Hendaia linea horrek honako geraleku hauek ditu udal barrutian: Herrera, Intxaurren, Loiola eta Anoeta. Geraleku guztiak irekiak dira, aire zabalekoak, Intxaurrendokoa izan ezik. Hori lurpean dago.

Hiriko GERALEKU horiei hurbileko udalerrietako geltokiak batuta (Usurbil eta Lasarte-Oria mendebalderantz, eta Pasaia eta Erreterria ekialderantz), ibilbideak, azkenerako, metropoliko garraioaren ezaugarriak ditu. Hala, gaur egun, burdinbide hori hiri inguruko garraiobide garrantzitsu bat da, hedatzen ari dena, eta errepideko garraioarekin zein bide zabaleko aldiriko burdinbidearekin lehian dagoena. Material modernoz hornituta dago eta maiz igarotzen da. Hala, urtean sei milioi joan-etorri inguru egiten ditu. Topoaren linea (Donostia-Hendaia linea, 1912an hasitakoa eta jendeak "Topo" izenez ezagutzen duena, dituen hamalau tunelak direla tarteko) eraldatzeko eta "Donostialdeko Metro" moderno bihurtzeko 2010. urtean hasitako lanek bere horretan dira oraindik ere.

Une honetan, Herrera eta Galtzaraborda (Erreterria) geralekuen arteko tarte zaharra burdinbide zati berri batekin ordezkatzeko ari dira. Tarte berri hori lurpetik joango da Altza auzoan, eta aurreikuspenen arabera, auzo bereko Felix Irazo pasealekuan lurpeko geraleku berri bat egingo da. Molinaon azaleratuko da ibilbidea; hegoalderago Pasai Antxo zeharkatu, eta Galtzaraborda baino lehenago lehendik dagoen ibilbidearekin bat egingo du.

3) IGELDOKO funikularra.

Igeldo mendiko funikularra 1912an eraiki zuten, mendi horren goiko gailurrean dagoen Jolas Parkera iristeko modua errazteko. Euskal Herriko funikularrik antzinakoena eta Estatuko hirugarren zaharrena da, Bartzelonako Tibidabokoaren (1901) eta Vallvidrierakoaren (1906) atzetik. Monte Igeldo Elkartearen jabetzakoa da; horixe da, hain zuzen, Igeldo Mendiko JOLAS PARKEAREN titularra ere.

Beheko geltokia mendiaren hego-ekialdeko mazelaren beheko aldean dago; goikoa, berriz, mendiaren goiko gailurrean, Jolas Parkearen barnean. Bideak 1 m-ko zabalera dauka, eta mendiaren hego-ekialdetik joaten da, 348 m-ko ibilbide batean zehar. Ibilbide horretan 151 m-ko malda igo zein jaisten du, % 48 - % 57 arteko maldak gaindituz.

Bi bagoi ditu, ibilbidearen erdian gurutzatzen direnak, bide bikoitzeko tarte bat baitago. Trakzioa lortzeko 75 HPko motor bat dago, goiko geltokian. Horri esker, bi bagoiek 5,4 km/h-ko abiadura lor dezakete. Ibilbidea egiteko 9 minutu inguru behar dituzte.

Bagoiak 10 m luze eta 2,5 m zabal dira. Hurrenez hurren kokatutako bost konpartimendutan daude banatuta, 60 cm-ko kota aldearekin. Era horretan, konpartimenduek zoru laua dute. Bost konpartimendu horietako hiru irekiak ziren jatorrian, ixteko errezela batzuk baino ez zituztenak. Zehazki, goiko markoa makotua dutenak dira, gaur egun beirate batekin itxita daudenak.

Hona hemen funikularren datu teknikoak:

- Ibilbidea: 348 metro.
- Malda: 151 metro.
- Batez besteko malda / malda maximoa: % 48,39 / % 57,9.
- Edukiera: 50 pertsona, ibilgailuko.
- Bidaia iraupena: 9 minutu.
- Abiadura: 1,5 m/seg edo 5,4 km/h.
- Orduetgia: 15 minutuan behin.
- Beheko geltokiaren garaiera: 11 m itsas mailaren gainetik.
- Goiko geltokiaren garaiera: 162 m itsas mailaren gainetik.
- Motor elektrikoaren potentzia: 125 CV, 220 V-ra.
- Abiaraztea: hiru erredukzio dituen Von Rollaren bidez.
- Ibilbidea: lerrokadura zuzena.
- Bidearen zabalera: 1 m.
- Muntaketa: trebesa metalikoak, betoizko lauza gainean.
- Bidegurutztea: 80 m-ko luzera / 250 m-ko makurdura erradioa.

2.4.1.5.- AIREPORTU SAREA



1) Donostia - Hondarribiko AIREPORTUA.

Donostiako aireportua udal barrutitik kanpo dago; zehazki, Hondarribiko udal barrutian, hiriburutik 22 km-ra, ipar-mendebaldean, Bidasoa eskualdean, izen bereko ibaiaren estuarioaren alboan. Aireportua 1955. urtean inauguratu zuten. Luzera txikiko (1.750 m) pista bakar bat dauka, eta nekez handitu liteke, itsasoari irabazitako lursailen gainean baitago eraikia. Urtean 250.000 bidaiari inguru igarotzen dira bertatik. Berezi-ki zirkulazio nazional erregularra izaten da bertan, bai eta nazioartekoa ere. 2014. urtean, 6.056 hegaldi izan ziren, eta 31 tona zama mugitu ziren.

Hornidura hobeak dituzten Biarritzeko eta Loiuko aireportuak hurbil daudenez, eta distantzia labur eta ertainetarako Abiadura Handiko Trenak egin diezaiokeen lehia kontuan izanda, aireportu honen etorkizuna ezbaian dago. Bien bitartean, hainbat aire konpainia pribatuk hegaldi eskaintza handitzea lortu dute 1995. urteaz gero. Aldi berean, aireportuko instalazioak indartzen ahalegindu dira, zerbitzua eskaintzen duten erreakzio hegazkinen tamaina handitzeko modua aztertuz eta bertako prestazio teknikoak zein nabigaziozkoak hobetuz. Aireportuetako segurtasun araudi berriak pista mozttera derrigortzen du. Horrek eragin negatiboa izango du hegaldi eskaintzan, eta eztabaida piztu da ea komenigarria den pistaren luzera handitzea.

2) HURBILEKO AIREPORTUAK: BIARRITZ (BAB-Parme), LOIU (Bilbo), FORONDA (Gasteiz) eta IRUÑEA-NOAIN (Iruñea).

Biarritzeko aireportua dago Donostiatik hurbilen; hain justu, 50 km-ra. Bilboko aireportua, berriz, 100 km-ra. AP-I/AP-8 Autobideari esker, hiriak lotura ona dauka bi aireportu horiekin.

BIARRITZ-Angelu-Baiona edo Parmeko AIREPORTUA, zehazki, Biarritzetik 5 km-ra dago, hego-ekialdera, Baiona eta Angelutik hurbil, Pirinio Atlantikoen departamenduan, Akitania eskualdean. Aireportu hori 1954. urtean inauguratu zuten, eta 1994an berritu eta handitu egin zuten. Gaur egun, 6.000 m²-ko azalera dauka. Terminalean 2.250 m-ko luzera duen pista bakar bat dago. Urtean milioi bat bidaiari inguru igarotzen dira bertatik, eta nola zirkulazio nazional erregularra, hala nazioartekoa eskaintzen du.

LOIUKO edo Bilboko AIREPORTUA da Donostiako ingurunean dagoen aireportu garrantzitsuena. Bizkaiko hiriburutik 12 km-ra dago, iparraldera, Loiuko udal barrutian. Aireportu hau 1948. urtean inauguratu zuten. Eta 2000. urtean, terminal berria eta kontrol dorrea eraiki zituzten. Abiazio zelaia kontrol dorrea, lurreratzeko 3 pista (nagusi bat, 2.600 m luze dena; 2.000 m-ko beste bat; eta 1.450 m-ko hirugarrena) eta suhiltzaile etxe bat ditu. Urtean 4 milioi bidaiari inguru igarotzen dira bertatik, eta nola zirkulazio nazional erregularra, hala nazioartekoa eskaintzen du. Kantauri isurialdeko aireporturik garrantzitsuena da, bidaiari kopuruari eta eragin ekonomikoari dagokionez. Hala, Euskal Herriko aireportu errentagarri bakarra da, eta Espainiako aireportu sistemako bederatzia aireportu errentagarrienetako bat; gainera, Kantauriko garrantzitsuena.

Gasteizko FORONDA AIREPORTUA, berriz, 1980an inauguratutako aireportua da, zirkulazio nazionala eta nazioartekoa bideratzen ditu, eta AENAK kudeatzen du. Gasteiz hirigunetik 8 km-ra dago aireportua, Foronda udalerrian. Lurreratzeko oso pista handia dauka: 3,5 km-tik gorako luzerakoa. Errodaje pista paralelo bat ere badauka, eta Heraclio Alfaro Gasteizko Airekluba ere bertan dago, pilotu pribatuak treba daitezen. Aireportu hau salgaien eta aireko zamen garraiora dago bereziki zuzendua. Bidaiarien garraioari dagokionez, berriz, oso konpainia gutxi jarduten dute modu iraunkorrean: urtean 70.000 bidaiari izaten dira. Haatik, aireportu hau oso garrantzitsua da salgaien garraioari dagokionez; bereziki, 1993. urteaz gero, hainbat enpresa garrantzitsuk iritsiera eta banaketa gunetzat aukeratu baitzuten. Hala, 2008. urtean, mugitutako bolumenari dagokionez, hirugarren tokian geratu zen (35 milioi kg baino gehiago).

IRUÑEA-NOAINGO AIREPORTUA, azkenik, 1972an inauguratu zuten, lehendik zegoen aerodromoa eraldatu ondoren. Noain eta Eskiroz udalerrietan dago kokatuta, Iruñetik 6 km-ra. AENAK kudeatzen du. 2010. urtean azpiegitura berriak xertatu ziren, eta horri esker, aireportuaren ahalmena bikoiztu egin da. 2.400 m luze den pista bat dauka. Aireko zirkulazioa oso erregularra eta nazionala da. Madril-Barajas eta Bartzelona-El Prat aireportuekin lotuta egiten ditu joan-etorri gehienak. 2014. urtean, aireportuak 138.312 bidaiari, aireontzien 5.459 mugimendu eta 8,3 tona zama erregistratu zituen orotara.

3) HELIAZALERAK: Donostiako Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzua (PSISZ) eta egokitzeak.

Donostiako Udaleko Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuak (PSISZ) HELIAZALERA bat dauka Otxoki pasealekuan dagoen Suhiltzaile Etxeko instalazioetan, Garbera alboan. Heliazalera, helikopteroentzako plataforma edo HELIPAD (*helicopter landing pad*) izenez ere ezaguna, helikopteroek lur har dezaten finkatutako eremua da.

Heliazalera hau zirkularra da, eta 20 m-ko diametroa dauka. Maniobra patioan dago kokatuta, entrenamendu do-rearen alboan. Agentzia guztietako helikopteroek lur hartzen dute bertan; bereziki, Osakidetzako helikopteroek, zaurituak edo gaixoak eramateko. Batez bestean, astean helikoptero batek erabiltzen du. Heliazalera hau gune estrategiko batean dago kokatuta, GI-20 Saihesbidearekin eta GI-40 Errepidearekin zuzeneko lotura baitauka. Horiek, aldi berean, lotuta daude AP-I/AP-8 Autobidearekin eta A-15 eta A-1 Autobiarekin.




a) Donostiako PSISZren heliazalera: koordinatuak
 $43^{\circ} 18,720' N - 01^{\circ} 56,820' W$.
 $43^{\circ} 18' 43'' N - 01^{\circ} 56' 49'' W$.

Bestalde, LARRIALDIETARAKO 3 HELIAZALERA daude hiriaren itsasertzeko zerrendan zehar:



b) Saguesko zabaldegian: koordinatuak:
 $43^{\circ} 19,722' N - 01^{\circ} 58,286' W$.



c) Kursaalera: koordinatuak:
 $43^{\circ} 19,488' N - 01^{\circ} 58,785' W$.



d) Haizearen Orraziko zabaldegian: koordinatuak: 43° 19,268 N – 02° 00,312 W.

2.4.1.6.- ITSASALDEKO SAREA

1) DONOSTIAKO PORTUA.

Donostiako portua Urgull mendiaren hegoaldean dago, eta Kontxako Badia osatzen duten elementuetako bat da. XV. mendearen bigarren erdialdean ekin zioten bere eraikuntza modernoari. Gaur egun, bi ditxo ditu portuak: arrantzaleena bata, eta kirol arlokoa bestea. Kirol ditxoak edukiera txikia daukanez, udan, kirol ontziek Kontxako Badian bota behar izaten dute aingura. 1990eko hamarkadaz gero, Donostiako Kirol Portua izeneko sozietate anonimoak kudeatzen du portua. Sozietate horretan neurri berean parte hartzen dute Eusko Jaurlaritzak eta Donostiako Udalak.

Portuko zirkulazioa oso mugatua da: udan, portuaren eta Santa Klara uhartearen arteko joan-etorriak egiten dituzten txalupen zerbitzua izaten da (1943an inauguratua), bai eta badian zehar egiten diren ibilbide txikiak ere.

2) PASAIAKO PORTUA.

Pasaia Portua dugu Gipuzkoako itsas portu nagusia. Pasaia itsasadarraren bokalean dago, Donostiako udal barrutiaren ekialdeko mugatik metro eskasera. Portu natural bat da, Kantauri itsasoko olatuetatik urrun dagoena. Kanal natural baten bidez dago, hain zuzen, harekin lotuta. Porturako sarrera edo ahoa nahiko estua da; ez ditu 200 metro baino gehiago. Ulia eta Jaizkibel mendiek babesten dute itsasadarra; portuaren ahotik bi alboetara daude horiek. Portua, nagusiki, Pasaia udal barrutiaren barnean dago kokatuta, nahiz eta instalazioetako batzuk Errenteria eta Lezo udalerrietan egon (Lezo 1, Lezo 2 eta Lezo 3ko kaiak). Historikoki, arrantza eta merkataritza portu estrategikoa izan da.

Gaur egun, Pasaia Portu Agintaritzak kudeatzen du portua, eta Agintaritza hori Estatuko Portuen Sustapen Ministerioaren mendekoa da. EAEn, interes orokorreko bi portu baino ez daude, eta hauxe da bigarrena (Estatuko sailkapenean, 21. tokian dago), Bilbokoaren atzetik. Batez ere merkataritza jarduerara bideratutako portua da, nahiz eta betetzen dituen arrantza eta kirol portuaren funtzioak ere. Itsas Salbamenduko Elkartearen egoitza nagusia da. Nahiko portu txikia da, baina pisu nabarmena dauka lurraldearen ekonomian.

3) BILBOKO PORTUA.

Bilboko Portua dugu EAEko itsas portu nagusia. Nerbioi itsasadarraren bokalean dago. Kantauri itsasoko eta Estatuko iparraldeko porturik garrantzitsuenak da, hain zuzen. Bilboko Portu Agintaritzak kudeatzen du portua, eta Agintaritza hori Estatuko Portuen Sustapen Ministerioaren mendekoa da. Donostiatik 100 km ingurura dago portu hau.

Jatorrian, itsasadarraren goiko erriberan zegoen portua, Bilboko hiribilduan. Hantxe egon zen XX. mendearen 80ko hamarkadara arte. Gaur egun, Bilboko Portuak itsasadarraren beheko zatian ditu instalazio gehienak, Kanpoko Abra izenez ezaguna den horretan; hots, Santurtzi, Zierbena, Getxo, Portugalete eta Abantoko lurretan. EAEko porturik garrantzitsuenak da, eta interes orokorreko zatia jotzen da. Estatuko sailkapenean, 4. tokian dago.

2.4.1.7.- GARRAIO PUBLIKOA

1) DISTANTZIA LUZEKO TRENAK.

Ibilbide luzeko edo distantzia luzeko trenak, hain zuzen, hainbat lurralde edo hiriren artean soilik bidaiariak garraiatzen dituztenak dira. Donostian, RENFEk eskaintzen du zerbitzu hori, ALVIA eta TALGO trenekin; bai eta Madril-Donostia-Irun ibilbideak ere, Norteko edo Atotxako geltoki nagusian gelditzen direnak.

Bestalde, Abiadura Handiko Tren (AHT) berriaren ibilbidea egiten ari dira. Tren horrek Euskadiko hiru hiriburuen

arteko lotura hobetzeaz gainera, Iberiar penintsularekin eta Europako kontinentearekin komunikazioa bizkorragoa izatea ekarriko du.

Ikus 2.4.1.3.- Burdinbide Sarea atala.

2) ALDIRIKO TRENAK.

Distantzia txikiko edo aldiriko trenak, bestalde, lurralde edo hiri jakin baten barnean, edo hiritik hurbileko beste hiri edo herri batera, soilik bidaiariak garraiatzen dituztenak dira. Donostian, RENFERen aldiriko zerbitzuak zein Eusko Trenbideak (ET) enpresak eskaintzen dute zerbitzu hori.

Bi zerbitzuak hiri ingurukotzat edo metropolitartzat jo daitezke, eta bidaiarien garraio masiborako burdinbide sistemak dira biak ala biak. Hirian jarduten dute, udal barrutiko hainbat eremu edo auzo hurbileko guneekin lotzeko. Edukiera eta maiztasun handia izaten dute, gainera.

RENFERen zerbitzuak, hain zuzen, honako geltoki eta geraleku hauek ditu:

- Norteko edo Atotxako geltoki nagusia: ibilbide luzeetarako eta aldirietarako zerbitzua.
- Aldiriko geralekuak: Martutene, Loiola, Gros, Ategorrieta eta Herrera.

Bestalde, ET zerbitzuak honako geltoki eta geraleku hauek ditu:

- Easo plazako geltokia.
- Geralekuak: Errekalde, Añorga, Lugaritz, Herrera, Intxaurrondo, Loiola eta Anoeta.

Ikus 2.4.1.3.- Burdinbide Sarea atala.

3) HIRIARTEKO AUTOBUSAK.

Donostiako Tranbia Konpainiako autobusek Donostiako udal barrutira mugatzen dute euren ekintza erradioa. Hiri-ko eremu urbanizatuazabaltzeak, batetik, eta Donostialdea eskualdeko udalerriekiko komunikazio premiak hantitzeak, bestetik, eskualdeko bidaiarien garraio publikoen partzuergo bat sortzeko aukera aztertzea ekarri dute 1998. urteaz gero. Partzuergo horrek, hain zuzen, garraio publikoarekin lotutako alderdi guztiak koordinatu eta arautuko ditu, eta udal eskumenek xedatutako muga hautsiko du. Gipuzkoako hiriburua lurralde historikoko hainbat udalerriekin lotzen duten zenbait autobus linea daude: Irun-Hondarribia (Interbus), Oiartzun, Pasai Donibane (Herribus), Lasarte-Tolosa (TSST), Hernani, Andoain (Garayar), Pasai San Pedro, Hernani, Erreenteria (Areizaga).

Hala, 2005. urtean, LURRALDEBUS elkarteak sortu zuten honako hauek: Gipuzkoako Foru Aldundia, Pesa, ET, A. Areizagaren semeak, La Guipuzcoana Autobusak, Donostiako Tranbia Konpainia (Tolosa), Garayar, Herribus, hiriarteko autobusak, eta Irun-Hondarribia, Goierrialdia eta Tolosa Bus hiriko autobusak. Garraioa bateratzeko prozesu bati ekitea zen helburua, eta, horretarako, irudi komun bat, informazio sistema komun bat, txartel bakar bat eta ustiapenean laguntzeko sistema bat ezartzeko oinarriak finkatu zituzten.

Azkenik, EAEko beste udalerririk batzuetan, nabarmentzekoak dira Bilborekiko (Pesa), Gasteizetikiko (La Burundesa eta Pesa), Iruñearekiko (La Roncalesa eta La Bidasotarra) eta Logroñorekiko (La Estellesa) loturak. Donostiaren eta urrunago dauden beste autonomia erkidego batzuen (Madril, Bartzelona, etab.) arteko zerbitzua ematen duten beste linea batzuk ere egon badaude. Alabaina, Donostiari dezente kostatu zaio autobusen geltoki intermodal duin bat edukitzea (errepidea-burdinbidea). Oraintxe bertan, Atotxako autobus geltokia eraikitzen ari dira Norteko tren geltokiaren alboan.

4) HIRIKO AUTOBUSAK: DBUS.

Donostian, 1886. urtean jarri zen martxan tranbien jarduera, Antigua auzoaren eta Erreenteriarren arteko tranbia linea baten ustiapen lanaren kontzesioarekin. Kontzesio hori saldu egin zioten, gerora, DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA izenekoari, kapitalista donostiarrez osatutakoa. 1890ean, erabat osatu zen tranbiaren ibilbidea: mutur batetik Erreenteria iristen zen, eta bestetik, Bentaberrira.

Hasiera batean, zaldien indarra baliatzen zen tranbiak mugitzeko. 1897an, berriz, elektrifikazioa iritsi zen, eta ibilbide tarte berriekin osatu zen lehendik zegoen sarea. 1915. urtetik aurrera, tranbia ustiapenak krisia izan zuen, eta krisialdiak 1940eko hamarkadara arte iraun zuen. 1948. eta 1952. urteen artean, kontzesioa luzatu ondoren, Donostiako Tranbia Konpainiak trolebusak jarri zituen tranbien ordean, eta, hala, 1958an desagertu zen azken tranbia. 1960ko hamarkadaren amaieran, Donostiako Tranbia Konpainiak kontzesioaren beste luzapen bat hitzartu zuen, eta trolebusen tokian autobusak jarri zituen 1968tik 1974ra bitarte.

Gaur egun, Donostiako Tranbia Konpainia udal sozietate anonimo bat da (1981), eta DONOSTIBUSen (DBUS) bitartez, garraio publikoaren hiriko zerbitzu erregularra eskaintzen die bidaiariei. Ategorrietako kotxetegi zaharrak kendu eta eraikuntza berriko beste batzuekin ordezkatu zituen, 2003. urtean. Berriak Marrutxipin jarri zituen. Orotara, 121 autobus daude. 84 autobus 12 m luze dira; 3 autobus, 9 m luze; 26 autobus artikulatu, 18 m luze; eta 8 mikrobusak dira. Ibilgailuak etengabe berritzen dira, pixkana-pixkana, etorkizunari begira, irisgarritasuna erraztuko duen behe plataforma bat izateko ibilgailu guztietan. Gaur egun, ibilgailu guzti-guztiekin dute irisgarritasuna.

errazten duen behe plataforma hori. Zerbitzuak 27 linea ditu gaur egun, eta horien bidez, une oro lotuta daude Donostiako auzoak. Datuen arabera, Donostia da Espainiako buru hiriko autobusen erabileran; izan ere, biztanleko duen bidaia-eratioa denetan onena da.

Autobus guztiek dute Ustiatzeko Laguntza Sistema bat, GPRS komunikazioduna, une oro autobus bakoitzaren kokagunea zein den eta informazio panelak dituzten 82 geralekuetako bakoitzera iristeko falta den denbora eza-gutu ahal izateko. Autobusek, halaber, informazio sistema multimedia bat daukate. Gainera, hurrengo geltokiari buruzko oharra ematen dute, bai eta Donostiako Tranbia Konpainiari buruzko albisteak ere, informazio orokorreko eta entretenimenduko informazio kanal bat izan dadin. Bestalde, ontzidiko 72 autobus bidezaintza sistema batez daude hornituta.

Era berean, Donostiako Tranbia Konpainiak autobus eta gidari kopuruaren gaineko plangintza egiteko eta guztia optimizatzeko sistema adituak ditu, eta baita ukipen bidezko zein ukipenik gabeko autobuseko ordainketa sistemak ere. Eta honako hauek ere bai: ibilgailuen mantentze eta konponketa lanetarako instalazio moderno batzuk; eta kotxetegieta WIFI sare harigabea, autobusetan jarritako ekipoen eta txertatutako hainbat sistematako zerbitzarien arteko informazio trukea egiteko.

5) AUTO-TAXIAK.

Auto-taxien ontzidia, soil-soilik pertsona fisikoei emandako udal lizentziarekin, Radio TAXI DONOSTI eta VALLINA Grupo TeleTaxi Elkarteek osatzen dute. 24 orduko zerbitzua ematen dute urteko 365 egunetan, eta 5, 7 eta 9 plaza-ko ibilgailu ontzidi bat daukate, gama ertain zein altukoak, bai eta ezinduentzat egokitutako ibilgailuak ere.

2.4.1.8.- ELEMENTU BEREZIAK

Komunikazio eta garraio azpiegiturretara lotutako elementu berezitat jotzen dira, hain zuzen, bide korapiloak, tunelak zein biaduktuak eta zubiak. Donostiako udal barrutiak hainbat elementu berezi ditu.

1) BIDE KORAPILOAK.

Atal honetan, bide korapilotzat jotzen da zirkulazio handiko bideen bidegurutzea. Normalean, bide loturek, biaduktuak, biribilgune edo glorietek eta azpiko igarobideek edo tunelek eratutakoa izaten da.

BIDE KORAPILOAK						
	KOKAGUNEA	MOTA	BIDEAK	BIADUK-TUA	BIRIBIL-GUNEA	AZPIKO IGAROBIDEA
NAZIOARTEKO ZIRKULAZIO BIDEAK						
API-AP8/N-1/A-15						
IRUBIDEKO KORAPILOA	Txiki-erdi-Irubide	Lotura/Irteera	API-AP8/N-1/GI-11/GI-21	bai	bai	bai
ASTIGARRAGAKO KORAPILOA	Muntogorri-Okendotegi	Lotura/Irteera	API-AP8/A-15/GI-41	bai	bai	bai
HIRIARTEKO ZIRKULAZIO BIDEAK						
GI-20/GI-11/GI-21/GI-40/GI-41						
ARITZETAKO KORAPILOA	Aritzeta	Lotura	GI-20/GI-11	bai		
ZUHATZUKO KORAPILOA	Errotaburu-Zuatzu	Irteera	GI-20			bai
INFERNUKO KORAPILOA	Añorga Txiki-Infernua	Lotura/Irteera	GI-20/GI-21	bai		
AMARAKO KORAPILOA	karlos I	Irteera	GI-20	bai		bai
OSPITALEETAKO KORAPI.	Ospitaleak	Lotura/Irteera	GI-20/GI-40	bai		
LOIOLAKO ERRIK. KORAPI.	Loiolako Erribera	Irteera	GI-20	bai		
GARBERAKO KORAPILOA	Garbera	Lotura/Irteera	GI-20/GI-40	bai		bai
PASAIKO KORAPILOA	Molinao	Irteera	GI-20/GI-363	bai	bai	bai
ANTZIETAKO KORAPILOA	Antzieta	Lotura	GI-41/GI-40		bai	
ERREKALDEKO KORAPILOA	Errekalde	Lotura	GI-21/GI-2132		bai	

22) TUNELAK.

Donostiako udal barrutiak hainbat tunel ditu komunikazio eta garraio azpiegiturekin lotuta.

2.1) Hiriarteko bideetako tunelak.

TUNELA	KOKAGUNEA	BIDE MOTA	ERREPIDEA	L	HODIAK	ZIRKULAZIOA	KUDEAKETA
ERRONDO	Karlos I.a	Hiriartekoa	GI-20 1 Saihesbidea	241 m	2	Noranz. 1	GFA
AIETE	Oriamendi	Hiriartekoa	GI-20 1 Saihesbidea	256 m	2	Noranz. 1	GFA
GI-11							
A. ZAINDARIA	Belartza	Hiriartekoa	GI-11	130 m	2	Noranz. 1	GFA
GI-40							
GARBERA	Garbera	Hiriartekoa	GI-40	145 m	2	Noranz. 1	GFA
ANTZIETA	Lugañene	Hiriartekoa	GI-40	50 m	2	Noranz. 1	
TXISKUENE	Agerre	Hiriartekoa	GI-40	350 m	2	Noranz. 1	GFA
GI-41							
AMARA	Loiolako Erribera	Hiriartekoa	GI-41	520 m	1	2 noranz.	GFA
LARRAÑATEGI	Eliseo Zelaia	Hiriartekoa	GI-41	50 m	1	2 noranz.	
A-15							
BASOZABAL	Basozabal b.	Hiriartekoa	A-15	50 m	2	Noranz. 1	GFA
MUNTOGORRI 1	Muntogorri b.	Hiriartekoa	A-15	50 m	2	Noranz. 1	GFA
MUNTOGORRI 2	Muntogorri b.	Hiriartekoa	A-15	50 m	2	Noranz. 1	GFA

2.2) Burdinbideetako tunelak.

ETS/ET TUNELAK	IBILBIDEA	BIDE MOTA	LINEA	L	HODIAK	ZIRKULAZIOA	KUDEAKETA
DONOSTIA-BILBO							
IRUBIDE	Usubil-Rekalde	Hiriartekoa	DSS-Bilbao	400 m	1	2 noranz	ETS/ET
AÑORGA	Amasorrarain	Hiriartekoa	DSS-Bilbao	700 m	1	2 noranz	ETS/ET
AIETE	Lugaritz-Amara	Hiriartekoa	DSS-Bilbao	1.800 m	1	2 noranz	ETS/ET
DONOSTIA-HENDAIA							
ERRONDO	Morlans-Morlans	Hiriartekoa	Donostia-Hendaia	190 m	1	2 noranz	ETS/ET
ANOETA	Anoeta-Anoeta	Hiriartekoa	Donostia-Hendaia	300 m	1	2 noranz	ETS/ET
LA SALLE	La Salle-Loiola	Hiriartekoa	Donostia-Hendaia	75 m	1	2 noranz	ETS/ET
INTXAURRONDO	Loiola-Herrera	Hiriartekoa	Donostia-Hendaia	2.055 m	1	2 noranz	ETS/ET
OLETA	Herrera-Buenavista	Hiriartekoa	Donostia-Hendaia	500 m	1	Noranz. 1	ETS/ET
BUENAVISTA	Buenavista-Pasaia	Hiriartekoa	Donostia-Hendaia	600 m	1	Noranz. 1	ETS/ET

ADIF/RENFE TUNELAK	IBILBIDEA	BIDE MOTA	LÍNEA	L	HODIAK	ZIRKULAZIOA	KUDEAKETA
HERNANI-DONOSTIA							
ZORROAGA	Txomin-Amara	Hiriartekoa	Madril-Hendaia	300 m	1	2 noranz	ADIF/RENFE
DONOSTIA-HENDAIA							
ZUBIAURRE	Zubiaurre-Zubiaurre	Hiriartekoa	Madril-Hendaia	150 m	1	2 noranz	ADIF/RENFE
BUENAVISTA	Buenavista-Buenavista	Hiriartekoa	Madril-Hendaia	50 m	1	2 noranz	ADIF/RENFE

2.3) Hiriko tunelak.

TUNELA	KOKAGUNEA	BIDE MOTA	ERREPIDEA	L	HODIAK	ZIRKULAZIOA	KUDEAKETA
HIRIKOAK							
ANTIGUA	Miramar	Hiriko	Kontxa paseal.	100 m	2	2 noranz	Donostiako Udala
MUNTO	Meloi	Hiriko	Lugaritz paseal.	250 m	1	2 noranz	Donostiako Udala

2.4) Túneles de Vías Ciclistas o Bidegorri.

TUNELAK	KOKAGUNEA	BIDEGORRI MOTA	L	HODIAK	ZIRKULAZIOA	KUDEAKETA
BIDEGORRIA						
AIETE	Lugaritz-Morlans	Hirikoa	1.200 m	1	noranzko bikoa	Donostiako Udala
GARRO	Txaparrene	Hirikoa	125 m	1	noranzko bikoa	Donostiako Udala

3) ZUBIAK, BIADUKTUAK ETA PASABIDEAK.

Donostiako udal barrutiak hainbat gaineko igarobide ditu komunikazio eta garraio azpiegiturekin lotuta: zubiak, biaduktuak eta oinezkoentzako pasabideak.

3.1) Urumea ibaiaren gaineko zubiak.

URUMEA KO ZUBIAK	MOTA	KOKAGUNEA	ERREFERENTZIA	ZIRKULAZIO MOTA
URUMEA				
ZURRIOLAKO ZUBIA	Zubia	Bulevard-Zurriola	Zurriola	Ibilgailuak-oinezkoak
SANTA KATALINA ZUBIA	Zubia	Askatasuna-Euskadi	Hiribidea	Ibilgailuak-oinezkoak
M ^a KRISTINA ZUBIA	Zubia	Bilbo-Frantzia	Norteko geltokia	Ibilgailuak-oinezkoak
MUNDAIZKO ZUBIA	Zubia	Araba-Urumea	Araba Parkea	Ibilgailuak-oinezkoak
JOSE ANTONIO AGIRRE ZUBIA	Zubia	Pio XII.a-Urumea	Pio XII	Ibilgailuak-oinezkoak
DONOSTIAKO REALA ZUBIA	Zubia	2.Errepublika-Urumea	Burdin Zubia	Ibilgailuak-oinezkoak
MIKEL LABOA PASABIDEA	Pasabidea	Erribera-Kristinaenea	Kristinaenea	Oinezkoak
ASTIÑENE ZUBIA	Zubia	Errotaberri-Egia	Egia	Ibilgailuak-oinezkoak
GI-20 1. SAIHESBIDEA	Biaduktua	Lorategi Hiria	Saihesbidea	GI-20 Saihesbidea
ETS/ET LOIOLA	Biaduktua	Loiola	Topoa	Trenak
URDINZUKO ZUBIA	Zubia	Aralar	Kuartelak	Ibilgailuak-oinezkoak
ESPARTXOKO ZUBIA	Zubia	Kristobaldegi-Uba	Kristobaldegi	Ibilgailuak-oinezkoak
LUGAÑENEN ZUBIA	Zubia	Lugañene-Sarrueta	27 poligonoa	Ibilgailuak-oinezkoak
MARTUTENEN ZUBIA	Zubia	Martutene	Martutene	Ibilgailuak-oinezkoak
PILARE PASABIDEA	Pasabidea	Okendotegi-Pilare	Pilare	Oinezkoak

3.2) Hiriko biaduktuak, zubiak eta pasabideak

ZUBIAK/BIADUKTUAK/ PASABIDEAK			
	KOKAGUNEA	ERREFERENTZIA	ZIRKULAZIO MOTA
HIRIKO BIADUKTUAK			
MORLANSEKO BIADUKTUA	Izostegi	Antigua-Amara	Ibilgailuak-oinezkoak
IZTUETAKO BIADUKTUA	Frantzia-Atotxa	ADIF/RENFE	Ibilgailuak-oinezkoak
BIDE GAINEKOAK			
A. ZAINDARIAKO ZUBIA	Belartza-Igara	GI-20	Ibilgailuak-oinezkoak
ILLUNBEKO PASABIDEA	Illunbe-Anoeta	GI-20	Oinezkoak
BEGIRISTAINGO ZUBIA	Amara-Ospitaleak	GI-20	Ibilgailuak-oinezkoak
JULIMASENEKO PASABIDEA	Herrera-Intxaurrondo	GI-20	Oinezkoak
GARBERAKO PASABIDEA	Garbera-Altza	GI-20	Ibilgailuak-oinezkoak
LAUAIZETAKO ZUBIA	Altza-Lauhaizeta	GI-20	Ibilgailuak-oinezkoak
SAN MARKOSKO ZUBIA	Errenteria-San Markos	GI-20	Ibilgailuak-oinezkoak

ZUBIAK/BIADUKTUAK/ PASABIDEAK			
	KOKAGUNEA	ERREFERENTZIA	ZIRKULAZIO MOTA
HIPIKAKO ZUBIA	Hipika-Loiola	GI-40	Ibilgailuak-oinezkoak
UBAKO ZUBIA	Uba	GI-40	Ibilgailuak-oinezkoak
BURDINBIDE GAINEKOAK			
ERREKALDEKO PASABIDEA	Errekalde	ETS/ET	Oinezkoak
ERRONDOKO PASABIDEA	Errondo	ETS/ET	Oinezkoak
OKENDOTEGIKO ZUBIA	Okendotegi	ADIF/RENFE	Ibilgailuak-oinezkoak
LARRAÑATEGIKO ZUBIA	Larrañategi	ADIF/RENFE	Ibilgailuak-oinezkoak
G. ORDOÑEZKO ZUBIA	Loiolako Erribera	ADIF/RENFE	Ibilgailuak-oinezkoak
MUNDAIZKO ZUBIA	Mundaiz	ADIF/RENFE	Ibilgailuak-oinezkoak
G. DEL ESTALEKO PASABIDEA	Mundaiz	ADIF/RENFE	Oinezkoak
IZTUETAKO BIADUKTUA	Kalkutako Teresa	ADIF/RENFE	Ibilgailuak-oinezkoak
TXAPARRENEKO PASABIDEA	Txaparrene	ADIF/RENFE	Oinezkoak
GARROKO ZUBIA	Garro	ADIF/RENFE	Ibilgailuak-oinezkoak

4) IBILBIDE ETA ELEMENTU BEREZIAK.

4.1) Hiriarteko bideen ibilbidea.

BIDEEN IBILBIDEA				
ELEMENTU BEREZIAK				
	ZK.	MOTA	KOKAGUNEA	ZIRKULAZIO MOTA
GI-20 SAIHESBIDEA				
GI-11 LOTURAKO KORAPILOA	1	Lotura	Aritzeta	Hiriartekoa
AÑORGA-IBAETAKO IGAROBIDEA	2	Gaineko igarobidea	Aingeru Zaindaria	Landakoa
MENDEBALDEKO IRTEERA (IBAETA)	3	Irteera	Errotaburu-Zuhatzu	Hiriartekoa
ZUHATZUKO IGAROBIDEA	4	Azpiko igarobidea	Zuhatzu	Hirikoa
INFERNUKO IGAROBIDEA	5	Azpiko igarobidea	Infernua	Hirikoa
GI-21 LOTURAKO KORAPILOA	6	Lotura	Añorga Txiki-Infernua	Hiriartekoa
AIETEKO TUNELA	7	Tunela	Oriamendi	Hiriartekoa
ERDIALDEKO IRTEERA (AMARA)	8	Irteera	Karlos I.a	Hiriartekoa
ERRONDOKO TUNELA	9	Tunela	Errondo	Hiriartekoa
ERRONDOKO BIADUKTUA	10	Biaduktua	Karlos I.a	Hiriartekoa
GI-40 LOTURAKO KORAPILOA	11	Lotura-biaduktua	Ospitaleak	Hiriartekoa
ILLUNBEKO PASABIDEA	12	Gaineko igarobidea	Illunbe	Oinezkoak
BEGIRISTAINGO IGAROBIDEA	13	Gaineko igarobidea	Ospitaleak	Hirikoa
ZORROAGAKO TUNELA	14	Tunela	Zorroaga	Hiriartekoa
RENFE ETA GI-41EKO IGAROBIDEA	15	Azpiko igarobidea	Zorroaga	Hiriartekoa
LOIOLAKO ERRIB. KORAPILOA	16	Irteera	Loiolako Erribera	Hiriartekoa
URUMEAKO BIADUKTUA	17	Biaduktua	Lorategi Hiria (Loiola)	Hiriartekoa
POLLOEKO TUNELA	18	Tunela	Polloeko hilerria	Hiriartekoa
INTXAURRONDOKO TUNELA	19	Tunela	Intxaurren N-S	Hiriartekoa
GI-40 LOTURAKO KORAPILOA, EKIALDEKO IRTEERA (HERRERA)	20	Lotura	Garbera	Hiriartekoa

BIDEEN IBILBIDEA

ELEMENTU BEREZIAK

	ZK.	MOTA	KOKAGUNEA	ZIRKULAZIO MOTA
JULIMASENEKO PASABIDEA	21	Gaineko igarobidea	Herrera-Miracruz	Oinezkoak
GARBERAKO PASABIDEA	22	Gaineko igarobidea	Txingurri-Garbera	Oinezkoak
LAUAIZETAKO IGAROBIDEA	23	Gaineko igarobidea	Garbera	Hirikoa
ARTXIPIKO IGAROBIDEA	24	Azpiko igarobidea	Artxipi	Hirikoa
PASAIKO IRTEERA	25	Irteera	Molinao	Hiriartekoa
SAN MARKOSKO IGAROBIDEA	26	Gaineko igarobidea	San Markos	Hirikoa-Landakoa
GI-11				
AP1-AP8/N-1 LOTURAKO KORAPILOA	1	Lotura	Irubide	Hiriartekoa
AINGERU ZAINDARIAKO TUNELA	2	Tunela	Aingeru Zaindaria	Hiriartekoa
GI-20 LOTURAKO KORAPILOA	3	Lotura	Aritzeta	Hiriartekoa
GI-21				
AP1-AP8/N-1 LOTURAKO KORAPILOA	1	Lotura	Irubide	Hiriartekoa
GI-2132 LOTURAKO GLORIETA	2	Lotura	Aingeru Zaindaria	Hiriartekoa
AÑORGA TXIKIKO GLORIETA	3	Lotura	Errotaburu-Zuhatzu	Hiriartekoa
GI-20 LOTURAKO KORAPILOA	4	Lotura	Zuhatzu	Hirikoa
GI-40				
GI-20 LOTURAKO KORAPILOA	1	Lotura	Anoeta	Hiriartekoa
OSPITALEETARAKO LOTURAKO KORAPILOA	2	Lotura	Miramon	Hiriartekoa
OSPITALEETAKO GLORIETA	3	Glorieta	Begiristain	Hirikoa
TXISKUENEKO TUNELA	4	Tunela	Zorroaga	Hiriartekoa
HIPIKAKO IGAROBIDEA	5	Azpiko igarobidea	Hipika	Hirikoa
HIPIKAKO IGAROBIDEA	6	Gaineko igarobidea	Hipika	Hirikoa
ANTZIETAKO GLORIETA	7	Glorieta	Antzieta	Hiriartekoa
ANTZIETAKO IGAROBIDEA	8	Azpiko igarobidea	Antzieta	Hiriartekoa
SARRUETAKO GLORIETA	9	Glorieta	27 poligonoa	Hiriartekoa
UBAKO IGAROBIDEA	10	Gaineko igarobidea	Uba	Landakoa
GARBERAKO TUNELA	11	Tunela	Garbera	Hiriartekoa
GARBERAKO GLORIETA	12	Glorieta	Garbera	Hiriartekoa
GI-20 LOTURAKO KORAPILOA	13	Lotura	Garbera	Hiriartekoa
AP1-AP8				
AP1-AP8/N-1 KORAPILOA	1	Lotura	Irubide	Hiriartekoa
AP1-AP8/A-15/GI-41 KORAPILOA	2	Lotura	Astigarraga	Hiriartekoa
URUMEAKO BIADUKTUA	3	Biaduktua	Gartziategi Meandroa	Hiriartekoa
GI-41				
AP1-AP8/A-15/GI-41 KORAPILOA	1	Lotura	Astigarraga	Hiriartekoa
ASTIGARRAGAKO GLORIETA	2	Glorieta	Astigarraga	Hiriartekoa
LARRAÑATEGIKO TUNELA	3	Tunela	Eliseo Zelaiak	Hiriartekoa
ANTZIETAKO GLORIETA	4	Glorieta	Antzieta	Hiriartekoa
HIPIKAKO IGAROBIDEA	5	Gaineko igarobidea	Hipika	Hirikoa

BIDEEN IBILBIDEA				
ELEMENTU BEREZIAK				
	ZK.	MOTA	KOKAGUNEA	ZIRKULAZIO MOTA
ZORROAGAKO TUNELA	6	Tunela	Loiolako Erribera	Hirikoa
2. ERREPUBLIKAKO GLORIETA	7	Glorieta	Loiolako Erribera	Hirikoa
A-15				
MUNTOGORRIKO TUNELA	1	Tunela	Muntogorri	Hiriartekoa
MUNTOGORRIKO BIADUKTUA	2	Biaduktua	Muntogorri	Hiriartekoa
BASOZABAL 1EKO TUNELA	3	Tunela	Basozabal	Hiriartekoa
BASOZABAL 2KO TUNELA	4	Tunela	Basozabal	Hiriartekoa
AP1-AP8/A-15/GI-41 KORAPILOA	5	Lotura	Astigarraga	Hiriartekoa

4.2) Trazado ferroviario.

BURDINBIDEEN IBILBIDEA			
ELEMENTU BEREZIAK			
	ZK.	MOTA	KOKAGUNEA
ETS/ET			
IRUBIDEKO TUNELA	1	Tunela	Irubide
ERREKALDEKO GELTOKIA	2	Geltokia	Errekalde
ERREKALDEKO PASABIDEA	3	Pasabidea	Errotaburu-Zuhatzu
AÑORGA KO TUNELA	4	Tunela	Añorga
AÑORGA TXIKIKO BIADUKTUA	5	Biaduktua	Añorga Txiki
AÑORGA TXIKIKO IGAROBIDEA	6	Azpiko igarobidea	Añorga Txiki
AÑORGA TXIKIKO GELTOKIA	7	Geltokia	Añorga Txiki
GI-20 SAIHESBIDEA	8	Azpiko igarobidea	Añorga-Infernua
LUGARITZEKO GELTOKIA	9	Geltokia	Lugaritz
AIETAKO TUNELA	10	Tunela	Aiete
EASOKO GELTOKIA	11	Amaierako geltokia	Erdialdea
ERRONDOKO PASABIDEA	12	Gaineko igarobidea	Errondo-Autonomia
ERRONDOKO TUNELA	13	Tunela	Morlans
ERRONDOKO IGAROBIDEA	14	Zubia	Errondo-Amara Gaina
GI-20 SAIHESBIDEKO BIADUKTUA	15	Biaduktua	Karlos I.a
ANOETAKO TUNELA	16	Tunela	Anoeta
ANOETAKO GELTOKIA	17	Geltokia	Anoeta
GI-20 SAIHESBIDEKO BIADUKTUA	18	Biaduktua	La Salle
LA SALLEKO TUNELA	19	Tunela	La Salle
LOIOLAKO BIADUKTUA	20	Biaduktua	Loiola
LOIOLAKO GELTOKIA	21	Geltokia	Loiola
URUMEAKO BIADUKTUA	22	Biaduktua	Urumea
INTXAURRONDOKO TUNELA	23	Loiola-Herrera	Intxaurrondo
INTXAURRONDOKO GELTOKIA	24	Geltokia	Intxaurrondo
HERRERAKO GELTOKIA	25	Geltokia	Herrera
OLETAKO TUNELA	26	Tunela	Oleta
BUENAVISTAKO TUNELA	26	Tunela	Buenavista
ADIF/RENFE			

BURDINBIDEEN IBILBIDEA

ELEMENTU BEREZIAK

	ZK.	MOTA	KOKAGUNEA
OKENDOTEGIKO TRENBIDEKO IGAROBIDEA	1	Trenbide igarobidea	Ergobia-Okendotegi
AP1-AP8 BIADUKTUKO IGAROBIDEA	2	Biaduktua	Gartziategi Meandroa
OKENDOTEGIKO ZUBIKO IGAROBIDEA	3	Zubia	Okendotegi
ZUHATZUKO BIADUKTUKO IGAROBIDEA	4	Biaduktua	Astigarra
BARKAIZTEGIKO TRENBIDEKO IGAROBIDEA	5	Trenbide igarobidea	Barkaiztegi
LARRAÑATEGIKO ZUBIKO IGAROBIDEA	6	Zubia	Larrañategi
MARTUTENENKO GELTOKIA	7	Geltokia	Martutene
GI-40 TUNELEKO IGAROBIDEA	8	Tunela	Antzieta
LOIOLAKO GELTOKIA	9	Geltokia	Txomin
ZORROAGAKO TUNELA	10	Tunela	Zorroaga
G. ORDOÑEZKO BIADUKTUKO IGAROBIDEA	11	Biaduktua	Loiolako Erribera
BIZKAIKO BIADUKTUKO IGAROBIDEA	12	Biaduktua	Loiolako Erribera
URUMEAKO ZUBIA	13	Zubia	Urumea
MUNDAIZKO ZUBIKO IGAROBIDEA	14	Zubia	Mundaiz
G. DEL ESTALEKO PASABIDEA	15	Pasabidea	Mundaiz
EGIAKO AZPIKO IGAROBIDEA	16	Azpiko igarobidea	Egia-Tabakalera
ATOTXAKO GELTOKIA	17	Geltokia	Atotxa
KALKUTAKO TERESAKO BIADUKTUA	18	Biaduktua	Gros-Egia
IZTUETAKO BIADUKTUKO IGAROBIDEA	19	Biaduktua	Gros-Egia
MISERIKORDIAKO AZPIKO IGAROBIDEA	20	Azpiko igarobidea	Groseko geltokia
GROSEKO GELTOKIA	21	Geltokia	Gros
JAIALAIKO AZPIKO IGAROBIDEA	22	Azpiko igarobidea	Jaialai
ZUBIAURREKO AZPIKO IGAROBIDEAK	23	Azpiko igarobideak	Zubiaurre
ATEGORRIETAKO GELTOKIA	24	Geltokia	Ategorrieta
TXAPARRENEKO PASABIDEA	25	Pasabidea	Txaparrene
INTXAURRONDOKO TUNELA	26	Tunela	Intxaurre
INTXAURRONDOKO GELTOKIA	27	Geltokia	Intxaurre
GARROKO ZUBIKO IGAROBIDEA	28	Zubia	Garro - L. Pradera
HERRERAKO BIADUKTUA	29	Biaduktua	Herrera
HERRERAKO GELTOKIA	30	Geltokia	Herrera
BUENAVISTAKO TUNELA	31	Tunela	Buenavista
IGELDOKO FUNIKULARRA			
FUNIKULARREKO GELTOKIA	1	Geltokia	Funikular plaza
BIDEAK ERDIBITZEA	2	Bide bikoitza	Igeldo
FUNIKULARREKO GELTOKIA	3	Geltokia	Igeldo mendiko parkea

2.4.2.- HIRI ZERBITZUEN AZPIEGITURAK

2.4.2.1.- UR HORNIDURA

1) AÑARBEKO UREN SAREA (AUSA).

Añarbe Ibaiaren Urtegiko Uren Udal Mankomunitatea 1968an sortu zen, eta bertan daude bilduta Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Urnieta, Usurbil eta Astigarraga udalerriak; guztira, 300.000tik gora biztanle. Mankomunitatearen helburua beti izan da edateko uraren goi hornidurako zerbitzua eskaintzea eta dagokion eremuan hondakin urak saneatu eta araztea.

1995. urteaz gero, AÑARBEKO URAK SA (AUSA) sozietate publikoa arduratzen da mankomunitatea kudeatzeaz. Sozietate hori da, hain zuzen, mankomunitate osoaren jabea.

Donostia urez hornitzeko azpiegitura, eskualdeko berbera, Añarbeko Presan hasten da: 44 Hm-ko ahalmena dauka eta Añarbe ibaiaren (Urumea ibaiaren adarra) bokaletik gertu dago, Aiako Harria Parke Naturalaren barnean kokatuta. Presaren alboan dagoen Arranbideko Ur Gordina Ponpatzeko Estaziotik (UGPE) igaro ostean harrapatutako urak eskualdera zabaltzen dira BEHEKO KANAL izeneko kanal baten bitartez. Kanalak 15 km-ko luzera du, eta Petritegiko Edateko Urak Tratatzeko Estazioan (EUTE) husten ditu urak. Estazio hori Astigarraga udalerrian dago, eta 2.200 l/s tratatzeko ahalmena dauka. Petritegiko estazio horretatik lau adar sortzen dira, eta horiek Añarbeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan banatzen dute ura. Lau adar horietako hiru goi presiokoak dira; eta bat, behe presiokoa. Hauek dira adarrak:

1.1) I. adarra.

I. ADARRAK soilik hiriaren Erdialdea hornitzen du edateko urez. Adar horren hasieran, 1.200 mm-ko diametroko hodi bat dago, Antondegiko mendebaldeko mazelan. Hodi hori bitan banatzen da gero: bata 400 mm-ko diametrokoa, Martuteneko Edateko Ur Banaketarako Biltegia (EUBB) hornitzen duena, +69,00 kotan dagoena; eta bestea, 1.000 mm-ko diametrokoa, Amarako Edateko Ura Ponpatzeko Estazioa (EUPe) eta Edateko Ur Banaketarako Biltegia (EUBB) hornitzen dituen, +69,40 kotan. Amarako Biltegitik bi hoditeria ateratzen dira: +136,50 kotan dagoen Oriaventako EUBB hornitzen duen ponpaketa da bata, eta bestea, 700 mm-ko diametrokoa ia ibilbide osoan zehar, azkeneko zatian izan ezik (han 600 mm-koa da), Matiako EUBB hornitzen duena, +64,00 kotan.

1.2) II. adarra.

II. ADARRAK, Mankomunitatearen ekialdera dauden udalerriak edateko urez hornitzeaz gainera, Donostiako ekialdeko eremua ere hornitzen du edateko urez. Adar hori iparralderantz bideratzen da, Monseko Edateko Ura Adarkatzeko Estazioraino (EUAe), eta hortik hiru hoditeria ateratzen dira. Lehenengoak 500 mm-ko diametroa dauka, ipar-mendebalderantz doa, Monseko EUBBra, +49,80 kotan. Bigarrena, berriz, iparralderantz doa, Artxipiko EUPEra, eta hortik, Pasai San Pedroko Kanpintxoko EUBBra. Hirugarrena, azkenik, ekialderantz doa, norabide horretan dauden udalerrietara.

1.3) III. adarra.

III. ADAR honek, 600-800 mm arteko diametroko hoditeria baten bidez, edateko ura ematen die, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Lasarte-Oria eta Usurbil udalerriei gainera, baita Donostiako hego-mendebaldeko murturrean dauden eremuei eta Zubieta enklabeari ere. Adar hori hegoalderantz abiatzen da, eta Astigarraga udalerria igaro ostean, bi hoditeriatan banatzen da. Bi hoditeria horietatik lehenengoak hegoalderantz jarraitzen du, Hernani eta Urnieta udalerrietarantz; bigarrenak, berriz, mendebalderantz, Galarretako EUPEra. Hortik mendebalderantz jotzen du, eta beste bi hoditeriatan banatzen da. Lehenengo ipar-mendebalderantz doa, Errekaldeko EUPEra, eta hortik, Belartzako EUBBra. Bestea, berriz, mendebalderantz, Usurbilgo EUPEra eta Larbaingo EUBBra. Lehenengoak edateko urez hornitzen du Donostiako mendebaldea; bigarrenak, aldiz, Zubieta enklabea.

1.4) IV. adarra.

IV. ADAR honek ponpaketa bidez darama ura San Markosko EUBBra, izen bereko mendian dagoena. Azkenik, Putzuetako EUBB zeharkatu ostean, +129,00 kotan, Albringo EUBBra eta EUPEra, Sabara I eta II-ko EUPEra eta Sabarako EUBBa.

Gainera, badira bigarren mailako biltegi batzuk ere, Donostiako hainbat eremu urez hornitzeko baliagarriak. Biltegi horiek, hain justu, Belartza, Oriaventa eta Putzuetako gainetatik hornitzen dira, edo bestela, ponpaketa bidez. Bigarren mailako biltegi horien artean ditugu Bidebietakoa, Uliakoa, Urgullekoa, Olaraingoa, Arriolakoa, Txalingoa eta Igeldokoa.

2) AÑARBEKO PRESA.

Añarbetik Donostiara lehen aldiz ura eramateko lanak 1896. urtean hasi zituzten. Gerora, hainbat hartune egin ziren Artikutza Etxaldean, eta urtegi txiki bat eraiki zuten (1958-1960), hiria edateko urez hornitzeko. Eskualdeko biztanleria kopuruak gora egin zuenean, handitu egin zen ur kontsumoa ere. Hala, beharrezkoa izan zen Donostiatik hurbil dauden udalerriak batzea, arazoari mankomunitate gisa erantzun ahal izateko. Horretarako, AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEA izeneko elkarte sortu zen 1968an. Bertan parte hartzen duten udalerriak hornitzeko, bereziki AÑARBEKO URTEGIA (1975) erabiltzen da. Presa dagoen tokian Urumeari sortzen zaion ibaia-

darretik hartu zuen izena. Urtegi horrek 65,5 m-ko garaiera dauka eta itsas mailatik gora 160 m-ko kotan dago kokatuta. 100 km²-ko arro batetik biltzen ditu urak. 43,7 Hm³-ko edukiera dauka, nahiz eta ez dagoen baimenduta erabat betetzea, gehiegizko euria eginez gero arroa erregulatuko dela bermatu ahal izateko. 1990. urtean amaitu zituzten Añarbeko Uren Mankomunitateko araztegia egiteko lanak, Txoritokietan. Lan horri esker, ia Donostialdea eskualde osoak ur garbia edukitzea lortu zen.

Urtegia mugaldean dago, Gipuzkoa eta Nafarroa artean, bai eta hainbat udal barrutiren artean ere: Errenteria, Oiartzun, Donostiako Urdaburu enklabea eta Arano. Gipuzkoak Nafarroarekin duen ipar-ekialdeko muga auke-ratu zuten Añarbeko, Artikutzako, San Antongo... urtegiak egiteko, klima berezia izaten baita hor. Gune horretan prezipitazio handiak izaten dira, urtean 2.000 mm-tik gorakoak (batez bestean, 2.700 mm). Hala, horixe da Iberiar penintsulako gunerik euritsuenetako bat. Ozeanoko haize hezeak gune horretara bideratzen dira, Kantauriar mendikatearen eta Pirinioen aurka jo ondoren. Bestalde, Mediterraneoaren mendebaldea eremu ziklogenetikotzat jo izan da tradizioan; hots, behe presioen sortzailatzat. Era horretan, hezetasunez betetako masa antiziklonikoak Ebroren ibarrerantz joaten dira, gune horretatik igarota. Eta masa horiek ur kantitate handia botatzen dute eremu horretan.

Gune horretan guztian biltzen diren urak kalitate handikoak dira; batetik, eta batez ere, ez dutelako inolako substantzia kutsatzailerik, eta, bestetik, urek berezkoa duten gogortasun maila txikiagatik. Gogortasun maila txikia izaten da, zehazki, urak gatz gutxiko arroka silizeoen artean garbitzen eta igarotzen direlako; hala nola igeltsuetan edo karbonatoetan.

Gaur egun, Añarbeko Uren Mankomunitateak kudeatzen du Añarbeko presa. Kudeaketarako haren entitate publikoa Añarbeko Urak SA da, Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Urnieta, Usurbil eta Astigarraga udalerririk (orotara, 300.000 biztanle baino gehiago) urez hornitzeko eta ur horiek garbitzeko zerbitzuak eskaintzeko helburua duena.

3) ARTIKUTZAKO PRESA.

XX. mendearen hasieran, *Belle Époque* garaian, Donostiaren hazkunde erritmoa izugarria izan zen, eta are gehiago udan. Hiririk hurbil zeuden putzuak eta iturburuak ez ziren nahikoak hiria hornitzeko. Horregatik, irtenbide berriak aztertzen hasi ziren. Urumea ibaiako uretan gora hasi ziren bila, eta Añarbe ibaian, Artikutzarekiko mugan, presa txiki bat eraiki zuten. Negoziazio zailetan ibili ondoren, 1919an, udalak 3.700 Ha-ko Artikutza Etxaldea esku-ratu zuen, eta hoditeria eta kanal sare handi bat eraiki zuen, iturburu guztietako urari etekina ateratzeko. Gainera, ura kutsatzeko modukoak ziren jarduera guztiak galarazi zituen: baso ustiapenak, meatzaritza ustiapenak, azien-dak izatea... Pertsonaie ere sarbidea ukatu zitzaion, eta etxaldean sakabanatuta zeuden baserriak hutsarazi (Elama, Goizarin, Egazki, etab.), eta biztanle guztiak Artikutza auzora lekualdatu zituzten.

1950-1960 artean, ARTIKUTZAKO PRESA eraiki zuten. Arazo geologikoak zirela tarteko, ezin izan zuten amaitu, eta haren edukiera hasieran pentsatutakoaren erdiaren adinakoa baino ez zen izan. Horma bular batean zeuden iragazketa arazoengatik, berriz murriztu behar izan zuten haren edukiera. Hala, beharrezkoa izan zen beste urtegi bat eraikitzea. Añarben egin zuten, eta 1975ean jarri zen martxan. Donostialdea eskualde osoa hornitzen zuen, eta horrenbestez, hiriri zuzenean eman beharreko hornidurarik gabe geratu zen Artikutzako urtegia. Gaur egun, Artikutzako ura Añarbera iristen da, bere ibilgu naturalekin. Eta alde batera utzi behar izan da garai batean diseinatu-tako kanalen sarea. Añarben biltzen den uraren % 90 Artikutzatik iritsitakoa da. Artikutza Etxaldeak klima berezia dauka, Añarbeko Presari buruzko aurreko atalean adierazi bezalaxe.

Etxalde hori Artikutza herrixkan dago. Artikutzan baserriak, San Agustin izeneko basiliza edo kapera bat eta erro-ta hidraulikoen egitura ugari daude. Elamako burdinola zahar baten inguruan dago antolatuta herrixka. 1936an, Oiartzundik datorren errepidea eraiki zen, Bianditzeko muinoraino iristen dena, eta handik herrixkaraino. Bestalde, bada baso pista bat ere, eremu hori Goizuetarekin lotzen duena. Meatzaritza burdinbide bat ere izan zen bere garaian (1898-1917), 18 km-ko luzera eta 60 cm-ko zabalera zuen bidea zituena. Etxaldea Errenteriarekin lotzen zuen.

4) UDAL UR SAREA.

Hiriak edateko uraren udal biltegi ugari ditu, iraganean hiriko auzo guztiak urez hornitzeko baliagarriak izan zirenak. Horietako asko eta asko zerbitzuz kanpo (ZK) daude gaur egun, baina guztiak zerrendatuko ditugu, auzoen edo eremuen arabera:

- Igeldo: Txalin, Kalbariomendi edo Igeldo herria, Gudamendi eta Igeldoko itsasargia (ZK).
- Ibaeta: Arriola, Goienetxe (partikularra), Olaraingo ponpaketa, Berio eta Illarraberriko emari neurgailua-erreduktorea (Igara).
- Añorga: Aingeru Zaindaria (ZK), Errekaldeko presio gailua (ZK), Karmengo Ama (ZK).
- Aiete: Añorga (ZK), Cementos Rezola eta Oriamendi pasealekuko ponpaketa.
- Miramon-Zorroaga: Poliklinika eta Basozabalgo presio gailua.
- Urgull: Urgull eta Urgulleko ponpaketa.
- Uliá: Uliá (Mendiola), Uliako ponpaketa, Soroborda (ZK), Buskandoko ur biltegia (ZK), Labeas Azpiko presio gailua, Bidebietako emari neurgailua.
- Zubieta: Zubieta, Garraio Zentroa eta Garraio Zentroko ponpaketa.

2.4.2.2.- HONDAKIN UREN ARAZKETA, HUSTUKETA ETA ESTOLDERIA

Añarbe Ibaiaren Urtegiko Uren Udal Mankomunitatea 1968an sortu zen, eta bertan daude bilduta Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Urnieta, Usurbil eta Astigarraga udalerriak; guztira, 300.000tik gora biztanle. Mankomunitatearen helburua zen edateko uraren goi hornidurako zerbitzua eskaintzea eta dagokion eremuan hondakin urak saneatu eta araztea.

1995. urteaz gero, AÑARBEKO URAK SA (AUSA) sozietate publikoa arduratzen da mankomunitatea kudeatzeaz. Sozietate hori da, hain zuzen, mankomunitate osoaren jabea.

Donostiako saneamendu sarea bi zatitan banatuta dago. Bata AÑARBEKO URAK SAK kudeatzen du, eta hiriko zein Donostialdea eskualdeko zati garrantzitsu bateko hondakin uren garraioaz eta arazketaz arduratzen da. Bigarren zatia, berriz, hiriko udal saneamendu sareari dagokio. Sare horiek honako oinarritzko ezaugarri hauek dituzte:

1) UDAL SAREA.

Hiriko eta egonkortutako auzoetako isurien bilketaz arduratzen da. Oro har, ale bakarrekoa da, eta sare berean biltzen ditu ur fekalak eta euri urak. Aipatutako sare hori gehiegi bete ez dadin, sarean zehar hainbat isurbide tartekatzen dira, euri jasa gogorretan izaten diren ur bolumen izugarriak hustu ahal izateko.

Bada denbora bat bereizitako sareak ezartzen direla hirigintza garapen berrietan. Horri esker, Hondakin Uren Araztegieta tratatu beharreko ur bolumena murrizteaz gainera, euri urak zuzenean isur daitezke, eta horrek nabarmen arintzen ditu hainbat sare. Sareak grabitate bidez funtzionatzen du, gune bereziren batean izan ezik, non ponpaketa baliatzen den. Udal barrutian honako arro hauek bereizten dira:

1.1) Igeldoko arroa.

Duela gutxira arte, eremu honetako saneamendua eraikinekin zerikusia duten hobi septikoeekin lotzen zen, eremuan dagoen eraikuntza barreiatua dela tarteko. Berriki, hodi biltzaile bat eraiki dute, ur guztiak bil ditzan eta Tximistarriko Hondakin Uren Ponpaketa Estaziora (HUPE) bidera ditzan, kilometro eskaseko bulkadaren ondoren. Sareak kutxatila bat dauka Kristobal Balentziaga pasealekuaren goiko zatitik hurbil. Zati horretatik aurrera, Ibaetako sarera batzen da, 300 mm-ko diametroko hodi baten bidez.

1.2) Ibaetako arroa.

Ibaetako behe ibarrean sortutako isuriak biltzen ditu, goiko zatiko Belartzatik, Amasoraindik, Errekaldetik, Añorgatik, etab. Eta behearantz, beheko guneetaraino: Lugaritz, Bentaberri eta Matiaraino, eskuinetik, eta Errotaburu, Igara eta Berioraino, ezkerretik. Behe ibar honen saneamendua ez dago erabat berezia, baina bai hein handi batean. Tolosa hiribidean bi hodi bilatzaile daude: Ibaeta erreken alde bakoitzean bana, eta euri urak erreka hori bideratzen duen estoldatik doaz.

Ur fekalen biltzaileek Ondarreta inguruan dagoen Ibaetako HUPEra bideratzen dituzte ur horiek. Bertan, isurbide bat dago, eta hortik desbideratzen da gehiegizko ur emaria, uholde uren eraginezkoa, Tximistarri tunelera, hortik ematen baitzaio itsasorako irteera Ibaeta erreken bideratzeari. Ibaetako kolektorea 6 x 4 metrokoa da, eta hodi horrek biltzen ditu Añorga errekatik datozen urak. Erreka hori nahiko hodiratuta joaten da Belartzatik. Era berean, Errotaburu eta Igarako behe ibarretako urak jasotzen ditu ezkerretik, eta Bera-Bera zein Lugaritze-koak, eskuinetik.

1.3) Santa Katalinako arroa.

Urumea ibaiaren ezkerreko ertzean, Santa Katalina zubiaren alboan, HUPE bat dago. Bertara iristen dira, hain zuzen, arestian aipatutako Ibaetako HUPEn ponpatzen diren ur fekalak, bai eta Parte Zaharrean, Portuan, Mirakontxan, Erdialdean eta Amazarharren sortutakoak ere. Amazarberri eremutik zuzenean isurtzen dira urak kolektorera, zeinek Santa Katalinako bulkadaren ondoren Hipikako Araztegiaraino bideratzen dituen ur fekalak.

Nahiko lurralde laua denez, eta kota txikikoa, euri urak hustea da arroak duen arazorik handiena. Era honetako saneamenduetan tarte batzuk maiz zamatzen dira. Hori berez ez da txarra, baldin eta sarea horretarako prestatuta badago.

"Añarbeko Saneamendu Eskema Orokorra" amaitzeko dago oraindik arro honetan; hots, Bizkaia pasealekuaren azpiko Loiolako Hondakin Uren Araztegiko (HUA) Santa Katalina kolektorearen luzapena, Santa Katalinako HUPetik Azpeitia kalera bitarte, Erdialdeko eta Parte Zaharreko eremuko saneamendua hobetuz eta auzo horietatik datozen ur emarien gaur egungo ponpaketa desagerraraziz, arestian aipatutako Loiolako HUA Santa Katalina kolektorean txertatzeko. Jardun honen bidez, ezeztatu egingo da Zurriolako kolektore zaharra (Azpeitia kalea-Santa Katalinako HUPE zatia).

Kolektore berria betoi armatuz egingo da. 1.600 mm-ko diametroa izango du, eta logikoki, hodiak iltzatuta egingo da. Ingurune horretan dago Morlans erreka, hodiratuta doana eta zeharkatzen duen eremuko euri urak jasotzen dituen.

1.4) Saguesko arroa.

Gros, Egia, Ipar Intxaurrondo eta Ategorrieta auzoetatik zein Ulia mendiaren hego mazelatik datorren ura isurtzen den arroa da. Euri urak husteak aurreko arroan deskribatutako arazo berbera dakar beheko eremuetan. Maldarik ez dagoenez, ezinezkoa da beharrezkoa den huste ahalmena izatea, eta euri gogorrak eginez gero, arazoak sortzen dira. Arazo hori konpontzeko, ekaitzetarako andelak daude. Sobera dagoen ur emaria arintzeko, urari eutsi egiten diote eta xaflatu egiten dute, sarearen beheko zatian hainbesteko eragina izan ez dezan. Andel horien artean, nabarmentzekoak dira Mandasko Dukearen pasealekuan dagoena eta Marrutxipi-ko bikoitza. Azken horrek sobera duen ur guztia Urumea ibaira isurtzen du zuzenean, tunel barneko hoditeria baten bitartez, saihezbideko tunelen parean.

1.5) Txingurriko arroa.

Arro honetako kolektoreak Hego Intxaurrondo, Garbera, Miracruz Gaina, Bidebieta-La Paz eta Altza eremuetatik datozen urak hartzen ditu. Ur horiek Loiolako HUArekin lotzeko tunela hasten den tokiraino eramaten ditu, Herrerako kaitik hurbil. Oro har, Altzan eta Intxaurrondon berriki egindako garapenak izan ezik, sarea ale bakarrekoa da, eta arro hau eremu laurik gabeko mazeletan ibiltzen denez beheko zatian, ia ez dago aurreko arroetan aipatutako arazorik.

Herrerako HUPera iristen dira Trintxerpeko eta Pasai San Pedroko kolektoreko urak, hasieran 600 mm-ko diametrokoa eta amaieran 800 mm-koa den kolektore baten bitartez, bai eta Pasaia badiako kostaldeko hodi biltzailearen bitartez ere, betoi armatuz egindakoa eta 1.300 mm-ko diametroa duena. Euri jasa handiek eragindako gehiegizko ura ponpatu egiten da, eta kostara bideratzen da tuneletik. Tunal hori, bere garaian, baliagarria izan zen Molinao, Erreterria eta Oiartzungo urak bideratzeko. Ur fekal horiek, gaur egun, Herrerako HUPEn ponpatzen dira, eta Herreratik ura Loiolako HUAra eramaten dituen tuneleko kolektoretik kanalizatzen dira.

1.6) Urumeako kolektoreko arroa.

Kolektore hori Astigarragatik eta Hernanitik dator, Urumea ibaiaren ezkerreko ertzetik. Udalerrian sartu bezain pronto, Ergobia eta Martutene auzoetako hondakin urak jasotzen ditu.

Arro honetako bigarren kolektoreak, berriz, ADIFeko burdinbidearen eta Urumea ibaiaren arteko eremuetako ur hondakinak biltzen ditu. GI-131 errepidearekiko (Andoaindik Donostiara doa, Hernanitik) nahiko paraleloan doa, bide honek Urumea ibaia gurutzatzen duen zubitik. Hainbat eremutako adarrak ere kolektorera ponpatzen dira, Pilareko, Portutxoko, Torrua Zaharreko, Txomin Eneako, Kuarteletako eta Loiolako HUPEen bitartez.

1.7) Ekaitzetarako andelak.

Ekaitzetarako andelei isurbide ere esaten zaie. Estolderiako azpiegitura batzuk dira: kolektoreek bertara garraiatutako euri ura harrapatzeko eta gordetzeko biltegi bat da, batez ere prezipitazio handiak daudenean. Helburua da, hain zuzen, uholdeak izateko arriskua murriztea, ura husteko ahalmena euri uraren bolumena baino txikiagoa denean.

Gailu horiek, batez ere, uholde bateko gehieneko ur emariak xaflutzen dituzte. Oso garrantzitsuak dira, bereziki, arroen irazgaizte masiboa gertatu den eremuetan; esaterako, urbanizatzearen eraginez.

Gainera, aurre arazketa bat egiten du; izan ere, saihestu egiten du lehenengo euri urak, kutsatuenak direnak -nahiz eta euria oso garbi egon, asfaltoa garbitzen du-, ur sistema naturaletan zuzenean isurtzea (esaterako, ibaiak), hondakin urak arazteko prozesu bat egitean. Hala, behin kutsadura guztietatik salbu dagoenean, ura ur masa edo korronteetara isur daiteke, gerora ustiatu ahal izateko.

Donostia hiriak era honetako hainbat azpiegitura ditu hiriko gune gatazkatsuenetan banatuta, uholdeetatik eratorritako arazoei aurre egin ahal izateko. Ekaitzetarako andelak hiri eremu urbanizatuaren azpian lurperatuta egoten dira. Zehazki, ekaitzetarako andel hauek daude hirian: DBUSen kotxetegietan (Ategorrieta), Iztuetan (Biaduktua-Epaitegiak), Morlansen (Leire plaza), Zubietan (Zubieta plaza), Loiolan (Atari Eder plaza), Mandasko Dukearen pasealekuan (Egia) eta azkena Martutenen. Azken hori eraikuntza fasean dago, eta Urumea ibaiaren kanalizazioari loturik dago, Martutene auzotik igarotzean.

2) AÑARBeko UREN SAREA (AUSA).

Añarbeko Uren Mankomunitateak kudeatutako ur fekalen sareak Loiolako Hondakin Uren Araztegira (HUA) doazen hiru kolektore handiak biltzen ditu, bai eta araztegia bera, lurreko zein urpeko hustubideak eta bestelako instalazio osagarri batzuk ere.

2.1) Ibaeta – Santa Katalina – Loiolako kolektorea.

Ibaetako Hondakin Uren Ponpaketa Estazioan (HUPE) hasten da, Ondarreta inguruan dagoena. Eta hiriko mendebaldeko hondakin ur guztiak biltzen ditu. Saneamenduaren ehuneko handi bat bereizia da: euri urak

zuzenean itsasora bideratzen dira, Txirristarriko tunelaren bidez; hots, garai batean Igara, San Pedro eta Añorga errekei irteera emateko egindakoa. Tunel horrek badu beste zeregin bat ere, hirugarrena: hustu beharreko urei irteera ematea, euri jasa handiak direnean. Izan ere, puntu horretara iristen den saneamenduaren zati bat ale bakarrekoa da.

Ibaetako HUPEn ponpatutako urek 2.000 m-ko bulkada izaten dute, eta La Perla inguruan dago haustura kutxatila. Puntu horretatik aurrera, urak grabitatearen eraginez higitzen dira, harik eta Zubieta plazan dagoen ekaitzetarako andelera iritsi arte. Hortik, San Martin kaletik aurrera doa, Santa Katalinako HUPeraino. Ura grabitatearen eraginez higitzen den zatian, igarotzen den eremuetako hondakin urak biltzen ditu hoditeriak. Sektore horretan sarea ale bakarrekoa denez, beharrezkoa da Santa Katalinako HUPEn berriz hustea. Gainera, Estazio horretan Parte Zaharretik datozen hondakin urak ere biltzen dira, eta horko huste sistema ere ale bakarrekoa da; horregatik, are arrazoizkoagoa da Santa Katalinan aipatutako hustea egitea.

Hustutako ur hori Saguesko HUPera bideratzen da, 1.500 mm-ko diametroko eta 1,5 km luze den hoditeria baten bitartez. Egoera normaletan, Santa Katalinako HUPEn bildutako ur guztiak Loiolako HUAr bideratzen dira. Saguesko HUPEn, zehazki, Ategorrietatik, Egiatik, Grosetik... datozen hondakin urak biltzen dira. Hortik, Santa Katalinako HUPera bideratzen dira, 800 mm-ko diametroko betoizko hodi baten bitartez. Horko soberakinak, ohiz kanpoko euriteen ondoriozkoak, Santa Katalinako HUPEn hustu eta Sagues-Monpas tunelaren bitartez bideratutakoei batzen zaizkie, bai eta Loiolako HUAtik datorren lurreko hustubidekoei ere.

Santa Katalinan hustu ez diren hondakin urak Loiolako HUAr garraiatzen dira, garai bateko oboidetik, eraldatu egin dena aurkako norabidean funtziona dezan. Oboide hori Foru pasealekutik, Gernikako Arbolaren pasealekutik eta Bizkaia pasealekutik igarotzen da, Mundaiz zubitik pixka bat aurreragora arte. Puntu horretatik aurrera, kolektorea 1.500 mm-ko diametroko hodi bat da, Bizkaia pasealekutik igarotzen dena, harik eta Kontsuletxe kalera iritsi arte. Hortik, Amaiur parkearen azpitik igarotzen da, Zorroaga pasealekua zeharkatu, eta Zorroaga Gaineko 2.800 mm-ko diametroko sekzio zirkularreko tunela zeharkatzen du. Tunel horren irteeran dago, hain zuzen, Loiolako HUA.

2.2) Herrerako kolektorea.

Herrera ingurura iristen dira honako hauek:

- Pasaiaiko badiako hodi biltzailetik datozen hondakin urak.
- Txingurriko kolektoreak bildutako isuri guztiak.
- San Pedroko kolektoreak garraiatutako adarrak.

Ur guztiak Herrerako HUPerantz goratzen dira, eta Herrerako kolektorearen bitartez Loiolako HUAr iristen dira. Urak grabitatearen eraginez higitzen dira, 3.400 mm-ko diametroko sekzio zirkularreko eta ia 3 km (2.900 m) luze den tunel baten bitartez. Tunelaren aurretik, beronen eta Herrerako HUPeren artean, 30 m luze den eta 1.200 mm-ko diametroko sekzio zirkularra duen zati bat dago.

Herrerara doazen ale bakarreko kolektoreen zati handi bat denez, prezipitazio gogorren ondoriozko ur soberakinak hustu egin behar izaten dira, betoiz estalitako 900 mm-ko diametroko altzairu xaflazko bi hoditeriaren bidez. Hoditeria horiek Herrerako HUPetik Ilurgita kalaraino eramaten dituzte hustutako urak, San Pedroko tunelen bitartez.

2.3) Urumeako kolektorea.

Urumeako kolektoreak izen bereko ibarra zeharkatzen du. Urnieta, Hernani eta Astigarraga udalerrietatik dator, eta ibaiaren ezkerreko ertzetik sartzen da Donostiara. Kolektore horrek udalerrri horietako adarrak jasotzen ditu. Bertan, hondakin urak grabitatearen eraginez higitzen dira. Kolektoreak 3.000 m-tik gorako luzera dauka, eta Martutene inguruan, tunel batetik pasatzen da.

Murgierrotako HUPetik (Astigarraga) abiatzen den adarra, Petritegiko EUTEko lohi guztiak biltzen dituen, ibaiaren eskuineko ertzetik doa, eta Martutene auzoko hegoaldea zeharkatzen du, harik eta Pilare auzoko HUPera iristen den arte. Hortik, Urumea ibaia zeharkatzen du, eta bat egiten du Urumeako kolektorearekin. Azken hori Loiolako HUAr iristen da, hegoaldetik.

2.4) Loiolako HUA.

Loiolako Hondakin Uren Araztegia (HUA) Kapueneko harrobi zaharrean dago, Donostiako Loiola auzoan. Loiolako HUAr hiriko hondakin ur guztiak tratatzen ditu, bai eta Añarbeko Uren Mankomunitateko udalerrri guztietakoak ere. Araztegi honen helburua da adar horrek kalitate ezaugarri jakin batzuk izatea lortzea, itsas ingurunean txertatu ahal izateko.

2.5) Lurreko hustubidea.

Loiolako HUAr irteeran, Monpas aldera bideratzen da adarra, 2.000 mm-ko diametroko eta 1,4 km-ko luzerako betoi armatuz egindako hoditeria baten bitartez. Zati hori Loiolako auzo guztian zehar doa, eta Urumea

ibaia gurutzatzen du. ETS/ET burdinbidearen ibilbide parera iristean, sekzio bereko eta 2,6 km-ko luzerako tunel batean sartzen da hoderia, Ulia mendia zeharkatuz. Hustubidea, hain zuzen, Txori Zulueta (Ulia mendia) izeneko parajea amaitzen da. Hor, Saguesko hustuketaren ondoriozko ur emariei batzen zaie.

2.6) Itsasoko hustubidea.

Lurreko hustubidea luzatzeko, urpeko beste bat dago. Urpeko hustubide horrek, hain zuzen, 2.000 mm-ko diametroa eta 1,3 km-ko luzera ditu. Itsas ohandean blaituta egiten du aurrera, harik eta azken zatira iristen den arte. Bertan, barreiagailu batzuen bitartez, isuria itsas ingurunean urtzen da.

2.4.2.3.- ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENA ETA HORNIDURA

1) BANAKETA OROKORRA.

Iberdrola SA konpainiak hornitzen du Donostiako udal barrutia energia elektriko, konpainiak berak udalerrian daukan sarearen bitartez.

Horretarako, 132 kV-ko eta 30 kV-ko hainbat linea ditu, bai eta Behe Tentsioko (BT) banaketa sare bat ere, hiri osoan zehar adarkatuta dagoena. Goi Tentsioko (GT) lineak, berriz, azpiestazioetara iristen dira. Azpiestazio horiek, hain zuzen, Transformazioko Azpiestazioak (TA) edo Transformazioko eta Banaketako Azpiestazioak (TBA) izan daitezke. Azken horietatik ateratzen da banaketa sarea. TAn 132/30 kV-ko transformazioak egiten dira; TBAn, berriz, 30/13,2 kV-koak.

Azpiestazio hauek daude:

- 1) Usurbilgo TA (Txikiardi-Irubide).
- 2) Martuteneko TA (27 poligonoa-Garbera).
- 3) Errondoko TA (Errondo Gaina).
- 4) Trintxerpeko TBA (La Paz).
- 5) Igarako TBA (Pokopandegi).
- 6) Egiako TBA (Alkolea).
- 7) Altzako TBA (Auditx-Akular).

GTko linea nagusiak honako DULP2015 honetako dagokion planoan ikus daitezke; eta baita TAn eta TBAn ere, euren izenarekin bereizita. Plano horretan daude jasota, halaber, Transformazio Zentroak (TZ), konpainiak bereizteko eman dien izenarekin.

Hauek dira udal barrutiko GTko lineak:

- 1) 132 kV-ko aireko linea, Martuteneko TAn amaitzen dena.
- 2) 132 kV-ko aireko linea, Errondoko TAn amaitzen dena.
- 3) 132 kV-ko aireko linea, Usurbilgo TBA eta Igarako TBA lotzen dituen.
- 4) 132 kV-ko aireko linea, Trintxerpeko TBAn amaitzen dena.
- 5) 30 kV-ko aireko linea, Martuteneko TA eta Egiako TBA lotzen dituen.
- 6) 30 kV-ko aireko linea, Martuteneko TA eta Altzako TBA lotzen dituen.
- 7) 30 kV-ko aireko linea, Usurbilgo TAn hasten dena.
- 8) 30 kV-ko lurpeko linea, Errondoko TAn hasten dena, eta Madril hiribidetik eta Urumea ibaiaren ezkerreko ertzetik igarotzen dena.
- 9) 30 kV-ko lurpeko linea, Egiako TBAn hasten dena eta Mandasko Dukearen pasealekutik igarotzen dena.

Konpainiak azken urteotan egindako aldaketak instalazio osoaren mantentze lanak eskatutakoak baino ez dira izan, eta baita bizitegi eta industria urbanizazio berriei zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak ziren hobekuntzak egiteko ere. Orain arte bertan ez dago aurreikusita inolako aldaketa garrantzitsurik sarean. Hala, etorkizunean egingo diren jardunak garapen berriak abian jartzetik eratorritakoak izango dira.

Indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) Auditx-Akularren aurreikusita dagoen jarduna nabarmentzen du. Jardun horrek Altzako TBAn kokagunea aldatzea eskatuko du.

Gainera, HAPOk berak zehazten du halakorik eskatzen duten garapen berriek honako betebeharrak izango dituztela:

- Beharrezkoak diren azpiegitura elektrikoak ezartzeko eta lanek iraun bitartean premiazkoak diren behin-behineko neurriak gauzatzeko beharrezkoa den lurzorua gordetzea.
- Behin-behineko zein behin betiko azpiegitura elektriko horien obra zibilaren proiektua eta eraikuntza lana aurreikustea.
- Jardun eremuan hornidura izango dela bermatzeko beharrezkoak diren obrak eta instalazioak ebaluatzea, nola eremu barnean, hala kanpoan.
- Instalazio berria martxan jartzeko beharrezkoak diren gailu, hari, instalazio eta mekanismo elektrikoak eskatzea eta jartzea, nola eremu barnean, hala kanpoan. Atal hau kudeaketa zuzen moduan kontuan hartuko da.

Era berean, lurpean ezarri beharreko Transformazio Zentroak (TZ) aurreikusi beharko dituzte horren premia duten jardun berriek, edo lurpean ez bada, haren kokalekua kamuflatuko duen eraikuntzaren baitan. Aipatutako eraikuntzak kokatzen den ingurunean erabat mimetizatuta geratu beharko du. Era berean, linea guztiak (goi tentsiokoak, erdi tentsiokoak eta behe tentsiokoak) lurperatu egin beharko dira.

2) AIREKO LINEAK LURPERATZEA.

HAPOk honako irizpide eta helburu hauek xedatzen ditu aireko energia elektrikoko lineak lurperatzeari dagokionez:

Landa eremuetan, energia elektrikoa garraiatzeko lineak aireko linea gisa finkatu dira, kasu berezi batzuetan izan ezik. Irtenbide hori justifikatuta dago, eta ez soilik arrazoi ekonomikoak direla tarteko, baizik eta baita seguruagoa delako ere –linearen mantentze lanari dagokionez–, eta baita linea kontrolatzea eta aztertzea errazagoa delako ere.

Hiria ez da hedatu modu etengabea perimetro guztian. Eremu batzuk beste batzuk baino dinamikoagoak dira, eta horrenbestez, urbanizatutako eremu batzuen artean urbanizatzeko premiarik ez duten zirrituak geratzen dira, batzuetan handi samarrak. Hiri jarraitutasunean teilakatuta ageri diren landa eremu horiek aireko lineen bitartez dauzkate hainbat zerbitzuren (energia elektrikoa, komunikazioak, etab.) lineak.

Proposatzen da urbanizatutako eremuetatik hurbil egoteagatik edo urbanizatutako edo aurki urbanizatuko diren eremuetan txertatuta geratu izanagatik, dauden lurraldean gaur egun onartezina den eragina izan dezaketen lineak lurperatzeko aukera aztertzea. Hala, hainbat linearen lurperatze proposamenak azaltzen dira, tarte independenteen arabera. Eragina jasaten duten eremuak jardun bakar bat balitz bezala tratatzen dira, eta horri esker, zeinahi proposamenen eragina ebalua daiteke.

Hona hemen HAPOk lurperatzeko aukera dutelako aukeratu dituen eremuak:

a) 1. eremua: Gure Izarra.

Etumeko TZn hasiko da lurperatzea. Puntu horretatik, izen bereko bideari jarraituz, Gudamendibidera iritsiko da. Hor, adarkatu egingo da: linea bat Gudamendirantz joango da, gaur egun aireko linea iristen den punturaino; eta beste linea, kontrako norabidean, Kristobal Balentziaga pasealekuraino. Pasealeku horretan, bigarren adarkatze bat izango da, eta lurpeko linea adar beretik joango da, bi norabidetan. Igeldorantz doanak eremu hori lurpetik igaroko du. Itsasalde ingurutik, harik eta Calongeko TZra iristen den arte, Mezerekoarekin lotura duela. Kontrako norabidean, eta lurpetik hori ere, bigarren linea Amezti ingurura iritsiko da (92. zutaina). Jardun horrekin desagerrarazi egingo dira Gure Izarra eremuko aireko tarteak.

b) 2. eremua: Igeldo.

Igeldo mendiko TZtik, izen bereko pasealekuan zehar, Igeldo herrirako desbideratzea igaro, eta "Bombas Igeldoko" TZren eremura iritsi artean linea lurpean eramatea proposatzen da. SEReko TZ hornitzeko ez dago arazo handirik, ezta Ursula izeneko hornitzeko ere. Eta gauza bera esan liteke Bombas Igeldo eremutik Igeldo Telebistara arteko loturari buruz: Igeldo herrirako desbideratzearen eta aipatutako antenaren artean linea lurperatuko da.

c) 3. eremua: Seminarioa.

Aizkorri kalean zehar lurperatuko da linea, kale hori Heriz pasealekuarekin lotzen den gunea baino pixka bat lehenagotik Lugaritz ingurutara bitarte.

d) 4. eremua: Igara.

Eremu honetan, bi lurperatze proposatzen dira: bata Santa Teresa eskola eta Ingeniaritza Eskola parean, eta bestea Igarako industria eremuan. Azken hori, zehazki, bi jardunetan adarkatuta. Lehenengo kasuan, Manuel Lardizabal pasealekuan hasiko da lurperatzea, Santa Teresa eskolako eskubaloi zelaiaren alboan. Horkoak inguratuta, Berio pasealekura iritsiko litzateke, eta hortik, Lautximieta plazaraino. Ondoren, Aingeru Zaindariaren bidetik, Illarraberriko TZ ingurura iritsiko litzateke. Igarako industria eremuan, bi tokitan egingo da jarduna. Bata, Igarako eta Iribarko transformadoreak batuz, eta Igara bidetik linea lurperatuz. Bigarrena, berriaz, tarte txiki batekoa izango da, eta "Igarako Habearteetako" eta "Industria Habearteko" TZk lotuko ditu.

e) 5. eremua: Infernua.

Zubiberribidean hasiko da lurperatze lana, Zuhatzurako igoeran AP-I/AP-8 autobidearen azpitik igaro aurretik. Bide horretatik jaitsi, eta Infernu inguruaren oinetik jarraituko du, Zerbitzugunera iritsi arte. Haren atzeko aldean lotuko da Errotaburun lurperatutako sarearekin.

f) 7. eremua: Txomin Enea.

Aurreikusita dago eremu honetan proposatutako garapena aurki hasiko direla egikaritzen. Bertako Urbanizazio Proiektuak lurperatze hau aurreikusi beharko du. Lehenik eta behin, lurperatzea Ubabidean hastea proposatzen da, Espartxoko zubia baino pixka bat gorago. Lurperatutako linea bide horretatik joango da, harik eta aipatutako zubiaren bitartez Urumea ibaia zeharkatzen duen arte. Puntu horretatik aurrera, linea horrek

urbanizazio berriarekin bat egin beharko du, Lugañene pasealekutik jarraituz Antzieta pasealekura iritsi arte. Hortik, Torrua Zahar eremura joko du, bertara sartzeko biribilgunera arte.

g) 8. eremua: Antondegi.

Eremu honetarako proposatutako garapenak berau zeharkatzen duten aireko lineen lurperatzea jaso beharko du. 30 kV-ko linea lurperatzearena nahiko garbi dago: lehendik dagoen bidetik egingo da, eta Sarrueta pasealekutik eraman, harik eta izen bereko biribilgunera iritsi arte, Torrua Zahar eremurako sarbidean. Era berean, 132 kV-ko lineak lurperatzeko beharrezkoa da azterketa zehatzagoa egitea. Azterketa hori, hain justu, eremu horretako antolaketa zehaztasunez ezagutzeari egin beharko da.

h) 9. eremua: Auditx-Akular.

Eremu honetan gauzatu beharreko Urbanizazio Proiektuak bertara energia elektrikoa eramateko eta gaur egun hainbat puntutan eremua zeharkatzen duten lineak lurperatzeko beharrezkoak diren jardunak aurreikusi eta definitu beharko ditu. Era berean, Altxako TBaren lekualdatzea ere aurreikusi beharko du. TBA hori Felix Iranzo pasealekuaren amaieran dago kokatuta.

2.4.2.4.- TELEFONIA ETA TELEKOMUNIKAZIOA

XIX. mendearen amaieran, hiriko lehenengo telefono lineak ezarri zituzten hainbat enpresaburuk eta konpainia pribatuk. Donostiako Udalak telefono sare bereki bat izan du 1908. urteaz gero: Donostiako Udalaren Hiriko Telefono Sarea. Zerbitzuak eta Espainiako Telefono Konpainia Nazionalaren (CTNE) monopolioak eragindako arazo ekonomikoak zirela tarteko, 1970eko hamarkadan, Donostiako telefono sarea Espainiako Telefono Konpainia Nazionalera (CTNE) besterendu zen. Eusko Jaurlaritzak kablea zabaldu zuen hirian 1994. urtean, zuntz optikoa baliatuta, komunikazioak liberalizatzeko eta informazioaren eta komunikazioen eremuan teknologia berria aplikatzeko aurreikuspenekin.

XX. mendeko azken urteetan, udal barrutia hainbat eremutan zegoen banatuta telefonoari zegokionez (CTNE). Eremu bakoitzak telefono zentral bat zeukan bere arretarako, eta zentral guztiak elkarri lotuta zeuden, zuntz optikoaren bidez: Ondarreta (Antigua eta Aieteko zati bat), San Martzial (Erdialdea, Parte Zaharra eta Aieteko zati bat), Amara (Amara, Loiola eta Martutene), Gros (Gros, Egia, Ategorrieta eta Intxaurrondo), San Pedro (Altxako zati bat eta Bidebieta) eta Pasai Antxo (Altxako zati bat). Bidebietako zentrala arduratzen zen hiriarteko zerbitzuaz.

goeko hamarkadatik aurrera, eta pixkana-pixkana, bere zentralak teknologia digitaleko bilakatzen hasi zen CTNE. Era berean, zuntz optikoaren sare bat sortu zuen; lehenik eta behin, erabiltzaile instituzionalen premiak asetzeko, eta, ondoren, Konpainiaren beraren premiak asetzeko. 1998ko abenduan, CTNEren zerbitzu eskaintzarako kontratuak Sociedad Operadora de Servicios de Telecomunicaciones en España SA izeneko sozietate filialari laga zitzaizkion. 1998an, halaber, telekomunikazioen sektorearen liberalizazioaren ondorioz, Euskaltel jarri zen martxan, telekomunikazioen bigarren operadore global moduan. Hasiera batean, CTNEren azpiegitura baliatu zuen, eta Eusko Jaurlaritzak jarritako zuntz optikoko sarea kudeatzeko hitzarmena sinatu zuen.

goeko hamarkadan, telefonia mugikorra ere zerbitzuak eskaintzen hasi zen, eta telekomunikazio zerbitzuekin lotutako enpresak askotarikotu egin ziren, tokiko interesa nabarmen gaindituz.

Hala, gaur egun, azpiegitura horiek hizpide hartuta, komenigarria da arretaz erreparatzea Donostian dauden oinarritzko telefoniako operadore bakoitzak bereizitako bere sareak izatetik eratorritako bi alderdiri.

Alde batetik, gauza jakina da telefonia operadoreek erabiltzen dituzten kutxatila eta erregistroak elementu aurrefabrikatuak direla; ikusteko moduko tamainakoak, gainera. Bestalde, kontuan hartzen badugu horien estrategia dela euren artean azpiegiturak (hots, espaloietan zehar doazen azpiegiturak) ez partekatzerena, argi dago elementu horiek telefono linea guztiak biltzeko behar duten zabalera oinezkoek egoera normalean igarotzeko behar dutena baino askoz ere handiagoa dela. Eragin hori agerikoa da hirigintza garapen berrietan, non inolako justifikaziorik gabe azalera gehigarria ezartzen den. Dena den, larritasuna are handiagoa da hirian dagoeneko egonkortutako eremuetan; izan ere, horietan, sarri askotan, ingurune baldintzak oso zorrotzak izaten dira, eta gatazka handiak sortzen dira enpresa operadore guztien aurreikuspenak praktikan jarri ahal izateko.

Eta, bestetik, telefono lineetarako lur erretenak egiteko erabili behar diren indusketa ezpondak, oro har, bertikalak izaten dira, bi arrazoi direla tarteko: batetik, horiek egiteko baliatzen diren espaloiak oso estuak izaten dira, eta horrek galarazi egiten du beste irtenbideren bati heltzea; eta, bestetik, oso kasu berezietan, beste azpiegitura batzuk izaten dira (batzuetan, beste telefono operadore batzuenak), eta horrek dakar ikuspegi geoteknikotik ego-kitzat jotako ezpondak egiteko ertzak baldintzatzea.

Arazo horiei irtenbidea bilatzeko, indarrean dagoen HAPOk proposatzen du Donostiako Udalak berak gidatutako ekimenak garatzea, era horretako azpiegiturretara bideratutako espazio fisikoa neurritz banatu ahal izateko.

Telefonia finkoari dagokionez, gaur egun bi baino ez dira sare berekia duten konpainiak.

Alde batetik, TELEFONICA SA enpresa dugu, eta haren marka komertziala: Movistar. Hirian sarerik handiena duen enpresa da. Jatorrian, berea zen monopolioa, orain gutxira arte iraun duena, erakunde hori baitzen Estatuko

operadore bakarra. XX. mendearen lehenengo urteetan hiriak zeukan tamainari egokitutako hasierako egituratik (duela ez askora arte udalak berak kudeatzen zuena) gaur egungo sarera igaro da, hainbat zabaltze eta egokitze lan egin ondoren.

Bestetik, EUSKALTELEK ere sare garrantzitsua dauka, nola estaldura eremuari dagokionez, hala izan ditzakeen erabiltzaile potentzialen kopuruari dagokionez. Euskaltelen oinarritzko sarea lurpetik doa, udal barrutia mendebaldetik ekialdera zeharkatzen duen ETS/ET burdinbidearen (nola Donostia-Bilbo linea, hala Donostia-Hendaia linea) ibilbidearekiko paraleloan.

Hirian azpiegitura egokia dago erabiltzaileari telefonia finkoa eskaintzeko, nola gaur egun dauden baldintzetan, hala etorkizunean izango direnetan; betiere, HAPOren aurreikuspenekin bat etorrira. Bestalde, HAPOk xedatzen du komenigarria dela udalerrian oraindik ere badiren aireko linea gutxiak lurpeko linea bihurtzea, aurreikusitako garapen berriak egia bihurtzen doazen heinean.

TELEFONIA MUGIKORRARI dagokionez, eta telefonia orokorrarekin harremanetan, esparru honetan aintzat hartu beharreko beste kontu bat antenen instalazioa da. Gai horrek arreta berezia eskatzen du, geroz eta ugariagoak baitira.

Hala, alde batetik, komenigarria da antenak toki batean edo bestean ezartzeko irizpideak finkatzea: izan hiri ingurunean (eraikuntzen estaldurak barne), izan landa ingurunean. Eta antenetatik eratorritako inpaktuak desagerraraziko edo/eta gutxituko direla bermatzen duten irizpideekin osatu beharko dira. Bestetik, komenigarria da antenak gehiegi ugaltzeko joera eta ondoriozko inpaktuak murrizten lagunduko duten irizpide teknikoak ezartzea, esaterako: antena ugari oinarritzko instalazio berberak erabiltzea, ahalik eta antena gehienei zerbitzua emango dieten hagak izatea, etab.

Zuntz optikoko sareei dagokionez, horiek udalerrri osoan zehar zabaltzeko helburua proposatzen du HAPOk.

2.4.2.5.- ERREGAI HORNIDURA (GASA)

XIX. mendearen amaieraz gero, Donostia hirian gas zerbitzua izan da. Zerbitzu hori, hasiera batean, udal zerbitzua izan zen, *Fábrica Municipal de Gas de San Sebastián SA* izenpean, Morlanseko fabrika zeuzkan instalazioen bitartez ziharduena. Banatzen zuten erregaia "hiri gasa" izenekoa zen. Hasiera batean, ikatzaren errekuntzatik lortzen zuten, baina 1970. urteaz gero, petrolioaren deribatuetatik.

1980ko hamarkadan, presio handiko Bartzelona-Valentzia/Euskal Herria gasbidea jarri zuten zerbitzuan, ENAGA-Sen jabetzakoa. Eta bertara lotu zen Bergara-Irun gasbidea, Gas Euskadiren jabetzakoa. 2003. urtean, gas naturalaren banaketan zegoen monopolioa desagertu zen. *Donostigas SA* enpresa, Euskal Herrian gasa banatzeaz arduratzen ziren gainerako enprekin batera, *Naturcorp* taldean sartu zen. Hala, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) erabaki zuen *Naturcorp* taldearen kapitalaren % 62 *Hidrocarbónico* taldeari esleitzea. Prozesu horretan, hainbat elkarte *Naturcorp Redes SA* taldean batu ziren; 2004an, hain zuzen. Talde horrek *Donostigas* markarekin banatu eta merkaturatu zuen gasa, baina azkenerako desagertu egin zen, eta, harekin batera, baita Donostiako Udalarekin zuzeneko lotura zeukan enpresa egitura bakarra ere. Zegozkion akzioak besterik ez zituen gorde udalak. Amaierako une horretan, *Donostigasek* 263 km-ko sarea eta 55.000 abonatu zituen. *Donostigas* izenaren ordeztan, *Naturgas energia* izena erabiltzen hasi ziren, pixkana-pixkana, 2005. urtez gero, energia elektrikoaren banaketa ere txertatzeko asmoz.

Energia banaketaren liberalizazioak zerbitzuen antolakuntzan errotiko aldaketa bat ekarriko duela aurreikusten da, eta horrek ezinbestean ekarriko du tokiko plangintzetatik haragoko azterketa bat egitea.

Horrenbestez, gaur egun, Donostiako udal barrutiaren baitan gas naturala banatzeaz arduratzen den erakundea NATURCORP enpresa taldea da. Bertan daude txertatuta, hain zuzen, "NATURGAS-SOCIEDAD GAS DE EUSKADI SA" eta "DONOSTIGAS".

Gas naturalaren OINARRIZKO SAREA Bilbotik dator, eta Frantziarekiko mugarantz doa. Hala, Donostiako udal barrutiaren hegoaldeko mugatik igarotzen da, ekialdetik mendebalderantz. Hiria erregaiz hornitzeko sareak Galarreta inguruan egiten du bat Oinarritzko Sarearekin. Gasbidearen ADAR horrek Oriamendi mendia zeharkatzen du, ekialdeko mazelatik; ondoren, Miramon zeharkatzen du, GI-20 errepidean edo saihezbidean dagoen Aieteko tunelaren gainetik igarotzen da, Aiete auzoa Etxadi ingurutik gurutzatzen du, eta Puio mendiaren gailurrera iritsi ondoren, beherantz egiten du, DONOSTIGAS MORLANSen instalazioetaraino.

Morlanseko instalazioetatik, presio ertaineko gasbideak abiatzen dira, eta horiek gas naturala helarazten diete erabiltzaile industrialei. Hortik doa, halaber, "Donostigas" markak ustiatzen duen banaketa sarea, etxeko erabilerarakoa. Hiriko hainbat auzotan barreiatuta, bestalde, Erregulazio eta Neurketarako Tokiak daude.

Zubietan eta Añorga auzoak, esaterako, Oinarritzko Sarearekin bat egiten duten bi adar berriren bidez hornitzen dira: lehenengoa Aliriko zubitik gertu dago; bigarrena, berriz, Errekaldeko biribilgunean.

Konpainia hornitzailearen aburuz, erabiltzaileari kalitatezko eta berme handiko zerbitzua eskaintzeko beha-

irezkoak diren baldintzak biltzen ditu gaur egun hirian dagoen sareak. Zenbait zabaltze lan txiki egitea baino ez da aurreikusten, proposatutako garapen berriei behar bezala erantzun ahal izateko.

2.4.2.6.- HIRI HONDAKIN SOLIDOEN (HHS) KUDEAKETA

Hainbat eta hainbat hamarkadatan, udal langileek bildu izan dituzte Hiri Hondakin Solidoak (HHS) eta horiek garbitu izan dituzte kaleak ere. 1970eko hamarkadan, berriz, kale garbitzaileak alde batera utzi, eta horien egitekoa azpikontratatu egin zen. Antzeko prozesua gertatu zen XX. mendearen azken hamarkadan ere, zaborrak biltzeko zerbitzua azpikontratatu zenean.

1970. urtean, SAN MARKOS MANKOMUNITATEA sortu zen; hots, Donostia, Errenteria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta eta Hernani udalerrietako (300.000 biztanle baino gehiago) HHSen bilketa eta tratamendua kudeatzeko udalerrien elkarte. San Markos Mankomunitatearen funtzioak dira, beraz, HHSen gaikako bilketa eta tratamendua. Horretarako, azpiegitura hauek ditu:

- 1) Ontziak sailkatzeko planta (Urnieta): ontziak hautatzeko eta tratatzeko prozesuen automatizazioa.
- 2) SAN MARKOSKO ZABORTEGIKO (San Markos) transferentziagunea: trinkotze sistema baten bitartez hondakinen bolumena txikitzeko helburua duen instalazioa.
- 3) MERKABUGATI (eskualdeko handizkako merkatua): bertan, gune bat dago txikizkako merkataritzaren birziklapenerako.
- 4) AIZMENDIKO zabortegia (Basozabal): industria eta eraikuntza jardueretatik datozen hondakin bizigabeen tratamendurako instalazioa.
- 5) GARBIGUNEAK: etxeko hondakinen gaikako bilketarako doako zerbitzua; Donostiako (Garbera eta Atxotxarreka), Hernaniko, Oiartzungo eta Usurbilgo garbiguneetan eskaintzen da zerbitzua.

1995. urteaz gero, hondakinak kudeatzeko, edukiontzia jartzen dira bide publikoan, eta HHSen gaikako bilketa egiten da. Gainera, energia elektrikoa sortzen da zabortegian utzitako materien deskonposaketan sortutako biogasa baliatuz. Azken jarduera hori Biosanmarkos SAK kudeatzen du; alegia, Energiaren Euskal Erakundeak (% 94,4) eta San Markos Mankomunitateak berak (% 5,6) partaidetutako elkarteak. 2014. urtean, San Markosko zabortegia itxi zuten.

Bestalde, HAPOk xedatzen duenaren arabera, hiri hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko dagoen arazoari irtenbideak bilatzeko, ikuspegi osotu eta egokia erabili behar da; eta, horrenbestez, aintzat hartu beharko dira alde aurretik bata bestearen atzetik egindako prebentzio/murritzeta, berrerabiltze eta birziklapen faseak. Horiek osatzeko, bestelako tratamendurik edo aprobeitxamendurik ez duten hondakinen balorizazio energetikoa murriztuko da.

Ikuspegi horretatik, HAPOk honako helburu eta jardun hauek biltzen ditu:

- Kartoia, papera, beira, ontzi arinak, metalezko ontzi bereziak, ehunak eta prestatu gabeko produktuak biltzeko edukiontzi berriak instalatzea (espazioak zehaztu beharko dira, gai horrekin lotutako plan espezifikoetan xedatutako irizpideekin bat etorrira).
- Lehendik dauden garbiguneak egonkortzea eta berrien aurreikuspena egitea (Garbera, etab.), eta hiri garapen berri garrantzitsuenen (Altza, Urumearen ibarra, Antondegi, Zubieta, etab.) helburu diren eremuetan alderdi horri berebiziko arreta eskaintzea. Horretarako, ingurune horietan guztietan sustatu beharreko plangintza zehatzean aipatutako instalazioen kokalekua erabaki beharra proposatzen da.
- Donostian, Donostialdean edo Gipuzkoan landare eta animalia jatorriko materia organikoaren tratamendura bideratutako konpost egiteko instalazio bat edo gehiago eta biolehorketarako instalazio bat ezartzeari dagokionez, San Markos Mankomunitatearekin eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoarekin lankidetzan edo horien esparruan hartu beharko dira erabakiak.
- Udalak 2007ko urtarrilaren 30ean hartutako erabakiarekin bat etorrira, Artzabaletan (Zubieta) balorazio energetikorako planta bat ezartzea aurreikustea, tratamendu hori beharrezkoa duten hondakinentzat. Gainera, planta hori osatzeko, egokitutako birziklapen-konpost eta zaborrak umotzeko azpiegiturak ezar litezke.

2.4.2.7.- LOGISTIKA: ELIKAGAIK ETA SALGAIK

Honela definienez logistika kontzeptua: banaketa zerbitzu baten antolakuntza lana egiteko beharrezkoak diren baliabideen eta metodoen multzoa. Jarduera logistikoei, berriz, sistema bat osatzen dute, ekoizpenaren eta merkatuen edo erabiltzaileen arteko lotura dena, denborak eta distantziak bereizita baitaude. Administrazio logistikoen eta hornidura katearen bitartez, erosketak, ekoizpen, garraio, biltegiratze, mantenu eta banaketa jardueren kudeaketaz eta plangintzaz arduratzen da logistika.

Kasu honetan, premia biziko elikagaien eta salgaien hornidurarekin eta banaketarekin zerikusia duen logistika eta herriarrek horiek eskuratzeko duten bidea ditugu hizpide.

1) MERKABUGATI.

Garai bateko alondegia aleak eta bestelako salgaiak gordetzeko biltegi publikoak ziren, saldu artean zergarik sortzen ez zutenak. Alondegia horiek udalek kudeatutako saltokiak izaten ziren. Donostian, 1813. urtez gero, udal alondegia izan zen Sarriegi plazako eraikinean; eta, gerora, Atotxako Fruta Merkatu Nagusiaren alboko eraikinean. Azken merkatu hori 1998. urtean desagertu zen, ingurunea birmoldatu zutenean. Bertako handizkari gehienek udalak eskainitako kalte-ordaina onartu zuten, eta Zubieta auzoan eraikitako MERKABUGATIKO Bugati Elikagaien Unitatean ezarri ziren, 3.800 m²-ko azalera gainean.

Hala, Merkabugati da gaur egun fruta, barazki, lore eta bertako produktuen Merkatu Nagusia. Merkabugatiko Handizkarien Elkartearen jabetzakoa da (fruta eta barazkien handizkarien taldea, Merkabugati SA), eta Administrazio Kontseilu batek kudeatzen du.

2) MERKA OIARTZUN.

Euskal Herriko arrain banaketarako gune nagusia da Merka Oiartzun. Erabateko autonomiarekin diharduten 35 merkataritza enpresa daude instalazio horietan. 35.000 m²-ko lursailean dago kokatuta, eta urtean 12 milioi kilo merkaturatzen ditu. Hortik, arrainaren Europako merkaturan duen garrantzi estrategikoa.

3) ZAISA: Plataforma Logistikoa.

Irungo Aduana Guneke Elkarre Sustatzailea SA (ZAISA, 1983), hain zuzen, mugaz gaindiko plataforma logistikoa da, Irunen kokatuta dagoena. Lehen mailako gune estrategikoa da, Europako kontinentearen eta Iberiar penintsularen arteko mugan. Hala, bertatik igarotzen dira Europako ardatz atlantikoko joan-etorri gehienak. Plataforma logistikoa hau hiru gunetan garatzen da: ZAISA I (1990), ZAISA II (1996) eta ZAISA III (2003). Horiek guztiek 400.000 m²-ko baino gehiagoko azalera hartzen dute, garraio eta logistika jarduerak gauzatzeko.

Gaur egun, ZAISA dugu Euskal Herriko garraio eta logistika enpresen multzorik handiena, bai eta Europako hegoaldeko garrantzitsuenetako bat ere. Bertan daude bilduta sektorean lider diren enpresak, nola nazioartekoak, hala naziokoak zein tokikoak.

2.5.- LURZORUAREN ERABILERA

2.5.1.- LURZORUAREN ZONIFIKAZIOA

Indarrean dagoen HAPOk, 2010ean onartutakoak, Donostiako etorkizuneko hirigintzak aintzat hartu beharreko irizpideak eta gidalerroak xedatzen ditu. Hirigintza dokumentu horrek xedatutako erabakiek, hain zuzen, oraingo hiriaren zein 8-10 urteko denbora tartean hiriaren aurreikusita dauden garapen berriak eta landa eremuak hartzen dituzte aintzat.

Donostiako Udal Larrialdi Plan hau idaztean, HAPO onartu eta 5 urtera, eta oraindik ere bertan bildutako proposamen gehienak gauzatu gabe daudela, erabaki da dokumentuan jasotako hirigintza datuak baliagarriak direla, oraindik ere, hiriaren hirigintza egoeraren eta epe labur zein ertainera dituen aurreikuspenen deskribapen orokorra egiteko.

Hona hemen hiriaren hirigintza datu orokorrak, indarrean dagoen 2010eko HAPOtik ateratakoak:

LURZORUA		
	AZALERA (KM ²)	%
HIRI EREMUA (HIRI LURZORU URBANIZAGARRIA)	23,85	% 39,27
LURZORU URBANIZAEZINA	36,88	% 60,73
GUZTIRA, UDAL BARRUTIA	60,73	% 100,00

SUELO		
	SUPERFICIE km ²	%
ÁREA URBANA (SUELO URBANO Y URBANIZABLE)	23,85	39,27%
SUELO NO URBANIZABLE	36,88	60,73%
TOTAL TÉRMINO MUNICIPAL	60,73	100,00%

ERABILERA		
	AZALERA (KM²)	%
BIZITOKI EREMUA	13,57	22,34
JARDUERA EKONOMIKOKO EREMUA	3,54	5,83
LANDA EREMUA	25,45	41,91
KOMUNIKAZIO EREMUA	3,93	6,47
GUNE LIBREEN EREMUA	11,58	19,07
KOMUNITATE EKIPAMENDUEN EREMUA	2,05	3,38
ZERBITZUEN AZPIEGITUREN EREMUA	0,61	1,00
GUZTIRA, UDAL BARRUTIA	60,73	100,00

Erabileren zonifikazio globalaren koadroa (2010eko HAPO).

5. ZONIFIKAZIO GLOBALA 5.1.- DONOSTIAKO UDALERRIA		
ERABILERA GLOBALEKO ZONAK		AZALERA M²
BIZITEGI ERABILERAKO ZONAK GUZTIRA		13.573.007
A.10	HIRIGUNE HISTORIKOKO BIZITEGIKO ZONA	127.530
A.20	ZABALGUNEKO BIZITEGIKO ZONA	2.433.687
A.30	ERAIKUNTZA IREKIKO BIZITEGIKO ZONA	7.499.529
A.40	GARAPEN TXIKIKO BIZITEGIKO ZONA	3.512.260
EKONOMIA JARDUERETAKO ZONAK GUZTIRA		3.535.752
B.10	INDUSTRIA-ERABILERAKO ZONA	1.874.819
B.20	HIRUGARREN SEKTOREKO ERABILERAKO ZONA	1.660.933
LANDA ZONAK GUZTIRA		25.454.519
D.10	BABES BEREZIKO LANDA-ZONA	9.295.272
D.20	BASOGINTZAKO LANDA-ZONA	383.622
D.30	NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO ETA LANDAZABALEKO LANDA-ZONA	14.644.348
D.40	IBAI-IBILGUETAKO ETA HORIEN BABES-ERTZETAKO ZONA	1.131.276
KOMUNIKAZIOETAKO SIST. OROK. GUZTIRA		3.932.253
E.10	Bide-sistema orokorreko zona (SO)	3.535.725
E.20	Trenbide-sistema orokorreko zona (SO)	330.736
E.30	Portu-sistema orokorreko zona (SO)	65.792
ESPAZIO LIBREEN SIST. OROK. GUZTIRA		11.579.552
F.10	Espazio libreen sist. orok. (SO)	1.938.188
F.20	Jolas-eremu landatarren sist. orok. (SO)	9.641.364
EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO SIST. OROK. GUZTIRA		2.046.406
G.00	Ekipamendu komunitarioko zona	2.046.406
ZERBITZU AZPEGITUREN SIST. OROK. GUZTIRA		607.737
H.00	HIRI-ZERBITZUETAKO AZPIEGITURETAKO ZONA	607.737
ERABILERA GLOBALEKO ZONAK GUZTIRA		60.729.225

2.5.2.- BIZITEGIA

BIZITEGI erabilerak hartzen du udalerriko hiri eremu gehiena. Erdialdeko auzotik hurbileko auzoetara zabaltzen da, eraikuntza jarraitutasunaren bidez. Auzo horietatik aurrera, periferiarantz jarraitzen du bizitegiaren orbanak. Han, nukleo sakabanatuak ageri dira hainbat ardatz edo korridoretatik hurbil.

Indarrean dagoen HAPOn arabera, hirian 84.000 ETXEBIZITZA inguru DAUDE LEHENDIK. Datu hori aintzat hartuta, eta 188.000 BIZTANLE inguru daudela kontuan izanez, familia nukleoaren batez besteko tamaina 2,32 pertsonakoa da etxebizitzako. Datu horiekin lotuta, kontuan hartu behar da hiriak izaera turistikoa duela, eta horrek dakarrela etxebizitza asko eta asko bigarren bizitoki izatea; eta, horrenbestez, etxebizitza ugari hutsik egotea. Horren ondorioz, kalkulaturako modulua, errealitatean, handixeagoa izango litzateke (2,50 pertsona/etxebizitza).

Auzo gehienetan eraikuntza mota guztien artean DENTSITATE HANDIKO bizitegiak dira nagusi: Altza (AL), Amaraiberri (AM), Aiete (AI), Erdialdea (ER), Egia (EG), Antigua-Ondarreta (AO), Gros (GR), Ibaeta (IB), Intxaurren (IN), Loiola (LO), Martutene (MA) eta Miracruz-Bidebieta (MB).

Bestalde, honako hauek dira DENTSITATE TXIKIKO eraikuntza motak dituzten auzoak: Añorga (AÑ), Ategorrieta-Ulia (AU), Igeldo (IG), Miramon-Zorroaga (MZ) eta Zubieta (ZU).

Bestalde, HAPOk AURREIKUSPEN bat egiten du, eta horren arabera, bizitegi garapen berriek hiriko hiru gunere bereizi hauetan izango dute eraginik handiena:

- 1) Ekialdeko (E) Korridore Submetropolitarran, eta, zehazki, Altza auzoan: Auditz-Akula, Oleta, etab.
- 2) Hego-ekialdeko (SE) Hiri Inguruko Korridorea, Urumea ibaiaren ibarrekoa: Loiolako Lorategi Hiria, Txomin Enea, Sarrueta, Antondegi, etab.
- 3) Hego-mendebaldeko (SW) Hiri Inguruko Korridorea; zehazki, Zubieta auzoan eta Oria ibaiaren ibarrean: hipodromo inguruan.

Aurreikusitako garapen horiekin 14.000 ETXEBIZITZA BERRI inguru aurreikusten dira. Eta horiei etxebizitzako familia nukleoaren batez besteko tamaina aplikatuz gero, datozen urteotan 32.000 biztanle inguruan haziko litzateke biztanleria. Hala, 10 urteko tartean (2020. urtean), 220.000 BIZTANLE inguru izan litzake, orotara, Donostiak.

Bestalde, nabarmentzekoa da bizitegi eremu gehienak mistoak direla; esan nahi baita, ohiko bizitegi erabileraz gainera, bestelako erabilera batzuk ere badituzte, esaterako, merkataritzakoak, bulegoak, tailerrak, etab.

Bizitegi erabileraren koadroa, auzoen eta enklabeen arabera, 2010eko Donostiako HAPOn oinarrituta.

BIZITEGIA	ETXEBIZITZA								
AUZO	2009 LU	2009 LUE	2009	HAPo 2010 LU	HAPo 2010 LUE	HAPo 2010	2020 LU	2020 LUE	2020
1. Aiete (AI)	5.416	3	5.419	529	0	529	5.945	3	5.948
2. Altza (AL)	8.553	54	8.607	4.226	0	4.226	12.779	54	12.833
3. Amaraiberri (AM)	13.632	3	13.635	419	0	419	14.051	3	14.054
4. Antigua - Ondarreta (AO)	7.067	5	7.072	118	0	118	7.185	5	7.190
5. Añorga (AÑ)	783	65	848	576	0	576	1.359	65	1.424
6. Ategorrieta - Ulia (AU)	1.434	102	1.536	93	0	93	1.527	102	1.629
7. Erdialdea (ER)	11.852	0	11.852	417	0	417	12.269	0	12.269
8. Egia (EG)	6.620	1	6.621	491	0	491	7.111	1	7.112
9. Gros (GR)	9.358	0	9.358	0	0	0	9.358	0	9.358
10. Ibaeta (IB)	3.769	39	3.808	590	0	590	4.359	39	4.398
11. Igeldo (IG)	170	300	470	1	0	1	171	300	471
12. Intxaurren (IN)	6.553	5	6.558	129	0	129	6.682	5	6.687
13. Loiola (LO)	1.985	26	2.011	1.459	0	1.459	3.444	26	3.470
14. Martutene (MA)	1.017	124	1.141	4.003	0	4.003	5.020	124	5.144
15. Miracruz - Bidebieta (MB)	3.851	10	3.861	9	0	9	3.860	10	3.870

BIZITEGIA	ETXEBIZITZA								
AUZOA	2009 LU	2009 LUE	2009	HAPO 2010 LU	HAPO 2010 LUE	HAPO 2010	2020 LU	2020 LUE	2020
16. Miramon - Zorroaga (MZ)	508	19	527	309	0	309	817	19	836
17. Zubieta (ZU)	67	39	106	1.029	0	1.029	1.096	39	1.135
ENKLABEA									
18. Landarbaso (LA)	0	9	9	0	0	0	0	9	9
19. Urdaburu (Oberan) (UR)	0	0	0	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	82.635	804	83.439	14.398	0	14.398	97.033	804	97.837
20. Artikutza (AR) Etxaldea									

2.5.3.- JARDUERA EKONOMIKOAK

Hiriko JARDUERA EKONOMIKOKO eremutat jotzen dira, hain zuzen, bai industria instalazioak, bai hirugarren sektoreko instalazioak. Jarduera ekonomikoetara bideratutako instalazio horiek modu irregularrean daude kokatuta, hiriaren periferian, eta HIRU ARDATZ edo korridore hauetan zehar:

- 1) Hego-mendebaldeko (SW) Hiri Inguruko Korridorea, Añorga errekaen ibarrekoa eta Ibaetako ibarrekoa: Antigua (AO), Añorga (AÑ) eta Lasarte, Igaran (IB) luzakin bat duela.
- 2) Hego-ekialdeko (SE) Hiri Inguruko Korridorea, Urumea ibaiaren ibarrekoa: Martutene (MA) eta Astigarraga, 27 poligonoan nukleo nagusi bat duela.
- 3) Ekialdeko (E) Korridore Submetropolitarra: Miracruz (MB) Gaietetik Buenavistara (AL): Altzan (AL) nukleo nagusi bat duela.

Jarduera ekonomikoen eremu hau GERRIKO periferiko baten parte da; garai batean industrialak zen, eta gaur egun mistoa, hots, industrialak zein hirugarren sektorekoa. Honako hauek osatzen dute:

- a) Pasaia-eremuko eremu mugakideak: Herrera, Altza, Papin, Landarro (AL).
- b) Astigarraga-Hernanitik hurbileko eremuak: Antzita, Torrua Zahar I eta II eta Sarrueta (MA).
- c) Miramongo (MZ) Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea.
- d) Lasarte eta Usurbildik hurbil dauden eremuak: Cementos Rezola, Errekalde eta Belartza (AÑ).
- e) Hego-ekialdeko eta -mendebaldeko Hiri Inguruko Korridoreko eremuak: Igara, Infernua eta Zuhatzu.

Planoan industria instalazio horiek ezarrita, bi ardatz sortzen dira: ardatz bat NE-SW norabidean, eta NW-S-SE norabidean bestea. Nabarmenezkoa da, halaber, eskualdeko izaera dutela; nola daukaten kokaguneagatik, hala Donostiatik hurbil dauden industria nukleoen osagarri direlako (Usurbil, Lasarte, Hernani, Astigarraga, Pasaia eta Erreterria). Hirian jarduera ekonomikoetara bideratutako guztizko eraikigarritasuna 2.400.000 m²(t) ingurukoa da, eta 2020rako aurreikuspena, berriz, beste 1.200.000 m²(t) berri inguru gehiagokoa. Hala, aurreikusitako data horretarako, guztira, 3.600.000 m²(t) inguru izango dira.

Industria jarduerarekin batera, nabarmenezkoa da, inolako zalantzarik gabe, hirugarren sektorea ere. Donostiako biztanleriaren zatirik handienak baitihardu horretan. Sektore horrek, kasu askotan, hiri bilbean ere badu bere isla.

Jarduera ekonomikoen koadroa, auzoen eta enklabeen arabera, 2010eko Donostiako HAPOn oinarrituta.

JARDUERA EKONOMIKOAK	M ² ERAIKIAK		
AUZOA	2009AN, LEHENDIK ZEUDENAK	BERRIA, 2010EKO HAPO	2020RAKO AURREIKUSITAKOA
1. AIETE (AI)	45.870	7.153	53.023
2. ALTZA (AL)	100.707	177.018	277.725
3. AMARABERRI (AM)	208.769	21.814	230.583
4. ANTIGUA - ONDARRETA (AO)	156.137	5.495	161.632
5. AÑORGA (AÑ)	185.269	119.754	305.023
6. ATEGORRIETA - ULIA (AU)	40.491	4.396	44.887

JARDUERA EKONOMIKOAK	M ² ERAIKIAK		
AUZOA	2009AN, LEHENDIK ZEUDENAK	BERRIA, 2010EKO HAPO	2020RAKO AURREIKUSITAKOA
7. ERDIALDEA (ER)	469.737	14.532	484.269
8. EGIA (EG)	96.015	11.500	107.515
9. GROS (GR)	211.727	12.660	224.387
10. IBAETA (IB)	288.881	96.362	385.243
11. IGELDO (IG)	6.456	0	6.456
12. INTXAURRONDO (IN)	110.393	0	110.393
13. LOIOLA (LO)	24.708	15.105	39.813
14. MARTUTENE (MA)	153.425	221.753	375.178
15. MIRACRUZ - BIDEBIETA (MB)	57.785	1.395	59.180
16. MIRAMON - ZORROAGA (MZ)	152.746	125.501	278.247
17. ZUBIETA (ZU)	27.258	338.243	365.501
ENKLABEA			
18. LANDARBASO (LA)	197	0	197
19. URDABURU (OBERAN) (UR)	0	0	0
URBANIZAEZINA	48.761	0	48.761
GUZTIRA, DONOSTIA	2.385.332	1.172.681	3.558.013
20. ARTIKUTZA (AR) ETXALDEA			

2.5.4.- EKIPAMENDUAK

2.5.4.1.- EKIPAMENDU EREMU NAGUSIAK

Donostia hiriak ekipamendu handiko hainbat eremu ditu, eta horien jardun eremua toki mailatik harago doa. Honako hauek dira 5 ekipamendu eremu garrantzitsuenak:

1) HIRI NAGUSIA.

HIRI NAGUSIKO ekipamendu eremuak honako ekipamendu hauek ditu, besteak beste:

1.1) Donostiako Udala.

Donostia hiriak lorategi, berdegune eta hiri parke ugari ditu bere hiri ingurunean. Gainera, hainbat eremu natural ditu hiriaren periferian, landa ingurunean eta lurzoru urbanizaezineko ingurunean; bai eta Ubarburuko (Oberan) enklabea ere, Aiako Harria Parke Naturalaren mugen baitan kokatutakoa.

Berdeguneen honako banaketa hau egin daiteke hirian:

1) PARKE HANDIAK

2. PARKE HANDIAK			
	AUZOA	TITULARRA	DATUAK
2.1 AIETEKO PARKEA	AI	Donostiako Udala	Aieteko KE
2.2. ARBAIZENEA	AI	Donostiako Udala	Urbanizatu gabe
2.3 LAUAIZETA	AL	Donostiako Udala	Partekatua
2.4. ARABA	AM	Donostiako Udala	Hirikoa
2.5. MIRAMAR	AO	Donostiako Udala	Miramar Jauregia
2.6. ULIA	AU	Donostiako Udala	Aterpetxea-Uso tiroketa
2.7. URGULL	ER	Donostiako Udala	Motako gaztelua
2.8. KRISTINAENEA	EG	Donostiako Udala	Ingurumen baliab. zentroa
2.9. AMETZAGAÑA	IN	Donostiako Udala	Ametzagañako gotorlekua
2.10. MIRAMON	MZ	Donostiako Udala	Katzola kalea

2) HIRIKO PARKEAK.

1. HIRIKO PARKEAK			
	AUZOA	TITULARRA	DATUAK
1.1. BASOERDI	AI	Donostiako Udala	Hirikoa
1.2. DAMAZELAI	AI	Donostiako Udala	Hirikoa
1.3. GUARNIZO	AI	Donostiako Udala	Hirikoa
1.4. LUIS VILLASANTE	AI	Donostiako Udala	Hirikoa
1.5. MELODI	AI	Donostiako Udala	Hirikoa
1.6. OTXANDA	AI	Donostiako Udala	Hirikoa
1.7. SERAFIN BAROJA	AI	Donostiako Udala	Hirikoa
1.8. PUIO	AI	Donostiako Udala	Hirikoa
1.9. ESKALANTEGI	AL	Donostiako Udala	Hirikoa
1.10. ESTIBAUS	AL	Donostiako Udala	Hirikoa
1.11. HARRIA	AL	Donostiako Udala	Hirikoa
1.12. LARRATXO	AL	Donostiako Udala	Hirikoa
1.13. AITZOL	AM	Donostiako Udala	Hirikoa
1.14. AMAIUR	AM	Donostiako Udala	Hirikoa
1.15. J. C. MARTIARENA ETA L. IGLESIAS	AM	Donostiako Udala	Hirikoa
1.16. ERROTA BERRI	AM	Donostiako Udala	Hirikoa
1.17. MENCHU GAL	AM	Donostiako Udala	Hirikoa
1.18. OROIMENA	AM	Donostiako Udala	Hirikoa
1.19. ARBIZKETA	AO	Donostiako Udala	Hirikoa
1.20. ONDARRETA	AO	Donostiako Udala	Hirikoa
1.21. ZUBIMUSU	AO	Donostiako Udala	Hirikoa
1.22. MARITXU GULER	AU	Donostiako Udala	Hirikoa
1.23. ALDERDI EDER	ER	Donostiako Udala	Hirikoa
1.24. BERIO KIROL	IB	Donostiako Udala	Hirikoa
1.25. IBAETA	IB	Donostiako Udala	Hirikoa
1.26. KOLDO MITXELENA	IB	Donostiako Udala	Hirikoa
1.27. MARBIL	IB	Donostiako Udala	Hirikoa

1. HIRIKO PARKEAK

	AUZOA	TITULARRA	DATUAK
1.28. MIGUEL DE UNAMUNO	IB	Donostiako Udala	Hirikoa
1.29. ORIO	IB	Donostiako Udala	Hirikoa
1.30. ALLICE GULICK	IN	Donostiako Udala	Hirikoa
1.31. AMAIA	IN	Donostiako Udala	Hirikoa
1.32. ARKAZIETA	IN	Donostiako Udala	Hirikoa
1.33. CASTELAO	IN	Donostiako Udala	Hirikoa
1.34. ETZIETA	IN	Donostiako Udala	Hirikoa
1.35. FRANCISCO ESCUDERO	IN	Donostiako Udala	Hirikoa
1.36. OTXOKI	IN	Donostiako Udala	Hirikoa
1.36. SIUSTEGI	IN	Donostiako Udala	Hirikoa
1.38. ZILEGI BASO	IN	Donostiako Udala	Hirikoa
1.39. MARIE CURIE	MA	Donostiako Udala	Hirikoa
1.40. DOLORES IBARRURI	MB	Donostiako Udala	Hirikoa
1.41. SALVADOR ALLENDE	MB	Donostiako Udala	Hirikoa
1.42. LASTUENE	MZ	Donostiako Udala	Hirikoa

3) LANDA PARKEAK ETA NATURGUNEAK**LANDA PARKEAK ETA NATURGUNEAK**

	AUZOA	AZALERA	DATUAK
3.1 HIRIAREN PERIFERIAKO PARKEAK EDO LANDA PARKEAK			
3.1.1 MENDIZORROTZ	IG	2,38 km ²	hmax=416 m
3.1.2 ULIA	AU	3,44 km ²	hmax=234 m
3.1.3 LAUAIZETA	AL	3,08 km ²	hmax=260 m
3.1.4 ORIAMENDI	MZ	0,07, km ²	hmax=188 m
3.1.5 UNANUE	AÑ	0,69, km ²	hmax=150 m
3.1.6 ARZABALETA	ZU	0,32, km ²	hmax=300 m
3.2 NATURGUNEAK			
3.2.1 URDABURU (OBERAN), AIAKO HARRIA PN	UR	2,13 km ²	Parke Naturala

2.6.- ONDARE ERAIKIA

Donostia hiria ingurune natural pribilegiatu batean dago kokatuta, eta ezin konta ahala eraikin eta elementu interesgarri daude bertan, ingurune hori osatu eta goratzen dutenak. Hiri paisaia eta paisaia natural hori nabarmentzeko eta babesteko, hiriak, indarrean duen HAPOren bitartez, kulturaren ikuspegitik interesekoak diren ondasunak eta elementuak gordetzea du bere helburuen artean

2.6.1.- KATALOGATUTAKO ELEMENTUAK**2.6.1.1.- HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN (HAPO) KATALOGOA**

Indarrean dagoen HAPOk, gorde edo babestu beharreko elementuak askotarikoak direnez, honako ondasun eta elementu mota hauek bereizten ditu:

1) Interes historiko-artistiko-arkitektonikoko espazio eta elementuak.

Lehenengo talde honetan, era berean, beste sailkapen bat egiten da, elementuen interes mailaren arabera. Hala, elementuak lau kategoriatan daude sailkatuta: I., II., III. eta IV. maila. Zehazki, I. maila da interes maila handienekoa eta, horrenbestez, baita babes maila handienekoa ere.

2) Interes arkeologikoko espazioak eta elementuak.

Bigarren talde honetan, berriz, bere horretan eremu arkeologikoak direnak eta ustez arkeologikoak diren eremuak sailkatzen dira. Lehenengoak dira maila handiagokoak.

3) Landaredi interesgarriko habitatak.

Atal honetan, interesgarriak diren hiriko zuhaitziak, parkeak eta lorategiak daude bilduta.

HAPOn ageri da deskribatuta katalogatutako elementu guztien zerrenda zehatza. Alabaina, hona hemen babes handieneko sailkapenean txertatutako eraikinen eta elementuen zerrenda

I. BABES MAILAN SARTUTAKO ERAIKINEN ETA ELEMENTUEN ZERRENDA		
ZK.	ERAIKIN EDO ELEMENTU BABESTUA	HIRIGINTZA ESPARRUA/ LURZORU URBANIZAEZINA
1.1	Gas-fabrika (Errondo, zk.g.)	AM.09 Morlans Behera
1.2	Miramar Jauregia (Miraconcha 48)	AO.01 Miramar- Ondarreta
1.3	Satrustegi dorrea (Marbil bidea 6)	AO. 13 Satrustegi dorrea
1.4	Okendo almirantearen etxea (Zemoriya 10)	AU.01 Manteo
1.5	La Cumbre (Aiete 2)	AY.02 Mirakontxa
1.6	Aieteko Jauregia (Aiete 65)	AY.09 Aieteko Jauregia
1.7	Mota Gaztelua (Urgull mendia. Parte zaharreko multzoa)	CE. 01 Urgull -Santa Klara
1.8	Santa Maria eliza (Abuztuaren 31ko kalea.Parte Zaharreko multzoa)	CE.03 Parte Zaharra
1.9	San Telmo museoa(Zuloaga 1. Parte Zaharreko multzoa)	CE.03 Parte Zaharra
1.10	Konstituzio plaza (Konstituzio plazako multzoa / Parte zaharreko multzoa)	CE.03 Parte Zaharra
1.11	San Bizente eliza (Narrica 26. Parte zaharreko multzoa)	CE.03 Parte Zaharra
1.12	Parte Zaharra (Multzoa)	CE.03 Parte Zaharra
1.13	Artzai Onaren katedrala (Artzai Onaren multzoa)	CE. 04 Zabalgunea
1.14	Udaletxea (Ijentea 1)	CE. 04 Zabalgunea
1.15	Klub Nautikoa (Ijentea 9)	CE. 04 Zabalgunea
1.16	Kale Berriko trinketa	GR.02 Gros(II)
1.17	Tolare baserria (Almortza, zk.g.)	IB. 02 Tolare
1.18	Intxaurrondo baserri (Intxaurrondo 62)	IN.02 Intxaurrondo Zaharra
1.19	Parada baserria (Parada baserria 8)	IN.02 Intxaurrondo Zaharra
1.20	Patxillardegi baserria(Hipika bidea 4)	LO.06 Txomin Enea
1.21	Katxola Berri baserria(Paraiso 22)	MZ.0S Miramón
1.22	Aizpurua baserria (Uribitarte 15. Learritza)	ZU.01 Zubietako Kaskoa
1.23	Zuatsu baserria (Aingeru Zaindaria 33)	Urbanizaezina (Ibaeta)
1.24	Aristegieta baserria (Pilotegi 58-60)	Urbanizaezina (Igeldo)
1.26	Aliri baserria(Aliri bidea, 40)	Urbanizaezina (Zubiet)
1.27	Berridi baserria (Berridi bidea, 30)	Urbanizaezina (Zubiet)
1.28	Santiago bidea	---

2.6.1.2.- ERAIKITAKO HIRIGINTZA ONDAREA BABESTEKO PLAN BEREZIA (EHOBPB).

Indarrean dagoen Eraikitako Hirigintza Ondarea Babesteko Plan Bereziak (EHOBPB), 2014ko otsailaren 27an onartutakoak eta HAPOn garapenean sustatutakoak, honako egiteko hauek ditu: batetik, eraikitako hirigintza ondarea osatzeagatik babestu beharrekoak diren hiriko eraikuntza eta urbanizazio elementuak eta eraikinak identifikatzea; eta, bestetik, elementu horien babes erregimena erabakitzea.

Hala, EHOBPBn xedatutakoarekin bat etorrira babestu beharreko elementuen zerrenda horrekin osatu dugu, hain zuzen, Donostia hirian Eraikitako Hirigintza Ondarearen Katalogoa. Katalogo honetan bildutako elementuak sei mailatan daude sailkatuta:

1) A MAILA. SAILKATUTAKO KULTURA ONDASUN edo Inbentarioan Jasotako Kultura Ondasun izenekoak biltzen ditu, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearekin bat etorrira; edo, bestela, KULTURA INTERESEKO ONDASUNAK (KIO), Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearekin bat etorrira, edo horri buruz abiarazitako txostena dutenak. Bertan barne hartzen dira nola eraikinak, hala multzoak, edo bestelako elementu mota batzuk.

2) B MAILA. Banakako balioa aitortzen zaien elementu eraikiak dira; nola jatorrizko proiektioari dagokionez, hala gerora egindako berregokitzeei dagokionez, betiere, Ordenantza Orokor hauetan edo dagozkion Ordenantza Partikularretan adierazitako baldintzetan. Babestu behar diren zatiak dituzte kanpoko inguratzailean, bai eta barnealdean ere. Tartean daude hainbat eraikuntza, hala badagokio eurekin lotutako beste elementu mota batzuekin osatuak. Elementu osoak zein euren zati batzuk babestu ahal izango dira.

3) C MAILA. Banakako balioa aitortzen zaien elementu eraikiak dira; nola jatorrizko proiektioari dagokionez, hala gerora egindako berregokitzeei dagokionez, betiere, Ordenantza Orokor hauetan edo dagozkion Ordenantza Partikularretan adierazitako baldintzetan. Babestu behar diren zatiak dituzte kanpoko inguratzailean. Tartean daude hainbat eraikuntza, hala badagokio eurekin lotutako beste elementu mota batzuekin osatuak. Elementu osoak zein euren zati batzuk babestu ahal izango dira.

4) D MAILA. Maila honetan bildutako elementu eraikien kanpoko irudi arkitektonikoan (jatorrizkoa edo/eta gaur egungoa) kokatuta dauden hiri ingurunearekin lotuta babesteko modukoak diren balioak aitortzen dira; betiere, honako Ordenantza Orokor hauetan edo dagozkion Ordenantza Partikularretan xedatutako baldintzetan eta adierazitako irismenarekin. Tartean daude hainbat eraikuntza, hala badagokio eurekin lotutako beste elementu mota batzuekin osatuak. Gaur egungo osaera edo irudi orokorrekin lotuta (jatorrizko osaerari dagokiona edo babesteko beharra duten gerora egindako esku-hartzeen ondorioak diren dagokiona) eta ingurune horretan duen sinbologiarekin lotuta babestuko dira, eta ez banakako balio zehatzekin lotuta. Elementu osoak zein euren zati batzuk babestu ahal izango dira.

5) E MAILA. Plan Berezi honek babesten dituen eta A mailan txertatuta ez dauden multzoak barne hartzen ditu, zeintzuei taldeko balioak aitortzen zaizkien, Ordenantza Orokor hauetan edo dagozkion Ordenantza Partikularretan xedatutako baldintzetan eta adierazitako irismenarekin.

6) F MAILA. Elementu edo espazio eraikiak edo urbanizatuak barne hartzen ditu, edo horietan txertatutako zatiak, baldin eta babestu behar direla justifikatzen duten balioak badituzte, eta A mailan txertatuta ez badaude. Honako hauek, hain zuzen: balio horiek dituzten lorategiak, parkeak, plazak, espazio urbanizatuak, zubiak, pilotalekuak eta hiri altzariak, besteak beste.

Aipatutako EHOBPB horretan dago jasota elementu guztien zerrenda zehatza, mailetan sailkatutakoa, bai eta dagozkien babes baldintza guztien deskribapena ere.

EHOBPB	
A MAILA	
KIO	AUZO
01 SAN VICENTE ELIZA	ER
02 ANDRE MARIA ELIZA	ER
03 KLUB NAUTIKOA	ER
04 ARTZAIN ONAREN KATEDRALA	ER
05 KONSTITUZIO PLAZAKO MULTZOA	ER
06 MOTAKO SANTA GURUTZE GAZTELUA	ER
07 MIRAMAR JAUREGIA ETA PARKEA	AO

EHOBPB	
A MAILA	
KIO	AUZOA
08 SATRUSTEGI DORREA	AO
09 UDALETXEA	ER
10 KATXOLA BASERRIA	MZ
11 PARADA BASERRIA	IN
12 SAN TELMO MUSEOA (STM)	ER
13 OKENDO ALMIRANTEAREN ETXEA	AU
14 AIZPURUA BASERRIA	ZU
15 ALIRI BASERRIA	ZU
16 INTXAURRONDO BASERRIA	IN
17 ARISTEGIETA BASERRIA	IG
18 TRINKETE KALE BERRIA	GR
19 ZUHATZU BASERRIA	IB
20 BERRIDI BASERRIA	ZU
21 PATXILLARDEGI BASERRIA	LO
22 TOLARE BASERRIA	IB
23 GAS FABRIKA	AM
24 LA CUMBRE	AI
25 AIETEKO PARKEA ETA JAUREGIA	AI
26 DONEJAKUE BIDEA	-
27 OKENDOKO HIRI MULTZOA	ER
28 VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA	ER
29 MARIA CRISTINA HOTELA	ER
30 ZURRIOLAKO ZUBIA	ER
31 IGELDOKO SAN PEDRO ELIZA	IG
32 ALAMANDEGI BASERRIA	ZU
33 MENDIZORROTZEKO GOTORLEKUA	IG
34 ZUBIETAKO SANTIAGO ELIZA	ZU
35 ZUBIETAKO PILOTALEKUA	ZU
36 AMEZTI ZAR BASERRIA	IG
37 ARTZABAETA BASERRIA	IG
38 LA PERLA ERAIKINA	ER
39 DIN DIN ITURRIA	IG
40 MUÑOZABAL BASERRIA	IB
41 A. OKENDO ESKULTURA	ER
42 TXERRITXUTU-MUNIOTA BIDEA (IGELDO)	IG
43 ULIAKO BIDEA ETA GALTZADA	AU
44 IGELDOKO FUNIKULARRA ETA JOLAS PARKEA	IG

2.6.2.- ERAIKIN BEREZIAK

ERAIKIN BEREZIAK	
MOTA	ERAIKINA
KANPOKO IGOGAILUA	1
	Hernaniko geralekuko igogailua
ETXEBIZITZA BLOKEA	1
	Montesol taldea
MERKATARITZA GUNEAK	6
	San Martin Azoka
	La Bretxa eta zinemak
	H&M
	Garbera
	Urbil Merkataritza Gunea
	Decathlon
KULTURUNEAK	3
	Kristinaenea jauregia
	KURSAAL Biltzar Jauregia eta Auditoriuma
	Victoria Eugenia Antzokia
IKERKETA ZIENTIFIKOKO ZENTROA	1
	NANOGUNEA
OSASUN ETXEAK	13
	Gipuzkoako Poliklinika
	San Joan Jainkoarena Ospitalea (Psikiatrikoa)
	Donostia Ospitalea
	Usurbilgo sendategia (Psikiatrikoa)
	ONKOLOGIKOA. Kutxaren Institutu Onkologikoa
	GIPUZKOA (Donostia Ospitalea)
	PSIKIATRIA (Donostia Ospitalea)
	ARANTZAZU (Donostia Ospitalea)
	AMA-HAURRENTZAKOA (Donostia Ospitalea)
	AMARA (Donostia Ospitalea)
	LARRIALDIAK, HAURTZAINDEGIA, KAFETEGIA
	BIODONOSTIA (Donostia Ospitalea)
	MANTENTZEA (Donostia Ospitalea)
IRAKASKUNTZA	6
	A.E.G. ARROKA, SL Ikastegia
	Carlos Santamaria Zentroa
	Ignacio M ^a Barriola Eraikina (Ikasgelategia)
	Mariaren Konpainia (San Bartolome)
	Manuel Agud Querol egoitza eta aterpetxea
	Unibertsitate Eskola Politeknikoa
GARAIERA HANDIKO ERAIKINAK	53
	Serapio Muxika pasealekua, 41
	Juan Carlos Guerra kalea, 10
	Zarautz kalea, 80

ERAIKIN BEREZIAK	
MOTA	ERAIKINA
	Juan Carlos Guerra kalea, 19
	Larratxo pasealekua, 32
	Larratxo pasealekua, 24
	Julio Urkixo pasealekua, 38
	Julio Urkixo pasealekua, 8
	Julio Urkixo pasealekua, 12
	Atotxa dorrea: Mandasko Dukearen pasealekua, 30
	Zumardi pasealekua, 14
	Katalina Erauso kalea, 25
	Katalina Erauso kalea, 22
	Tolosa hiribidea, 95
	Tolosa hiribidea, 119
	Madril hiribidea, 34
	Madril hiribidea, 32
	Tolosa hiribidea, 111
	Julio Urkixo pasealekua, 28
	Serapio Muxika pasealekua, 39
	Amezketarren kalea, 21
	Serapio Muxika pasealekua, 29
	Serapio Muxika pasealekua, 23
	Serapio Muxika pasealekua, 33
	Julio Urkixo pasealekua, 32
	Serapio Muxika pasealekua, 3
	Julio Urkixo pasealekua, 44
	Juan Carlos Guerra kalea, 20
	Julio Urkixo pasealekua, 4
	Serapio Muxika pasealekua, 18
	Juan Carlos Guerra kalea, 14
	Serapio Muxika pasealekua, 25
	Julio Urkixo pasealekua, 14
	Larratxo pasealekua, 13
	Larratxo pasealekua, 20
	Larratxo pasealekua, 26
	Zedro plaza, 2
	Serapio Muxika pasealekua, 14
	Julio Urkixo pasealekua, 34
	Karlos I.aren hiribidea, 34
	Karlos I.aren hiribidea, 36
	Errotaburu pasealekua, 1
	Larratxo pasealekua, 94
	Larratxo pasealekua, 42
	Altza pasealekua, 22

ERAIKIN BEREZIAK	
MOTA	ERAIKINA
	Txapiñene kalea, 1
	Larratxo pasealekua, 22
	Txirrita pasealekua, 70
	Txirrita pasealekua, 72
	Larratxo pasealekua, 16
	Larratxo pasealekua, 30
	Pablo Gorosabel kalea, 1
	Paloma Miranda plaza, 3
ERAIKIN INSTITUZIONALAK	6
	Martuteneko espetxea
	GSIN eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza (Podabines)
	Lan Mutualitateak (Podabines)
	Gonzalez Valles Jenerala Egoitza Militarra (Uba)
	Gonzalez Valles Jenerala Egoitza Militarra (Uba)
	Udaletxea
MINUSBALIASUNA DUTENENTZAKO HEZKUNTZA BEREZIA	3
	Villa Uliazpi Etxea (Uliazpi Fundazioa)
	Villa Josetxo Enea Etxea (Uliazpi Fundazioa)
	Atzegi
ENPRESAK	7
	Cintas Adhesivas Ubis
	Michelin (Lasarte)
	Iberdrola
	Zuhatsu poligonoa
	Victorio Luzuriaga-Usurbil, SA
	San Markosko zabortegia
	Repsol, PGL biltegiatzeko zentroa
ENPRESA KIMIKOAK	3
	KEM ONE (garai bateko Arkema, Atofina)
	EHK-Elektrokimika (Hernani)
	IGEPK SA
BURDINBIDEAK	3
	RENFE, Intxaurrendoko geltokia
	S-447 TRENAK
	RENFE, Groseko geltokia
OSTATUAK	3
	La Concha Ostaturia
	Aleman Ostaturia
	Lasa Ostaturia
HOTELAK	15
	Amara Plaza Hotela

ERAIKIN BEREZIAK	
MOTA	ERAIKINA
	Orly Hotela
	Londres Hotela
	Codina Hotela
	Bugati Hotela (OSATZEKO)
	Anoeta Hotela (OSATZEKO)
	Zaragoza Plaza Hotela (OSATZEKO)
	La Galeria Hotela (Ondarreta) (OSATZEKO)
	Ibiltze Hotela (OSATZEKO)
	Monte Ulia Hotela (OSATZEKO)
	Astoria Hotela (OSATZEKO)
	Uba Aterpetxe-Hotela
	NH Aranzazu Hotela
	Maria Cristina Hotela
	Zenit Hotela
BURDINBIDE AZPIEGITURAK	2
	RENFE, DONOSTIAREN ERDIGUNEA
	ADIF-RENFE, DONOSTIAREN ERDIGUNEA
KIROL INSTALAZIOAK	4
	Anoeta Estadioa
	Etxadi kiroldegia
	Yoldi kiroldegia
	Hegalak Kirol Zentroa
ERABILERA ANITZEKOAK	1
	Donostia Arena 2016
BULEGOAK	5
	Banco Guipuzcoano
	CORREOS, Probintziako Buruzagitza
	Igarako Posta Tratamendurako Zentroa (OSATZEKO)
	Kutxa, Getaria kalea, 7-9 (OSATZEKO)
	MIRAMONGO PARKE TEKNOLOGIKOA (4c100 eraikina)
APARKALEKUAK	36
	Loreako aparkalekua. 80., 86., 90. eta 112. atariak.
	Alderdi Eder
	Antiguaberri
	Atotxa
	Boulevard
	M. Cantabria
	Kontxa
	Easo
	Mirabeak
	Kursaal
	Lugaritz

ERAIKIN BEREZIAK	
MOTA	ERAIKINA
	Mª Reina
	Okendo
	Katalunia plaza
	Atotxa dorrea
	Nafarroa Behere plaza
	Aita Vinuesa plaza
	Zuhaizti plaza
	Zuloaga plaza
	Artzain Onaren plaza
	Arcco
	Ikasketen plaza
	Pio XII.aren plaza
	Sahats plaza
	Armeria plaza
	Donostiako Kofradien plaza
	Etxeberritarren plaza
	Oleta plaza
	Merkatari plaza
	Podabines
	Mandasko Dukearen pasealekua
	Elizasu kalea
	DonostiBusen kotxetegiak
	Txofre
	Robotizatutako aparkalekua
MERKATARITZA PORTUA	1
	Pasaiaiko Portua
ZAHAR EGOITZAK	9
	Lamorous Zentro Gerontologikoa
	Berra Egoitza Zentroa
	Nuestra Señora de la Paz Egoitza
	Alai Etxe Egoitza
	Berio Egoitza
	Ernio Egoitza
	Pagoeta Egoitza
	J. REZOLA ZENTRO GERONTOLOGIKOA
	CARE IZA
GIZARTE ZERBITZUAK	13
	Gizarte Ongizatea (Urdaneta)
	Gizarte Ongizatea (J. Goikoa)
	Gizarte Ongizatea (J. Urkixo)
	Abegi Etxea (Mons)
	Gizarte Ongizatea (Larratxo)
	Gizarte Ongizatea (Konstituzio plaza)

ERAIKIN BEREZIAK	
MOTA	ERAIKINA
	Gizarte Ongizatea (Zarategi)
	Altzako zahar etxea (S. Martzial)
	Larratxoko zahar etxea
	Bidebietako zahar etxea
	UBA Egoitza
	Amaraberriko zahar etxea
	Gizarte Ongizatea (DONOSTIGAS)
BIDEGORRIKO TUNELA	1
	Morlanseko bidegorria
ERREPIDEKO TUNELA	1
	Zorroagako tunela
KOLEKTOREKO TUNELA	1
	San Pedroko tunela
BURDINBIDEKO TUNELAK	14
	Anoetako geltokia
	Amara-Loiola
	Loiola-Herrera, Loiolatik (2. tunela)
	Herrera-Loiola, Herreratik (2. tunela)
	Herrera-Buenavista-Pasaia (3., 4. eta 5. tunelak)
	Pasaia (6. tunela)
	Lugaritz-Amarako tunela
	Molinao-Erretereria (7. tunela)
	Bilbo-Donostia linea (San Estebaneko tunela)
	Bilbo-Donostia linea (Txikiardiko tunela)
	Bilbo-Donostia linea (Aginagako tunela)
	Bilbo-Donostia linea (Irubideko tunela)
	Donostialdeko metroa, Loiola-Herrerako tunela
	Donostialdeko metroa, Herrera-Altza zatia
BIDEAK	1
	Donostiako bigarren saihesbidea
EREMU BEREZIAK	6
	ULIA MENDIA
	URUMEA IBAIAREN SARBIDEAK
	ERREPIDEAK
	DONOSTIALDEKO PLANOAK
	INDUSTRIALDEAK
	GARAI BATEKO LUZURIAGA FABRIKA (Hidr. eta BR)
219	

3.1.- METODOLOGIA

Kapitulu honetan, lehenik eta behin, Donostia udalerriko ARRISKU posibleak IDENTIFIKATU, ANALIZATU eta EBALUATUKO dira eta, gero, horien ondorioz, haien SAILKAPENA egingo da. Sailkatu ondoren, PREBENTZIO neurriak identifikatuko dira, gerta litekeen fenomenoren bati aurrea hartzeko asmoz, prozesua ahal den heinean saihesteko, kontrolatzeko edo arintzeko. Azkenik, gertakari espezifiko bat izaten denerako antolatutako PLAN-GINTZA deskribatuko da.

ARRISKUAz haxe ulertzen da: fenomeno edo gertakari jakin bat gertatzeko probabilitatea, bere izaeraren edo intentsitatearen eta adierazitako kalteberatasunaren ondorioz, pertsonengan efektu kaltegarriak eta/edo ondasun materialen edo ingurumen ondasunen galera eragin ditzakeena. Hizkera arruntean haxe ulertzen da arriskuaz: pertsonengan, ondasunetan edo ingurumenean kalteak eragin ditzakeen fenomeno, gertaera edo giza jarduera.

Honako hau da arriskuen identifikazio, analisi, ebaluazio, sailkapen, prebentzio eta plangintzarako erabilitako metodologia:

3.1.1.- ARRISKUEN IDENTIFIKAZIOA

Lehenik eta behin, arriskuak identifikatzen dira. Hala, arriskuak hiru talde handitan banatzen dira: **NATURALAK (AN)**, **TEKNOLOGIKOAK (AT)** eta **ANTROPIKOAK (AA)**.

ARRISKU NATURALAK (AN) arriskutsuak izan daitezkeen prozesu edo fenomeno naturalen ondoriozkoak dira. **ARRISKU TEKNOLOGIKOAK (AT)** istripu teknologiko edo industrialek eta zerbitzu eta azpiegituretako akatsek eragindakoak dira. Eta, azkenik, **ARRISKU ANTROPIKOAK (AA)** zenbait giza jarduerak eragindakoak dira. Arrisku talde horietako bakoitza, aldi berean, azpildetan banatzen da haien jatorriaren eta izaeraren arabera. Hala, dokumentu honek arriskuen eskema orokor hau hartu du laneko oinarri gisa:

1) ARRISKU NATURALAK (AN).

1.1) Arrisku geologikoak.

1.1.2) Endogenoak (barne jatorria).

1.1.2.1) Sismikoa (SIS).

1.1.2.2) Itsasikara.

1.1.2.3) Bolkanikoa.

1.1.3) Exogenoak (gainazaleko jatorria).

1.1.3.1) Lurraren mugimenduak (LUR).

1.1.3.2) Elurroldeak.

1.2) Arrisku meteorologiko edo klimatikoak (METEO).

1.2.1) Uholdeak.

1.2.1.1) Prezipitazio iraunkorrak eta/edo handiak (EUR).

1.2.1.2) Presa edo deposituen funtzionamendu desagokia, matxura larria edo haustura.

1.2.2) Elurteak (ELU).

1.2.3) Haize zakarrak (HZ).

1.2.4) Muturreko tenperaturak.

1.2.4.1) Izozteak/Muturreko tenperatura baxuak (TH).

1.2.4.2) Muturreko tenperatura altuak (TB).

1.2.4.3) Tenperatura altu iraunkorrak (TB).

1.2.5) Itsaso-kostaldekua (ITS).

1.2.5.1) Ekaitzak.

1.2.5.2) Galernak.

1.2.6) Trumoi ekaitzak eta tximistak (EKT).

1.2.7) Lehortekak (LHR).

1.3) Arrisku biotikoak.

1.3.1) Izurriak (IZT).

2) ARRISKU TEKNOLOGIKOAK (AT).

2.1) Arrisku Kimikoak (K).

2.2) Gasolina zerbitzuguneen arriskuak (GZG).

2.3) Salgai Arriskutsuen Garraioaren Arriskua (SAGA).

2.3.1) Salgai Arriskutsuen errepideko garraioa (SAEG).

2.3.2) Salgai Arriskutsuen treneko garraioa (SATG).

2.3.3) Salgai Arriskutsuen itsasoko garraioa (Pasaiko portua).

- 2.4) Arrisku Nuklearra (N).
- 2.5) Arrisku Erradiologikoa (E).
- 2.6) Kutsadura Arriskua (KTS).
 - 2.5.1) Atmosferikoa.
 - 2.5.2) Hidrikoa.
 - 2.5.3) Lurrekoa.
- 2.7) Oinarrizko Zerbitzuen Gabezia Arriskua (ZRB).
 - 2.7.1) Ur hornidura.
 - 2.7.2) Hondakin uren estolderia, hustuketa eta arazketa.
 - 2.7.3) Energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura.
 - 2.7.4) Argiteria publikoa.
 - 2.7.5) Semaforoak.
 - 2.7.6) Telefonía eta telekomunikazioa.
 - 2.7.7) Erregai-hornidura (gasa).
 - 2.7.8) Hondakinen kudeaketa.
 - 2.7.9) Elikagaien hornidura (merkatuak).
- 2.8) Komunikazio eta Garraio Azpiegiturak kolapsatzeko arriskua (AZP).
 - 2.7.1) Errepide sarea.
 - 2.7.2) Trenbide sarea.
 - 2.7.3) Aireko sarea (PSISZ heliazalera).
 - 2.7.4) Itsasoko sarea (Donostiako kaia).

3) ARRISKU ANTROPIKOAK (AA).

- 3.1) Bidaiari Garraioaren Istripu Arriskua (BD).
 - 3.1.1) Garraiobideak.
 - 3.1.2) Biktima Anitzeko Ezbeharra (BAE).
- 3.2) Sute Arriskua (SUA).
 - 3.2.1) Eraikin zibiletako suteak.
 - 3.2.2) Sute industrialak.
 - 3.2.3) Basoko suteak.
 - 3.2.4) Garraioko suteak.
- 3.3) Arrisku Sanitarioak (OSN).
 - 3.3.1) Intoxikazio masiboak.
 - 3.3.2) Gaixotasunak, izurriak eta pandemiak.
- 3.4) Giza Kontzentrazioen Arriskua (JDT).
 - 3.4.1) Eremu irekiak.
 - 3.4.2) Establezimendu publikoak.
- 3.5) Ingurune Urtarreko Jardueren Arriskua (URA)
 - 3.5.1) Itsas ingurune jarduerak.
 - 3.5.2) Ibai ingurune jarduerak.
 - 3.5.3) Aisia-jarduerak.
 - 3.5.4) Kirol-proba handiak.
- 3.6) Ondare Historiko-Artistikoaren Arriskua (OND).
 - 3.6.1) Ondare higigarria.
 - 3.6.2) Ondare higiezina.

3.1.2.- KLIMA ALDAKETA: ARRISKU NATURALAK

ARRISKU NATURALEI buruz adierazi behar da hirirako oso arriskutsuak direla (uholdeak, itsas ekaitzak, haizeak, etab...), eta horietako askok lotura zuzena dutela KLIMA ALDAKETAREN fenomenoarekin.

Honela definitzen da klima aldaketa: munduko edo eskualdeko ESKALAN klimak bere historiarekiko egindako aldaketa. Aldaketa horiek denboraren hainbat eskalatan eta parametro meteorologiko guztien gainean gertatzen dira: tenperatura, presio atmosferikoa, prezipitazioak, hodeiak, etab... Teorian, kausa naturalen nahiz antropogenoen ondoriozkoak izan daitezke.

Klima aldaketa terminoa modu desegokian erabili ohi da gaur egun gertatzen ari diren klima aldaketak aipatzeko, hau da, BEROTZE GLOBALAREN sinonimo gisa. Bestalde, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzar-menak gizakiak eragindako aldaketa aipatzeko soilik erabiltzen du "klima aldaketa" terminoa. Berotze globalaz gain, klima aldaketak beste aldagai batzuetan ere aldaketak eragiten dituela ulertzen da, esaterako, eurietan eta euri ereduetan, hodeien estalduran eta sistema atmosferikoko gainerako elementuetan. Arazoaren konplexutasunak eta bere elkarrekintza anizkoitzek eragiten dute aldaketa horiek ebaluatzeko modu bakarra atmosferako eta ozeanoetako fisika simulatzen duten eredu konputazionalak edo modelizazioak erabiltzea izatea. Eredu horien izaera kaotikoak elkarren artean ziurgabetasun proportzio handia izatea eragiten du. Dena den, hori ez da oztopo ondorio ekonomikoak nahiz biologikoak izan ditzaketen etorkizuneko aldaketa esanguratsuak aurreikus-teko gai izateko.

Hala, klima aldaketari eta Donostian eta Euskadiko lurralde eremu zabalenean duen eraginari dagokienez, klima aldaketaren efektuarekin zerikusia duten hainbat azterketatan lortutako emaitzen ziurgabetasuna identifikatu ahal izan da. Horri esker, klima aldaketak arrisku naturaletan gaur egun izan dezakeen eragina kuantifika daiteke. Hala ere, kontuan izan behar dira azterketa zientifikoaren ondorioak eta, gure kasuan bereziki, EURI eta UHOLDEEN ondoriozko arriskuei, HAIZE zakarren ondoriozko arriskuei eta ITSASO-KOSTALDEKO arriskuei buruzko azterketen ondorioak.

Klima aldaketari eta hirian dituen eraginei dagokienez, Donostiako udalak Klima Aldaketara Egokitzeko sail arteko Batzorde Tekniko bat sortu du Europar Batasunaren ingurumen politiken esparruan. Batzordean hainbat udal zerbitzuek hartzen dute parte eta, Tecnalia enpresaren lankidetzarekin, HIRIA KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEKO PLANA egitea du xede.

3.1.3.- ARRISKUEN ANALISIA ETA EBALUAZIOA

Behin arriskuak identifikatuta, horien analisia eta ebaluazioa egin ahal izateko, bakoitzaren izaera baldintzatuko duten parametroak aztertuko dira.

ARRISKU MAILA gertatzeko PROBABILITATEAREN edo maiztasunaren arabera eta haiek eragin ditzaketen KALTEEN edo izan ditzaketen ondorioen arabera lortzen da. Hau da bere adierazpide matematikoa:

$$A = P \times k \times B$$

Non:

A = Arrisku maila.

P = Probabilitatea; non, $P=1/T$, eta T = gertakariaren errepikapena edo periodikotasuna.

k = Kalteberatasuna.

B = Ondasun kalteberaren balioa.

Modu sinpleagoan, honako hau da Arrisku Mailaren formula matematikoa:

$$\text{ARRISKUA} = \text{PROBABILITATEA} \times \text{KALTEA}$$

Honela definitzen da PROBABILITATEA: esperientziaren edo estatistikaren bidez gertakari jakin baten maiztasuna lortzeko metodoa. Gertakari horrek baldintza egonkorretan izandako emaitzak ezagutzen dira. Gertakari horiek aurreikusteko modukoak edo ez aurreikusteko modukoak izan daitezke.

AURREIKUSTEKO MODUKO gertakariak erregularitasunez izaten dira eta horien magnitudeak aztertu eta ebaluatu egin daitezke. Modu horretan, AZTERKETA ESTATISTIKOAK egin edo EREPIKATZE DENBORAK kalkula daitezke. Horrela, oinarritzko parametroak ebaluatu eta jakineko maiztasuna emango diote gertakariari, arrisku bakoitzaren probabilitate maila zehaztuz.

Bestalde, AURREIKUSTEKO MODUKOAK EZ DIREN gertakariaren kasuan, ez dago gertatuko direla adierazten duen aztarnarik edo gertakariaren intentsitatea ez da izaten espero zena. Kasu horietan ezin dira aztertu magnitudeak, ezta ebaluatu ere.

Plan honek honako lau (4) PROBABILITATE INDIZE (IP) hauek ezartzen ditu:

PROBABILITATE INDIZEA (PI)	PROBABILITATEA	ALDIA
1	Probabilitate oso gutxi	500 urte baino gehiago
2	Probabilitate gutxi	100 eta 500 urte artean
3	Probablea	10 eta 100 urte artean
4	Oso probablea	1 eta 10 urte artean

Bestalde, honela definitzen dira KALTEAK: gertakari batek pertsonengan, ondasun materialetan, naturan edo ingurumenean eragindako ondorio kaltegarriak, galerak edo gutxitzeak. Kalte horien maila eraginpeko komunitate edo zonaren kalteberatasunaren arabera eta ondasun kalteberaren balioaren arabera zehazten da.

Honela definitzen da KALTEBERATASUNA: gertatutako kalteen mota eta kantitatea zehazten dituen elementua. Komunitate baten urrakortasuna faktore fisiko eta sozialek zehazten dute, faktore ekonomikoak barne. Faktore horiek fenomeno arriskutsuaren ondorioz kalteak izateko suszeptibilitatea baldintzatzen dute.

Kalteberatasun hori, alde batetik, gertakariaren magnitudearen, larritasunaren eta iraupenaren baitan, lurralde

azaleraren baitan eta arriskuarekiko esposizio mailaren baitan egongo da eta, bestetik, aurre egiteko ahalmenaren baitan, erresistentziari, erreakzioari eta erantzunari dagokienez. Kalteak jasan ditzakeen zona baten eragin maila honako hauen arabera aldatzen da:

- 1) Biztanleria: demografia, dentsitatea (etxebizitza/Ha), biztanleriaren ezaugarriak, etab...
- 2) Eraikinak: eraikinen antzintasuna, etxebizitza kopurua, eraikuntza tipologia, etab...
- 3) Oinarrizko zerbitzuak: zerbitzuak (ur hornidura, saneamendua, gasa, energia elektrikoa, telekomunikazioa, etab...), ekipamenduak (sanitarioak, larrialdiak, suhiltzaileak, polizia, etab...) eta bide azpiegiturak (errepide garraioa, trena, airekoa, itsasokoa, etab...)
- 4) Produkzio eta zerbitzueterako instalazioak: industriak, merkatuak, biltegiak, merkataritza enpresak, etab...
- 5) Pilaketa publikoko lekuak: ikastetxeak, kiroldegia, zinemak, antzokiak, estadioak, merkataritza zentroak, etab...
- 6) Kultur ondarea: monumentuak, museoak, eraikin historiko-artistikoak, etab...
- 7) Natura ondarea: Zona babestuak, parkeak, kostaldeak, ingurumena, biodibertsitatea, etab...

Hala, kalteberatasuna fisikoa (giza kalteak, kalte materialak eta/edo ingurumen kalteak), kulturala (ondarea suntsitzea) eta sozioekonomikoa (produkzio ehuna suntsitzea) izan daiteke.

Alderdi kaltetu bakoitza kuantifikatzea eta, ondorioz, ondasun kalteberaren BALIOA kalkulatzeko, zenbait kasutan zaila da, ezinezkoa ez bada, zenbait kontzepturen balioaren zehaztugabetasunagatik.

Dena den, Plan honek bost (5) KALTE INDIZEA (KI) hauek ezartzen ditu:

KALTE INDIZEA (KI)	KALTE MAILA	KALTEAK
1	ARINA	Kalte material edo ingurumeneko kalte garrantzitsurik ez. Pertsona kalteturik ez.
2	BAXUA	Kalte material edo ingurumeneko kalte txikiak. Pertsona kaltetu gutxi, hildakorik ez.
3	ERTAINA	Kalte material edo ingurumeneko kalte garrantzitsuak. Pertsona kaltetu ugari, hildakorik ez.
4	ALTUA	Kalte material edo ingurumeneko kalte larriak. Pertsona kaltetu ugari, hildakoak izateko arriskua-rekin.
5	OSO ALTUA	Kalte material edo ingurumeneko kalte oso larriak. Pertsona kaltetu ugari, zauritu larriekin edo hildakoeekin.

Horietako bakoitzaren ARRISKU INDIZEAK (AI) gertatzen diren maiztasunaren bidez edo gertatzeko PROBABILITATEAREN bidez (PI probabilitate indizea) eta horien ondorioz izan litezkeen KALTEEN edo ondorioen (KI kalte indizea) lortzen da, formula honen arabera:

$$AI = PI \times KI$$

Non:

- A = Arrisku indizea.
P = Probabilitate indizea.
K = Kalte indizea.

Honako taula hau ateratzen da Arrisku Indizea kalkulatzeko:

PROBABILITATE INDIZEA PI	KALTE INDIZEA KI				
	1	2	3	4	5
1	1	2	3	4	5
2	2	4	6	8	10
3	3	6	9	12	15
4	4	8	12	16	20

3.1.4.- ARRISKU MAILAREN SAILKAPENA

Azkenik, ARRISKU MAILAREN SAILKAPENA egingo da, haien analisisian eta ebaluazioan ateratako ondorioen arabera. Modu honetan zehaztuko da Arrisku Indizearen eta ARRISKU MAILAREN arteko lotura:

ARRISKU MAILA	ARRISKU INDIZEA
BAXUA	$AI < 6$
ERTAINA	$6 < AI < 12$
ALTUA	$AI > 12$

Irizpide horiei dagokienez, gogoan izan behar da ERRESILIENTZIA kontzeptuak mehatxu baten eraginpean dagoen sistema bat, komunitate bat edo gizarte bat haren ondorioei modu egoki eta eraginkorrean aurre egiteko, haiek xurgatzeko, haietara egokitzeko eta haiek gainditzeko ahalmena izendatzen duela, bere oinarritzko egiturak eta funtzioak babestea eta berrezartzea barne.

3.2.- ARRISKU NATURALAK

Naturak hainbat fenomeno kaltegarri eragin ditzake, esaterako, lurrikarak, uholdeak, erupzio bolkanikoak, fenomeno meteorologiko kaltegarriak, etab. Fenomeno horiek, zenbait egoeratan, arriskuan jar ditzakete pertsonen segurtasuna eta ondasunen eta ingurumenaren osotasuna.

3.2.1.- ARRISKU GEOLOGIKOAK

Lurreko litosfera barruan (endogenoak) eta litosferaren eta lurrraren kanpoko geruzen, hau da, hidrosfera eta atmosferaren arteko eta horiek osatzen dituzten zenbait materialen arteko ukipen gainazalean (exogenoak) gertatzen diren prozesuek, kasu askotan, gizakiak garatutako sistemetan eragiten dute, eta gizakien heriotzak eta galera ekonomikoak eta ingurumenekoak eragiten dituzte.

Litosferako prozesu eta materialen eta sistema antropikoen arteko interakzio horrek kostu handiak ditu gizarte, ekonomia eta ingurumen arloetan, eta arrisku geologiko izenaz ezagutzen da. Beraz, litosferaren globaltasunaren dinamikak eta horren ezagutzak garrantzi berezia hartzen dute arrisku horiek arintzeko estrategiak prestatzeko orduan.

Herri babesaren ikuspegitik, honako hauek dira arrisku geologikoak:

3.2.1.1.- ENDOGENOAK (BARNE JATORRIA)

Arrisku geologiko endogeno nagusiak arrisku sismikoa eta arrisku bolkanikoa dira, eta bi horien ondoriozko arrisku posibletzat jo daiteke itsasikara.

1) SISMOA (SIS).

A) Identifikazioa.

Lurrazalean pilatutako energia norabide guztietan hedatzen diren uhin moduan bat batean askatzea da LURRIKARA. Lurrikara hasten den puntuari foku edo hipozentro esaten zaio eta hainbat eta hainbat kilometrotara egon daiteke lurrraren barrualderantz (gehienez 675 bat kilometrora, materiala hausteko muga elastikoan). Fokuaren gainean gainazalean dagoen puntuari epizentro esaten zaio. Lurrikarek izen hauek har ditzakete: ikarak, sismoak, mugimendu sismikoak, etab...


Lurrikara gehienen jatorria plaken tektonikaren edo jarduera bolkanikoaren ondoriozko energia askapen batean edo leize karstiko bat hondoratzeak eragindako energia askapen txiki batean dago.

B) Analisia eta ebaluazioa.

Historikoki, EAEko SISMİKOTASUNA BAXUA dela esan daiteke, lurraldean izandako lurrikara kopuruagatik nahiz lurrikara horien ezaugarriengatik, denak garrantzi txikiko magnitude eta intentsitatekotzat jotzen baitira. Bestalde, VII intentsitateko edo intentsitate handiagoko (EMS eskala) fenomeno sismikoak gertatzeko probabilitateari buruzko azterketek ez dute hori gertatzeko arriskua duten zonarik adierazten 500 urteko aldirako.

Dena den, Arrisku Sismikoari begirako Herri Babeseko Oinarrizko Gidalerroak (OG-Sismikoa), 1995eko ekai-nean onartuak eta 2002ko Espainiako Arrisku Sismikoaren Mapa (ASM) berrira egokitzeko xedez Ministro Kontseiluaren erabakiz 2004ko uztailaren 16an aldatuak, arrisku sismikoko eremu berri gisa sartzen ditu Arabako eta GIPUZKOAKO Lurralde Historikoak.

2007an, OG-Sismikoa ezarritako gutxieneko eskakizunak kontuan hartuta, Arrisku Sismikoetarako EAEko Larrialdi Plana (PERS2007) idatzi zen. Plan horrek baliabideen eta zerbitzuen antolaketa eta jarduera prozedurak xedatzen ditu, lurraldean izaten diren edo eremu mugakideetan izan baina lurraldean eragina duten lurrikaren ondoriozko larrialdiei aurre egiteko.



Espainiako Arrisku Sismikoaren 2002ko Mapa (ASM) (intentsitate balioetan, EMS-98 eskala). Institutu Geografiko Nazionale (IGN)

ASMn, eremu berriak EAEko ekialdean daude kokatuta. Institutu Geografiko Nazionaleko (IGN) Katalogo Historikoan jasota dauden EAEn epizentroa izandako 62 lurrikaren intentsitate handiena V Intentsitatea den arren, eskualde honetan VI Intentsitatera heltzeko arriskua dago Nafarroako Foru Erkidegoan (NFE), Errioxan eta Frantziako hegoaldean epizentroa duten lurrikaren ondorioz. Horregatik, kontuan izan behar da eremu horietako herriak ez daudela katalogoan sartuta EAEn epizentroa duten lurrikaren eragina izateko arriskuagatik, zona mugakideetan epizentroa duten lurrikaren eragina izateko arriskuagatik baizik.

EAE inguruko eskualdeetan bost eremu sismiko bereizten dira: Pirinioetako mendikatea, jarduera moderatua duena batez ere ipar isurialdean, Ebro eta Duero arroak, jarduera txikikoak, eta Kantabriako mendikatea eta Landetako plataforma, horiek ere eragin txikikoak. Lehen adierazi den bezala, eremu horien artean, Pirinioetan izaten da jarduera sismiko handiena, batez ere ipar isurialdean. Pirinioen erdialdeko eskualdean lurrikara ugari izan dira.

Honako hau da epizentro hurbila, VI baino intentsitate handiagoa eta Donostia udalerriri eragiten dion SISMO-TASUN HISTORIKOA, ordena kronologikoan:


LURRIKARA	DATA	EPIZENTROA	MAGNITUDEA	INTENTSITATEA	DONOSTIA
OLOROE (PIRINIO ATLANTIKOAK)	1618	Oloroe		VI-VII	
ARNEDO (BEHE ERRIOXA-ERRIOXA)	1817	Arnedo		VII-VIII	
DONAZAHARRE-S.J. LE VIEUX (PIRINIO ATLANTIKOAK)	1858	Donazaharre		VI-VII	
IRUÑEA	1903	Iruñea		VI	¿II-III?

LURRIKARA	DATA	EPIZENTROA	MAGNITUDEA	INTENTSITATEA	DONOSTIA
MARTES (BERDUNGO KANALA-HUESCA)	1923	Martes		VIII	¿V?
TURRUNCÚN (BEHE ERRIOXA-ERRIOXA)	1929	Tuncurrún	¿5,1?	VII	¿IV?
AGUILAR DEL RÍO ALHAMA (BEHE ERRIOXA-ERRIOXA)	1961	Aguilar	4,6	VIII	
ERETA (PIRINIO ATLANTIKOAK)	1967	Ereta	¿5,8?	VIII	¿V?


EAEko Arrisku Sismikoaren aurreko 2007ko Larrialdi Planari (PERS2007) dagozkion intentsitate eta arrisku mapak erantsi dira.



Euskal Herriari eragin dioten intentsitate handien mapa, inguruan izandako intentsitate handieneko lurrikarak erabiliz (Arnedillo 1817an eta Donazaharre 1858an). Marra gorriak V intentsitatearen eraginpeko eskualdea mugatzen du, moreak IV intentsitatearen eraginpekoa eta laranja III intentsitatearen eraginpekoa..




Ebaluazio determinista aplikatuta lortutako Euskal Herriko arrisku sismikoaren mapa.



500 urteko aldirako metodo probabilista aplikatuta ondorioztatutako arrisku sismikoaren mapa.

EAEko udalerrietarako ondorioztatutako azken intentsitateetatik ateratako emaitzei esker ikus daiteke ez dagoela VII intentsitatea edo handiagoa duen EAEko zonarik, beraz, kalkulu horien arabera, EZ DAGO Larrialdi Sismikoko Plana EGITERA BEHARTUTAKO UDALERRIRIK.



Euskal Herriko udalerrietarako ondorioztatutako amaierako intentsitateak.

VI motako INTENTSITATEEN eragina izan dezaketen udalerrien zerrendan EZ dira sartzen Donostiako HIRIGU-NEAK, bai ordea bere ingurune hurbilena eta enklabeak:

- Hondarribia, Irun, Pasaia, Lezo, Oiartzun, Errenteria, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Andoain, Villabona, Berastegi, Elduain, Ibarra, Berrobi, Belauntza, Gaztelu, Orexa, Lizartza, Altzo, Alegia, Ikaztegieta, Orendain, Gaintza, Zaldibia, Abaltzisketa, Amezketza, Aralarko Enirio eta Tolosa, Ataun eta Donostiako alkate-auzoak.

Bestalde, zona baten arrisku sismikoa eraikinek eta herriguneek mugimendu sismikoen aurrean duten KALTEBE-RATASUNEAN oinarrituta zehazten da. Hori dela eta, lurzoruaren efektua edo tokiko efektua, eraikinen portaera eta biztanleriaren banaketa kontuan hartuta kalkulatu behar da arriskua.

Europako 1998ko Eskala Makrosismikoa (European Macroseismic Intensity Scale) (EMS-g8) da Europako herrialdeetan intentsitate sismikoa ebaluatzeko oinarria. Magnitudeko eskala sismikoei lurrikara batek askatutako energia sismikoa adierazten dute, baina EMS-g8 eskalak lurrikara batek jakineko leku bati zer mailatan eragiten dion adierazten du. EMS-g8 eskalak 12 maila ditu, eta adierazle guztiek Donostiarako aurreikusitako gehieneko eragin maila honako hau da:

- VI. MAILA. ARINKI KALTEGARRIA: Barruan gehienek eta kanpoan askok sumatzen dutena. Eraikinetan jende asko beldurtu egiten da eta ihes egiten du. Objektu txikiak erori egiten dira. Kalte arinak eraikin arruntetan, adibidez, pitzadurak azaltzen dira luzituan eta zatiak erortzen dira.

Hiriko arrisku handieneko eremuak gutxi trinkotutako kuaternarioko jalkinei dagozkien material geologikoen gainean eraikitako etxebizitza dentsitate handieneko lurzatietan daude, esaterako, itsas eta ibai jatorriko jalkinen gainean. Hala ere, hiriko eraikin gehien berritasunak eta egituraren kalitateak asko murrizten dute haien kalteberatasuna.



C) Sailkapena.

ARRISKU SISMIKOA:

- Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
- Kalte indizea: Baxua 2.
- Arrisku indizea: 4.
- ARRISKU MAILA: BAXUA.

Sailkapena: **ARRISKU BAXUA**

2) ITSASIKARA.

ITSASIKARA EDO TSUNAMIA ezohiko fenomeno batek (lurrikara, sumendia, itsaspeko desplazamendua,...) ur masa handi bat bertikalean desplazatzen duenean sortzen den indar handiko olatu bat edo olatu talde bat da.

Itsasikara arriskuari begirako Herri Babesa planifikatzeko Oinarrizko Gidalerroa (OG-Itsasikarak) onartzen duen azaroaren 20ko 1053/2015 Errege Dekretuak haxe xedatzen du Aplikazioko lurralde eremua izeneko 2. Atalean: penintsulako kostalde osoak ez dituela itsasikarak jasateko aukera berdina eta, gertatuz gero ere, ez lituzkeela ondorio berdina izango. Hala, kostaldetik hurbilen dauden itsasikarak sortzeko moduko zonak Cadizko golkoan eta Aljeria iparreko kostaldearen aurrean daudela xedatzen du.

Dena den, bi plangintza maila hartzen ditu kontuan: estatukoa eta autonomia erkidegokoa. Bigarrenengoan, toki erakundeek prestatutako jarduketaren planak ere sartzen dira. Horren ondorioz, Autonomia Erkidegoko plangintza mailari dagozkionez, OG-Itsasikarak hori aplikatzeko lurralde eremua kosta duten autonomia erkidego guztiek osatzen dute.

Hala, harik eta EAEk tokiko jardueraren planak egiteko gidalerroak ezartzen ez dituen arte, eta Kantauriko kostaldea historikoki itsasikaren eragina jasan duten zonetatik kanpo dagoela kontuan hartuta, DULPek ez du aintzat hartzen ARRISKU mota hori.

3) BOLKANIKOA.

SUMENDI bat prozesu geologiko luze baten lurraren gainazaleko ageriko emaitza da. Prozesu horren bidez Lurraren barruko harrizko material urtua (magma) eta gasak isurtzen dira modu bortitzean. Horregatik, sumendiak dira lurraren gainazala lur azpiko geruza mailekin komunikazio zuzenean jartzen duten bitarteko bakarra. Iberiar penintsulan maila baxuko jardueraren bolkanikoko hainbat eremu daude honako leku hauetan: Olot (Girona), Campos de Calatrava (Ciudad Real), Gatako lurmuturraren, Menor itsasoaren, Columbrete uhartearen eta Alborán uhartearen arteko penintsulako hego-ekialdeko zerrenda.

EAEko lurraldea eta Donostia arrisku bolkanikoa izan dezaketen eremuetatik kanpo daude, eta DULP2 honek ez du aintzat hartzen ARRISKU mota hori.

3.2.1.2.- EXOGENOAK (GAINAZALEKO JATORRIA)

Jatorria lurraren gainazalean duten arrisku geologikoak edo arrisku geologiko exogenoak grabitateak eragindako lur mugimenduak dira. Oro har prezipitazioei lotuta dauden arren, lurrikaren edo sumendien eraginez edo prozesu geologikoen jardun jarraituaren ondorioz ere gerta daitezke.

Lurraren gainazalari eragiten dioten prozesu geodinamikoek ezaugarri, magnitude eta abiadura desberdineko lur mugimenduak eragiten dituzte. Ohikoenak eta hedatuenak MENDI HEGALEKO MUGIMENDUAK dira. Mendi hegaletan gertatzen diren grabitazio prozesuak dira, oro har. Beste mota bat HONDORATZEENA da, baina material eta baldintza jakin batzuei lotuta dagoenez, hain ohikoa ez dena.

Lur mugimenduak ohikoak dira ingurune geologikoan, eta lotuta daude grabitatearen eraginari, materialak pixkanaka-pixkanaka ahultzeari, batez ere meteorizazioagatik, eta beste fenomeno natural eta ingurumeneko batzuen jarduerari. Prozesu horiek kalte ekonomiko eta sozialak eragin ditzakete giza jarduerari eta eraikuntzei eragiten dietelako, eta arrisku geologiko potentzialak dira.

1) LURRAREN MUGIMENDUAK (LUR).

A) Identifikazioa.

Mendi hegaleko mugimenduak honela definitzen dira: lurzoru eta/edo harri masen grabitazio mugimenduak, mendi hegal naturalei eragiten dietenak. Higadura prozesu hedatuenak dira. Edozein klima eskualdetan eragiten dute suntsipena eta era guztietako materialei eta morfologiari eragiten diete.

Honako hauek dira ezegonkortasunerako joera handiena duten eremuak: zona menditsuak eta malkartsuak, higadura eta meteorizazio prozesu handiko erliebeak, ibai haranetako mendi hegalak, material bigun eta solteak

dituzten zonak, mendigune buztintsuak eta aldakorak, zona sismikoak, prezipitazio ugariko zonak, etab. Mendi hegala harrizko azaleratzeek edo lurzoruek eratutakoak izan daitezke, eta azken horien artean harri substratuaren gaineko higakinak eta kolubioiak sartzen dira.

Mendi hegaleko mugimenduak, sarritan, LERRADURAK termino orokorraren pean biltzen dira eta luraren gainean eragiten duten barneko eta kanpoko indarren arteko desorekaren ondorioz gertatzen dira. Indar ezegonkortzaileek indar egonkortzaile edo erresistenteak gainditzen dituzte.

Kausa naturalez gain, hau da, prezipitazio eta ibai eta itsasoen higadura jardueraz gain, giza jarduerak ere mendi hegaleko mugimenduak eragin ditzakete. Mendi hegaletan egiten diren hondeaketa eta obra lineal handiek eta urtegi eta hondakindegien eraikuntzek ezegonkortasunak sor ditzakete eta, horien ondorioz, hondamendiak eta galera ekonomiko handiak.

Mendi hegaleko mugimenduen hedadura eta maiztasuna kontuan hartuta, arrisku geologiko garrantzitsua dira eta eraikinei, komunikabideei, hornidura eroanbideei, ibilgu eta urtegiei... eta, batzuetan, herriguneei eragiten diete. Magnitude handiko mugimenduak (hamarreko edo ehunka milioi metro kubiko) ez dira oso ohikoak baina luraren gainazala iraganean gertatu direla adierazten duten arrastoz beteta dago, seguruenik garai klimatiko heze eta euritsuei edo jarduera tektonikoari lotutakoak.

Honako hauek dira mendi hegaleko mugimendu nagusiak:

1) LERRADURA.

Lerradura lur masaren higitze edo mugitze mota bat da, ezpona baten ezegonkortasunak eragindakoa. Lur masa handi bat ezegonkor bihurtu eta, lodiera txikiko lur azalera edo zerrenda txiki baten bidez, zona egonkor batekiko lerratzen denean gertatzen da. Lerradurak lurra busti eta ureztatzen duten EURIEK eragin ditzakete, eta baita plaka tektonikoetan izandako mugimendu sismiko txiki batek ere.

2) FLUXUAK.

Fluxu edo isurketak lur masen (lokatza edo lur fluxuak), higakinen (higakin isurketak edo "debris flow" deiturikoak) edo harri blokeen (harkaitz zatien isurketak) mugimenduak dira. Mugimendu horietan materiala barreiatuta dago eta "fluido" gisa portatzen da, etengabeko deformazioa jasanez eta haustura azalera zehatzik erakutsi gabe. URA da agente eragile nagusia; mugitzen direnean erresistentzia asko galtzen duten lurzoru buztintsuei eragiten die. Buztin edo lur isurketak ("mudflow" edo "earthflow") batez ere material fin eta homogeneoetan gertatzen dira, eta hainbat metro segundoko abiadura har dezakete. Higakin fluxuak mugimendu konplexuak dira eta harri zatiak, blokeak, errekarriak eta legarrak biltzen dituzte harea, lohi, eta buztinen matrize fin batean.

3) LUIZIAK.

Luiziak edo erortzeak ezegonkortasun mugimenduak dira, eta lur gutxi izatearen ondoriozko berme ezagatik gertatzen dira. Lehendik dauden jarraitutasunik gabeko planoek (tektonikoak, estratifikazio azalera, trakzioko pitzadurak, etab...) bereizitako harrizko blokeen edo harrizko bloke masen bat bateko erorikoak dira. Ohi-koak dira mendi malkartsuetako hegaletan, itsaslabarretan eta, oro har, horma harritsuetan. Ohikoak dira ziri formako hausturak eta hainbat etenek eratutako blokeetan izaten diren hausturak. Horiek eragiten dituzten faktoreak HIGADURA eta alde zaureratik bereizitako edo askatutako blokeen berme edo oinarri galtzea, eten eta pitzaduretako URA, astindu sismikoak, etab. dira. Eroritako blokeak txikiak izan daitezkeen arren, bat bateko prozesuak izateak arrisku handia sortzen du komunikabideetan eta mendiko eraikinetan.

B) Analisia eta ebaluazioa.

Euskadiko Geologoen Elkargo Ofizialak (EGEO) 2014an argitaratutako Lurraren Lerrokadura Arriskuaren Gidan (LLAG) xedatutakoaren arabera, lerrokadurek EAEko ia edozein lekutan izan dezakete eragina, bertako erliebea-gatik eta klimatologiagatik. Hain zuzen ere, Donostia udalerrian, lerrokadura arrisku potentzialeko honako zona hauek daude:

1) ARRISKU potentzial HANDIKO zonak:

- Igeldo mendiaren ipar isurialdeko kostaldea.
- Mendizorroztz mendiaren ipar isurialdeko kostaldea.
- Urgull mendiaren hego eta ekialdeko hegala.
- Uliia mendiaren ipar-ekialdeko hegaleko kostaldea, Sagues auzoa.
- Talaia muturretik Illurgita edo Barraka senadirainoko kostaldea.
- Illurgita edo Barraka senaditik Arando muturrerainoko kostaldea.
- Ezpona naturala Buenavista auzoan.

Aipaturiko zonetako batean izandako lerraduraren baten ondoriozko hondamendiak URGULLEKO MENDI HEGALETAKO, KAIKO arrantzaile auzoko eta SAGÜES auzoko zonei eragingo lieke, eta biztanleengan eragina izango luke.

Aipaturiko gainerako zonetan oso eraikin gutxi daude, baserri bakanen bat izan ezik. Dena den, Urgull mendiaren hegaletan bideak, bidegorriak eta oinezkoentzako pasealekuak daude, eta lerraduraren batek kalte puntualak eragin ditzake pertsonengan, ibilgailuetan eta hiriko altzarietan.

2) ARRISKU potentzial ERTAINEKO zonak:

- Illurgita edo Barraka senadiko kostaldea.
- Uliia mendiaren ipar, hego eta mendebaldeko hegalak.
- Kutarro mendiaren hego hegala.
- Arkaitz-Txikiko hego hegala.
- Landarbaso mendiaren ipar hegala.
- Oriamendi mendiaren hego hegala.
- Rezola zementuen harrobiak.
- Berrogeita hamargarren urteurrenaren auzoa.
- Barkaiztegi baserriaren hegoaldea.
- Landarbaso errearen zona.
- Morlans auzoaren hegoaldea
- Urgull mendiaren iparraldea.
- Igeldo mendiaren hego-ekialdeko hegala.
- Lugaritz muinoaren hego hegala.
- Geriatrikoaren hegoaldea.
- Igeldo eta Mendizorrotz mendien ipar eta ipar-ekialdeko hegalak.

Enklabe horietako gehienak landatarrak dira eta, horregatik, biztanle dentsitate baxu samarra dute.

Mendi hegaletako masa mugimenduen egungo prozesuei dagokienez, udalerrri osoan modu irregularrean banatuta daudela esan dezakegu. Kasu gehienetan, zuhaitzik gabeko eremuetan daude lerradura arrisku potentzial ertain eta altuko zonei lotuta. Honako zona hauek nabarmentzen dira:

- Mendizorrotz mendiaren ipar hegala.
- Minjabasoa mendiaren ipar hegala.
- Txiki-Tenisen goiko aldea, Igeldo mendiaren ekialdeko hegala.
- Santiagomendi mendiaren ipar eta mendebaldeko hegalak.
- Goioz-Aundi baserriaren hego eta ekialdeko hegalak.
- Oriamendi mendiaren ipar hegala.
- Molinao auzoaren hegoaldea.

Ikus 12. planoak.- Arrisku naturalak: Arrisku geologikoak.

Honako hau da Donostiako gertakarien historikoa, ordena kronologiko eta berrienean:

Lur mugimenduak	Mota	Data	Lekua	Kausa	Kalteak
San Blas	Fluxua	1993	Uliako mend. hegala	Euriak	Eraikinak
Autonomia	Fluxua	1983	Arbaizeneako ek. hegala	Euriak	Eraikinak
27. poligonoa	Lerradura	2000	Lau Haizetako hego hegala	Lur erauzketa	Eraikina
Pasealeku Berria	Luizia	2013	Urgulleko I-Eko hegala	Euriak	Hildakoa
Pasealeku Berria	Luizia	2014	Urgulleko I-Eko hegala	Euriak	-
San Bartolome muinoa	Lerradura	2015	S. Bartolomeko E. hegala	Euriak	Bainuetxea
Haizearen orrazia	Luizia	2015	Igeldoko E. hegala	Euriak	-

LUR MUGIMENDUEK DONOSTIAN ERAGINDAKO BESTE GERTAKARI BATZUK



Urgull-Kaia 1993



Igeldo-Olarain 1997



Igeldo - Agiti 1997



San Bartolomé 25/02/2015



Altxuene, 11/11/2012



Haizearen orrazia 2013

Hiriko prezipitazio maila lur mugimenduak sortzeko funtsezko elementua dela kontuan hartuta, arriskuaren PROBABILITATEA ERTAINA dela erabaki da.

Bestalde, arriskua jasan dezaketen lekuak eta hartutako prebentzio neurriak kontuan hartuta, KALTEBERATASUN maila ERTAINA dela erabaki da.

C) Sailkapena.

LUR MUGIMENDUEN ONDORIOZKO ARRISKUA:

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena

ARRISKU ERTAINA

2) ELURROLDEAK.

ELURROLDE edo elur jausi bat elur zati edo elur geruza handi bat mendi hegalean behera lerratzea da, eta bera-ekin batera eraman dezake substratuaren eta landare estalduraren zati bat. Elurroldeak mendi hegalei eragiten dieten grabitate prozesu naturalen barruan sartzen dira.

Donostia udalerririk ez du gisa horretako arriskurik sortzeko moduko mendigunerik eta elur prezipitazio nahikorik. Horregatik, DULP2 honek ez du aintzat hartzen ARRISKU hori.

3.2.2.- ARRISKU METEOROLOGIKO EDO KLIMATIKOAK

Adagai meteorologikoak muturrekotzat jo daitezkeen zenbait baliotara iristen direnean, biztanleak, ondasunak eta azpiegiturak ARRISKU METEOROLOGIKO gisa ezagutzen den arrisku baten eraginpean daude. Gipuzkoa eta, zehazkiago, Donostia eragin ATLANTIKO nabarmeneko zona klimatologiko batean daude. Hori atmosferako zirkulazio orokorreko baldintza meteorologiko nagusiengatik da, bertako askotariko topografiak eragin handia duen arren testuinguru orokor batean ezaugarri oso desberdinak dituzten zonen garapenean.

METEOROLOGIA geofisikaren adar bat da, eta eguraldiaren egoera, ingurune atmosferikoa, han gertatutako fenomenoak eta fenomeno horiek arautzen dituzten legeak xehetasunez aztertzea du xede. Honako hauek dira beraien kabuz edo fenomenoarekin zerikusirik ez duten beste egoera batzuk eragiten dituztelako Donostia hirian arrisku egoera bat sor dezaketen fenomeno meteorologikoak: euriak eta euri horien ondoriozko uholdeak, elurteak, haize zakarrak, muturreko tenperaturak, itsaso-kostaldeko denboraleak, ekaitzak eta tximistak eta lehor-teak.

Arriskutsuak izan daitezkeen egoerak ebaluatzeko, estatuan Estatuko Meteorologia Agentzia (AEMET) dago eta autonomia erkidegoan, berriz, Larrialdiei aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza (LAEMZ) arduratzen da zerbitzu horiek emateaz. Hala, Euskal Meteorologia Agentziak (EUSKALMET) atmosfera behatzeko, iragarpenak egiteko eta zaintzeko sistemak ditu, eta baita gizartea eta agintariak informatzeko prozedurak ere.

Bestalde, "Fenomeno meteorologiko kaltegarriak iragartzeko, horien jarraipena egiteko eta horrelakoetan jarduteko protokoloa" (FMK protokoloa) dago, Larrialdiei aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak (LAEMZ) eta Euskal Meteorologia Agentziak (EUSKALMET) prestatutakoa. Protokolo horrek, meteorologia kaltegarriarekin zerikusia duten abisuak sortzeko prozedura arautzen du, bertan parte hartzen duten erakundeen artean informazioa trukatzeko mekanismoak ezartzen ditu, erakunde eta instituzioak aktibatzeke neurriak zehazten ditu eta euskal herritarrak informatzen ditu fenomeno meteorologiko kaltegarri horiei aurre egiteko prebentziozko ekintzak gauza ditzaten.

Arrisku meteorologikoarekin edo klimatikoarekin zerikusia duten dokumentu orokorren artean LAEESen Taktika Operatiboen dokumentua dago: 12 Meteorologia (METEO).

3.2.2.1.- UHOLDEAK

A) IDENTIFIKAZIOA.

UHOLDEA normalean urez estalita egoten ez diren lurak urak hartzea da. Euri iraunkor eta/edo euri jasa handiengatik eta presa edo deposituen funtzionamendu desegoki, matxura larri edo hausturengatik gertatutako ibaien gainezka egiteek eragiten dute.

Ibai uholdeak aldian-aldian gertatu ohi diren eta ibaien haranetan lautadak eratzeko arrazoia izan diren prozesu naturalak dira. Haranetako lautada horiek lur emankorrak dira eta, horregatik, nekazaritza ibar eta ibai ertzetan garatu izan da, eta gero hiri okupazioa etorri izan da. Hala, uholde horiek arriskua sortzen dute herritarrentzako eta horien ondasunentzako, kalteak eragiten dituzte oinarritzko azpiegituretan edo komunitaterako funtsezkoak diren zerbitzuak eteten dituzte.

Ibai uholdeen ondoriozko arriskuek hainbat arrazoi izan ditzakete:

1) PREZIPITAZIO IRAUNKORRAK ETA/EDO EURI JASA HANDIAK (EUR).

Euria, fenomeno meteorologiko gisa, ur likidoaren prezipitazioa da, abiadura hautemangarrian eta etengabe erortzen diren tantak. Tanten tamainaren arabera, zirimiria, euria edo zaparrada esaten zaio. Azken bi modalitate horiek, honela sailkatzen dira intentsitatearen arabera: euri jasa (15 eta 30 mm artean/orduko), euri jasa handia (30 eta 60 mm artean/orduko) edo uholdezkoa (60 mm-tik gora/orduko).

Jatorriaren arabera eta gure inguruneari dagokionez, prezipitazioak hiru mota nagusitan sailka daitezke:

1.1) Iraupen laburreko ekaitz gogorrak.

Gehienetan konbektiboak izaten dira. Lurraren azalerak izaten duen berotze handiaren ondoriozko euriak izaten dira edo, oro har, gainazal bero baten gainean aire heze eta ezegonkorra igarotzen denean gertatzen direnak. Iraupen laburreko (normalean 20-30 minutu baino gutxiago) euri jasa handiak izaten dira, eta >10 l/m²-ko erregistroak utz ditzakete 10 minututik behin. Horrek, hiriguneetan, errepide sarean eta erreka txikietan drainatze arazoak eragiten ditu, eremu oso urbanizatueta larriak izan daitezkeen arazoak.

1.2) Trumoi-ekaitz egonkorak eta GGDiak.

Ekaitz bat egonkortzen denean edo GGDl (Goi geruzetako depresio isolatu) egoeran geratzen denean, prezipitazioak handiak izateaz gain, hainbat orduko iraupena izan dezakete, prezipitazio handiekin edo oso handiekin. Prezipitazio mota horiek artoa handiagoei eragiten diete eta 1983ko abuztuko bezalako uholde handiak eragin ditzakete.

1.3) Fronte geldikor eta okluituen igarotzea.

Fronte sistemetan edo fronte ziklonikoetan jatorria dutenak: euri horien oinarritzko mekanismoa presio baxuko zona batean korronteen konbergentzia horizontalaren bidez aire hotza gora igotzea da. Batez ere udazkenean eta neguan, fronte geldikor eta/edo okluituek prezipitazio moderatuak baina oso hedatuak eta iraunkorrak (hainbat egun eman ditzake euria egiten) uzten dituzte. Arazo gehienak ibaien ardatzean daude.

2) PRESA EDO DEPOSITUEN FUNTZIONAMENDU DESEGOKIA, MATXURA LARRIA EDO HAUSTURA.

Presa eta deposituen funtzionamendu desegokiaren, matxura larriaren edo hausturaren ondoriozko uholde arriskua, alde aurretik, azpiegitura hidraulikoaren kolapsoagatiko arrisku teknologikotzat har daiteke. Hala ere, prezipitazioen fenomeno meteorologikoarekin historian zehar izan duen lotura zuzenak, eta uholdearen ondorio zuzenaren arabera, arriskua atal honetan aintzat hartzea eragin du.

Presak azpiegitura oso segurutzat jotzen dira. Nolanahi ere, kontuan izan behar da haustura edo matxura arrisku bat (oso txikia bada ere) egon daitekeela, eta horrek uholdea eragin dezakeela. Presek larrialdietarako plangintza dute funtzionamendu desegokia, haustura edo matxura larria izaten dutenerako, eta PRESEN LARRIALDI PLANAK egungo araudiaren arabera prestatu eta ezartzean oinarrituta dago.

Gure kasuan, AÑARBEO PRESA Añarbe ibaian kokatuta dago. Añarbe ibai Urumearen ibaiadarra da eta, horregatik, arriskua sor dezake udalerrian funtzionamendu desegokiaren, matxura larriaren edo hausturaren ondorioz. Presa honek, bere arrisku potentzialaren arabera, A kategoria du.

Uholde Arriskuaren aurrean Herri Babesa Planifikatzeko Oinarritzko Gidalerroak (OG-Uholdeak) A eta B kategorietan sailkatutako presetan larrialdi plan bat prestatu eta ezartzeko premia xedatzen du. Hauek dira planaren funtzio nagusiak: dagokion segurtasun analisia egin ondoren, presaren haustura edo matxura larriko arriskuak sor ditzaketen egoerak kontrolatzeko esku hartzeko estrategiak zehaztea eta estrategia horiek garatzeko antolaketa egokia ezartzea; haustura kasuan urpean gera daitezkeen zona zehaztea, uholde uhina zabaltzeko

2014an, Uholde Arriskuei begirako Herri Babesa Planifikatzeko Oinarrizko Gidalerroek (OG-Uholdeak) xedatu-tako gutxieneko baldintzen arabera, EAEko Uholdeen Ziozko Larrialdietarako Plan Berezi berri bat idatzi zen (UAPB2014). Plan horrek baliabideen eta zerbitzuen antolaketa eta jarduera prozedurak xedatzen ditu, lurraldean izaten diren uholdeen ziozko larrialdiei aurre egiteko.

Bestalde, Uraren Euskal Agentziak (URA), Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarekin (KKH) koordinatuta, indarreko araudia garatuz eta Uholdeak Oinarrizko Gidalerroaren arabera, faseka egiten joan da Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko (KEDH) Euskadiko Barneko Arroen esparruari dagozkion dokumentuak. Honako hauek dira faseak eta dokumentuak:

1) I. FASEA: Uholde arriskuaren aurretiko ebaluazioa (UAAE) eta uholde arrisku potentzial esanguratsuko eremuen identifikazioa (UAPEI): 2011ko abenduan amaitua.

Fase honetan Donostia udalerri barruan kokatutako honako bi UAPEI hauek zehazten dira:

- 1.1) URUMEA:** ARPSI ES018-GIP-URU-01 kodea.
- 1.2) IGARA:** ARPSI ES018-GIP-URU-02 kodea.

2) II. FASEA: Arrisku mapak eta uholde arriskuaren mapak: 2013ko abenduan amaitua.

- 2.1) Uholde xaflak honako agertoki hauen arabera adierazten dituzten arrisku mapak.**
 - a.- 10 urte edo gehiagoko birgertatze aldia.
 - b.- 100 urte edo gehiagoko birgertatze aldia.
 - a.- 500 urte edo gehiagoko birgertatze aldia.

Ikus 12. planoak.- Arrisku naturalak: Uholde arriskuak.

- 2.2) Honako alderdi hauek aztertuta dituzten arrisku mapak.**
 - a.- Kaltetuak izan daitezkeen biztanleen gutxi gorabeherako kopurua.
 - b.- Kaltetua izan daitekeen ekonomia jardura mota.
 - c.- Kaltetuak izan daitezkeen ingurumen kalteberatasuneko zonak.

Ikus 12. planoak.- Arrisku naturalak: Uholde arriskuak.

3) III. FASEA: Uholde Arriskua Kudeatzeko 2015-2021 Plana: Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan 2015-2021 zikloan Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana urtarrilaren 20ko 20/2016 Errege Dekretuaren bidez onartu zen.

Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (UAKP) 2015-2021, identifikatutako UAPElen esparrurako prestatu da eta administrazio publiko guztien eta gizartearen arteko jarduketa koordinatua lortzea du xede, uholde arriskuak eta uholdeen ondorio negatiboak murriztu ahal izateko. Horretarako, aurreikusitako helburua lortzeko administrazio bakoitzak bere eskumenen esparruan aplikatu behar dituen NEURRIEN PROGRAMAN eta administrazioen arteko solidaritate, koordinazio eta lankidetzaren eta ingurumenarekiko errespetuaren printzipioetan oinarritu behar da.

UAKP hori bi eskumen esparruren uholde arriskua kudeatzeko planen integrazio harmonikoaren bidez egin da. Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen eskumen esparruaren plangintza Uraren Euskal Agentziak egin du eta, bestetik, Estatuko Komunitate Arteko Arroen eskumen esparruaren plangintza Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak egin du.

Honako hau da Donostia udalerriari eragin dion uholdeen historikoa, ordena kronologikoan:

UHOEDEA	DATA	KAUSA	KOTA	MARTUTENE	LOIOLA
EUSKADI	1983/08/26-27	Ibaien gainezka egiteak	-	URAK HARTUA	URAK HARTUA
	1992/06/23				
AÑORGA ERREKA	1997/06/01	Mend. zona urak hartuta			
URUMEA IBAIA	2002/08/25				
URUMEA IBAIA	2002/10/30	Gainezka egitea			
URUMEA IBAIA	2004/01/24	Gainezka egitea			
	2004/08/23				
URUMEA IBAIA	2006/03/11	Gainezka egitea			
URUMEA IBAIA	2007/08/21-24	Gainezka egitea			
URUMEA IBAIA	2009/02/11-12	Gainezka egitea			
URUMEA IBAIA	2009/11/10	Gainezka egitearen maila	3,80 m	Okendotegi	EZ

UHOLDEA	DATA	KAUSA	KOTA	MARTUTENE	LOIOLA
URUMEA IBAIA	2011/11/06	Gainezka egitea	> 5,50 m	URAK HARTUA	EZ
URUMEA IBAIA	2015/01/30-31	Gainezka egitearen maila	3,80 m	Okendotegi	EZ
URUMEA IBAIA	2015/02/25-26	Gainezka egitea	4,90 m	URAK HARTUA	EZ

KLIMA ALDAKETARI eta uholdeei dagokienez, esan daiteke KEDHren UAAEn klima aldaketak euri ereduan izan-dako eraginarekin zerikusia duten hainbat azterketaren emaitzetan ziurgabetasun handia nabaritu zela. Horrek, gaur egun, ez du aukerarik ematen klima aldaketak uholdeen maiztasunean eta magnitudean izan dezakeen aldaketa kuantifikatzeko. Dena den, egiten diren azterketa zientifikoek ondorioen jarraipena egitea gomendatzen da.

C) SAILKAPENA

UHOLDE ARRISKUA: PREZIPITAZIO IRAUNKORRAK ETA/EDO EURI JASA HANDIAK.

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Altua 4.
- Arrisku indizea: 12.
- ARRISKU MAILA: ALTUA.

Sailkapena: **ARRISKU HANDIA**

UHOLDE ARRISKUA: PRESA EDO DEPOSITUEN FUNTZIONAMENDU DESEGOKIA, MATXURA LARRIA EDO HAUSTURA.

- Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
- Kalte indizea: Altua 4.
- Arrisku indizea: 8.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

3.2.2.2.- ELURTEAK (ELU)

A) IDENTIFIKAZIOA.

Malutak eratuz beraien artean bat egiten duten izotz kristalizatuzko izar hexagonal gisako prezipitazioa da ELURRA. Elurra lur gainean pilatzen joaten da eta, baldintzak onak badira, bizkor loditzen da. Honela sailkatzen dira intentsitatearen arabera: ahulak (lodiera 0,5 cm/h handitzen da), moderatuak (lodiera 4 cm/h handitzen da) eta handiak (lodiera 4 cm/h baino gehiago handitzen da).

Elurraren jatorria izotzezko kristalak dauden hodeietan dago. Kristal horien gainean ur lurrina jalkitzen da egoera solidoan, haien tamaina handituz. Kristal horiek erortzen direnean, tenperatura 0 °C-tik beherakoa bada, hainbat kristal elkartzen dira elur malutak eratuz.

Egungo gizartearen mugikortasun handia kontuan hartuta, elurrak eragozpen eta galera ekonomiko handiak sortzen ditu errepideei eragiten dienean. Gainera, ohikoa da elurteekin batera izozteak izatea. Horrek oso arriskutsua egiten du elur geruza errepideetako zirkulaziorako eta pertsonen joan-etorrietarako.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

Udalerria eragin atlantiko nabarmeneko eremu batean eta itsas ondoan, kota baxuan, dagoela kontuan hartuta, elur prezipitazioen maiztasuna ez da handia: urtean 6, 2 eta 3 eguneko batez besteko balioak lgeldo, Ategorrieta eta Lasarten, hurrenez hurren. Hala, hiriko ohiko fenomenotzat jotzen ez bada ere, urtero egunen batean gerta daitekeela uste da. Beraz, arriskua gertatzeko PROBABILITATEA ERTAINA da.

Bestalde, egungo gizartearen mugikortasun handia kontuan hartuta, elurteek eragin handia izan dezakete hiriko bideetan eta, ondorioz, eragozpenak sortu herritarrei eta beraien ohiko jarduerai, esaterako, trafiko mozketak, zirkulazioa eta garraio publikoa moteltzea, hiriko zona garaietara ibilgailuak eta oinezkoak iristeko zailtasuna, oinezkoen erortzeak eta istripuak bide publikoetan, etab.; eta bide-azpiegiturei eragiten dienean baita galera ekonomiko handiak ere. Arrazoi horiengatik guztiengatik, hiriak, elur arriskuari dagokionez KALTEBERATASUN ERTAINA duela uste da.

C) SAILKAPENA.

ELURTE ARRISKUA:

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

3.2.2.3.- HAIZE ZAKARRAK (HZ)

A) IDENTIFIKAZIOA.

HAIZEA aireak lurraren azalerarekiko egiten duen mugimendua da. Haizearen jatorria lurraren azalerako bi punturen arteko presio diferentzia dago. Horrek orekarako joera eragiten du, aire masak desplazatuz presio baxuagoko zonak betetzeko. Zenbat eta handiago presio diferentzia are eta handiagoa izango da haizearen indarra.

Lurzoru inguruan, goranzko eta beheranzko korronteak izaten diren arren, aire desplazamendu horizontalak dira nagusi. Horregatik, abiadura bektorearen osagai horizontala soilik hartuko da kontuan. Magnitude bektoriala denez, haizearen norabide eta abiadura parametroak hartu beharko dira kontuan.

Haizearen NORABIDEA inoiz ez da finkoa. Erreferentziazat hartzen den batez besteko norabide baten inguruan ibiltzen da. Hura definitzeko, zortzi norabideko haize arrosa hartuko da kontuan.

ABIADURARI dagokionez, mugitzen ari den airea denez, partikula bakoitzak abiadura desberdina duela ulertu behar da. Horregatik, iragarpenak batez besteko balioak aipatuko ditu, hain zuzen ere, hamar minututan neurtutako batez bestekoa. Beste alderdi bat aldiuneko balio maximoak edo HAIZE BOLADAK dira. Balio horiek haizearen abiadura iragankorra desbideratu egiten dute batez besteko balioarekiko.

Haizearen itsas ingurune balioak neurtzeko, Beauforten Eskala Anemometrikoa erabiltzen da, haizearen abiaduraren arabera 12 INDAR desberdinetan zatitzen dena.

Haizeak, oro har, intentsitate termino hauetan adierazten dira:

- Moderatuak: 21 eta 40 km/h arteko batez besteko abiadura (4 eta 5eko indarra).
- Gogorak: 41 eta 70 km/h arteko batez besteko abiadura (6, 7 eta 8ko indarra).
- Oso gogorak: 71 eta 120 km/h arteko batez besteko abiadura (9, 10 eta 11ko indarra).
- Urakan haizeak: 120 km/h-tik gorako batez besteko abiadura (12ko indarra).

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

1) Haizearen norabidea.

Haize bolada maximoak aztertuta, honako hau ondorioztatzen da:

- Ipar-mendebaldeko haizeak dira nagusi: % 23,6.
- Hego haizeak: % 19,4.
- Ipar haizeak: % 14,2.
- Ipar-ipar mendebaldeko haizeak: % 9,3.

2) Haizearen abiadura.

Haize bolada maximoen batez besteko abiadura 4 indarreko (20-28 km/h) edo indar handiagoko haizeei dagokie urte osoan zehar. Hego-mendebaldeko haizeek 61,8 km/h-ko (7ko indarra) balio maximoa dute.

Norabide desberdinetarako haize boladen maximo absolutuak 7tik gorako indarreko haizeei dagozkie. Nagusi dira urakan haizeak (9ko indarra edo handiagoa), eta hego-hego ekialdeko haizeek (187 km/h) eta hego haizeek (184 km/h) dute balio handiena.

Haize arriskuaren PROBABILITATEA ERTAINA da, urtean zehar hainbat gertakari egon daitezkeelako eta gertakari horiekin batera beste mota bateko fenomenoak (fronteak, prezipitazioak, ekaitzak, galernak, etab.).

Bestalde, haize bolada gogorrek eragindako KALTEAK ugariak izan daitezke, esaterako, zuhaitzak, itxitura hormak, farolak, hiriko beste altzari batzuk, publizitate kartelak, teilatuetako materialak, garabiak, aldamiok, olanak, antenak, pertsianak eta loreontziak erortzea; horrek arrisku handia sortzen du, oro har, bide publikoan dabiltzan pertsonentzat eta, bereziki, aire zabalean gertakarietan, lanean eta kirolean parte hartzen ari direnentzat.

Gainera, haize arriskuarekiko bereziki kalteberak diren hainbat zona definitzen dira, esaterako, parkeak, itsasertza eta hiriko leku garaiak.

Horregatik guztiagatik, haize gogorren arriskuaren aurrean KALTEBERATASUN ERTAINA dagoela uste da.

Honako hau da Donostia udalerriri eragin dion haizeen historikoa, ordena kronologikoan:

EKAITZA/HAIZEAK	DATA	HAIZE BOLADA MAXIMOA	BATEZ BESTEKO ABIADURA	INDARRA
HEGOALDEKO HAIZETEA	1975/01/15	187 Km/h		
HEGOALDEKO HAIZETEA	1982/11/06	184 Km/h		
EKAITZA	1996/02/07	139 Km/h	97 Km/h	10
EKAITZA	1999/12/27	147 Km/h	104 Km/h	11
EKAITZA	2000/02/17	90 Km/h	60 Km/h	7
EKAITZA	2010/01/15	116 Km/h	70 Km/h	8
ZIKLOGENESIA	2014/10/20	126 Km/h		

C) SAILKAPENA.

HAIZE GOGORREN ARRISKUA:

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

3.2.2.4.- MUTURREKO TENPERATURAK

A) IDENTIFIKAZIOA.

TENPERATUREI lotutako arriskuak hiru egoeretatik abiatzen dira:

- 1) IZOZTEAK/Muturreko tenperatura baxuak (TH).
- 2) Muturreko TENPERATURA ALTUAK (TB).
- 3) Tenperatura ALTU IRAUNKORRAK (TB).

HOTZ BOLADA dela esaten da airea asko hozten denean edo aire oso hotzak eremu zabal bat hartzen duenean. Hotz bolada batean izaten diren tenperaturak muturreko balio minimoetan kokatzen dira. Muturreko balio minimoa dela esaten da aldi batean izandako balio baxuena.

IZOZTEA, bestalde, lurreko hezetasuna zuzenean jeltzea da. Ez da fenomeno meteorologikoa ez delako atmosferan eratzeko, baina lotura zuzena du tenperaturarekin. Tenperatura erabakigarria da.

Bestalde, MUTURREKO BALIO MAXIMOA dela esaten da aldi batean izandako balio altuena. Azkenik, BERO BOLADATZAT jotzen da airea asko berotzen denean edo aire oso beroak eremu zabal bat hartzen duenean, eta hainbat egun edo aste irautean duenean. Bero bolada batean izaten diren tenperaturak muturreko balio maximoetan kokatzen dira.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

Ikuspegi termikotik begirata, Donostiako klimaren ezaugarri nagusia tenperaturen gozotasuna da, beste faktore batzuen artean hodeitza indize handiak eragindakoa. Hodeitza indize handi horrek neguan irradiazio bidez beroa galtzea murrizten du eta udan gehiegi berotzea saihesten du. Itsasoaren hurbiltasunak ere tenperatura gozatzen du.

Modu horretan, urteko batez besteko tenperaturak moderatuak diren arren, egun jakin batzuetan tenperaturek muturreko balio maximoak izan ditzakete. Hala, neguan egun batzuetan izozteak edo muturreko tenperatura baxuak egon daitezke eta udan, berriz, muturreko tenperatura altuak eta/edo iraunkorrak. Nolanahi ere, muturreko tenperaturen arriskuen PROBABILITATEA BAXUTZAT jotzen da.

Fenomeno horiek eragin ditzaketen kalteei dagokienez, desberdinak dira muturreko hotzaren edo muturreko beroaren kasuan.

Lehen kasuan, hau da, izozte/muturreko tenperatura baxuen kasuan, elurteetan gertatzen bezala baina maila

apalagoan, lehenik eta behin, eragina izan dezakete hiriko bideetan eta eragozpenak sor ditzakete, esaterako, trafikoa mozketak, zirkulazioa eta garraio publikoa moteltzea, hiriko zona garaietara ibilgailuak eta oinezkoak irteteko zailtasuna, oinezkoen erortzeak eta istripuak bide publikoetan, etab.; eta bigarrenik, kalean gaua ematen duten ETXERIK GABEKO pertsonen osasunerako arrisku handiko egoerak eragin ditzakete.

Muturreko tenperatura altuen kasuan, kalteak eragin ditzakete herritar ahulenen osasunean (adinekoak, gaixoak, umeak, etab.). Muturreko tenperatura altuen ondorioak gorputzeko beroa ateratzeko ezintasunagatik pertsonak bero kolpeak izateko duten arrisku handian oinarritzen dira. Ondorio hori handiagoa izan daiteke gorputzeko izerdia lurruntzea zailago egiten duen hezetasun erlatiboagatik eta/edo haize faltagatik.

Bestalde, herritarrei eragiten dieten tenperatura altu iraunkorren ondorioak muturreko tenperatura altuaren ondorioen desberdinak dira. Bero iraunkorraren arazoa da eraikinak berotzen direla eta horren ondorioz lo egin ezina eta behar bezala atseden hartu ezina etortzen direla. Horregatik, tenperatura kaltegarrien aldagai horren arriskua egoeraren iraupenean datza batik bat.

Kontu horiek guztiak kontuan hartuta, muturreko tenperaturen arriskurako KALTEBERATASUN maila BAXUTZAT jotzen da.

C) SAILKAPENA.

MUTURREKO TENPERATUREN ARRISKUA.

- Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
- Kalte indizea: Baxua 2.
- Arrisku indizea: 4.
- ARRISKU MAILA: BAXUA.

Sailkapena: **ARRISKU BAXUA**

3.2.2.5.- ITSASO-KOSTALDEKOA (ITS)

A) IDENTIFIKAZIOA.

Kosta inguruko uretako egoera txartat jotzen dira haizearen intentsitatean eta norabidean bat-bateko aldaketak eragiten dituzten eta/edo KOSTALDEAN kaiko instalazioetan kalte handiak eragiteko, ontziak hondoratzeko, itsasoko aisia jardueretan arazoak sortzeko edo kai eta hondartzetan gizakien heriotzak eragiteko gai diren olatuak sortzen dituztenak.

Egoera horiek, gehienetan, honako fenomeno hauen ondoriozkoak izaten dira:

1) EKAITZAK.

Ekialdeko Kantauri aire masa tropikalak eta polarrak eratutako FRONTE POLARRAREN eraginpean dago. Fronte polarrak hainbat latitude hartzen ditu urtean zehar, hegoaldera joaten da neguan eta iparraldera udan. Olatuak jatorria Ipar Atlantikoan urrun dagoenean –Groenlandiaren hegoaldean–, kostaldera iristen diren olatuak 9 m-tik gorako altuera izan dezakete, eta 18 segundoko aldiak. Orduan, hondoko itsasoa eratzen dute, izenak adierazten duen bezala, sakonera jakin baterainoko ur masei eragiten diena eta haizerik gabeko egunetan sortzen dena jatorria urrun duelako. Ekaitz mota hori da kostaldeko erliebeari gehien eragiten diona, eta oso iraunkorra izan daiteke. Uraren presioa 30 Tm/m²-koa izan daiteke eta gai da harri bloke handiak mugitzeko. Hondoko itsasoko ekaitz horiek ohikoagoak dira udazkenean eta neguan eta uda ondoren ur geruzak homogeneizatzen laguntzen dute.

2) GALERNAK.

Sagailoak eratuz, bat-batean agertzen diren tokiko haize zakarrek sortzen dituzte GALERNAK. Hondoko itsasoak ez bezala, gainazaleko ur geruzari soilik eragiten diote. Bero egiten duen egunetan, lehorreko aire masak berotu eta igo egiten dira. Horren ondorioz, itsasoko airea sartzen da eta ekaitz mota hori eragiten du. Galerna horiek askoz eragin txikiagoa dute kostaldean. Bero egiten duen garaian sortzen dira. Ohikoak dira udako hiletan eta bat-batean garatzeak haien arriskua handitzen dute.

Honako hauek dira itsaso-kostaldeko fenomeno mota horretarako erabiltzen diren KONTZEPTUEN definizioak:

- Olatuak: itsaso, ozeano, ibai, aintzira, kanal eta abarren gainazalean desplazatzen diren uhinak.
- Olatu altuera adierazgarria (Hs): denboraleen neurria, itsasoaren egoera jakin batean aurkeztutako olatu altuenen herenaren batez besteko balioztat jotzen dena, Douglas eskalaren bidez neurtuta (metrotan).
- Aldi adierazlea (Tp): olatu altuenen herenaren aldien batez bestekoa kontuan hartutako olatu taldearen barruan (segundotan).
- Haize itsasoa: haizeak jotzen duen itsas azalera batean haize horren eraginez sortzen diren olatuak.
- Hondoko itsasoa: sortutako zonatik kanpo hedatzen diren olatuak. Oso urrun hel daitezke.
- Marea astronomikoa (M): Eguzkiak eta Ilargiak Lurraren gainean eragiten duten erakurpen indarrak sortutako itsas mailaren aldaketa periodikoa da, 12 orduko oszilazio aldiarekin (metrotan).
- Marea meteorologikoa: itsas mailaren oszilazioa da. Presio atmosferikoaren eta haizearen arrastearen ba-

terako ekintzak eragiten du eta hainbat minututik hainbat egunera arteko aldia izan dezake.

- Marea bizia: ilargi betearekin eta ilberriarekin izaten diren mareak dira, Eguzkia, Ilargia eta Lurra lerrokatuta daudenean.
- Marea hila: ilgora eta ilbehera faseetan izaten diren mareak dira, Lurraren, Eguzkiaren eta Ilargiaren posizioek 90 graduko angelua eratzen dutenean.
- Beaufort eskala: haizearen intentsitaterako neurri enpirikoa, batez ere itsasoaren eta olatuen egoeran eta haizearen indarrean (korapiloak) oinarritutakoa.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

Donostiako ipar muga Kantauri itsasora ematen duen itsasertzeko aurrealde zabala da. Itsasertzeko aurrealde horren erdigunea hiriko erdigunearen zati bat da, eta gainera bereizi egiten du. Beraz, hiriaren erdigunea itsasertzeko lehen ilaran dago, eta itsaso-kostaldekoko fenomeno kaltegarrien ondoriozko arriskuek eragin diezaiokete.

Bestalde, denboraleak ohikoak dira udazkenean eta neguan. Gainera, itsasertzeko erliebeari gehien eragiten dietenak dira eta oso iraunkorrak izan daitezke. Uraren presioa 30 Tm/m²-koa izan daiteke eta gai da harri bloke handiak mugitzeko.

Galernek, bestalde, askoz eragin txikiagoa dute kostaldean. Bero egiten duen garaian sortzen dira. Ohikoak dira udako hiletan eta bat-batean garatzeak haien arriskua handitzen dute.

Honako hau da hirian izandako azken denboraleen historikoa, ordena kronologikoan eta kalteen parametroekin eta balorazioarekin:

DENBORALEAK / ITSASOA								
LAEMZ DATUAK								
GERTAKARIA	MAREA (M) (M)	OLATUAREN ALTUERA (HS) (M)	ALDIA (TP) (S)	GAINEZKA INDIZEAK (I-IMÁX)	MOZKETA BALIOA	DATU ADIERAZGARRIA	KALTEAK	DONOSTIAKO KALTEAK
2007/03/19-29	5	8,6	13-14	-	1,904	Salbuespeneko M	> 1 M €	
2008/03/10-11	4,7	9,7	15	-	2,160	Hs altua	> 14 M €	
2009/01/23-24	3,4	13,7	16	-	2,736	Hs errekorra	0,2 M €	
2010/11/08-09	4,2+0,33	9,2	14-15	-	2,060	M barometriko errekorra	3 M €	
2014/01/06-07	4	9,5	23	-	3,105	Tp errekorra	0,3 M €	
2014/02/01-02	4,9	8,1	19	-	2,470	M altua	> 18 M €	5,7 M €
2016/02/09-10	4,55+0,20	7,3	19	7,8 - 8,8	2,290	M altua	6,5 M €	0,5 M €
ARRISKUA	M > 4,5-4,7	HS > 7-8 M	TP > 14-15 S					

Azaldutako inguruabarrak kontuan hartuta, denborale arriskua izateko PROBABILITATEA ALTUA dela uste da. Urtean hainbat gertakari jazo daitezke beste FMK batzuekin batera, esaterako, fronteak, prezipitazioak, haizeak, ekaitzak, etab. Bestalde, galerna arriskua ERTAINA da. Maiz gertatzen da baina inguruabar jakin batzuetan, hain zuzen ere, udan eta eguraldi beroarekin.

Donostiak azpiegitura ugari ditu itsasertzeko lehen ilaran: kaia, itsas pasealekuak, hondartzetako azpiegiturak, kostaldeko bideak, kaleak eta auzoak. Azpiegitura horiek denboraleen oldarrak jasan ditzakete, baina inpaktu horiek ez daude soilik itsasoaren egoeraren baitan. Aldagai askok eragiten diete, besteak beste, marea bizi edo hilen aldiek, denboralea itsasgorarekin batera izaten den edo ez, olatu mota, olatuen indarra, olatuen norabidea, kostalde mota, etab.

Denboraleek itsasertzean eragiten dituzten kalteak, bestalde, askotarikoak eta ugariak izan daitezke. Pertsonentzako arriskua itsasertzetik hurbil dauden lekuetan egoteak sortzen du. Gainera, oso arriskutsua da itsasertzean ekitaldiak eta lanak egitea eta itsasoan jarduerak egitea (kirolak, aisia jarduerak, kirol proba handiak, etab.). Kalte materialak oso handiak izan daitezke bide publikoa, lokalak eta instalazioak urak hartzearen ondorioz, itsasoak gainezka egitearen ondorioz, pasealekuak, bideak eta hiriko altzariak haustearen ondorioz, etab.

Horregatik guztiagatik, hiriko itsasertzeko zerrendak KALTEBERATASUN ALTUA du itsasoko denboraleen ondoriozko itsaso-kostaldekoko arriskuaren aurrean.

Galernek eragin esparru mugatua dute, batez ere hondartzena, baina udan izaten direnez, hau da, hondartzetan jende asko egoten denean izaten direnez, hondartzek KALTEBERATASUN ERTAINA izatea eragiten du.

C) SAILKAPENA.

ITSASO-KOSTALDEKO ARRISKUA: DENBORALEA

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Altua 4.
- Arrisku indizea: 12.
- ARRISKU MAILA: ALTUA.

Sailkapena: **ARRISKU ALTUA**

RIESGO MARÍTIMO-COSTERO: GALERNA.

- Índice de Probabilidad: Probable 3.
- Índice de Daños: Medio 3.
- Índice de Riesgo: 9.
- NIVEL DE RIESGO: MEDIO.

Clasificación: **ARRISKU ERTAINA**

3.2.2.6.- TRUMOI EKAITZAK ETA TXIMISTAK (EKT)

A) IDENTIFIKAZIOA.

Elektrizitate atmosferikoaren bat-bateko deskarga bat edo gehiagori esaten zaie EKAITZA. Alde batetik, argi adierazpen bat du, hain zuzen ere, OINAZTUA, eta beste bat soinuakoa, zarata lehor edo burrunba gisakoa, TRUMOIA. Oinaztua duten deskargak hodei baten barruan gerta daitezke, hodei batetik bestera pasatu edo lurrera hel daitezke. Kasu horretan TXIMISTA esaten zaio. Ez du txinparta bakarrak osatzen, bide bera denbora oso laburrean egiten duten ondoz ondoko hainbat deskargak baizik.

Ekaitzaren hodei bereizgarria kumuloninboa da, itxura ilun eta lodikoa eta garapen bertikal handikoa. Hodei horiek euri jasa handiak eragin ditzakete, batzuetan txingorrarekin eta haize bolada zakarrekin batera. Ekaitza eratzeko goranzko korrante bortitzak dituen aire masa oso ezegonkorra egon behar du eta, gainera, kondentsazioa sortzeko eta kumuloninboa eratzeko aukera ematen duen hezetasuna egon behar du.

Ekaitzek hiru faseko bizitza-zikloa dute:

- Eraketa:

Eraketan, goranzko korranteak oso aktiboak izaten dira, batez ere 0 °C-ko tenperatura harrapatzen denean. Horrek hodeia hazarazi egiten du goranzko korranteek eutsi ezin dioten arte, eta prezipitatzeko hasten dira.

- Heltzea:

Prezipitazioa hasi ondoren heltzeko fasea iristen da. Fase horretan, oraindik goranzko korranteak egoten dira behehazkurrekin batera, eta zurrumbiloak eta turbulentziak sortzen dira, bereziki lurretik hurbil.

- Barreiadura:

Hodei barruan behehazkurre korranteak soilik daudenean iristen da barreriadura. Hodeiak desagiten joaten dira pixkanaka-pixkanaka.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

Donostian, Igeldoko estazio meteorologikoaren arabera, urtean, batez beste, 28 ekaitz izaten dira, 43 eguneko maximoarekin eta 12 eguneko minimoarekin. Ohikoagoak izaten dira udan, hilean hiruzpalau ekaitz ere kontabilizatu izan dira. Gehienetan, ekaitzak berekin izaten ditu euri jasa handiak eta haizeak. 24 ordutan erregistratutako prezipitazio maximoak hauek izan dira: ia 150 mm-koak Igeldon (1963ko irailak 17), 152 mm-koak Ategorrietan (1960ko abenduak 30) eta 158,5 mm-koak Lasarten (1963ko irailak 17).

Ekaitzak izateko arriskuaren PROBABILITATEA ALTUA da. Urtean hainbat aldiz izan daitezke eta beste fenomeno batzuekin batera (euri jasa handiak, haizeak, etab.).

Ekaitzak, gehienetan, tximista, euri jasa handi eta haize zakarrekin batera izaten dira, eta eragiten dituzten kalteak ugariak izan daitezke, esaterako, errepide eta bideetan ura pilatzea, uholde txikiak lokaletan, zuhaitzak, hiriko altzariak, publizitate kartelak, teilatuetak materialak, garabiak, aldamiok, olanak, antenak, pertsianak eta loreontziak erortzea; arriskutsua izan daiteke ekitaldiak eta lanak egiteko eta aire zabaleko kiroletarako. Bestalde, pertsona eta animaliak hiltzearen kausa zuzena izateaz gain, albo ondorioak eragin ditzakete, esaterako, suteak eragin ditzakete batez ere baso eremuetan. Ekaitz arriskuarekiko bereziki kalteberak diren zonak hauek dira: parkeak, itsasertza, eremuak eta hiriko puntu altuak.

Horregatik guztiagatik, ekaitz eta tximisten arriskuaren aurrean KALTEBERATASUN ERTAINA dagoela uste da.

C) SAILKAPENA.

EKAITZ ETA TXIMISTEN ARRISKUA:

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

3.2.2.7.- LEHORTEAK (LHR)

A) IDENTIFIKAZIOA.

LEHORTEA muturreko fenomeno bat da. Zaila da bere muga geografikoak eta denborazkoak zehaztea, eta ur baliabideak kudeatzeko gaitasunik ez dagoenean hondamendi natural bihur daiteke. Anomalia iragankorra da, luzeagoa edo laburragoa. Eremuan ohikoak baino prezipitazio txikiagoak izaten dira aldi horretan. Lehorte guztien hasierako kausa prezipitazio eskasia da (lehorte meteorologikoa). Horrek eragiten du eskaerari aurre egiteko behar diren ur baliabideen gutxiegitasuna (lehorte hidrolologikoa). Horregatik, ez dago mundu guztian onartutako lehortearen definizio bat. Aldatu egiten da leku batetik bestera eta uraren erabiltzaile bakoitzak bere ikusmoldea du.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

Donostia prezipitazio ugariko zona batean dago, urtean 1.500 mm baino gehiago. Prezipitazioen maximoak udazkenean eta neguan izaten dira, hain zuzen ere, azaroan eta abenduan. Apirilean bigarren maximo bat izaten dela ere ikusi da. Batez ere euri gisakoak eta aldian behin txingor gisakoak izaten diren prezipitazio gutxieneko hilak udakoak dira, eta batik bat uztaila. Uztailan 80-90 mm inguruko prezipitazioak izan ohi dira.

Gaur egun, bestalde, AÑARBEKO URTEGIAK (1975) hornitzen du edateko uraz Donostialdea, hain zuzen ere, 300.000 biztanle dituen eskualdea. Urtegia Gipuzkoako ipar-ekialdearen eta Nafarroaren arteko muga inguruan dago, beste hainbat urtegiarekin batera: Añarbe, Artikutza, San Antón, etab... Klima fenomeno berezi baten ondorioz da kokapen hori izatea. Zona horretan prezipitazio handiak izaten dira, urtean 2.000 mm-tik gorakoak (2.700 mm-ko batez bestekoa). Iberiar Penintsulako lekurik euritsuenetarikoa da. Añarbeko presa Añarbeko Uren Mankomunitateak eta Aguas del Añarbe - Añarbeko Urak, S.A. bere kudeaketa erakunde publikoak kudeatzen dute.

Hala, azaldutako datuak kontuan hartuta, lehorte arriskuaren PROBABILITATEA BAXUA da.

Bestalde, asko iraungo lukeela inolaz ere aurreikusten ez den lehorte batek eragin ditzakeen kalteak, nekazaritza jarduerara urriko eta biztanle kopuru ez oso handiko hiri batean oso handiak ez lirateke izango. Uraren aldi baterako murrizketek arrisku larriak gabeko eragozpenak eragingo lituzkete biztanleen artean. Horregatik guztiagatik, lehortearen arriskuaren aurrean KALTEBERATASUN BAXUA dagoela uste da.

C) SAILKAPENA.

LEHORTE ARRISKUA:

- Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
- Kalte indizea: Baxua 2.
- Arrisku indizea: 4.
- ARRISKU MAILA: BAXUA.

Sailkapena: **ARRISKU BAXUA**

3.2.3.- ARRISKU BIOTIKOAK

Arrisku biotikoek jatorri biologikoa dute eta gizakian, ingurumenean, animalietan (abeltzaintza) eta landareetan (nekazaritza) kalteak eragin ditzaketen organismo biziak eragindakoak dira.

3.2.3.1.- IZURRIAK (IZT)

A) IDENTIFIKAZIOA

Honela definitzen da IZURRIA: animalia edo landare populazioei kalte larriak eragiten dizkien espezie bereko izaki bizidunen agerraldi masiboa eta bat-batekoa. Hala, osasunari eragiten dioten, gizakietan, animalietan, landareetan edo ingurumenean kalte fisikoak edo eragozpenak eragiten dituzten, eta ongizatea edo ekonomia hondatzen duten espezie bat edo gehiago garai eta leku berean luzaroan egotea da izurria. Izaki bizidun horien presentzia espezie horien eragina edo presentzia tolerantzia atalaseen edo desiragarria denaren gainetik dagoenean bihurtzen da izurri.

Bestalde, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) honela definitu zuen HIRIKO IZURRI kontzeptua 1988an: giza-kiarentzako kutsakorrek diren gaixotasunen transferentzia eta hiriko habitataren eta ongizatearen kaltean edo narriaduran nahasitako espezieak, luzaroan irauten dutenean eta haien presentzia "normaltasunezko" mailatzat jotzen dena baino handiagoa denean. "Normaltasun mailatzat" jotzen da egungoagoa den kontzeptu bat, hain zuzen ere, "tolerantzia atalasea" kontzeptua: izurria osatzen duen populazio dentsitateak arazo sanitarioak edo ingurumenekoak, eragozpenak edo galera ekonomikoak sortzeko moduko muga gainditzen duenean.

Donostiako udaleko Osasun Zerbitzu Publikoak honako izurrite hauek ditu zehaztuta:

1) KARRASKARIAK.

Arratoia hiriguneekin lotzen den animalia da; planeta kolonizatzen joan da gizakiaren eskutik eta munduko hiri handi batzuetan arratarien populazioa gizakiena adinakoa edo handiagoa dela uste da. Egokitze duen gaitasun apartari eta bere ugalketa tasa handiari esker, aurre egiteko zailenetako (zailena ez bada) izurri bihurtzen dute eta desagerrarazi ezinezkoa.

Izurriaren aurkako borroka eta izurriaren kontrola benetan eraginkorrak izan daitezzen, pozoia (arratoi-hiltzaila) erabiltzeaz gain, arratoiak garatu eta ezartzeko ingurumen ona sortzea galaraziko duten prebentziozko neurriak hartu behar dira. Bi ekintza horiek (borroka kimikoa eta borroka ekonomikoa) osagarriak eta iraunkorrak izan behar dute eta, horretarako, ezinbestekoa da herritarren laguntza. Donostiako udalak bide publikoetan egiten du izurri horren kontrola, baina zona pribatuak jabeen erantzukizuna dira eta, horregatik, arduraz lagundu behar dio udalari hiriko izurrien kontrolak eragiten dituen gastuak eta ahaleginak alferrikakoak izan ez daitezzen.

2) USOAK.

Pagausoak itsaslabar harritsuetan egin ohi zuen habia. Hiriak sortzearekin batera, baldintza egokiak sortu ziren espezieak bizirauteko. Hiriko eraikinek babesa, pausatzeko tokia eta teilatu eta baoetan habia egiteko aukera eskaintzen dute. Etxe usoa orojalea da eta hirian aurkitzen dituen hondakinez elika daiteke. Ez du behar landa edo habitat antropizatu gabeetara itzultzerik janaria lortzeko.

Izurri bihurtzen da gizakiaren interesekin gatazkan sartzen denean. Izurritzat jotzen da kilometro karratuko 400 norbanako baino gehiago daudenean, hori hiri bakoitzaren ezaugarrien arabera aldatzen den arren. Populazioa handitzen denean, kalteak eragiten dituzte fatxadetan, eragozpenak sortzen dituzte zarzatatik eta osasungaitasun egoerak eragiten dituzte.

3) LABEZOMORROAK.

Intsektu horiek gure hiriko hainbat espaziotan bizi dira. Babesa aurkitzen dute gure eraikinetan, berotasuna, hezetasuna eta janaria baitute. Gaueko bizitza ohiturak dituzte eta estolderietan, sotoetan, berogailu galdaretan, sukaldeetan, bainugeletan eta antzeko lekuetan egon daitezke. Janariak kutsatu, gaixotasunak transmititu eta osasungaitasun egoerak eragin ditzakete. Hauek dira espezie arruntenak: labezomorro arrea (*Blattella germanica*), ekialdeko labezomorroa edo labezomorro beltza (*Blatta orientalis*) eta amerikar labezomorroa (*Periplaneta americana*).

4) OHE ZIMITZA.

Ohe zimitza berriz ere zabaltzen ari den izurri bihurtu da azken urte hauetan. Giza odolaz elikatzen den eta oheetan eta logeletako altzarietan egon ohi den intsektua da. Intsektu horien jardura handiagoa da gauez, eta orduan elikatzen dira ziztadak eraginez. Zimitzen infestazioa da, seguruenik, izurri guztien artean desagerarazten zailenetarikoa eta gehien kostatzen denetakoa. Beraz, oso garrantzitsua da ondo informatuta egotea eta arazoa identifikatzen eta konpontzen jakitea.

Askotan, bidaia bat egin eta maleta eta arropetan zimitzak ekartzen direlako sortzen da infestazioa. Zimitzen agerraldiak ez du loturarik higiene pertsonalarekin, eta oso garrantzitsua da ahalik eta lasterren berri ematea.

5) ASIAKO LIZTORRA

"Vespa velutina" edo Asiako liztorra izenez ezagutzen denak, Asian du jatorria eta 2004ko amaieran etorri zen Europara Bordeleko portuaren bidez, antza denez, Txinatik inportatutako buztinezko eltzez edo egurrezko produktuz betetako edukiontzi batean. Liztorra bertako erle ezigileen harrapakari oldarkorra da, eta Irunen aurkitu zuten lehen aldiz 2010ean. Harrezkero, kezka handitzen joan da. Baina Frantziako nekazariek 2005ean adierazi zuten kezka, Asiako liztorrak bertako erlea 38 departamentutan menderatu zuela ikusita.

Liztorrek 30 bat milimetro neurtzen dute, eta erreginak 35 eta 40 mm artean. Zuhaitzetatik zintzilik egiten dituzte habiak, dezenteko altueran. Habiak baloi baten tamainakoak eta paperez egindakoak dira. Habia bakoitzak 1.500 liztor langile izan ditzake. Horrek adierazten du ugaltzeko zer ahalmen duten. Loreez eta fruta helduaz elikatzen da, eta harrapatzen dituen beste intsektu batzuetatik lortzen du proteina. Asiako liztorrak erlearen burua eta eztenaren zatia mozten ditu, eta gero irentsi egiten du edo bere habiara eramane. Bertakoa baino espezie oldarkorragoa da.

Liztorraren ziklo biologikoa hainbat etapatan laburbildu daiteke:

- **Otsaila-martxoa:** erreginak hibernatzen egondako lekutik ateratzen dira.
- **Apirila-maiatza:** erregina habia egiten hasten da eta arrautzak jartzen ditu. Liztor langileak jaiotzen direnean habia egiten jarraitzen du eta kolonia osoa elikatzeaz arduratzen da.
- **Iraila:** arrak eta erregin berriak jaiotzen dira.
- **Udazkena:** erreginak ernaltu eta udazken hasieran habiatik alde egiten dute.
- **Negua:** negua iristen denean beste ba besleku bat bilatzen dute hibernatzeko. Ama erregina sortzailea eta langileak hil egiten dira eta habia abandonatua ez da hurrengo urtera arte erabiliko.

Habiek esfera edo erronbo forma dute eta, oro har, zuhaitzetan egiten dituzte, beti hamar metrotik gorako altueran. Batzuetan eraikinen gorenean egiten dituzte. Marroi edo krema kolorekoak dira eta garapen handienera iristen direnean 50 zentimetroko zabalera eta 80 zentimetroko garaiera izan dezakete.

Martxotik maiatzera bitartean erreginek habia txikiak egiten dituzte arrautzak jartzeko, bost bat zentimetrokoak; horiek habia primarioak dira; erreginek uda amaieran egiten dute beste habia bat eta habia horretan 200 bat erregin eta 1.500etik 3.000ra liztor langile sortzen dira. Adaburuetan, lurretik altuera handira jartzen dituzten tamaina handiko habiak dira, horrela zailago delako aurkitzea eta suntsitzea.

Horregatik, nabarmentzekoa da herritarren inplikazioak nolako garrantzia duen kasu hauetan. Habia txiki horiek aurkitzeak eta suntsitzeak asko murrizten du tamaina handiagoko etorkizuneko liztor habien kopurua. Orain suntsitzen den habia bakoitzeko 200 habia berri sortzea ekidindo da, hau da, 200 liztor erregin eta 1.500etik 3.000ra liztor langile gutxiago izango dira. Habia horiek, gainera, hurrengo hiletan egiten dituztenak baino irisgarriagoak dira, zuhaitz eta zuhaixketan, teilatupeetan, trastelekuetan, garajeetan, hegoaldera orientatutako fatxadetan, terrazetan, leihoetan, balkoietan edo sabaietan egoten baitira.

Asiako liztorra ez da oldarkorra zirikatzen ez bada. Deskribatutako erasoan kasuan, beti egon da aurretik pertsonaren probokazioa. Gure ingurunera etortzeak ez du Osasun Publikoko arazorik eragingo, ez eta pertsonentzako arriskurik ere. Baina, bestalde, gure ekosistemaren orekarako mehatxua da, Apis mellifera edo erle arruntaren populazioan eragin handia izaten ari den espezie inbaditzailea delako. Asiako liztorra erle harraparia da eta erleak ezinbestekoak dira landare eta fruta arbolaren polinizazioa bermatzeko.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA

Azaldutako datuak, dauden detekzio sistemak eta abian jarritako etengabeko kontrol kanpainak kontuan hartuta, plaga arriskua gertatzeko PROBABILITATEA BAXUA da.

Bestalde, higie eta osasun baldintza onak betetzen dituen eta Osasun Publikoko zerbitzu egokiak dituen gizarte garatua dela kontuan hartuta, izurri arriskuaren aurreko KALTEBERATASUNA BAXUA dela uste da.

ASIAKO LIZTORRAREN izurriak arreta berezia merezi du. Espezie horrek, hasiera batean, pertsonentzako arriskurik ez duen arren, arriskuan jartzen ari da bertako erleak, eta hori oso kaltegarria da ingurumen ikuspegitik. Urtetik urtera erlauntz gutxiago daude eta ezti gutxiago ekoizten da. Gainera, ez da ahaztu behar bertako erleak direla polinizazioaren % 80ren erantzuleak eta polinizazioa nahitaezkoa dela landare eta zuhaitz berriak sortzeko.

Zentzu horretan, garrantzitsua da izurria lurraldean izaten ari den garapena: Txinatik Europara (Bordele) etorri eta, Gipuzkoara iritsi ondoren, hegoaldera eta mendebaldera hedatzen jarraitzen du. Donostiako udalak, beste administrazio batzuekin lankidetzan, hainbat kanpaina egin ditu kanpotik etorritako izurri horri aurre egiteko.

Hala, Donostiak Jardunbide Protokolo bat du eta, 2013az geroztik, liztor erreginak harrapatzeko tranpak jartzeko kanpaina bat dago abian. Kanpaina urtero errepikatzen da jarduera prozedura honekin: martxoaren hasieran liztor erreginak harrapatzeko tranpak jartzen dira, hain zuzen ere, espezie horiek erakartzen dituen likido bat duten tranpak; metodoa emaitza onak izaten ari da eta, bien bitartean, neurri eraginkoragoak ari dira ikertzen. Hala,

jarduera prozedura horrekin, liztor-habia ugari desagerrarazi dira azken urte hauetan.

C) SAILKAPENA

IZURRITEAREN ARRISKUA:

- Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
- Kalte indizea: Baxua 2.
- Arrisku indizea: 4.
- ARRISKU MAILA: BAXUA.

Sailkapena: **ARRISKU BAXUA**

3.3.- ARRISKU TEKNOLOGIKOAK

Gizarte baten garapen ekonomikoak berekin du onurak eta ongizatea ematen dituzten teknologiak sortzea. Teknologia horien erabilerak, ordea, ondorio larriak izan ditzake pertsonentzat, ondasunentzat eta ingurumenarentzat. Hori gertatzen da jakineko industria kimiko batzuekin, zentral nuklearrekin, instalazio erradioaktiboekin eta gai arriskutsuak ekoitzi eta garraiatzeko prozesuak dituzten beste askorekin.

Bestalde, fenomeno arriskutsu horien prebentzioak edo horien ondorioen murrizketak herritarren autobabeserako ahalmena gaitzen dute eta, ondorioz, beharrezkoa da botere publikoek esku hartzea, pertsonen segurtasuna eta bizia eta ondasunen osotasuna zaintzeko erantzukizuna duten heinean.

3.3.1.- ARRISKU KIMIKOAK (Q)

A) IDENTIFIKAZIOA.

Mendebaldeko gizarteak azken urte hauetan izan duen garapena aurrerapen teknologikoei esker gauzatu da. Horietako batzuek aukera eman dute gaur egungo bizi maila hobetzen laguntzen duten produktuak lortzeko: sendagaiak, detergenteak, pinturak, ehun zuntzak, plastikoak, erregaia, etab. Izaera kimikoko prozesu industrialek bidez lortzen dira denak.

Prozesu kimikoek sortutako arrisku teknologikoa arrisku KIMIKO gisa ezagutzen da. Horregatik, produktu kimikoak ekoitzi, manipulatu, garraiatu eta biltegitratzen dituzten industriak dauden eremu batean bizitzeak arrisku bat du: industriaren kanpoaldean ondorioak izango lituzkeen istripu bat gertatzeko arriskua. Beraz, beharrezkoa da arrisku hori ezagutzea eta behar bezala balioztatzea, hain zuzen ere, industriaren kanpoaldean ondorioak izango lituzkeen istripu bat gertatzeko arriskua.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

Industria kimikoa: beste industria batzuen oinarri izango diren edo azken produktu gisa zuzenean saltzeko balioko duten beste produktu batzuk lortzeko gai kimikoak manipulatu eta/edo eraldatzen diren lekua. Enpresa kimiko batean INSTALAZIO hauek aurki ditzakegu:

- 1) Prozesuko instalazioak:** jardueraren eraldaketak edo oinarritzko erreakzioak egiten diren zonak dira. Oro har, prozesuan ez dira nahasten substantzia kantitate handiak eta, horregatik, arriskua gehiago da barnekoa kanpokoa baino.
- 2) Biltegitratzeko zonak:** prozesuetan erabili edo ekoizten diren produktuak dituzten tangak, deposituak, esferak etab. kokatzen diren zonak dira. Istripu baten posibilitatea minimoa den arren, kanpoaldean izango lukeen ondorioa handia izan liteke, nahasitako kantitateak handiak izaten direlako.
- 3) Hoditeriak edo "rak"-ak:** substantzia jakin batzuk gainazaleko edo lur azpiko hodien bidez garraiatzen dira enpresa hornitzaileetatik bezeroen instalazioetaraino, esaterako, gasbide, oliobide, etilenobide eta abarren bidez.

Industria kimikoek, bestalde, istripuak jasan ditzakete, nekez gertatzen badira ere. Horietako batzuek eragina izan dezakete beraien esparrutik harago eta herritarrei eragin, neurri handiagoan edo txikiagoan.

ISTRIPU horiek honela bil daitezke:

- 1) SUTEAK:** erregai baten eta erregarri baten (gehienetan, aireko oxigenoa) arteko oxidazio lasterreko erreakzioak dira. Instalazio kimikoetako suteak gar handiekin eta ke kantitate handiekin adierazten dira. Garrantzi handia duen terminoaren ondoriozko erredurak eragin ditzakete, normalean enpresa barruan soilik izaten

badira ere, eta keak toxikoak edo asfixiagarriak izan daitezke. Hori guztia, errekontza produktuen, distantziaren eta esposizio denboraren baitan dago.

2) LEHERKETAK: abiadura handian gertatutako erreakzioak dira, gasen hedapen bortitzarekin. Leherketen ondorio nagusia presio uhinak sortzea da. Uhin horiek inguruko egiturak suntsi ditzakete. Kanpoaldean kristalak hautsi daitezke eta egituren kalte txikiak ere gerta daitezke. Kontuan hartu beharreko beste ondorio bat zatien proiektzioa da.

3) IHES TOXIKOAK: barnean gordeta dituen ontzitik kanpora gai toxikoak istripuz irtetea da. Gas eta lurrunen kasuan, hodi toxikoa eratzea da ondorio nagusia. Hodeiaren ezaugarriak aldatu egingo dira produktuaren ezaugarrien, baldintza meteorologikoen, lurraren morfologiaren eta abarren arabera. Hodeiak haizearen alde dauden eremuak eragingo die eta eragina produktuaren, kontzentrazioaren, distantziaren eta esposizio denboraren arabera izango da.

70eko hamarkadan gertatutako hainbat istripu industrialen ondorioz eta, bereziki, Italiako SEVESO hirian gertatutakoaren ondorioz, Europar Batasunak 82/501/EEE, SEVESO, izeneko Zuzentaraua atara zuen 1982an, zenbait instalazio industrialetan izaten diren istripu larriak buruzkoa. Zuzentarau hori 96/82/EE, SEVESO II, Zuzentaraua deiturikoak aldatu zuen, eta gaur egun 2012/18/EE, SEVESO III, Zuzentaraua dago indarrean, hain zuzen ere, substantzia arriskutsuak tartean daudeneko istripu larriak berezkoak zaizkien arriskuak kontrolatzeko neurriak buruzkoak.

Substantzia arriskutsuak tartean daudeneko istripu larriak berezkoak zaizkien arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituen (Seveso III) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren bidez, 2012/18/EB Europako Zuzentarauaren transposizioa egin da. Araudi horren arabera, bere aplikazio eremuan dauden establezimendu guztiek Barruko Larrialdietako Planak (BLP) edo Autobabeseko Planak (AUP) izan behar dituzte. Bestalde, goi mailako establezimenduentzat, herri babesaren arloan eskumenak dituzten organoek Kanpoko Larrialdiko Plan bat (KLP) egin behar dute. KLPak substantzia arriskutsuak tartean daudeneko istripu larrien arriskua kontrolatu eta planifikatzeko herri babeseko Oinarritzko Gidalerroan (OG-Istripu Larriak) zehaztutako edukiaren eta homologazio prozeduraren arabera egiten dira.

EAEn, 1994an onartu ziren lehen KLPak. Data horretatik gaur egun arte, Europako nahiz estatuko araudi aldaketaren ondoriozko eguneratze prozesua egin da.

Eusko Jaurlaritzak egindako "EAE-KO ENPRESA ETA ZONA KALTETUEN" zerrendaren arabera, Donostia udalerrian EZ dago arriskuko instalazio kimikorik. Dena den, bere INGURUNE hurbilenean, eta zehazkiago, Hernani eta Usurbil udalerri mugakideetan, izaera horretako arriskua sor dezaketen industria kimikoak daude.

1) HERNANI.

1.1) KEM ONE, S.L.U. (lehengo Arkema Química, S.A.):
KLPren azken eguneratzea 2014/12/05ean.
Azken komunikazio kanpaina: 2014ko kanpaina.

1.2) ELECTROQUIMICA Hernani, S.A.:
KLPren azken eguneratzea 2014/12/05ean.
Azken komunikazio kanpaina: 2014ko kanpaina.

2) USURBIL.

2.1) IGEPAK, S.A.:
KLPren azken eguneratzea 2014/12/05ean.
Azken komunikazio kanpaina: 2008ko kanpaina.

Hala, azaldutako datuak kontuan hartuta, arrisku kimikoaren **PROBABILITATEA BAXUA** da.

Bestalde, egia da udalerri inguruko enpresa kimikoek eguneratutako eta LAEMZ-ek ikuskatutako KLPak dituztela eta Donostia udalerriari ihes toxikoak soilik eragingo liokeela, baina istripu kimiko batek eragindako kalteak, haizearen norabidearen arabera, larriak izan litezke eta jende askori eragin. Horregatik guztiagatik, arrisku kimikoaren aurrean **KALTEBERATASUN BAXUA** dagoela uste da.

C) SAILKAPENA.

ARRISKU KIMIKOA:

- Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
- Kalte indizea: Altua 4.
- Arrisku indizea: 8.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

3.3.2.- GASOLINA ZERBITZUGUNEEN ARRISKUA (GASOLINDEGIAK)

A) IDENTIFIKAZIOA.

GASOLINA ZERBITZUGUNEAK EDO GASOLINDEGIAK ibilgailu motordunentzako erregai eta lubrifikatzaileen salmenta puntuak dira. Gasolina zerbitzuguneak enpresa banatzaile handiekin lotu ohi dira eta, oro har, gasolina eta gasolioa eskaintzen dituzte, biak petrolioaren deribatuak. Zerbitzugune batzuek erregai alternatiboak ere eskaintzen dituzte, esaterako, petrolio gas likidotua (PGL), gas naturala, gas natural konprimatua, etanola, gasohola, biodiesel, hidrogenoa eta kerosenoa.

Gasolindegietako funtsezko elementuak hornigailuak eta deposituak dira. Indarreko araudiaren arabera, deposituek horma bikoitzekoak edo bakunekoak izan behar dute, eta deposituak egiteko erabiliko diren materialak altzairua edo beira zuntzez indartutako poliesterra dira. Laurogeita hamarrekota hamarkadan, gasolina zerbitzuguneek askotariko produktuekin handitu zuten eskaintza. Horrela, ohikoa da gasolindegietan denda egotea.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

Gasolina zerbitzuguneak instalazio sentiberak dira kanpoko nahiz barruko arrisku egoerekiko. Hala, instalazio horiek istripuak jasan ditzakete, nekez gertatzen badira ere. Istripu horietako batzuek eragina izan dezakete beraien esparrutik harago eta inguruko herritarrei eragin, neurri handiagoan edo txikiagoan. Istripuak honela sailka daitezke, jatorriaren edo kausaren arabera:

- Kanpoko kausek eragindako istripuak: muturreko fenomeno meteorologiko kaltegarriak, trafiko istripuak, etab., aurreikusten zailak direnak.
- Barneko kausek eragindako istripuak: eragiketa erroreak, gasolina zerbitzugunearen berezko jardueraren ekintzei eta baldintzei dagozkienak. Ohiko eragiketak petrolio erregai eta gasolina tangak erregaia biltegi-ratzeko tanga bat edo gehiagoren bidez eta ekipamenduetarako banaketa sarearen bidez hornitzea dira.

Hala, larrialdi posibleak bi taldetan sailka daitezke: suteak eta leherketak, alde batetik, eta ihesak eta isuriak, bestetik. Petrolio eta/edo gasolina tartean dauden larrialdiko egoera batean, giza bizitzentzako arriskuak saihestea da garrantzitsua.

Donostia udalerrian edo udalerritik oso hurbil 13 gasolina zerbitzugune daude. Erdiak, gutxi gorabehera, hirigunean daude.

GASOLINDEGIAK			
EKIPAMENDUAK	AUZOA	TITULARRA	HIRIA
10.4 GASOLINDEGIAK			
10.4.1 AVIA ARITZETA I ETA II ZERBITZUGUNEAK	Usurbil	Avia	Ez hiritarra
10.4.2 REPSOL IBAETA I ETA II ZERBITZUGUNEAK	IB	Repsol	Hiritarra
10.4.3. REPSOL MIRAMON ZERBITZUGUNEA	MZ	Repsol	Ez hiritarra
10.4.4 REPSOL ERRONDO ZERBITZUGUNEA	AM	REPSOL	HIRITARRA
10.4.5 AVIA ANOETA I ETA II ZERBITZUGUNEAK	MZ	Avia	Hiritarra
10.4.6 AVIA MENDIBURU ZERBITZUGUNEA (MARTUTENE)	MA	Avia	Hiritarra
10.4.7 AVIA EUROALTZA ZERBITZUGUNEA (27. POL.-GARBERA)	MA	Avia	Ez hiritarra
10.4.8 EROSKI ZERBITZUGUNEA (GARBERA)	IN	Eroski	Ez hiritarra
10.4.9 AVIA LARRAMENDI ZERBITZUGUNEA	AU	Avia	Hiritarra
10.4.10 PETRONOR ZURRIOLA ZERBITZUGUNEA	GR	Petronor	Hiritarra
10.4.11 REPSOL BIDEBIETA ZERBITZUGUNEA	MB	Repsol	Hiritarra
10.4.12 CEPESA ABALOTZ ZERBITZUGUNEA (ZUBIETA)	ZU	Cepsa	Ez hiritarra
10.4.13 GALP ZERBITZUGUNEA (MERKABUGATI)	ZU	Galp	Ez hiritarra

Azaldutako datuak kontuan hartuta, Zerbitzuguneek sortutako arriskuaren PROBABILITATEA BAXUA da.

Bestalde, indarreko legeriaren arabera gasolina zerbitzugune guztiek Larrialdi Plana edo Autobabeserako Plana izan behar duten arren, gutxi gorabehera gasolindegien erdiak (7) gertatzen den edozein gertakarirekiko oso

sentikorra den bizitegitarako lur hiritarreen daude. Horregatik guztiagatik, gasolina zerbitzuguneek sortutako arriskuaren aurrean KALTEBERATASUN ALTUA dagoela uste da.

C) SAILKAPENA

- GASOLINA ZERBITZUGUNEEN ARRISKUA:
 - Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
 - Kalte indizea: Altua 4.
 - Arrisku indizea: 8.
 - ARRISKU MAILA: ERTAINA.
- Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

3.3.3.- SALGAI ARRISKUTSUA GARRAIOAREN ARRISKUA (SAGA)

A) IDENTIFIKAZIOA

Gure gizartearen garapen teknologiko eta industrialak bizi kalitate handiagoa eta ongizate handiagoa eman dizkigu, baina berekin du arazoren bat edo beste ere, esaterako, ingurumenaren kutsadura edo gure ingurunean dauden substantzia eta produktu batzuen ondoriozko arriskuak: zuntz artifizialak, sendagaiak, ongarri artifizialak, janari kontserbatzaileak, garbiketako produktuak, erregaiak, eraikuntzako eta komunikazioko produktuak, etab. Gizarte modernoetan produktu horien kantitate handiak kontsumitzen dira eta araudi zorrotza bete behar duten arren, ezbehar probabilitatea handitu egiten da kontsumoaren gorakadagatik.

Batetik, kimika, petrokimika, petrolio eta energia sektoreen gero eta garrantzi handiagoa eta, bestetik, leku geografiko jakin batzuetan kimikarekin eta petrolioarekin zerikusia duten oinarritzko gai batzuen garapen industrialeko poloko egotea, ez datoz beti bat ekoiztako substantzien kontsumo edo eraldaketa zentroekin. Hori dela eta, salgai arriskutsuen garraioa ohiko kontua da.

Istripu gehienak garraioan eta biltegitratze eta kontsumo zentroetan gertatzen dira, baina ezbehar larrienak ekoizpen edo banaketa zentroetan gertatu dira. Izan ere, segurtasun neurriak handiagoak diren arren, biltegitratutako kantitateak ere handiagoak dira.

GAI ARRISKUTSU gisa definitzen da fabrikatu, biltegitratu, garraiatu edo erabiltzerakoan ke, gas, lurrun, hauts edo zuntz lehargarriak, sukoiak, toxikoak, infekziosoak, erradioaktiboak, korrosiboak edo narritagarriak sortzen dituen, pertsonen, ondasunen edo ingurumenari kalteak eragiteko moduko kantitatean.

SALGAI ARRISKUTSUAK dira garraio erregelamenduek garraiatzea debekatzen duen gaiak eta objektuak, edo erregelamendu horiek baimentzen badute, aurreikusitako baldintzetan soilik garraia daitezkeenak.

Hala, salgai batzuen garraioan izaten ziren istripuen kopurua eta larritasuna kontuan hartuta, gisa horretako garraioetan bete beharreko baldintzak arautu egin ziren. Substantzia arriskutsuen kopurua oso handia da: esku liburu batzuetan 12.000 baino gehiago daude jasota. NBERen salgai arriskutsuei buruzko "liburu laranja"ren azken edizioak (2010), arriskugarritasunaren eta bere produkzio eta garraioaren garrantzi sozioekonomikoaren ikuspegitik 3.000 garrantzitsuenak ditu jasota, gutxi gorabehera.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA

Salgai arriskutsu horien jatorria eta/edo helmuga hirian ez dagoen arren, ezta EAEn soilik ere, Europako kontinentearen eta Iberiar penintsularen arteko pasabideko kokapen geografikoa kontuan hartuta, udalerria zeharkatzen duten errepideak eta trenbideak salgai arriskutsu askoren pasabide dira.

Errepidez eta trenez salgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko plan berezia (SAGAPB) idatzi zen 2001ean, Substantzia arriskutsuak tartean daudeneko istripu larrien arriskua kontrolatu eta planifikatzeko herri babeseko Oinarritzko Gidalerroan (SAILKPOG) xedatutako irizpideen arabera.

Errepidez eta trenez salgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko plan bereziko (SAGAPB) datuen arabera, 1997an salgai arriskutsuen 3,5 milioi tona baino gehiago igaro ziren EAEn. SAGAPBk bi garraio mota definitzen ditu: errepideko garraioa eta trenbidekoa.

1) SALGAI ARRISKUTSUA ERREPIDEKO GARRAIOA (SAEG).

Donostiari dagokionez, kargak Euskadiko errepideetan nola banatzen diren aztertuta ikusten da honako hauek direla salgai arriskutsuen garraioa duten udalerriko bide nagusiak:

- AP-1/AP-8 eta A-1 autobideak, barneko edo kanpoko jatorriko nahiz igarotzako trafikoaren ardatz nagusi gisa.
- Lehentasunezko Sareko beste bide nagusi batzuek ere salgai arriskutsuen karga handia dute, esaterako, N-I errepideak. Karga gehiago nabaritzen da Arabako zatian Gipuzkoakoan baino.
- Autobide inguruan kokatutako udalerrietarako sarbideak, esaterako, N-I errepidearen eta Hernaniren arteko GI-2132 errepidea.

Bestalde, Euskadiko bide sarean 287 salgai arriskutsu desberdin detektatu ziren 1997an. Ikus SAGAPBko II. eranskinean salgai horien zerrenda, dagokien ONU zenbakiarekin, kantitatearekin, sailkapenarekin eta arrisku kodearekin.

Honako hauek dira Donostia udalerria zeharkatzen duten edo inguruan igarotzen diren bideak, ibilbideak eta guztizko Tm-ak.

A-8: Donostia - Aiete (int. N-1)	600.000 Tm.
A-8: Oiartzun – Donostia	545.000 Tm.
A-8: Donostia oeste – Zarautz	515.000 Tm
A-8: Aiete (int. N-1) - Donostia mendebaldea	500.000 Tm.
N-1: GI-2132 bideg. - A-8 bideg. (Aiete)	470.000 Tm.
GI-2132: Hernani - GI-131 bideg.	135.000 Tm.
GI-131: GI-2132 bideg. - GI-3410 bideg. (Hernani)	100.000 Tm.
N-1: GI-2131 bideg. - GI-130 bideg	88.000 Tm.

Honako hauek dira 18 salgai arriskutsu garraiatuenak eta garraio kantitatea gai motaren arabera:

ONU ZK.: SALGAIAREN DESKRIAPENA	TM/1997 URTEAN (%)
1202: 2 ZK. FUEL OLIOA (GASOLIOA), DIESEL (GASOLIOA, ETAB...)	1.271.584Tm (%36,18).
1203: GASOLINAK	416.898 Tm (%11,80).
1830: AZIDO SULFURIKO	276.955 Tm (%7,88).
3257: LIKIDOA TENPERATURA HANDIAN, N.E.P.	250.862 Tm (%7,13).
1073: OXIGENO LIKIDO HOZTUA	130.017 Tm (%3,70).
1824: SODIO HIDROXIDOA (DISOLUZIOA)	88.143 Tm (%2,50).
1789: AZIDO KLORHIDRIKO (DISOLUZIOA)	59.937 Tm (%1,70).
1977: NITROGENO LIKIDO HOZTUA	53.154 Tm (%1,51).
1791: HIPOKLORITOAK	42.905 Tm (%1,22).
1086: BINIL KLORUROA	42.840 Tm (%1,21).
1230: METIL ALKOHOLA (METANOLA)	42.045 Tm (%1,19).
1831: OLEUM (AZIDO SULFURIKO LURRUN JARIATZAILEA)	41.980 Tm (%1,19).
1263: PINTURAK (P.I.<21_C)	31.378 Tm (%0,89).
1956: GAS KONPRIMATUA, N.E.P.	26.220 Tm (%0,74).
3262: SODIO METASILIKATO ANHIDROA	26.021 Tm (%0,74).
2067: AMONIO NITRATOAREKIN EGINDAKO ONGARRIAK	22.814 Tm (%0,65).
1495: SODIO KLORATO (SOLIDOA)	18.658 Tm (%0,53).
1052: AZIDO FLUORHIDRIKO ANHIDROA	18.464 Tm (%0,52).
GUZTIRA	% 81,40

Esanguratsua da detektatutako 287 substantzietatik 18ren artean garraiatutako guztiaren % 81,4 osatzea, eta 4ren artean guztizkoaren % 63. Halaber, aipagarria da errepidez egindako garraioaren % 36 GASOLIOARENA izatea. Dagokion sailkapenean arrisku txikia duen salgaia da.

Honako hauek dira salgai bakoitzetik garraiatutako kantitateak, beste testu batean ageri diren 7. motakoak (erradioaktiboak) alde batera utzita:

MOTA: DESKRIBAPENA	Tm/URTE (%)
1: Gai eta objektu leherkorak	9.225 Tm (%0,26).
2: Gasak	355.693 Tm (%10,12).
3: Gai likido sukoiak	1.887.376 Tm (%53,70).
4.1: Gai solido sukoiak	11.121Tm (%0,32).
4.2: Bat-batean su har dezaketen gaiak	11.481 Tm (%0,33).
4.3: Ura ukitzean gas sukoiak jariatzen dituzten gaiak	4.687 Tm (%0,13).
5.1: Gai erregarriak	81.363 Tm (%2,32).
5.2: Peroxido organikoak	2.186 Tm (%0,06).
6.1: Gai toxikoak	175.632 Tm (%5,00).
8: Gai korrosiboak	630.963 Tm (%17,95).
9: Askotariko gai eta objektu arriskutsuak	344.730 Tm (%9, 81)
GUZTIRA	3.514.457 TM (100,00%).

- **Medikuntza erabileretarako:**

- Medikuntza nuklearrerako (diagnostikoa eta terapia).
- Erradioterapiarako.

- **Erabilera industrialak: paper fabriketan, siderurgian, soldadura industrialeko ikuskapenetan, lurzoru dentsitatean eta abarretan neurketak egiteko gailuak.**

- Instalazio finkoak.
- Instalazio mugikorak.

1999an askotariko erradioisotopoen 2.000 desplazamendu baino gehiago erregistratu ziren. Kontuan izan behar da kapsula edo fardel homologatuetan sartutako kantitate txikiak direla, eta proba programa zorrotza betetzen dutela, besteak beste, erortze librea, pilotzea, urarekin ihintatzea, trokelatzea, saiakera termikoak eta urperatzea barne hartzen dituenak.

Isotopo erradioaktiboen garraioari dagokionez, ikus 3.3.5. atala.- Arrisku Erradiologikoa (E).

Ondorio gisa, emandako datuak kontuan hartuta, salgai arriskutsuak errepidez garraiatzeak (SAEG) sortutako arriskuaren PROBABILITATEA ERTAINA da.

SAEGren kalteberatasunari dagokionez, esan beharra dago 2010ean Donostiako 2. SAIHESBIDEA hegalderrago ireki (AP-I/AP8 autobidea) eta A-1 errepidearekin Lasarten, eta A-15 autobidearekin Astigarragan lotuneak egin ondoren, AP-I Iparraldeko Autobide eta AP-8 Kantauriko Autobide gisa geratu zela. AP-1/AP-8 Autobide zati hori Europako Errepide Sarearen barruan dago, N-S, E-05 erreferentzia ardatza; eta E-W, E-70 eta E-80 erreferentzia ardatzak; eta igarotzeko trafikoa eta ibilgailu astunen trafikoa hartzen ditu. Azpiegitura horri esker, hegalderra lekualdatu dira errepideko trafiko astuna eta salgai arriskutsuena. Horren ondorioz, kalteberatasuna nabarmen murriztu da. Beraz, hiriak, gaur egun, errepideko garraioan KALTEBERATASUN ERTAINA duela uste da.

2) Salgai Arriskutsuen treneko garraioa (SATG).

Trenet garraiatzen diren salgai arriskutsu gehienak ADIF-RENFE bidez garraiatzen dira. 1997an, ADIF-RENFEK 262.020 Tm garraiatu zituen EAEn, eta ETS-ETk, berriz, 1.882 Tm.

ADIF-RENFE sareari dagokionez, salgai arriskutsuen trafiko handiena izan zuen zatia Altsasu eta Irun artekoa da, hau da, Donostia udalerraren hirigunearen zati handi bat zeharkatzen duena. ETS-ETren kasuan, Donostiak ez du salgai arriskutsuen garraiorik jasaten.

RENFEren Mirandako Eragiketa Kudeatzailtzak eta Herri Babeseko Zuzendaritza Nagusiak emandako datuek, SAGAPBean jasotakoek, Donostia hiriko zatia zeharkatzen duten karga hauek deskribatzen dituzte tonatan:

IBILBIDEA	TM/URTE
Hernani-Donostia	156.749 Tm.
Donostia-Rentería	156.749 Tm.

EAEko trenbide sarean 127 gai arriskutsu igaro ziren 1997an. Informazio gehiago lortzeko, ikus SAGAPBko II. eranskina. Hona hemen trenez gehien garraiatzen diren 20 salgaien zerrenda, guztiak motaren arabera sailkatuta.

ONU ZK.: SALGAIAREN DESKRIBAPENA	TM/1997 URTEAN (%)
1086: BINIL KLOORUROA	69.036 Tm (%26,16).
1830: AZIDO SULFURIKO	54.044 Tm (%20,48).
2067: AMONIO NITRATOAREKIN EGINDAKO ONGARRIAK	42.165 Tm (%15, 98).
2785: 4-TIOPENTANAL	14.060 Tm (%5,33).
1824: SODIO HIDROXIDOA (DISOLUZIOA)	10.622 Tm (%4,02).
1202: 2 ZK. FUEL OLIOA (GASOLIOA), DIESEL (GASOLIOA, ETAB...)	10.247 Tm (%3,88).
2215: ANHIDRIDO MALEIKOA	8.506 Tm (%3,22).
1017: KLOOROA	5.900 Tm (%2,24).
1965: HIDROKARBURU GASEOSOEN NAHASKETA	5.862 Tm (%2,22).
1831: OLEUM (AZIDO SULFURIKO LURRUN JARIATZAILEA)	4.971 Tm (%1,88).
1131: KARBONO SULFUROA	4.378 Tm (%1,66).
1495: SODIO KLOORATO (SOLIDOA)	3.947 Tm (%1,50).
1005: AMONIAKOA	2.842 Tm (%1,08).
1052: AZIDO FLUORHIDRIKO ANHIDROA	2.575 Tm (%0,98).
2795: ELEKTROLITO LIKIDO ALKALINOAREN METAGAILU ELEKTRIKOAK	2.395 Tm (%0,91).
2023: EPIKLORHIDRINA	1.619 Tm (%0,61).
2015: HIDROGENO PEROXIDO EGONKORTUA (>% 60)	1.568 Tm (%0,59).
1078: GAS HOZTAILEAK	1.159 Tm (%0,44).
3261: N.E.O.P. SOLIDO EZ ORGANIKO AZIDOA	966 Tm (%0,37).
2796: BATERIEN AZIDO / ELEKTROLITOAREN % 51 BAINO GUTXIAGO DUEN AZIDO SULFURIKO	863 Tm (%0,33).
GUZTIRA	%93,88

Batik bat honako produktu hauek nabarmentzen dira: BINIL KLOORUROA (69.036 Tm), azido sulfurikoa (54.044 Tm) amonio nitratoarekin egindako ongarriak (42.165 Tm). Garraiatutako 127 substantzietatik 20k trenez garraiatutako guztien % 94 osatzea ere nabarmentzekoa da, eta haietako 3k guztiaren % 62 hartzea.

Honako hauek dira RIDn ezarritako moten arabera trenez garraiatutako salgaiak:

MOTA: DESKRIBAPENA	TM/URTE (%)
2: GASAK	87.592 TM (%33,19).
3: SALGAI LIKIDO SUKOIAK	18.685 Tm (%7,08).
4.1: SALGAI SOLIDO SUKOIAK	1.363 Tm (%0,50).
4.2: BAT-BATEAN SU HAR DEZAKETEN SALGAIK	172 Tm (%0,06).
4.3: URA UKITZEAN GAS SUKOIAK JARIATZEN DITUZTEN SALGAIK	165 Tm (%0,06).
5.1: SALGAI ERREGARRIAK	48.480 Tm (%18,37).
5.2: PEROXIDO ORGANIKOAK	16 Tm (%0,006).
6.1: GAI TOXIKOAK	18.393 Tm (%6,97).
8: GAI KORROSIBOAK	87.774 Tm (%33,26).
9: ASKOTARIKO GAI ETA OBJEKTU ARRISKUTSUAK	1.261 Tm (%0, 004).

Salgai arriskutsuen kantitate handia eta garraio mota horri aplikatzen zaizkion murrizketak kontuan hartuta, ia saihestezina da ezbeharrak izatea. EAEko azken urte hauetako urteko kopurua ehun ingurukoa da, kasuen % 90 baino gehiagotan salgai arriskutsua eta bere edukiontzia zuzenean nahasita ez dauden arren.

Istripu horietan guztietan, larrialdiko zerbitzu arruntek modu arin eta eraginkorrean ebatzi zituzten sortutako egoerak, eta ez zen beste kalterik izan istripuak berak zuzenean eragindakoez gain. Beraz, larrialdiko egoeren

aurrean ez da ohiko antolaketa egitura aldatu beharrik izan.

Ondorio gisa, emandako datuak kontuan hartuta, salgai arriskutsuak trenez garraiatzeak (SATG) sortutako arriskuaren PROBABILITATEA ERTAINA da.

Bestalde, ADIF-RENFE trenbidea hiriko lur hiritarrean igarotzen da hein handi batean. ADIFen (RENFE) linearen ibilbidea Urumearen ibarretik (hego-ekialdeko hiri inguruko korridorea) sartzen da udalerrian. Hernani eta Astigarraga udalerrietatik etorri eta ipar-hego norabidean zeharkatzen ditu Martutene eta Loiola auzoak, eta tunel bidez sartzen da Amara Berri auzoan. Amara Berri auzora iritsitakoan, trenak Urumea ibaiaren gaineko zubia zeharkatzen du eta ibaiaren paraleloan, eskuin aldetik, Egia auzoan dagoen Norteko edo Atotxako geltokira iristen da. Gero ekialderanzko norabidea hartzen du, eta ekialdeko korridoreko auzoak zeharkatuz Frantziako mugarantz joaten da. Hirigunearen zati handi baten erdiguneko ibilbide hori dela eta, hiriak SATGrekiko KALTEBERATASUN HANDIA du ADIF-RENFEren trenbideari dagokionez.

3) Pasaiaiko portuko salgai arriskutsuen itsas garraioa (SAIG).

Altzairuaren industriak Gipuzkoan duen presentzia handia dela eta, sektore siderurgikoak funtsezko lekua betetzen du pasaiaiko portuko salgaien trafikoan. Industria horrek lehengai gisa behar duen txatarra kantitate handia inportatzen du Pasaiaiko portuak sektoreko enpresak hornitzeko. Salgai horrek portuko trafikoaren % 36 hartzen du, gutxi gorabehera.

Portuak, alde batetik, txatarra inportatzen du bere eraginpeko eremuko industria siderurgikoetarako eta, bestetik, industria horiek beraiek Pasaia dute kanpora irteteko puntua. Enpresa horiek egindako produktuen parte handi bat Pasaiaiko portu bidez esportatzen da. Gauzak horrela, produktu siderurgikoen mugimendua portuko trafikoaren % 27 da, gutxi gorabehera.

Roll-on, roll-off trafikorako azpiegitura espezifikoak prestatzeak bide eman zuen 80ko hamarkadan Pasaia automobilen esportazioan Espainiako portu garrantzitsuenaz izateko. Gero, automobilen inportazioak trafiko mota horretarako portu egoki gisa finkatu zuen Pasaia. 1980tik gaur egun arte 4 milioi ibilgailu baino gehiago kargatu eta deskargatu dira Pasaiaiko portuan. Horregatik eta unitateak txandakatzeko orduan izaten den azkartasunagatik eta segurtasunagatik, Pasaia da fabrikatzaile askoren portu gogokoa. Portuan automobila mugitu eta gordetzeko soilik erabiltzen diren zonek 170.000 metro karratuko azalera hartzen dute. 90.000 metro karratu 2006an inauguratutako 3 solairuko silo berrikoak (garaje - biltegia) dira. Ekipamendu berri horri esker, Norvegiako UECC ontzi konpainiak urtean 600.000 ibilgailu esportatu edo inportatzeko ahalmena du. Aurreko muga 320.000 ibilgailukoa zen, beraz, ia bikoiztu egin du bere operatibitatea.

Pasaian, solteko salgai solidoen trafikoa mugimenduen erdia baino gehiago da. Txatarra eta ikatzaz gain, ongari natural eta artifizialen mugimendua eta zementu inportazioa nabarmendu behar dira. Bestalde, Pasaiaiko portuan ikatza tratatzeko zona espezifikoak daude. Ikatza erregai gisa erabiltzen da Iberdrolak portuan duen zentral termikoan. Ikatza betidanik izan da Pasaiaiko portuko trafiko garrantzitsuenetako bat. Gaur egun 700.000 tona inguru manipulatu dira urtean.

Bestalde, papera eta paper oreka manipulatzeko arreta baldintza bereziak behar dira, bai makineriari dagokionez eta bai giza jarduerari dagokionez. Portuaren eraginpeko eremuan papergintzak duen tradizioa dela eta, portuak espezializazio maila altua izan du trafiko mota horretan.

Pasaiaiko portuko tresneriak, lan sistemak eta azalera banaketak erabateko balioaniztasunaren aukera ematen dute garraiatutako gaien izaerari dagokionez. Hori dela eta, ohikoa da portuan magnesita, zerealak, potasak, makineria, aluminioa, granitoa, fosfatoa, arbela eta abar mugitzen ikustea.

Ondorio gisa, emandako datuak eta Pasaiaiko portuan bat egiten duten salgai arriskutsuen itsasoko, errepedeko eta treneko trafikoak kontuan hartuta, salgai arriskutsuen trafikoak sortutako arriskuaren PROBABILITATEA ERTAINA dela uste da.

Bestalde, esan beharra dago Pasaiaiko portua eta badia Donostia udalerritik kanpo dauden arren, hiriaren ekialdeko zonak presentzia eta lotura handia dituela badiari. Hiriko zona horrek, gainera, populazio dentsitate handia du, Pasaiaiko badia osatzen duten gainerako udalerriek bezala (Pasaia, Erreterria eta Lezo). Hala, Pasaiaiko badiaren inguruko zonak KALTEBERATASUN ERTAINA duela uste da salgai arriskutsuen garraioari dagokionez.

C) SAILKAPENA.

Salgai Arriskutsuen ERREPIDEKO garraioaren ARRISKUA (SAEG).

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Altua 4.
- Arrisku indizea: 12.
- ARRISKU MAILA: ALTUA.
- Sailkapena: **ARRISKU ALTUA**

Salgai Arriskutsuen ITSASOKO garraioaren ARRISKUA (Pasaiako portua):

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.
- Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

3.3.4.- ARRISKU NUKLEARRA (N)

A) IDENTIFIKAZIOA.

Arrisku nuklearrak istripu edo ezbehar nuklear batean du jatorria, larritasunaren arabera. Istripu edo ezbehar nuklear horrek material erradioaktiboak isurtzen ditu nahigabe eta ezustean edo osasun publikoan eta ingurumenean kalteak eragin ditzakeen erradioaktibitate maila sortzen du.

Abenduaren 3ko 1836/1999 Errege Dekretuak onartutako Instalazio Nuklear eta Erradioaktiboen Erregelamenduak (INEE) honako hauek jotzen ditu instalazio nukleartzat:

- Zentral nuklearrak: erreaktore nuklear baten bidez energia ekoizteko edozein instalazio finko.
- Erreaktore nuklearrak: erregai nuklearrak dauzkan edozein egitura, barruan fisio nuklear automantendu bat gerta daitekeenean, neutroi gehiago gehitu beharrik gabe.
- Substantzia nuklearrak sortzeko erregai nuklearrak erabiltzen dituzten lantegiak, eta substantzia nuklearrak tratatzen dituzten lantegiak, erregai nuklear irradiatuak tratatzeko edo birprozesatzeko instalazioak barne.
- Substantzia nuklearrak biltegitratzeko instalazioak, garraiatzen diren bitartean modu intzidentalean biltegitratzeko erabiltzen diren lekuak izan ezik.
- Energia sortzeko edo energia iturri berriak ekoizteko edo garatzeko fusiozko edo fisiozko erreakzio nuklearrak erabiltzen dituzten gailuak eta instalazioak.

Gaur egun ez dago instalazio nuklearrik EAEn, baina Arabako Lurralde Historikoaren hego-mendebaldeko mugatik hurbil, Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoan, Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra dago. EAetik hurbil dagoenez, EAEko hainbat udalerrri eraginpean geratuko lirateke larrialdia izanez gero. Zentral nuklear horrek badu bere Larrialdi Nuklearreko Kanpoko Plana (PENBU), larrialdi horiek Larrialdi Nuklearreko Oinarrizko Planaren (LNOP) aplikazio eremuan dauden arren eta, ondorioz, ezin dira aplikatu Arrisku Erradiologikoko Larrialdien Plan Berezian (AEPB).

Hurrengo taulan dago jasota Donostiatik 350 km-ko erradioan dauden Espainia eta Frantziako zentral nuklearren zerrenda.

ZENTRAL NUKLEARRAK						
	Kokagunea	Hasierako urtea	Mota	Erreaktoreak	Potentzia	Distantzia
1. Santa María de Garoña	GAROÑA (BURGOS)	1970	BWR	1	466 MW	120 Km
2. Blayais 1, 2, 3 eta 4	BLAYE (GIRONDA)	1981-1983	EPR	4	900 MW	240 Km
3. Golfech 1 eta 2	GOLFECH (TARN-ET-GARONNE)	1991-1994	EPR	2	1300 MW	240 Km
4. Trillo 1	TRILLO (GUADALAJARA)	1987	PWR	1	1066 MW	300 Km
5. Asco 1 eta 2	ASCÓ (TARRAGONA)	1982-1985	PWR	2	1030 MW	320 Km
6. Vandellós 2	VANDELLÓS (TARRAGONA)	1987	PWR	1	1087 MW	350 Km

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

Ezbehar edo istripu nuklear baten ondoriozko arriskuaren analisia eta ebaluazioa plan honen esparrutik kanpo geratzen dira. Ezaugarri horiek dituen egoera bati aurre egiteko honako plan hauek daude:

- **Larrialdi Nuklearreko Oinarrizko Plana LNOP** (1546/2004 ED, ekainaren 25ekoa, eta irailaren 11ko 1428/2009 EDren bidezko aldaketa).
- **Erantzun eta Laguntzarako Erakunde Zentralaren Larrialdi Nuklearreko Plana (ELEZLNP)** (INT/1695/2005 Agindua, maiatzaren 27koa).
- **Santa María de Garoñako** (Burgos) Zentral Nuklearraren Kanpoko **Larrialdi Nuklearreko Plana** (BULNP Plan Gidaria).

Hala, ARRISKU NUKLEARRARI dagokionez eta dauden instalazioen kokapena eta instalazio nuklearrek bete behar dituzten segurtasun neurriak kontuan hartuta, arrisku hori gertatzeko PROBABILITATEA BAXUA dela uste da.

KALTEBERATASUNARI dagokionez, instalazio nuklearretara dagoen distantzia eta herri babeseko sistemak kontuan hartuta, maila ERTAINA duela uste da.

C) SAILKAPENA.

ARRISKU NUKLEARRA:

- Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 6.
- ARRISKU MAILA: BAXUA.

Sailkapena: **ARRISKU BAXUA**

3.3.5.- ARRISKU ERRADIOLOGIKOA (E)

A) IDENTIFIKAZIOA.

Arrisku erradiologikoak istripu edo ezbehar nuklear batean du jatorria, larritasunaren arabera. Istripu edo ezbehar nuklear horrek material erradioaktiboak isurtzen ditu nahigabe eta ezustean edo osasun publikoan eta ingurumenean kalteak eragin ditzakeen erradioaktibitate maila sortzen du.

Abenduaren 3ko 1836/1999 Errege Dekretuak onartutako Instalazio Nuklear eta Erradioaktiboen Erregelamenduak (INEE) honako hauek jotzen ditu instalazio erradioaktibotzat:

- Erradiazio ionizatzailearen iturri bat duten instalazioak, edozein motatakoak.
- Erradiazio ionizatzaileak sortzen dituzten aparatuak, 5 kilovoltetik gorako potentzial diferentziarekin dabilzanak.
- Material erradioaktiboak ekoitzi, erabili, eduki, tratatu, manipulatu edo biltegitratzen diren lokalak, laborategiak, lantegiak eta instalazioak, garraiatu bitartean material horiek biltegitratzekoak izan ezik.

Gainera, araudiak salbuespeneko balioak xedatzen ditu instalazio batek erabiltzen dituen nukleido erradioaktiboen jarduerarako. Balio horien azpitik instalazioa ez da erradioaktibotzat jotzen.

Instalazio erradioaktiboak hiru kategoriatan banatzen dira, arriskugarritasun handiagotik txikiagora:

2.1) Lehen kategoriako instalazioak:

- Uranioa, torioa eta horien konposatuak ekoizteko lantegiak.
- Uranio naturalezko elementu erregaiak ekoizteko lantegiak.
- Industria irradiatzeko iturri erradioaktiboak erabiltzen dituzten instalazioak.
- Substantzia erradioaktiboen inbentario oso handiak erabiltzen dituzten instalazio konplexuak, edo energia emari handiko erradiazio sortak sortzen dituztenak, era horretan instalazioak izan lezakeen eragin erradiologikoa handi samarra litzatekeelarik.

** Diagnostiko medikorako X izpiak erabiltzen dituzten instalazioak ez dira instalazio erradioaktibotzat jotzen. Beste araudi batek arautzen ditu: uztailaren 3ko 1085/2009 Errege Dekretuak, X izpien aparatuak diagnostiko medikoak egiteko xedez instalatu eta erabiltzeko Erregelamendua onartzen duena.*

2.2) Lehen kategoriako instalazioak

- Zientzia, medikuntza, nekazaritza, merkataritza edo industriarako erabil daitezkeen nukleido erradioaktiboak manipulatzeko edo biltegitratzen dituzten instalazioak, baldin eta horien jardura osoak mila aldiz edo gehiagotan gainditzen baditu Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak IS-05 Jarraibidean finkatutako salbuespen balioak.
- 200 kilovoltetik gorako puntako tentsioarekin funtziona dezaketen X izpi sorgailuak erabiltzen dituzten instalazioak.
- Partikula azeleragailuak.

- Neutroi iturriak biltegitratzen dituzten instalazioak. Hirugarren kategoriako instalazioak
- Nukleido erradioaktiboak manipulatu edo biltegitratzen dituzten instalazioen jarduera osoa Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak IS-05 Jarraibidean finkatutako salbuespen balioak baino handiagoa eta horiek mila bider baino txikiagoa dutenean.
- 200 kilovolt baino gutxiagoko eta 5 kilovoltetik gorako puntako tentsioarekin funtziona dezaketen X izpi sorgailuak erabiltzen dituzten instalazioak.

Honako hau da EAEko instalazio erradioaktiboek kopurua, jarduera kategorია eta sektore bakoitzerako:

SEKTOREA	1ª KATEGORIA	2ª KATEGORIA	3ª KATEGORIA	GUZTIRA
INDUSTRIA	0	66	57	123
MEDIKUNTZA	0	11	2	13
IKERKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA	0	4	9	13
MERKATARITZA	0	2	0	2
GUZTIRA	0	83	68	151

Instalazioa industriala den, zentro medikoa den (ospitalea, analisi laborategia...), ikerketa zentroa den (Unibertsitatea, laborategia...) edo isotopo erradioaktiboak edo erradiazioa sortzen duten ekipamenduak ekoitzi eta/edo banatzen dituen merkataritza instalazioa den zehazten du sektoreak.

I. Eranskinak EAE n baimenduta dauden instalazio erradioaktiboek zerrenda osoa jasotzen du, Katalogo Nazionalakoak barne, eta haien kategoría, sektore, jarduera, populazioa, helbidea, larrialdi erradiologikoko taldea eta larrialdiari eman beharreko erantzun maila zehazten dira. II. ERANSKINAK bere lurretan INSTALAZIO ERRADIOAK-TIBOAK dituzten EAEko udalerriak jasotzen ditu.

Honako taula honetan ageri dira Donostialdean baimendutako instalazio erradioaktiboak eta beraien kategoría eta mota.

DONOSTIALDEAN BAIMENDUTAKO INSTALAZIO ERRADIOAKTIBOAK

INSTALAZIO ERRADIOLOGIKOAK					
	TITULARRA	HELBIDEA	UDALERRIA	KAT	MOTA
1. JOSE MARÍA UCIN, S.A.	Jose María Ucin, S.A.	Industrialdea, 39	Usurbil	3	I
2. MICHELIN ESPAÑA PORTUGAL, S.A.	Michelin España Portugal, S.A.	Txiki Erdi errep. z/g 20160 PK	Lasarte-Oria /Usurbil	2	I
3. GIKESA	Gikesa	F. Mugica 11, behea 20018 PK	Donostia	2	I
4. CENTRO FISICA MATERIALES	UPV-EHU	Manuel Lardizabal z/g, 1.ª 20018 PK	Donostia	3	DI
5. SOCIEDAD FINANCIERA Y MINERA, S.A.	Sociedad Financiera y Minera, S.A	Añorga 36 20018 PK	Donostia	2	I
6. CIC BIOMAGUNE	Eusko Jaurlaritza	Añorga 36 20018 PK	Donostia	2	DM
7. ONKOLOGIKOA	Onkologikoa Fundazioa	Begiristain doktorea, 121 20014 PK	Donostia	2	M
8. HOSPITAL N. S. ARANZAZU	Osakidetza	Begiristain doktorea, z/g 20014 PK	Donostia	2	M
9. HOSPITAL DONOSTIA	Osakidetza	Begiristain doktorea, z/g 20014 PK	Donostia	2	M
10. LABORATORIOS SAIOTEGI, S.A.	Saiotegi, S.A.	Ubarburu 61 20115 PK	Donostia	2	I
11. CELULOSAS HERNANI, S.A.	Celulosas Hernani, S.A.	Florida 156 20120 PK	Hernani	2	I
12. PAPELERA GUIPUZCOANA ZICUÑAGA, S.A.	Pap. Guip. Zicuñaga, S.A.	Zikuñaga bailara 52 20120 PK	Hernani	2	I
13. CINTAS ADHESIVAS UBIS, S.A.	Ubis, S.A.	Lastaola industrialdea 39 20128 PK	Hernani	2	I

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA

EAEk badu Arrisku Erradiologikoari aurre egiteko Plan Berezia (AEPB2015), 2014an idatzitakoa, Arrisku erradiologikoari begirako Herri Babesaren Plangintzarako Oinarrizko Gidalerroak (OG-Erradiologikoa) xedatutako gutxieneko baldintzen arabera. AEPB2015 planak baliabide eta zerbitzuen antolaketa eta jarduera prozedurak xedatzen ditu, material erradioaktiboek presentziak eragindako larrialdiei aurre egiteko xedez.

Instalazio eta jarduera erradioaktiboetan istripu erradiologikoak gertatzeak, baina fisio nuklearreko katean izan-dako erreazio batek edo erreazio horren ondoriozko produktuek zerikusirik izan gabe, larrialdi erradiologikoko egoerak eragin ditzake, pertsonen osasunean istripu nuklear larri batek baino inpaktu txikiagoa izango luketenak. Egungo erregelamenduzko xedapenen arabera, ordea, egoera horiek ezin dira mespretxagarritzat jo babes neurri egokien plangintzaren ikuspegitik.

Jende asko bizi den eremuetan gerta litezkeen larrialdi erradiologikoei buruzko azken gogoetak legez kontrako edo asmo txarreko ekintzei buruzkoak dira, hau da, terrorismo nuklearra deiturikoari buruzkoak. Ekintza horietan erradiazio iturriak erabiltzen dira pertsonen eta ondasunen kalteak eragiteko dispertsio erradioaktiboko gailuekin (bonba zikinak), eta kasu horietan jarduera neurriak fenomeno horiek prebenitzeko instalazio eta materialen babes fisikoaren ildotik doazen arren, kontuan hartu behar dira pertsonak babesteko neurriak planifikatzeko ikuspegitik ere, hain zuzen ere, horrelako ezbehar bat gertatuz gero abian jarriko liratekeen neurriak.

Arrisku erradiologiko baxu edo ezezaguneko istripu, ezbehar edo gertakarien agertoki horiek guztiak aurreikusi eta babes erradiologikorako oinarritzko arauak buruzko araudiak eskatutako betebehar guztiak bete ahal izateko, agintari publikoak hainbat prozedura eratzen joan dira instalazio nuklear eta erradioaktiboen titularrei eta metalak birziklatzeko instalazioei autobabeseko neurriak eta instalazio eta materialen babes fisikorako neurriak eskatzeko erakunde erantzuleen bidez.

Hala, hirian eta bere ingurune hurbilenean zenbat instalazio erradiologiko dauden eta erregelamenduz bete behar dituzten segurtasun neurriak kontuan hartuta, **ARRISKU ERRADIOLOGIKOA** gertatzeko **PROBABILITATEA ERTAINA** dela uste da.

Bestalde, instalazio horiek hiriguneetan edo hiriguneetatik hurbil banatuta eta kokatuta egoteak instalazio erradioaktiboek sortutako arriskuarentzako **KALTEBERATASUN ERTAINA** izatea eragiten du.

C) SAILKAPENA.

ARRISKU ERRADIOAKTIBOA:

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- **ARRISKU MAILA: ERTAINA.**

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

3.3.6.- KUTSADURAREN ARRISKUAK (KTS)

A) IDENTIFIKAZIOA

Kutsadura gauza edo ingurune baten araztasuna edo ohiko baldintzak agente kimiko edo fisikoen bidez aldatzea da. Ingurune batean ingurune hori segurua ez izatea edo erabiltzeko egokia ez izatea eragiten duten substantziak sartzea da. Ingurunea ekosistema bat, ingurune fisiko bat edo izaki bizidun bat izan daiteke eta kutsatzailea, berriz, substantzia kimiko edo energetiko bat (soinua, beroa, argia edo erradioaktibitatea). Nolanahi ere, ingurunearen berezko egoeraren alerazio negatiboa da kutsadura eta, oro har, giza jardueraren ondorioz sortzen da eta ingurumen inpaktutzat jotzen da.

Kutsadura jatorriaren arabera, isurtzen duen gai kutsatzailearen arabera edo kutsatzen duen ingurunearen arabera sailka daiteke. Agente kutsatzaile asko daude, besteak beste, substantzia kimikoak (pestizidak, zianuroa, herbizidak eta beste batzuk), hiri hondakinak, petrolio edo erradiazio ionizatzaileak. Horiek guztiek gaixotasunak eragin ditzakete, edo kalteak ekosistemetan edo ingurumenean. Horiez gain, fenomeno atmosferikoetan eragin garrantzitsua duten kutsatzaile gaseoso asko daude, esaterako, euri azidoa, ozono geruza ahultzea eta klima aldaketa eragiten dituztenak.

Honako hau da kutsaduraren sailkapena kutsatzen duen ingurunearen arabera:

1) Kutsadura atmosferikoa.

Atmosferan substantzia kimikoak eta partikulak askatzea da. Horrela, haren osaera aldatzen du eta arriskutsua da pertsonen eta gainerako izaki bizidunen osasunerako. Hauek dira airearen kutsatzaile ohikoenak: karbono monoxidoa, sufre dioxidoa, industriak sortutako klorofluorokarburoak eta nitrogeno oxidoak eta ibilgailuen errekuntzan sortutako gasak.

2) Ur kutsadura.

Jariatzeetara isuritako hondakin eta kutsatzaileek eragiten dute, ibaietara garraiatu eta lur azpiko uretan sartzen direnean edo aintzira edo itsasoetara iristen direnean. Halaber, ITSASO zabalean PETROLIOA isurtzeagatik ere gerta daiteke, hain zuzen ere, petrolio ontziak hondoratzearen edo petrolio ontzietako ihesen ondorioz eta, batzuetan, petrolio putzuetako isurien ondorioz.

3) Lurzoruaren kutsadura.

Produktu kimikoak, isurien edo iragazteen ondorioz, lurzoru gainean edo azpian askatzen direnean gertatzen da. Lurzoruaren kutsatzaile garrantzitsuenen artean honako hauek aipa daitezke: hidrokarburoak, esaterako, petrolio eta bere deribatuak, baterietan ohikoak diren metal astunak, Metil tert-butil eterra (MTBE), labore industrialetan eta monolaboreetan inhinztatzen diren herbizidak eta pestizidak eta industriak sortutako organokloratuak; baita hirietako zabor kantitate handiak lurperatzen dituzten zabortegiak eta zerrenda ekologikoak ere. Kutsadura mota horrek zuzenean eta edateko ur iturriekin bat eginda eragin diezaioke osasunari.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA

Kutsaduraren ondoriozko arrisku mota horrek arestian aipaturiko arrisku kimikoan, industria arriskutsuetan, salgai arriskutsuen garraioan eta arrisku erradiologikoan du jatorria. Beraz, azken arrisku horietako baten ondorioa da kutsadura eta, gainera, arrisku horiek guztiek ingurune lehortarra (lurzoruak), ingurune urtarra (ibaia, erreka, itsasoak, etab.) eta atmosfera (airea) kutsatzeko ahalmena dute.

Kutsadura arriskuaren azterketarako eta ebaluazio orokorrerako ARRISKU NUKLEARREN, BIOLOGIKOEN, KIMIKOEN, ERRADIOLOGIKOEN ETA SALGAI ARRISKUTSUEN GARRAIOAREN ataletara jo behar da.

AIRERA EGINDAKO ISURIEI eta LURZORU KUTSATUEI dagokienez, Eusko Jaurlaritzak garatzen du ingurumen politika EAEko esparruan IHOBERen bidez. IHOBEk, alde batetik, kutsaduraren prebentzioa eta kontrola garatzen ditu jarduera industrialei dagokienez (IPPC) eta, bestalde, herrialdearen industria historia luzearen ondoriozko Lurzoru kutsatuen inbentarioa du, eta lurzoru horiek lehengoratzeko prozedurak ezartzen ditu.

Lurraldean garatutako jarduera industrialaren ondoriozkoa ez den kasu berezien artean dago PETROLIO ISURIA-REN arriskua. Hauxe da petrolio isuria: gizakiaren jardueraren ondorioz ingurumenera petrolio likidoa edo beste hidrokarburo mota bat isurtzea. Isuri hori ingurune lehortarrean edo ingurune urtarrean gerta daiteke, eta bigarrengoaren barruan, itsas ingurunean edo ibaiko ingurunean.

Atal honek, itsasertzeko kutsaduraren aurrekariak daudenez, itsas ingurunean gertatutako petrolio isuriei solik egiten die aipamena. Isuri horien jatorria petrolio ontzien istripuetan (ohikoa) edo petrolio plataformetako, zulaketa plataformetako edo petrolio putzuetako istripuetan egon daiteke, edo produktu finduek ingurune urtarrean edo lehortarrean egindako isuriak ere izan daitezke, hala nola, gasolinaren, gasolioaren edo antzeko beste produktu batzuen isuriak. Nolanahi ere, mota horretako istripu bat gertatzeak kalteak sortzen ditu ingurumenean eta batez ere turismoarekin zerikusia duen ekonomia jardueran.

Isuriak garbitzeko eta eremuak lehengoratzeko hilabeteak edo urteak ere behar izaten dira. Hala, isuriei aurre egiteko honako teknika hauek erabiltzen dira:

- Petrolio biltzea.
- Biokonpontzaileen erabilera (mikroorganismoak erabiliz) edo agente biologikoen erabilera petrolio desegiteko edo mugitzeko.
- Dispersatzailea erabiltzea.
- Erreketa kontrolatua.
- Petrolio solidotzea kendu ahal izateko.
- Petrolio eta ura xurgatzea huste bidez eta ondorengo zentrifugatzea haiek bereizteko.
- Etab.

Petrolio ontzien segurtasunari dagokionez, esan beharra dago gaiaren inguruko araudia etengabe gogortzeari esker eta ontziek krosko bikoitzeko sistema izateko betebeharrari esker, istripuaren ondoriozko isuriaren aurkako segurtasuna handiagoa dela orain.

Nolanahi ere, gure historia berrienean, 2002an Prestige petrolio ontzia Galiziako kostaldean hondoratzeak eragin zuen hondamendia nabarmendu behar da. Istripu hark Espainia eta Frantziako kostako 2.000 km-tan izan zuen eragina, eta Donostiako kostaldean ere eragin garrantzitsua izan zuen.

Honenbestez, kutsadura ATMOSFERIKOAK Arrisku Kimikoarekin (K) eta Salgai Arriskutsuen Garraioarekin (SAG) lotura zuzena duela kontuan hartuta, hiriak ARRISKU ERTAINA duela uste da kutsadura mota horri dagokionez. Bestalde, UR kutsadurari eta LURZORU kutsadurari dagokienez, ARRISKU BAXUA duela uste da.

Bestalde, instalazio horiek hiriguneetan edo hiriguneetatik hurbil banatuta eta kokatuta egoteak eta hiriko kostaldearen izaera turistikoak, kutsadurak hiriko askotariko inguruneetan sortutako arriskurako KALTEBERATASUN ERTAINA izatea eragiten dute.

C) SAILKAPENA.

- Kutsadura ATMOSFERIKOAREN ARRISKUA:

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

- UR Kutsaduraren ARRISKUA:

- Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 6.
- ARRISKU MAILA: BAXUA.

Sailkapena: **ARRISKU BAXUA**

- Kutsadura LEHORTARRAREN ARRISKUA:

- Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 6.
- ARRISKU MAILA: BAXUA.

Sailkapena: **ARRISKU BAXUA**

3.3.7.- OINARRIZKO ZERBITZUEN GABEZIA ARRISKUA (ZRB)

A) IDENTIFIKAZIOA.

Hiriko zerbitzu egituratzat jotzen dira hiriko energia sistema, telekomunikazio, hondakin eta elikadura sistemak eta sistema hidraulikoa ahalbidetzen dutenak eta bizi baldintzen, jardueren eta horien funtzionamenduaren garapenerako euskarri direnak. Gainera, ezinbestekoak dira udalerriko antolatamendu egiturarako. Honako hauek jotzen dira Donostia hiriko oinarritzko zerbitzutzat:

- 1) Edateko uraren hornidura sistema;
- 2) Hondakin uren estolderia, hustuketa eta arazketa sistema.
- 3) Energia elektrikoaren ekoizpen eta hornidura sistema.
- 4) Argiteria publikoaren sistema.
- 5) Semaforo sistema.
- 6) Telefonía eta telekomunikazio sistema.
- 7) Erregai hornidurako sistema (gasa).
- 8) Hondakinen kudeaketa sistema.
- 9) Elikagaien hornidura sistema (merkatuak).

Hiriko oinarritzko zerbitzu horietako bakoitzaren deskribapena hemen dago jasota: 2. kapitulua.- Udalerriaren analisia, 2.4. atala.- Azpiegiturak, 2.4.2. azpiatala.- Hiriko zerbitzuen azpiegiturak.

Ikus daitekeen bezala, oinarritzko zerbitzuen hornidura gehienak, esaterako, energiarena, hidraulikoa, telekomunikazioena, hondakinena eta elikagaiena, OPERADORE PRIBATUEK ematen dituzte. Batzuk eskualdekoak dira (mankomunitateak) eta beste batzuk estatukoak edo nazioartekoak (multinazionalak).

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

Aipatutako oinarritzko zerbitzu horietako edozein ez izateak, batez ere luzaro irauten badu, arriskutsua izan liteke pertsonentzat, ondasunentzat, jarduerentzat edo ingurumenarentzat.

Oinarritzko zerbitzuen gabeziaren ondoriozko zerbitzuak hauetan izan dezake jatorria:

- 1) Zerbitzu hornitzaileak berak eragindako gertakaria: matxura, errorea, azpiegituraren egoera txarra, etab.
- 2) Zerbitzuak berak eragin ez duen gertakaria, baina haren eraginpean arriskuaren ondorioetan parte hartzen duena eta ondorioak handitzen dituena: arrisku meteorologiko batek zerbitzuetan duen eragina -haizea, euria, lehorteak, etab.

Garrantzi txikiko eta zentzuzko epean ebatzitako ezbeharrak izan ezik, ez da ezagutzen zerbitzuetakoren bat luzaroan etenda egotea eragin dezakeen gertakaririk.

Azaldutako datuak kontuan hartuta, oinarritzko zerbitzuen gabeziak sortutako arriskuaren PROBABILITATEA BAXUA da.

Bestalde, oinarritzko zerbitzuen azpiegiturak gizarte garatu bati dagozkionak dira, hau da, plan honen xede den gizarteari dagozkionak, bai publikoak eta bai pribatuak. Horregatik, oinarritzko zerbitzuen gabeziaren arriskuaren aurrean KALTEBERATASUN BAXUA duela uste da.

C) SAILKAPENA.

OINARRIZKO ZERBITZUEN gabezia ARRISKUA:

- Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
- Kalte indizea: Baxua 2.
- Arrisku indizea: 4.
- ARRISKU MAILA: BAXUA.

Sailkapena: **ARRISKU BAXUA**

3.4.- ARRISKU ANTROPIKOAK

ANTROPO aurrezkiak gizateria aipatzen du (antropologia, antropofagia, antropomorfismoa, antropozentrismoa, etab.). Antropiko adjektiboak gizakiari dagokiona edo antropogenetikoa esan nahi du, hau da, gizakiak eragindakoa. Faktore antropikoez hitz egiten dugu giza jardueraz ari garenean.

Hala, arrisku antropikoak pertsonen existentziak eta ekintzak sortutakoak dira. Arrisku horiek ISTRIPUZKOAK edo ERAGINDAKOAK izan daitezke, eta lotura zuzena dute pertsonen jarduerarekin eta portaerarekin.

3.4.1.- BIDAIRI GARRAIOAREN ISTRIPU ARRISKUA (BD)

A) IDENTIFIKAZIOA.

Istripu gisa definitzen da kanpoko nahi gabeko agente baten ekintza bortitz eta bat-bateko batek eragin eta gorputzeko lesio bat edo lesio material bat eragiten duen edozein gertakari. Definizio horretako terminoen anplitudak eragiten du istripu motak aurreikusi eta kontrolatu ezin diren askotariko fenomenoek baldintzatzen dituztela kontuan hartu behar izatea.

1) Bidaiarien garraibideak.

Heriotza tasa handiena eragiten duen istripu taldea lehorreko (errepidea eta trenbidea), aireko (hegazkinak) eta itsasoko (ontziak) garraibideetan izaten diren istripuena da.

1.1) BIDAIRIEN ERREPIDEKO GARRAIOA.

Ikus atal hau: 2.4.1.1.- Bide sarea.

1.2) BIDAIRIEN TRENBIDEKO GARRAIOA.

Ikus atal hau: 2.4.1.4.- Trenbide sarea.

1.3) BIDAIRIEN AIREKO GARRAIOA.

Ikus atal hau: 2.4.1.5.- Aireportu sarea.

1.4) BIDAIRIEN ITSASOKO GARRAIOA.

Ikus atal hau: 2.4.1.6.- Itsasoko sarea.

Garraio mota guztietarako, ikus atal hau: 2.4.1.7.- Garraio publikoa.

Errepide, trenbide, itsaso edo aireko bidaiari garraioetako istripuak honako faktore hauengatik gertatzen dira batik bat:

- 1) Giza faktoreak: giza faktoreak dira igarotzeko istripu gehienek kausa.
- 2) Faktore mekanikoak: eragiketarako baldintza desagokiak edo garraibideen mantentze desagokia.
- 3) Faktore klimatologikoak: lainoa, hezetasuna, euria, izotza, elurra, luiziak, zona ezegonkorak, hondoratzeak.
- 4) Beste batzuk: ondo ez dabilen semaforoa, bideen baldintzak (pitzadurak, zuloak, seinalerik gabeko oztupoak, etab.).

Hiriko komunikazio eta garraio azpiegitura horietako bakoitzaren deskribapena hemen dago jasota: 2. Kapitulua.- Udalerraren analisia, 2.4. atala.- Azpiegiturak, 2.4.1. azpiatala.- Komunikazio eta garraio azpiegiturak.

2) Biktima anitzeko ezbeharra (bae).

Plan honi dagokionez, kontuan hartzen dira bidaiarien garraio istripu larriak, hain zuzen ere, pertsona kopuru handi bati eragiten diotenak, hau da, Biktima Anitzeko Istrupuak (BAI).

BAI istripuetan biktima asko izaten dira eta, horregatik, eremu sanitarioaren asistentziarako ahalmena gairitu lezakete. Nolanahi ere, hasiera batean desproporzio kuantitatiboa eta/edo kualitatiboa eragingo lukete asistentzia, logistika eta antolaketa premien eta normalean erabiltzeko moduan egoten diren baliabideen artean.

Gisa horretako ezbeharren berezko ezaugarriak kontuan hartuta, erantzun sanitarioaren kudeaketaren eta koordinazioaren pisua eta biktimei eskaintzen zaien hasierako arreta ospitalez kanpoko larrialdi zerbitzuen gainean erortzen da, hau da, Emergentziak-Osakidetzaren gainean. Zerbitzu horiek Biktima Anitzeko Ezbeharretarako (BAE) Jarduera Plana aktibatuko dute eta Gurutze Gorriaren eta DYAre larrialdi zerbitzuen laguntza izango dute.

Larrialdi zerbitzuen egiteko nagusia BAE bat osasun ikuspegitik kudeatzea izango da, biktimen erreskatearen lehenespena, eta haien sailkapena, egonkortzea eta ospitaleetarako garraioa antolatuz. Horretarako, bi ekintza beharko dira batez ere:

- 1) Agertokiaren antolaketa eta kontrola.
- 2) Biktimen artapena eta ebakuazioa lehenestea.

Biktimen hasierako arretaren ondorengo fasean eta ezbeharren magnitudearen eta larritasunaren arabera, baliteke biktimentzako eta horien ingurukoentzako arreta psikologikoko zerbitzuak behar izatea.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

Bidaia askoren hasiera eta/edo helmuga hiria bera izateaz gain, Donostia hiriak Europako kontinentearen eta Iberiar penintsularen arten duen kokapen geografikoa dela eta, udal mugartea zeharkatzen duten errepideak eta trenbideak igarotzeko bide bihurtzen dira hainbat eta hainbat ibilgailu eta bidaiarientzat. Horregatik, barne desplazamenduetako nahiz kanpoko edo igarotzeko desplazamenduetako bidaiari garraioan izaten diren istripuen arriskua du hiriak.

Kanpoko edo igarotzeko bidaiarien errepideko eta treneko garraiobideei dagokienez, esan, 2010ean Donostiako 2. ingurabidea ireki izanak asko hobetu duela igarotzeko bidaiari garraioko ibilgailuen trafikoaren segurtasuna, eta modu berean ulertzen da egikaritzen ari den Abiadura Handiko Trenaren (AHT) ibilbideak ere trenbideko bidaiarien trafikoaren segurtasuna nabarmen hobetuko duela.

Hiriak, bestalde, ez du bere udal mugartean bidaiariak garraiatzeko ez aireko eta ez itsasoko azpiegiturarik.

Bidaiarien garraiobideetan udal mugartean gertatutako istripuei buruz eskura dauden eta azaldu diren datuak kontuan hartuta, arrisku horren PROBABILITATEA ERTAINA da.

Bestalde, udal mugartean igarotzen diren bidaiarien azpiegiturak eta garraiobideak gizarte garatu bati dagozkionak diren arren, bidaiarien errepide eta trenbide garraioan sortutako arriskuaren aurrean hiriak KALTEBERATA-SUN ERTAINA duela uste da, ibilgailu eta bidaiarien kopuru handiagatik.

C) SAILKAPENA.

Bidaiarien ERREPIDE eta TRENBIDE garraioko ISTRIPUEN ARRISKUA.

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

3.4.2.- SUTE ARRISKUA (SUA)

A) IDENTIFIKAZIOA

Honela definitzen da sute arriskua: erre beharrekoa ez den zerbait kiskali dezakeen su kontrolatu gabea izatea. Materialei, ondasunei nahiz izaki bizidunei eragin diezaieke. Izaki bizidunak suaren eraginpean egoteak oso kalte larriak eragin ditzake, baita heriotza ere. Kalte horiek, oro har, kea arnasteagatik edo intoxikazioak eragindako zorabioagatik eta ondorengo erredura larriengatik izaten dira.

Sua hasteko erreakzionatzen duten materialak (erregarria eta erregaia) baldintza jakin batzuetan egotea eta erreakzioa abiaraziko duen energia jakin bat (aktibazioko energia) egotea behar da. Hala, honako hiru elementu hauek elkartzen dituen suaren triangelua deiturikoarekin identifikatzen da erreakzioa prozesua:

- **Erregaia:** baldintza jakin batzuetan erretzeko gai den edozein substantzia.
- **Erregarria:** erregaia elementu horren presentzia behar du erretzeko (normalean, oxigenoa).
- **Aktibatzeko energia:** erregaia eta erregarriak erreakzionatzeko behar den energia (beroa).

Suaren triangelu horri beste faktore bat gehitzen zaio: kate erreakzioa. Honela definitzen da kate erreakzioa: erregarri-erregai nahasketa baten barruan erreakzioak aurrera egitea eragiten duen prozesu kimikoa. Horrekin osatzen da suaren tetraedroa.

Errekuntzatik ateratzen diren produktuak lau talde handitan ordena daitezke:

- **Garrak:** erreakuntzak berezkoa duen argi fenomeno, goritasun gas batek eratutakoa. Bere tenperatura aldatu

egiten da erregai motaren eta oxigeno indizearen arabera (1.600 °C-2.000 °C).

- **Beroa:** errekontzak beroa askatzen du erreazio exotermiko gisa. Material erregaiaren arabera, botatzen duten berotze ahalmena aldatu egiten da. Sute batean sortutako beroak materialen tenperatura igo eta sua zabaltzea eragiten du. Erreduren ondoriozko kalteak ere eragiten dizkie pertsoneri (deshidratazioa, akidura, arnasa arazoak eta hiltzerainoko erreduarak) eta ondasunei.

- **Kea:** errekontzan sortu eta airean esekita dauden partikula solido eta likidoak osatzen dute kea. Ikuspen falta, begietan, arnasbideetan eta biriketan zentzumen narritadura eta erreduarak eragiten dituzte eta, horren guztiaren ondorioz, baita izu egoerak ere tenperaturaren ondorioak sumatzen hasi baino lehen.

- **Gasak:** errekontza guztietan, erregaia osatzen duten elementu askok konposatu gaseosoak eratzen dituzte erretzen direnean. Konposatu horiek, hein batean, toxikoak izan daitezke eta ezgaitasun fisikoak, intoxikazioa eta heriotza ere eragin dezakete pertsonengan. Gas toxikoak honela sailkatzen dira: itogarriak, narritagarriak eta pozoitsuak. Gas horiek errekontzako beste hiru produktuek baino heriotza gehiago eragiten dituzte.

Suteak modu desberdinean sailka daitezke hainbat irizpideren arabera:

1) Sute mota MATERIAL ERREGAIAREN arabera.

Sute mota hori su mota gisa definitzen denaren arabera katalogatzen da eta erretzen den materialaren baitan dago:

- Solidoa (A mota).
- Likidoak (B mota).
- Gasak (C mota).
- Metalak (D mota).
- Olio kantitate handiak (K mota).

Katalogazio hori garrantzitsua da erregaiaren arabera agente itzaltzaile desberdinak erabili beharko ditugulako, agente itzaltzaileen atalean ikusi dugun bezala.

2) Sute motak LEKUAREN arabera.

2.1) HIRITARRA.

a) Eraikinak. **ERAIKINETAKO SUTEAK** giza pilaketa dagoen lekuetan izaten diren suak dira, hau da, eraikinak edo etxeak dauden tokietan izaten direnak. Kasu horretan, ezinbestekoa da aipatzea sutea izan eta esku hartu behar denerako baldintza bereziak dituzten hiriko eraikinak. ERAIKIN BEREZI horiek hemen daude jasota: 2. kapitulua.- Arriskuen analisisa, ebaluazioa eta prebentzioa, 2.6. atala.- Ondare eraikia eta intereseko elementuak, 2.6.2. azpiatala.- Eraikin bereziak. Eraikin berezi horien parte dira honako irizpide hauen arabera sailkatutako eraikuntza tipologiak: eraikuntza sistemaren arabera (egurrezko egiturak eta/edo mistoak), jarduera edo erabileraren arabera (irakaskuntza ekipamendua, sanitarioa, ostalaritzakoa, merkataritzakoa, aisiarakoa, etab.) eta garaieraren arabera (garaiera handiko eraikinak).

b) Instalazio industrialak. **SUTE INDUSTRIALAK** substantzia erregaiak biltegitatu edo fabrikatzen diren industria edo instalazioetan izaten diren suak dira. Hainbat motatako gas, likido edo substantzia arriskutsu eta toxikoak hartzen dituzte. Oso arriskutsuak dira eta pertsonal espezializatuak soilik egin behar die aurre. Hemen daude jasota: 3.3. atala.- Arrisku teknologikoak, 3.3.1. azpiatala.- Arrisku kimikoak.

2.2) BASOKOAK.

BASOKO SUTEAK su bortitzak dira, eta eremu irekietan kontrolik gabe garatzen dira basoko landare masei eraginez. Sute horietan erregaia solidoa da, baso masa, eta itzaltzeko zer azpimotatakoa den jakin behar da. Basoko suteak hiru taldetan banatzen dira:

- Adaburuetako sua: zuhaitzen adaburuetan hedatzen da. Su zitalak izaten dira eta azkar zabaltzen dira.
- Azaleko sua: sastrakak, belarrak eta hosto lehorrak erretzen dira. Hauek ohikoagoak izaten dira eta beste sute mota batzuen hasiera izaten dira.
- Zorupeko suak: zuhaitzen sustraiak eta beste gai organiko batzuk erretzen dira. Sute horietan ez da garrik izaten, txingarrak eta ke gutxi izaten dira. Motel hedatzen dira eta basoko sute handietan gertatzen da, sua sustraie taraino iristen denean. Gisa horretako basoko suteen ondoren, basoko lantaldeek ondo zaindu behar izaten dute berpiztu ez daitezen. Lurra irauli behar da eta zangak egin erabat itzaltzeko.

2.3) GARRAIOA.

Ibilgailu eta GARRAIOBIDEETAN izaten diren suak dira. Pertsona nahiz produktuen garraioa hartzen ditu eta sutearen konplexutasuna ezbeharra larrialdi-ekipamenduetatik dagoen distantziaren arabera izaten da.

3) Sute motak MAGNITUDEAREN arabera.

- SUTE HASIERA:

Su itzalgailu estandarrekin erraz itzal daitekeen sute txikia da. Su itzalgailuak erabiltzen jakitea eta itzalgai-

lu motak ezagutzea komeni da. Horrela, sute hasiera itzal dezakegu eta ez diogu utziko askoz suntsigarriagoa bihurtzen.

- SUTE PARTZIALA:

Sute partzialek instalazio, etxe edo eraikin baten zati bat hartzen dute. Sute mota hau oso arriskutsua da, hedatu eta deskontrolatu egin daitekeelako eta erabateko sute bihurtu. Kasu horietan alferrikakoa izaten da suteari su itzalgailuekin aurre egitea. Leku seguru batera irten behar da eta larrialdiko talde espezializatuak itxaron.

- ERABATEKO SUTEA:

Kontrolik gabe dagoen eta etxe, eraikin edo instalazio oso bati eragiten dion sutea da. Ia ezinezkoa da aurre egitea eta su hiltzaileek inguruko beste eraikin batzuetara zabaltzen ez uzteko ahalegina egingo dute.

4) Sute mota ARRISKUAREN arabera.

Arriskua hainbat faktoreren arabera ebaluatzen da. Honako hauek dira garrantzitsuenak:

- Okupazioa eta jarduera: eraikin baten okupatzaile kopurua eta erabilera.
- Edukitzailea: eraikinaren eraikuntza materialak eta garaiera.
- Edukia: eraikinean dauden material sukoiak.

Hiru faktore horiek kontuan hartuta, arriskuaren ebaluazioa hauetako bat izan daiteke: ARINA, ARRUNTA EDO APARTEKOA.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

Lekuaren arabera sute moten sailkapena kontuan hartuta, haietako bakoitzaren analisia, ebaluazioa eta prebentzioa egin da, hain zuzen ere, eraikin zibiletako, industriako, basoko eta garraioko suteena.

SUTE INDUSTRIALEK lotura zuzena dute arrisku kimikoekin. Horregatik, sute mota horren analisia, ebaluazioa eta prebentzioa hemen daude jasota: 3.3. atala.- Arrisku teknologikoak, 3.3.1. azpiatala.- Arrisku kimikoak.

Bestalde, **GARRAIO SUTEAK** salgai arriskutsuen garraioaren arriskuarekin lotzen dira eta, horregatik, haien analisia, ebaluazioa eta prebentzioa hemen dago jasota: 3.3. atala.- Arrisku teknologikoak, 3.3.3. azpiatala.- Salgai arriskutsuen garraioaren arriskuak.

ERAIKINETAKO SUTEEI dagokienez, sute horietan bat egiten duten ezin konta ahalako faktoreak direla eta, oso zaila da, ezinezkoa ez bada, sute horiek erabat ekiditea, baina ekintza egokien bidez nabarmen murriztu daiteke arriskua. Eraikinetako suteek askotariko kausatan izan dezakete jatorria: hutsegiteak instalazio elektrikoetan edo erreketan instalazioetan, esaterako, galdaretan, erregai ihesak, sukaldeko istripuak, metxeroekin edo pospoloenkin jolasean ari diren umeak, edo beste su iturri batzuk dituzten istripuak, hala nola, kandelak edo zigarroak. Sua azkar hedatu daiteke eta sute fase berri batera igaro su deskontrolatu betekin.


Hiriak 187.000 biztanle ditu gutxi gorabehera, eta honako hau da lurraldearen zonakatzea indarreko HAPOren arabera:

LURZORUA		
	Azalera km ²	%
HIRIGUNEA (LURZORU HIRITARRA ETA URBANIZAGARRIA)	23,85	% 39,27
LURZORU URBANIZAEZINA	36,88	% 60,73
UDAL MUGARTEA GUZTIRA	60,73	% 100,00

ERABILERA		
	Azalera km ²	%
BIZITEGI ZONA	13,57	22,34
JARDUERA EKONOMIKOEN ZONA	3,54	5,83
LANDA INGURUNEA	25,45	41,91
KOMUNIKAZIO ZONA	3,93	6,47
ESPAZIO LIBREEN ZONA	11,58	19,07
EKIPAMENDU KOMUNITARIOKO ZONA	2,05	3,38
ZERBITZU AZPIEGITUREN ZONA	0,61	1,00
UDAL MUGARTEA GUZTIRA	60,73	100,00

Donostiako PSISZk urtean egindako esku hartzeak honako hauek dira:

URTEKO ETA PARTE-HARTZE MOTAKO ESTATISTIKA



	PARTE-HARTZE MOTAK	IRTEERA KOPURUA
1	ASISTENTZIAK	693
2	SUA	339
3	PREBETZIOA	428
4	ERRESKATEA	261
5	BESTEAK	14

Donostia hirian, bestalde, sute bat gertatu eta esku hartu behar izanez gero baldintza bereziak dituzten hainbat eraikin daude. ERAIKIN BEREZI horiek hemen daude jasota: 2. kapitulua.- Arriskuen analisia, ebaluazioa eta prebentzioa, 2.6. atala.- Ondare eraikia eta intereseko elementuak, 2.6.2. azpiatala.- Eraikin berezi horien parte dira honako irizpide hauen arabera sailkatutako eraikuntza tipologiai: eraikuntza sistemaren arabera (egurrezko egiturak eta/edo mistoak), jarduera edo erabileraren arabera (irakaskuntza ekipamendua, sanitarioa, ostalaritzakoa, merkataritzakoa, aisiarakoa, etab.) eta garaieraren arabera (garaiera handiko eraikinak).

Azaldutako datuak kontuan hartuta, eraikinetako sute arriskuaren PROBABILITATEA ERTAINA da.

Eraikinen kalteberatasunari dagokionez, aipagarria da Donostiako PSISZko Prebentzio Dibisioak eraikinetako sute prebentzioaren arloan egindako lana udal mugartean eraikitako eta eraiki beharreko eraikinei dagokionez. Establezimendu Industrialen Suteen Aurkako Segurtasuneko Erregelamendua (EISASE) onartzen duen abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua aplikatuz egiten da lan hori eraikin industrialetan; eta Eraikingintzaren Kode Teknikoa (EKT) eta Sute kasuetarako Segurtasuneko Oinarrizko Dokumentua (OD-SS) bizitegitarako eraikinetan eta eraikin zibiletan.

Hala eta guztiz ere, hiriak nolabaiteko ondare eraikia du, gaur egun eskatzen diren suteen aurka babesteko baldintza guztiak betetzen ez dituen, eta baita katalogatutako ondare eraiki babestua eta ezaugarri bereziak dituzten eraikin kopuru handi bat ere. Horregatik, eraikinetako suteek sortutako arriskuaren aurrean KALTEBERTASUN ERTAINA du.

BASOKO SUTEEI dagokionez, udalerriko egungo landaredia mapan jasota daude gaur egungo hiriko parke eta lorategiei dagozkien azalerak (Kristina-Enea, Aiete, Urgull, Uli, etab.) eta baita belardi eta labore atlantikoei dagokien landare formazioak okupatutako udalerriko landa luraren zatirik handiena ere.

Bestalde, EAEko Basoen inbentarioak (2011-2012), EAEko Landarediaren Mapak (GeoEuskadi) eta EAEko Basoko Erregaien 2016ko Ereduak emandako informazioa eta datuak kontuan hartuta, hirian hurrengo lau arrisku zonaldeak bereizten dira:

- 1) Arriskurik ez: bat dator landaredia erruderal nitrofiloaren zonekin eta parke eta lorategiekin.
- 2) Arrisku baxua: bat dator belardi eta labore atlantikoen zonekin.
- 3) Arrisku ertaina: bat dator baso landaketaren zonekin.
- 4) Arrisku altua: bat dator bertako baso zonekin.

Hala, udalerriko hirigunearen zatirik handiena arriskurik gabeko eta arrisku baxuko zonetan dago; era berean, udalerriko ingurune naturalaren zati handi bat arrisku baxuko zonetan dago.

Arrisku ertain eta altuko zonak, bestalde, ingurune hauetan daude:

- a) **Igeldo mendia**, Mendizorrotzera eta ipar eta hegoaldeko hegaletara hedatuz.
- b) Igarako atzealdea.
- c) Miramongo zuhaitzia.
- d) **Ulia mendia**.
- e) **Lau Haizetako** baso masak.
- f) Molinao errearen inguruko baso masak.
- g) Zubieta auzoaren goialdea.
- h) Landarbaso enklabea.
- i) Urdaburu enklabea (Oberan).

Landaredia horren gainean eragingo dute izaten diren basoko suteek. Suteen kausak naturalak izan daitezke, esaterako, tximistak. Dena den, baso eremuak lantoki gisa erabiltzeak (abeltzaintza, nekazaritza eta basogintza lanak) eta aisiarako leku gisa erabiltzeak eragin dezakete sute bat zabarkeriagatik, istripuagatik edo, batzuetan, baita berariaz ere. Suteari garaiz aurre egiten ez bazaio, galera handiak eragin daitezke ingurumenean, ondasun materialetan eta baita pertsonengan ere.

Hala, sute baten kausa azkena gizakia izatea da kasurik ohikoena (Foru Aldundien kalkuluen arabera nahita eragindakoak izan ziren 1989ko abenduko sute garrantzitsuen % 90). Kausa naturalen ondoriozko suteei dagokienez, berriz, EAEn oso ohikoak ez direnak, garrantzizko sute bat izaten da hogeitaz bat urtetik behin, eta tximista izan ohi da ia kausa bakarra.

Sute bateko erregarri bat aireko oxigenoa bada, ezinbesteko elementua da eta, HAIZEAREN bidez, eutsi ezinezko aitzinamendu faktore bihurtu liteke sute batean. Oso arriskutsuak dira EAEn hego haize egunak, haize lehorra eta batzuetan oso bortitza izaten delako, 100 km/h-ko abiadurara iristen dena eta ezeren aurrean gelditzen ez dena. Erregaia landare jatorriko elementu orok osatzen du. Zenbat eta lehorrago, are eta erregarriago. Horregatik, mozketako hondarrak, zurezko materiala, belar lehorren geruza edo botatako zuhaitzak material egokiak dira sutea bideratzeko eta landare estalkiko alderdi bizi eta hezeetara hedatzeko. Argitu eta garbitu gabeko basoa egitura erregaia adibide bikaina da. Gainazaleko su laster samarra zuhaitziko alderdi garaietara heda daiteke (haizearen, sastraken eta beheko adarren eraginez) eta, horrela, adaburuetako sute bihurtu.

Bestalde, Baso-Suteetarako Larrialdiko Plan Bereziak (BSLP), Euskal Autonomia Erkidegorako hiru baso-sute ARRISKU-GARAI eta bi ZONALDE bereizten ditu, modu orokortuan sailkatuta eta eskualde klimatiko bakoitzaren ezaugarriak bazter utzita, ondoren adierazitako moduan:

- ARRISKU GARAIAK.

1) Arriskubide handiko garaia.

Isurialde geografikoa zein den, desberdintasun handiak izaten dira. Zonalde mediterraneoan uda garaia izaten da, beti ere klimatologiaren arabera, horrek landarediaren egoerarekin lotura zuzena daukalako. Kantaurialdeko zonaldean udazkena heltzearekin batera hasi ohi da eta apirilaren erdialdera arte irauten du. Hil horretan lehenengo iratze-kimuak sortzen dira. Garai honetan, arriskubide-egunak Kantauriko Itsasertzean ohikoa den eta Azoreetako antizikloiaren ondorioz sortzen den Hego haizea agertzearekin batera etortzen dira.

2) Erdi mailako arriskubide-garaia.

Kantaurialdeko isurialdean udako hilabeteetan izaten da, arriskubide handiko garaia baino aste batzuk lehenago. Garai honetan sutea sor daitekeen arren, zabaltzeko lanak izaten ditu, bertako landaretza ihartu gabe dagoelako eta ia hego haizerik ez dagoelako. Zonalde mediterraneoan arriskubide erdiko garaia udaberrian izaten da.

3) Arriskubide txikiko garaia.

Garai hori urteko zikloko landaretza finkatuta dagoenean hasten da, sua sortzen eta hedatzen eragozteko eta moteltzeko adina kimu eta hezetasun portzentaje handia daudelako.

- ZONIFIKAZIOA:

I ZONALDEA: Iparraldetik, kostaldeko lerrotik isurialdeen banalerroraino, gutxi gorabehera Arabako Lautadaren Iparraldeko mugara arte.



ARRISKUBIDE-GARIAK

ZONALDEA	HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
I ZONALD.	09/15etik 04/15era	07/15etik 09/14ra	04/16tik 07/14ra
II ZONALD.	07/1etik 10/31ra	03/1etik 06/30era	11/1etik 02/28ra

ARRISKU GARIAK 1 EREMUA

URTARRILA / ENERO	OTSAILA / FEBRERO	MARTXOA / MARZO	APIRILA	ABRIL	MAIATZA / MAYO	EKAINA / JUNIO	JULIO	ABUSTUA / AGOSTO	IRAILA	SEPTIEMBRE	URRIA / OCTUBRE	AZAROA / NOVIEMBRE	ABENDUA / DICIEMBRE
-------------------	-------------------	-----------------	---------	-------	----------------	----------------	-------	------------------	--------	------------	-----------------	--------------------	---------------------



Azaldutako datuak kontuan hartuta, eraikinetako baso sute arriskuaren PROBABILITATEA ERTAINA da.

Bestalde, udal mugarteak landaredia edo zuhaitzi handiko zona garrantzitsurik ez duen arren, daudenak hirigune eraiki eta jendeztatuetatik hurbil egoteak baso suteek sortutako arriskuaren aurrean KALTEBERATASUNA ERTAINA izatea eragiten du.

C) SAILKAPENA.

Sute arriskua ERAIKINETAN:

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

Sute INDUSTRIALAREN arriskua:

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

GARRAIOKO sute arriskua.

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

BASO suteen arriskua:

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

3.4.3.- ARRISKU SANITARIOAK (OSN)

A) IDENTIFIKAZIOA

Intoxikazio masibo batek, epidemia batek edo pandemia batek eragindako egoera arriskutsu baten ondorioz populazio jakin baten osasun publikoak izan ditzakeen kalteekin identifikatzen da arrisku sanitarioa.

KRISIALDI SANITARIOA edo osasun publikoaren krisialdia eremu geografiko bati edo gehiagori, herri jakin batetik planeta osoraino, eragiten dien osasun sistemaren alarma egoera da. Krisialdi horiek kalteak eragiten dituzte pertsonen osasunean edo bizitzan, ekonomian eta gizartean. Kaltetutako pertsona kopuruaren arabera, hedadura geografikoaren arabera edo eragiten duen prozesu patogenoaren gaixotze tasaren edo heriotza tasaren arabera neurtzen da bere larritasuna.

Intoxikazio masiboa ur edo janari kutsatuak irenstearen ondorioz gerta daiteke. E-mailza intoxikazio arina, modera-tua edo larria izan daiteke. Gainera, gaixotasun infekzioso garrantzitsu asko ur eta janari kutsatuen bidez transmi-titu daitezke.

Eskualde edo populazio jakin batean lehendik dagoen gaixotasun infekzioso baten kasu kopurua izugarri handit-zea da EPIDEMIA. Normalean izan ohi ez duen eskualde edo populazio batean gaixotasun infekzioso baten kasu kopuru handi bat azaltzea ere adieraz dezake. Epidemiak beste hondamendi batzuen ondorioz sor daitezke, eta animaliei ere eragin diezaiekete eta tokiko hondamendi ekonomikoak eragin. Gizakien gaixotasun infekzioso bat eremu geografiko handi batean zabaltzea da pandemia. Nazioarteko bidaiak ugaltzeak arrisku sanitario berriak planteatzen ditu, gaixotasun endemikoak eta/edo oso lokalizatuak hedatzearekin lotuta.

Honako hauek dira hirian arrisku sanitarioa eragin dezaketen gaixotasun batzuk:

1) Gastroenteritisa.

Gastroenteritisaren ezaugarri nagusia digestio hodia handitzea da. Digestio hodia urdailak eta heste mehararak osatzen dute. Beherakoa, gorakoa, sabeleko mina eta arranpak dira sintoma nagusiak. Mundu osoan, umeen arteko kasu gehienak kausa errotabirusa da. Helduetan, bestalde, norobirusa eta Campylobacter dira kausa arruntak. Badira hain arruntak ez diren beste kausa batzuk ere, eta beste bakterio (edo horien toxinak) eta parasito mota batzuk ere. Behar bezala prestatu ez diren janariak edo ur kutsatua kontsumitzean eta pertsona infektatuekin harreman fisikoa izanda transmititu daiteke.

2) Salmonella.

Salmonella mundu osoan zabalduta dagoen zoonosiaren agente eragile gisa aritzen den bakterioa da. Ukiper zuzenaren bidez edo kutsadura gurutzatuaren bidez transmititzen da, janariak manipulatu edo prozesatzean edo etxean; sexu bidez ere transmititzen da. Espezie horren habitat naturala, gehienetan, edozein animalia motaren hesteak dira, gizakienak barne. 5 ordu eta 5 egun arteko inkubazio aldia du, eta beherakoa, buruko mina, sukarra eta sabeleko mina eragiten ditu. Gaixoaren eginkarien bidez bakterioaren kantitate handia kanporatzen da.

3) Legionellosia

Legionellosia hilgarria izan litekeen gaixotasun infekziosoa da, eta bakterio batek eragiten du. Legionellosi kasuen % 90 Legionella pneumophila bakterioak eragiten du, 25 °C (77 °F) eta 45 °C (113 °F) arteko tenperaturan aurrera egiten duen uretako organismoak. 35 °C (95 °F) du tenperatura egokiena. Infekzioa bi modutan ager daiteke: Pontiac sukarra, infekzio mota arina dena, eta legionarioaren gaixotasuna, infekzio mota larriagoa dena, pneumonia atipikoa eta sukar handia eragiten dituena. Legionellosi epidemiak komunikabideen arreta pizten dute instalazio jakin batzuekin lotzen direlako (aire girotua). Epidemia udan edo udazken hasieran azal-du ohi da, baina urte osoan zehar egon daitezke kasuak. Infektatu batzuek sintoma arinak izan ditzakete edo sintomarik ez izatea ere gerta liteke, baina legionellosia izaten duten pertsonen % 5 eta % 30 arteko kopurua hil egiten da, batez ere tratamendu antibiotikoak atzeratzen badira.

4) E.coli.

E. coli hesteetan bizi den bakterio mota baten izena da. E. coli gehienek ez dute arazorik sortzen, baina mota batzuek gaixotasunak eta beherakoa eragiten dituzte. Horietako batek eragiten du bidaiariaren beherakoa. E. coli mota txarrenak beherako hemorragikoa eragiten du eta, batzuetan, giltzurrun gutxiegitasuna eta heriotza ere eragin ditzake. Hori, oro har, umeengan eta immunitate sistema ahulduak dituzten helduengan gertatzen da. E. colirengatiko infekzioa bakterioa duten janariak kontsumitzearen ondorioz har daiteke. Hauek izan daitezke sintomak: goragalea edo gorakoa, sabelaldeko koliko handiak, beherako likidoa edo odol askorekin, nekea eta sukarra. Janari bidezko intoxikazioa saihesteko eta infekzioak prebenitzeko, hauek egin behar dira: segurtasunez manipulatu janaria, frutak eta barazkiak garbitu jan edo prestatu aurretik eta pasteurizatu gabe-ko esnea eta zukuak saihestu. Giza hondakinekin kutsatutako igerileku bateko ura irentsita ere har daiteke infe-kzioa. E. colirengatiko infekzio kasu gehienak tratamendurik gabe hobetzen dira 5 eta 10 egun arteko epean. Aipagarria da Alemanian 2011n gertatutako kasua.

5) Gripea.

Gripea ugaztunetan izaten den gaixotasun infekziosoa da, eta RNAko birus mota batek eragiten du. Gizakietan arnasbideei eragiten die. Hasiera batean hotzeriaren antzekoa izan daiteke eta, sarritan, hainbat sintoma orokor izaten ditu: eztarriko mina, ahulezia, muskuluetako mina, urdaileko mina, artikulazioetako mina eta buruko mina (zefalea), eztula (gehienetan lehorra eta mukirik gabe), gorputz osoko ondoeza eta sukarra. Kasu larriago batzuetan pneumoniarekin konplikatzen da. Pneumonia hilgarria izan daiteke, bereziki umeengan eta adinekoengan. Hotzeriarekin (katarroa) nahas daitekeen arren, gripea gaixotasun larriagoa da eta beste birus mota batek eragiten du. Gripea norbanako kutsatuek transmititzen dute birusez kargatutako aerosol tanten bidez (sudur edo bronkio jariatzetik edo listutik datozenak). Tanta horiek eztularekin edo doministikuekin batera edo hitz egite soilarekin isurtzen dira. Gripea urte sasoiko epidemietan banatzen da. Epidemia horiek milaka hildako eragiten dituzte, eta milioika izaten dira pandemia (mundu osoko epidemia) urteetan. XX. mendean bost gripe pandemia izan ziren, birusaren andui desberdinen mutazioen ondorioz. Andui berri horiek animaliek berezkoak dituzten anduiak gizakietara lekualdatzean sortu dira, espezie jauzi edo heterokutsapen deiturikoaren bidez.

HEGAZTI GRIPEAREN birusaren aldagai hilgarri bat, H5N1 deiturikoa, gizakiengan hurrengo gripe pandemia izateko hautagai nagusi bihurtu zen 1990eko hamarkadan espeziearen hesia gaingitu zuenetik eta Asian hainbat eta hainbat heriotza eragin zituenetik. 2009an, ordea, A neogripea (H1N1) sortu zen eta 2009-2010eko A gripearen (H1N1) pandemia eragin zuen. Herrialde garatuetan gripear aurre egiteko urteko txertaketa kanpainak ezarri dira gaixotasuna hartzeko arrisku handiena duten edo haien konplikazioekiko kalteberenak diren pertsonentzat.

6) HEGAZTI GRIPEA.

Hegazti Gripea batik bat hegaztiei (oilaskoak, ahateak, antzarak, etab., etxeko espezie nahiz espezie migratzaileak) eragiten dien birusengatiko infekzioa da, batzuetan beste espezie batzuei ere eragiten dien arren, esaterako, txerrei eta tigreei. Noiz edo noiz, hegazti gripeak infekzio larriak eragin ditzake pertsonengan. Hegazti gripearen birus desberdinen andui edo barietate asko daude. Gripearen birusaren azpitalde batekoak dira, mundu osoko pertsonengan urte sasoiko agerraldiak urtero eragiten dituen birusa barne hartzen duen azpitaldekoak. Aipagarria da 2004-2006 aldian gertatutako pandemia.

7) EBOLA.

Ebola gaixotasun birikoa da. Bere ezaugarri nagusiak dira heriotza tasa altua (% 90 arterainokoa) eta oso kutsakorra izatea. Ukipen bidez transmititzen da, gorputzeko fluido eta organo guztien bidez, orratz eta xiringa kutsatuen bidez eta aerosolen bidez. Pazienteei laguntzen parte hartzen duten pertsonak kutsa ez daitezen, zuhurtziazko neurri bereziak hartu behar dira. Ez dira ezagutzen bi birusen gordailuak edo jatorria. Aipagarria da 2014-2015eko ebola epidemia.

8) Paludismoa o malaria.

Paludismoa edo malaria Anopheles moskitoaren ziztada bidez transmititzen da. Moskitoa jardunean egoten da arratsetik egunsentira. Gaixotasun hori endemikoa den eskualdeetan, tokiko biztanleek nolabaiteko immunitate maila dute. Arrisku handienari aurre egin behar izaten dioten pertsonak paludismorik existitzen ez den eremuetatik joandakoak dira, esaterako, barne desplazatuak edo errefuxiatuak. Pertsona horiek babesteko, paludismoaren aurkako sendagai baten asteko dosia eman behar zaie. Lau paludismo mota daude. Plasmodium falciparum birusak eragindakoak berehala ekar dezake heriotza eta, horregatik, ahal bezain laster tratatu behar da.

9) Elgorria.

Elgorria gaixotasun biriko oso kutsakorra da. Heriotza tasa handia izan dezake, batez ere umeengan. Pertsona batek elgorria badu, pertsona horrekin kontaktuan egoten diren pertsonen % 90 kutsatuta geratuko da, baldin eta babestuta ez badago. Agerraldi baten hasierako fasean berehalako txertaketa programa integral bat egi-teak gaixotasunaren hedapena mugatzen lagundu dezake.

10) Meningitis meningokozikoa.

Meningitisaren ezaugarri nagusia meningeak handitzea da. Meningitisen % 80 birusek eragindakoa da, % 15 eta % 20 artean bakterioek eta gainerakoak intoxikazioek, onddoek, sendagaiek eta beste gaixotasun batzuek eragindakoak. Meningitisa ez da maiz izaten den gaixotasuna baina hilgarria izan liteke. Garunari eragin diezaioke eta kontzientzia galera, garuneko lesioa eta beste organo batzuen lesioa eragin. Meningitisak azkar egiten du aurrera. Horregatik, diagnostiko eta tratamendu goiztiarra garrantzitsuak dira ondorio larriak eta heriotza prebenitzeko. Meningitisa edonork izan dezakeen arren, ohikoagoa da umeengan eta pertsona immunodeprimituengan.

11) Sukar horia.

Sukar horia gaixotasun biriko akutua, infekziosoa eta hilgarria da, erraz hedatzen da eta moskito batek transmititzen du. Afrikako eta Hego Amerikako leku batzuetan soilik du presentzia. Leku horietan gaixotasun endemikoa da, baina transmititu daitekeena. Badago txerto eraginkor bat baina ez da sendabiderik ezagutzen. Horregatik, pertsona txertatu gabeek hartzen dutenean tratamendu sintomatikoa da horientzako aukera bakarra. Txertaketak 10 urterako immunitatea ematen du.

12) Tuberkulosia.

Tuberkulosia da gaixotasun infekzioso hilgarriena eta bi milioi pertsonaren heriotza eragiten du urtero. Urtero jakinarazten diren zortzi milioi kasu berrietatik, % 95 garapen bidean diren herrialdeetan izaten da, baina azkenaldian gaixotasunaren eragina eta gaixotasunarekin zerikusia duten heriotzak nabarmen gehitu dira Europa ekialdean, hainbat eta hainbat urtetako etengabeko beherakadaren ondoren. Tuberkulosoen % 75 inguruk 15 eta 44 urte artean dituzte eta, ondorioz, gaixotasun horrek asko eragiten dio garapen sozioekonomikoari.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

Donostia hiria hartzen duen gizarte garatuak osasun sistema ona eta eraginkorra du, edozein arrisku sanitarioi aurre egiteko prest dagoena.

EAEn, Eusko Jaurarlitzako Osasun Saila da Osasunbidearekin zerikusia duten alderdi guztiak planifikatu, finantzatu eta arautzen dituen erakundea. Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko Legearen arabera, Osasun Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da Osakidetza. Nortasun juridiko propioa eta jarduteko erabateko gaitasuna eman zaizkio bere mendeko zerbitzu erakunde publikoen bidez osasun zerbitzuak hornitzeko xedea betetzeko.

Dena den, azken urte hauetan komunikazio sistemen hobekuntzak ugaltu egin ditu nazioarteko bidaiak eta horrek arrisku sanitarioa areagotzea ekarri du, gaixotasun endemiko eta/edo oso lokalizatuen hedapenarekin lotuta.

Arrisku sanitarioari buruz aipatutako baldintzak eta azken urte hauetako arriskuen historia kontuan hartuta, arrisku horren PROBABILITATEA BAXUA da.

Bestalde, gure inguruetik desagerrarazitako gaixotasunen itzulera bereziren bat eta beste leku batzuetako gaixotasunen etorrera gerta daitezkeen arren, eskura ditugun baliabide sanitarioek pentsarazten dute arrisku sanitarioaren aurreko KALTEBERATASUNA BAXUA dela.

C) SAILKAPENA.

INTOXIKAZIO MASIBOEN arriskua:

- Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
- Kalte indizea: Baxua 2.
- Arrisku indizea: 4.
- ARRISKU MAILA: BAXUA.

Sailkapena: **ARRISKU BAXUA**

- EPIDEMIA eta PANDEMIEN arriskua:

- Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
- Kalte indizea: Baxua 3.
- Arrisku indizea: 6.
- ARRISKU MAILA: BAXUA.

Sailkapena: **ARRISKU BAXUA**

3.4.4.- GIZA KONTZENTRAZIOEN ARRISKUA (JDT)

A) IDENTIFIKAZIOA

Giza kontzentrazioetat jotzen da EREMU IREKI batean (hiri barruko bideak eta espazio publikoak) edo ESTABLEZIMENDU PUBLIKOETAN (antzokiak, zinemak, estadioak, kiroldegia, etab.) pertsona asko biltzen dituen edozein egoera mota.

Ekitaldi jendetsuetan lagun askori eragin diezaieketen larrialdia sortuz gero eman beharreko erantzunak aztertzea du xede. Ekitaldi edo gertakari sozial jendetsuek, milaka lagun biltzen dituztenek, arrisku maila altua izan dezakete, ekitaldi horien handitasunagatik nahiz gerta daitezkeen ezusteko gertakariengatik.

Egoera konplexu horietan, hainbat alderdik eragiten dute, esaterako, masen portaeraren kontu psikosozialekin edo gertakari horiek komunikabideetan duten eraginarekin zerikusia dutenek. Historian zehar hainbat eta hainbat gertakari jazo da: jendetza batek larrialdiko egoera kritiko baten aurrean (sutea, leherketa, behera etortzea, jarduera masibo desordenatuak, etab.) izandako jokabidearekin, larrialdi hori pertsonentzako eta gauzentzako zentzuz espero zirenak baino askoz zoritxar handiagoekin ebatzea eragin du. Komunikabideek, bestalde, horretan lagundu dute norbanakoen batere kontrolik gabeko gisa horretako egoerak nabarmenduz. Oroimenean irauten dute sutan dagoen eraikin batetik (aisialdiko lokalak, hotelak, ospitaleak, merkataritza zentroak, etab.) jauzi egiten duten pertsonen irudiak; paralizatu eta erreakzionatzeko gai ez diren eta ezbeharrean hiltzen diren norbanakoak; jendetzak elkarri erasoka irteerara iritsi nahian edo, hesidun eremu zabaletan, kontrolik gabe aurre egin eta oldartu egiten den jendea bidea egin nahian.

Honela defini daiteke jendetza: denbora mugatu batean interesgune bat partekatzen duen pertsona kopuru handia, pertsona horiek, gainera, elkarren arteko eraginaren eta araurik gabeko edo arau anbiguoko testuinguru

baten jakitun direla. Honako hauek dira jendetzen ezaugarri nagusietako batzuk:

- Beren kasa sortzen dira eta ez dute muga naturalik.
- Ez dira kontuan hartzen kideen arteko desberdintasunak eta berdintasuna da nagusi.
- Gutxienez murrizten da pertsona bakoitzari dagokion espazio pribatua. Hori alderdi garrantzitsua da oldarraren eta izuaren fenomenoaz azaltzeko orduan.
- Anonimotasuna sumatzen da, kideek badakiten arren beste pertsona batzuek beraiengan duten eragina. Horregatik, jendetzak aldakorak, oso espontaneoak, emozionalak eta oso sugestionagarriak izan daitezke eta beste jokabide bat izaten dute isolatuta daudenean.

Azken ezaugarri horrek garrantzi handia du larrialdian eta ebakuazioan, buruzagi-gidariekin jokabide desordenatua eta kaotikoa mozteko edo moteltzeko orduan jokatzeko duten eraginak.

Giza kontzentrazioak egin ohi diren bi leku mota hauek bereizten dira:

1) Eremu irekiak.

Ikuskizun publikoak edo aisialdiko jarduerak egiteko erabiltzen diren aire zabaleko zona, leku edo bide publikoak dira eremu irekiak, baina jarduera horietarako azpiegiturarik eta instalaziorik ez dutenak.

Eremu horiek perimetro mugatua edo espazio bornatua DUTENAK edo EZ DUTENAK izan daitezke. Bigarren kasuan, espazio bornatuak sarbide kontrolatua eta murriztua izan behar du. Horren ondorioz, honako hauek izan daitezke eremu irekiak:

- a) Perimetro mugatu edo bornaturik GABEKO eremu irekiak.
- b) Perimetro mugatua edo bornatua eta sarbide kontrolatua edo murriztua DUTEN eremu irekiak.

2) Establezimendu Publikoak.

Jendea biltzeko aukera ematen duten eta ikuskizunak eskaintzeko edo aisialdiko jarduerak egiteko balio duten eraikin, lokal, barrunbe edo instalazioak dira establezimendu publikoak. Establezimenduak honelakoak izan daitezke:

- 2.1) ESTABLEZIMENDU FINKOAK: egitura higiezinak, eraikinak, lokalak, pabiloiak, aretoak, etab.
- 2.2) ALDI BATERAKO INSTALAZIOAK: behin-behineko egitura higigarri desmuntagarriak, ikuskizun publikoetarako, aisialdiko jardueretarako eta jendea biltzen duten beste jarduera batzuetarako egokiak direnak.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

Donostia hiriak, bere izaera kulturala eta turistikoa kontuan hartuta, giza kontzentrazio handi samarreko ekitaldi ugari izaten ditu. Gertakari horietako asko urtero errepikatzen dira. Oro har, GERTAKARI MOTA hauek egiten dira:

1) Ikuskizun publikoak.

Arte, kultura edo kirol izaerako edo antzeko antzezpen, erakustaldi, jarduera, ekitaldi edo proiektio ikusteko asmoz joandako ikusleak biltzen dituen gertakaria, antolatzaileek edo haien kontura esku hartzen duten artista, kirolari edo exekutatzaileek eskainitakoa, lokal itxi edo ireki batean, aire zabaleko barrunbeetan edo bide publikoan, eta instalazio finko, eramangarri edo desmuntagarrietan egindakoa.

2) Aisialdiko jarduerak.

Parte hartzeko helburuarekin edo antolatzaile batek aisia, atseden edo dibertsio xedeekin eskainitako zerbitzuak hartzekoarekin pertsona multzo bat biltzen duten jarduerak.

3) Biltzeko eta manifestatzeko eskubidearekin zerikusia duten jarduerak eta erlijiozko ospakizunak.

Hona hemen gertakarien eta dagozkien ospakizun eremuen zerrenda orokorra, gertakari motaren arabera eta errepikapenaren arabera egindakoa:

a) KIROL JARDUERAK.

- Anoeta estadioa: hamabostean behin Real Sociedad futbol taldearen partidak.
- Ilunbe Arena 2016: hamabostean behin Gipuzkoa Basket saskibalo taldearen partidak, askotariko kirol ikuskizunak, etab.
- Atano III eta Carmelo Balda pilotalekuak: eskuzko eta erremintazko partidak.
- A. Elorza belodromoa: Euskadiko lau orduak, askotariko kirol probak, etab.
- Kiroldegia: askotariko kirol probak, etab.
- Bide publikoa: Behobia-Donostia lasterketa, maratoia, triatlloiak, Donostia txirrindularitza klasikoa, etab.

b) KULTUR JARDUERAK.

- Kursaal jauregia: kontzertuak, askotariko kultur ekitaldiak, etab...
- Victoria Eugenia antzokia: kontzertuak, antzerkiak, askotariko kultur ekitaldiak, etab.
- Anoeta estadioa: kontzertuak, askotariko kultur ekitaldiak, etab.
- Ilunbe Arena 2016: kontzertuak, askotariko kultur ekitaldiak, etab.
- A. Elorza belodromoa: kontzertuak, askotariko kultur ekitaldiak, etab.
- Tabakalera: erakusketak, askotariko kultur ekitaldiak, etab.
- Igeldoko jolas parkea: Kutxa Kultur Festibal (KKF), etab...
- Kiroldegia: askotariko kultur ekitaldiak, etab.
- Antzokiak eta zinemak: askotariko kultur ekitaldiak, etab.

- Bide publikoa: Jazzaldia (uztaila), Kontzertuak hondartzan (uda), Olatu Talka DSS2016EU, DSS2016EU Euro-pako Kultur Hiriburutza izendatu izanagatiko ekitaldiak, etab...

c) JAIETAKOAK.

- Anoeta estadioa: askotariko aldarrikapen eta jai giroko kontzentrazioak, etab...
- Ilunbe Arena 2016: zezenketak (Aste Nagusia), Inauterietako konpartsen aurkezpena, etab...
- Kiroldegia: askotariko jai ekitaldiak, etab.
- Bide publikoa: Sagues auzoko zabalgunea, Santo Tomas eguna (abendua 21), Errege Kabalkada (urtarrilak 5), San Sebastian eguneko danborradak (urtarrilak 20), Inauterietako desfilea (otsaila), Aste Nagusiko kanoikada (abuztua), su artifizialak (abuztua), Abordaia (abuztua), Kontxako estropadak (iraila), etab.

d) POLITIKOAK.

- Anoeta estadioa: askotariko aldarrikapen kontzentrazioak, etab.
- Ilunbe Arena 2016: askotariko aldarrikapen kontzentrazioak, etab.
- Atano III eta Carmelo Balda pilotalekuak: askotariko aldarrikapen kontzentrazioak, etab.
- Anoetako belodromoa: askotariko aldarrikapen kontzentrazioak, etab.
- Kiroldegia: askotariko aldarrikapen ekitaldiak, etab.
- Bide publikoa: hiriko kaleak, manifestazioak, askotariko aldarrikapen kontzentrazioak, etab.

Bigarrenik, ekitaldi errepikakorren zerrenda definitu ondoren eta horien sailkapenaren arabera, giza kontzentrazioak egin ohi diren eta horretarako aukera ematen duten lekuen zerrenda egin da:

1) EREMU IREKIAK.

- Konstituzio plaza.
- Trinitate plaza.
- Tomas Albaren plaza (Sagueseko zabalgunea).
- Kursaal jauregiko terrazak.
- Alderdi Eder.
- Pasealeku Berria.
- Kontxako, Ondarretako eta Zurriolako hondartzak.
- Anoetako kirol eremua.
- Miramongo anfiteatroa.

2) ESTABLEZIMENDU PUBLIKOAK.

- Anoeta estadioa.
- Donostia Arena 2016.
- Atano III eta Carmelo Balda pilotalekuak.
- A. Elorza belodromoa.
- J. A. Gasca kiroldegia.
- Donostiako udal hipodromoa.
- Kursaal jauregia.
- Victoria Eugenia antzokia.
- Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa.

Honako hauek dira giza kontzentrazio handiko ekitaldiak egitearen ondoriozko ARRISKUAK lekuaren arabera:

1) Eremu irekiak.

Eremu irekia izateak izu jokabide masiboen probabilitate gutxiago izatea eragiten du, ebakuazio bideetan oztoporik ez delako egoten, errazago delako irtetea, eremu pertsonala inbaditzearen eragina txikiagoa delako, puntu batean pilaketa egitea zailago delako eta portaera desordenatuen kutsapen kolektiboa txikiagoa delako.

Bestalde, eremu irekietan larrialdi egoera baldintza hauetako batean gertatzen da: leku jakin batzuetako kontzentrazio handiegia, izu mugimenduak eragiten dituen alarma funsgabea edo oinarriiduna, giza kontzentrazioaren dinamikan desoreka eragiten duen kanpoko indarren gehiegizko esku hartzea.

2) Establezimendu publikoak.

Barrunbe itxi batean, estalia nahiz estali gabea bada, jendetza biltzeak hildakoak eta lesionatuak eragin ditzakeen istripu masibo baten arriskua du berekin, batez ere mugimendu azkarrak egiteko eta erraz irteteko arazoengatik, baldin eta kezka, beldurra edo, kasurik txarrean, izua eragiten duen gertakari bat izaten bada.

Beste jarduera eta instalazio batzuek komunak dituzten arrisku faktoreekin batera, eraikin eta/edo espazio horietan arrisku faktore propioak biltzen dira eta, nolabait, denetan daudenak, esaterako:

- **Okupazio dentsitatea:** mugimendu fisikoa eta dauden seinaleen pertzepzio zuzena oztopatzen ditu, okupatzaileen jokabidea aldatuz. Aldi berean, larrialdia izanez gero okupatzaileak ohartarazteko metodoa baldintzatzen du, larrialdiko ohartarazpenak izu erreazioak eragingo balitu arazoa larrituko lukeelako.
- **Okupatzaileen ezaugarriak:** eraikin horiek, oro har, okupatuta egoten dira askotariko pertsonekin (adina, mugikortasuna, pertzepzioa, eza gutza, diziplina, etab.).

- **Kanpoko jendea:** ia edukiera osoa maiz erabiltzen ez dituzten eta, ondorioz, ondo ezagutzen ez dituzten pertsonak okupatutako eraikinak. Horrek zailago egiten du irteerak edo horietara eramaten duten korridoak edo bideak edo lokaletan dagoen segurtasuneko beste edozein instalazio aurkitzea.
- **Argi mugak:** maiz erabiltzen dira ilunpetan edo argi maila baxuekin. Seinaleak, bideetarako sarbideak eta abar hauteman eta identifikatzeko arazoak sortzen ditu eta, aldi berean, harrapatze, erortze eta bultzada arriskua areagotzen du.
- **Faktore horietako bat edo,** egon litezkeen beste batzuekin batera, horiek guztiak egoteak, ondorio larriak edo hondamendizkoak eragin ditzakete larrialdi baten aurrean, baldin eta gertakari hori aldeztu aurretik aurreikusi ez bada eta kontrolatzeko neurriak hartu ez badira.

Hala, azaldutako datuak eta hirian egin ohi diren ekitaldietan parte hartzen duen jende kopurua kontuan hartuta, giza kontzentrazioen arriskuak **PROBABILITATE ERTAINA** du.

Euskadin, bestalde, ekitaldi jendetsuak araututa daude. Honako hauek dira ezaugarri horiek dituen ekitaldiak arautzen dituzten lege eta arauak:

- Jendaurreko Ikuskizunetarako eta Jolas Jardueretako Poliziaren Erregelamendu Nagusia (2816/1982 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa), 1982az geroztik indarrean dagoena.
- Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jarduerak arautzen dituen Legea (10/2015 Legea, abenduaren 23koa).
- Autobabeserako Oinarrizko Araua (393/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa).
- Jarduera, zentro edo establezimendu jakin batzuei larrialdi egoerei aurre egiteko eska dakizkiekeen autobabes betebeharrak arautzen dituen Autobabeserako Betebeharrak (277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa).

Horrela, indarreko araudiak eskatutako arriskuen analisi, prebentzio, babes eta kontrol neurriak kontuan hartuta, giza kontzentrazio handiek sortutako arriskuaren aurrean **KALTEBERATASUN ERTAINA** dago.

C) SAILKAPENA.

GIZA KONTZENTRAZIOEN arriskua: EREMU IREKIAK.

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- **ARRISKU MAILA: ERTAINA.**

Sailkapena:

ARRISKU ERTAINA

GIZA KONTZENTRAZIOEN arriskua: ESTABLEZIMENDU PUBLIKOAK.

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- **ARRISKU MAILA: ERTAINA.**

Sailkapena:

ARRISKU ERTAINA

3.4.5 URETAKO JARDUERETAKO ARRISKUA (URA)

A) IDENTIFIKAZIOA

Donostia ingurune urtarrarekin erlazio zuzena eta bizia duen hiria da. Batetik, hiria bereizten duen kostaldeko zerrenda hiritarra du eta, bestetik, Urumea ibaiaren behe arroaren eta bokalearen azken zatia hartzen du. Kantauri ITSASOA eta Urumea IBAIA ingurune hiritar irisgarrian daude eta jarduera urtarak egiteko erabili ohi diren lekuak dira.

INGURUNE URTARREKO JARDUERA da ura duen leku natural batean egiten den giza jarduera oro. Bestalde, honela sailkatzen dira hiriko INGURUNE URTAR naturalak:

- **Itsasoko ingurune urtarra:** hiriko itsasertzarekin bat datorren ur gaziko ingurune urtarra.
- **Ibaiko edo lehorreko ingurune urtarra:** udal mugartea zeharkatzen duen Urumea ibaiaren behe arroarekin eta bokalearekin bat datorren ur gezako ingurune urtarra.

Bi ingurune urtarren ezaugarriak hemen daude jasota: dokumentu honetako 2. Kapituluak.- Lurraldearen analisisa, 2.2.5. atala.- Hidrografia.

Honako hauek dira ingurune urtarreko giza jarduerak egin ohi diren hiriko lekuak:

1) ITSAS INGURUNEA

Kostaldeko zerrenda hiritarra eta irisgarria izateak eragiten du itsas inguruneak hirian egiten diren jarduera urtar gehienak hartzea. Honako hauek dira jarduera horien ohiko lekuak:

1.1) Hondartzak.

Donostiak hiru hondartza ditu itsasertzean eta beste hondartza txiki bat Santa Klara uhartean. Hondartzak dira itsas ingurune urtarrera iristeko sarbide naturala.

a) Kontxako hondartza.

Kontxako hondartza Urumea ibaiaren bokalearen mendebaldean dago, izen bereko badiaren barruan. Iparraldean dagoen Urgull menditik abiatuta Miramar jauregiko parkera (Loretopea) iristen da. 1.350 m-ko batez besteko luzera du, 40 m-ko batez besteko zabalera eta 54.000 m²-ko batez besteko azalera. Substratu hareatsuko eta sakonera txikiko hondartza da, eta mareen gorabeherak mugatu egiten dute hondartzaren azalera erabilgarria. Hiriko hondartza zentrala da, oso ingurune hiritarrean dago eta erabilera intentsiboa du. Gainera, oinezkoentzako sarbide asko eta onak ditu eta ibilgailuentzako sarbidea Cervantes plazatik.

b) Ondarretako hondartza.

Ondarretako hondartza Kontxako hondartzaren mendebaldean dago. Miramar jauregiko parketik (Loretopea) ekialderantz garatzen da, iparraldean ia Haizearen Orraziraino iristeko. 600 m-ko batez besteko luzera, 100 m-ko batez besteko zabalera eta 60.000 m²-ko batez besteko azalera ditu. Oinezkoentzako sarbide asko eta onak ditu eta ibilgailuentzako sarbide bat ipar muturrean. Substratu hareatsuko hondartza da eta daukan zabaleragatik harea lehorreko zona bat du etengabe. Hondartza ingurune hiritarrean dago eta erabilera intentsiboa du.

c) Zurriolako hondartza.

Zurriolako hondartza Gros auzoan dago, Urumea ibaiaren bokalearen ekialdean. Mendebaldean dagoen ibaiaren bokaleko kai muturretik ekialdean dagoen Sagues auzoraino doa, eta 800 m-ko batez besteko luzera, 110 m-ko batez besteko zabalera eta 88.000 m²-ko batez besteko azalera ditu. Substratu hareatsuko hondartza da, harea lehorreko zona zabal iraunkorra du, eta erabilera intentsiboa. Hondartza ireki samarra da eta olatu handiak izaten ditu. Horregatik, egokia da uretako kiroltarako (surf, bodyboard, etab.). Hondartza ingurune hiritarrean dago eta erabilera intentsiboa du.

d) Santa Klara uharteko hondartza.

Santa Klara uharteko hondartza txikia haren hegoaldean kokatutako ontziralekuaren aldamenean dago. Tamaina txikiko lekua da, itsasbehera soilik azaltzen dena. Itsasgoran urpean geratzen da. Substratu hareatsua du eta ontziz heltzen da bertara.

1.2) Hondartzako eremuak jardueretarako.

a) Mareaz gaindiko zona.

Malda leuneko zona hareatsua eta ura iristen ez dena, hau da, harea lehorreko hondartza. Jarduera prestatzeko eta uretara hurbiltzeko zona da.

b) Marea arteko edo oldarreko zona da.

Hondartzako zona inklinatua da, mareabeheraren (itsasbehera) eta mareagoraren (itsasgora) mugen artean dagoena. Olatuen oldartzeko zona da, urautsiak dauden eta jarduerak modu intentsiboan egiten diren tokia.

c) Zona Sublitoral.

Hondartzako zona urrunena eta sakonena, itsasoak beti estalita duena. Zona horretan ere egiten dira ingurune urtarreko jarduerak.

1.3) Kaia.

Donostiak kirol portua du eta Euskadiko Kirol Portuen (EKP) artean dago. Kontxako badiako ekialdeko muturrean dago, Urgull mendiaren hegoaldeko mendi hegalean.

Kaia txikia da eta triangulu forma du. Ekialdea-mendebaldea norabidean dauden hiru kai ditu portuak: Jaranako kaia (iparraldean), kai zentrala (erdian) eta kai Berria (hegoaldean). Hiru kaian artean bi kirol dartsena eratzten dituzte (iparraldekoa eta hegoaldekoa), eta pilote gidariak dituzten pantalan flotatzaileen bidez banatuta daude.

Gaur egun 400 atrakaleku daude hegoaldeko dartsenan, beti okupatuta. Iparraldeko dartsena gaituta atrakalekuak gehitzeko prozesua hasita dago. Zaila da kanpoko ontziak hartzea. Horretarako, denboraldiko kanpoaldeko ainguraleku bat dago Kontxako badiaren. Bestalde, mendebaldeko muturrean, Aquariumaren eta Gurutze Gorriko Itsas Salbamenduko postuaren ondoan, uretara sartzeko arrapala bat dago. Portuko bokalea hego-mendebaldean dago eta 20 m-ko zabalera eta 3 m-ko sakonera ditu.

Itsasoko hainbat jarduera prestatzeko eta haietara sartzeko puntua da portua.

2) IBAI INGURUNEA.

2.1) Urumea ibaia.

Urumea ibaiaren behe arroak hiria zeharkatzen du Kantauri itsasoan itsasoratu arte, Zurriolako hondartzaren ondoan. Batik bat hiriguneak zeharkatzen ditu. Bideratuta dago eta zubi eta zubibide ugari zeharkatzen dute. Oinezkoentzako eta nabigaziorako hainbat sarbide ere baditu.

Ibaia mareen eraginpean dago etengabe. Hala, bere ur maila unean uneko emariaren arabera aldatzen da, hau da, arroan izandako prezipitazioen eta unean uneko marearen arabera. Ur geruzaren arabera, Urumea ibaia, batzuetan eta partzialki, nabigagarria da.

2.2) Ibaiko eremuak jardueretarako.

a) Ibaiertzak.

Ur gorputzaren ertzaren eta ibaitik hurbilen dagoen lur zatiaren arteko zona. Jarduera prestatzeko eta uretara hurbiltzeko zona da.

b) Erriberak.

Ibaiertzak edo ur jarioak lurrarekin bat egiten dueneko alboko mugak. Urumea ibaiak, prezipitazioen araberaren emari naturalean izaten dituen aldaketek gain, behe arroan mareen eragina ere izaten du eta, horregatik, erriberak etengabe aldatzen dira. Gainera, prezipitazioen ondoriozko ur geraldietan ere ibaiertzak aldaketak izan ditzakete. Erriberak dira arrapala edo pantalan bidez ibaira sartzeko guneak.

c) Ibai ibilgua edo ohea.

Urak bere ibilbidean igarotzen duen haraneko zatia eta ur jarioaren muga fisikoa da ibilgua. Uretako jarduera egiteko eremua da.

Bestalde, honako hauek dira hiriko ingurune urtarrean egiten diren ohiko JARDUERAK:

- Bainua edo igeriketa.
- Piraguismoa eta kanoa-kayak.
- Surf, bodyboard eta paddle-surf.
- Arrantza.
- Urpekaritza.
- Arraun, oihal eta/edo motor nabigazioa.
- Aisialdiko jarduerak: abordaia, plataformen gaineko su artifizialak, etab.

Jarduera horiek guztiek, aisialdikoek izan ezik, JOLAS izaera izan dezakete edo lehiaketako KIROL proba gisa antola daitezke.

Itsas inguruneak jarduera intentsiboagoa du. Arestian deskribatutako jarduera guztiak egiten dira baina udako hiletan intentsitate handiagoarekin. Ibai inguruneak, aldiz, ez du hain jarduera intentsiboa. Piraguismoa, kanoa-kayak, arrantza eta arraun eta/edo motor nabigazioa egiten dira.

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

OMEren kalkuluen arabera, 2012an, mundu osoan 400.000 pertsona hil ziren ITOTA, gutxi gorabehera. Nahigabeko lesioek eragindako heriotzen hirugarren kausa da mundu osoan. Bestalde, "Itsasoko ingurune urtarrean izaten diren itotzei eta bizi arriskuko beste gertakari batzuei buruzko azterketak", 2015eko ekainean argitaratuak eta Mapfre Fundazioko, A Coruña Unibertsitatea Fundazioko eta AETSASEko prebentzio arloko adituek egindakoak, estatuan, urtero, 400 pertsona baino gehiago itota hiltzen direla azaldu du. Heriotza horietatik % 70 baino gehiago eremu naturaletan izaten dira. Gainera, itotzeko zorian egondako kasuetan bizirik ateratzen diren pertsona batzuk garuneko kalte iraunkorrek geratzen dira. Gerta daitezkeen beste lesio larri batzuk garezur eta garuneko traumatismoak eta bizkarrezur muineko lesioak dira.

Honako hauek izan daitezke ingurune urtarreko jardueretako ARRISKUAREN kausak:

- Ingurunearen ezaugarriak: olatuak, korronteak, harriak, lohia, etab.
- Jardueran parte hartzen duenaren osasun arazoak lehorrekoea baino erreskate konplikatuagoarekin.
- Jauziak eta murgiltzeak sakonera txikiko guneetan.
- Egoera meteorologiko kaltegarriak: itsas denboraleak, ibai goraldiak eta uholdeak, etab.
- Uren kutsadura.
- Animalien presentzia: marmokak, etab.
- Praktikatzailen pilaketa.
- Jarduera bateraezinen aldiberekotasuna: bainu hartzaileak eta surflariak edo ontzi motordunak, etab.
- Uretako istripuak.
- Etab.

ITSAS INGURUNEAN jarduera batzuk urte osoan zehar egiten dira, baina haien kontzentrazio handiena udan izaten da. Hala, UDAKO hondartza DENBORALDIA ekainaren 15etik irailaren 15era bitartean izaten da. Aldi horretan jende asko joaten da hondartzetara eta, ondorioz, uretako jarduera gehiago izaten dira.

Bestalde, SURF egitea uretako jarduera nagusi bihurtu da, eta hiriko erakargarri turistikoetako bat da. Hala, ZURRIOLAKO HONDARTZAREN ezaugarriek egokia egiten dute surferako, hain zuzen ere, irekia izateak eta olatu handiak izateak.

Azaldutako datuak kontuan hartuta, itsas ingurunean jarduerak egitearen arriskuak PROBABILITATE ERTAINA du.

Bestalde, IBAI INGURUNEAK jarduera maila dezentez txikiagoa du, baina modu erregularragoan garatzen du urte osoan zehar. Ingurune horretako jarduera nagusia kirol arraunketa da. ARRAUN KLUBEK uretara sartzeko azpiegiturak dituzte ibaiaren ibilbidean (material biltegiak, aldagelak, pantalanak, etab.). Kirol arraunketa egiteko ur geruzaren gutxienezko maila bat behar da. Ur geruza aldatu egiten da arroan eroritako prezipitazioek eragindako emariaren eta marearen arabera.

Azaldutako datuak kontuan hartuta, ibai ingurunean jarduerak egitearen arriskuak PROBABILITATE BAXUA du.

Bestalde, ingurune urtarreko jardueren arriskuarekiko kalteberatasunari dagokionez, ITSAS INGURUNEARI buruz esan behar da, itsasoaren berezko baldintzek, esaterako, olatuek, korronteek, mareek, denboraleek eta itsasertza babesteko obrek (kai muturrak, hormak, etab.) eta jarduerak modu intentsiboan egiteak, kalte indize handiagoko ingurune bihurtzen dutela. Bestalde, jarduera horiek, eragin daitekeen kaltea minimizatzeko helburuarekin, prebentzio eta babes neurri ugari dituztela adierazi behar da, aurrerago ikus ahal izango den bezala.

Bi baldintza horiek kontuan hartuta, hau da, kalte handia eta prebentzio neurriak, itsas inguruneak bertan egiten diren jarduerak sortutako arriskuaren aurrean KALTEBERATASUN ERTAINA duela uste da.

Urumea ibaia ordezkarri duen IBAI INGURUNEA, bestalde, ur goraldi handi edo uholde uneetan izan ezik, ez da ingurune txarra jarduera urtarrek egiteko, eta ez du eragiten kalte indize handia. Gainera, aipatutako une larrienerako aurreikuspen meteorologikoa eta abisuak dituzte.

Bi baldintza horiek kontuan hartuta, hau da, kalte indize baxua eta egoera larrietarako prebentzio neurriak, ibai inguruneak bertan egiten diren jarduerak sortutako arriskuaren aurrean KALTEBERATASUN BAXUA duela uste da.

Bestalde, itsas ingurunean egin ohi diren AISIALDIKO JARDUEREN izaera bereziak (abordaia, plataformen gaineko su artifizialak, etab.) nahitaezkoa egiten du Segurtasun eta Larrialdi Plan espezifikoak antolatuta izatea haiek garatu ahal izateko.

Halaber, itsas ingurunean egiten diren KIROLO PROBA HANDIEN (Kontxako estropadak, etab.) izaera bereziak eta biltzen duten jendetzak jarduera horiek Segurtasun eta Larrialdi Plan espezifikoak behar izatea eragiten dute.

C) SAILKAPENA.

ITSAS INGURUNEKO JARDUEREN arriskua.

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena:

IBAI INGURUNEKO JARDUEREN arriskua.

- Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
- Kalte indizea: Baxua 2.
- Arrisku indizea: 4.
- ARRISKU MAILA: BAXUA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

Ingurune urtarreko AISIALDIKO JARDUEREN arriskua: abordaia, su artifizialak plataformetan, etab.

- Probabilitate indizea: Probabilitate gutxi 2.
- Kalte indizea: Altua 4.
- Arrisku indizea: 8.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

Ingurune urtarreko KIROLO PROBA HANDIEN arriskua.

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

3.4.6.- ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKOAREN ARRISKUA (OND)

A) IDENTIFIKAZIOA.

Donostia hiria XII. mendean (1180. urtean, gutxi gorabehera) sortu zen, Antso VI.a "Jakituna" Nafarroako erregeak birpopulatzeko forua eman zionean. Hala ere, hiri berri samarra da ONDARE eraikiari eta legatu artistiko eta kultura materialarenari dagokionez. Gorabehera horren arrazoia hiriak bere historian zehar jasan dituen suntsipen ugarietan dago. Erdi Aroko hirien kalteberatasunari, kale estuz eta mehelinarekin egindako egurrezko egituradun eraikinez osatutako hiri trazatuengatik, kasu honetan bere militar izaeraren ondoriozko arriskua gehitzen zaio,

Donostia gotorleku harresitua izan baitzen XVI. mendetik XVIII.era.

Hiriko azken sutea 1813an izan zen, Napoleondar Gerren esparruan, eta hiria ia oso-osorik suntsitu zuen. Horregatik, Donostia XIX. mendetik aurrera eraikitako hiritzat har daiteke, orduan eraitsi zirelako harresiak eta orduan hasi zelako hiria zabaltzen. Hala ere, kontserbatu den antzinako ondare eskasak eta XIX. eta XX. mendeetan gehitutako ondare berri, zabal eta aberatsak, garrantzitsua bihurtzen dute hiriko ondare historiko-artistikoa.

Honela sailkatuta dago hiriko ondarea:

1) Ondasun higiezinak.

Kontuan hartutako ondasun higiezinak (lurrari atxikitakoak eta jabetzan hartzeko aukera ematen dutenak) A kategoriakoak dira, 2014ko Hiri Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren (HOEBPB) arabera.

2) Ondasun higigarriak.

Kontuan hartutako ondasun higigarriak (jabetzan hartzeko aukera ematen dutenak, higiezinak ez direnak, eta garraiatu daitezkeenak) hiriko museo, artxibategi eta liburutegietan dauden elementuak dira: San Telmo Museoa (STM), Untzi Museoa (UM), Elizbarrutiko Museoa (EM), Historiaren Etxea (Urgull), Aquarium (AQ), Eureka! Zientzia Museoa (ZM), Udaleko eta Foru Aldundiko artxibategi eta museoak, etab...

B) ANALISIA ETA EBALUAZIOA.

Ondarearen BABESARI dagokionez, UNESCOk 1972an onartu zuen Munduko ondare kulturala eta naturala babesteko konbentzioa eta estatuak, berriz, Espainiako Ondare Historikoaren (EOH) 16/1985 Legea, ekainaren 25ekoa.

EOH Legeak 1. artikuluan xedatzen du honako hauek osatzen dutela:

- Interes artistiko, historiko, paleontologiko, arkeologiko, etnografiko, zientifiko edo teknikoko ondasun higiezinak eta higigarriak.
- Ondare dokumental eta bibliografikoak.
- Aztarnategi eta eremu arkeologikoak.
- Balio artistiko, historiko edo antropologikoa duten naturaguneak, lorategiak eta parkeak.

EOH Lege berak 7. artikuluan xedatzen du udalek lagundu egin behar dietela erakunde eskudunei Legea betetzen beraien udal mugarteko EOH kontserbatzen eta babesten, behar diren neurriak hartuz horiek narriatu, galdu edo suntsi ez daitezen.

Bestalde, Kultura Intereseko Ondasun horiek izan dezaketen balio historiko eta kultural eta/edo espiritualaz gain, nabarmentzekoa da balio ekonomiko garrantzitsua ematen dutela hiriko turismo sektorearen sustapenerako.

Azaldutakoa kontuan hartuta, DULPek arriskuen atal hau sartzen du hiriko ondare historiko-artistikoan.

Ondare historiko-artistikoak aurre egin beharreko arrisku nagusia sutearena da. Babestu beharreko ondasun mota horietan biltzen diren faktoreak kontuan hartuta, hau da, antzinatasuna, kontserbazio egoera, material erregeiak, instalazio zaharkituak, babes baliabideen zuzkidura zaila, mantentze eta kontserbazio lanak, etab. kontuan hartuta, ondare eraiki eta materialaren arriskuaren PROBABILITATEA BAXUA da.

Ondasun horien kalteberatasunari dagokionez, horien izaera berdingabe eta ordezkazina aipatu behar da, eta haietan galera konponezinak gerta daitezkeela. Hori dela eta, KALTEBERATASUN ERTAINA dute.

C) SAILKAPENA.

ONDARE HIGIEZINAREN arriskua.

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 9.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

ONDARE HIGIGARRIAREN arriskua.

- Probabilitate indizea: Probablea 3.
- Kalte indizea: Ertaina 3.
- Arrisku indizea: 6.
- ARRISKU MAILA: ERTAINA.

Sailkapena: **ARRISKU ERTAINA**

3.5.- ARRISKUEN IDENTIFIKAZIO, ANALISI ETA EBALUAZIOKO LABURPEN TAULA

DONOSTIAKO ARRISKUEN LABURPEN TAULA

RIESGOS NATURALES (RN) DSS.

ARRISKU NATURALAK (AN)					
KODEA	ARRISKUA	PI	KI	AI	ARRISKU MAILA
1	ARRISKU NATURALAK (AN).				
1.1	ARRISKU GEOLOGIKOAK (GEO).				
1.1.2	Endogenoak (barne jatorria).				
1.1.2.1	Sismikoa (SIS).	2	2	4	ARRISKU BAXUA
1.1.2.2	Itsasikara.	-	-	-	ARRISKURIK EZ
1.1.2.3	Bolkanikoa.	-	-	-	ARRISKURIK EZ
1.1.3	Exogenoak (gainazaleko jatorria).				
1.1.3.1	Lurraren mugimenduak (LUR).	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
1.1.3.2	Elurroldeak.	-	-	-	ARRISKURIK EZ
1.2	ARRISKU METEOROLOGIKO EDO KLIMATIKOAK (METEO).				
1.2.1	Uholdeak (EUR).				
1.2.1.1	Prezipitazio iraunkorrak eta/edo handiak.	3	4	12	ARRISKU ALTUA
1.2.1.2	Presa edo deposituen funtzionamendu desegokia, matxura larria edo haustura.	2	4	8	ARRISKU ERTAINA
1.2.2	Elurteak (ELU).	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
1.2.3	Haize zakarrak (HZ).	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
1.2.4	Muturreko tenperaturak.				
1.2.4.1	Izozteak/Muturreko tenperatura baxuak (TH).	2	2	4	ARRISKU BAXUA
1.2.4.2	Muturreko tenperatura altuak (TB).	2	2	4	ARRISKU BAXUA
1.2.4.3	Tenperatura altu iraunkorrak (TB).	2	2	4	ARRISKU BAXUA
1.2.5	Itsaso-kostaldekoa (ITS).				
1.2.5.1	Denboraleak.	3	4	12	ARRISKU ALTUA
1.2.5.2	Galernak.	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
1.2.6	Trumoi ekaitzak eta tximistak (EKT).	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
1.2.7	Lehortekak (LHR).	2	2	4	ARRISKU BAXUA
1.3	ARRISKU BIOTIKOAK (BIO).				
1.3.1	Izurriak (IZT).	2	2	4	ARRISKU BAXUA

DONOSTIAKO ARRISKU TEKNOLOGIKOAK (AT)

ARRISKU TEKNOLOGIKOAK (AT).					
KODEA	ARRISKUA	PI	KI	AI	ARRISKU MAILA
2	ARRISKU TEKNOLOGIKOAK (AT).				
2.1	ARRISKU KIMIKOAK (K).	2	4	8	ARRISKU ERTAINA
2.2	GASOLINA ZERBITZUGUNEEN ARRISKUA (GASOLINDEGIAK).	2	4	8	ARRISKU ERTAINA
2.3	SALGAI ARRISKUTSUEN GARRAIOAREN ARRISKUA (SAGA).				

2.3.1	Salgai Arriskutsuen errepideko garraioa (SAEG).	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
2.3.2	Salgai Arriskutsuen treneko garraioa (SATG).	3	4	12	ARRISKU ALTUA
2.3.3	Salgai Arriskutsuen itsasoko garraioa (Pasaiako portua).	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
2.4	ARRISKU NUKLEARRA (N).	2	3	6	ARRISKU BAXUA
2.5	ARRISKU ERRADIOLOGIKOA (E).	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
2.6	KUTSADURA ARRISKUA (KTS).				
2.6.1	Atmosferikoa.	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
2.6.2	Hidrikoa.	2	3	6	ARRISKU BAXUA
2.6.3	Lurrekoa.	2	3	6	ARRISKU BAXUA
2.7	OINARRIZKO ZERBITZUEN GABEZIA ARRISKUA (ZRB).				
2.7.1	Ur hornidura.	2	2	4	ARRISKU BAXUA
2.7.2	Hondakin uren estolderia, hustuketa eta arazketa.	2	2	4	ARRISKU BAXUA
2.7.3	Energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura.	2	2	4	ARRISKU BAXUA
2.7.4	Argiteria publikoa.	2	2	4	ARRISKU BAXUA
2.7.5	Semaforoak.	2	2	4	ARRISKU BAXUA
2.7.6	Telefonia eta telekomunikazioa.	2	2	4	ARRISKU BAXUA
2.7.7	Erregai hornidura (gasa).	2	2	4	ARRISKU BAXUA
2.7.8	Hondakinen kudeaketa.	2	2	4	ARRISKU BAXUA
2.7.9	Elikagaien hornidura (merkatuak).	2	2	4	ARRISKU BAXUA
2.8	KOMUNIKAZIO ETA GARRAIO AZPIEGITURAK KOLAPSATZEKO ARRISKUA (AZP).				
2.8.1	Errepide sarea.	2	2	4	ARRISKU BAXUA
2.8.2	Trenbide sarea.	2	2	4	ARRISKU BAXUA
2.8.3	Aireko sarea (PSISZ heliazalera).	2	2	4	ARRISKU BAXUA
2.8.4	Itsasoko sarea (Donostiako kaia).	2	2	4	ARRISKU BAXUA

DONOSTIAKO ARRISKU ANTROPIKOAK (AA).

ARRISKU ANTROPIKOAK (AA).					
KODEA	ARRISKUA	PI	KI	AI	ARRISKU MAILA
3	ARRISKU ANTROPIKOAK (AA).				
3.1	BIDAIARI GARRAIOAREN ISTRIPU ARRISKUA (BD).				
3.1.1	Errepidea.	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
3.1.2	Trena.	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
3.1.3	Airekoa.	-	-	-	ARRISKURIK EZ
3.1.4	Nabigazioa.	-	-	-	ARRISKURIK EZ
3.2	SUTE ARRISKUA (SUA).				
3.2.1	Eraikin zibiletako suteak.	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
3.2.2	Sute industrialak.	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
3.2.3	Basoko suteak.	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
3.2.4	Garraioko suteak.	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
3.3	ARRISKU SANITARIOA (OSN).				
3.3.1	Intoxikazio masiboak.	2	2	4	ARRISKU BAXUA
3.3.2	Gaixotasunak, izurriak eta pandemiak.	2	2	4	ARRISKU BAXUA
3.4	GIZA KONTZENTRAZIOEN ARRISKUA (JDT).				
3.4.1	Eremu irekiak.	3	3	9	ARRISKU ERTAINA

3.4.2	Establezimendu publikoak.	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
3.5	INGURUNE URTARREKO JARDUEREN ARRISKUA (URA)				
3.5.1	Itsas inguruneko jardueraren arriskua	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
3.5.2	Ibai inguruneko jardueraren arriskua	2	2	4	ARRISKU BAXUA
3.5.3	Ingurune Urtarreko Jardueren Arriskua	2	4	8	ARRISKU ERTAINA
3.5.4	Ingurune urtarreko kirol proba handien arriskua.	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
3.6	ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKOAREN ARRISKUA (OND).				
3.6.1	Ondare higigarriaren arriskua.	3	3	9	ARRISKU ERTAINA
3.6.2	Ondare higiezinaren arriskua.	3	3	9	ARRISKU ERTAINA

Behin arriskuak sailkatuta, fenomeno bati aurre hartu ahal izateko zenbait PREBENTZIO neurri identifikatuko dira, prozesua ekidin, kontrolatu edo arintzearen, ahal den neurrian. Bestalde, gertaera espezifiko bati aurre egiteko erabilgarri egongo den PLANGINTZA deskribatuko da

4.1.- ARRISKUEN PREBENTZIOA

Herri babesaren arloan, arriskuaren PREBENTZIOA esaten zaio larrialdi arriskuaren eta mehatxuen ondorio kaltegarri posibleak ekiditera edo arintzera bideratutako neurri eta ekintzen multzoari. Oro har, prebentzioa fenomeno bat noiz edo/eta non gertatuko den behar besteko aurrerapenaz aurreikustean edo jakitean datza, prozesua ekidin, kontrolatu edo arindu ahal izateko, eta abisua eman, prestatu eta ondorioetatik babestu ahal izateko. Hortaz, prebentzioak oinarritzat ditu prozesuen ezaugarrien eta legeen ezagutza, iraganeko datuen azterketa, behaketa zientifikoak nahiz ikerlanak eta parametro fisiko eta fenomeno aitzindarietan gertatzen diren anomalien eta aldaketen monitorizazioa eta antzematea.

Batzuetan, IRAGARPEN kontzeptua, hau da, gertatuko dena auresatea, aurrekoaren esanahi berberarekin erabiltzen da, nahiz eta ez diren baliokideak. Bestalde, ARINTZEA zera da, galerak eta kalteak gutxitzea edo txikitzea, prozesua kontrolatuz (ahal baldin bada) edo/eta haren eraginpeko elementuak babestuz, horien kaltebe-ratasuna murriztuta.

Hala bada, prebentzioak prozesuak eta horiek kontrolatzen dituzten faktoreak identifikatu eta aztertzen ditu, eta, horri esker, ARRISKU MAPA zehazki egin daitezke, lurraldearen antolamendua eta erabilera zehaztean aplikat-zeko. Bestalde, arriskuak arintzeko neurri pasiboak (erabilera mugatzea, mugimenduak kontrolatzeko sistemak garatzea, etab.) har daitezke, edo bestelakoak.

Arriskuaren prebentzioari dagokionez, zenbait neurri konbinatu ezartzen dira, era askotako arriskuak txikitzeko asmoz. Arriskuek eragindako ondorioak prebenitzeko eta arintzeko neurri horiek honela sailka daitezke:

1) NEURRI ESTRUKTURALAK:

Neurri estrukturalak sistema naturalean egiten diren esku hartze fisikoak dira; ingeniari-tza lanak garatuz edo indartuz gauzatzen dira, eta lagungarriak dira mehatxua eta haren arriskugarritasuna txikitzeko, baita kaltebe-ratasuna txikitzeko ere. Hortaz, neurri estrukturalen bidez, mehatxuan zuzenean esku hartzen da, fenomeno-a saihesteko edo haren ondorioak arintzeko.

Arriskuak txikitzeko neurri estrukturalak honako hauek izan daitezke, besteak beste:

- Atxikitze/euste egiturak.
- Babes egiturak.
- Drainatze sistemak eta gainezkabideak.
- Kanalizazio sistemak.
- Eraikuntza arauak: lurrikarekiko erresistentziaren araua.
- Neurri estrukturalak eta uholde arriskuak zein arrisku klimatikoak.
- Neurri estrukturalak eta arrisku sismikoa.
- Neurri estrukturalak eta lurra mugitzeko nahiz ezegonkortzeko arriskua.
- Etab.

2) NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK:

Neurri ez-estrukturalak plangintzan eta kudeaketan, antolamenduan, hezkuntzan, informazioan nahiz komunika-zioan eta beste alderdi batzuetan legedia aplikatzeko ekintza guztiak dira, helburutzat dutenak gertaera baten eraginak txikitzea. Oro har, arriskua arintzeko neurri estrukturalen osagarriak dira, eta hertsiki lotuta daude sen-dotze instituzionalarekin eta informazio publikoarekin.

Arriskuak txikitzeko neurri ez-estrukturalak honako hauek izan daitezke, besteak beste:

- Arriskuaren plangintza eta kudeaketa.
- Lurraldearen antolamendua.
- Informazioko eta alerta goiztiarreko sistemak: informazio sareak eta monitoreak.
- Arriskuaren azterketa eta iragarpena/aurreikuspena: arriskuak ebaluatzeko eta aztertzeko tresnak eta me-

metodologiak.

- Arriskuaren zonifikazioa: lurralde antolamenduan eta hirigintzako antolamenduan arrisku naturalen mapak egiteko gida metodologikoak.
- Herritarrei begirako hezkuntza eta komunikazioa.
- Aseguruak eta kalte-ordainak.
- Etab.

Bestalde, arriskuen prebentziorako neurri orokorren kategoriakako sailkapen orientagarri hau ezar daiteke:

1) PREBENTZIO NEURRIAK.

- 1.1) Lurralde antolamendua eta hirigintza.
- 1.2) Arriskuen kudeaketako azterketak.
- 1.3) Mantentze lanetako eta kontserbazioko programak.

2) BABES NEURRIAK.

- 2.1) Ingurumeneko neurriak: leheneratzea eta antolamendua.
- 2.2) Azpiegituren ustiapena kudeatzeko arauak.
- 2.3) Azpiegituretako lanak: portuak, ubideak, errepideak, burdinbideak, hiri zerbitzuak...
- 2.4) Neurri estrukturalak: ingeniartza lanak...
- 2.5) Urbanizaziorako eta mantentze lanetarako azaleko neurriak.

3) PRESTAKETA NEURRIAK.

- 3.1) Alerta meteorologikoko sistemak.
- 3.2) Neurketarako eta alertarako sistemak.
- 3.3) Plangintza eta herri babeseko planekiko koordinazioa.
- 3.4) Jardunbide eta informazio protokoloak.
- 3.5) Kontzientzia publikoaren sustapena eta autobabeserako estrategiak.

4) EGOERA LEHENERATZEKO ETA GORABEHERAK AZTERTZEKO NEURRIAK.

- 4.1) Larrialdi lanak.
- 4.2) Herri babeseko planen ebaluazioa eta, hala badagokio, berrazterketa.
- 4.3) Aseguruen sustapena.
- 4.4) Gertaeren ebaluazioa, azterketa eta diagnostika.

Hirian garrantzi handia duten arrisku naturalei dagokienez, bereziki ARRISKU METEOROLOGIKOEI dagokienez, aipatu beharra dago ALERTA METEOROLOGIKORAKO zenbait SISTEMA daudela prestaketa neurrien baitan.

Alerta horien funtzio nagusia da gobernuari, administrazio hidraulikoei, larrialdi zerbitzuei eta gainerako interesatuei informazioa eta zerbitzuak ematea, hondamendi naturalen kostuak txikiagotzeko, fenomeno meteorologiko kaltegarriekiko prebentzio jarduerak gauzatuz eta horien eragin posibleak arinduz. Estatuan, Estatuko Meteorologia Agentzia (AEMET) da funtzio hori betetzen duen organismo publikoa, eta EAEn, berriz, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak (LAEMZ) hartzen ditu bere gain zerbitzu horiek.

"FENOMENO METEOROLOGIKO KALTEGARRIEN IRAGARPENA, ZAINTZA ETA BERORIEN AURREKO JARDUERA" izeneko protokoloak (FMK prozedura), Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak (LAEMZ) eta Euskal Meteorologia Agentziak (EUSKALMET) eginak, meteorologia kaltegarriarekin lotutako abisuak sortzeko prozedura arautzen du, eta, horretarako, tartean dauden erakunde guztien artean informazioa trukatzeko mekanismoak ezartzen ditu, horien jarraipena egiten du, organismo zein erakundeen aktibatzeak bideratzeko neurriak zehazten ditu eta euskal herritar guztiei informazioa ematen die, fenomeno kaltegarri horiei aurre egiteko lehen prebentzio jarduerak gauza daitezen.

Fenomeno meteorologiko kaltegarria zer motatakoa den kontuan hartuta, eta haren zonifikazioa zehaztuta, FMK prozedurak kaltegarritasun atalase hauek ezartzen ditu:

HORIA (ABISUA)

ALERTA (LARANJA)

eta

GORRIA (ALARMA)

MAILA BERDEA (ABISURIK EZ)

Abisu horiek aztertu ostean erabakitzen da beharrezkoa den ala ez dagozkion herri babeseko planak eta protokolo edo gidak aktibatzea.



Meteorologia fenomeno kaltegarrien kolore egoeraren eskema:

Kolorea:	Berdea	Horia	Laranja	Gorria
Egoera:	Ohikoa	Maiz	Gutxitan	Aparta
Arriskua:	Deusez	Arina	Ertaina	Larria
Errepikatze-denbora hurbila:		< Urte 1	≈ Urte 1	>> Urte 1
Sortzen du:	Ez	Abisua	Alerta	Alarma
Twitterra:	Ez	Bai	Bai	Bai
E-maila:	Ez	Bai	Bai	Bai
SMSa:	Ez	Ez	Bai	Bai
Aholkuak:	Ez	Ez	Bai	Bai
Prentsa oharra:	Ez	Ez	Bai	Bai
Planaren	Ez	Ez	Egoeraren	Bai

4.2.- PLANGINTZA


PLAN BEREZIAK (PB) arrisku zehatzei aurre egiteko prestatzen dira. Arrisku horiei aurre egiteko, metodologia tekniko-zientifiko espezifiko behar da, dela jarduera sektoreagatik, larrialdi motarengatik edo jarduera motarengatik. Plan berezia behar dute HBOAn aurreikusita egonik EAEn eragin espezifiko duten arriskuek. Era berean, HBOAn aurreikusita ez dauden EAEko zenbait arriskuk ere izan dezakete plan berezia, benetan garrantzitsuak badira euren izaerari eta trataerari erreparatuta. Eusko Jaurlaritzari dagokio plan bereziak egitea.

Plan berezietan aurreikusita egon daiteke udalerriek UDAL JARDUNERAKO PLAN (UJP) espezifikoak izatea arrisku jakin batzuetarako. Era berean, plan berezietan aurreikusita ez dauden Donostiako zenbait arriskuk ere izan dezakete udal jardunerako plana, benetan garrantzitsuak badira euren izaerari eta trataerari erreparatuta. Donostia udalerrirari dagokio udal jardunerako planak egitea.

Bestalde, Donostiako Udalak larritasun gertaerei aurre egiteko JARDUNBIDE PROTOKOLOAK EDO GIDAK egiteko eskumena du, horretarako neurriak hartzeko.

Era berean, Udalak hainbat SEGURTASUN PLAN ETA AUTOBABESERAKO PLAN egin ditzake, bestelako ekitaldi edo jardueren arriskuak prebenitze aldera.

Hala, Donostia udalerririko herri babeseko PLANGINTZAREN ESKEMA honako hau da:



4.3.- ARRISKU NATURALAK

Naturak hainbat fenomeno kaltegarri eragin ditzake, hala nola lurrikarak, uholdeak, sumendien erupzioak eta fenomeno meteorologiko kaltegarriak, eta, baldintza jakin batzuetan, fenomeno horiek arriskuan jar dezakete gizakien segurtasuna eta ondasunen zein ingurumenaren osotasuna

4.3.1.- ARRISKU GEOLOGIKOAK

4.3.1.1.- ENDOGENOA: SISMOA (SIS)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Arrisku sismikoari lotutako prebentzio jarduerai dagokienez, NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK (eraikin berezi eta katalogatuen zerrenda; erabileren antolamendua, kalteberatasun mailaren arabera; herri babeseko neurriak...) eta NEURRI ESTRUKTURALAK (eraikitzeo arauak betetzea...) bateratzea komeni da.

LEHENDIK DAUDEN ERAIKUNTZEN kasuan, prebentzio neurri hauek erabil daitezke:

- 1) Eraikin katalogatuak identifikatzea, Eraikitako Hiri Ondarea Babesteko Plan Bereziaren (EHOBPB) bidez.

2) Ezaugarri bereziko eraikinak identifikatzea (garaiera handia, okupazio handia, osasun zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak...), Donostiako PSISZren Eraikin Berezien Zerrendaren bidez.

3) Eraikinak ikuskatzeko eta mantentzeko indarrean den araudia betetzea (Eraikinen Azterketa Teknikoa, EAT).

ERAIKUNTZA BERRIEN kasuan, indarrean dagoen egiturazko araudia bete behar da:

1) Eraikuntzaren Kode Teknikoa (EKT) eta Eraikuntza Lurrikarekiko Erresistentearen Araua: zati orokorra eta eraikuntza 2002 (ELEA-02).

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

1) EAE-KO ARRISKU SISMIKORAKO LARRIALDI PLANA, 2007. (ASLP2007).

4.3.1.2.- EXOGENOAK: LUR MUGIMENDUAK (LUR)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Lur mugimenduen arriskuekin lotutako prebentzio jarduerai dagokienez, NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK (erabile-
ren antolamendua, kalteberatasun mailaren arabera; alerta goiztiarreko sistemak; herri babeseko neurriak...) eta
NEURRI ESTRUKTURALAK (defentsa sistemak...) bateratzea komeni da; neurri estrukturalak arriskupean dauden
hiri eremuetan eta finkatutako bide azpiegituren eremuetan aplikatu behar dira.

Lur irristatzeak eta mugimenduak gertatzeko arriskua duten eremuak arrisku latente bat egongo balitz bezala
tratatu behar dira; gizakiak landaredia ezarritik edo/eta ezaugarri naturalak aldatuko dituzten lanak eginez alda
ditzakeen parametroak aintzat hartuta zehazten da arrisku hori. Arrisku potentzial ertain eta handia duten ere-
muak kontuan hartu behar dira, hegala ezaugarri naturalak aldatuko dituen edozein ekintza gauzatzean.

Kasuan-kasuan, neurri hauek aplika daitezke, lur mugimenduen arriskuari aurre egiteko:

1) Zuhaitz autoktonoak dituzten hegala:

Horrelako hegala orekatuta egon ohi dira, eta arrisku potentziala txikitu egiten da, edo ez dago arriskurik; hor-
taz, landarearen ezaugarri horiek ez aldatzen saiatu behar da, eta, behar-beharrezkoa baldin bada, inpaktu
ahalik eta txikiena eragiten saiatu.

2) Zuhaitz landatuak dituzten hegala:

Hegal mota hauek orekatuta egoten dira zuhaitzia erabat garatuta dagoenean, eta baldintza ezegonkorretan,
berri, zuhaitzia moztean.

3) Belardiak dituzten hegala:

Hegal mota hauetan creepinga eta irristatzeak gertatzen dira, ez baitago apenas landaretzarik hegalean behe-
ra doazen materialei eusteko. Kasu larrienetan, zuhaitzak landatu behar lirateke, babesgarri gisa.

4) Ezponda bertikalak eta labarrak:

Elementu geografiko hauek aldapa edo bertikal malkartsua dute, eta behealdean antropizatuta daude, bideak,
bidegorriak edo oinezkoentzako pasealekuak eraiki dituztelako. Horrelakoak egonkortzeko eta kontrolatzeko,
sistema hauek erabil daitezke:

- 4.1) Babes aktiboko sistemak: ezpondaren aurrealdean zuzenean eragiten duten sare sistemak, arroak
erortzea eragozten dutenak edo/eta horien ibilbidea nahiz abiadura kontrolatzen dituztenak.
- 4.2) Babes pasiboko sistema: babes pantailen sistema, non babeserako hesiak ipintzen diren, arroaren
joana eteten dutenak behin luizia gertatu ostean. Pantailak izan daitezke estatikoak edo finkoak
(egokiak luizi arrisku txikiko tokietarako edo luizi jarraitu baina txikiak gertatzen diren tokietarako) eta
dinamikoak (askatutako arroaren inpaktuen indarra xurgatzen dutenak; talkarekin deformatu egiten
dira, eta erorikoa arintzen dute).
- 4.3) Landareztatze sistemak: sistema berdea edo landaretza sistema, arroa jauziak kontrolatzeko erabilt-
zen dena; ezpondak leheneratzeko, landareak landatzen dira, honako hauek erabiliz: manta eta sare
organikoak, hidroereitea...

Horrez gainera, lur mugimendu nagusiek lotura zuzena dutenez uraren edo euriaren presentziarekin, alerta
meteorologikoko sistemak igorritako abisuak kontuan hartzea eta horiei jarraipena egitea komeni da, lur mug-
imenduen arriskuari aurre egiteko PRESTAKETA NEURRI gisa. Kasu honetan, LAEMZk "Fenomeno meteorologiko
kaltegarrien iragarpena, zaintza eta berorien aurreko jarduerak" protokoloa (FMK protokoloa) betez igortzen dituen
abisuak dira kontuan hartu beharrekoak.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

- 1) LUR IRRISTATZEA GERTATZEKO ARRISKUAREN GIDA, Euskadiko Geologoen Elkargo Ofizialak argitaratua (EGEO), 2014.
- 2) LAEESren taktika operatiboa: 14 Luiziak- Lur irristatzeak. LURRA.

4.3.2.- ARRISKU METEOROLOGIKOAK EDO KLIMATIKOAK

4.3.2.1.- UHOLDEAK (EUR)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

UAKPk uholde arriskua txikitzea xedetzat duten zenbait neurri ezartzen ditu. Kantauri Ekialdeko Mugapen Hidrografikoko Plan Hidrologikoaren arabera, NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK (erabileren antolamendua, uholde arriskuaren arabera; informazio hidrologikorako eta alerta goiztiarrerako sistemak; herri babeseko neurriak...) eta NEURRI ESTRUKTURALAK (bideratzeak, kanalizazioak, Añarbeko Urtegiko Segurtasun Plana...) bateratu behar direla zehazten du. Neurri estrukturalak arriskupean dauden hiri eremu finkatueta hartu behar dira kontuan.

Hauek dira UAKPn jasota dauden NEURRIAK, kategoriaka sailkatuta:

1) Uholdeetarako prebentzio neurriak

- 1.1) Lurralde antolamendua eta hirigintza.
- 1.2) Uholde arriskuaren kudeaketari buruzko azterketak.
- 1.3) Ibaibideak mantentzeko eta kontserbatzeko programa.

2) Uholdeen aurkako babes neurriak

- 2.1) Arroko neurriak: basoaren leheneratze hidrologikoa eta nekazaritzaren antolamendu hidrologikoa.
- 2.2) Arroko eta uholde lautadako neurriak: ibaia leheneratzea.
- 2.3) Urtegien ustiapena kudeatzeko arauak.
- 2.4) Emariak erregulatzeko neurri estrukturalak.
- 2.5) Azpiegitura linealak (errepideak eta burdinbideak) hobeto drainatzea.
- 2.6) Neurri estrukturalak (bideratzeak, lubetak, dikeak...).
- 2.7) Azaleko uretarako neurriak (drainatze artifiziala edo drainatze iraunkorreko sistemak, DIHS).

3) Uholdeei aurre egiteko prestaketa neurriak.

- 3.1) Alerta meteorologikoko sistemak hobetzea.
- 3.2) Neurketa eta alerta hidrologikoko sistemak hobetzea.
- 3.3) Plangintza egitea eta herri babeseko planekin koordinatzea.
- 3.4) Jardunerako eta informaziorako protokoloak hobetzea.
- 3.5) Kontzientzia publikoa eta autobabeserako estrategiak hobetzea.

4) Uholdeen ostean egoera leheneratzeko eta aztertze neurriak

- 4.1) Premiazko lanak.
- 4.2) Herri babeseko planak.
- 4.3) Aseguruen sustapena.
- 4.4) Uholde gertakarien ebaluazioa, azterketa eta diagnostika.

URUMEA ibaiaren behe arroak (ES018-GIP-URU-01 UAPNE kodea) eta IGARAKO erretenak (ES018-GIP-URU-02 UAPNE kodea) hiri lurzoru finkatueta barrena egiten dute euren bidearen zatirik handiena, eta, ondorioz, UAKPk uholdeekiko BABES NEURRIAK ezartzea proposatzen du, eta uholde arrisku potentzial nabarmeneko eremu horiek arrisku mailaren arabera sailkatzen ditu.

Urumeako uholde arrisku potentzial nabarmeneko eremua I. mailakotzat (arrisku oso handia) jotzen du, eta Igarakoa, aldiz, II. mailakotzat (arrisku handia). Irizpide horietan oinarrituta, plan horretan jasota dago "Urumea-02 UAPNE (Txomin, Martutene eta Ergobia) uholdeetatik babestea" xedetzat duten lanak gauatzeko programazioa.

URAK, bere aldetik, Donostiako Martutene auzoa Urumea ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektuaren 1. fasea eta 2. fasea idatzi zituen 2013an, eta 2015ean lan horiei ekin zien; 1. fasea amaitzeko epea 2016. urtea zen, eta jarraian ekin behar dio 2. faseari.

Lan horiek denak gauzatu ostean, eremu kalteberenen erresilientzia hobetuko da.

Edonola ere, UNESCOk argitaratutako "Flood Risk Management: A Strategic Approach. 2013" dokumentuaren arabera, non jasota datozen uholde arriskua kudeatzeko oinarritzko bederatzi arau, herri

babeseko plangintzak honako hau onartu behar du: "Erabateko babesa ezinezkoa da, eta istripuak kontuan hartu-

ta egin behar da plangintza. Onartu egin behar da ia saihetsezina dela nolabaiteko errore marjina, eta horregatik azpimarratzen da erresilientziaren hobekuntza".

Bestalde, uholdeei aurre egiteko PRESTAKETA NEURRI hauek daude ezarrita:

2) ALERTA METEOROLOGIKOKO SISTEMAK: LAEMZREN PROTOKOLOA.

Alerta horien funtzio nagusia da gobernuei, administrazio hidraulikoei, larrialdi zerbitzuei eta gainerako interesatuei informazioa eta zerbitzuak ematea, hondamendi naturalen kostuak txikiagotzeko, fenomeno meteorologiko kaltegarriekiko prebentzio jarduerak gauzatzuz eta horien eragin posibleak arinduz.

Estatuan, Estatuko Meteorologia Agentzia (AEMET) da funtzio hori betetzen duen organismo publikoa, eta EAEn, berriz, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak (LAEMZ) hartzen ditu bere gain zerbitzu horiek.

"FENOMENO METEOROLOGIKO KALTEGARRIEN IRAGARPENA, ZAINITZA ETA BERORIEN AURREKO JARDUERA" izeneko protokoloak (FMK prozedura), Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak (LAEMZ) eta Euskal Meteorologia Agentziak (EUSKALMET) eginak, meteorologia kaltegarriarekin lotutako abisuak sortzeko prozedura arautzen du, eta, horretarako, tartean dauden erakunde guztien artean informazioa trukatzeko mekanismoak ezartzen ditu, horien jarraipena egiten du, organismo zein erakundeen aktibatzeak bideratzeko neurriak zehazten ditu eta euskal herritar guztiei informazioa ematen die, fenomeno kaltegarri horiei aurre egiteko lehen prebentzio jarduerak gauza daitezen.

Prezipitazio motaren arabera, eta zonifikazioa zehaztuta, protokolo horrek kaltegarritasun atalase hauek ezartzen ditu: **HORIA (ABISUA)**, **ALERTA (LARANJA)** eta **GORRIA (ALARMA)**.

Hauek dira prezipitazio motak:

1.1) PREZIPITAZIO IRAUNKORRAK (PI): euriak luze irauten du (24 ordu), eta normalean hedatua izaten da; ibai nagusiek uholde arazoak eragiten dituzte.

1. 2) PREZIPITAZIO BIZIAK (PB): horrelakoak ditugu euria tarte laburrez (1 ordu) egiten badu, eta ez modu iraunkorrean, edo ekaitz oso laburrak (20 minututik behera), hedadura txikikoak eta intentsitate handikoak ($\geq 15 \text{ L/m}^2$ 10 minutuan) gertatzen badira; horrelakoek putzu edo uholde txikiak eragiten dituzte hirietan, industrialdeetan eta errepedetan.

Zonifikazioak eskualdeei, lurralde historikoei, arroei, isurialdeei edo eragin handiena jasango duten eremuei buruzko informazioa ematen du.

EREMUA	MOTA	PREZIPITAZIOA 24 ORDUAN (L/m^2)			PREZIPITAZIOA ORDUBETEAN (L/m^2)	
	MAILA	HORIA	LARANJA	GORRIA	HORIA	LARANJA
AUTONOMIA-ERK		[60-80]	[80-120]	≥ 120	[15-30]	[30-60]

3) NEURKETA ETA ALERTA HIDROLOGIKORAKO SISTEMAK.

Urumea ibaiak neurketarako eta alerta hidrologikorako zenbait sistema ditu, administrazioko organismoek kudeatuak.

2.1) Eusko Jaurlaritza (EJ).

Euskalmet: uraldien zaintza.

- Neurgailuak: mailak eta prezipitazioa.

Co80 Añarbe.

CoFo Ereñotzu.

Co81 Martutene.

Co82 Txomin Enea.

2.2) Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA).

Ibaien emariei eta uren kalitateari buruzko datuak.

- UR EMARIA NEURTZEKO ESTAZIO iraunkorrak.

D1W1 Añarbe.

D2W1 Ereñotzu.

2.3) Donostiako Udala.

Herritarren Segurtasuna. Larrialdi Planak.


- Urumea ibaiaren maila.

1. puntua: Txomin Enea.

2. puntua: Martutene.

Ura Ustiatzeko eta Saneamenduko Zerbitzua:

- Urrutiko aginteko GIS eta saneamendu sarearen monitorizazioa.



2.4) Uraren Euskal Agentzia (URA).

Aurreikuspen eta Alerta Hidrologikoen Sistema (UHATE).

4) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

1) Uholde arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko urriaren 23ko 2007/60/CE Zuzentaraua betetzeko (Uholdeen Zuzentaraua), horren transposizioa, 903/2010 Errege Dekretua, uztailaren 9koa, uholde arriskuak ebaluatzeari eta kudeatzeari buruzkoa:

- I. fasea. Uholde arriskuaren aurretiko ebaluazioa (UAAE) eta uholde arrisku potentzial nabarmeneko eremuen (UAPNE) identifikazioa.
- II. fasea. Arriskugarritasun mapak eta uholde arriskuaren mapak: 2013ko abendua.
- III. fasea: Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak 2015-2021: 2016ko uztarrila.

2) EUSKADIKO UHOLDEEN ZIOZKO LARRIALDIKO PLAN BEREZIA, 2014 (UZPB2014).

3) URUMEA IBAIAK GAINEZKA EGITEAN SOR DAITEZKEEN UHOLDEEI AURRE EGITEKO UDAL EKINTZA PLANA, 2015 (URUEP2015 - V02).

4) LAEESren taktika operatiboa: 12 Meteorologia (METEO). FMK kudeaketa: UHOLDE. Uholdeak; 2 Uretan (URA). U3. Salbamendua barruko uretan; 16 Urtegiak (URTEGI).

4.3.2.2.- ELURTEAK (ELU)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Elurteek eragindako arriskuekin lotutako prebentzio jarduerai dagokienez, NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK (alerta goiztiarreko sistemak, herri babeseko neurriak...) komeni dira:

1) ALERTA METEOROLOGIKOKO SISTEMAK: LAEMZren protokoloa.

LAEMZren prozedurak hiru eremu ezartzen ditu: lehenengoa, 700 metrotik gora eta 1.000 metrotik behera kokatuta dagoena; bigarrena, 300 metrotik gora eta 700 metrotik behera kokatuta dagoena, eta hirugarrena, 300 metrotik behera dagoena. Elurra hirugarren eremuan eginez gero orokortzen dira arazoak, zenbait kasutan kostaldeko biziguneetan ere bota baitezake. Hortaz, eremu edo zona horren barruan dago Donostia udalerrria.

Elur prezipitazio motaren arabera, eta zonifikazioa zehaztuta, protokolo horrek kaltegarritasun atalase hauek ezartzen ditu: HORIA (ABISUA), LARANJA (ALERTA) eta GORRIA (ALARMA).

Puntu bakoitzeko elur kota zehatza, gogortze maila, elurraren dentsitatea, prezipitazio kopurua eta intentsitatea, elurtegiak eratuko diren ala ez... iragartzea zaila denez, atalaseen gutxi gorabeherako taula hau hartzen

da erreferentziatzen 24 ordurako. Kontuan hartu behar da metro koadroko litro bat (l/m^2) zapaldu gabeko 1 zentimetroko elur lodieraren baliokidea dela.

GARAIERAK	HORIA	LARANJA	GORRIA
0-300	Lurreko elur-malutak, 1 l/m^2 -raino	$[1-5] \text{ l/m}^2$	$\leq 5 \text{ l/m}^2$
300-700	Lurreko elur-malutak, 1 l/m^2 -tik	$[5-20] \text{ l/m}^2$	$\leq 20 \text{ l/m}^2$
700-1.000	Lurreko elur-malutak, 1 l/m^2 -tik gora	$[10-30] \text{ l/m}^2$	$\leq 30 \text{ l/m}^2$

Horrez gainera, abisuetan eskualdeei, lurralde historikoei, arroe, isurialdeei edo eragin handiena jasango duten eremuei buruzko lurralde informazioa ematen da.

2) Udal BANDOA edo oharra, elurteak izanez gero.

Behin jasota elurra egiteko arriskuaren alerta meteorologikoa, eta alerta hori aztertu ostean, Udalak udal bando edo ohar bat igortzen du; bando horren helburu nagusiak dira kalean elurra izateak berekin dakartzan arriskuen berri ematea herritarrei, talde bakoitzaren garbiketa betebeharrak gogoraraztea eta hiriko zein hiriarteko komunikazio bideen egoerari buruzko informazioa jasotzeko telefonoak ematea.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

1) EAEko Neguko Bidezaintza Plana. Urtekoa.

2) ELURTEETARAKO UDAL EKINTZA PLANA 2016-2017 (ELUEP V07).

3) LAEESren taktika operatiboa: 12 Meteorologia (METEO), FMK kudeaketa: ELURRA2. Elurteak.

4.3.2.3.- HAIZETEA (HZ)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Haizeteek eragindako arriskuekin lotutako prebentzio jarduerari dagokienez, NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK (alerta goiztiarreko sistemak, herri babeseko neurriak...) eta NEURRI ESTRUKTURALAK (mantentze programak, aldizkako azterketak...) bateratzea komeni da.

1) PREBENTZIO NEURRIAK.

Prebentzio neurri gisa, komeni da tamaina handieneko zuhaitziak zaintzea eta horietan mantentze lanak egitea, baita eraikinen kanpoaldean finkatutako elementuen (antenak, kartelak, loreontziak, erlaitzak, pertsianak, eguzki oihalak...) finkagailuak aztertzeko eta hiri osoko zabor edukiontzia gainbegiratzea eta finkatzea ere.

2) ALERTA METEOROLOGIKOKO SISTEMAK: LAEMZren protokoloa.

LAEMZren protokoloak ezarritakoaren arabera, haizeteen arriskuak hainbat kalte eragiten ditu, hala nola zuhaitzak, erlaitzak edo hormak erortzea, baita objektuak ere, eta erortako horiek, era berean, talkak eragin ditzakete, nahasmenduak sor ditzakete garraio sarean, kalteak nekazaritzan, eraikuntzan eta industrian, eta, kasurik larrienean, giza heriotzak.

Kontuan hartuta kalte gehienak haize bolada labur edo ia bat-batekoek sortzen dituztela, atalaseen balioek HAIZE BOLADA MAXIMOEI bakarrik egiten diete erreferentzia, eta ez batez besteko haizeari.

Haize motaren arabera, eta zonifikazioa zehaztuta, protokolo horrek kaltegarritasun atalase hauek ezartzen ditu: HORIA (ABISUA), LARANJA (ALERTA) eta GORRIA (ALARMA).

Toki eta une bakoitzean izango diren haize boladak zehaztea ezinezkoa da, lurralde konplexua izaki, haizeak oso ausazko osagaia baitu Euskadin. Hori dela eta, bi EREMU ezarrita sinplifikatzen da:

- HAIZEAREN ERAGINPEKO EREMUAK:
Labarrak, itsas muturrak, mendialdeko inguruak...
- HAIZEAREN ERAGINPEAN EZ DAUDEN EREMUAK:
Hiriak eta haizearen eraginpeko eremutzat jotzen ez diren gainerako eremuak.


Dena den, egoera sinoptiko jakin batzuek oso haizete bortitzak eragiten dituzte toki jakin batzuetan, kanalizazioengatik edo beheranzko haizeengatik, normalean. Hortaz, aintzat hartu behar da egoera eta toki horietan haizearen eraginpeko zonetan hartu beharreko neurriak hartu behar direla, berez eremu arriskugarriak ez diren arren. Hauek dira abisuak igortzeko aintzat hartzen diren gutxi gorabeherako balioak:

EREMUA	MOTA	GEHIENEO HAIZEKADA (km/h)		
	MAILA	HORIA	LANRANJA	GORRIA
ERAGINPEKO ALDEA		[100-120]	[120-140]	≥ 140
ERAGINPEAN EZ DAGOEN ALDEA		[80-100]	[100-120]	≥ 120

Donostiako Udalak hiru ESTAZIO METEOROLOGIKO ditu, non haizearen abiadura eta norabidea denbora errealean neurtzeko sistema edo anemómetro dituzte. Estazio horiek hurrengo lekuetan kokatzen dira:

- Gudamendiko (Gudamendiko Dorrea) Meteo Estazioa.
- Garberako Suhiltzaileen Parkeko Meteo Estazioa.
- Sagues Zabalguneko Meteo Estazioa.

Ematen dituzten datuak Udaltzaingoaren Koordinazio Zentroak eta Suhiltzaileen Zentralak monitorizatzen dituzte.



2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

1) HAIZE ZAKARRA DABILENERAKO JARDUNBIDE PROTOKOLOA EDO GIDA (PRT-HZ). 2017. urterako aurreikusita.

4.3.2.4.- MUTURREKO TENPERATURAK

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Muturreko tenperaturek eragindako arriskuekin lotutako prebentzio jardueri dagokienez, NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK (alerta goiztiarreko sistemak, gizarte harrerarako neurriak, herri babeseko neurriak...) komeni dira:

1) ALERTA METEOROLOGIKOKO SISTEMAK: LAEMZren protokoloa.

LAEMZren protokoloak lau EREMU homogeneo zehazten ditu tenperaturagatiko kaltegarritasun atalase guztietarako:

- KOSTALDEKO EREMU: itsasotik oso hurbil dago, eta bertan kokatuta dago Donostia hiria.
- Kantauri barneko eremua.
- Tarteko eremua.
- Ebroren ardatzaren eremua.

Muturreko tenperatura motaren arabera, eta zonifikazioa zehaztuta, protokolo horrek kaltegarritasun atalase hauek ezartzen ditu: HORIA (ABISUA), LANRANJA (ALERTA) eta GORRIA (ALARMA).

Hauek dira IZOZTE EDO MUTURREKO TENPERATURA BAXUEKIN kostaldean egoera desberdinak adierazten dituzten gutxi gorabeherako atalaseak:

EREMUA	TEMPERATURAK GRADU ZENTIGRADUTAN		
	HORIA	LARANJA	GORRIA
KOSTALDEA	≥ 0	≥ -2	≥ 4

Hauek dira MUTURREKO TENPERATURA ALTUEKIN kostaldean egoera desberdinak adierazten dituzten gutxi gorabeherako atalaseak:

EREMUA	TEMPERATURAK GRADU ZENTIGRADUTAN		
	HORIA	LARANJA	GORRIA
KOSTALDEA	≥ 33	≥ 35	≥ 37

LAEMZren prozeduraren arabera, TENPERATURA ALTU IRAUNKORREKO egoera gertatzen da, baldin eta tenperaturaren arabera mugatutako eremu baterako edo guztietarako iragarrita dauden tenperaturek –eguneko maximoak zein minimoak– gainditu egiten badituzte zehaztuta dauden atalaseak.

- KOSTALDEAN (bertan dago Donostia), eguneko tenperatura maximoek eta minimoek hurrenez hurren 30 eta 19 graduak gainditzen badituzte sortzen da egoera hori.

Hauek dira tenperatura altu iraunkorrekin kostaldean egoera desberdinak adierazten dituzten gutxi gorabeherako atalaseak:

EREMUA	EZARRITAKO ATALASEAK GAINDITZEN DITUZTEN ONDOZ ONDOKO EGUNEN KOPURUA		
	HORIA	LARANJA	GORRIA
KOSTALDEA (t^a mín ≥ 19 eta t^a máx ≥ 30)	1 edo 2 egun	3 edo 4 egun	5 egun edo gehiago

2) GIZARTE NEURRIAK.

Muturreko tenperatura baxuen eta izozteen ondoriozko arrisku egoerek kalean lo egiten duten pertsonen osasunean eragin ditzaketen kalteei aurre egitearren, Donostiako Udaleko Gizarte Ongizatearen Zuzendaritzak urtero idatzi eta ezartzen du "MUTURREKO HOTZ GAUETAN ETXEGABEEI LARRIALDI ARRETA EGITEKO PROTOKOLOA".

Protokolo horren xedea da Donostian gizarte larrialdiko egoerez arduratzen diren eragile guztiak koordinatzea, neguko muturreko meteorologiak kalean lo egiten duten pertsonen osasunean eragin ditzakeen kalteak saihesteko.

Neguko programak harrerarako hiru baliabide eta egoera berezietarako protokoloa ditu:

- Udal Gizarte Abegi Etxea: 40 plaza.
- Gaueko Aterpea: 40 plaza.
- Ateak Zabalik Zerbitzua: plaza kopuru zehaztugabea.
- Muturreko meteorologiak bizia arriskuan jartzen duenerako jardunbide protokoloa.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

1) MUTURREKO HOTZ GAUETAN ETXEGABEEI LARRIALDI ARRETA EGITEKO PROTOKOLOA, 2016-2017. Donostiako Udaleko Gizarte Ongizatearen Zuzendaritza. Urtekoa

4.3.2.5.- ITSASOKOA-KOSTAKOA (ITS)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Itsasoko edo kostaldeko arriskuekin lotutako prebentzio jarduerari dagokienez, NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK (erabileren antolamendua, kalteberatasun mailaren arabera; alerta goiztiarreko sistemak; herri babeseko neurriak...) eta NEURRI ESTRUKTURALAK (defentsa sistemak, kai muturrak, kostako hormak...) bateratzea komeni da; neurri estrukturalak arriskupean dauden hiri eremuetan eta azpiegiturak babesteko eremuetan aplikatu behar dira.

Donostiako itsasertzaren zati handi bat hirian dago, eta, hortaz, hiriak itsasoko edo kostaldeko arriskuek eragindako kalteak jasan ditzake. Hori dela eta, ekintza posible hauek aurreikusten dira:

1) BABES NEURRIAK.

Kostatik hurbil egonik, gaur egun kalteberenak diren azpiegiturak (portua, itsasertzeko pasealekuak, hondartzako azpiegiturak, kostaldeko errepideak, kaleak eta auzoak...) eta itsasertza babesteko lanak egitea.

Hala, 2014ko ekaitz bortitzaren ondotik, hainbat lan egin dira, bai ekaitzaren kalteak jasan zituzten elementuak konpontzeko, bai ekaitzekiko babesa hobetzeko. Konponketa lanen artean, nabarmentzekoak dira Zurriola hondartzako kai muturraren eta oinezkoek erabil dezaketen dikearen berreraikuntza (kai muturraren 130 m konpontzea), Pasealeku Berriko kosta hormako zuloaren konponketa, Santa Klara uharteko babes dikearen konponketa eta Zurriola hondartzan egindako harea ekarpena, besteak beste. Itsasertza indartzeko azken lana Salamanca pasealekuko eta Pasealeku Berriko blokeen azpi berritzea izan da: 30 tn-tik gorako pisua duten kareharritzko blokeak ipini dira, hormak babesteko.

2) ALERTA METEOROLOGIKOKO SISTEMAK: LAEMZren protokoloa.

LAEMZren protokoloaren arabera, itsasoko edo kostaldeko arriskuak hiru taldetan banatzen dira: bat nabigazioarekin lotua, beste bat enbatekin lotua eta beste bat kostako inpaktuaren iragarpenarekin lotua.

Itsasoko edo kostaldeko arrisku motaren arabera, protokolo horrek kaltegarritasun atalase hauek ezartzen ditu: HORIA (ABISUA), LARANJA (ALERTA) eta GORRIA (ALARMA).

2.1) NABIGAZIOA.

Bloke hau nabigazioarekin eta kostako lehenengo 2 miliatan gauzatzen diren kirol eta jolas jarduerekin lotuta dago. Kaltegarritasun mota hau zehazteko, olatuaren altuera esanguratsuari edo/eta itsasoaren egoerari lotutako atalaseak finkatzen dira. Edonola ere, haize itsasoa eta hondoko itsasoa bereizten dira, eta itsaso nahasia noiz dagoen aurreikusita adierazten da. Arreta berezia izan behar da itsaso kaotikoa dagoen egoerekin. Egoera mota horietarako atalaseak gutxi gorabeherakoak dira (*); izan ere, balio horiek ez ezik, kontuan hartzen dira beste aldagai batzuk ere, arriskugarritasuna handitzen edo txikitzen dutenak, hala nola urteko sasoi, ordutegia eta fenomenoaren zakarkeria.

HORIA	LARANJA	GORRIA
Itxaso mardula edo 3,5 eta 5 metro arteko olatu esanguratsuak kostaldean	Itxaso oso mardula edo 5 eta 7 metro arteko olatu esanguratsuak kostaldean	Itxaso asaldatua edo 7 metro baino gehiagoko olatuak kostaldean

(*) Bainurako sasoi ofizialean (ekainaren 15etik irailaren 30era) olatuaren altuera esanguratsuen atalaseak metro eta erdi txikiagoak dira (2 metro horiarentzat, 3,5 metro laranjarentzat eta 5,5 metro gorriarentzat).

2.2) ENBATAK EDO ANTZEKOAK.

Horrelako fenomenoak gertatzeko aukera izanez gero, beti igorriko da abisua. Zenbait ekaitzek, brisa sarrera zakarrek eta frontek enbaten antzeko eraginak izan ditzakete hondartzen erabiltzaileentzat eta nabigatzaileentzat, eta, horrexegatik, kontzeptu honetan txertatzen dira. Hauek dira horrelako egoerarako atalaseak:

NIVEL	CARACTERÍSTICAS
HORIA	ITSASOAN: haizea zakar aldatzea, indartu eta noranzkoa aldatuta, gehienetan ipar-mendebaldera eta 6ko indarrarekin. LEHORREAN: haizea zakar aldatzea, normalean ipar-mendebaldera, bat-batean bolada zakarrekin areagotuta, kostaldean 60 km/h-tik gorakoak izanda

NIVEL	CARACTERÍSTICAS
LA-RANJA	ITSASOAN: haizea zakar aldatzea, indartu eta noranzkoa aldatuta, gehienetan ipar-mendebaldera eta 7ko indarrarekin. LEHORREAN: haizea zakar aldatzea, normalean ipar-mendebaldera, bat-batean bolada oso zakarrekin areagotuta, kostaldean 90 km/h-tik gorakoak izanda.
GO-RRIA	ITSASOAN: haizea zakar aldatzea, indatu eta noranzkoa aldatuta, gehienetan ipar-mendebaldera eta 8ko indarrarekin LEHORREAN: haizea zakar aldatzea, normalean ipar-mendebaldera, bat-batean bolada bortitzekin areagotuta, kostaldean 120 km/h-tik gorakoak izanda.

2.3) ERAGINA KOSTALDEAN.

Kontuan hartuta ekaitzetan itsasoak eragina duela kostatik hurbilen dauden azpiegiturretan, eta jakinik eragindako kalteak itsasoaren egoerak ez ezik beste aldagai askok ere baldintzatzen dituztela –marea biziaren edo hilen sasoia den, ekaitza itsasgoran gertatzen den, olatuak nolakoak diren, ekaitzak zenbateko potentzia duen, olatuek zer norabide duten eta kosta zer motatakoa den, besteak beste–, LAEMZk aldagai horiek eta ekaitzek historian zehar eragindako kalteak erlazionatzen dituzten INDIZE batzuk ezarri ditu.

Indize horiek oinarritzat dute gainditze kontzeptua, hau da, olatuek, zer ahalmen duten, aldagai askoren arabera, altuera jakin batzuk gainditzeko gure kostan. Hori dela eta, itsasgora bakoitzean bi gainditze indize (itsas mailatik gora dagoen elementu batean eragitean olatuek hartzen duten kota) ematen dira, tarte bat izango balitz bezala: indize batek altuera probableena adierazten du, eta besteak, berriz, une jakin horretan izan daitekeen gainditze altuera maximoa. Ondorengo abisu bakoitzean, “ikusitako fenomenoak” kapituluaren datu errealean arabera lortutako gainditze indizeen balioak ageri dira, kostako erabiltzaile bakoitzak (administrazioa, jabeak, portuak...) jakin dezan zer erlazio duten indize horiek interesatzen zaizkien kostako eremuekin.

HORIA	LARANJA	GORRIA
Gainezka egiteko indizea: $l > 5,75m$ Gainezka egiteko indize maximoa: $l(max) > 6,50m$	Gainezka egiteko indizea: $l > 6,50m$ Gainezka egiteko indize maximoa: $l(max) > 7,00m$	Gainezka egiteko indizea: $l > 7,25m$ Gainezka egiteko indize maximoa: $l(max) > 8,00m$

KLIMA ALDAKETARI eta itsasoko edo kostaldeko arriskuei dagokienez, aipatu beharra dago 2003az geroztik Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak eta Kantabriako Unibertsitateak lankidetzan dihardutela, klima aldaketak Espainiako kostetan duen eragina aztertzen; izan ere, ondorioak ebaluatu eta egokitzapen neurriak identifikatu nahi dituzte, oinarri zientifiko, tekniko eta sozioekonomikoa duten erantzunak emateko kostako eremuetan sortu diren premiei, kontuan hartuta klimaren aldakortasuna eta oraingo zein etorkizuneko klima aldaketa.

DULPren atal honek egokitu egin beharko du, aldiro-aldiro, bulego horrek egingo dituen azterketetatik ateratako ondorioetara.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

- 1) OLATU HANDIAK DAUDENERAKO JARDUNBIDE PROTOKOLOA (PRT-ITS).
- 2) LAEESren taktika operatiboa: 2 Uretan (URA). U2. Itsasertzeko salbamendua

4.3.2.6.- EKAITZAK ETA TXIMISTAK (EKT)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Ikus D) Prebentzio jarduerak, uholdeei aurre egiteko prestaketa neurriak atala, 1) Alerta meteorologikoko sistemak: LAEMZren prozedura azpiatala:

1. 2) PREZIPITAZIO BIZIAK (PB): horrelakoak ditugu euria tarte laburrez (1 ordu) egiten badu, eta ez modu iraunkorrean, edo ekaitz oso laburrak (20 minututik behera), hedadura txikiak eta intentsitate handiak ($\geq 15 \text{ L/m}^2$ 10 minutuan) gertatzen badira; horrelakoak putzu edo uholde txikiak eragiten dituzten hirietan, industrialdeetan eta errepedietan.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

Ez dago jardunbide planik, protokolorik edo gidarik arrisku mota honetarako.

4.3.2.7.- LEHORTEAK (LHR)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Hiriko klima eta ur hornidurarako azpiegiturak kontuan hartuta, une honetan ez da beharrezkotzat jotzen inolako prebentzio neurririk gomendatzea, baliabide hidrikoen ohiko zentzuzko erabileratik harago.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

Ez dago jardunbide planik, protokolorik edo gidarik arrisku mota honetarako.

- 1) LAEESren taktika operatiboa: 13 Hornidura (ERAMAN). Ezinbesteko hornidura.

4.3.3.- ARRISKU BIOTIKOAK

4.3.3.1.- IZURRITEAK (IZT)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Izurrite arriskuekin lotutako prebentzio jardueri dagokienez, hiri izurriteak kontrolatzeko ohiko kanpainak gauzatzen dira (arratoiak hiltzea, desinfektatzea, uso kopurua murriztea...), batetik, eta bestetik Asiako liztorrari aurka egiteko jardunbide protokoloa aplikatzen da; protokolo hori duela zenbait urte hasi zen erabiltzen hirian, eta urtero errepikatzen da.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

- 1) ASIAKO LIZTORRARI AURRE egiteko JARDUNBIDE PROTOKOLOA. Donostiako Udaleko Osasun Publikoko Zerbitzua eta PSISZ.

4.4.- ARRISKU TEKNOLOGIKOAK

4.4.1.- ARRISKU KIMIKOAK (K)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Arrisku kimikoarekin lotutako prebentzio jardueri dagokienez, NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK (erabileren antolamendua, kalteberatasun mailaren arabera; alerta goiztiarreko sistemak; herri babeseko neurriak...) eta NEURRI ESTRUKTURALAK (azpiegitura eta instalazio berriak, lehendik dauden azpiegituren edo instalazioen hobetzea...) bateratzea komeni da.

Arrisku kimikoei aurre egiteko prestaketa jardueri dagokienez, Barneko Larrialdi Planak (BLP) edo Autobabeserako Planak (AUP) eta, nagusiki, Kanpoko Larrialdi Plan (KLP) onartu eta homologatuak daude.

Kanpoko larrialdi planak larrialdi egoerei aurre egiteko tresna egokiak dira, eta industria jardura jakin batzuei lotutako arriskuak prebenitzeko premia dute jatorritzat. Horrelakoak prestatu eta ezartzeko, beharrezkoak dira Eusko Jaurlaritzaren eta udalerrri zein industria establezimendu interesatuen arteko lankidetzak eta koordinazioa. Larrialdi bat jazoz gero ahalik eta eraginkortasun handiena lortzea dute helburutzat. Horretarako, bizkor eta eraginkortasunez esku hartzeko eta bat-batekotasuna ekiditeko ekintzak aurreikusten dituzte.

Enpresa bakoitzaren kanpoko larrialdi plana enpresan gerta daitezkeen istripu kimiko larriak prebenitzeko eta, behar izanez gero, horien ondorioak arintzeko prestatutako esparru organiko eta funtzionala da. Agintaritzen eta esku hartze zerbitzuen funtzioak eta koordinaziorako eskema zehazten ditu, baita plana bera aplikatzeko behar diren giza baliabideak zein baliabide materialak eta babes neurri egokiak ere.

Enpresa baten kanpoko larrialdi plana industria kimiko batean instalazioetatik at ondorioak dituen edo izan ditzakeen istripu bat jazoz gero aktibatzen da. Enpresak istripu bat duenean, barneko larrialdi plana edo autobabeserako plana aktibatzen du, eta berehala jakinarazten die agintariei, behar izanez gero kanpoko larrialdi plana aktibatzeko. Horretarako, istripuaren kategoriari erreparatzen zaio, kontuan hartuta segurtasun azterketako sailkapena eta, hala badagokio, Arriskuaren Azterketa Kuantitatiboa (AAZ).

1) 1. kategoria:

Kalte materialak industria barruan bakarrik eragiten dituzten istripuak. Horrelakoetan, kanpoan ez dago kalte-rik. Barneko larrialdi plana aktibatzen da. Agintariei jakinarazten zaie.

2) 2. kategoria:

Industrian biktimak eta kalte materialak eragiten dituzten istripuak dira. Kanpoan, kalte txikiak edo inguru-menerako ondorio negatiboak besterik ez dituzte eragiten, eta eremu mugatueta, gainera. Barneko larrialdi plana aktibatzen da. Kanpoko larrialdi plana aktibatzen da.

3) 3. kategoria:

Industriaren kanpoaldean biktimak, kalte material handiak edo eremu zabaletako ingurumen gorabehera larriak eragiten dituzten istripuak. Barneko larrialdi plana aktibatzen da. Kanpoko larrialdi plana aktibatzen da.

Istripu larrienak 2. eta 3. kategorietakoak dira, ondorioak baitituzte kanpoaldean. Kanpoko larrialdi plana aktibatzea dakarte. Planeko zuzendariak zehazten du erantzun maila, egoeraren garrantziaren eta bilakaeraren arabera. 1. kategoriako istripuek ez dute kanpoko larrialdi plana aktibatzen, kanpoko laguntza behar badute ere. Erantzuna laguntzak koordinatzera eta herritarrei gertatutakoaren berri ematera mugatzen da.

Donostiako eremu hurbilenean kokatu eta aurreko Kapituluan aipatutzen ziren enpresa kimikoei buruzko herritarrei zuzendutako informazioa eranstean da.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

1) BARNEKO LARRIALDI PLANAK (BLP) EDO AUTOBABESERAKO PLANAK (AUP).

2) Arrisku kimikoa duten industria enpresen KANPOKO LARRIALDI PLAN (KLP) onartu eta homologatuak.

3) LAEESren taktika operatiboa: 5 Industria (KIMIKA).

EUSKO JAURLANEA GOBIERNO VASCO

KEM ONE, S.L.

BIZTANLEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA	
1. orria	
Enpresaren identifikazioa eta helbidea	
- KEM ONE, S.L. - Epele auzoa, 26. zenbakia - 20120 - Hernani (Gipuzkoa)	
Informazio ematen duen pertsona	
Komunikazio-arduraduna	
1254/1999 Errege Dekretuak betetzen dela adierazten	
KEM ONE, S.L.U. enpresaren Hernaniko instalazioak uztailearen 16ko 1254/1999 Errege Dekretuko erregelamenduzko xedapenak beteiko ditu. (Errege Dekretu honen bidez, istripu larrietan gai amiskutzuzak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onesten dira). Araztegi honen 9. artikuluko 1. alalean adieraztutakoan jarraiki, enpresak bidezko segurtasun-bostena helaraziko dio agintari eskudunari.	
Enpresaren jarduerak	
KEM ONE, S.L.U. enpresaren Hernaniko instalazioan, binil polikloruroa egiten dute (PVC) eta, honetarako, binil kloruro monomeroa (CVM) erabiltzen dute. CNAB: 241.	
- CVMren hartzea eta deskargatzea. - PVCren fabrikazioa: CVMen polimerizazioa eta lehortzea. - PVC resinaren zakuatzea eta egokitzeta.	
Istripu larria eragin dezaketen gaiak	
Fabrikazio-prozesuan, gai jakin batzuk erabiltzen dira. Hala ere, gai horien ezaugarriak eta karrutak konsumu handia, arriskuaren analitikalari ondoriozta dezakegu istripu larriak (alegia, instalazioak kanpo eragiten duten istripuak) binil kloruro monomeroa (CVM) tartean denetan bakarrik gerta daitezkeela.	
Binil kloruro monomeroa (CVM) oso toxikoa den gas likidotua da. 2.000 metro kubiko esfera batean eta lau ontzitan (2 x 100 m ³ eta 2 x 25 m ³) gordetzen da. 29,7 metro kubiko ur-ingurune autoklave batean polimerizatzen da PVC lortzeko.	

BIZTANLEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA				
2. orria				
Gerta litekeen istripu larriak eta horien ondorio posiblenak				
Egokiera honen ondorioz, instalazioak kanpo eragina duten istripu larriak izan daitezke:				
- CVMaren inertsia eraginako gas-hodeiak estandak egiteak. - CVMaren esfera piztatu eta su hartzearen ondorioz su-bola ersteak.				
Istripu horiek gainpresioak (estanda gertatzen bada) edo bero-emisioak (su-bolaren kasuan) sor ditzakete eta horiek pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean eragina izan dezakete. Gai-pertsonengan eta bero-emisioaren arabera, bi jardun-eremu zehaztu dira: Esku hartzeko alderdia eta alerta-egoerako alderdia. Alderdi horietan dagozkien balioak eta ondorioak honakoak dira:				
BERO-ERRADIAZIOA				
Alderdi	Bero-erradiazioa (W/m ² /m ²)	Ondasunetan	Pertsonengan	Ingurumenean
EA	5	—	2. graduko eremuak (> 30 s.)	—
AA	3	—	1. graduko eremuak (> 30 s.)	—
GAINPRESIOAK				
Alderdi	Gai-pertsonengan (balioa (mbar))	Ondasunetan	Pertsonengan	Ingurumenean
EA	125	Trenkadak eta panelek	Trenkadak artean hartapasa	—
AA	50	Kristalak haustea	Kristalak jaurtitzearen ondorioz, zauritza	—
Istripu larria gertatuz gero biztanleak ohartarazi eta informatzeko				
Golan alperetako istripuetarako bet eragin lezakeen istripu-egoera agertzen bada instalazioan, agintariak arduratuko dira biztanleak ohartarazteaz eta informatzaz. Honako bitartekoak erabiliko dira biztanleak ohartarazi eta informatzeko:				
- Zuzeneko jakinarazpenak, megafoniak. Udalzaingoak edo Ertzaintza egingo ditu. - Gizarte-komunikabideak (teletxiketa eta irratia).				

BIZTANLEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA	3. orria
Instalazioen larraldi-egokeri adierazten duen biztanleek hartu beharreko neurriak Instalazioen istripu larri gertatzen bada, biztanleek jarraitu behar duten neurriak harko aldetik, istripu-egoeraren ezaugarriak, honen bitartez edo instalazioak hurbiltzean kontuan hartuz: • Konfinamendua • Umurtzeak Konfinamenduan edo umurtzeetan dagozkion oinarrizko jarraibideak honakoak dira:	
KONFINAMENDUA ETA AUTOBABESERAKO JARRAIBIDEAK	
• KALEAN: BADAUDE, BABESTU: ARNABIDEAK, MUSUZAPAREKIN EDO TRAPUAREKIN ETA BILATU BABESLEKUA. • ITXI ATEAK ETA LEHOAK (AHAL BADA, JAITSI PERTSIANAKI ETA ALDENDU, BEHARRERAKO BADA, JARRI TRAPU BUSTIAK ZIRRIKOTUTAN, EZ ERABILI KANPOTIKO AIRSETAPENIKO APARATUAK. • EZ EDOEN ERAKUNTZETAKO BEHEKO ALDEETAN (SOTOAK, GARAJEAK, E.A.) AHAL BADA, IDO SOLARIU GORRINTARA. • EZ ZAITEZ JOAN SEBE-ALABEN BILA ESKOLARA, ARDURAPEN DITUTENEK BADAHITE ZEIN NEURRI HARTU BEHAR DITUTEN. • EZ ERABILI TELEFONOA, BEHAR-BEHARRERAKO EZ BADA BEHINTZAT. • ENTZUN BERTAKO IRRATIAK ETA JARRAITU AGINTARIARI EMATEN JOANGO DIREN JARRAIBIDEAK ETA GOMENDIOAK.	
URRUTIRATZEKO ETA BABESLEKUA BILATZEKO JARRAIBIDEAK	
BEHARRERAKO BADA URRUTIRATZE ETA BABESLEKUA BILATZE, NOKA ETA NOKOI JOAN BEHAR DEN ADIERAZKO DA, ZUZENEAN JAKINARAZI EDO KOMUNIKABIDEEN BIRTATZETAN ONDOKO JARRAIBIDEAK BETEKO DIRA: • URRUTIRATZEN ZAREN BITARTEAN, BABESTU ARNABIDEAK MUSUZAPAREKIN EDO TRAPUAREKIN ETA BILATU BABESLEKUA. • JOAN BEHARRERAKO LEKURA HELTZEN ZARENEAN, BILATU BABESLEKUA LOKAL EDO ERAKIN BATEN BARRIKADA ITXI LEHOAK ETA ATEAK. • EZ ZAITEZ JOAN SEBE-ALABEN BILA ESKOLARA, ARDURAPEN DITUTENEK BADAHITE ZEIN NEURRI HARTU BEHAR DITUTEN. • EZ ERABILI TELEFONOA, BEHAR-BEHARRERAKO EZ BADA BEHINTZAT. • ENTZUN BERTAKO IRRATIAK ETA JARRAITU AGINTARIARI EMATEN JOANGO DIREN JARRAIBIDEAK ETA GOMENDIOAK.	

BIZTANLEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA	4. orria
Istripu larria gertatu aurretik instalazioen egin beharrekoak 1254/1999 Errege Dekretuan adierazitako beharrezko jarrak, instalazioen honakoak egin behar dira: • Neuri egokiak hartu itxipatu ahalik eta ondorio txikiarik izan ezin. • Kanpoko larraldi-zerbitzuaren harremanetan jarri. Instalazioen bertan egiten diren esku hartzeak jardunak eta agintari eskudunei adierazi beharrezkoak Barrio Larraldietarako Planetan jasotzen dira. Kanpoko Larraldietarako Plana Eusko Jaurlaritzaren Larraldi Aurre Egiteko eta Meteorologiko Zuzendatzak Kanpoko Larraldietarako Plana gertatu du ELECTROQUÍMICA DE HERNANI, S.A. enpresaren instalazioen gerla itxizkoen itxipetarako. Plan horren bidez, instalazioak kanpo eraginik izan dezaketen eta, ondorioz, instalazioaren inguruetan eragiten duten egoeri aurre egiteko antolatzeak modua eta beharrezko baldakideak ezartzen dira. Kanpoko Larraldietarako Plan honetan, larraldi-zerbitzuak nola jokatu duten adierazten da eta, horrez gain, larraldi-egoerak agertzean zerbitzu honi emango dituzten aginduek ere jasotzen dira. Informazio gehigarria Informazio gehigarria nahi izanez gero:  ((112))	

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ELECTROQUÍMICA DE HERNANI, S.A.

BIZTANLEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA	1. orria
Enpresaren identifikazioa eta helbidea • Electroquímica de Hernani, S.A. • Epile auzoa, 26. zenbakia - 20120 - Hernani (Gipuzkoa)	
Informazioa ematen duen pertsona Zuzendaria kudeatzailea	
1254/1999 Errege Dekretua betetzen dela adieraztea ELECTROQUÍMICA DE HERNANI, S.A. enpresaren instalazioak uztearen 16ko 1254/1999 Errege Dekretuko erregelamenduetan xedapenak beteiko ditu. (Errege Dekretu horren bidez, istripu larriak gaiti amikuitutak laneko direnean oortzen diren arretuak kontrolatzeko neurriak onesten dira). Arautegi honen 9. artikuluko 1. atalean adierazitakoan jarrak, enpresak bidezko segurtasun-ostena helaraziko dio agintari eskudunari.	
Enpresaren jarduerak Electroquímica de Hernani, S.A. enpresaren instalazioan produktu elektrolitikoak fabrikatzen dira: kloro, soda, azido klorhidroko, hipoklorito, hidrogenoa, e.a.	
Istripu larria eragin dezaketen gaiak Fabrikazio-prozesuan gai jakin batzuk erabiltzen dira, besteak beste, azido klorhidroko, azido sulfuriko, sodio klorato, ur oxigenatua, sodio dikromatoa eta sodio hidrosulfoa. Hala ere, gai horien ezaugarriak eta karrizaleak kontuan hartuta, arretuak analitatzeko ondoriozta dezakegu istripu larriak (alegia, instalazioak kanpo eragiten duten istripuak) kloro larrien direnaren bakanak gerta daitezkeela. Kloro gas likidotu toxikoa da, itogarria eta nargagarria, eta instalazio honetan biltegi ezberdinetan gordetzen da.	

BIZTANLEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA	2. orria																		
Istripu larriak eta horien ondorio posibleak Egoera honen ondorioz, instalazioak kanpo eragina duten istripu larriak izan daitezke: • Kloroak etengabe ihes egitea lineetan, zisternak kargatzeko besotetan, tenkagailuetan, e.a. zuloa egin delako. • Kloroak ihes egitea kloro-zilindroak hautsi egin delako (500 eta 1.000 kgko edukierakoak). Istripu honetako hodei toxikoa sor dezake, eta honetaz gainbat ondorio izan ditzake pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean. Kontzentrazio txikiaren arabera, bi jardun-eremu zehaztu dira: Esku hartzeko alderia eta alerik-egoerako alderia. Alderdi hauei dagokienez baldak eta ondorioak honakoak dira: <table border="1"> <thead> <tr> <th rowspan="2">Alderia</th> <th rowspan="2">Kontzentrazio-baldak</th> <th colspan="3">Aurreikusitako kalteak</th> </tr> <tr> <th>Ondasunetan</th> <th>Pertsonengan</th> <th>Ingurumenean</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>EA</td> <td>IPV5</td> <td>---</td> <td>Ez dago zintona larria, ez eta ondorio itzulgarria ere (gehienez ere 30 minutuko esposizioa)</td> <td>---</td> </tr> <tr> <td>AA</td> <td>IPV5-1025</td> <td>---</td> <td>Ondorio txikiak talde sentikortetan</td> <td>---</td> </tr> </tbody> </table>		Alderia	Kontzentrazio-baldak	Aurreikusitako kalteak			Ondasunetan	Pertsonengan	Ingurumenean	EA	IPV5	---	Ez dago zintona larria, ez eta ondorio itzulgarria ere (gehienez ere 30 minutuko esposizioa)	---	AA	IPV5-1025	---	Ondorio txikiak talde sentikortetan	---
Alderia	Kontzentrazio-baldak			Aurreikusitako kalteak															
		Ondasunetan	Pertsonengan	Ingurumenean															
EA	IPV5	---	Ez dago zintona larria, ez eta ondorio itzulgarria ere (gehienez ere 30 minutuko esposizioa)	---															
AA	IPV5-1025	---	Ondorio txikiak talde sentikortetan	---															
Istripu larria gertatu aurretik biztanleak ohartarazi eta informatzea Golan apertatuko itxipetutakoren bat eragin lezaketen istripu-egoera agertzen bada instalazioan, agintariak arduratuko dira biztanleak ohartarazteaz eta informatzeaz. Honako biarriekoa erabiliko dira biztanleak ohartarazi eta informatzeko: • Zuzeneko jakinarazpenak, megafoniak. Udalzainak edo Erantzaitzak eragingo ditu. • Gizarte-komunikabideak (teletxutia eta irratia).																			

BIZTANLEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA	3 orria
Instalazioen lortze-egitura aztertzen bada biztanleek hartu beharreko neurriak	
Instalazioen lortze-egitura aztertzen bada, biztanleek jasan ahal duen eragin handia aldu, lortze-egituraren eraginak, honen ondorioz eta instalazioak hurbiltzen diren neurriak hartu. - Konfinamendua - Urrutiratzea Konfinamenduari edo urrutiratzeari dagozkien oinarriak jarraitu behar dira:	
KONFINAMENDU ETA AUTOBABESERAKO JARRAIBIDEAK - KALEAN BADAUDE, BABESTU ARNASBIDEAK MUSUZAPIAREKIN EDO TRAPUAREKIN ETA BILATU BABESLEKUA - ITXI ATEAK ETA LEHOAK (AHAL BADA, JATSI PERTSIANAK) ETA ALDENDU. BEHARREZKOA BADA, JARRI TRAPU BUSTIAK ZIRRIKUTUTAN. EZ ERABILI KANPOTIKO AIREZTAPENKO APARATUAK. - EZ EGOZ ERANUNTZETAKO BEHEKO ALDEETAN (SOTOAK, OARAJAK, E.A.). AHAL BADA, IDO SOLARIU ORENTETARA. - EZ ZATIZ JOAN SEME-ALABEN BILA ESKOLARA. ARDURAPEN DITUZTENK BADAITE ZEIN NEURRI HARTU BEHAR DITUZTEN. - EZ ERABILI TELEFONUA, BEHAR-BEHARREZKOA EZ BADA BEHINTZAT. - ENTZUN BERTAKO IRRATIAK ETA JARRAITU AGINTARIEN EMATEN JOANGO DIREN JARRAIBIDEAK ETA OMMENDIOAK	
URRUTIRATZEKO ETA BABESLEKUA BILATZEKO JARRAIBIDEAK BEHARREZKOA BADA URRUTIRATZE ETA BABESLEKUA BILATZE, NOIA ETA NONGAI JOAN BEHAR DEN ADIERAZIO DA. ZUZENEAN JARRAIBIDE EDO KOMUNIKABIDEEN BITARTEZ OROKOR JARRAIBIDEAK BETERO DIRA: - URRUTIRATZEN ZAREN BITARTEAN, BABESTU ARNASBIDEAK MUSUZAPIAREKIN EDO TRAPUAREKIN ETA BILATU BABESLEKUA - JOAN BEHARREKO LEKURA HELTZEN ZARENEAN, BILATU BABESLEKUA LOKAL EDO ERAKIN BATEN BARRIUAN ETA ITXI LEHOAK ETA ATEAK. - EZ ZATIZ JOAN SEME-ALABEN BILA ESKOLARA. ARDURAPEN DITUZTENK BADAITE ZEIN NEURRI HARTU BEHAR DITUZTEN. - EZ ERABILI TELEFONUA, BEHAR-BEHARREZKOA EZ BADA BEHINTZAT. - ENTZUN BERTAKO IRRATIAK ETA JARRAITU AGINTARIEN EMATEN JOANGO DIREN JARRAIBIDEAK ETA OMMENDIOAK	

ERIKO JAILUNTZA  GOBIERNO VASCO

IGEPAK, S.A.

HERRITARREI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA	1 orria
Enpresaren identifikazioa eta helburua	
- IGEPAK, S.A. - Legenda 2, 20170, Usurbil (Gipuzkoa)	
Informazioa ematen duen pertsona	
Zuzendari nagusia	
1254/1999 Errege Dekretuaren helburua	
IGEPAK, S.A. uztailearen 16ko 1254/1999 Errege Dekretuaren arauak zehazten dago lotuta. Dekretu honen bidez, substantzia arriskutsuekin zerikusia duten istripu larriak neurrizko arauak kontrolatzeko neurriak onartzen dira. Arauak honetako 9. artikuluan 1. idatz-zatiaren adieraztekoari jarraiki, enpresak aginduzko segurtasun-koordenatuak aurkeztu dituzte eskumenaren duen agintarian.	
Enpresaren jarduna	
IGEPAK, S.A. enpresak aerosolak fabrikatzen eta onartzen ditu.	
Istripu larria eragin dezaketen gaiak	
Fabrikazio-prozesuan gai jakin batzuk erabiltzen dira, besteak beste, propanoa, isobutanoa, propanoa eta antzeko gas likidotuak eta alkoilak. Hala ere, gai horien erabilerak eta kontatzeak kontuan hartuta, eta arauak aztertzeke egin diren analisia ikusita, istripu larriak (alegia, instalazioak kanto eragina duten istripuak) balazki izan daitezke gai hauek tartean direnean: - Gas likidotuak - Disolbatzaileen deposituak - Aerosolien piletak eta ena alkoilak onartzea (adib.: kotonak)	

BIZTANLEEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA	4 orria
Istripu larria pertatuz gero instalazioan egin beharrekoa	
1254/1999 Errege Dekretuaren adierazteko betebeharrak jarraiki, instalazioan honakoak egin behar dira: - Neuri egokiak hartu istripuak ahalik eta ondorio txikiak izan ditzen. - Kanpoko larrialdi-zerbitzuak harenan jartzea Instalazioan bertan egin diren esku hartzeak jarraitu eta agintari eskudunei adierazi beharrekoak Barakaldo Larrialditako Planaren jatorri dira.	
Kanpoko Larrialditako Plana	
Euzko Jaurlaritzaren Larrialdi Aurre Egiteko eta Meteorologiko Zuzendaritzak Kanpoko Larrialditako Plana gertatu du ELECTROQUÍMICA DE HERNANI, S.A. enpresaren instalazioan gerta litekeen istripu larriari buruz, instalazioak kanpo eragin izan dezaketen eta ondorioz, instalazioaren inguruetan eragiten duten egereak aurre egiteko antolatzeak modua eta beharrezko baliabideak ezartzen dira. Kanpoko Larrialditako Plan honetan, larrialdi-zerbitzuak nola jokatu behar diren adierazten da eta, horrez gain, larrialdi-egonek agertzen zerbait horiek eragin ditzuten agintariak ere jasotzen dira.	
Informazio gehigarria	
Informazio gehigarria nahi izanez gero:  (112)	

HERRITARREI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA	2 orria																																				
Istripu larriaren eragin dezaketen instalazioak																																					
Honako egoera hauetan istripu larriak gertatu daitezke instalazioak kanpo: - Itxi gaitzatutako baten eraginazko gas-hodeiak ezartzea egiteak. - Bittegi bat hutsa ondoren sortutako gas-hodeiaren deflagrazio edo "tuzko bola", eta, gero, su hartzea burututako produktuen bittegiaren izandako gertakari ondorioz. - Gas-hodeiak su hartzean izandako "tuzko dardak" edo isurik su hartzea Istripu hauek gehiegizko presioak (eztandak gertatzen bada) edo erreakzio termikoak (deflagrazioa, su-bola, guta edo su-zomolada) sor ditzakete eta horiek pertsonen, ondasunen eta ingurumenaren eragina izan dezakete. Aurreikusitako gehiegizko presioaren edo erreakzio termikoaren arabera, bi jarduera-eremu zehaztu dira: Esku hartzeko gunea (EAG) eta alerta-gunea (AG). Hona hemen gune horiek dagozkien balioak eta ondorioak:																																					
GEHEGIZKO PRESIOA																																					
<table border="1"> <thead> <tr> <th rowspan="2">Guneak</th> <th rowspan="2">Gehiegizko presioaren balioa (mbar)</th> <th colspan="3">Aurreikusitako kalteak</th> </tr> <tr> <th>Ondasunak</th> <th>Pertsonak</th> <th>Ingurumena</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>EO</td> <td>125</td> <td>Trenkotasun eta gonak hutsa</td> <td>Trenkotasun eta gonak hutsa</td> <td>---</td> </tr> <tr> <td>AG</td> <td>50</td> <td>Kristalak haustea</td> <td>Kristalak haustea</td> <td>---</td> </tr> </tbody> </table>	Guneak	Gehiegizko presioaren balioa (mbar)	Aurreikusitako kalteak			Ondasunak	Pertsonak	Ingurumena	EO	125	Trenkotasun eta gonak hutsa	Trenkotasun eta gonak hutsa	---	AG	50	Kristalak haustea	Kristalak haustea	---	<table border="1"> <thead> <tr> <th rowspan="2">Guneak</th> <th rowspan="2">Erreakzio termikoko (Kalm) 24/3 s</th> <th colspan="3">Aurreikusitako kalteak</th> </tr> <tr> <th>Ondasunak</th> <th>Pertsonak</th> <th>Ingurumena</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>EAG</td> <td>5</td> <td>---</td> <td>2. graduko erreakzio (> 30 s.)</td> <td>---</td> </tr> <tr> <td>AG</td> <td>3</td> <td>---</td> <td>1. graduko erreakzio (> 30 s.)</td> <td>---</td> </tr> </tbody> </table>	Guneak	Erreakzio termikoko (Kalm) 24/3 s	Aurreikusitako kalteak			Ondasunak	Pertsonak	Ingurumena	EAG	5	---	2. graduko erreakzio (> 30 s.)	---	AG	3	---	1. graduko erreakzio (> 30 s.)	---
Guneak			Gehiegizko presioaren balioa (mbar)	Aurreikusitako kalteak																																	
	Ondasunak	Pertsonak		Ingurumena																																	
EO	125	Trenkotasun eta gonak hutsa	Trenkotasun eta gonak hutsa	---																																	
AG	50	Kristalak haustea	Kristalak haustea	---																																	
Guneak	Erreakzio termikoko (Kalm) 24/3 s	Aurreikusitako kalteak																																			
		Ondasunak	Pertsonak	Ingurumena																																	
EAG	5	---	2. graduko erreakzio (> 30 s.)	---																																	
AG	3	---	1. graduko erreakzio (> 30 s.)	---																																	
Istripu larria izanez gero herritarrei ohartaraztea eta informazioa																																					
Instalazioan, goian aipatutako istripu larriaren bat eragin izanez gero, agintari arduratsuko dira herritarrei ohartarazteaz eta informazioa emateaz. Honako bitartekoak erabiliko dira herritarrei ohartarazteko eta informazioa emateko: - Zuzendari jakinarazteak, megafoniak. (Udalak edo Ertzaintza egingo ditu). - Gizarte-komunikabideak (telebista eta irrati).																																					

HERRITARREI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA	
3. orria	
Instalazioan lantzearen bat egonez gero herritarrek hartu behar diren neurriak	
Instalazioan istripu larria gertatzen bada, herritarrek neurri hauek hartuko dituzte, korduan hartuta zeintzuk diren istripuaren ezaugarriak, horien bilakaera eta instalazioetarako duten hurbiltasuna:	
- Konfinamendua. - Umintzea.	
KONFINAMENDURAKO ETA AUTOBABESERAKO JARRAIBIDEAK	
• KALEAN BAZAUDE, BABESTU ARNASBIDEAK MUSUZAPIKIN EDO TRAPUEKIN, ETA BILATU BABESLEKUA. • ITXI ATEAK ETA LEIHOAK (AHAL BADA, JAITSI PERTSIANAK) ETA ALDENDU HORIETATIK. BEHARREZKOA BADA, JARRI TRAPU BUSTIAK ZIRRIKITUETAN. EZ ERABILI KANPOKO AIREZTAPENKO APARATURIK. • EZ BOON ERAKUNTZEN BEHEALDEETAN (SOTODETAN, GARAJETAN, ETAB.) AHAL BADA, ISO SOLARIU GORENETARA. • EZ ZAITEZ ESKOLARA JOAN SEME-ALABEN BILA. HAURRAK ARDURAPEAN DITUZTENEN BADAHITE ZER NEURRI HARTU BEHAR DITUZTEN. • EZ ERABILI TELEFONOA, BEHAR-BEHARREZKOA EZ BADA BEHINTZAT. • ENTZUN BERTAKO IRRIATIAK, ETA JARRAITU AGINTARIEN ENAREN DITUZTEN JARRAIBIDEAK ETA DOMENDIOAK.	
URRUTIRATZEKO ETA BABESLEKUA BILATZEKO JARRAIBIDEAK	
BEHARREZKOA BADA URRUTIRATZEKO ETA BABESLEKUA BILATZEKO, AGIRAZI BEHARRIK DA NOGA ETA NONGU JOAN BEHAR DEN (ZUZENEAN JARRINARAZI EDO HEDABIDEEN BIRATZEZ). HOLAKO JARRAIBIDE HAUEK BEHEKO DIRA:	
• URRUTIRATZEN ZAREN BIRATZEAN, BABESTU ARNASBIDEAK MUSUZAPIKIN EDO TRAPUEKIN, ETA BILATU BABESLEKUA. • JOAN BEHAR DUZUN LEHURA HILTZEN ZARENEAN, BILATU BABESLEKUA LOHAL EDO ERAKIN BATEN BARRIAN, ETA ITXI LEIHOAK ETA ATEAK. • EZ ZAITEZ ESKOLARA JOAN SEME-ALABEN BILA. HAURRAK ARDURAPEAN DITUZTENEN BADAHITE ZER NEURRI HARTU BEHAR DITUZTEN. • EZ ERABILI TELEFONOA, BEHAR-BEHARREZKOA EZ BADA BEHINTZAT. • ENTZUN BERTAKO IRRIATIAK, ETA JARRAITU AGINTARIEN ENAREN DITUZTEN JARRAIBIDEAK ETA DOMENDIOAK.	

HERRITARREI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA	
4. orria	
Istripu larria izanez gero instalazioan egin beharrekoa	
Istripu larria izanez gero, 1254/1999 Engege Dekretuan adierazitako botebeteak jarraiki, honakoak egin behariko dira instalazioak:	
- Neurri egokiak hartu behariko dira, istripuak ahalik eta ondorio txikienak izan ditzen. - Kanpoko lamiak zerbiztuekin harramanetan jami behariko da.	
Autobabeserako Planean daude jasota instalazioan bertan egin behar diren ekintza jarduera eta agintari eskudunei adierazi behar direnak.	
Kanpoko Lamiak Plan	
Eusko Jaurlaritzako Lamiak Plan Aurre Egiteko eta Meteorologiko Zuzendaritzak Kanpoko Lamiak Plan zehatza garatu du IGEPAK, S.A. enpresan gerta daitezkeen istripuetarako. Plan honetan, instalazioaren inguruko kanpo, haren ingurunean, ondorioak izan ditzaketen lamiak-egoerari aurre egiteko behar diren antolatzen eta babasleak finkatzen dira.	
Kanpoko Lamiak Plan honetan, lamiak-zerbitzuak mola jokatu behar duten adierazten da, eta, horrez gain, lamiak-zerbitzu horien emari behar diren aginduen ere jasotzen dira.	
Informazio gehigarria	
Informazio gehigarria nahi izanez gero:	
 	

4.4.2.- HORNITEGIETAKO ARRISKUA (GASOLINA ZERBITZU-GUNEAK)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Hornitegietakako jarduerak arau sektorial espezifikoak dituzte, eta araututako segurtasun eta funtzionamendu baldintzak bete behar dituzte. Horrez gainera, jarduera horiek larrialdi plana edo autobabeserako plana izan behar dute, nahitaez.

Bestalde, azken urteotan, Donostiako Udalaren politika izan da hiriguneko zenbait gasolina zerbitzugune edo hornigailu ixtea edo hirigunetik kanpora ateratzea. Hori egin du, adibidez, Ondarreta pasealekuko, Jaialai kaleko edo Bilbo plazako hornigailuekin.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

- 1) Hornitegien Autobabeserako Plana (AUP).
- 2) Ez dago jardunbide planik, protokolorik edo gidarik arrisku mota honetarako.
- 3) LAEESren taktika operatiboa: 5 Industria (KIMIKA). Materia arriskutsuekin gorabehera (SEVESO).

4.4.3.- SALEROSGAI ARRISKUTSUAK GARRAIATZEAN SOR DAITEZKEEN ARRISKUAK (SAG)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Materia arriskutsuak errepidez (MAEG), trenaz (MATG) edo itsasoz (MAIG) garraiatzean sor daitezkeen arriskuekin lotutako prebentzio jarduerari dagokionez, NEURRI EZ ESTRUKTURALAK (erabileren antolamendua, kaltebertasun mailaren arabera; alerta goiztiarrekotako sistemak; herri babeseko neurriak...) eta NEURRI ESTRUKTURALAK (azpiegitura berriak, lehendik dauden azpiegituren hobetzea...) bateratzea komeni da.

Hala, lehen ere aipatu denez, 2010ean Donostiako bigarren ingurabidea ireki zenean, materia arriskutsu astunak garraiatzen zituzten ibilgailu astunen zirkulazioa tokiz aldatu zen, eta hori PREBENTZIO ETA BABES NEURRI estruktural garrantzitsu bat izan da errepide bidezko garraioari begira. Azpiegitura horri esker, hegoaldeko mugara aldatu da errepide bidezko zirkulazio astuna eta materia arriskutsuen zirkulazioa, eta, hortaz, arriskua biztanleen-

gandik urrundu da, eta kalteberatasuna nabarmenki murriztu.

Era berean, abiadura handiko trenak (AHT), oraindik eraikitzen ari direnak, Donostiako udal barrutiaren hegoaldeko mugara eramango du etorkizunean materia arriskutsuen trenezko garraioa. Abiadura handiko trenaren bidea landa eremuetatik doa, biztanle dentsitate handieneko hiri eremuetatik urrun, eta horrek nabarmenki murriztuko du kalteberatasuna.

Bestalde, PRESTAKETA NEURRI gisa, komeni da eguneratuta izatea materia arriskutsuekin lotutako herri babeseko planak, baita errepideetako larrialdi planak (Gipuzkoako Foru Aldundia), burdinbideko larrialdi planak (RENFE) eta Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Larrialdi Plana (Barneko Larrialdi Plan Integratua) ere.

Ildo horretan, garrantzitsua da etengabe hobetzea RENFEk eta Pasaiaiko Portuko Agintaritzak Udaleko esku hartze zerbitzuekin (PSISZ) duten lankidetza. Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren kasuan bereziki garrantzitsua da hori; izan ere, PSISZ da Donostialdeko esku hartze zerbitzua, eta haren ekintza eremuan dago Pasaiaiko badiaren zati handi bat, hura osatzen duten udalerrietako bateko zerbitzua delako.

Bestalde, aipatzekoa da horrelako gorabehera baten ondorioak desberdinak direla, zein den materia arriskutsua, zenbat dagoen, zer baldintzatan dagoen (presioa, tenperatura, estankotasuna), zein den ingurunearen kalteberatasuna (biztanleak, lurzorua, ingurune hidrikoa) eta zein diren baldintza meteorologikoak.

Ondorio horiek ebaluatzeko, MATERIA ARRISKUTSUEKIN IZANDAKO ISTRIPUETAN ESKU HARTZEKO FITXAK kontsultatzen dira, LAEMZk argitaratuak. Fitxa horietan, deskribatuta dago nola jokatzeko duen produktuak jarria edo isuria izanez gero eta su hartzeko edo lehertzeko arriskua izanez gero, eta jasota daude, halaber, kalteak arintzera bideratutako neurriak. Era berean, produktuari lotutako arriskuak kontsulta daitezke: haren lurrunkortasuna; nola jokatzeko duen lurruneak dentsitatearen arabera; nola jokatzeko duen produktuak urarekin, airearekin, argiarekin eta hezetasunarekin kontaktuan; zein diren materia bateraezinak; haren karga elektrostatikoa; errekuntzako edo/eta deskonposizio termikoko produktuak.

Hala bada, produktuak toxikotasun eta lurrunkortasun maila handiak baditu, isuriaren tamainaren arabera babes distantziak proposatzen dira; edonola ere, herritarrak eta esku hartu behar duten bitartekoak babesteko neurriak aplikatzeko distantzia orientagarriak dira.

Dokumentu honek 600 metroko LERRO bat ezartzen du aztertutako azpiegituraren alde bakoitzean; aipatutako fitxen gomendioen arabera, horixe izango litzateke ESKU HARTZEKO EREMUA baldintza kaltegarritan gertatutako istripu baterako.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

1) ERREPIDEZ ETA TRENEZ SALEROSGAI ARRISKUTSUAK GARRAIATZEAK DAKARREN ARRISKUA DELA-ETA SOR DAITEZKEEN LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EAE-KO PLAN BEREZIA, 2001 (EG/TGPB2001).

2) RENFE tren konpainiak hainbat larrialdi plan, gida eta zirkular ditu, materia arriskutsuen garraioarekin lotutako gorabeheriei aurre egiteko.

3) PASAIAKO PORTUKO Agintaritzak Pasaiaiko portuko BARNEKO LARRIALDI PLAN Integratua du.

4) LAEESren taktika operatiboa: 4 Gai arriskutsuak garraiatzea (EG/TG). EG-TG. Errepidea edo trena

4.4.4.- ARRISKU NUKLEARRA (N)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

DULP honi ez dagokio arrisku nuklearrarekiko prebentzio jarduerak aurreikustea. Nolanahi ere, arrisku nuklearrekin lotutako prebentzio jarduerak dagokienez, NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK (erabileren antolamendua, kalteberatasun mailaren arabera; alerta goiztiarreko sistemak; herri babeseko neurriak...) eta NEURRI ESTRUKTURALAK (lehendik dauden azpiegituren hobetzea; segurtasun neurri berriak; instalazioen aldizkako berrazterketak, ikuskaritzak eta kontrolak...) bateratzea komeni da beti.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

1) Arrisku Nuklearreko Oinarrizko Plana (1546/2004 ED, ekainaren 25ekoa, eta haren aldaketa, irailaren 11ko 1428/2009 EDren bidez onartua).

2) Erantzun eta Laguntzarako Erakunde Zentralaren Larrialdi Nuklearreko Plana, ELEZLNP (INT/1695/2005 Agindua, maiatzaren 27koa).

3) Santa María de Garoñako (Burgos) Zentral Nuklearraren Kanpoko Larrialdi Nuklearreko Plana.

4.4.5.- ARRISKU ERRADIOLOGIKOA (AE)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Arrisku erradiologikoarekin lotutako prebentzio jarduerari dagokienez, NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK (erabile-ren antolamendua, kalteberatasun mailaren arabera; araua zorrozki betetzea; alerta goiztiarreko sistemak; herri babeseke neurriak...) eta NEURRI ESTRUKTURALAK (lehendik dauden azpiegituren hobetzea; segurtasun neurri berriak; instalazioen aldizkako berrazterketak, ikuskaritzak eta kontrolak...) bateratzea komeni da.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

1) ARRISKU ERRADIOLOGIKOARI AURRE EGITEKO EAE-KO LARRIALDI PLAN BEREZIA, 2015.

2) LAEESren taktika operatiboa: 9 Erradiologikoa. RADIUM. Instalazio erradioaktiboak.

4.4.6.- KUTSADURAGATIKO ARRISKUAK (KTS)

ORO HAR KUTSADURAK ETA zehazki KUTSADURA ATMOSFERIKOAK SORTZEN DUEN ARRISKUAREKIN lotutako prebentzio jarduerari dagokienez, arrisku kimikoen, industria arriskutsuen, materia arriskutsuen garraioaren eta arrisku erradiologikoen ataletan adierazitakoa hartu behar da kontuan.

Nolabaiteko kutsadura jasan dezaketen bitartekoen babes, kontrol eta trataerari dagokienez, honako hau adierazten da:

1) Kutsadura hidrikoa.

URA agentziaren zeregin nagusietako bat da ur masen egoera ekologikoa kontserbatzea eta hobetzea, eta zeregin hori bi lan ildo paralelotan zehazten da: batetik, ur masak presio berrietatik babestea –presiotzat hartuta uren egoera naturalean eragina duen giza jarduera oro–, kontserbatu ahal izateko eta ez hondatzeko; eta bestetik, hainbat neurri sustatzea, ur masen egoera ekologikoa hobetu eta leheneratuko dutenak eta presioen eragina txikituko dutenak.

Ur masen gaineko presioak EAEko lurralde ereduaren isla dira, eta eredu horretan bat egiten dute ezaugarri hauek: topografia gorabeheratsua da; biztanleria dentsitatea handia da, eta lurzoruaren erabilerak hiri erabilerak, erabilerak industrialak eta –neurri txikiagoan– nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak dira.

Faktore horien guztien ondorioz, lurraldeko ur masek oso presio handia jasaten dute, eta kalteak sortzen dira: kutsadura puntuala (hiriko eta industriako hondakin urak isurtzea, behar bezala tratatu gabe) eta aldaketa hidromorfologikoak (bai ingurune hidrikoaren okupazio eta aldaketa fisikoa, baita emarien erregimenaren aldaketa ere, ura ateratzeagatik).

2) Lurzoruaren kutsadura.

1/2005 Legeak, otsailaren 4koak, lurzoruaren kutsadura prebenitzeari eta zuzentzeari buruzkoak, helburutzat du EAEko lurzoria babestea, jatorri antropikoko ekintzek haren ezaugarri kimikoak alda ditzaten prebenituz. Era berean, lege horren xedea da lurraldean kutsatuta eta hondatuta dauden lurzoruei aplika dakiekeen erregimen juridikoa ezartzea, ingurumena eta gizakion osasuna zaintze aldera.

Bestalde, 9/2005 Errege Dekretuak, urtarrilaren 14koak, potentzialki lurzoria kutsa dezaketen jarduerak aipatzen ditu, baita lurzoruak kutsatutzat jotzeko irizpideak eta estandarrak ere. Potentzialki lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak hartzen dituzten edo hartu dituzten lurzoruaren inbentarioaren xedea da aipatutako bi arau horietan ezarrita dauden betebeharrak errazago betetzeko aukera ematea.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak, IHOBE sozietate publikoaren bitartez, 165/2008 Dekretua onartu zuen, irailaren 30ekoa, potentzialki kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak hartzen dituzten edo hartu dituzten lurzoruaren inbentarioarena. Bertan jasota dago kutsatuta egon daitezkeen lurzoruaren katalogoa, eta erantsita darama dagokion kartografia.

Gune jakin bat kutsatuta egon daitezkeen lurzoruaren inbentarioan sartzeak ez du esan nahi gune hori kutsatuta dagoenik, nahitaez; esan nahi du arreta berezia eman behar zaiola eta haren benetako egoera zein den aztertzeko lan jakin batzuk egin behar direla, gune horretan inolako aldaketa urbanistikorik egin nahi izanez gero. Azterlan horietan frogatzen bada lurzoria egiaz kutsatuta dagoela, deskutsatu egin behar da, eta prozesu hori "lurzoruaren kalitate aitortzea" deritzonarekin amaitzen da. Aitortzen hori Eusko Jaurlaritzak egiten du, eta lurzoruak pertsonen osasunerako eta ingurumenerako mehatxu izateari utzi diola adierazten duen bermea da.

Inventario horren arabera, Donostian 310 gunek hartu dituzte lurzoruak kutsatu ahal izan dituzten jarduerak. Inventario horren zerrenda Donostiako HAPOn jasota dago: 1.2 Ingurumen iraunkortasunari buruzko txostena, 2. Eranskina: Potentzialki kutsatuta dauden Donostiako lurzoruen zerrenda (IHOBE).

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

- 1) Ez dago jardunbide planik, protokolorik edo gidarik arrisku mota honetarako; hala ere, arrisku kimikoei, industria arriskutsuei, materia arriskutsuen garraioari eta arrisku erradiologikoei dagozkien jardunbide plan, protokolo eta gidetara jo behar da.
- 2) LAEESren taktika operatiboa: 11 Ingurumenaren kutsadura. IGA (atmosfera), IGI (ibaia), IGITS (itsasoa), IGL (lurra).

4.4.7.- OINARRIZKO ZERBITZUEN GABEZIAGATIKO ARRISKUA (ZRB)

Oinarrizko zerbitzuen gabeziagatiko arriskuarekin lotutako prebentzio jardueri dagokienez, komeni da, batik bat, NEURRI ESTRUKTURALAK hartzea, hala nola zerbitzuaren azpiegiturak etengabe hobetzea eta zaintzea, eta instalazioak aldian-aldian aztertzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.

NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK honako hauek izan daitezke, besteak beste: zerbitzuak kalteberatasun mailaren arabera antolatzea; egikaritzean eta mantentze lanetan araudia betetzea, eta arriskuari aurre egiteko prestatzea, alerta goiztiarreko sistemen bidez, enpresa hornitzaileen gertakizun planen bidez, herri babeseko neurrien bidez eta abarren bidez.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

- 1) Hiriaren ohiko funtzionamendurako beharrezkoak diren oinarrizko zerbitzuak hornitzeaz arduratzen diren operadore pribatuak, eskualdekoek zein estatukoek edo nazioartekoek, dagozkien GERTAKIZUN PLANAK izan behar dituzte, oinarrizko zerbitzu horren ohiko horniduran gerta daitekeen gabezia edo eten bati aurre egin ahal izateko.
- 2) Ez dago jardunbide planik, protokolorik edo gidarik arrisku mota honetarako.
- 3) LAEESren taktika operatiboa: 13 Hornidura (ERAMAN). Ezinbesteko hornidura.

4.4.8.- KOMUNIKAZIO ETA GARRAIO AZPIEGITUREN KO-LAPSOAGATIKO ARRISKUA (AZP)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Komunikazio eta garraioko azpiegituretan eta horien ondorioz sortutako arriskuarekiko prebentzio jardueri dagokienez, komeni da, batik bat, NEURRI ESTRUKTURALAK hartzea, hala nola azpiegitura horiek etengabe hobetzea eta zaintzea, eta instalazioak aldian-aldian aztertzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.

NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK honako hauek izan daitezke, besteak beste: azpiegiturak kalteberatasun mailaren arabera antolatzea; egikaritzean eta mantentze lanetan araudia betetzea, eta arriskuei aurre egiteko prestatzea, alerta goiztiarreko sistemen bidez, herri babeseko neurrien bidez eta abarren bidez.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

- 1) Tren konpainia guztiek hainbat larrialdi plan, gida eta zirkular dituzte, bidaiarien garraioarekin lotutako istripuei aurre egiteko.
- 2) Ez dago jardunbide planik, protokolorik edo gidarik arrisku mota honetarako.

4.5.- ARRISKU ANTROPIKOAK

4.5.1.- BIDAIRIAK GARRAIATZEAN ISTRIPUA GERTATZEKO ARRISKUA (BD)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Bidairiak garraiatzean sortutako arriskuarekiko prebentzio jarduerari dagokienez, komeni da, batik bat, NEURRI ESTRUKTURALAK hartzea, hala nola azpiegitura horiek etengabe hobetzea eta zaintzea, eta garraiobideak al-dian-aldian aztertzea, ikuskatzea eta kontrolatzea.

NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK honako hauek izan daitezke, besteak beste: azpiegiturak kalteberatasun mailaren arabera antolatzea; egikaritzean eta mantentze lanetan araudia betetzea, eta arriskuei aurre egiteko prestatzea, alerta goiztiarreko sistemen bidez, herri babeseko neurrien bidez eta abarren bidez.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

- 1) Ez dago jardunbide planik, protokolorik edo gidarik arrisku mota honetarako.
- 2) LAEESren taktika operatiboa: 2 Uretan (U1). 6 Trenbidea (T). 7 Hegazkintza (TXORIA). 17 Zirkulazio istripuak (ZI). 18 Biktima askoko gertakariak (BAG).

4.5.2.- SUTEEN ONDORIOZKO ARRISKUAK (SUA)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Suteak gertatzen direnez, teknika bat garatu da horiek prebenitzeko, horien ondorioei aurre egiteko eta eragin ditzaketen kalteak mugatzeko.

Suteen ondoriozko arriskuarekin lotutako prebentzio jarduerari dagokienez, komeni da, batik bat, NEURRI ESTRUKTURALAK hartzea, hala nola eraikinak eta azpiegiturak etengabe hobetzea eta zaintzea, baita aldian-aldian aztertzea, ikuskatzea eta kontrolatzea ere.

NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK honako hauek izan daitezke, besteak beste: lurraldea kalteberatasun mailaren arabera antolatzea; egikaritzean eta mantentze lanetan araudia betetzea, eta arriskuei aurre egiteko prestatzea, alerta goiztiarreko sistemen bidez, herri babeseko neurrien bidez eta abarren bidez.

PREBENTZIO ETA BABES NEURRIAK honela sailka daitezke:

1) ERAIKINARI dagokionez:

- 1.1) Babes pasiboa: eraikuntzako zenbait neurri, helburutzat dutenak sutea piztu dadin eragozteko, hura heda dadin mugatzea eta eraikinaren ebakuazioa erraztea. Honako elementu hauek hartzen ditu barne: konpartimentuetan banatzea, suarekiko erresistentzia, kea eta beroa aterarazteko sistemak, materialek suarekin duten erreakzioa eta ebakuazioa.
- 1.2) Babes aktiboa: sutea antzematea, abisua ematea eta sutea itzaltzea xedetzat duten neurrien eta gailu edo instalazioen multzoa. Suteen aurka babesteko, horiek antzemateko, alarma jotzeko eta suteak itzaltzeko instalazioak dira, besteak beste.

2) ERABILTZAILEEI dagokienez:

- 2.1) Suteak iraun bitartean, erabiltzaileen partaidetza aktiboaren sustapena.
- 2.2) Larrialdi planak, autobabeserakoak eta abar.

3) ESKU HARTZEARI dagokionez:

- 3.1) Hurbiltzeko baldintzak, ingurua, fatxadatik sartzeko aukera eta kanpoko ur harguneen sarea.

Bestalde, hauek dira suteei begirako segurtasunari lotutako prebentzio neurrien aplikazio praktikoari dagozkion indarreko arauak:

- Eraikinetako suteak: Eraikuntzako Kode Teknikoa (EKT), Suteetako Segurtasunaren Oinarrizko Doku-

mentua, SS-OD (314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, eta ondorengo aldaketak).

- Sute industrialak: Eraikin Industrialetako Suteetarako Segurtasun Araudia (2267/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa).

Era berean, autobabeserako tresnak ere badira, arau hauek ezarritakoak:

- Jendaurreko Ikuskizunetarako eta Jolas Jardueretako Poliziaren Erregelamendu Nagusia (2816/1982 Errege Dekretua, abuztuaren 27koa), 1982tik indarrean dagoena.
- Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea (10/2015 Legea, abenduaren 23koa).
- Autobabeserako Oinarrizko Araua (393/2007 Errege Dekretua, martxoaren 23koa).
- Autobabes Betebeharrak (277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, jarduera, zentro edo establezimendu jakin batzuei larrialdi egoerei aurre egiteko eska dakizkiekeen autobabes betebeharrak arautzen dituen).

4) BASOKO SUTEEI dagokienez.

Prebentzioaren helburua da aurreikusteko moduko arrazoiengatik pizten diren baso suteak ekiditea edo deuseztatzea, eta esku hartzea erraztea ustekabean pizten direnen kasuan. Hala, suteen prebentzioak helburu hauek erdietsi behar ditu:

- Arduragabekeriagatik edo nahita pizten diren suteak ekiditea.
- Sute bat piztu dela lehenbailehen jakitea.
- Alerta ematen denetik diagnostikoa egin eta esku hartzeko lehen neurriak hartzen diren arteko denbora murriztea.
- Giza baliabide eta baliabide material egokiak edukitzea, beharren arabera.
- Ahalik eta gehien murriztea baso suteek eragindako kalteak.

Baso suteen prebentzio eta kontrol neurrien plangintza lau alderditatik egiten da:

- 1) Gizarte prebentzioa: heziketa eta dibulgazio lana.
- 2) Prebentzio teknikoak: baso suteen aurka babesteko planak.
- 3) Prebentzio zuzena eta esku hartzeak: zaintza, prebentzio eta itzaltze baliabideen hobekuntza eta egokitzapena. Prebentziozko baso lanak.
- 4) Baso suteen itzaltzerako koordinazioa.
- 5) Suteen arloko egungo legeen egokitzapena.

Prebentzioa zenbait informazio sistemek ezartzen dute, honako hauek, besteak beste:

- Baso suteen datu-baseak.
- Informazio meteorologikoa eta baso suteen arriskuaren iragarpena.
- Arrisku mapen konfigurazioa (arrisku estatistikoa eta meteorologikoa).
- Baso suteen larritasun potentzialaren maila buruzko informazioa.
- Baso Suteen Simulatzailea (BSS).

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

- 1) Autobabeserako 277/2010 Dekretuaren aplikazio eremuan dauden eraikinen AUTOBABESERAKO PLANAK.
- 2) BASO SUTEETARAKO EAE-KO LARRIALDI PLANA, 2016 (BSPB2016).
- 3) Igeldoko Baso-suteei aurre egiteko Udal Ekintza Plana 2016 (BSUEP-Igeldo2016). Ulia, Altza eta Landarbasoko BSUEP.
- 4) LAEESren taktika operatiboa: 3 Suteak (SUA). SG1 Hiriko/landako sutea. SG2 Baso-suteak. SG3 Sute industrialak.

4.5.3.- OSASUN ARRISKUA (OSN)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Osasun arriskuarekiko prebentzio jarduerai dagokienez, Euskal Osasun Zerbitzua – Osakidetza kasuan kasurako jardunbide protokolo, prozedura edo giden bidez xedatutakoa beteko da.

Nolanahi ere, aintzat hartuko dira prebentzio estrategia orokor hauek:

1) HESIAK ezartzea:

- 1.1) Hesi fisikoak: norbera babesteko ekipamenduak, hala nola eskularruak, maskarak, betaurrekoak, bata...
- 1.2) Hesi kimikoak: desinfektatzaileak eta biozidak aire hodian garbiketan.
- 1.3) Neurri unibertsalak: protokoloak, jardunbide egokirako kodeak...
- 1.4) Hesi biologikoak: txertoak...

2) NEURRI unibertsalak hartzea:

- 2.1) Txertaketak.
- 2.2) Higiene pertsonaleko arauak.
- 2.3) Hesi funtzioa betetzen duten babes elementuak.
- 2.4) Objektu ebakitzaila edo zorrotzen erabilera.
- 2.5) Laginen markatzea, denak hartu behar baitira potentzialki kutsatutzat.
- 2.6) Isolamendua.
- 2.7) Hondakinak behar bezala ezabatzea.
- 2.8) Esterilizazioa eta desinfekzioa.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

Ez dago berariazko jardunbide planik, protokolorik edo gidarik arrisku mota honetarako.

4.5.4.- JENDETZEK ERAGIN DEZAKETEN ARRISKUA (JDT)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Jendetza handiek eragin dezaketen arriskuarekiko prebentzio jardueri dagokienez, komeni da, batik bat, NEURRI ESTRUKTURALAK hartzea, hala nola ekitaldiak egiteko erabiliko diren azpiegiturak etengabe hobetzea eta zaintzea, baita aldiari-aldiari aztertzea, ikuskatzea eta kontrolatzea ere.

NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK hauek izan daitezke: legeak eguneratzea, plangintza, prebentzioa eta babesa egokiak izan daitezen; plangintza jendearengan aurreikustekoa den jokabidera egokitu ahal izatea; beharrezkoa denean alerta egokia emateko alarma sistemak edukitzea; ebakuazio eta seinalizazio egokirako sistema ezartzea; jendeari, oro har, informazioa eta prestakuntza eskaintzea, eta ezarpen nahiz mantentze programak erabiltzea.

Hala, PREBENTZIO NEURRIAK behar bezala aplikatzeko, honako jarraibide hauek hartu behar lirateke kontuan:

1) Plangintza eta antolakuntza.

Antolatzaileak du erantzukizun nagusia ekitaldian, bai haren plangintzan, bai haren kudeaketan eta ikuskapenean. Ilde horretan, ikusleak babestea oinarritzko eginkizuna da, eta osasuna nahiz segurtasuna kudeatzeko praktika onenak aplikatu behar dira horretarako.

2) Jendetza kudeaketa.

Arreta berezia eskaini behar zaio segurtasun arauak betetzeari. Horretarako, aintzat hartu behar dira:

- Aretoaren okupazio ahalmena.
- Sartzeko eta irteteko puntuak.
- Ateen irekiera eta agertokiko eremuaren aurrealdearen antolamendua.
- Jendetza eta jende saldoen kontrola.
- Dohainik diren ekitaldietarako sarrera kontrolatzeko sistemak.
- Perimetroko itxiturak.
- Haurren onartzea.
- Eserleku finkoen lehentasuna.
- Eskailerak eta arrapalak.
- Desnibelak.
- Ikusangeluak eta ikuseremuak.
- Bideo pantailak.

3) Laguntzaileak.

Ekitaldietan parte hartzen duten laguntzaile edo boluntarioek ikusleen babesari lotuta dituzten erantzukizunak eta funtzioak azaldu behar dira, baita haien gaitasunak eta entrenamendua ere. Hala, ekitaldiaren antolatzaileak bermatu egin behar du ordena mantentzeko beharrezkoa den lankidetzaren maila egokia izango dela, honako hauek kontuan hartuta:

- Erantzukizunak eta funtzioak.
- Laguntzaileen hedatzea eta kopurua, esparru itxi edo irekietan izan.
- Antolakuntza eta zereginak.

- Entrenamendua eta gaitasunak.
- Entrenamendu osagarria gainbegiralearentzat.
- Behaketarako puntuak.
- Segurtasun profesionaleko zerbitzuentzako jarraibideak.

4) Desgaituentzako erraztasunak.

Antolatzaileak desgaituak zaintzeko eta horien segurtasuna bermatzeko neurri egokiak hartu behar ditu, ahal duen neurrian. Neurri horiek gurpil aulkia darabiltenentzat, ibiltzeko zailtasunak dituztenentzat eta gaizki ikusi edo entzuten dutenentzat izango dira. Horretarako, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Sarbideak.
- Ikusmen urriko ikusleak.
- Ekitaldiaren egokitzapena.
- Publizitatea eta abisu iturriak.

5) Komunikazioak.

Komunikazioak oso garrantzitsuak dira, batik bat ekitaldi luzeetan. Ekitaldiaren garapenean zerikusia duten zerbitzuetako bakoitzak (kudeaketa taldea, laguntzaileak, lehen sorospeneako kideak, tokiko agintariak eta larrialdi zerbitzuak –polizia, suhiltzaileak, anbulantzia–) bere agente eta komunikazio bidea izan behar du. Bestalde, beharrezkoa da zerbitzu guztien eta identifikatutako muga lerro guztien artean komunikazio ona izatea. Hortaz, garrantzitsua da plangintzaren etapan idatziz adostea zer prozedura, zeregin eta eginkizun espezifiko izango dituen zerbitzu bakoitzak.

Udaltzaingoak edo Ertzaintzak, suhiltzaileak, kudeaketa taldeak eta laguntzaileek bermatuta izan behar dute euren artean eta bertan dauden pertsona guztiekin ohiko egoeran nahiz larrialdi egoeran komunikatu ahal izateko bide bat, eta prozedurek adostuta egon behar dute. Horretarako, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Irratia.
- Ikusleekiko komunikazioak.
- Mezuen sistema / ekitaldia bertan behera uztea.

6) Hesiak.

Jendetza handia biltzen duten kontzertuetan, itxiturek zenbait helburu betetzen dituzte:

- Segurtasun fisikoa eman dezakete (adibidez, perimetroan ipinitako hesi handi bat aire zabaleko kontzertu batean), edo ikusleak "nahasketa dorreetara" eta halakoetara igotzea eragotz dezakete. Era berean, jendetzaren presioa neutralizatzeko eraikuntza garestiak egin behar izatea ekiditeko eta eraikuntza horiek arintzeko ere balio dezakete. Agertokia babesteko behar bezala eraikitako hesi bat jartzea lagungarria izan daiteke jende oldeak gertatuz gero, egoera arriskutsu batzuetan jendeari eskutik heltzeko eta laguntzeko aukera ematen baitu. Hesiak ongi lotuta egongo dira beti, jendetzaren bultzadari eutsi ahal izateko, eta, hortaz, angelu zuzenari eta paraleloan egindako presioari eusteko diseinatuta egongo dira, horiek izango baitira probableenak. Horretarako, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:
- Agertokiko hesiaren aurrealdea edo jende oldeen aurkako hesia.
- Zulogunea.
- Bultzadei eusteko hesiak inguruan.

7) Aldi baterako egiturak edo behin-behineko instalazioak.

Edozein motatako ekitaldien egituren eta instalazioen diseinua eta eraikuntza arautzen da. Egituren proiektua egin, lanak zuzendu eta eraikuntza gauzatzeko, lan jardunbide seguruak behar dira. Egitura hauek izan daitezke: agertokiak, dantzarako oholtzak, dorreak eta mastak, aldi baterako lokalak, efektu optikoetarako plataformak, markesinak, karpa handiak...

Instalazio guztiek hauekiko erresistenteak izan behar dute:

- Aurreikusitako kargak eta gainkargak: Layher egiturak, agertokietarako erabili ohi denak, 750 kg/m²-ko karga jasaten du, eta, oro har, nahikotzat jotzen da.
 - Klima baldintza kaltegarriak: haizea eta euria.
 - Lurrera eusteko ainguratzea.
- Behin-behineko instalazio batek baldintza hauek bete behar ditu:
- Instalazioaren proiektu teknikoa.
 - Instalazioen segurtasunaren eta irmotasunaren egiaztagiria.
 - Oihala suaren aurkakoa dela adierazten duen egiaztagiria.
 - EKT SS-OD (ebakuazio baldintzak eta suteekiko babes instalazioak) betetzen dela adierazteko egiaztagiria.

8) Sistema elektrikoak.

Ekitaldietako instalazio elektrikoak zailak eta kalteberak dira, bereziki kanpoan egiten diren ekitaldi handietan, eta arreta bereziz egin behar dira.

Instalazio elektriko guztiek izan behar dituzte:

- Instalazio elektrikoaren segurtasuna adierazten duen lan amaierako egiaztagiria.
- Behin-behineko instalazio elektriko batek baldintza hauek bete behar ditu:

- Beharren ebaluazioa.
- Instalazioa.
- Kableak.
- Kontrol sistematarako sarbidea.
- Elektrizitatea agertokian eta argiztapen efektuak.
- Argiztapen normalerako zirkuituak.
- Larrialdiko argiztapenerako zirkuituak.
- Ebakuazio bideetarako argiztapen mailak.
- Sorgailuak eta transformadoreak.

9) Efektu bereziak eta piroteknikoak.

Efektu bereziak eta piroteknia arreta handiz kontrolatu behar dira, ikusleak, antzezleak eta langileak lesioetatik babesteko. Arreta berezia eskaini behar zaie honako hauei:

- Laser izpiak.
- Dir-dir egiten duten argiak.
- Izpi ultramoreak.
- Piroteknia.
- Kea eta lurrun nahiz laino efektuak.

10) Soinua eta zalaparta.

Soinuaren mailak gehiegizkoak badira, arriskutsuak izan daitezke entzumenarentzat, bai langileentzat, bai ikusleentzat. Era berean, zalaparta gogaikarria eragin dezake esparruaren kanpoaldean. Entseguetan eta ekitaldian bertan soinu mailak monitorizatzea eta eraginkortasunez kontrolatzea komeni da. Langileen eta ikusleen esposizio mailak kontuan hartu behar dira.

11) Ebakuaziorako bideak.

Antolatzaileak ulertu behar du ezinbestekoa dela sua piztuz gero edo ikusleei bestelako alarma bat jakinaraziz gero esparrutik irteteko behar adina bide egoki ziurtatzea. Horretarako, kontuan hartu behar dira honako hauek:

- Eraikinaren edo esparruaren egokitasuna bilera jendetsuak egiteko.
- Kanpokaldearen ezaugarriak.
- Okupazio ahalmena.
- Eskailerak, arrapalak, ateak. Irekiera sistemak.
- Ebakuazio bideen seinalizazioa.
- Larrialdiko argiztapena eta seinaleak.

12) Suteen aurkako ekipamendua.

Eraikuntza Kode Teknikoak (EKT) Suteekiko Segurtasuneko Oinarrizko Eskakizunei (SS-OD) dagokienez ezarritako duen ekipamendua eduki behar da. Era berean, suteen aurkako ekipamendu hori aldeztu aurretik gainbegiratu behar da, indarrean dagoen Suteekiko Babeserako Instalazioen Araudiaren arabera. Horrez gainera, arreta berezia eskaini behar zaie ekitaldiari lotutako arrisku bereziei, hala nola agertokiei, aldagelei, biltegiei, instalazio elektrikoari (KT gela, bateriak, ekipamenduak...), galdara gelei, sorgailu eramangarriei...

13) Abisuak.

Aldez aurretik zehaztuta egongo da egoera bakoitzean noiz emango den abisua eta zer eduki izango duen; mezuak nahi den eragina sortuko duela bermatuko da, eta, izu egoerak ekiditearren, aldeztu aurretik aztertuko da zer eragin izan dezakeen mezuak biztanleengan.

Hala, komeni da mezuak aldeztu aurretik zehaztea, eta, megafonia sareak erabiltzen badira, aldeztu aurretik graba daitezke, egoerak hitz egin behar duenarengan sortutako eragin psikologikoak (ohikoa larrialdi egoeretan) ez dezan ondorio kaltegarriak izan mezuen kalitatean. Illo horretan, gerta litezkeen arrisku etarako eta egoera zehatzetarako "ereduzko mezuak" prest izatea komeni da.

Ekitaldiko parte hartzaileei igorri beharreko informazioak honen berri eman behar du:

- Sortutako egoera.
- Ebakuazio agindua, edo, hala badagokio, konfinamendu agindua.
- Lasaitasun mezuak eta kontuan hartu beharreko beste neurri eta jarraibide batzuk.
- Ebakuazioa egin behar bada: nola?, non bildu?...
Abisuek ezaugarri hauek izan behar dituzte:
- Argiak izan behar dute: denek ulertzeko moduko esaldi eta hitz errazak erabili behar dituzte.
- Laburrak izan behar dute: ahalik eta hitz gutxien erabili behar dituzte.
- Zehatzak izan behar dute: anbiguotasunik gabe adierazi behar dute zer jarrera hartu behar den.
- Behar adina informazio eman behar dute: jakin beharreko guztia adierazi behar diete erabiltzaileei, baina azaleko xehetasunik gabe.
- Behin eta berriz eman behar dira.

Ekitaldi bakoitzerako bitarteko egokienak erabili behar dira informazioa emateko, bertan bildutako pertsonen

antolamenduaren eta kopuruaren arabera (megafonia finkoa edo mugikorra, soinu instalazioa...).

14) Larrialdi kasuetarako prozedura.

Autobabeserako 277/2010 Dekretuaren aplikazio eremuaren baitako ekitaldi guztiek Autobabeserako Plana izan behar dute, bermatuta egon daitezen larrialdi bati aurre egiteko beharrezkoak diren giza baliabideak zein baliabide materialak eta antolakuntza. Horrelako planik behar ez badute, segurtasuneko gutxieneko protokoloa izan beharko dute.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

1) AUTOBABESERA KO PLANAK, ekitaldiaren titularrek idatzi beharrekoak, Euskadiko Autobabeserako Planen Erregistro Orokorrean erregistratu beharrekoak eta, hala badagokio, organo eskumendunak homologatu beharrekoak.

4.5.5.- URETAKO JARDUERETAKO ARRISKUA (URA)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Uretako jardueretan sor daitekeen arriskuarekiko prebentzio jardueri dagokienez, NEURRI ESTRUKTURAL gisa komeni da uretara sartzeko bideak etengabe hobetzea eta zaintzea, eta jarduera horrek eragin ditzakeen arriskuak aintzat hartzea lan hidraulikoen eta itsasbazterreko lanen exekuzioan.

NEURRI EZ-ESTRUKTURALEN artean, hauek aipa daitezke:

1) Plangintza.

- Ingurune urtarrarekin lotutako segurtasun eta larrialdi planak idaztea, ezartzea, mantentzea, eguneratzea eta berraztertzea.

2) Autobabeserako aholkuak.

- Ingurune urtar partikularri buruzko informazioa biltzea.
- Zentzuz eta zuhurtziaz jokatzeko eskatzea.
- Material egokien erabiltzea: salbamendu jakak, jantzi isotermikoak...
- Informazio meteorologikoa kontsultatzea.
- Ekipamendua ongi dagoela ziurtatzea.
- Prestakuntza eta eskolak jasotzea.

3) Gainbegiratze eta zaintza sistemak.

- Gurutze Gorriaren salbamendu taldeak hondartza denboraldian.
- Banderen sistema, itsasoaren egoera, bainua hartzeko egokitasuna eta marmoka arriskua adierazten dituen.
- Megafonia bidezko abisuak.
- Gurutze Gorriaren salbamendu sistema.
- Bainurako eremuen balizatzea.

4) Uretako kiroletako klubekin lankidetzak.

- Bilerak.
- Bateratze lana.
- Entzunaldiak.

5) Araudia.

- Jarduera bateraezinak egiteko eremuak arautzea eta mugatzea.
- Arauak betearazteko zaintza zerbitzua ezartzea.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

LAEESren taktika operatiboak: URETAN. U1 Itsas salbamendua (kanpoko urak). U2 Itsasertzeko salbamendua. U3 Salbamendua barruko uretan.

- 2) Hondartzetako Segurtasun eta Larrialdi Plana. HAREAK 2014.
- 3) Abordaiarako Segurtasun eta Larrialdi Plana. ASP 2016.
- 4) SUAK Segurtasun eta Larrialdi Plana. ANSP 2016 SUAK.
- 5) Estropadetarako Segurtasun eta Larrialdi Plana. RSP 2016.

4.5.6.- ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKOAREN ARRISKUA (OND)

1) PREBENTZIO JARDUERAK.

Interes Kulturalako Ondasunek (IKO) jasan ditzaketen arrisku nagusiak suteak direnez, prebentzio jarduerak, oro har, 3.4.2.- Sute arriskua (SUTEA) atalean ezarritako prebentzio eta babes neurriak dira. Nolanahi ere, ondasun horiek izaera berezia dutenez, neurri espezifiko hauek ere hartu behar dira:

- NEURRI ESTRUKTURALAK:

- Eraikinak eta instalazioak zaharberritzeko, erreformatzeko, egokitzeko eta hornitzeko lanak egitea.
- Eraikin eta instalazioetan mantentze eta kontserbazio lan etengabeak egiteko programak prestatzea.
- Oro har instalazioak eta bereziki suteen aurkako babes sistemak aztertzea, ikuskatzea eta kontrolatzea, aldian-aldian eta zehaztasunez.

- NEURRI EZ-ESTRUKTURALAK:

- Autobabeserako Planak egitea (AUP).
- Eraikin bakoitzeko interes kulturalako ondasunen inbentarioak sortzea.
- Ondarea Babesteko Planak (OBP) egitea.
- Ondarearen titularren eta larrialdi zerbitzuen arteko lankidetzat sustatzea.
- Interes kulturalako ondasunen balioen gainean sentsibilizatzeko kanpainak egitea, baita oinarritzko prebentzio eta babes neurrien premieren gainean sentsibilizatzekoak ere.
- Larrialdi zerbitzuei interes kulturalako ondasunei buruzko prestakuntza teoriko eta praktikoa ematea.
- Larrialdi zerbitzuek aldian-aldian bisitak egitea, interes kulturalako ondasunak bertatik bertara ezagutzeko.

2) JARDUNBIDE PLANAK, PROTOKOLOAK EDO GIDAK.

1) Autobabeserako 277/2010 Dekretuaren aplikazio eremuan dauden eraikinen AUTOBABESERAKO PLANAK.

2) Ondarea Babesteko Planak (OBP), interes kulturalako ondasunen titularrek idatzi beharrekoak, beharrezkotzat jotzeko.

5.1.- KONTZEPTUA

DULP antolaketaarako tresna orokor bat da, Donostia udalerriaren lurralde eremuan gerta daitekeen arrisku larriko egoera, hondamendi edo hondamen publiko orori nola erantzun ezartzen duena, baldin eta udalerriari berari badagokio herri babesaren zuzendaritzaz eta koordinazioaz arduratzea. Jarduteko arau eta prozedura batzuk proposatzen ditu, eta horien helburua da larrialdi horiek kaltetutako pertsonak, horien ondasunak eta ondare kolektiboa ahalik eta hobekien babestea.

Kapitulu honetan zehaztuta dator planaren antolaketa hierarkikoa eta funtzionala, bermatuta gera dadin erabilgarri dauden baliabide eta bitartekoek egokiro, bizkor, eraginkortasunez eta koordinatuta jardungo dutela larrialdi egoera batean. Ezarritako helburu hori erdiestearren, alderdi hauek ageri dira zehaztuta:

- 1) Larrialdien sailkapena.
- 2) Planaren egitura.

DULPn integratuta geratzen dira onartutako udal jardunerako planak eta jardunbide protokoloak, eta horien antolaketa, bai ekintzak zuzentzekoa, bai operatiboa, bat etorri behar du, nahitaez, plan honetan ezarritakoarekin.

5.2.- LARRIALDIEN SAILKAPENA

Larritasunaren eta hedaduraren arabera, urgentzia, krisi edo larrialdi egoerak bi taldetan sailkatzen dira: URGENTZIA edo hondamenezkoa ez den larrialdia eta KRISIA edo larrialdi larria.

5.2.1.- URGENTZIA EDO HONDAMENEZKOA EZ DEN LARRIALDIA

Hondamenezkoak ez diren larrialdiak ohiko edo eguneroko urgentziak dira, eta, horrelakoetan, pertsonengan, ondasunetan, ingurumenean eta azpiegituretan kalteak eragiten dituzten gorabeherak edo istripuek ez dute arriskuan jartzen ekintza taldeen ahalmen operatiboa, ezta interes publiko orokorra ere.

Larriki arriskutsuak, katastrofikoak edo hondamen publikokoak ez diren istripuek edo bestelako gertaerek sortutako larrialdi egoeretan pertsonak eta ondasunak babestu eta sorosteko aurreikusita dauden jarduerak honako hauen bidez gauzatzen dira:

5.2.1.1.- LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS-DEIAK (112)

SOS-Deiak 112 URGENTZIA DEIAK jasotzeko zentroa da, eta bitartekoak aktibatzen ditu, urgentziari erantzuteko, larrialdiaren jarraipena egiteko eta esku hartzen duten baliabideen arteko koordinazio eraginkorrean laguntzeko.

5.2.1.2.- TAKTIKA OPERATIBOAK

Taktika operatiboak deia edo alarma denbora errealean identifikatu eta ebaluatzeko PROZEDURAK dira, eta zer NEURRI hartu behar diren eta baliabideak zein bitartekoak mobilizatzeko zer IRIZPIDE erabili behar diren zehazten dute, arazo motaren eta larrialdiaren fasearen arabera.

Taktika operatiboetan mobilizatzen diren baliabideen artean, Donostiako udal zerbitzu hauek daude: Udaltzaingoa; Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzua, eta Herri Babesa.

5.2.2.- KRISIA EDO LARRIALDI LARRIA

Krisia, larrialdi larria, hondamendia edo hondamen publikoa garrantzi eta hedadura handiko gorabehera edo istripu bat jazotzean sortzen den egoera da; garrantzi eta hedadura handiko gorabeheratzat jotzen da komunitate baten eguneroko funtzionamendua kaltetzen duen gertaera oro, zeinak eragin ditzakeen biktimak nahiz kalte materialak edo ingurumenekoak, eta kaltetu egin dezakeen komunitate horren egitura sozial eta ekonomikoa. Egoera horri erantzuteko larrialdiko baliabideak behar dira.

Larriki arriskutsuak, katastrofikoak edo hondamen publikokoak diren istripuek edo bestelako gertaerek sortutako larrialdi egoeretan pertsonak eta ondasunak babestu eta sorosteko aurreikusita dauden jarduerak honako hauen bidez gauzatzen dira:

5.2.2.1.- LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIako ZUZENDARITZA (LAEMZ)

LAEMZ arduratzen da Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistema (LAEES) koordinatzeaz, helburutzat duelarik erantzun integrala ematea Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) sor daitekeen larrialdi mota orori, bai katastrofikoak edo hondamen publikokoak direnei, bai larritasun txikiagoko beste batzuei. LAEMZk 4 zerbitzu ditu: Plangintza, Esku hartzea, Larrialdien koordinazioa (SOS-Deiak 112) eta Meteorologia (Euskalmet).

1) Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa SOS-Deiak (112).

SOS-Deiak 112 URGENTZIA DEIAK jasotzeko zentroa da, eta bitartekoak aktibatzen ditu, urgentziari erantzuteko, larrialdiaren jarraipena egiteko eta esku hartzen duten baliabideen arteko koordinazio eraginkorrean laguntzeko.

2) Euskalmet: Fenomeno Meteorologiko Kaltegarriak (FMK).

Euskalmetek egindako iragarpen meteorologikoak eta Fenomeno meteorologikoen iragarpenerako eta jarraipenerako protokoloa aintzat hartuta, LAEMZk OHAR bat igortzen du, gertakariaren berri emateko.

5.2.2.2.- LARRIALDIETAKO EDO HERRI BABESEKO PLANGINTZA

Larrialdi planak edo herri babeseko planak larrialdi bat izanez gero pertsonak eta ondasunak babesteko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak mobilizatzea ahalbidetuko duten mekanismoen eta esparru organiko-funtzionalaren aurreikuspena egiteko tresnak dira; era berean, larrialdian esku hartu behar duten administrazio publikoen arteko koordinaziorako eskema ere aurreikusten dute. Herri babeseko planak izan daitezke:

1) HERRI BABESEKO LURRALDE PLANAK (HBLP).

Lurralde planak ARRISKU ANITZETARAKO planak dira, eta lurralde bakoitzean gerta daitezkeen larrialdi orokorrei aurre egiteko prestatzen dira; prebentzioarekin lotutako alderdiak eta alderdi operatiboak jasotzen dituzte, eta antolakuntzarako egitura orokorra ezartzen dute, gai izango dena hainbat arrisku egoerari aurre egiteko, edozein dela ere egoera horien izaera eta planean aurreikusita egon ala ez.

Euskadik badu bere Herri Babeseko Plana, "Larrialdiei Aurregiteko Bidea-LABI" izenekoa, eta Donostia udalerriak ere badu Herri Babeseko edo Larrialdiko Lurralde Plana, DULP, hain zuzen.

2) HERRI BABESEKO PLAN BEREZIAK (HBPB).

PLAN BEREZIAK ARRISKU BAKARRERAKO planak dira, eta arrisku zehatzei aurre egiteko prestatzen dira, arrisku horiek HBOAn aurreikusita egon ala ez. Arrisku horiei aurre egiteko metodologia tekniko-zientifiko espezifiko behar da, dela jarduera sektoreagatik, larrialdi motarengatik edo jarduera motarengatik.

Euskadik hainbat plan berezi ditu: uholde arriskueterako plana (UZPB-2015), baso suteetarako plana (BSPB-2016), arrisku sismikorako plana (ASPB-2007), errepidez eta trenetaz salerosgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen arriskueterako plana (SAGAPB-2001), arrisku erradiologikorako plana (AEPB-2015) eta enpresa kimikoen kanpoko larrialdi planak (SEVESO III 2014).

3) UDAL JARDUNERAKO PLANAK (UJP), PROTOKOLOAK (PRT) ETA SEGURTASUN PLANAK (SP).

JARDUNERAKO UDAL ETA FORU PLANAK arrisku bakarrerako jardunbide protokoloak dira. Udal edo foru agintariek egiten dituzte, eta bertan adierazita daude Herri Babeseko Oinarrizko Arauan jasotako arrisku espezifikoiei aurre egiteko prozedurak, baita bestelako arrisku espezifikoiei aurre egitekoak ere. Plan berezietako jarraibideen arabera egiten dira. Donostia udalerriak udal jardunerako plan eta jardunbide protokolo hauek ditu:

1) UDAL JARDUNERAKO PLANAK (UJP).

- 1.1) Urumea ibaiak gainezka egitean sor daitezkeen uholdeei aurre egiteko udal jardunerako plana (UUJP), REV002-2015.
- 1.2) Elurteei aurre egiteko udal jardunerako plana (ELUUJP), REV007-2015-2016.
- 1.3) Igeldoko Basu-suteei aurre egiteko Udal Ekintza Plana, (Igeldo BSUEP) 2016.

- 1.4) Uliako Basu-suteei aurre egiteko Udal Ekintza Plana, (Ulia BSUEP) 2017.
- 1.5) Altzako Basu-suteei aurre egiteko Udal Ekintza Plana, (Altz BSUEP) 2018.
- 1.6) Landarbasoko Basu-suteei aurre egiteko Udal Ekintza Plana, (Landarbaso BSUEP) 2018.

2) JARDUNBIDE PROTOKOLOAK EDO GIDAK (PRT).

- 2.1) Olatu handiak daudenerako jardunbide protokoloa (PRT-ITS), REV01-2014.
- 2.2) Haize zakarra dabilenerako jardunbide protokoloa (PRT-HZ), 2017.
- 2.3) Euriteak daudenerako jardunbide protokoloa (PRT-EUR), Datarik gabe.
- 2.4) Muturreko Fenomeno Metereologikoak duadenerako jardunbide protokoloa (PRT-FMA), datarik gabe.
- 2.5) Hustutzeak daudenerako jardunbide protokoloa (PRT-HUSTU), 2017. urterako aurreikusita.

3) SEGURTASUN ETA LARRIALDI PLANAK (SP).

- 3.1) Hondartzetako Segurtasun eta Larrialdi Plana (AREAK-SP), 2014.
- 3.2) Aste Nagusirako Segurtasun Plana (AN-SP), REV-2016.
- 3.3) Suetako Segurtasun eta Larrialdi Plana (ANSP-SUAK), REV-2016.
- 3.4) Abordaiarako Segurtasun Plana (AN-SP-ABORDAIA), REV-2016.
- 3.5) Sagueseko Kontzertuetarako Segurtasun Plana (AN-SP-ABORDAIA), REV-2016.
- 3.6) Kontxako Banderarako Segurtasun eta Larrialdi Plana (ESTROPADAK-SP), REV-2016.

5.3.- ANTOLAKETA ESPARRU OROKORRA

DULPk antolaketa hierarkiko eta funtzional bat zehazten du, gerta daitekeen larrialdi egoera orori aurre egiteko antolaketa esparru orokortzat eta oinarritzko ardurako esparrutzat. Planaren antolaketa egiturak ezartzen du NORK esku hartu behar duten larrialdi egoera jakin batean.

Planean jasota dagoen antolaketa orokorrak organo hauek ditu:

1) Zuzendaritzako egitura.

- 1.1) Planaren zuzendaria (Z).
- 1.2) Planaren zuzendari teknikoa (ZT).
- 1.3) Aholkularitza Batzordea (AB).
- 1.4) Informazio Kabinetea (InfoK).
- 1.5) Ekintzak Koordinatzeko Udal Zentroa (EKUZ).

2) Egitura operatiboa.

- 2.1) Aginte Postu Aurreratua (APA).
- 2.2) Ekintza Taldeak (ET).

Goragoko maila duen plan bat aktibatuz gero, Zuzendaritzak aktibatu den plan horretako organo baliokideen esku utziko ditu bere eginkizunak eta ardurak, baina, nolanahi ere, udal baliabide eta bitartekoak zuzendu eta koordinatzeko ezinbestekoa den gutxieneko funtzionamendu egitura mantenduko du, Jarraipen Mahai Teknikoaren (JMT) edo zehaztuko den tresnaren bidez.

5.3.1.- ZUZENDARITZAKO EGITURA

DULPren Zuzendaritza funtzio estrategikoak betetzen dituen udal organoa da, larrialdi egoera bati aurre egiteko antolatua.

5.3.1.1.- PLANAREN ZUZENDARIA (Z)

Arduraduna: alkatea.

Ordezkoa: Herri Babeseko zinegotzi ordezkaria.

Kokapena: Krisi Aretoa.

DULPren zuzendaria plan honen baitan egingo diren ekintza guztiak zuzendu eta koordinatzeaz arduratuko den pertsona fisikoa da. Alkatea da planaren zuzendaria, eta Herri Babeseko zinegotzi ordezkariaren esku utzi ahal izango ditu bere eginkizunak.

Planaren zuzendaria larrialdian egin beharreko eragiketa guztien erantzulea da, eta larrialdiarekin zerikusia duten zerbitzu eta pertsona guztiak biltzen ditu; agindu orokor edo bereziak eman ditzake, premiazotasuna tarteko, eta agindu horiek jasotzen dituztenek nahitaez bete behar dituzte (Larrialdiak Kudeatzeko 1/1996 Legearen 19.2. artikulua).

Eginkizunak.

- DULP AKTIBATZEA.
- ANTOLAKETA EGITURAKO zer zati aktibatu eta mobilizatu behar den zehaztea.
- Krisi Mahaia (D-KM) DEITZEA eta ERATUTZAT jotzea.
- Larrialdi egoeraren sailkapena aintzat hartuta, dagozkion FASEAK eta EGOERAK ezartzea.
- Krisi Mahaiaren Aholkularitza Batzordeko eta Informazio Kabineteko kideak IZENDATZEA, baita Aginte Postu Aurreratuko arduraduna eta Ekintza Taldeetako arduradunak ere.
- Ekintzak Koordinatzeko Udal Zentroa (EKUZ) zehaztea.
- Egoerari dagokion MAILA zehaztea eta Ekintza Taldeei jakinaraztea.
- Tokiko agintariei edo/eta erkidegokoei igorri beharreko JAKINARAZPENA zehaztea.
- Larrialdiari aurre egiteko JARDUERAK agintzea eta herritarrak, ondare kolektiboa, ondasunak, ingurumena eta larrialdian esku hartzen duten langileek BABESTEKO NEURRIAK aplikaraztea.
- Ekintza Taldeek udalerriaren barruan larrialdia kontrolatzeko egingo dituzten jarduera guztiak KOORDINATZEA.
- Udalerriaren eremuan AGINDU orokorrak edo bereziak ematea, larrialdi egoeraren arabera neurri hertsagarriak barne.
- Herritarrei eta hedabideei eman beharreko INFORMAZIOA zehaztea eta koordinatzea, Informazio Kabinetearen bitartez.
- Goragoko maila duten plan autonomikoak ezagutzea, horiekiko lotura ezartzea eta, hala badagokio, horietan INTEGRATZEA.
- DULP2016 EZARTZEN dela, haren eraginkortasuna MANTENTZEN dela eta plana eguneratzen dela bermatzea.
- Larrialdi egoera AMAITU dela eta normaltasuna berrezarri dela adieraztea, DULP2016 desaktibatzea eta larrialdian erabilitako baliabide zein bitartekoak desmobilizatzea, behin helburuak bete direnean

5.3.1.2.- PLANAREN ZUZENDARI TEKNIKO (ZT)

Arduraduna: PSISZko zuzendaria.

Ordezkoa: PSISZ-HBko teknikaria.

Kokapena: Krisi Aretoa.

DULPren zuzendari teknikoak planaren zuzendariaren mende dagoen pertsona fisikoa da, teknikaria, eta gorabehera kontrolatzeko lanez arduratzen da. Zuzendariarekin batera jardungo du, une oro aholkuak eman ahal izateko.

Alkateak udal erakundeko eskumen banaketaren arabera izendatuko ditu larrialdi plan edo larrialdi egoera bakoitzeko zuzendari teknikoak.

Eginkizunak.

- Planaren zuzendariari etengabe informazioa eta aholkuak ematea larrialdiaren egoerari buruz eta haren bilakaerari buruz.
- Planaren zuzendariari aholku ematea larrialdi egoerarekin lotutako erabakiak hartzean.

5.3.1.3.- AHOLKULARITZA BATZORDEA (AB)

Ordezkoa: Ekintza Taldeetako buruak edo arduradunak, edo teknikari espezialistak.

Kokapena: Krisi Aretoa.

Aholkularitza Batzordea zuzendariari aholku emateko eta mobilizatutako Ekintza Taldeak koordinatzeko eratzen da.

5.3.1.4.- INFORMAZIO KABINETEA (INFOK)

Arduraduna: Donostiako Udaleko Komunikazio Kabineteko prentsa burua.

Ordezkoa: Donostiako Udaleko Komunikazio Kabineteko prentsako teknikari aholkularia.

Kokapena: Krisi Aretoa.

Informazio Kabinetea Zuzendaritzaren mende dago, zuzenean, eta EKUZn kokatuta egongo da; hark bakarrik izango du informazio ofiziala igortzeko baimena.

Eginkizunak.

- Arrisku edo hondamenari buruzko eta haren bilakaerari buruzko informazioa biltzea.
- Aktibatze, alerta, larrialdi eta amaiera adierazpenak zabaltzea.
- Planaren zuzendariak emandako aginduak, kontsignak eta gomendioak zabaltzea hedabideen bidez.
- Larrialdiari buruzko informazio orokorra zentralizatu, koordinatu eta prestatzea, eta hedabide sozialei helaraztea.
- Informazio bilaketa bideratzea eta informazio okerrak zuzentzea.
- Pertsonalki kaltetutako herritarren familiei informazio pertsonala ematea.

5.3.1.5.- EKINTZAK KOORDINATZEKO UDAL ZENTROA (EKUZ)

Arduraduna: EKUZko arduraduna PSISZko zuzendaria da.

Ordezkoa: PSISZ-HBko teknikaria.

Kokapena: Krisi Aretoa.

Ekintzak Koordinatzeko Udal Zentroa (EKUZ) DULPri dagozkion eragiketa guztiak zuzentzeko eta koordinatzeko erabiltzen den zentroa edo tokia da.

Zuzendariaren aginte postua da, eta komunikaziorako, koordinaziorako eta informazioaren zentralizaziorako eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren edukiera eta tresnak izan beharko ditu, larrialdi egoera aztertu eta aplikatu beharreko erabakiak transmititzeko, baita zuzendariaren eta eragiketak zuzentzeko edo kontrolatzeko beste zentro batzuen arteko harreman zuzena ziurtatzeko ere.

Eragiketak koordinatzeko zentroaren AZPIEGITURAK egokia izan behar du, funtzio hauek bete ahal izateko bertan:

- a) Informazio zentro iraunkorra izatea; horretarako, EKUZk kutsadurari, meteorologiari, euri emariei eta abarri buruzko datuak jasotzeko terminalak eduki behar ditu, datu horiek arrisku egoera etengabe aztertzeko aukera emango baitute eta, hartara, alerta mekanismoak aktibatu ahal izango baitira, beharrezkoa izanez gero.
- b) Alarmak eta alertak jasotzeko eta bidaltzeko zentro gisa jardutea, baita beharrezkoak diren informazio sistema eta datu-base guztiak kudeatzeko zentro gisa ere.
- c) Zuzendariarentzat tresna lagungarria izatea erabakiak hartzean eta aginduak eman nahiz gauzaraztean, eta, horretarako, larrialdiari buruz jasotako informazioa prozesatzea.

5.3.2.- EGITURA OPERATIBOA

DULP2016ren egitura operatiboa funtzio taktikoak betetzen dituen udal organoa da, larrialdi egoera bati aurre egiteko antolatua.

5.3.2.1.- AGINTE POSTU AURRERATUA (APA)

Larrialdiaren izaeraren eta larritasunaren arabera, planaren zuzendariak Aginte Postu Aurreratu bat edo batzuk ezarri eta izendatu ahal izango ditu, eta horiek izango dira lanerako organoa larrialdia jazo den tokian. Ekintza Taldeetako buru edo arduradunek eta helburuak lortzearen ezinbestean esku hartu behar duten organismo edo erakundeetakoek osatuko dute lanerako organo hori.

Aginte Postu Aurreratuaren helburua da larrialdia jazo den tokian esku hartu behar duten baliabideen eta bitarteko jarduerak zuzendu eta koordinatzea, planaren zuzendariaren jarraibideen arabera, eta, horretarako, arrisku edo hondamenaren bilakaerari buruzko informazio zehatza igorriko dio hari.

Planaren zuzendariak zehaztuko du nork zuzenduko duen APA.

APAKo zuzendari arduradunaren eginkizunak.

- APA eratzea eta non kokatuko den erabakitzea.
- APArek EKUZren artean informazioa bideratzea.
- Larrialdiaren bilakaeraren eta hartutako erabakien berri ematea Ekintza Taldeetako buruei eta EKUZri.
- Ekintza Taldeetako kideak biltzea.
- Larrialdiaren larritasuna ebaluatzea eta larrialdi maila proposatzea EKUZri.
- Larrialdiaren zonifikazioa ezartzea.
- Ekintza Taldeetako buruen iritzia biltzea, eta segurtasun egokirako erabakiak aztertu eta hartzea.
- Lehentasunak ezartzea eta Ekintza Taldeen eragiketak zuzendu eta koordinatzea.
- Arriskuaren arabera, herritarrak ebakutzeko beharrenden berri ematea planaren zuzendariari.
- Baliabideak Biltzeko Zentroak (BBZ), Osasun Postu Aurreratuak (OPA) eta Biktimak edo Ebakutuak Biltzeko

Guneak (BBG) aurreikustea.

- Bitartekoen zuzkidurarekin lotutako funtzioak bere gain hartzea, baita baliabideen txandak eta horiek kentzeko lanak koordinatzea ere.
- EKUZrekin komunikatzeko bideak ezartzea, Udalaren beraren irrati-komunikazioetarako sarea, esteka informatikoak eta telefonia mugikorreko sistema korporatiboak erabiliz horretarako.
- Segurtasuneko arduradunarekin batera, larrialdiaren ondorioz kalteak izan dituzten edo itxi egin behar izan diren bideen irekiera erabakitzea.
- Beste baliabide edo teknikari aditu batzuen laguntza eskatzea, larrialdia behar bezala konpontzeko

5.3.2.2.- EKINTZA TALDEAK (ET)

Ekintza taldetzat, talde operatibotzat edo esku hartzeko taldetzat jotzen dira honako hauek: lehen unetik larrialdia jazo den tokian esku hartzen duten zerbitzuak eta pertsonak, zerbitzu operatibo arruntez arduratzen direnak eta DULPn aurreikusita dauden babes jarduerak, esku hartze jarduerak, laguntza jarduerak eta jardura zuzentzaileak gauzatzen dituztenak.

Ekintza Taldeak antolatzeko oinarria larrialdi mota guztietarako komunak diren zerbitzu operatibo arruntak dira, honako hauek, besteak beste: Herri Babeseko udal zerbitzua (HB); Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendurako Zerbitzua (PSISZ); urgentziazko osasun zerbitzuak (Osakidetzako Larrialdiak, Gurutze Gorria eta DYA); Udaltzaingoa, eta laguntzarako erakundeak zein boluntarioenak.

Zuzenean arriskuaren edo hondamenaren tokian esku hartzen duten herritarrek eta administrazio orotako langileek DULPn aurreikusita dauden ekintza talde motetan txertatuta jardun behar dute.

Udal jardunerako plan eta protokolo guztien egituretara moldatu ahal izango den EGITURA funtzional erraz bat diseinatzeko asmoz, bost Ekintza Talde aurreikusten dira:

- Esku Hartze Taldea.
- Osasun Taldea.
- Segurtasun Taldea.
- Talde Logistikoa.
- Laguntza Teknikorako Taldea.

DULPren zuzendari denez, alkateak adituen taldeak eratzea erabaki dezake, arrisku bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Ekintza Taldeak ANTOLATZEKO, beharrezko protokoloak, hitzarmenak edo akordioak ezarriko dira organismo eta erakunde parte hartzaileekin, bai haien eginkizunak zehazteko, baita haien behar dituzten giza baliabide eta baliabide materialak esleitzeko ere.

DULPn aurreikusitako Ekintza Taldeekin bat egingo dute plan horretan integratuta geratuko diren udal jardunerako planetako eta protokoloetako talde baliokideak.

Ekintza Talde bakoitzeko kideek berezkoak zaizkien agintarien agindupean jarduten dute aginte bateratuko egituraren baitan, eta, larrialdiaren zuzendaritza udal mailakoa baldin bada, Ekintza Talde bakoitzeko arduradun edo buruek koordinatzen dituzte; arduradun horiek Donostiako Udaleko zerbitzu publiko hauetako teknikarien artean izendatuko dira (Osasun Taldekoak izan ezik):

- Esku Hartze Taldea: Donostiako Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzua (PSISZ).
- Osasun Taldea: Osakidetzako Larrialdiak (OSKLA).
- Segurtasun Taldea: Donostiako Udaltzaingoa.
- Talde Logistikoa: larrialdi egoeraren arabera izendatu beharreko udal zerbitzua.
- Laguntza Teknikorako Taldea: larrialdi egoeraren arabera izendatu beharreko udal zerbitzua.

Jardun sektorialeko programetako zehaztapenei eta udal jardunerako planek aurreikusten dituzten egokitzapenei kalterik egin gabe, honako hauek dira Ekintza Taldeen EGINKIZUNAK eta OSAERA:

1) ESKU HARTZE TALDEA (EsHT).

Deskripzioa.

Talde honek esku hartze neurriak gauzatzen ditu, helburutzat dutenak larrialdiaren eraginak ezabatzea, txikitzea edo/eta kontrolatzea, haren sorburuari zuzenean aurre eginda, baita haren bilakaera edo hedapena errazten duten baldintzak biltzen dituzten puntu kritikoetan esku hartuta ere.

Arduraduna.

PSISZko ofizial operatiboa.

Ordezkoa.

Maila handieneko agintaria.

Osaera.

Esku Hartze Taldea (EsHT) arrisku fokuetan esku hartzeko zereginekin eta ekintza taldeari berezkoak zaizkion laguntza jarduerekin lotura zuzena duten eginkizunak betetzen dituzten zerbitzu iraunkorrek osatuko dute.

Honako hauek, zehazki:

- a) Donostiako Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzua (PSISZ).
- b) Plana aktibarazi duen larrialdian espezializatuta dauden beste erakunde batzuetako unitate espezializatuak.

Kokapena.

- 1. Larrialdia jazo den tokia: Aginte Aurreratuko Postua (AAP).
- 2. Aholkularitza Batzordea: Krisi Aretoa.

Eginkizunak.

- a) Ezbeharraren eraginak edo arriskuaren sorburua kontrolatzea, txikitzea edo neutralizatzea.
- b) Pertsonak eta ondasunak bilatzea, erreskatatzea eta salbatzea.
- c) Gainerako taldeekin lan egitea, herritarrak babesteko neurriak hartzeko.
- d) Gertaerari lotutako arriskuak identifikatzea eta aztertzea.
- e) Esku hartze eremuaren (EHE) mugatzea proposatzea.
- f) Arrisku latenteak zaintzea, behin larrialdia kontrolatuta.
- g) DULPko zuzendaritzari egin beharreko eragiketen arriskuaren, kalteen eta bideragarritasunaren berri ematea.

2) OSASUN TALDEA (OsaT).**Deskripzioa.**

Talde honek herritarrak babesteko neurriak gauzatzen ditu, hau da, osasun arreta eta sorospena eskaintzen dizkie arrisku edo hondamen batek kaltetutako pertsonai, eta egonkortu egiten ditu (lehen sorospena, sailkapena, kontrola eta ebakuazioa), ospitale batera iritsi arte (osasun garraioko ebakuazio noriak); era berean, osasun publikoarekin lotutako babes eta prebentzio neurriak ere betetzen ditu.

Arduraduna.

Osasun Taldearen zuzendaria OSAKIDETZAKO teknikari bat izango da, eta, halakorik ez badago, planaren zuzendariak egokitzen jotzen duen pertsona izendatu ahal izango du eginkizun horretarako; pertsona hori talde honetan parte hartzen duen edozein administrazio edo erakundetako izango da.

Erabili beharreko bitarteko gehienak publikoak badira ere ez daudenez Donostiako Udalaren mende, ahalgintza egingo dira Osakidetza Larrialdietako arduradun batek Aholkularitza Batzordean parte har dezan, Krisi Aretoan, eta bertatik koordinatuko du Osasun Taldearen jarduna, taldeko buruekin koordinatuta.

Ordezkoa.

Maila handieneko kargua.

Osaera.

Osasun Taldea (OsaT) larrialdiak eragindako biktimei laguntza eta sorospena emateko zereginekin eta ekintza taldeari berezkoak zaizkion jarduerekin lotura zuzena duten eginkizunak betetzen dituzten zerbitzu iraunkorrek osatuko dute.

Osasun Taldea honako hauek osatuko dute, zehazki:

- a) Osakidetza laguntza zerbitzuak, baita Donostiako Udalarekin lankidetzat hitzarmen bat duten beste erakunde batzuetakoak ere (Gurutze Gorria eta DYA), eragiketen eremuan jardungo dutela bermatzen dutenak.
- b) Istripua izan dutenen osasun ebakuaziorako zerbitzuak, Osakidetza, Gurutze Gorrikoak, DYAKoak eta enpresa pribatuak, biktimei kopuru handi baten osasun garraioa bermatuko dutenak.
- c) Laguntza zentroetako zerbitzuak, arreta medikoa bermatzeko beharrezkoak, kontuan hartuta aurreikusitako delakaltetu kopuru handi batek behar izatea laguntza.
- d) Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko Zerbitzuak.
- e) Beste batzuk.

Kokapena.

- 1. Larrialdia jazo den tokia: Aginte Aurreratuko Postua (AAP).
- 2. Aholkularitza Batzordea: Krisi Aretoa.

Eginkizunak.

- a) Urgentziazko osasun laguntza ematea esku hartze eremuan dauden zaurituei.
- b) Zaurituak sailkatzea (triajea), egonkortzea eta, beharrezkoa bada, ebakuatzea.
- c) Min hartutakoak ospitale hartzaileetara eramateko lanak koordinatzea eta ospitaleetako harrera azpiegitura antolatzea.
- d) Justiziako eta poliziako agintari eskudunei hildakoak identifikatzen laguntzea, baita beste biktima eta kaltetu batzuk identifikatzen ere.
- e) Larrialdiaren ondoriozko osasun baldintzak aztertzea eta kontrolatzea (agerraldi epidemiologikoak, txertaketa masiboak...), eta agintariek adostutako osasuneko prebentzio neurriak betetzea.
- f) Herritar kaltetuei produktu farmazeutikoak ematea.
- g) Laguntzarako eremua eta oinarritzko eremua zehaztea, Talde Logistikoaren laguntzaz.
- h) Osasun publikoan eragina duten arrisku latenteak zaintzea, behin larrialdia kontrolatuta dagoenean.
- i) Planaren zuzendariari egoera errealean berri ematea.

3) SEGURTASUN TALDEA (SegT).**Deskripzioa.**

Talde hau arduratzen da arrisku edo hondamen eremuetan herritarren segurtasuna bermatzeaz, baita zirkulazioa erregulatzeaz eta biktimak identifikatzen laguntzeaz ere.

Arduraduna.

Udaltzaingo Zerbitzuko arduraduna.

Ordezkoa.

Maila handieneko agintaria.

Osaera.

Segurtasun Taldea (SegT) larrialdi egoeran beharrezkoak diren segurtasun lanekin eta ekintza taldeari berezkoak zaizkion zereginekin lotura zuzena duten eginkizunak betetzen dituzten zerbitzu iraunkorrek osatuko dute.

Segurtasun Taldea honako hauek osatuko dute, zehazki:

- a) Donostiako Udaltzaingoa.
- b) Donostiako mugikortasun agenteak.
- c) Ertzaintza: hau aktibatzeko, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak ezarrita dituen prozedurak erabiliko dira beti.

Kokapena.

- 1. Larrialdia jazo den tokia: Aginte Aurreratuko Postua (AAP).
- 2. Aholkularitza Batzordea: Krisi Aretoa.

Eginkizunak.

- a) Herritarren segurtasuna bermatzea.
- b) Larrialdi eremurako sarbideak kontrolatu eta murriztea, eta esku hartze eremua ixtea.
- c) Zirkulazioa erregulatzea, larrialdi eragiketak eta jarduerak errazteko.
- d) Arriskuan daudenen ebakuazio urgentea erraztea.
- e) Ondasunak ekintza antisozial posibleetatik babestea.
- f) Esku Hartze Taldeari biktimak erreskatatzen eta salbatzen laguntzea.
- g) Herritarrentzako abisuak hedatzen laguntzea.
- h) Planeko zuzendaritzari txostenak igortzea.
- i) Bere eskumenekoa den beste edozein eginkizun.

4) TALDE LOGISTIKOA (TLog).**Deskripzioa.**

Talde honen eginkizuna da ekintza taldeen jardueretarako eta gertaeraren bilakaeraren ondoriozko beste edozeinetarako beharrezkoak diren tresna eta hornigai guztiak eskura jartzea.

Arduraduna.

Planaren zuzendariak izendatuko du, baina larrialdiaren arabera zuzenean esku hartu behar duen udal zerbitzuko arduraduna izango da.

Ordezkoa.

Arduradunak izendatu beharko du.

Osaera.

Talde Logistikoa (TLog) larrialdi egoeran beharrezkoak diren logistika lanekin eta ekintza taldeari berezkoak

zaizkion zereginekin lotura zuzena duten eginkizunak betetzen dituzten zerbitzu iraunkorrek osatuko dute.

Larrialdiaren arabera, Talde Logistikoa honako hauek osatuko dute, zehazki:

- a) Donostiako PSISZn sartuta dauden taldeak.
- b) Garraioa: Donostiako Tranbia Konpainia, Donostia Bus (DBUS), Gurutze Gorria, DYA, garraio enpresak...
- c) Hornidura eta aterpea: Donostiako Gizarte Ongizateko Zerbitzua (GLUZ), Gurutze Gorria, DYA...
- d) Obra publikoak: Donostiako Proiektu eta Obren Zerbitzua (PEO), Donostiako Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zerbitzua (HMZ) eta enpresa azpikontratatuak, obra publikoetako enpresak...
- e) Komunikazioak: Udal Informatika Zentroa (UIZ), informatikako enpresak...
- f) Gizarte laguntza: Donostiako Gizarte Ongizateko Zerbitzua (GLUZ), Gurutze Gorria, DYA...
- g) Garbiketa: Donostiako Hiri Mantentze eta Zerbitzuak (HMZ) eta hondakinak biltzeko zerbitzua emateko azpikontratatuak enpresak, San Markos Mankomunitatea, garbiketa enpresak...
- h) DULP2016n txertatuko diren udal jardunerako planetako eta protokoloetako talde baliokideak.

Kokapena.

1. Larrialdia jazo den tokia: Aginte Aurreratuko Postua (AAP).
2. Aholkularitza Batzordea: Krisi Aretoa.

Eginkizunak.

- a) Eragiketetan laguntzea eta bakartuta dagoen biztanleriaz arduratzea, lehendik dauden transmisio sistemak unitate mugikorrak edo bestelako sistemak erabiliz osatuta.
- b) Erregaien, garraiobideen eta oinarritzko produktuen hornidura kudeatzea, bai ekintza taldeentzat, bai herritar kaltetuentzat.
- c) Eragiketen eremuan beharrezkoak diren banaketa zentroak ezartzea.
- d) Larrialdietarako aterpea, haren zuzkidura eta herritar kaltetuentzako garraioa kudeatzea, baita biltzeko guneak ere, ebakuazioa beharrezkoa izanez gero.
- e) Lantalde bereziak Esku Hartze Taldeak edo Laguntza Teknikorako Taldeak zehaztuko duen ekintza taldean sartzeko prozesua kudeatzea.
- f) Esku hartzeko zer behar dauden aztertzen laguntzea eta herritarrez arduratzeko behar diren tresnak eta hornigaiak zehazten laguntzea.

5) LAGUNTZA TEKNIKORAKO TALDEA (TknT).

Deskripzioa.

Talde hau zuzendaritzaren esku dagoen organo instrumental bat da, eta helburutzat du arrisku mota jakin batzuei aurre egiteko, arrisku horien sorburua kontrolatzeko edo ondorioak txikitzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileei eta leheneratze neurriei buruzko aholkularitza tekniko ematea, baita kaltetutako oinarritzko zerbitzuak berrezartzeko beharrezkoak diren neurriei buruzkoa ere.

Arduraduna.

Planaren zuzendariak izendatuko du, baina larrialdiaren arabera zuzenean esku hartu behar duen udal zerbitzuko arduraduna izango da.

Ordezkoa.

Arduradunak izendatu beharko du.

Osaera.

Laguntza Teknikorako Taldea (TknT) larrialdi egoeran beharrezkoak diren lan espezifiko eta teknikoekin eta ekintza taldeari berezkoak zaizkion zereginekin lotura zuzena duten eginkizunak betetzen dituzten zerbitzu iraunkorrek osatuko dute.

Larrialdiaren arabera, Laguntza Teknikorako Taldea honako hauek osatuko dute, zehazki:

- a) Donostiako PSISZn sartuta dauden taldeak.
- d) Obra publikoak eta eraikuntza: Donostiako Proiektu eta Obren Zerbitzua (PEO), Donostiako Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zerbitzua (HMZ) eta enpresa azpikontratatuak, Donostiako Hirigintza Zerbitzua (HIR), eraikuntza enpresak...
- c) Ingurumen eragina: Donostiako Ingurumen Zerbitzua (ING), ingurumenean espezializatutako enpresak...
- d) Osasun publikoa: Donostiako Osasun Publikoko Zerbitzua (OP).
- e) Saneamendu eta hornidurako azpiegitura: Donostiako Ur Zerbitzua eta Añarbeko Uren Mankomunitatea AGASA (Añarbe presa).
- f) Energia elektriko azpiegitura: Iberdrola SA hornidura elektriko konpainia.
- g) Gas azpiegitura: Naturcorp SA gas naturalaren hornidurarako konpainia.
- h) Komunikazioko azpiegitura: Movistar, Euskaltel, Jazztel... telekomunikazio konpainiak.

Eginkizunak.

- a) Neurri zuzentzaileak proposatzea (ingeniaritza zibilekoak edo bestelakoak), beharrezkoak direnak arrisku

mota jakin batzuen ondorioei aurre egiteko, horiek kontrolatzeko edo txikitzeko, baita oinarrizko zerbitzuak berrezartzeko ere.

- b) Neurri horiek aplikatzeko beharrezkoak diren lan tresneria eta ekipamendu bereziak aztertzea.
- c) Larrialdiaren eta ekintzen jarraipen tekniko egitea.
- d) Planaren zuzendaritzari lortutako emaitzak jakinaraztea, baita larrialdiaren bilakaeran arlo honetan agertuz joango diren beharrak ere.

5.3.2.3.- AKTIBATU BEHARREKO BESTE GUNE OPERATIBO POSIBLE BATZUK

1) OSASUN POSTU AURRERATUA (OPA).

Larrialdiaren izaeraren eta larritasunaren arabera, Osasun Taldeko arduradunak, zuzendariarekin adostu ostean, Osasun Postu Aurreratu bat edo batzuk ezarri eta izendatu ahal izango ditu, eta horiek izango dira osasun lanerako organoa larrialdia jazo den tokian. OPAko arduradunak eta helburuak lortzearen ezinbestean esku hartu behar duten organismo edo erakundeetako eta baliabide zein bitartekoetako arduradunek osatuko dute osasun zereginetarako organo hori.

Osasun Postu Aurreratu osasun arloko bitarteko mugikor bat da (denda modularra edo antzekoa), Osasun Taldeak instalatzen duena, bizkor eta gertaera tokitik hurbil, gutxieneko tresneria duen osasun egitura fisiko bat eskaini ahal izateko. Osasun Postu Aurreratuaren lehen mailako arreta ematen zaie zaurituei, eta horien sailkapena egiten da, ebakuaziorako. Postuaren kokapenak ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Eragin eremutik hurbil baina arrisku eremutik kanpo egon behar du.
- Ikuserraza izan behar du biktimentzat edo laguntzarako organismoentzat.
- Eremu seguru batean kokatuta egon behar du, haizearen noranzkoaren aurka, kutsadura kimikoko kasuetan.
- Lurreko zein aireko ebakuaziorako sarbideak izan behar ditu.
- Elementu klimatikoetatik babestuta egon behar du.

2) BALIABIDEAK BILTZEKO PUNTUA (BBP).

Larrialdiaren izaeraren eta larritasunaren arabera, planaren zuzendariak, APAko arduradunarekin adostu ostean, Baliabideak Biltzeko Puntu bat edo batzuk ezarri eta izendatu ahal izango ditu, eta bertan bildu eta kudeatuko dira helburuak lortzeko lagungarriak izan daitezkeelakoan eskatu diren kanpoko esku hartze baliabideak.

Eskatutako baliabideen arabera, horiek biltzeko puntu egokia ezarriko da (biltegiak, nabeak, kiroldegia...), eta ezaugarri hauek izango ditu:

- Arduradun bat izango du, harreman zuzena izango duena APAko edo/eta Aginte Unitateko buruarekin.
- APAko edo/eta Aginte Unitateko buruarekin komunikatzeko kanala izango du, baita bidean diren bitartekoekin komunikatzekoa ere.
- Bilduko diren baliabideentzako espazio egokia izango da.
- Irrati eta telefono estaldura edukiko du.
- Komunikazio onak izango ditu sarrera eta irteera bideekin.
- Zirkulazio arineko eremua izango da.
- Ezbeharraren tokitik hurbil egongo da, eta toki segurua izango da, erraz aurkitzeko modukoa eta seinaleak dituen.

3) BIKTIMAK EDO EBAKUATUAK BILTZEKO GUNEA (BBG).

Larrialdiaren izaeraren eta larritasunaren arabera, planaren zuzendariak, APAko arduradunarekin adostu ostean, Biktimak edo Ebakuatuak Biltzeko Gunea bat edo batzuk ezarri eta izendatu ahal izango ditu, ezbeharrak zuzenean kaltetu dituen pertsonak bildu eta zenbatu ahal izateko, larrialdia amaitu arte eremu seguru batean eduki ahal izateko edo, beharrezkoa izanez gero, beste eremu seguruago batzuetara ebakuatu ahal izateko.


BBGk ezaugarri hauek izango ditu:

- Arduradun bat izango du, harreman zuzena izango duena APAko edo/eta Aginte Unitateko buruarekin.
- APAko edo/eta Aginte Unitateko buruarekin komunikatzeko kanala izango du, baita bidean izan daitezkeen lekualdatze edo/eta hornidura bitartekoekin komunikatzekoa ere.
- Bildu beharreko pertsona kopururako espazio egokia izango da.
- Irrati eta telefono estaldura edukiko du.
- Komunikazio onak izango ditu sarrera eta irteera bideekin.
- Zirkulazio arineko eremua izango da.
- Ezbeharraren tokitik hurbil egongo da, eta toki segurua izango da, erraz aurkitzeko modukoa eta seinaleak dituen.

Bestalde, modu orientagarrian, eta indarrean dauden hauteskunde barrutien eta hauteslekuen arabera, bikti-mak edo ebakuatuak biltzeko gunek ezartzen dira, auzoka:

BIKTIMAK EDO EBAKUATUAK BILTZEKO GUNEA (BBG)			
AUZOA	HAUTESLEKUA	HELBIDEA	HAUTESLE ERROLDA
1. Aiete (AI)	Jesusen Alabak Ikastetxea	Errondogañeko kalea 121	6.834
2. Altza (AL)	Harri Berri EP (Haur Hezkuntza)	Casares 155	4.189
	Altzako Kultur Etxea	Larratxo 55	2.089
	La Anunciata Ikastetxea	Loretebidea 2	1.068
	Herrera Ikastetxe Publikoa	Ederrena 21	6.021
	San José de Calasanz Ikastetxe Publikoa	Txapiñene 21	3.473
3. Amaraberri (AM)	Amara Berri EP (Haur Hezkuntza)	J. M. Salaberria 22	3.877
	Amara Berri EP (Lehen Hezkuntza)	Oleta 6	2.077
	Amara Berri-Morlans EP	Morlans 1	6.427
	Easo Politeknikoa GLHBI	Felipe IV.a 1B	4.264
	Usandizaga Institutua	Felipe IV.a 1A	4.713
4. Añorga (AÑ)	Amasorrain Ikastola	Añorga 27	1.171
5. Antigua - Ondarreta (AO)	Lugaritz Kultur Etxea	Heriz 20	2.332
	Merkatu Zaharraren Eraikina	Alfontso XIII.a 3	3.628
	Antigua-Luberri BHI	Xalbador 9	8.223
6. Ategorrieta - Ulia (AU)	Ategorrieta Eskola Publikoa	Atarizar 22	6.827
7. Erdialdea (ER)	Udaletxea	Ijentea 1	2.667
	Urbietza Eskola Publikoa	Urbietza 38A	8.831
	Musika Kontserbatorio Profesionala	Easo 45	2.873
	Gipuzkoako Foru Aldundia	Gipuzkoa 1	2.075
	Goikoa Jauregia	Ijentea 6	1.854
8. Egia (EG)	Egia Kultur Etxea	Baztan 21	1.427
	Musika eta Dantza Eskola	Atotxako Zelaia 3	8.233
	Aitor Ikastola	Ametzagaña 40	3.799
9. Gros (GR)	Biteri Eskola Publikoa	San Frantzisko 7	6.375
	Gros Institutua	J. M. Barandiaran 12	7.697
10. Ibaeta (IB)	Zuzenbide Fakultatea	Manuel Lardizabal 2	7.959
11. Igeldo (IG)	Igeldo Eskola Publikoa	Igeldo 1	835
12. Intxaurrondo (IN)	Intxaurrondo Hegoa Eskola Publikoa	Baratzategi 19	4.383
	Intxaurrondo Ikastola	Zarategi 48	4.643
13. Loiola (LO)	Loiola Kultur Etxea	Aralar 17	7.127
14. Martutene (MA)	Arantzazuko Ama Ikastola	Martutene 48	2.339
15. Miracruz - Bidebieta (MB)	Mendiola Eskola Publikoa	Serapio Muxika 16	3.119
	Bidebieta Institutua DBH	Julio Urkixo 30	2.673
16. Miramon - Zorroaga (MZ)	-		
17. Zubietza (ZU)	Zubietza Eskola Publikoa	Learritza 52	228
GUZTIRA			146.350

ESKEMA: EGITURA ETA ANTOLAERA



5.4.- HERRI BABESEKO TOKIKO BATZARRA

Donostia udalerriak Herri Babeseko Tokiko Batzarra (HBTB) du, alkatearentzako aholku batzordea, udal barrutian izan daitezkeen arrisku edo larrialdi egoera oro koordinatu eta zuzentzeko.

Era berean, Herri Babeseko Tokiko Batzarra arduratuko da DULP mantentzeko ekintza guztiez, eta planaren jarraipenerako, ebaluaziorako eta hobekuntzarako sistema bat erabiliko du horretarako; alkateak koordinatuta jardungo du, hura baita Planaren administrazio orokorraren erantzulea.

Honako hauek dira HBTBko KIDEAK:

1) BATZORDEBURUA: alkatea.

2) BATZORDEKIDEAK:

- Herri Babeseko zinegotzi ordezkaria.
- Azpiegitura eta Hiri Zerbitzuetako zuzendaria.
- Hirigintzako zuzendaria.
- Gizarte Ongizateko zuzendaria.
- Ingurumeneko zuzendaria.
- Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuko zuzendaria.
- Udaltzaingoko zuzendaria.
- Prentsa Kabineteko burua.
- Herri Babeseko teknikariak.
- DYako ordezkariak.
- Gurutze Gorriko ordezkariak.

3) IDAZKARIA: korporazioko idazkaria edo hark eskuordetutako funtzionarioa.

Herri Babeseko Tokiko Batzarrak EGINKIZUN hauek ditu:

- 1) Donostiako udal barrutian izan daitezkeen arrisku edo larrialdi egoera orori aurre egiteko esku har dezaketen zerbitzu guztiak koordinatzeko irizpideak ezartzea.
- 2) Egiten diren herri babeseko planen txostena egitea eta udal organo eskumendunari aurkeztea, behin betiko onar ditzan.
- 3) Donostiako udal barrutian gertatzen diren arrisku larriko egoeretan, hondamendietan edo hondamen publikoetan aholku ematea alkateari, erabaki egokiak hartze aldera. Horrelakoetan, dagokion larrialdi planean alde zuzen izendatuta ageri diren batzordekideek eta alkateak beharrezkotzat jotzen dituen guztiek Aholku Batzordea eratuko dute.
- 4) Arriskuak zehazteko irizpideak ezartzea.

- 5) Berezko baliabideen nahiz besteren baliabideen katalogoa prestatzeko irizpideak ezartzea, baita hiriko arriskuen inbentarioa prestatzeko irizpideak ere.
- 6) Arriskuen prebentziorako gainbegiratze eta kontrol irizpideak ezartzea.
- 7) Hirian egiten diren sentsibilizazio planen txostena egitea, baita zerbitzuetako langileen prestakuntza planen txostena ere.
- 8) Urteko programak eta aurrekontu beharrak gainbegiratzea eta udal organo eskumendunari aurkeztea, onar ditzan.
- 9) Batzordeburuak agindutako beste batzuk.

6 OPERATIVIDAD

6.1.- KONTZEPTUA

Oro har, operatibitatea funtzio bat betetzeko ahalmena da. Kasu honetan, DULP2016ren OPERATIBITATEAK honako hau suposatzen du: hots, Planari ematen zaion ahalmena aurre egin diezaien bere lurralde eremuan sor daitezkeen arrisku larri, hondamendi eta hondamen publikoko egoerei.

DULP2016ren operatibitateak estrategia eta neurri multzo bat behar du, aurretik planifikatuak, plana martxan jartzeko balioko dutenak, larrialdi eremuaren eta larritasunaren arabera. Beraz, plana era malguan artikulatzea eskatzen du, aplikatua izan behar den lekua izatera, ezaugarri eta denborari dagokienez, eta kontuan izan behar dira hainbat ekintza maila horretarako, larrialdiaren egoeraren eta faseen arabera.

DULP2016 plana OINARRIZKO PLAN bat da, jardunbide orokorreko prozedura bakar bat definitzen duena. Arrisku bakoitzari dagozkion prozedurak Udal Jardunerako Planetan (UJP) eta Udal Jardunbide Protokoloetan (PRT) daude.

Operatibitatea zehazteko orduan, aintzat hartu behar da zer-nolako interkonexioa, erlazioa eta integrazioa dagoen maila desberdinetako larrialdi planekin, maila txikiagokoak nahiz handiagokoak.

6.2.- LARRIALDI FASEAK ETA ESKU HARTZEKO ZERBITZUEN MAILAK

Arrisku mota bakoitzean, FASEAK, EGOERAK eta LARRIALDI MAILAK determinatzen dituzten faktoreak daude: ezbeharraren ezaugarriak, iragarpen meteorologikoak, ingurumen kontrola, zaintza sistemek emandako informazioa, gertakariaren edo fenomenoaren bilakaera etab.

6.2.1.- FASEAK, EGOERAK ETA MAILAK

6.2.1.1.- LARRIALDI FASEAK ETA EGOERAK

Las FASES y SITUACIONES se referirán al estado en que se encuentra el incidente o fenómeno y en consecuencia FASEEK eta EGOEREK adierazten dute zer egoeratan dagoen ezbeharra edo fenomeno eta, hortaz, zer-nolakoa den larrialdia. Honako hauek dira:

0) Normaltasun fasea.

1) Alerta fasea.

- 1.1) Aurrealerta egoera.
- 1.2) Alerta egoera.
- 1.3) Alerta Goreneko egoera

2) Larrialdi fasea.

- 2.1) Larrialdi egoera.
- 2.2) Alarma egoera

3) Leheneratze fasea

6.2.1.2.- JARDUNBIDE MAILAK

MAILEK, aldiz, Ekintza Taldeak (ET) edo zerbitzuak zer alerta edo larrialdi egoeratan dauden adierazten dute, JARDUNBIDE MAILAK aintzat hartuta, Faseen eta Egoeren arabera, eta larrialdiaren larritasun potentzialaren arabera. Hiru (3) maila daude:

1) 0 maila.

Kalterik sortzen ez duten larrialdiak edo istripuak, edo ohiko udal baliabideen eta bitartekoen bidez kontrola daitezkeen kalteak sortzen dituztenak. Hau da, PREBENTZIO AKTIBAZIO bat da, egoerak eskatzen duenean esku hartzeko helburuarekin. Jardunbide maila hau ALERTA GORENEKO egoera batekin pareka daiteke.

2) 1 maila.

Udal eta/edo kanpoko baliabideen eta bitartekoen mobilizazio progresiboa (DULPek aurreikusitako Ekintza Talde bat edo gehiago) eskatzen duten kalteak eragiten dituzten larrialdiak edo istripuak. Talde horien ESKU HARTZE OPERATIBO PARTZIALA eragiten dute. Jardunbide maila hau LARRIALDI egoera batekin pareka daiteke.

3) 2 maila.

DULPek aurreikusitako Ekintza Taldeen (ET) udal baliabide eta bitartekoen ESKU HARTZE OPERATIBO TOTALA eragiten duten larrialdiak. Foru Aldundiaren edo autonomia erkidegoaren baliabideak eta bitartekoak ere erabil litezke, zeregin puntualetarako. Jardunbide maila hau ALARMA egoera batekin pareka daiteke

6.2.2.- NORMALTASUN FASEA

Normaltasun Fasea NORMALTASUN egoera bati dagokio. Garrantzi gutxiko ohiko gorabeheren ohiko jarraipen lanak egiten dira, arriskuak edo fenomenoak udal barrutian gauzatzeko aurreikuspenik gabe, edo bilakaera kaltegarria izan dezaketela adieraziko luketen zantzurik gabe.

6.2.3.- ALERTA FASEA

ALERTA fasean, gauzatu ez diren larrialdi posibleen aurreikuspenak daude, gauzatzera irits daitezkeenak, baldin eta hainbat faktore medio egoerak okerrera egiten badu. Oro har, aurreikuspen meteorologikoa duten fenomeno naturalei lotutako gorabeherak izan ohi dira, nahiz eta beste era batekoak ere izan daitezkeen

6.2.3.1.- AURREALERTA EGOERA

PREBENTZIO operatiboko ekintzen aldiari dagokio, arazo bat sortzeko probabilitatea dagoenean. Epe luzera eginiko iragarpenekin ere lot daiteke. Aurrealerta Egoeran, ekintza informatiboak eta egoeraren jarraipenerako ekintzak egingo dira.

Oro har herritarrentzat ARRISKURIK EZ badago ere, arriskupean egon daiteke kalteberatasun handiko jarduera edo gune jakin bat. Ez da abisu orokorrik emango biztanleria osoarentzat, litekeena bada ere informazioa helaraztea biztanleria sektore, jarduera edo elementu kalteberei, kalteak izan litzaketenak

6.2.3.2.- ALERTA EGOERA

ALERTA fasean, gauzatu ez diren larrialdi posibleen aurreikuspenak daude, GAUZATZERA irits daitezkeenak, baldin eta hainbat faktore medio egoerak okerrera egiten badu.

Alerta Egoerak PREBENTZIO operatiboko ekintzak barne hartzen ditu, ezbehar baten aurrean, arriskua definitzen duten parametroek agerian uzten dutenean arriskua gauzatu egin daitekeela berehala edo epe laburrean. Alerta Egoeran, informazio ekintzak egingo dira ekintza eta komunikazio talde guztiak prestatu, egokitu eta prest edukitzeko, egoeraren etengabeko JARRAIPEN eta ebaluazioarekin batera.

Prebentzio operatiboko ekintzak lan eta zeregin multzo bat dira, udal larrialdiko eta komunikazioko taldeen zereginak, baliabideak planifikatu eta egokitzeak, eta larrialdi egoera probable baten aurrean prestatzeko, erantzun denborak txikitzeari begira esku hartu behar izanez gero.

Horrela, Alerta egoerak, egoeraren analisiaren arabera, dagokion jardunbide protokoloa aktiba dezake (halakorik balego), baita JARRAIPENEN MAHAI TEKNIKOAK (JMT) ere.

Aurrealertatik Alerta egoerara igarotzean, autobabeserako ABISUAK eta argibideak ematen zaizkie herritarrei, epe laburrera aurreikusi den arriskuari aurre egiteko AHOLKUEKIN batera.

6.2.3.3.- ALERTA GORENEKO EGOERA

Ezbeharra gertatzear dagoela ikusten denean, giza baliabideen eta baliabide materialen AKTIBAZIO PREBENTIBOA egiten da (jardunbide maila: 0 maila), eta prestakuntza agindu taktikoak ezartzen dira esku hartzeko denborak txikitzeari begira. Prest egongo dira lehen esku hartze eta balorazio bat egiteko baliabideak, kalterik egonez gero.

Herritarrak eta ondasunak babesteko prebentzio neurriak hartu ahal izango dira, jarduerak etetea barne, kalteberatasuna eta esposizioa txikitzeak arrisku eragileei dagokienez. Gainera, egoeraren etengabeko jarraipen eta EBALUAZIO zehatza egingo da.

Ondorioz, Alerta Goreneko egoeran, egoeraren analisiaren arabera, dagokion Udal Jardunerako Plana (UJP) edo Jardunbide Protokoloa (PRT) (halakorik balego) aktiba daiteke, edo DULPa, hala badagokio, eta bat etor daiteke

hori LABlren edo plan berezi baten aktibazioarekin, haien Alerta Faseetan. Era berean, udal Krisi Mahaia (D-KM) bildu liteke, Jarraipeneko Mahai Teknikoa Krisi Mahai hori bihurtuta.

Larrialdiaren egoera zehatzaren arabera, babes neurriak ere har daitezke herritarrentzat, ondasunentzat eta ingurumenarentzat, eta lehen esku hartze batzuk egin.

6.2.4.- LARRIALDI FASEA

arrialdi Fasean, ezbeharra jada gauzatzen hasi da eta lehen kalteak edo gorabeherak izan dira. Ekintza Taldeek zuzenean ESKU HARTZEN dute, kalteak ahalik eta txikienak izan daitezke.

Hortaz, giza baliabideen, baliabide materialen eta bitartekoen AKTIBAZIO OPERATIBOA egiten da (Jardunbide mailak: 1 eta 2 mailak).

Bestetik, udal Larrialdi Fase hau aktibatzeak berekin dakar udal KRISI MAHAIA (D-KM) martxan jartzea, Jarraipeneko Mahai Teknikoa (JMT) D-KM bihurtuta.

Udal Larrialdi Fase honetan, egoeraren analisiaren arabera, dagokion Udal Jardunerako Plana (UJP) edo Jardunbide Protokoloa (PRT) (halakorik balego) aktiba daiteke, edo DULPa, hala badagokio. Bestetik, litekeena da hori bat etortzea LABlren edo plan berezi baten aktibazioarekin, haren Larrialdi Fasean.

Larrialdi Fase honetatik bi egoera sor daitezke, honako parametro hauen arabera:

- 1) Gertakariaren lurralde eremua.
- 2) Ezbeharrari aurre egiteko behar diren baliabideak.
- 3) Ezbeharraren ondorioei aurre egiteko ahalmena.

6.2.4.1.- LARRIALDI EGOERA

Egoera honetan, ezbeharrak kalte lokalizatu eta mugatu bat eragiten du lurraldean, maila ertaineko kalteberatasun egoeran dagoen biztanleria, ondare eta ingurumenean, eta horri aurre egiteko, biztanleria, ondarea eta ingurumena babesteko neurriak hartzeaz gainera, ESKU HARTZE PROGRESIBO bat egiten da eskura dauden giza baliabide, baliabide material eta bitartekoekin, definitutako organigramaren arabera eta Planean aurreikusitako funtzioekin eta koordinazioarekin.

Hala, giza baliabideen, baliabide materialen eta bitartekoen AKTIBAZIO OPERATIBOA egiten da (Jardunbide maila: 1 maila).

Bestetik, udal Larrialdi Egoera aktibatzeak berekin dakar udal KRISI MAHAIA (D-KM) martxan jartzea, Jarraipeneko Mahai Teknikoa (JMT) D-KM bihurtuta.

Udal Larrialdi Fase honetan, aktibatuta dago dagokion Udal Jardunerako Plana (UJP) edo Jardunbide Protokoloa (PRT) (halakorik balego), edo DULPa, hala badagokio. Azkenik, litekeena da egoera hau bat etortzea 0 Egoeraren aktibazioarekin, LABlren edo plan berezi baten Larrialdi Faseari dagokiona.

6.2.4.2.- ALARMA EGOERA

Egoera honetan, biztanleria, ondasunak eta ingurumena babesteko neurriak hartu ondoren eta martxan jarrita esku hartze progresiboa eskura dauden giza baliabide, baliabide material eta bitartekoekin, lurralde eremu zabal batera hedatzen da kaltea, kalteberatasun egoera handian dagoen biztanleria, ondasun edo ingurumenean, eta EZOHKO LAGUNTZA behar izaten da horri aurre egiteko.

Hala, giza baliabideen, baliabide materialen eta bitartekoen AKTIBAZIO OPERATIBOA egiten da (Jardunbide maila: 2 maila).

Aldi honetan, udal D-KMa aktibatuta dago.

Udal Alarma Egoera honetan, aktibatuta dago dagokion Udal Jardunerako Plana (UJP) edo Jardunbide Protokoloa (PRT) (halakorik balego), edo DULPa, hala badagokio. Azkenik, litekeena da Alarma Egoera bat etortzea 1 Egoeraren aktibazioarekin, LABlren edo plan berezi baten Larrialdi Faseari dagokiona.

6.2.5.- LEHENERATZE FASEA

Leheneratze Fasean, amaitutzat ematen da larrialdi egoera, eta ez da ikusten egoera hori berraktiba dezakeen arrazoirik. Leheneratze Fasea automatikoki aktibatzen da Larrialdi Fasea bere edozein egoeratan desaktibatzen denean.

Fase honi dagozkio leheneratze eta birgaitze lanak, kalteen arabera: hala nola biktimen arreta, behin behineko ostatua ematea, laguntza psikologikoa, osasun arreta, oinarritzko zerbitzuen eta azpiegituren funtzionamendua leheneratzea, etab.

Lan hauek guztiek martxan egon behar badute ere larrialdiaren hasieratik bertatik, fase honetan indartu egiten dira, larrialdiaren fokua kontrolatu eta arriskua desagertu ondoren.

Fase honetan, azkenik, gertatutakoaren analisi kritikoa egingo da, eta aztertuko dira bai arriskuarekin zerikusia duten gaiak bai larrialdiari aurre egiteko prozesu osoa.

LARRITASUN FASEAK ETA EGOERAK

FASEA	EGOERA-BALIABIDEAK	GERTAERA	PEMDSS-DULP	ZUZENDARITZA
JARRAIPENA	Normaltasuna	Udalerrian fenomeno gauzatu daitekeen aurreikuspenik ez dago.		
PREALERTA	1. PREALERTA (Epe luzerako iragarpena. Informatuta/Prealartan)	Fenomenoa gauzatu daitekeen aukera badago.		
ALERTA	2. ALERTA (Epe motzeko iragarpena. Gertagarri den ekintzarako prestatuta).	Fenomenoa gauzatzeko baldintzak ematen dira eta aurreikupenak zentzu horretan zuzentzen dira.		PRT/JMT
	3. ALERTA MAXIMA (Oso epe motzeko iragarpena. Baliabideen indartzea, jarraipen inaunkorra)		PREBENTZIO AKTIBAZIOA 0 Maila Hartzea / Zuzendaritza / Koordinazioa	PRT/ DULPDSS2016/ LABI(PB) JMT (BZ)/KM-DSS
LARRIALDIA	1. LARRIALDIA (Ekintza taldeen parte-hartze mailakatua)	Arriskua gauzatzeko gertu dago edo honez gero gertatu da	AKTIBAZIO OPERATIBOA 1 Maila Parte hartzea / Zuzendaritza / Koordinazioa	PRT/ DULPDSS2016/ LABI(PB) KM-DSS/KM-EAE
	2. ALARMA	Parte hartze baliabideak ohiz kanpoko laguntzaren beharra dute.		
LARRIALDIAREN AMAIERA	OINARRIZKO ZERBITZUEN BIRGAITZEA. (Ekintza taldeen eta baliabideen mailakatutako erretreta)	Ezbeharraren ondorioek pertsona, ondare eta ingurumenarentzat arriskua izateari utzi diote.	AKTIBAZIO OPERATIBOA 2 Maila Integrazioa eta laguntza	PB/ LABI/ KM-EAE

6.3.- PROZEDURA OPERATIBOA

PROZEDURA OPERATIBO bat definitzen da larrialdietan egin beharreko lanak kudeatu eta koordinatzeko, larrialdi egoerari aurre egiteko helburuarekin. Prozedura horren fase kritikoenak D-KMn garatzen dira, definitutako egitura eta antolakuntzaren arabera eta aintzat harturik mahai horren funtzionamendu parametroak.

Larrialdi egoera batean erabilitako prozedura operatiboak etapa hauek ditu:

- 1) Larrialdiaren jakinarazpena.
- 2) DULP2016 planaren aktibazioa.
- 3) Larrialdiaren garapena.
- 4) Larrialdiaren amaiera eta DULP2016ren desaktibazioa.

6.3.1.- LARRIALDIAREN JAKINARAZPENA

Larrialdi baten iragarpenari buruzko berria komunikatzea eta transmititzea da, edo alerta edo larrialdi egoera baten berri ematea dagozkien agintariei.

Larrialdi baten detekzioari buruzko informazioa hartzeko prozesua da, plana aktibatzea eragin dezakeena.

Aldi honetan, informazioa jaso ondoren abisuak ematen dituzten zentroetatik (SOS-Deiak edo LAEMZ), zeregin hauek egiten dira:

- 1) Ezbeharra sailkatzea.
- 2) Haren kokapena zehaztea.
- 3) Larrialdiaren hedadura eta larritasuna baloratzea.

Informazio hori jasota, dagozkion aginduak ematen dira, ezbeharra kontrolatzen hasteko.

Protokolo modura definitutako larrialdi mailen arabera, larrialdiaren berri emango zaio –edo ez– Planeko zuzendariari, eta honek erabakiko du DULPa aktibatzen den ala ez, eta beste jardun maila batzuetako arduradunei larrialdiaren berri ematen zaien ala ez.

Agintariei eginiko jakinarazpenez eta esku hartzeko deiez gainera, aktibatu diren faseen edo egoeren berri eman behar zaie gertakariaren ondorioak paira ditzaketen herritarrei eta ezbeharrari aurre egiten lagun dezaketen zerbitzu eta erakundeei. Hori guztia erne eta arretaz joka dezaten herritarrek eta erakundek, arrisku egoera sortu duten –edo sor dezaketen– zioei dagokienez, erantzun denbora txikitzeko modua emango duten prestaketa lanak egiteko, erne egoteko informazio berrien zain, eta babes neurriak hartzeko arrisku edo gertakari katastrofikoaren aurrean.

6.3.2.- PLANAREN AKTIBAZIOA

Behin ezbeharra identifikatuta eta ebaluatuta, haren garrantzia edo larritasunaren arabera, DULPa aktibatuko da, larrialdi egoerari dagokion mailan

6.3.2.1.- ALERTA FASEA

1) Aurrealerta Egoera.

Larrialdi egoera eragin dezaketen arrisku aldien edo arrisku espezifikoaren berri izan ondoren, prebentzio ekintzak jarriko dira martxan, baita ezbehar bat gertatzean ere, garrantzi txikikoa normalean baina arretaz jarraitzea eskatzen duena.

Ezbeharraren jarraipena egiteko, Jarraipeneko Mahai Teknikoa (JMT) sortuko da.

Zer jarduera egin erabakitzean, aintzat hartuko da Ekintza Taldeen edo zeresana izan dezaketen zerbitzuen Jardunbide Protokoloa.

2) Alerta eta Alerta Goreneko Egoera.

PSISZ-HBko teknikariak abisua emango die Aholkularitza Batzordeko (AB) kideei, ezbehar tipologiaren arabera aukeratuko direnak. Aholkularitza Batzordeak (AB) egoera aztertuko du, eta eskura duen informazioaren arabera, ezarri den fasea berretsi edo berregokituko du.

Planeko zuzendari teknikoak (ZT) egoeraren berri emango die Planeko zuzendariari (Z) eta SOS-Deiak 112 Larrialdiak Koordinatzeko Zentroei.

PSISZ-HBk planaren aktibazioaz ohartaraziko ditu Ekintza Taldeetako buruak (ETB), eta azken hauek beren talde barneko zerbitzu bakoitzarekin jarriko dira harremanetan.

Jarraipeneko Mahai Teknikoa (JMT) eratu ondoren, larrialdiaren arabera, Planeko zuzendariak Krisi Mahaia (D-KM) biltzeko deia egingo du.

ALERTA GORENEKO egoeran, Ekintza Taldeak edo zerbitzuak aktibatuko dira, o MAILAKO jardunbide mailan (aktibazio prebentiboa).

6.3.2.2.- LARRIALDI FASEA

Larrialdi edo Alarma Egoeretan, Planeko zuzendariak (Z) edo haren ordezkariak pertsonak bere gain hartuko du egoeraren zuzendaritza operatiboa, eta esku hartzeko aginduko die Ekintza Taldeei (ET), beharrezko zerbitzuei eta/edo laguntza talde osagarriei.

Aginte Postu Aurreratua (APA) larrialdi lekura iritsiko den lehenengo taldeak jarriko du, edo dagokion Udako Jardunbide Planeko (UJP) edo Protokoloan (PRT) ezarritako dagoen puntuari ezarriko da.

Planeko zuzendariak (Z) erabakiko du non ezarri EKUZa, Krisi Aretoan (DKA) eskuarki, eta deia egingo die larrialdi motaren arabera esku hartu behar duten udal Krisi Mahaiko (D-KM) kideei.

Planeko zuzendariak (Z) DULP2016ren aktibazio Fase eta Egoeraren berri emango die SOS-Deiak 112 Larrialdiak Koordinatzeko Zentroei.

Planeko Zuzendaritzak, egoera bakoitzean egin beharreko ekintzak erabakitzean, ezbeharraren nondik-norakoak eta ondorioak aztertuko ditu, ahalik eta gehien hurbiltzeko errealitatera plangintza operatiboan.

Konkrezio honen helburua da martxan jarritako ekintzen koordinazioa nabarmen hobetzea. Ekintzak berak arrazionalizatzeko modu bat da.

Zer, nola eta noiz erabakitzeko zehaztasunak eta xehetasunak, egoera bakoitzean egin beharreko operazioei dagokienez, nolabaiteko malgutasuna izan behar du, eta ez da komeni ez zurrunez jokatzeko (operazioen zehaztasun maila handiegi baten ondorioz) ez plangintza jarraibide lauso batzuetara mugatzea.

Edonola ere, plangintza operatiboak barne hartuko du:

- 1) Ondorioen ebaluazioa.
- 2) Egoeraren analisia.
- 3) Ezarri behar diren Aginte Postu Aurreratuak (APA).
- 4) Operazio eremua mugatzea: esku hartze, sorospen eta oinarritzko eremuak.
- 5) Hartu beharreko esku hartze, babes, sorospen eta leheneratze neurriak.
- 6) Erabili beharreko baliabideak eta bitartekoak.

Operazio hauek zehaztu ondoren, Ekintza Talde (ET) bakoitzak bere zeregina egokituko du, aurreikusitako egoera bakoitzerako ezarritako jardun prozeduren arabera, aginte egitura bateratuaren barnean.

Larrialdi Egoeran, Ekintza Taldeak edo zerbitzuak aktibatuko dira 1 MAILAKO Jardunbide Mailan (esku hartze operatibo partziala); eta Alarma Egoeran, 2 MAILAKO Jardunbide Mailan (esku hartze operatibo totala).

6.3.2.3.- LEHENERATZE FASEA

Ezbeharraren ondorioek pertsonentzat, ondasunentzat eta ingurumenarentzat arriskutsuak izateari uzten diotenean, larrialdiaren amaiera deklaratu du Planeko zuzendariak (Z) edo haren ordezkariak pertsonak.

Planaren Zuzendaritzak DULPren desaktibazioaren berri emango die Ekintza Taldeetako buruei (ETB), eta hauek beren taldeko zerbitzu bakoitzari jakinaraziko diote.

Gainera, Larrialdiaren Amaiera Fasearen eta DULPren desaktibazioaren berri emango die Planaren Zuzendaritzak SOS-Deiak 112 Larrialdiak Koordinatzeko Zentroei.

6.3.3.- PLANAREN AKTIBAZIO IRIZPIDEAK

Oro har, Planeko zuzendaria (Z) arduratuko da DULP2016a aktibatzeaz. Hala eta guztiz ere, arrazoi operatiboengatik beharrezkotzat hartzen denean, premiaz eta berehala jardutea eskatzen duten arrisku larri, hondamendi eta hondamen publikoko egoerak sortzen direnean, Planeko zuzendari teknikoak (ZT) Herri Babeseko zinegotziaren esku utziko du Planaren aktibazio operatiboa, dagokion fasean.

6.3.3.1.- ALERTA FASEAREN AKTIBAZIOA

1) Aurrealerta Egoera.

Ezbehar bat gerta daitekeelakoan prebentzio operatiboko ekintzak egin behar direla aurreikusten denean, DULPa aktibatzen da, Aurrealerta Egoeran.

Aurrealerta Egoeran informazio ekintzak egiten dira.

2) Alerta eta Alerta Goreneko Egoerak.

Honako egoera hauetan aktibatzen da DULPren Alerta edo Alerta Goreneko Egoera

- 1) Garrantzi txikiko larrialdi batean, hedadura txikikoa, ohiko baliabideekin kontrola daitekeena eta inolako arriskurik ez duena pertsonentzat, ondasunentzat eta ingurumenarentzat.
- 2) SOS-Deiak 112 Larrialdiak Koordinatzeko Zentroek LABI plana aktibatu dela jakinarazten dutenean, Alerta Fasean, udalerrian izan daitezkeen kalteengatik.
- 3) Larrialdi egoera baten amaieran, normaltasunera itzultzeko lanak egiten diren bitartean.


6.3.3.2.- LARRIALDI FASEAREN AKTIBAZIOA

DULPa aktibatzen da Larrialdi Faseari dagokion edozein Larrialdi eta Alarma Egoeratan. Zehazki, kasu hauetan:

- 1) Udalerrian larrialdi garrantzitsu bat dagoenean eta horrek arrisku larri bat sortzen duenean udalerriarentzat (edo bere bilakaeragatik sor dezakeenean).
- 2) SOS-Deiak 112 Larrialdiak Koordinatzeko Zentroek LABI plana aktibatu dela jakinarazten dutenean, larrialdi faseetan aurreikusitako edozein egoeratan, udalerrian izan daitezkeen kalteengatik.

LABIa aktibatzen denean Larrialdi Fasean (1 eta 2 Egoerak), Euskadiko Herri Babeseko Lurralde Planeko zuzendaritzari dagokio ekintza guztiak zuzendu eta koordinatzea, kontuan izanik planaren jarraibideak. Egoera horretan, DULPa LABIn integratzen da.

DULPREN AKTIBAZIO IRIZPIDEEN ESKEMA



6.3.4.- PLANAREN AKTIBAZIOAREN JAKINARAZPENA

DULPa aktibatzen denean, aktibazio horren berri emango du Planaren Zuzendaritzak SOS-Deiak 112 Larrialdiak Koordinatzeko Zentroen bidez.

Gainera, aldian-aldian, informazioa emango du egoerari eta martxan diren operazioei buruz, larrialdiaren aurreikuspen eta gorabehera buruz (egoera larriagotzen ari den ala ez) eta larrialdiaren amaierari buruz.

Bereziki, berehala jakinarazi beharko dira honako hauek, SOS-Deiak 112 Larrialdiak Koordinatzeko Zentroen bidez: erantzuteko ahalmenik eza (aurreikusitakoa edo egiaztatutakoa), eskura ez dauden baliabideen premia larria, edo norberaren lurralde eremua gaindi dezakeen edozein egoera.

6.3.5.- PLANEN ARTEKO INTERFASEA

Maila handiagoko planetikiko koordinazioa ziurtatzeko, DULPren (Larrialdia) edo LABIren (0 Egoera) Larrialdi Fasea aktibatuta dagoenean, LAEMZko kide bat egongo da aplikatzen ari den planeko zuzendaritzaren Aholkularitza Kontseiluan (AK).

SOS-Deiak 112 Larrialdiak Koordinatzeko Zentroen bidez egingo dira planaren titularren mende ez dauden baliabide eta bitartekoen mobilizazio eskaerak.

DULPren (Alarma) edo LABIren (1 Egoera edo hurrengoak) Larrialdi Fasea aktibatuta dagoenean, DULP plana LABIn integratuko da, baldin eta egoerak udalerriari eragiten badio; gainera, aktibatu egingo da lehenengo automatikoki, aktibatuta egongo ez balitz.

Alderantziz, LABIk ezarritakoari jarraiki, EKZ/EKZBren bidez, berehala helaraziko zaio Donostiako Udalari erkidegoko edo estatuko agintariekin eginiko edozein adierazpen edo komunikazio formal, alerta eta alarma egoerei edo planen aktibazio/desaktibazioei buruzkoa, baita beste edozein arrisku egoerari buruzkoa ere, zentroak horien berri badu eta udalerriari eragina izan badezakete.

BALIOKIDETASUN TAULA DULP ETA LABI

DULP-REN OPERATIBITATEA		
PSISZ-DSS	DULP	LAEMZ
	NORMALTASUN FASEA ABISUA 1. Organo Igorlea 2. Harrera: Klasifikazioa + Jakinarazpena + Jarraipena	NORMALTASUN FASEA
JMT-DSS Jarraipena KM-DSS Deialdia	ALERTA FASEA 1. AURREALERTA EGOERA Jakinarazpena + Jarraipena 2. ALERTA EGOERA Jakinarazpena + Jarraipena 3. ALERTA GORENEKO EGOERA 0. MAILA Prebentzio Aktibazioa	ALERTA FASEA
	EMERGENTZIA FASEA	
KM-DSS Emergentziaren Zuzendaritza Organoa	1. EMERGENTZIA EGOERA 1. MAILA Ekintza Operatiboa Partziala 2. ALARMA EGOERA 2. MAILA Ekintza Operatibo Osoa INTEGRAZIOA + Laguntza	EMERGENTZIA FASEA 0. Egoera EMERGENTZIA FASEA 1. Egoera EMERGENTZIA FASEA 2. eta 3. Fasea
JMT-DSS	BERRESKURAPEN FASEA	BERRESKURAPEN FASEA

EMERGENTZIA FASEAK DULP2016: BALIOKIDETASUNAK

LABI	JARRAIPENA	ALERTA FASEA	EMERGENTZIA FASEA				BERRESKURATZE FASEA
Funtzioak	Normaltasuna	Prebentzioa	Parte-hartzea				
		Segimendua	0. EGOERA	1. EGOERA	2. EGOERA	3. EGOERA	
			Aurremergentzia	Udalerri eremua/CAE	EAE eremua	Estatua	
			Udalerri eremua	Koordinazioa / Laguntza	Zuzend / koord	Zuzend Komitea	
			Laguntza				
DULP2016	JARRAIPENA	ALERTA FASEA	EMERGENTZIA FASEA				BERRESKURATZE FASEA
Funtzioak	Normalizazioa	Prebentzioa	Ekintza				
		1 AURREALERTA	1 EMERGENTZIA	2 ALARMA			
		Informazioa	Programatutako ekintza	Ekintza osoa			
		2 ALERTA					
		Prestaketa					

EMERGENTZIA FASEAK DULP2016: BALIOKIDETASUNAK

		3 GORENEKO ALERTA					
		0. MAILA	1. MAILA	2. MAILA	INTEGRAZIOA	INTEGRAZIOA	
		Prebentiboa	Operatibo Partziala	Operatibo osoa/Laguntza	Integ/Laguntza	Integ/Laguntza	
		Jarduketa arina	Zuzend/Koord	Zuzend/Integrazioa			
Aktibazioa		PAM/PRT/KM-DSS	DULP/LA-BI(PB)	DULP/LA-BI(PB)	LABI(PB)	LABI(PB)/PEEst	
Zuzendaria		MTS(BZ)	KM-DSS	KM-DSS/KM-EAE	KM-EAE	KMC-EAE/KM-EST	
KOZ		Ohikoa	KM-DSS(UE-KZ)	KM-DSS(UE-KZ)/EKZ	EKZ	EKZI	
UEP/PRTdss							
UrumeaUEP	Abisua	Abisua/Alerta*	Alarma/Emerg/Ebakuaz*	KM-DSS	Laguntza	Laguntza	
ElurraUEP	Abisua/Aurrealerta	Aurrealerta/Alerta*	Alerta/Emergentzia*	KM-DSS	Laguntza	Laguntza	
ItasosUEP	Abisua	Abisua/Mozketa*	Mozketa*	KM-DSS	Laguntza	Laguntza	
HaizeakPRT	Abisua	Abisua/Mozketa*	Itxiera*	KM-DSS	Laguntza	Laguntza	

* Kasu bakoitzeko jarduketa maila JMT(BZ)-k baloratuko du

6.4.- KRISI MAHAIA

6.4.1.- KONTZEPTUA

KRISI MAHAIA (D-KM) edo udal larrialdiko mahaia kabinete edo batzorde bat da, DULPeko zuzendariak (Z), alkatetiek edo zinegotzi ordezkariak (hala badagokio) deituta biltzen dena, eta helburutzat du ekintzak ebaluatu eta koordinatzea, dagozkion plan eta protokoloetan ezarritakoaren arabera, udalerrian sortzen diren krisi, larrialdi edo mehatxu motei aurre egiteko.

D-KMa, behin eratuta, LARRIALDIAREN ZUZENDARITZA ORGANOA izango da, eta ahalmen betearazlea izango du.

6.4.2.- KRISI ARETOA

KRISI ARETOA (DKA) D-KMk biltzeko eta lan egiteko erabiltzen duen leku fisikoa da. Areto hau Donostiako Udala-ren Suhiltzaileen Parkean (PSISZ) dago:

- Otxoki pasealekua 100, Intxaurrondo, Donostia.

DKA suhiltzaileen eraikin nagusiaren beheko solairuan dago. Aretora zuzenean sar daiteke eraikinaren ate nagusi ondoan dagoen atartetik, eta hurbil dago PSISZren komunikazio operatzaileen zentraletik. Aretorearen oinak trapezio angeluzuzen forma du, eta 40 m²-ko azalera. Argi naturala du, eta hego-mendebalde orientazioa. 15 lagunentzako lekua du, gutxi gorabehera.

Suhiltzaileen Parkeak (PSISZ) zerbitzu osagarri hauek eskaintzen dizkio DKARI:

- Bide komunikazio egokia.
- Ibilgailuentzako aparkaleku zabala.
- Ekipo elektrogenoa (GESAN - DVAS 275 E ME modeloa), 200 KW-eko potentzia nominalekoa, parkearen hornidura elektrikoan gerta daitezkeen etenaldietan erabiltzeko.

- Administrazio eraikin nagusia PSISZren komunikazio operatzaileen zentralarekin, beheko solairuan; office-a, lehenengo solairuan; eta guztiz hornitutako bulegoak eta aretoak, bigarren solairuan.

Gainera, DKAK honako EKIPAMENDU hau du:

1) Arbelak.

Frantziako larrialdi zerbitzuen ereduan oinarritzen den arbel sistema, honako arbel hauek dituena:

- Egoera Taktiko Eguneratua (EGTEG): arbel imanduna irudien proiektagailuarekin, ordenagailu eramangarriari konektatua.
- Hasierako Agindua (HA): eskuz erabiltzekoa.
- Esku Hartzeen Eskema (EHE): eskuz erabiltzekoa.
- Bitartekoen Kudeaketa (BK): eskuz erabiltzekoa.

2) Video Wall.

Video wall edo pantaila handia, 50 hazbeteko 4 TB monitorek osatua, ordenagailura konektatuta. Video wall honek bi aukera ematen ditu: pantaila osoa erabiltzea, irudi bakar eta handi bat ikusteko, edo 4 irudi aldi berean ikustea

3) Ur eta Saneamendu Zerbitzuaren pantaila

Ur eta Saneamenduko Udal Zerbitzuaren sarera konektatutako TB pantaila, ur eta saneamendu sareari buruzko informazioa eskuratzeko.

4) Komunikazioa.

Lanean ari diren agenteen irratiez gainera, D-KKren komunikazio sistemak osagai hauek ditu:

- Telefono finkoa zenbaki eskusiboarekin, zuzeneko komunikaziorako.
- WIFI sarea esku hartzen ari diren agenteentzat.
- SOS-Deiak Euskarri: ordenagailua 3 monitorerekin.
- D-PSISZ Komunikazio Operatiboko Zentroa: D-KKren ondoan kokatua.

5) Ekipamendu osagarria

- 2 ordenagailu: udal sarera konektatuak.
- Mahaiko eta paretako konexio elektrikoak.
- Mahaiko eta paretako sare konexioak.
- Koloretako inprimagailua eta eskanerra

6.4.3.- FUNTZIONAMENDU PRINTZIOAK

D-KMren funtzionamendua printzipio hauetan oinarritzen da:

1) Agintea.

AGINTE UNITATEA (AU), honako hauek osatua:

- Aginte Estrategikoa (Z): politikoa.
- Aginte Taktikoa (ZT): operazio teknikaria.

Gainera, AUren barnean daude:

- Krisi Mahaiaren arduraduna (KMA).
- Informazio Kabinetea (InfoK).
- D-KMren ordezkaria maila handiagoko planetan.

2) Taldea.

AHOLKULARITZA BATZORDEA (AB), honako hauek osatua:

Ekintza Taldeen (ET) edo Agentzien kopuru mugatua kopuru egokiena, 4.

- ET 1. maila: presentzia iraunkorra D-KMn
- ET 2. maila: larrialdiaren araberako presentzia.

3) Oinarrizko baldintzak

- AGINDUAK: antolakuntza hierarkikoaren arabera.
- KONTU EMATEA: antolakuntza hierarkikoaren arabera
- KONTROLA: aginduak betetzearena, txosten bidez edo ikuskapen bidez.
- ERANTZUKIZUNA: antolakuntza hierarkikoaren arabera.
- EKINTZA TAKTIKORAKO ASKATASUNA: Ekintza Talde (ET) edo Agentzia bakoitzarena
- KOORDINAZIOA: Aginte Taktikoaren (ZT) mende
- MALGUTASUNA: larrialdiaren gorabeheretara egokitzeko

6.4.4.- ANTOLAKUNTZA OPERATIBOA

6.4.4.1.- ZUZENDARITZA EGITURA: AGINTE UNITATEA (AU)

1) Aginte Estrategikoa (Z).

ESTRATEGIAren xedea da larrialdi egoera batean ZER EGIN? galderari erantzutea, eta Jardunerako Plan Orokor bat ezartzean datza, helburuak eta lehentasunak definituta.

Aginte Estrategikoa planeko zuzendariaren (Z) esku dago: ALKATEA edo Herri Babeseko zinegotzi ordezkaria. Aginte Taktikoa (operazio teknikaria) izango du beti ondoan, aholkuak eta argibideak jasotzeko.

Funtzioak:

- Plana aktibatzea, D-KM biltzeko deia egitea eta mahaia eratzea.
- Larrialdiaren zuzendaritza (Z): ESTRATEGIA.
 - Egoeraren ANALISIA: Arrazoibide Taktikoa (AT).
 - **AURRERAPENA.**
 - Arriskuak identifikatzea.
 - **HELBURUAK ETA LEHENTASUNAK.**
 1. Salbatzea: pertsonak edo ondasunak salbatzea.
 2. Gelditzea: zabal dadin edo arriskutsuago bihur dadin saihestea.
 3. Kontrolatzea: ez zabaltzea edo larriagotzea.
 4. Murriztea: ezbeharraren magnitudea txikitzea.
- KONTROLA: jarraipena, ikuskapena, txosten analisiak, etab.
- ERANTZUKIZUNA: erantzukizun kateko arduradun goren.
- **KOMUNIKAZIOA:** Informazioa eta kanpo komunikazioa (InfoK).
- LEHENERATZEA: aurrerapena, helburuak eta lehentasunak.

2) Aginte Taktikoa (ZT).

TAKTIKAren xedea da larrialdi egoera batean NOLA EGIN? galderari erantzutea, eta finkatutako estrategia praktikan jartzean datza.

Aginte Estrategikoa planeko zuzendari teknikoaren (ZT) esku dago: Herri Babeseko teknikaria edo larrialdi motaren arabera esku hartzen duen Agentzia nagusiko arduraduna. Aginte Estrategikoaren (Z) ondoan egongo da beti, aholkuak eta argibideak emateko.

Funtzioak:

- Aholkuak eta argibideak ematea plana aktibatzeko eta D-KMa eratzeko.
- Larrialdiaren Zuzendaritza Teknikoa (ZT): AHOLKULARITZA ETA TAKTIKA OPERATIBOA.
 - ANALISIA: Arrazoibide Taktikoa (AT).
 - AURRERAPENA.
 - **ESKU HARTZEA:** koordinazio operatiboa, helburu eta lehentasun estrategikoak betetzeko ekintza taktikorako askatasunarekin: sektorizazioa, baliabideak eta bitartekoak, maniobrak eta ekintzak, etab.
- **LOGISTIKA:** baliabideen kudeaketa (baliabideen ekonomia).
- **TRANSMISIOAK:** komunikazio kanalak (irratia, telefonoa, e-mail, SMS, whatsapp, etab.).
- **PUNTU TAKTIKOAK:** D-KM, APA edo APT, OPA, BBP, BBG, etab.
- **TXOSTENAK:** kontu emateak, jarraipena, kontrola, etab.

3) Krisi Mahaiaren arduraduna (KMA).

Aginte estrategiko eta taktikorik ez dagoenean (edo badagoenean), Krisi Mahaiaren arduradun bat (KMA) izendatuko da. Herri Babeseko (HB) teknikariek hartuko dute beren gain ardura hori, D-KMren prozedurak eta tresnak ezagutzen dituztelako.

Funtzioak:

- Egoera Taktiko Eguneratuaren (EGTEG) arbela kudeatzea eta eguneratzea.
- Egoera Eguneratua (EEG) kudeatzea eta eguneratzea.
- Agindu Grafikoak (AG) kudeatzea eta eguneratzea.
- Informazio pantailak kudeatzea eta eguneratzea.
- APA edo APT, OPA, BBP, BBG eta abarrekiko komunikazioa kudeatzea.
- Informazioa eta barne komunikazioa koordinatzea.
- Esku hartzen ari diren agentziak koordinatzea.

4) Informazio Kabinetea (InfoK).

Informazio Kabinetea (InfoK) arduratzen da D-KMren kanpo komunikazioaz (hedabideak, herritarrak, agente politikoak, etab.).

Donostiako Udaleko Prentsa Kabinetea arduratzen da InfoK kabineteaz, eta planeko zuzendariaren (Z) esanetara dihardu.

Funtzioak:

- Komunikazioa hedabideekin.
- Informazio zuzena herritarrei.
- D-KMren gaineko presio mediatikoa txikitzea.

5) D-KKren ordezkaria maila handiagoko planetan.

Aginte Unitateak (AU) pertsona bat izendatuko du larrialdian aktiba daitezkeen maila handiagoko planetako Krisi Kabineteetan aritzeko.

Aginte Estrategikoak (Z) udal ordezkaria/ak izendatuko du/ditu maila handiagoko planetan eta plan berezietan aritzeko, plan horietako zuzendariak dei egiten dutenean bilerak egiteko edo Jarraipeneko Mahai Teknikoak (JMT) edo Krisi Mahaiak (KM) biltzeko. Ordezkarik horren/horien izendapena tresna horien aktibazioa gorabehera egin ahal izango da, aurreikuspen modura.

Oro har, PSISZko teknikariren bat hautatuko da, Aholkularitza Kontseiluko edozein kide ere izan badaiteke ere, larrialdi motaren arabera.

6.4.4.2.- EGITURA OPERATIBOA: TALDE OPERATIBOA (TO)

Talde Operatiboan (TO), D-KMn dauden Ekintza Taldeak (ET) edo Agentziak arituko dira. Ekintza Taldeak (ET) edo talde operatiboak zerbitzu eta pertsonen multzoak dira, larrialdia gertatu den lekuan esku hartzen dutenak, ohiko zerbitzu operatiboetan integratuta, babes, esku hartze, sorospen eta leheneratze lanak eginez, Aginte Unitateak (AU) ezarritako helburu eta lehentasunen arabera.

ETen arduradunek, dagokion ETren ordezkariak eta aginte funtzioez gainera, egin diren edo egin behar diren lanen berri emango dute, honako arbel hauen bidez:

- Hasierako Eskema (HE).
- Baliabideen Kudeaketa (BK).
- Agindu Grafikoak (AG) EGTEG.

1) ESKU HARTZE TALDEA (EsHT).

- Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzua (**PSISZ**): Donostiako Suhiltzaileen Parkea.
 - Arduraduna: **PSISZ**ko ofizial operatiboa.

2) SEGURTASUN TALDEA (SegT).

- Udaltzaingoa (**U**).
 - Arduraduna: Udaltzaingoko ofizial operatiboa.
- Mugikortasun Zerbitzua (**MUG**).
 - Arduraduna: MUG Atal Operatiboko arduraduna.

3) OSASUN TALDEA (OsaT).

- Osakidetza (**OSK**).
 - Arduraduna: Osakidetzaiko Larrialdi Zerbitzuko arduraduna.
- DYA (**DYA**).
 - Arduraduna: DYako arduradun operatiboa.
- Gurutze Gorria (**GG**).
 - Arduraduna: GGko arduradun operatiboa.

4) TALDE LOGISTIKOA (Tlog).

- Gizarte Ongizatea (**GLUZ**).
 - Arduraduna: GLUZko arduradun operatiboa.
- Hiri Mantentze eta Zerbitzuak (**HMZ**): FCC, UTEASO, etab.
 - Arduraduna: dagokion zerbitzuko arduradun operatiboa zuzendaritza, ura eta saneamendua, bide garbiketa, hiri hondakin solidoak, ibilgailuak, bide publikoak, herri argiteria, eraikinen mantentzea, parkeak eta lorategiak, etab.
- DonostiaBus (**Dbus**).
 - Arduraduna: Dbus autobus lineen arduraduna.

5) TALDE TEKNIKOA (Ttek).

- Proiektuak eta Obrak (**PO**).
 - Arduraduna: eraikuntzako eta obra zibil eta azpiegituretako arduradun teknikoa.
- Hirigintza (**H**).
 - Arduraduna: eraikuntzako eta obra zibil eta azpiegituretako arduradun teknikoa.
- Iberdrola SA (**IBDR**).
 - Arduraduna: mantentze lanetako arduraduna.

- Naturcorp SA (NTG).
 - Arduraduna: mantentze lanetako arduraduna.
- Kanpoko adituak.
 - Arduraduna: teknikari espezialista.

6.4.5.- FUNTZIONAMENDUA

6.4.5.1.- ABISUA

Oro har, Herri Babeseko udal arduradunak/ek ABISU bat jasotzen duenean/dutenean (ezbehar larri baten abisua, edo ezbehar ez-larri batena, baina larriagotu egin daitekeena edo ezohiko arrisku egoera bat sor dezakeena), larrialdi egoera hasi eta udal Krisi Mahaia (D-KM) aktibatzen da. Abisua ohiko kanaletatik iristen da: posta elektronikoa, telefono deia era/edo SMS mezua

1) Organo abisu emaila

Honako hauek dira abisuak eman ditzaketen organo edo agenteak:

- 1.1) Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa: SOS-Deiak 112**
 - SOS-Deiak 112 zentroak bidalitako ezbehar larriagatik abisua
 - SOS-Deiak 112 zentroak bidalitako ezbehar ez-larriagatik abisua (TO), larriagotu egin daitekeena
- 1.2) Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza (LAEMZ): Fenomeno Meteorologiko Kaltegarriak (FMK).**
 - FMK abisua Alerta (laranja) edo Alarma (gorria) mailan.
 - FMK abisua Abisu (horia) edo Alerta (laranja) mailan, larriagotu egin daitekeena.

2) Abisua hartzea: sailkapena, jakinarazpena eta jarraipena.

Abisua hartzen duen/duten HBko teknikariak/ek lehen analisi, ebaluazio eta balorazioa egin eta ezbeharra SAILKATUKO du/dute. Ezbeharraren garrantziaren edo ezaugarri berezien arabera, hiru egoera sor daitezke:

- 2.1) Ezbehar txikia.**

Intentsitate edo garrantzi txikiko ezbeharra, arrunta eta ohikoa, Udal Jardunerako Planaren (UJP) edo dagokion Protokoloaren (PRT) bidez konpondu beharrekoa, baliabide eta bitarteko arruntak erabilia. Esku hartu behar duten zerbitzuei JAKINARAZI behar zaie eta ohiko JARRAIPENA egin behar da.
- 2.2) Ezbehar ertaina.**

Intentsitate edo garrantzi ertaineko ezbeharra, larriagotu egin daitekeena, Udal Jardunerako Planaren (UJP) edo dagokion Protokoloaren (PRT) bidez konpondu beharrekoa, baliabide eta bitarteko arruntak erabilia. Planeko zuzendariari (Z) eta esku hartu behar duten zerbitzuei JAKINARAZI behar zaie, eta JARRAIPEN xehe bat egin, Jarraipenerako Mahai Teknikoaren (JMT) bidez.

JMTa HBko teknikariak/ek osatuko du/dute, eta egoera larriagotuz gero esku hartu beharko luketen Ekintza Taldeen (ET) arduradunek ere parte hartu ahal izango dute.
- 2.3) Ezbehar larria edo larrialdi egoera.**

Intentsitate edo garrantzi handiko ezbeharra, larriagotu egin daitekeena, Udal Jardunerako Planaren (UJP) edo dagokion Protokoloaren (PRT) bidez konpondu beharrekoa, baliabide eta bitarteko arruntak erabilia. Planeko zuzendariari (Z) eta esku hartu behar duten zerbitzuei JAKINARAZI behar zaie, eta D-KMa AKTIBATU behar da.

6.4.5.2.- AKTIBAZIOA (AKT)

Larriagotu egin daitekeen ezbehar larri eta larrialdi egoeren kasuan, Planeko zuzendariari (Z) bidaliko zaio jasotzen abisua, D-KMa biltzeko proposamen batekin batera.

Planeko zuzendariak (Z) berretsi egingo ditu abisuaren analitik, ebaluaziotik eta baloraziotik ateratako ondorioak, eta, HBko teknikariaren laguntzaz, AKTIBATU egingo du D-KMa.

Mahaia aktibatzeko, DEI egingo die D-KMn parte hartzen duten agente guztiei. Jakinarazpena ohiko komunikazio kanalen bidez egingo da: e-maila, telefono deia, SMS, etab. Hala, D-KMren aktibazioa eta biltzeko deia honako hauen ondorioz gerta daitezke:

- 1) Zinetika geldoa edo progresiboa.**

Ezbeharraren bilakaera pixkanaka larriagotzeak D-KMa aktibatzeraz behartzen du.
- 2) Zinetika azkarra edo berehalako aktibazioa.**

Aurreikusitako ezbeharra edo gertatu dena araututa dago plan edo protokolo batean, eta D-KMa aktibatzen da hartan jasotako prozeduraren arabera.
- 3) Gizarte inpaktuak.**

Ezbehar motak edo haren bilakaerak gizartean eragindako inpaktuak D-KMren aktibazioa eskatzen du.

Erakunde, agente eta talde hauen parte hartzea aldatu ahal izango da, egoeraren eta larrialdi motaren arabera, oro har denek parte hartuko badute ere.

Une honetatik aurrera, D-KMa LARRIALDIAREN ZUZENDARITZA ORGANOA izango da, eta betearazteko ahalmena izango du.

6.4.5.3.- ERAKETA (ERAK)

Deia jaso duten agenteak DKAn bilduta, Planeko zuzendariak (Z) ERATUTZAT ematen du D-KMa.

Larrialdi plan edo protokoloek ezarritako prozeduraren arabera, oro har honako organo eta agente hauek osatuko dute D-KMa:

1) Zuzendaritza Egitura: Aginte Unitatea (AU).

- Aginte Estrategikoa (Z).
- Aginte Taktikoa (ZT).
- Krisi Mahaiaren arduraduna (KMA).
- Informazio Kabinetea (InfoK).
- Maila handiagoko planen ordezkariak.

2) Egitura Operatiboa: Talde Operatiboa (TO)

- Esku Hartze Taldea (EsHT).
- Segurtasun Taldea (SegT).
- Osasun Taldea (OsaT).
- Talde Logistikoa (Tlog).
- Talde Teknikoa (Ttek).

6.4.5.4.- AZTERKETA (AZT)

1) Funtzioa.

D-KMren lehen eginkizuna da larrialdi egoera AZTERTZEA, eskura duen informazioa erabilita; hau da, ezbeharra zer egoeratan dagoen jakitea. Eginkizun hau funtsezkoa da larrialdiaren arrisku posibleak analizatzeko (propagazioa, leherketa, laguntza elementuak, arriskuan dauden pertsonak, baldintzatzaileak, etab.), eta larrialdiari aurre egiteko erabiliko diren estrategia eta taktika erabaki aurretik egin behar da.

2) Helburua.

Larrialdia zer EGOERATAN dagoen jakitea eta INFORMAZIOA kudeatzea.

- Larrialdi mota: gertakaria, ezbeharra, istripua, sutea, etab.
- Esku Hartze Eremua (EHE) mugatzea: esku hartzeko eta segurtasun perimetroa.
- Bilakaera: arriskuen analisisa (erregaiak, elementu sentikorrak, etab.).
- EHEa iristeko bideak.
- Ezbeharraren ondorioak paira ditzaketen eraikinak, instalazioak, pertsonak, etab.
- Puntu seguruak detektatzea esku hartzen hasteko eta ezbeharra kontrolatzeko.
- Bitarteko motak eta kopurua ebaluatzea (kalitatea eta kantitatea) esku hartze lanetarako eta ezbeharra kontrolatzeko.
- Kondukzio energetikoko sistemak eta instalazioak eta kontrol puntuak.

3) Prozedura.

Agentzia edo ET bakoitzeko ordezkariak EHEren zeharkako azterketa egingo dute, APAk edo APTk emandako informazioa erabilita, lehen Egoera Eguneratu (EEG) bat egiteko. Beste informazio iturri batzuk ere erabil daitezke: TB irudiak, sare sozialak, droneek hartutako irudiak, etab.

EHEa bertatik bertara azter dezaketen bakarrak Aginte Estrategikoa (Z) eta Aginte Taktikoa (ZT) dira.

4) Tresnak.

Larrialdiaren egoeraren AZTa OINARRIZKO ARBELETAN adierazten da, egoerari buruzko lehen informazio partekatua emateko.

- Hasierako Agindua (HA): adierazpen idatzia.
- Egoera Taktiko Eguneratua (EGTEG): adierazpen grafikoa.

Aginte Taktikoa (ZT) eta/edo Krisi Mahaiaren arduraduna (KMA) arduratuko dira oinarrizko arbelak erabiltzeaz, ETen ordezkarien parte hartze eta laguntzarekin.

6.4.5.5.- EGOERA EGUNERATUA (EEG)

5 EGOERA EGUNERATUA (EEG) fasea larrialdiaren prozesu osoan garatu behar den funtzio bat da, fase bat baino gehiago. EEGk etengabeko informazio trukea eskatzen du, HA eta EGTEG oinarritzko arbelak eguneratuta edukitzeko. Horrela, EEGa egiten da bai D-KMren lehen 4. Fasean bai larrialdiaren egoera aldaketagatik edo hari lotutako gertakizun garrantzitsu bategatik beharrezkotzat hartzen den une edo fase bakoitzean.

2) Helburua

Larrialdi egoera etengabe EGUNERATZEA eta informazioa kudeatzea.

- Larrialdiaren hasierako egoera deskribatzea.
- Larrialdiaren uneko egoera deskribatzea.
- EHEren bilakaera.
- Eginiko esku hartzeak eta azalpena.
- APA edo APT postua antolatzea eta uneko kudeaketa.
- Berehalako arrisku posibleak eta arrisku iturriak.
- Gerora izan daitezkeen arriskuak.
- Maniobrak eta ekintzak proposatzea.
- Errefortzu baliabideak proposatzea.

3) Prozedura.

Agentzia edo ET bakoitzeko ordezkariak EHEren zeharkako azterketa egingo dute, APAk edo APTk emandako informazioa erabilita. Beste informazio iturri batzuk ere erabil daitezke: TB irudiak, sare sozialak, droneak, etab.

4) Tresnak.

EEGa OINARRIZKO ARBELETAN eta ARBEL OPERATIBOETAN adierazten da, larrialdiaren egoerari buruzko informazio partekatua emateko etengabe.

- Hasierako Agindua (HA): adierazpen idatzia.
- Egoera Taktiko Eguneratua (EGTEG) eta Agindu Grafikoak (AG): adierazpen grafikoa.
- Esku Hartzeen Eskema (EHE): adierazpen idatzia.
- Baliabideen Kudeaketa (BK): adierazpen idatzia

Aginte Taktikoak (ZT) eta/edo Krisi Mahaiaren arduradunak (KMA) jarraituko du/dute izaten oinarritzko arbelen erabileraren arduraduna/k; aldiz, ETen arduradunak arduratuko dira arbel operatiboez

6.4.5.6.- ARRAZOIBIDE TAKTIKOA (AT)

1) Funtzioa.

3 AZT eta 4 EEG faseetan lortutako informazioan oinarrituta, 6 ARRAZOIBIDE TAKTIKOA (AT) fasean, D-KMk larrialdi egoeraren analisia, ebaluazioa eta balorazioa egingo du, zenbait metodo eta sistema erabilita.

2) Helburua.

AT fasean, larrialdiari aurre egiteko mekanismoak zehaztuko dira: AURRERAPENA, AURREIKUSPENA eta IR-TENBIDE posibleen proposamena.

3) Prozedura.

ATk erabilitako metodoak edo sistemak honako hauek dira:

3.A) Galderen metodoa.

- A.1)** Zer?, Non? eta Nondik?
Ezbehar mota, ezaugarriak eta sarbideak.
- A.2)** Noraino?
Zer neurritaraino utz daitekeen egoera larriagotzen era horretan defentsa antolatzeko.
- A.3)** Zer egin?
Lehentasunezko helburuak zehaztea.
- A.4)** Nola?
Helburuak betetzeko egin behar diren lanak edo ekintzak zehaztea.
- A.5)** Zerekin? eta Norekin?
Lan edo ekintza horiek egiteko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak zehaztea.
- A.6)** Zer arau?
Agintea, kokapen geografikoa, segurtasun neurriak eta ekiteko unea zehaztea.

3.B) Iturria/Fluxua/Itua sistema.

- B.1)** EHEN identifikatzea uneko arrisku ITURRIAK (sutea, istripua, luizia, uholdea, etab.) eta egoera larriagotuz gero sor daitezkeenak.
- B.2)** EHEN identifikatzea uneko ITUAK (pertsonak, ondasunak, ingurumenekoak) eta zabal daitezkeenak.

- B.3)** Uneko edo etorkizuneko arrisku iturri bakoitzari dagozkion FLUXUAK definitzea (termikoa, mekanikoa, toxikoa, etab.).
- B.4)** Iturria Fluxua Itua multzoa zehaztea.
- B.5)** Zer egin? honako hauekin:
- Arrisku iturria/k.
 - Fluxua/k.
 - Itua/k.

4) Tresnak.

ATren prozesuan erabiliko da bai OINARRIZKO ARBELEN bai ARBEL OPERATIBOEN informazioa

6.4.5.7.- ESTRATEGIA (ESTR)

1) Funtzioa.

7 ESTRATEGIA fasean, Aginte Estrategikoak (Z) Jardunerako Plan Orokorra zehazten du, Aginte Taktikoaren (ZT) laguntzaz, larrialdiari aurre egiteko irizpideak eta helburu estrategikoak finkatuta.

2) Helburua.

ESTR fasearen helburuak dira:

- Larrialdi egoeraren bilakaeraren aurreikuspena: AURRERAPENA.
- Irizpide eta lerro estrategikoak definitzea: HELBURUAK ETA LEHENTASUNAK.

3) Prozedura.

Aginte Estrategikoak (Z), Aginte Taktikoaren (ZT) laguntzaz eta informazio eguneratua erabilita, larrialdiari aurre egiteko irizpide eta helburu estrategikoak zehaztuko ditu.

Aginte Estrategikoak (Z) jarraipen eta kontrol lana egingo du larrialdian zehar, irizpide eta helburu estrategikoak betetzen diren ikusteko. Larrialdi egoera aldatzen bada, irizpide eta helburu horiek aldatuko dira.

Era berean, Aginte Estrategikoak (Z), Prentsa Kabinetearekin (InfoK) batera, larrialdiaren kanpoko komunikazioa kudeatuko du (hedabideak, biztanleria, D-KMren gaineko presio mediatikoa, etab.).

4) Tresnak.

ESTR fasea OINARRIZKO ARBELEN bidez adierazten da.

- Hasierako Agindua (HA): adierazpen idatzia.
- Egoera Taktiko Eguneratua (EGTEG) eta Agindu Grafikoak (AG): adierazpen grafikoak.

Aginte Taktikoak (ZT) eta/edo Krisi Mahaiaren arduradunak (KMA) jarraituko du/dute izaten oinarrizko arbelen erabileraren arduraduna/k, ETen ordezkarien partaidetzaz eta laguntzaz.

6.4.5.8.- TAKTIKA OPERATIBOA (TAK)

1) Funtzioa.

8 TAKTIKA OPERATIBOA fasean, Ekintza Talde (ET) bakoitzeko arduradunek, ekintza taktikorako askatasunez eta Aginte Taktikoak (ZT) koordinatuta, operatibo egoki bat zehaztuko dute maniobrak eta ekintzak exekutatzeko, helburu bikoitz batekin: aurrez ezarritako irizpide eta helburu estrategikoak betetzea (pertsonek salbatzea, ezbeharra kontrolatzea, ondasunak eta/edo ingurumena babestea, etab.), eta Ekintza Talde (ET) bakoitzaren ZEREGLI-NAK ordenatzea, aukeratutako taktikak ikuspegi praktikotik gauzatzeko.

Esku hartzeak exekutatu ondoren, D-KMren parte emango da, kontu emateen, txostenen, jarraipenen... bidez, hura etengabe informatuta edukitzeko helburuarekin.

2) Helburua.

ET bakoitzaren helburua, dagokion arduradunaren gidaritzapean, esku hartzeak ahalik eta modu eraginkorrenean egitea izango da, irizpide eta helburu estrategikoak betetzeko.

3) Prozedura.

Larrialdirako estrategia zehaztu ondoren, ET bakoitzak erabili beharreko prozedurak aintzat hartuko ditu ekintza taktikorako askatasun irizpideak, Aginte Taktikoak (ZT) egoki koordinatuta. ET bakoitzak erabili beharreko prozedura esku hartze mota bakoitzerako ezarrita izango duena izango da.

4) Tresnak.

TAKa OINARRIZKO ARBELETAN eta ARBEL OPERATIBOETAN adierazten da, larrialdiaren egoerari buruzko informazio partekatua emanez etengabe.

- Hasierako Agindua (HA): adierazpen idatzia.
- Egoera Taktiko Eguneratua (EGTEG) eta Agindu Grafikoak (AG): adierazpen grafikoak.

- Esku Hartzeen Eskema (EHE): adierazpen idatzia.
- Baliabideen Kudeaketa (BK): adierazpen idatzia.

Aginte Taktikoak (ZT) eta/edo Krisi Mahaiaren arduradunak (KMA) jarraituko du/dute izaten oinarritzko arbelen erabileraren arduraduna/k; aldiz, ETen arduradunak arduratuko dira arbel operatiboez.

6.4.5.9.- LEHENERATZEA (LEHEN)

1) Funtzioa.

9 LEHENERATZEA larrialdiaren azken fasea da, eta oinarritzko zerbitzuak BERREZARTZEA du helburu. Aginte Estrategikoak (Z) amaitutzat emango du larrialdia, berraktibatze aukera nabarmenik ikusten ez duenean. Larrialdiaren berraktibazio posiblea kontrolatzeko, jarraipen mekanismo bat ezarri ahal izango da, JMT baten bidez edo beste modu batez.

Bestetik, fase honetan, Aginte Estrategikoaren (Z) zuzendaritzapean, larrialdian gertatutakoari buruzko ANALISI KRITIKOA egingo da.

2 Helburuak.

LEHEN fasearen helburuak dira:

- Biktimen arreta.
- Laguntza psikologikoa.
- Osasun arreta.
- Oinarritzko zerbitzuen funtzionamendua berrezartzea.
- Azpiegituren funtzionamendua berrezartzea.
- Bide garbiketa.
- Behin-behineko segurtasun neurriak.
- Larrialdiaren analisi kritikoa.
- Beste batzuk.

3) Prozedura.

Aginte Estrategikoak (Z), Aginte Taktikoaren (ZT) laguntzaz eta informazio eguneratua erabilita, leheneratze fase-rako irizpide eta helburu estrategikoak zehaztuko ditu.

Bestetik, ETen arduradunek operatibo egoki bat ezarriko dute esku hartzeen bidez leheneratze irizpideak eta helburuak betetzeko. ET bakoitzaren prozedura ekintza taktikorako askatasun irizpideen arabera gauzatuko da, Aginte Taktikoak (ZT) egoki koordinatuta. ET bakoitzak erabili beharreko prozedura esku hartze mota bakoitzerako ezarrita duena izango da.


4) Tresnak.

LEHEN fasea OINARRIZKO ARBELETAN eta ARBEL OPERATIBOETAN adierazten da, larrialdiaren egoerari buruzko informazio partekatua emanez etengabe.

- Hasierako Agindua (HA): adierazpen idatzia.
- Egoera Taktiko Eguneratua (EGTEG) eta Agindu Grafikoak (AG): adierazpen grafikoa.
- Esku Hartzeen Eskema (EHE): adierazpen idatzia.
- Baliabideen Kudeaketa (BK): adierazpen idatzia.

Aginte Taktikoak (ZT) eta/edo Krisi Mahaiaren arduradunak (KMA) jarraituko du/dute izaten oinarritzko arbelen erabileraren arduraduna/k; aldiz, ETen arduradunak arduratuko dira arbel operatiboez.

FUNTZIONAMENDUA



6.4.6.- TRESNA GRAFIKOAK

Krisiak edo larrialdiak kudeatzeko D-KMk tresna grafiko osagarri sorta bat du eskura. Tresna horiek ARBEL SISTE-MA batez daude osatuta, Frantziako larrialdi zerbitzuen ereduari jarraikiz, eta ezarritako funtzionamendu proze-
duraren oinarrizko laguntza dira.

1) Arbelak.

Sistemaren tresna grafikoak honako lau arbel hauek osatzen dituzte:

- Hasierako Agindua (HA): eskuzkoa.
- Egoera Taktiko Eguneratua (EGTEG) eta Agindu Grafikoak (AG): magnetikoa eta proiektatzekoa.
- Esku Hartzeen Eskema (EHE): eskuzkoa.
- Bitartekoen Kudeaketa (BK): eskuzkoa.

2) Eginkizunak.

- ESKEMATIZAZIO GRAFIKOA.
- DINAMISMOA.
- DENBORA ERREALA.
- DENBORA AURREZKIA.
- ULERMENA.
- UNIFORMIZAZIOA.

3) Helburuak.

- HARRERA.
- TRANSMISIOA.
- ULERMENA.

6.4.6.1.- OINARRIZKO ARBELAK

OINARRIZKO ARBELETAN informazio EGUNERATUA eta larrialdiari aurre egiteko ETRATEGIA agertuko da, larrial-
diak irauten duen denbora tarte osoan.

1) Hasierako Agindua (HA).

HA arbelak honako hauek jasoko ditu, eskematikoki eta IDATZIZ:

1.1) Etengabe EGUNERATUTAKO INFORMAZIOA larrialdiaren egoerari buruz.

- 4. fasea: Azterketa (AZT) hasierako informazioa.
- 5. fasea: Egoera Eguneratua (EEG) etengabe eguneratutako informazioa.
- Triajea: biktimak, zaurituak, desagertuak, ebakuatuak, eta abar.

1.2) Larrialdiari aurre egiteko agente unitateak (AU) adierazitako ESTRATEGIA.

- 6. fasea: Arrazoibide Taktikoa (AT) informazioan oinarrituta (AZT+EEG).

- 7. fasea: Estrategia (ESTR) Aurrerapena, helburuak eta lehentasunak.

1.3) Irudikatzea.

- Idatziz jasotzea eta laukiak adieraztea.

1.4.) Arduraduna.

- Zuzendari taktikoa (ZT) edo KMaren arduraduna (KMA), zuzendari estrategikoarekin (Z) eta ET parte hartzaileetako arduradunen parte hartzearekin.

2) Egoera Taktiko Eguneratua (EGTEG).

EGTEG arbela beste guztiekiko osagarria da, eta mapa edo plano batean eginiko honako hauen ADIERAZPEN GRAFIKO eskematikoa da:

2.1) Etengabe **EGUNERATUTAKO INFORMAZIOA** larrialdiaren egoerari buruz.

- 4. fasea: Azterketa (AZT) hasierako informazioa.
- 5. fasea: Egoera Eguneratua (EEG)eguneratutako informazioa.
- Triajea: biktimak, zaurituak, desagertuak, ebakuatuak, eta abar.

2.2) Larrialdiari aurre egiteko Aginte Unitateak (AU) adierazitako **ESTRATEGIA**.

- 6. fasea: Arrazoibide Taktikoa (AT) informazioan oinarrituta (AZT+EEG).
- 7. fasea: Estrategia (ESTR) Aurrerapena, helburuak eta lehentasunak.
- 8. fasea: Taktika Operatiboa (TAK) agindu grafikoen bitartez (AG).
- 9. fasea: Leheneratzea (LEHEN)leheneratze helburuen eta lehentasunen bitartez.

2.3) Irudikatzea: **ETENGABE MARRAZTEA** proiektaturiko maparen edo planoaren gainean.

- Larrialdiaren irudikapena: gertakaria, ezbeharra, istripua, sua, eta abar.
- Esku Hartze Eremua (EHE): meteorologia datuak, eraikina, kalea, bidea, ibilgailuak, landaredia, eta abar.
- Agintea: APA edo APT, Osasun Postu Aurreratua (OPA), Biktimen Bilera Gunea (BBG), eta abar (ESKU HARTZE FASEAN).
- Sektorizatzea: geografikoa edo funtzionala (EGINA).
- Baliabideak eta bitartekoak (ESKU HARTZE FASEAN).
- Logistika: BBG, Baliabideak Biltzeko Zentroa (BBZ), eta abar. (ESKU HARTZE FASEAN).
- Arrisku iturriak eta fluxuak.
- Puntu sentiberak edo ituak.
- Maniobrak eta ekintzak: erasotzaileak eta/edo defentsarakoak (ESKU HARTZE FASEAN).

2.4.) Arduraduna.

- Zuzendari Taktikoa (ZT) edo KMaren arduraduna (KMA), zuzendari estrategikoarekin (Z) eta ET parte hartzaileetako arduradunen parte hartzearekin.

6.4.6.2.- ARBEL OPERATIBOAK

ARBEL OPERATIBOAK adieraziko dute zeintzuk izango diren ESKU HARTZEKO MEKANISMOAK, mobilizaturiko BALIABIDEAK ETA BITARTEKOAK, baita egin beharreko MANIOBRAK ETA EKINTZAK ere, estrategia zehazten denetik larrialdia amaitzen denera arte.

1) Esku Hartzeen Eskema (EHE).

Arbelak honako hauek jasoko ditu, eskematikoki eta IDATZIZ:

1.1) ESKU HARTZE MEKANISMOA, zuzendari taktikoak (ZT) ezarritakoa, ekintza taktiko eta koordinazio askatasunaren irizpideen pean.

- 8. fasea: Taktika Operatiboa (TAK) honakoentzako tresnak
 - Arduradunak: harremanetarako telefonoak, komunikazio kanalak.
 - Zereginak: irizpide eta helburu estrategikoak betetzeko exekutatu beharrekoak.
 - Logistika: mobilizaturiko baliabideak eta bitartekoak, BBG, BBZ, eta abar.

1.2) INFORMAZIOA, esku hartzearekin loturikoa.

- 8. fasea: Taktika Operatiboa (TAK).
 - Kontuak ematea: txostenak, eta abar.
 - Zereginak: beterikoak.
 - Logistika: erabilitako baliabideak eta bitartekoak.

1.3) Irudikatzea.

- Idatziz jasotzea.

1.4.) Arduraduna.

- Larrialdian parte hartu duten ETen arduradunak, zuzendari taktikoaren (ZT) eta/edo KKaren arduradunaren (KKA) parte hartzearekin.

2) Bitartekoan Kudeaketa (BK).

Arbelak honako hauek jasoko ditu, eskematikoki eta IDATZIZ:

2.1) MOBILIZATURIKO BITARTEKOAK, Ekintza Talde (ET) bakoitzak erabili ohi dituenak ezarrita duen esku hartze mekanismoan.

- 8. fasea: Taktika Operatiboa (TAK).
 - Giza baliabideak.
 - Zerbitzua.
 - Kokapena.
 - Iristeko ordua eta amaiera.
 - Oharrak.

2.2) Ekintza Talde (ET) bakoitzaren BITARTEKOAK ERRETIRATZEA, larrialdi egoeraren amaieraren arabera.

- 9. fasea: Leheneratzea (LEHEN).

2.3) Irudikatzea.

- Idatziz jasotzea.

2.4) Arduraduna.

- Larrialdian parte hartu duten ETen arduradunak, zuzendari taktikoaren (ZT) eta/edo KMaren arduradunaren (KMA) parte hartzearekin.

3) Agindu Grafikoak (AG) EGTEG.

AGak EGTEG arbelaren gainean islatzen dira, eta mapa edo plano batean eginiko honako hauen ADIERA-ZPEN GRAFIKOA dira:

3.1) ESKU HARTZE MEKANISMOA, zuzendari taktikoak (ZT) ezarritakoa, ekintza taktiko eta koordinazio askatasunaren irizpideen pean.

- 8. fasea: Taktika Operatiboa (TAK).
- 9. fasea: Leheneratzea (LEHEN).

3.2) MOBILIZATURIKO BITARTEKOAK, Ekintza Talde (ET) bakoitzak erabili ohi dituenak ezarrita duen esku hartze mekanismoan.

- 8. fasea: Taktika Operatiboa (TAK).

3.3) Ekintza Talde (ET) bakoitzaren BITARTEKOAK ERRETIRATZEA, larrialdi egoeraren amaieraren arabera.

- 9. fasea: Leheneratzea (LEHEN).

3.4) Irudikatzea: MARRADUN MARRAZKIA.

- Agintea: APA edo APT, OPA, BBG, eta abar (EZARRI BEHARREKOA).
- Sektorizatzea: geografikoa edo funtzionala (EZARRI BEHARREKOA).
- Baliabideak eta bitartekoak (ESKU HARTU BEHARREKOA).
- Logistika: BBG, BBZ, eta abar (EZARRI BEHARREKOA).
- Arrisku iturriak eta fluxuak (ESKU HARTZEAREN BAITAN).
- Puntu sentiberak edo ituak (ESKU HARTZEAREN BAITAN).
- Maniobrak eta ekintzak: erasotzaileak eta/edo defentsarakoak (GAUZATU BEHARREKOA).
- Transmisio kanalak (ESKU HARTZEAREN BAITAN).

3.5) Arduradunak.

- Larrialdian parte hartu duten ETen arduradunak, zuzendari taktikoaren (ZT) eta/edo KKaren arduradunaren (KKA) parte hartzearekin.

KRISI MAHAIA		
ANTOLAKETA	PROZEDURA	BALIABIDE GRAFIKOAK
AGINTE UNITATEA (AU)	AKTIBAZIOA	OINARRIZKO ARBELAK
1. AGINTE ESTRATEGIKOA (Z) 2. AGINTE TAKTIKOA (ZT) 3. AHOLKU KOMITEA (AK) ARDURADUNAK ET 4. INFORMAZIO KABINETEA (INFOT) 5. KG-DSS ARDURADUNA (KGA) 6. KM-DSS ORDEZKARIA	A. ABISUA B. DEIALDIA EMERGENTZIA 0. OSAKETA (OS) Izendapenak 1. AZTERKETA (AZT) Informazioa 2. EGOERA PUNTUA (EP) Eguneratzea 3. ARRAZONAMENDU TAKTIKOA (AT) Metodoa Galderak - Iturria/Jarioa/Diana 4. ESTRATEGIA (STR) Aurrea hartzea - Helburuak - Lehentasunak 5. TAKTIKA OPERATIBOA (TAK) Ekintza taktikoen askatasuna - Koordinazioa 6. BERRESKURAPENA (BRK) Birgaitzea - Azterketa kritikoa o 2. EGOERA PUNTUA (EP)	1. LEHEN AGINTEA: LA Informazio eguneratua Aurre hartzea. Helburua y lehentasunak 2. EGOERA TAKTIKO EGUNERATUA:ETE Gertakaria, IZ, Agintea, Sektorizazioa, Birateko eta baliabideak, Logistika, Iturriak, Jarioa eta Dianak, Maniobrak y Ekintzak
TALDE OPERATIBOA (TOP)		ARBELA OPERATIBOAK
1. APA 2. EKINTZA TALDEAK (ET) 2.1. Parte-hartzea (PhT) Su-Hiltzaileak (PSISZ) 2.2. Segurtasuna (SegT) Udaltzaingoa (UD) Mugikortsuna (MUG) 2.3. Osasuna (OsaT) Osakidetza (OSK) Gurutze Gorria (GG) y DYA 2.4. Logistikoa (LogT) SMUS, MSU, DBUS, etc...		3. PARTE HARTZE ESKEMA: PhE Parte hartzeren antolaketa Informazioa y Berreskurapena 4. AGINTE GRAFIKOAK: AG Agintea, Sektorizazioa, Bitarteko eta baliabideak, Logistika, Iturria, Jarioa eta Dianak, Maniobrak y Ekintzak 5. BALIABIDEEN KUDEAKETA: BK Mugitutako balibideak Baliabideen desaktibazioa

6.5.- NEURRI OPERATIBOAK

Neurri operatibotzat jotzen da DULPeko zuzendaritza organoek eta Ekintza Taldeek (ET) gauzatu beharreko ekintza multzoa, esleitura dituzten zereginen arabera; helburua, pertsonen, ondasun materialei eta ingurumenari eragin dakizkiekeen kalteak kontrolatzea, galaraztea edo murriztea izanik.

6.5.1.- KALTEEN BALORAZIOA ETA ARRISKUEN EBALUAZIOA

Kalteen balorazioa da egin beharreko lehenengo gauza larrialdiak eragindako eremura iristean. Ekintza Talde (ET) guztiek, dagozkien erantzukizunen baitan, dagokion eremuan gertaturiko kalteen balorazioa egin beharko dute.

Balorazio horrek honako informazio hau bildu beharko du:

- 1) Gizakiei eragindako kalteak.
- 2) Erasandako ondasun materialak.
- 3) Hondamendiari loturiko arriskuak: hurbileko instalazio industrialak, puntu sentiberak, eta abar.
- 4) Erasandako eremu geografikoa.
- 5) Biztanleria kaltebera mota.

Balorazio horretatik abiatuta, Planaren zuzendariak (Z) behar adina informazio izango du larrialdiaren larritasuna ebaluatu eta hartu beharreko neurriekin eta mobilizatu beharreko baliabideekin loturiko erabakiak hartu ahal izateko.

6.5.2.- BABESERAKO NEURRIAK

Babeserako neurritzat joko dira Plan honetan aurreikusitako prozedurak, jardunak eta baliabideak, larrialdi egoera

batek biztanleriaren, Ekintza taldeetako kideengan, ingurumenean edo baliabide materialetan izan ditzakeen ondorioak saihestu edo arintzeko helburuarekin.

Planaren operatibitatean zehar hartu beharreko babes neurriak, oro har, honako hauek dira:

1) Biztanleria babesteko neurriak:

- a) Sarbideak kontrolatzea.
- b) Kaltetutako biztanleriarentzako abisuak.
- c) Segurtasun lekuetan babestea edo isolatzea.
- d) Ebakuatzea, dauden aukeren arabera.
- e) Osasun asistentzia.

2) Ondasunak babesteko neurriak, honakoak egiten ahaleginduta:

- a) Haien babesa bera, arreta berezia jarrita interes kulturekotzat izendaturiko ondasunetan.
- b) Lotutako arriskuak gerta daitezen saihestea.

3) Sorospen neurriak:

- a) Bilaketa, erreskatea eta salbamendua.
- b) Lehen sorospenak.
- c) Ebakuazioa (garraioa).
- d) Kalteturiko pertsonak sailkatzea, kontrolatzea eta ebaluatzea, haiei osasun eta gizarte asistentzia emateko helburuz.
- e) Lehen mailako osasun asistentzia.
- f) Larrialdiko aterpea.
- g) Hornidura.

4) Esku hartze neurriak:

Ekintza taldeek (ET) hartu beharreko esku hartze neurriak arriskuaren edo hondamendiaren eragilea kontrolatzeko eta neutralizatzeko.

6.5.2.1.- BIZTANLERIA BABESTEKO NEURRIAK

Larrialdiek beti sortzen dituzte herritarren aurrean erantzuna behar duten egoerak. Batzuetan, herritarrek gerta litekeen arriskuari laguntzarik gabe erantzuteko autobabeseko neurriak eta gomendioak izaten dira, eta, beste batzuetan, administrazioak zuzenean esku hartu behar izaten du pertsonen eta haien ondasunen babesaren gainean; azken hori erantzun globalagoa izaten da, alde batetik prebentzio ekintza bat izan daitekeena eta, bestetik, larrialdiko erantzun bat, gertatu den eta biztanleriari eragiten ari zaion arrisku baten aurrean bizitzak salbatzeko xede bakarrekin.

Arrisku batek zuzenean erasandako edo zeharka erasan dezakeen biztanleria babesteko, haien segurtasuna bermatuko duten neurri egokiak hartu behar dira, unean uneko baldintzen arabera, eta Planaren zuzendariak (Z) arbitratuko ditu neurri horiek jakinarazteko beharrezko komunikazio eta informazio bideak.

Biztanleria ezbehar garrantzitsu baten aurrean babesteko bi neurri nagusiak, aginduen arabera eta ezarritako abisu sistemekin bat, konfinamendukoak eta ebakuaziokoak dira.

1) Konfinamendua.

Une jakin batean, kaltetutako eremuko biztanleak beren etxeetan eta lanpostuetan geratzean datza, aurre egin behar dioten arriskuaren eta hartu beharreko autobabeserako neurrien berri izanda.

Segurtasun Taldeak megafonia bidez jakinaraziko dio biztanleriari konfinamendu aginduaren berri, eta Informazio Kabinetea arduratuko da jarraitu beharreko gomendioak zehazturiko sistemen bidez igortzeaz (SMS, Twitter, webgunea eta tokiko hedabideak).

Konfinamenduak, honako zeregin hauek eskatzen ditu, gaingiroki:

- a) Aire zabalean den biztanleriak eraikin batean sartu beharko du.
- b) Kanpoaldetik babestuen dauden esparruetan eta espazioetan konfinatzea.
- c) Ateak eta leihoak ixtea.
- d) Eraikinetik ez alde egitea agintariek hala adierazi arte.

Zenbait kasutan, biztanleei beren etxeetan KONFINATZEKO ondo informaturiko gomendioa, ebakuatzeko agindu bat baino egokiagoa izan daiteke, eta emaitza hobeak eduki ditzake.

2) Ebakuazioa.

Ebakuatzea zera da, talde bat bere ohiko bizilekutik mehatxuaren aurrean seguruagotzat jotzen den beste batera eramateko premiazko neurria. Ekintza horrek ondorio handiak izaten ditu gizartean, beraz, ezinbesteko denean bakarrik hartuko da halako neurri bat.

Ebakuazio bat erabakitzeke unean, ezbeharraren baldintza espezifikoak ebaluatu beharko dira, eta neurri horrek ekarritako abantailak eta eragozpenak aztertu.

Ebakuatzearen ABANTAILAK honako hauek dira:

- a) Biztanleria arriskuaren gunetik urruntzea.
- b) Ekintza Taldeen (ET) jarduera erraztea.
- c) Biztanleria artatzeko erraztasuna.
- d) Hondar arrisku txikiagoa.

ERAGOZPENEI dagokienez, hona hemen batzuk:

- a) Ebakuazioarekin loturiko arriskuak.
- b) Hondamendiaren eragin biderkatzailea.
- c) Abandonatutako eremuaren babesgabetasuna, lapurretak eta ekintza bandalikoak eragin ditzakeena.
- d) Arriskuak talde kritikoen mobilizazioan: gaixoak, haurrak, adineko pertsonak, eta abar.

Ebakuazioaren konplexutasuna eta garrantzia aintzat hartuta, DULP honek jarraibide orokor batzuk ezarri nahi ditu, biztanleriaren lekualdaketa bat beharrezkoa denerako. Jarduera hori gauzatzeko izan daitezkeen arriskuak direla eta, gerta liteke biztanleria guztia edo haren zati bat bakarrik lekualdatu behar izatea. Biztanleriaren hiru lekualdaketa mota bereizten dira: urruntzea, ebakuazioa (prebentziozkoa edo espontaneo), eta sakabatatzea.

2.1) Urruntzea.

Urruntzea zuzendariak edo zerbitzu operatiboek ezbeharraren prebentzioan edo haren aurkako borrokan erabaki beharreko hainbat jardunen arteko beste bat da; helburua ezbeharrak pertsonen gainean izan ditzakeen eraginak murriztea izan liteke, edo, besterik gabe, zerbitzu operatiboek esku hartzearen berezko premietako bat izango da.

Oro har, urruntzeko babes neurria aplikatzeak berekin dakartza honako baldintza hauek:

- a) Normalean zuzendari operatiboek erabakitzen dute.
- b) Gehienetan PREMIAZKOA izaten da.
- c) Zerbitzuen premia operatibo soil batek eragindakoa izan daiteke.
- d) Ohiko jarduna izaten da kutsadura kimikoaren arriskua dagoen kasuetan.
- e) Normalean, ez dakar berekin ibilbideak ezartzea, eta norabide guztietan gauzatzen da.
- f) Berein ekar dezake giza taldeari asistentzia eman behar izatea denbora tarte labur batez (gehienez egun bat).
- g) Denbora tarte ertain edo luzeetarako asistentzia premien kasuan, urruntzea ebakuazio bilakatuko da.

2.2) Ebakuazioa.

Ebakuazioa bi motatakoa izan daiteke:

a) PREBENTZIOZKO EBAKUAZIOA.

Prebentziozko izaera duen neurria da, eta gehienetan, premiazkoa. Helburua edozer ezbehar motaren eraginpean dauden edo egon daitezkeen pertsonak babestea da, eta biztanleria lekuz aldatuta egiten da, ondoren, giza taldeak aurrez ezarritako baldintzetan ostatzeko. Ondoren asistentzia edo osasun laguntza iraunkorra ezartzea ekar dezake, denbora tarte luze samar batez, eta eraginpeko biztanleria osoarentzat edo zati batentzat.

Oro har, prebentziozko ebakuazioko babes neurria aplikatzeak berekin dakartza honako baldintza hauek:

- a.1) Normalean Planaren zuzendariak (Z) erabakiko du, behar bezalako aholkularitza jaso ostean.
- a.2) Aurretik urruntze bat egon liteke.
- a.3) Hura gauzatzeak premiazko izaera eduki dezake.
- a.4) Eraginpeko giza taldeari denbora tarte luze samar batez bizi asistentzia emateko beharra ekar dezake.

b) EBAKUAZIO ESPONTANEOA.

Arrisku edo ezbehar baten aurrean biztanleek kontrolik gabe eginikoa da, hainbat arrazoi direla eta; esate-

rako, informazio eskasa edo errealitatearen okerreko ezagutza. Gertatzen denean, jardunen ardura duten aginteak hura saihesten edo birbideratzen eta zuzentzen saiatu beharko dira.

Bi ebakuazio kasuetan, bai prebentziozkoa, bai espontaneo, Planaren zuzendariak (Z), Planaren zuzendari teknikoaren (ZT) bitartez, Ekintza Taldeak (ET) mobilizatuko ditu eta honako zeregin hauek esleituko dizkie:

- b.1)** Segurtasun Taldeak (SegT) orientazioa eskainiko dio ebakuatzen ari den biztanleriari, megafonia bidez, Logistika Taldeak (Gizarte Ongizatea) ezarritako kontzentrazio edo bilera guneetara joan daitezzen.
- b.2)** Informazio Kabineteak (InfoK) aginduak igorriko ditu hedabideen bitartez, xede berarekin.
- b.3)** Logistika Taldeak (Gizarte Ongizatea), biztanleria kontzentrazio puntuetara birbideratu ostean, aterpe egokietara bideratuko ditu.

2.3) Sakabanatzea.

Sakabanatzea ebakuazio mota bat dela jo daiteke, eta horren bitartez giza talde jakin bat bereizi egingo da egiazko edo balizko arriskuren bat ekar dakioken beste batengandik (adibidez osasun arrisku epidemiologiko bat).

Sakabanatzearen ezaugarriak ebakuazioaren berberak dira helburuei, plangintzari eta beharrezko baliabideei dagokienez.

6.5.2.2.- ONDASUNAK BABESTEKO NEURRIAK

Pertsonak babesteko lehentasunezko neurriak abian jarri ostean, hondamendiak erasandako ondasunak babesteko neurriak hartuko dira, aldi berean.

Horregatik guztiatgatik, balio edo garrantzi handiena duten ondasunak erreskatatzeko edo babesteko saiakera egingo da, izan haiek ondasun materialak, kultur ondasunak edo ingurumenekoak. Era berean, komunitatearen funtsezko ondasunak eta oinarritzko zerbitzuak, zein, narriatuz gero, dagoeneko sortu diren kalteak areagotzen lagun dezaketen arrisku berrien iturri izan daitezkeen azpiegiturak babesteko eta erreparatzeko neurriak ezarriko dira.

Larrialdi baten ostean ebakuazioa gertatu denean, ondasunen kontrola eta zaintza aurreikusi behar da, balizko lapurreten, erasoen edo harrapaketen aurrean, horiek Segurtasun Taldearen (SegT) betebeharrak edo eginkizunak izango direlarik.

6.5.2.3.- SOROSPEN NEURRIAK

Sorospen neurriek berekin dakarte eraginpeko pertsonei laguntzea larrialdia gertatu zen lekuan bertan. Oro har, sorospen jardunak zentratzeko, aintzat hartu behar da bizitzarentzat mehatxagarriak diren egoerak honela taldeka daitezkeela:

- a)** Desagertutako pertsonak.
- b)** Hondarren azpian harrapatutako edo isolatutako pertsonak.
- c)** Zauritutako edo kutsatutako pertsonak.
- d)** Ingurumenaren eta higienearen baldintzak direla eta gaixorik dauden pertsonak.

Larrialdiak eragindako pertsonen erreskatea Esku Hartze Taldeari dagokio (EsHT), eta ondorengo ekintzak, halakorik behar izanez gero, aldiz, beste Ekintza Talde batzuei dagozkio (OsaT, Tlog, eta abar).

Helburu nagusia sorotsitako pertsonaren biziraupena bermatuko duten eta biktimak jasandakoak baino are kalte larriagoak jasatea saihestuko duten baldintzak ziurtatzea da, denbora tarte batez tratamendu bat emanda, beste-lako arretak jasotzeko aukera duen arte.

6.5.2.4.- ESKU HARTZE NEURRIAK

Ekintza Taldeek (ET) gauzatu beharreko esku hartze neurriak, arriskuaren edo hondamendiaren eragilea kontrolatzeko edo neutralizatzeko, ekintza taktikorako askatasunean oinarrituta, eta zerbitzu bakoitzaren prozedura operatiboekin bat.

6.5.3.- BIZTANLERIARENTZAKO INFORMAZIOA

6.5.3.1.- INFORMAZIOA BABES GISA

Biztanleriari, alerta mezuen edo jarraitu beharreko gomendioen bidez, alerta edo larrialdi egoerari buruz emandako abisuak eta informazioa oinarritzko babes neurriak dira, eta egiazko informazio osoa ez izateak berekin dakarren babesgabetasuna saihesten dute.

Larrialdiari buruzko informazioa eskura dagoenean, ezinbestekoa da bereziki eraginpeko biztanleriari helaraztea, baita, oro har, gainerako biztanleei ere, Informazio Kabineteak (InfoK) sortutako alerta mezuen bitartez.

6.5.3.2.- EDUKIA ETA EZAUGARRIAK

Informazio horren unea eta edukia aldez aurretik zehaztu behar dira egoera bakoitzerako, mezuen kalitateak lortu nahi den ondorioa sortzen duela bermatuta, eta mezuak biztanleengan izan dezakeen inpaktua ebaluatu ostean, izu egoerak saiheste aldera.

Mezu horiek aldez aurretik zehaztuta egongo dira, eta megafonia sareak erabiltzen direnean, aurrez grabatuta egon daitezke, norberak jasandako eragin psikologikoak (oso arrunta larrialdi egoeretan) mezuen kalitatean eragin negatiboa izatea saihesteko.

Dokumentazio eta kontsulta funts bat sortuko da mezu horiek biztanleei igortzea errazteko, eta Informazio Kabineteetako (InfoK) arduradunek haietara jo ahalko dute, arrisku eta egoera konkretuekin loturiko "ereduzko mezuak" eskuratzeko.

Biztanleei zuzenduriko informazioaren edukia honakoei buruzkoa izango da:

- Larrialdiaren egiazko egoera une bakoitzean.
- Jarraitu beharreko babes neurriak eta gomendioak.
- Larrialdiaren bilakaerari buruzko aurreikuspenak.
- Ebakuazioa gertatzen bada: Nola? Bilera gunea?, eta abar.

Biztanleriari helarazitako abisuek honako ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- Argitasuna, guztiek ulertuko dituzten esaldi eta hitz errazekin eginak.
- Laburrak, ahalik eta hitz gutxien erabiltuta.
- Zehatzak, hartu beharreko jarrera zein den anbiguotasunik gabe adieraziko dutenak.
- Nahikotasuna, erabiltzaileek ezagutzea beharrezkoa den ezer isilean gorde gabe, baina beharrezkoak ez diren xehetasunetan sartu gabe.
- Errepikatuak izan behar dute.

6.5.3.3.- TRANSMISIO BIDEAK

Informazio hori igortzeko bideak honako hauek izango dira:

1) Tokiko megafonia sistemak.

LEHENENGO MAILA batean, larrialdi motak hala eskatzen badu, tokiko megafonia sistemak erabiliko dira, finkoak eta/edo mugikorrak, eta horien bitartez biztanleei helarazi ahalko zaizkie berehala aplikatu beharreko babes neurriak.

Megafonia sistema horiek udal planetan aurreikusita egon beharko dute, eta halakoez hornituko dira udalerriko ordena indar publikoak (SegT: Udaltzaingoa eta Ertzaintza), eta Esku Hartze Taldeko (EsHT) gainerako zerbitzuak.

2) Gizarte komunikabideak.

BIGARREN MAILAN, biztanleriari igorritako mezuak gizarte komunikabideen bidez emango dira (irratia eta telebista). Gizarte komunikabideak Planaren zuzendariaren (Z) erakunde lankideak dira, herri babeseko legediari jarraikiz, eta behartuta daude Informazio Kabineteak (InfoK) larrialdi egoera batean egin behar denari buruz biztanleen informaziorako eginiko mezuak zabaltzera.

Ondorio horietarako, DULPeK beharrezko loturak izango ditu Informazio Kabinetearen (InfoK) eta gizarte komunikabideen artean, eta azken horiek, etengabeko igorpen irrati elektrikoak bermatu beharko dituzte, baita baldintza txarretan ere, larrialdiko sorgailuak eta gainerako gailu teknikoak erabiltuta.

Protokoloak, hitzarmenak edo akordioak sustatuko dira telebistako eta irrati difusioko sozietate emakidadun na-

gusiekin, larrialdi egoeretan biztanleei zuzenduriko mezuen ahalik eta hedapen handiena bermatzeko xedez.

6.5.3.4.- ABISUEN SISTEMAK

Alerta edo larrialdi egoerari buruzko biztanleentzako abisu sistemak, haien babeserako informazio gisa ezarritakoak, honako hauek izango dira:

1) SMS bidezko abisua, harpidetza bidez.

Edozein herritarrek izango du aukera Donostiako Udalak dituen alerta zerbitzuetakoren batean harpidetzeko.

www.donostia.eus/larrialdiPlanak

1.1) Herri babeseko alertak.

Zerbitzu hau hiritar guztientzat da.

Harpidetuta daudenek SMS bidez edo posta elektronikoz jasoko dituzte Herri Babesak sortutako ALERTAK. Oro har izaera meteorologikoko alertak dira; esaterako, sute edo uholde arriskuak, eta abar, betiere pertsonentzat edo ondasunentzat arriskuak dakartzatenean.

1.2) Uholde arriskuagatiko alertak.

Abisu zerbitzu hau hiritar guztientzat da, baita uholde arrisku zehatzak erasateko balizko arriskua dutenentzat ere.

Harpidetuta daudenek SMS bidez edo posta elektronikoz jasoko dituzte Herri Babesak sorturiko alertak, UHOLDE ARRISKUAGATIKO ALERTA LARANJA dagoenean, eta, gainera, eremuan basoko suteraren bat gertatuz gero jarraitu beharreko gomendioak ere helaraziko zaizkie.

1.3) Basoko sutearen arriskuagatiko alertak.

Abisu zerbitzu hau hiritar guztientzat da, baita IGELDO, ULIA, ALTZA ETA LANDARBASO eremuetan basoko sutearen arriskuak erasateko arriskua dutenentzat ere.

Harpidetuta daudenek SMS bidez edo posta elektronikoz jasoko dituzte Herri Babesak sorturiko alertak, BASOKO SUTEAREN ARRISKUAGATIKO ALERTA LARANJA dagoenean, eta, gainera, eremuan basoko sutearen bat gertatuz gero jarraitu beharreko gomendioak ere helaraziko zaizkie.

2) Sare sozialak.

2.1) Telegram difusio kanala: [DSS_Babeszibila](#)

TELEGRAM plataformaren bidezko kanal askea da, gertatzen ari diren ezbehar garrantzitsuei buruz denbora errealeko informazioa jasotzeko.

2.2) Twitter: [@DSS_Babeszibila](#) Zibila.

Twitter kontu ofiziala, Donostiako Udalaren herri babeseko zerbitzuekin loturiko gertakariei, gomendioei eta informazio orokorrari buruzko #traola jakin batzuekin loturikoa.

3) Beste batzuk.

3.1) Megafonia bidezko abisua.

Aurrez adierazitako sistemak ez dituzten bizilagunei ezbeharrarekin loturiko premiazko gomendioak eta abisuak (ebakuazioa, konfinamendua, eta abar) helarazteko erabilitako boz gorako sistema.

Megafonia bidezko abisua Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren patruilen eta sistema hori duten bestelako asistentzia ibilgailuen bitartez egingo da.

6.5.4.- LEHENERATZE NEURRIAK

6.5.4.1.- KONTZEPTUA

Plan honen ondorioetarako, leheneratze neurritzat joko dira larrialdi egoeretan eten diren oinarritzko edo funtsezko zerbitzuen funtzionamendua leheneratzera zuzenduriko neurriak.

Oinarritzko edo funtsezko zerbitzutzat joko dira, halakorik ez egoteak herritarren bizitzari nabarmen eragiten diotenak, hau da, bide azpiegitura nagusiak, ur hornidura, estolderia, hondakin uren ebakuazioa eta arazketa, energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura, argiteria publikoa, semaforo sistema, telefonia eta telekomunikazioak, erregai hornidura (gas), hondakinen kudeaketa eta logistika (elikagaien hornidura).

6.5.4.2.- JARDUNAK

Ekintza Taldeen (ET) alde aurreko txostenaren ostean, Planaren zuzendariak (Z) lehentasunak ezarriko ditu oinarritzko zerbitzuak eta hornidurak leheneratzeari dagokionez; hala, lehenik eta behin, ez edukitzeak pertsonentzako arriskua eragin dezaketenak ezarriko ditu.

Beharrezkoa izanez gero, Kontingentzia Planak eta/edo dagokion protokoloak aktibatuko dira, oinarritzko edo funtsezko hornidurak ematen dituzten eta Udaletik kanpokoak diren enpresekin, gertakari edo ezbehar kasuetan lagun dezaten.

Larrialdi egoeretan, arazoak egon daitezke Donostian oinarritzko zerbitzuak leheneratzeko eta normalizatzeko, udalerriko baliabideak pixkanaka agortu eta sarri udal mugartean zeregin horiek betetzeko materialik eta makinanari ez egoteak larriagotuta. Egoera horietan, LABiri egokituko zaio biztanleriarentzat oinarritzkoak edo funtsezkoak diren gutxieneko zerbitzuak leheneratzeko lanak eta jardunak koordinatzea.

Erkidegoko mailan dauden protokoloak jarraikiz, beharrezko harremanak ezarriko dira zerbitzu bakoitzean hornikuntza leheneratzeko lanak egiteko ardura dutenekin.

Enpresa hornitzaile bakoitzaren baliabide operatibo eta teknikoaren arabera, LABik ezarriko ditu hornikuntzaren leheneratze segidako lehentasunak. Donostiako hiria enpresa hornitzaile bakoitzaren jardunei buruz jakinaren gainean egongo da, alkatearen edo haren ordezkariaren bitartez, larrialdiak eragindako pertsonen ahalik eta informazio gehien emateko xedearekin.

Aldi berean, D-KMk edo JMTk informazioa emango du hainbat zerbitzuren hornidurari buruz, informazioa bildu eta bateratzeko helburuarekin, zerbitzu horiek leheneratzeko ardura dutenei igorri ahal izateko.

6.5.4.3.- ZERBITZU ALTERNATIBOAK

Beharrezkoa izanez gero, atal honetan zerrendaturikoen tankerako zerbitzu alternatiboak hornitzeko konponbideak koordinatu eta arbitratuko dira; dena dela, eraginpeko oinarritzko zerbitzuen gabezia kasuetarako proposaturiko behin-behineko konponbide alternatiboak enpresa hornitzaile bakoitzaren Kontingentzia Planetan gartuko dira.

- a) Edateko uraren hornidura: Edateko uraren hornidura alternatiboa botilaratutako uraren banaketaren edo gaitutako zisterna ibilgailuen bitartez egingo da.
- b) Argindar hornidura: Argindar hornidura alternatiboa ekipo elektrogenoen bidez egingo da, eta lehentasunezko arreta eskainiko zaio ospitaleetarako, laguntza zentroetarako eta abegi etxeetarako (aterpeak) hornidurari. Enpresa hornitzaileak eta udal zerbitzuak dira hornidura leheneratzearen arduradunak, Planaren antolatzaileekin batera.
- c) Telefono zerbitzua: Telefono zerbitzua, hala badagokio, irrati bidezko komunikazioagatik ordezkaturiko da. Erabili beharreko maiztasunak Larrialdiko Udal Sarearenak izango dira, baita gainerako administrazioenak ere, Eusko Jaurlaritzaren Komunikazio Sarea barne, zeinak tokiko agintariak zuzenean SOS-Deiaekin lotze-ko aukera ematen duen.
- d) Gas hornidura: Botilaratutako gasa hornitzeari ekingo zaio, betiere enpresa hornitzaileen ekintza koordinatu eta bateratuaren bidez.

7.1.- INTERFASEA UDAL PLANEN ETA MAILA HANDIAGOKO PLANEN ARDURADUNEN ETA AGINTARIEN ARTEAN

INTERFASEA prozedura eta baliabide multzo bat da, hartu beharreko neurrien eta ekintzen aplikazioaren transferentzia eta jarraipena bermatzen duena, hurrenez hurren aplikatu beharreko planen artean.

DULPa maila handiagoko plan batean INTEGRATZEN denean, egokitu egiten da larrialdietarako udal antolakuntza Gipuzkoako Lurralde Historikoko Larrialdietarako Foru Planera (GLHLFP), Euskadiko Babes Zibileko Planera (Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea - LABI) eta maila handiagoko beste edozein planetara.

Integrazioak eskatzen du:

- 1) DULPeko zuzendaria (Z) maila altuagoko planaren Zuzendaritza Batzordean sartzea, egoki irizten badio azken plan horretako zuzendariak.
- 2) Etengabeko koordinazioa eta hartu-emana DULPeko arduradunen eta maila handiagoko planaren zuzendaritzaren artean.
- 3) Udal baliabideak esleitzea Ekintza Taldeei (ET), buru operatiboek koordinatuta.
- 4) Koordinazioa EKZ eta EKUZ edo D-KM artean, denbora errealean, maila handiagoko plana aktibatuta egon bitartean.
- 5) Informazioa helaraztea herritarrei, maila handiagoko planaren Informazio Kabineteak emandako jarraibideen eta zuzentarauen arabera.

7.2.- PLANEN ARTEKO INTERFASEA

Maila handiagoko planetik koordinazioa ziurtatzeko, Larrialdi Egoeran (DULPren Larrialdi Faseari edo LABIren 0 Egoerari dagokiona), LAEMZko kide bat arituko da aplikatzen ari den planeko zuzendaritzaren Aholkularitza Batzordean (AB).

SOS-Deiak 112 Larrialdiak Koordinatzeko Zentroen bidez egingo dira DULPrenak ez diren baliabideen mobilizazio eskaerak.

Alarma Egoera aktibatzen denean (DULPren Larrialdi Faseari edo LABIren 1 Egoerari edo hurrengoiei dagokiena), DULP plana LABIn integratuko da, baldin eta egoerak udalerriri eragiten badio, eta lehenengoa aktibatu egingo da automatikoki, aktibatuta egongo ez balitz.

7.3.- JAKINARAZPENA UDAL ETA FORU AGINTARIEI

Alderantziz, LABIk ezarritakoari jarraiki, EKZ/EKZB bidez, berehala helaraziko zaio Donostiako Udalari erkidegoko edo estatuko agintariek eginiko edozein adierazpen edo komunikazio formal, alerta eta alarma egoerei edo planen aktibazio/desaktibazioei buruzkoa, baita beste edozein arrisku edo hondamen publikoko egoerari buruzkoa ere, zentroak horren berri badu eta udalerrian eragina izan badezake.

7.4.- DULPETIK BEHERAGOKO PLANAK

DULPetik beheragoko planek, idatzi berriak edo egun aktibo daudenak (Udal Jardunerako Planak nahiz Protokoloak, baita udal barrutiko arriskuei aurre egiteko edozein barne larrialdietarako plan edo autobabeserako plan ere) bateragarriak eta koherenteak izan behar dute DULPrekin, eta azken honek ezarritako esparruan integratuta egon behar dute.

Udalak eginiko Udal Jardunerako Planak eta Protokoloak DULPn integratuko dira, eta integrazio horretarako mekanismoak aurreikusiko dituzte. Hala, baliabide osagarriak jartzeaz gainera, DULPren esku utziko dituzte automa-

etikoki eta eraginkorki larrialdiaren zuzendaritza eta koordinazioa.

Udal agintariek edo DULPeko arduradunek zuzendaritza lanak egitean edozein larrialditan, LABI edo EAE mai-lako beste planik aktibatzen ez den artean, SOS-Deiak 112 Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak arduratuko dira arrisku edo hondamendi egoeraren bilakaeraren jarraipena egiteaz.

Babes Zibileko sistema publikoan integratzeko, dagokion jakinarazpena helaraziko zaio udalari, eta integrazio prozedurak ezarriko dira.

8.1.- BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN KONTZEPTUAK

BALIABIDEAK: herri babesaren zereginetan, larrialdietan aritzen diren taldeek erabiltzen dituzten giza elementu eta elementu material guztiak, batez ere mugikorak direnak.

BITARTEKOAK: larrialdietako lanak ahalbidetu edo hobetzen dituzten elementu natural edo artifizial guztiak, batez ere estatikoak direnak

8.2.- BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN JATORRIA

DULPren baliabide eta bitartekotzat hartzen dira arrisku edo hondamen publikoko egoeretan erabil daitezkeen giza elementuak eta elementu materialak (edozein izaera edo titulartasunetakoak).

Titulartasun pribatuko baliabideak eta bitartekoak mobilizatu eta erabiltzeko, aintzat hartuko dira Larrialdiak Kudeatzeko Legearen 20. artikuluko irizpideak eta larrialdietan herritarrek laguntzeko duten betebeharra arautzen duen legedia (uztailaren 17/2015 Babes Zibileko Sistema Nazionalari buruzko Legearen 7 bis artikulua - Lankidetzaren betebeharra).

8.3.- BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN KATALOGOA

Baliabideen eta bitartekoen katalogoek datu deskribatzaileak, numerikoak eta grafikoak biltzen dituzte, erabil daitezkeen baliabide eta bitartekoei buruzkoak, propioak edo esleituak, dagokion plangintza mailaren arabera.

DULPren baliabideen eta bitartekoen katalogazioa egiteko, aintzat hartzen da indarrean dagoen sailkapen bakar eta kodetarako sistema homologatua.

Katalogazioan, kontuan hartzen da baliabide edo bitarteko bakoitzaren erantzun ahalmena (denborazkoa, kuantitatiboa eta kuantitatiboa), jarduteko modua aztertuz arrisku hipotesi bakoitzean, eta baliabidearen edo bitartekoaren titulartasuna adierazten da, gutxienez.

DULPren kapitulu honek (8. Kapituluak - Baliabideen eta Bitartekoen Katalogoa) bere baliabideen eta bitartekoen zerrenda laburbiltzen du, udal zerbitzuek sortutako baliabideen eta bitartekoen katalogo guztiak barne hartuz, udalarekin elkarlanean aritu ohi diren beste erakunde batzuen baliabide eta bitartekoekin batera. Udaleko Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuaren (PSISZ) ardura da katalogoa etengabe eguneratuta edukitzea.

Baliabideen eta bitartekoen katalogoa euskarri informatikoan edukiko dute Planaren zuzendaritza egitura osatzen duten organoek, DULPren dokumentazioarekin batera.

8.4.- BALIABIDEAK ETA BITARTEKOAK ELKARRI ESLEITZEA

Erakundearen arteko titulartasun publikoko bitarteko eta baliabideen esleipena bi eratan egin daiteke:

- a) DULPek ezarritako esleipen egonkor baten bidez.
- b) Kasuan kasu, arrisku edo hondamen publikoko egoerak sortutako premiaren arabera.

Esleipenaren helburua da DULPren ahalmen operatiboa osatzea, larrialdiari aurre egiteko lanak hobetzeko, lan horien osagarri modura. Esleipen akordioak honako hauek jasoko ditu gutxienez: bete beharreko funtzioak, dagokion planak aurreikusitakoaren barnean; esleitutako baliabide eta bitartekoak aktibatzearen prozedura; horiek planaren antolakuntzan txertatzeko modua; eta esleipenaren indarraldia.

Maila handiagoko administrazio baten (Eusko Jaurlaritza edo Gipuzkoako Foru Aldundia) titulartasunekoak diren

baliabideak eta bitartekoak DULPri (maila txikiagokoa) era egonkorrean esleitzea esplizituki egingo du baliabide edo bitarteko horien ardura duen organoak, planaren behar funtzionalak baloratu ondoren, eta esleipenaren berri emango dio Euskadiko Babes Zibileko Batzordeari.

Aurrekoa gorabehera, baliabideak eta bitartekoak esleitu behar dituen administrazioako agintarien esku egongo da horien erabilera baloratu eta, egoki iritziz gero, beste lurralde maila batzuetako beharretara bideratzea, DUL-Peko zuzendaritza organoari jakinarazi ondoren.

8.5.- DONOSTIAKO BALIABIDEEN ETA BITARTEKOEN ZERRENDA

1. Giza baliabideak

- 1.1. Teknikariak
- 1.2. Esku Hartzeko Talde Operatiboak
- 1.3. Ordena eta Segurtasun Taldeak
- 1.4. Laguntza Taldeak

2. Baliabide materialak

- 2.1. Aireko baliabideak
- 2.2. Herri Lanen Makineria eta Elementuak
- 2.3. Baliabide materialak. Beste batzuk

3. Bitartekoak

- 3.1. Garraio azpiegiturako bitartekoak
- 3.2. Oinarritzko zerbitzuak
- 3.3. Osasun eta/edo hileta zentroak
- 3.4. Aterpetxeak eta biltegiak
- 3.5. Larrialdietarako informazio, kudeaketa eta koordinazio zentroak
- 3.6. Gizarteko hedabideak
- 3.7. Bitarteko hidrikoak

BITARTEKO ETA BALIABIDEEN KATALOGOA

Kodea	Deskripzioa	Uni	Balioa	Erakundea	Kokale- kua	Iradoki- zunak
1.	GIZA BALIABIDEAK					
1.1.	TEKNIKARIAK					
1.1.1.	Herri babeseko espezialistak (HB)					
1.1.1.1.	HB Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorolo- giako Zuzendaritza (LAMZ-EJ)			LAMZ(HB)		
1.1.1.2.	HB Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA)			GFA(HB)		
1.1.1.3.	HB Donostiako Udala (D)			D(HB)		
1.1.2.	Natura arriskuetako espezialistak					
1.1.2.1.	Hidrologiako espezialistak			URA		
1.1.2.2.	Sismologiako espezialistak			-		
1.1.2.3.	Basoko suteetako espezialistak			GFA		
1.1.2.4.	Bulkanologiako espezialistak			-		
1.1.2.5.	Mendi hegaleen mugimenduetako espezia- listak			EGEO/D(AP)		
1.1.3.	Arrisku teknologikoetako espezialistak					
1.1.3.1.	Babes erradiologikoko espezialista			OSAKIDETZA		

BITARTEKO ETA BALIABIDEEN KATALOGOA						
Kodea	Deskripzioa	Uni	Balioa	Erakundea	Kokale- kua	Iradoki- zunak
1.1.3.2.	Gai kimiko arriskutsuetako espezialistak			DAEM/D(MA)		
1.1.4.	Teknikari espezialistak. Beste batzuk.					
1.1.4.1.	Meteorologiako espezialistak			LAMZ (EUSKALMET)		
1.1.4.2.	Komunikazioetako espezialistak			LAMZ/D(PSISZ-U)		
1.1.4.3.	Informatikako espezialistak			D(UIZ)		
1.1.4.4.	Eraikuntzen ikuskaritzako espezialistak			D(AP-HIR)		
1.1.4.4.1.	Eraikinen ikuskaritzako espezialistak			D(AP-HIR)		
1.1.4.4.2.	Azpiegitura lan handien ikuskaritzako es- pezialistak			D(AP-HIR)		
1.1.4.5.	Lehergaietako eta kontrolpeko eztrandetako espezialistak			ERTZAINZA		
1.1.4.6.	Laguntza psikosozialeko espezialistak			D(SMUS)/CR(ERIE)		
1.1.4.6.1.	Psikologoak			CR(ERIE)		
1.1.4.6.2.	Gizarte laguntzaileak			D(SMUS)/CR(ERIE)		
1.1.4.7.	Itzultzaileak			EHU/EOI		
1.1.4.8.	Osasun arloko langileak			OSAKIDETZA		
1.1.4.8.1.	OLT			OSAKIDETZA		
1.1.4.8.2.	Farmazialariak			OSAKIDETZA		
1.1.4.8.3.	Medikuak			OSAKIDETZA		
1.1.4.8.3.1.	Mediku intentsibistak			OSAKIDETZA		
1.1.4.8.3.2.	Auzitegiko medikuak			OSAKIDETZA		
1.1.4.8.4.	Biologoak			D(MA)/ARANZA- DI/AZTI		
1.1.4.8.4.1.	Mikrobiologiako espezialistak			EHU		
1.1.4.8.4.2.	Biokimikako espezialistak			EHU		
1.1.4.8.5.	Albaitariak			D(MA)		
1.1.4.9	Kultura Ondarearen Zaintzako espezialistak			D(HIR)		
1.2.	ESKU HARTZEKO TALDE OPERATIBOAK					
1.2.1.	Suhiltzaileak					
1.2.1.1.	D PSISZ			D(PSISZ)		
1.2.1.2.	Suhiltzaileen Zerbitzua (GFA)			GFA(SB)		
1.2.2.	Kimikako eta erradiologiako esku hartze taldeak					
1.2.2.1.	Babes nuklearreko esku hartze taldeak			LAMZ		
1.2.2.2.	Babes kimikoko esku hartze taldeak			LAMZ/D(PSISZ)		
1.2.2.3.	Su petrokimikoetako esku hartze taldeak			LAMZ/D(PSISZ)		
1.2.2.4.	Gai arriskutsuetako esku hartze taldeak			LAMZ/D(PSISZ)		
1.2.3.	Bilaketako, erreskateko eta salbamenduko esku hartze taldeak					
1.2.3.1.	Mendiko esku hartze taldeak			LAMZ/ ERTZAINZA		
1.2.3.2.	Espeleologia laguntzako esku hartze taldea			LAMZ/ ERTZAINZA		

BITARTEKO ETA BALIABIDEEN KATALOGOA

Kodea	Deskripzioa	Uni	Balioa	Erakundea	Kokale- kua	Iradoki- zunak
1.2.3.3.	Urpeko esku hartze taldeak			LAMZ/ERTZAIN- ZA		
1.2.3.4.	Itsas salbamenduko esku hartze taldeak			ITSAS SALB.		
1.2.3.5.	Pertsonak bilatzen trebatutako txakurren unitateak			LAMZ/ ERTZAINZA		
1.2.3.6.	Azpian harrapatuta geratutako pertsonak erreskatatzeko esku hartze taldeak			LAMZ/ ERTZAINZA		
1.2.4.	Basoko suteetarako esku hartze taldeak			GFA(SB)		
1.2.5.	Aireko azterketetarako taldeak			LAMZ/ ERTZAINZA		
1.2.6.	Bide sareen mantentze lanetarako taldeak			GFA/ ERTZAINZA/ D(U)		
1.3.	SEGURTASUN ETA ORDENA TALDEAK					
1.3.1.	Guardia Zibila			-		
1.3.2.	Polizia Nazionala			-		
1.3.3.	Ertzaintza			ERTZAINZA		
1.3.4.	Udaltzaingoa			D(U)		
1.3.5.	Segurtasun pribatuko taldeak			PROSEGUR		
1.4.	LAGUNTZA TALDEAK					
1.4.1.	Herri Babeseko boluntarioen taldeak			-		
1.4.2.	Suhiltzaile boluntarioak			-		
1.4.3.	Sorosleak			-		
1.4.4.	Irrati-amateurak			URE		
1.4.5.	Gurutze Gorria			GG		
1.4.6.	DYA			DYA		
2.	BITARTEKO MATERIALAK					
2.1.	AIREKO BITARTEKOAK					
2.1.1.	Helikopteroak					
2.1.1.1.	Salbamendu eta erreskate helikopteroak			ERTZAINZA/ ITSAS SALB.		
2.1.1.2.	Biztanleriari abisatzeko helikopteroak			ERTZAINZA		
2.1.1.3.	Suteak itzaltzeko helikopteroak			-		
2.1.1.3.1.	Suteak itzaltzeko helikoptero bonbaketariak, 1.300etik 4.000 litro arteko karga bentralekoak			-		
2.1.1.3.2.	Suteak itzaltzeko helikoptero bonbaketariak, 4.000 litrotik gorako karga bentralekoa			-		
2.1.1.3.3.	Suteak itzaltzeko helikopteroak, 1.500etik 2.500 litro arteko helibal dedunak			-		
2.1.1.3.4.	Suteak itzaltzeko helikopteroak, 2.500 litrotik gorako helibal dedunak			-		
2.1.1.4.	Azterketetarako helikopteroak			ERTZAINZA		
2.1.1.5.	Garraiatzeko helikopteroak			ERTZAINZA		
2.1.1.6.	Osasun garraiorako helikopteroak			OSAKIDETZA		
2.1.1.6.1.	Helikoptero medikalizatuak			OSAKIDETZA		
2.1.1.6.2.	Helikoptero medikalizagarriak			OSAKIDETZA		

BITARTEKO ETA BALIABIDEEN KATALOGOA						
Kodea	Deskripzioa	Uni	Balioa	Erakundea	Kokale- kua	Iradoki- zunak
2.1.2.	2.1.2 Hegazkinak					
2.1.2.1.	Suteak itzaltzeko hegazkinak			-		
2.1.2.1.1.	Suteak itzaltzeko hegazkin anfibioak, 5.000 litro artekoak			-		
2.1.2.1.2.	Suteak itzaltzeko hegazkin anfibioak, 5.000 litrotik gorakoak			-		
2.1.2.1.3.	Suteak itzaltzeko hegazkinak, lurrean kargatze-koak, 2.000 litro baino gutxiagokoak			-		
2.1.2.1.4.	Suteak itzaltzeko hegazkinak, lurrean kargatze-koak, 2.000tik 4000 litro artekoak			-		
2.1.2.1.5.	Suteak itzaltzeko hegazkinak, lurrean kargatze-koak, 4001etik 12.000 litro artekoak			-		
2.1.2.1.6.	Suteak itzaltzeko hegazkinak, lurrean kargatze-koak, 12.000 litrotik gorakoak			-		
2.1.2.2.	Azterketetarako hegazkinak			-		
2.1.2.3.	Garraiatzeko hegazkinak			-		
2.1.2.4.	Osasun garraiorako hegazkinak			-		
2.1.2.4.1.	Hegazkin medikalizatuak			-		
2.1.2.4.2.	Hegazkin medikalizagarriak			-		
2.2.	OBRA PUBLIKOETAKO MAKINERIA ETA ELEMENTUAK					
2.2.1.	Garabi gurpildunak (10 T arte)					
2.2.1.1.	Garabi gurpildunak (10 T-tik gora)			EMPRESAK		
2.2.1.2.	Garabi katedunak (10 T arte)			EMPRESAK		
2.2.1.3.	Garabi katedunak (10 T-tik gora)			EMPRESAK		
2.2.1.4.				EMPRESAK		
2.2.1.5.	Garabi autopropultsatua			EMPRESAK		
2.2.2.	Obra publikoetako traktoreak					
2.2.2.1.	Traktore gurpildunak			EMPRESAK		
2.2.2.2.	Traktore katedunak			EMPRESAK		
2.2.3.	Pala kargatzaileak, hondeamakina eta atze- rako hondeamakinak					
2.2.3.1.	Pala kargatzaileak (100 CV arte)			EMPRESAK		
2.2.3.2.	Pala kargatzaileak (100 CV-tik gora)			EMPRESAK		
2.2.3.3.	Hondeamakina gurpildunak (100 CV arte)			EMPRESAK		
2.2.3.4.	Hondeamakina gurpildunak (100 CV-tik gora)			EMPRESAK		
2.2.3.5.	Hondeamakina katedunak (100 CV arte)			EMPRESAK		
2.2.3.6.	Hondeamakina katedunak (100 CV-tik gora)			EMPRESAK		
2.2.3.7.	Atzerako hondeamakinak			EMPRESAK		
2.2.4.	Motonibelagailuak			EMPRESAK		
2.2.5.	Obra publikoetako material lagungarria					
